VERSAILLES-KO GORTEAN III

Erreienzian

Louis de Rouvroy
San-Simungo dukearen *Orhoitzapen*-etako orsto hautatuak

Jean-Baptiste Orpustan-ek euskarara itzulirik

*

Liburu herena
(1716-1723)

"Tout un siècle en huit années" (Jules Michelet)
"Zortzi urtez mende bat osoa"

Solas-aitzin

Orléans-ko dukea erreient eta nagusi, San-Simunek nahi bezalako konseiluekin, bera "Erreienziakoa" deritzoten konseilu nagusian, hor ote da, azkenean, gogatua zuen gobernamendua? erretate ez "osoa" baina "betegina" zutik ezarriko duena? Bada zer egin, eta, gortea Parisen Teilerietan, besta eta libertimenduen erdian, egiten da: iphar Europan bakea, gero laster, Alberoni kardinala Madrildik haizatu eta, Espainiarekin, Estatuko zorrak ordainduak, nahiz Law aipatuaren "sistima" nahasian; parlamentua hezia; Errusiako Betiri Handia Parisen, berantxago Turkiako embaxada ospeduna … Alta dukeak batere maite eztuen bat ari da goiti, Erreient "ahulak", mailez mail, nagusitzen uzten duen erakasle ohia, "Dubois apheza": Estatuko segeretari, arxapezpiku, kardinal, lehen minixtro. Zorionez, horra Espainiako ezkontzak antolatuak, eta dukea embaxadore berezi, Parisko gortetik Madrilgora ihesaldi bat: bidaia hemendik, Espainiako "handiak", bizi-moldeak, Filipe V-garrenaren gortea, xeheki ikusiak eta erakutsiak, ohore handienen erdian: eztiotea San-Simun han lehen minixtro gelldituko dela? Bortz ilabeteren buruan, Parisera itzultzeko ordu. Erreienzia iragana, gortea berriz Versailles-en, dukea baztertzen da. Dubois-ren heriotzeak aro berri bat sor lezake, Orléans-ko dukea ezpalakio laster jarraikitzen. *Orhoitzapenak* bihotz-min hortan bururatzen dira, egia eta alderdigabetasuna gogoan egin direla goraki erranez. Aitzinean, hondamena urrundu nahiz bezala, dukeak gibel urrats handi bat egin du, Lauzun koinataren heriotzean, 90 urtetan: iragan mende osoari azken behakoa …

Avant-propos

Le duc d'Orléans régent et maître, avec les conseils choisis avec notre duc, lui-même dans le principal qu'on nomme "de Régence", est-ce, enfin, le gouvernement qu'il avait conçu? celui qui mettra sur pied la monarchie non "absolue" mais "parfaite"? Il y a de quoi faire, et, la cour à Paris aux Tuileries, parmi fêtes et divertissements, on fait: paix en Europe du nord, et peu de temps après, le cardinal Alberoni chassé de Madrid, avec l'Espagne; les dettes de l'Etat épongées, même si dans le "système" brouillon du fameux Law; Pierre le Grand de Russie à Paris, un peu plus tard la fastueuse embassade de Turquie … Un que le duc n'aime pas du tout monte, pourtant, que le "faible" Régent laisse, pas à pas, s'imposer, son ancien précepteur "l'abbé Dubois": secrétaire d'Etat, archevêque, cardinal, premier ministre. Heureusement, voilà les mariages espagnols arrangés, et le duc ambassadeur extraordinaire, en une escapade de la cour de Paris à celle de Madrid: voyage par nos régions, les "grands", les modes de vie, la cour de Philippe V, vus et décrits en détail, parmi les plus grands honneurs: ne dit-on pas qu'il sera nommé là-bas premier ministre? Après cinq mois, c'est le retour à Paris. Régence terminée, le duc s'écarte de la cour, bientôt retournée à Versailles. La mort de Dubois pourrait ouvrir une ère nouvelle, si le duc d'Orléans ne le suivait de près … Les *Mémoires* s'achèvent dans ce crève-cœur, non sans affirmer hautement qu'ils ont été écrits dans un esprit de vérité et d'impartialité. Auparavant, comme pour retarder la catastrophe, le duc fait un grand retour en arrière (le *flash-back* de notre jargon) à l'occasion de la mort de Lauzun son beau-frère à 90 ans: ultime coup d'œil sur tout le siècle passé …

I

"Besta has dadila"

1716
Dantzaldi eta buruz-buruko gudu Parisen

Dantzaldi ainitz egin zen Parisen, Operakoez gainera. Azken hautarik batean aharra bat gertatu zen Richelieu-ko dukearen eta Gacé-ko konde, Matignon-go marexalaren semearen artean. Atheratu ziren, Richelieu-ko karrikan gudukatu eta biak arinki zauritu. Parlamentuak, Erreientaren ahuleziaz segur izanez, eta duken ezteuseriaz, egiten zezteen indarkerien azken errespetuarekin ez onhartzea ezpaitzeen barkatzen, nahi ukan zuen bada aroaz eta gertaldiaz baliatzeko aldia hartu, eta eskutitz ageririk gabe, behar, zuzen eta ohi den bezala, galdekatzen hasi zen, Richelieu-ko Jauna oraino parlamentuan sartua etzelako estakuru, sartze hori gabe gutiago duke 'ta pare balitz bezala, aitarenaren ondotik. Ephe berezi labur bat utzia izan zizeen, eta hamabortz egun barne Palazioko athezaindegira joaiteko manua, hori bururatu baino lehen Orléans-ko duke Jaunak Bastillara igorri baitzituen. Hala ere, parlamentuak etxera jakin-arazi zeen ephe berezia, eta Athezaindegira joan zitezen. Jaun horiek ikuslari ainitz ukan zuten Bastillan. Delako noblezia hura Maine-ko dukeak sustaturik, bere aroan aipatu dena, oraino irakitzen ari zen, eta azkarki gaitz iduritu zizakon Bastillara bi presonerren ikustera zoazin dukeak ezpatekin egon zaiten, eta berek bereak athean utzi behar ukan zitzaten. Harrabots handi, ohi duten bezala; baina harrabotsak bertzerik etzuen egin Erreientak, ontsa baitzakien zer zen eta zer izan behar, ohiduraz ikerraldi egin-arazteko gozatasuna ukan zuela ezpada, egiten zen bezalakoa zela aurkitu baitzen eta delako noblezia horrek deitoratzen zuena bezalakoa. Horrela ezpatak Bastillako athean utziz jarraiki zuen, eta dukek bereak atxikiz presondegi hortara sartzean eta norbaiten ikustera doatzin bertze guzietan, Errege zenaren aroan For-L'Evêque-en gertatu zizatan bezala, ezpataren uztea burura jin gabe, onhartuko enuena ere.

Berry-ko dukesa Anderea, Erreientaren alaba, Parisen erregina

Berry-ko dukesa Anderea baliatzen zen bere aldetik erregina baten ohore guziez zuzengaizki jabetzeko, San-Simun-go Andereak zerbait erranik ere, eta horrelako agintzer jarraikiko zizezteen nardamenez segurtatu bazuen ere. Parisen ibili zen timbalen soinuan, eta Errege han zen Teilerietako ur-hegi guzian. Villeroy-ko marexalak ekharri zauzkon zinkurinak biharamunean Orléans-ko duke Jaunari, hunek hitzeman baitzaukon Errege Parisen izanen zeno, han etzela haren timbalez bertzerik entzunen, eta Berry-ko dukesa Andereak eztu geroztik behin ere ukan. Joan zen ere komediara, pabellun bat ukan zuen bere egongian, bere zaintzaletarik laur tauladan, bertze batzu antzoki zolan, eta sala ohian baino biziki argituagoa, eta komedia baino lehen komediariak hitzaldiz mintzatu zizazkon. Horrek harrabots bitxi bat egin zuen Parisen Operako zolan haren pabellun gorak egina zuen bezala. Hala ere etzen ikuskizunetara horrela berriz agertzera menturatu; baina gibelerat ez egiteko ere, komediaren bere ohiko lekuan ikustea utzi zuen, eta Operan han doi-doia baizik, eta *incognito* bezala ikusia etzen egongia ttipi bat hartu zuen. Bertze nehon etzuen gehiago ikusi, eta komedia Operako tauladan jokatzera baitzetorren Madame-ren gatik, egongia ttipi hori bi ikuskizunetako baliatu zen.

Operara zoan egun batez, haren zaintzalek heltzen ari zen Conti-ko printzearen karrosa geldi-arazi zuten, eta karrosazaina gaizki erabili, printze hori bere karrosan zela. Egia dena alde orotarik etzela berrikeria hastapenik baizik da. Odoleko printzek etzezaketen osoki uka Frantziako alaben aitzinean gelditu behar zutelako eginbidea, orduan Frantziako semerik ezpaitzen, baina urrun egoiten zizezteen, eta egiaz etzuten haien aitzinean gelditu nahi; bertzalde, behar zen guzia bazen geldi-araztera bortxaturik, karrosazaina gaizki erabili gabe, eta hura karrosan. La Rochefoucauld-ko markesari deitoratu zen, Berry-ko dukesa Anderearen zaintzalen kapitaina, hunek ezpaitzuen ukan askiesteko moldez ihardesteko izipiritua, eta gauzaren eror-araztekoa. Conti-ko printze Jaunak, sistatua, Orléans-ko duke Jaunari hel egin zaukon, hunek Berry-ko dukesa Anderea bortxatu baitzuen etxera jin zakidion othoitz zezan. Jin zen; solasaldia jendearen aitzinean biziki behar ez bezala joan zen, eta egia erraiteko, andereak zuen izpiritu guziarekin, biziki gaizki athera zen; printze horri erasiak egin zauzkon ez hari berari hel eginik; karrosazaina salatu nahi ukan zuen eta bere zaintzalea desenkusatu, gero etzela ontsa heltzen ikusiz, eta Orléans-ko duke Jaunak obeditua izan nahi zuela, Conti-ko printze Jaunari erran

zaukon, zaintzale hori presondegira joan zadin nahi zuenaz geroz, joanen zela, baina othoizten zuela guti egon zadin. Urrikalgarri izan zen. Alabainan, zaintzalea doi-doia han ezarria izan zeneko athera zen Conti-ko printzesaren galdez. Harr-arazia zutela da guzia, eta etzela ez ezeren erraitera ez deitoratzera menturatu (…)

Aldiko andana baten ondotik, Rion-ez egiazki amoratua zen, Aydie-ko etxeko birden gazte bat, Biron-go Anderearen ahizpa baten semea, itxurarik ez izpiriturik etzuena. Mutiko lodi labur bat zen, mazela handi, hits, suldarrez betea eta handisu baten itxuratik urrun etzena. Bazituen hortz ederrak, eta etzuen guti baino gutiago asmatua geldi ezina bilakatuko zen sendimendu azkar bat sorr-araziko zuela, eta beti iraun zuena, aldikoak eta zeharkako gurariak debekatu gabe alta. Sos bat etzuen, baina biziki gehiago etzuten anaia eta arreba andana azkarra. Pons-ko Jauna eta Anderea, hau Berry-ko dukesa Anderearen aphainketako anderea, haien jendakiatik ziren, eta herrialde berekoak. Gizon gazte hori ekharr-arazi zuten, dragonen ordaria baitzen, hartaz zerbaiten egitera entseatzeko. Doi-doia ethorria izan zeneko gostu hori sortu zen, eta Luxembourg-ko jauregian nagusi bilakatu zen. Lauzun-go Jaunak, iloba-bitxia baitzuen, azpitik irri egiten zuen. Loriatua zen; uste zuen haren baitan bersortzen zela, Anderauren Handiaren aroan; erakaspenak emaiten zauzkon.

Rion eztia eta jitez jendetasunezkoa eta errespetuduna zen, mutiko on eta zuzena. Berehala senditu zuen printzesa baten ametseria gaixtatu ezin argitua baizik bil etzezaketen bere abantailen botherea. Etzen hortaz nehorekin sobera baliatu, bere burua guzier maita-arazi zauen bere ibilerez, baina Berry-ko dukesa Anderea erabili zuen Lauzun-go Jaunak Anderaurena egina zuen bezala. Laster dentela eta jantzi ederrenez aphaindua izan zen, zilharrez, untxieriaz, joiaz eta harrieriaz betea. Bere burua gutizia-arazten zuen; printzesari bekaizkeriaren sorr-araztea laket zizakon, eta bera ere hartaz oraino bekaiztiago agertzea. Usu nigar egin-arazten zaukon. Apurka haren baimenik gabe jeusen egitera ez menturatzeko heinean ezarri zuen, ez eta gauza ezteusenen ere. Noiz Operara joaiteko aphaindua, geldi-arazten zuen; noiz hark nahi gabe hara joan-arazten. Batere maite etzituen andere batzuer ontsa egitera bortxatzen zuen, edo hetaz bekaizti zener, eta laket zitzazkoner gaizki, berak hetaz bekaiztia bazegiela. Aphaindurarano, etzuen libertate den gutienik. Prest-presta zenean ileantzez edo jantziz alda-arazten jostatzen zen, eta hori hain usu, eta batzuetan hain publikoki, nun

arratsean biharamuneko aphainduraz eta egin behar zuenaz manuen hartzera jarria baitzuen, eta biharamunean guzia aldatzen zuen, eta printzesa hanbat gehiago nigarrez (…) Noiz ere den gutieneko gauzaren egitea bere gain hartzen bazuen haren baimenik gabe, sehi bat bezala bazerabilan, eta nigarrek batzuetan egun andana bat irauten zuten. Printzesa hain burgoi hori, eta urgulu neurrigabekoenaren erakustea eta agintzea hain laket zizakona, harekin eta jende ilun batzuekin aphairu batzuen egiterano jautsi zen, gizon batek ere etzezakeelarik harekin jan odoleko printze ezpazen.

Jesuista bat, A. Riglet izenekoa, haurra zenean ezaguna zuena, eta geroztik beti harekin harremanetan egona, aphairu berezi horietara onhartua zen, bera ahalgetua izan gabe, ez eta Berry-ko dukesa Anderea hortaz eragozpenean. Mouchy-ko Anderea, bertze nunbait aipatu dutana, barneko bitxi horien jakinduru segeretukoa zen; hark eta Rion-ek gomitak mezutzen zituzten, eta egunak hautatzen. Mouchy-sak printzesa usu baketzen zuen bere maitalearekin, eta hura baino hobeki arthatua zen, hortaz ohartzera printzesa ezpaitzen menturatzen, maitale hoin kharioa gal-araziko zaukon aharra baten beldurrez, eta segeretuko hain beharrezkoa. Bizi hori publikoa zen; orok Luxembourg-en Rion-go Jaunari hel egiten zaukoten, hunek bere aldetik artha handia baitzuen jende guziarekin ontsa bizitzeko, eta bakarrik bere printzesari, publikoan ere, emaiten etzaukon itxura errespetuzko batekin. Jendearen aitzinean ihardespen idor batzu egiten zauzkon ikusler begiak beheiti-arazten zezteetenak, eta Berry-ko dukesa Anderearenak gorri-arazten, ezpaitzen batere harendako zituen ara menperatu eta maite-minduen gordetzera kompainien aitzinean bortxatzen. Arraro dena da, bizi horren erdian, bizitegi bat hartu zuela Saint-Germain-go hiri-bazterreko karmelitetan, batzuetan hara bazoala bazkal-ondotan, eta beti etzatera besta-buruetan, eta usu egun zenbait han egoiten zela. Etzituen bi andere baizik eremaiten, bekan hirur, sehirik abantzu batere; andere horiekin jaten zuen komentuak antolatzen zaukona, khorora edo galeria batera bazoan eguneko ofizio orotan, eta biziki usu gaukoetan; eta ofizioez bertzalde, han batzuetan luzaz othoitzean zagon, eta beharrezko egunetan zuzen-zuzena barur egiten zuen.

Izpiritu ainitzeko bi karmelita, eta mundua ezagutzen zutenak, ongi-ethorri egin eta usu haren ondoan egoiteko ezarriak ziren. Bat bazen biziki ederra, bertzea hala izana zen ere. Aski gazteak ziren, oroz gainetik ederrena, baina serora ezin hobeak, eta sainduak, lan hori berek

batere nahi gabe bazegitenak. Etxekotuagoak izan zirenean, printzesari zintzoki mintzatu zizazkon, eta erran, hartaz ikusten zutena baizik deus ezpazakiten, saindu bat bezala miretsiko zutela; baina bertzela ikasten zutela bizi bitxia bazeramala, eta hain publikoa, nun ezpaitzuten ikusten zertara heldu zen haien komentura. Berry-ko dukesa Andereak irri egiten zuen eta etzen batere gaitzitzen. Zenbait aldiz erasiatzen zuten, jendeak eta gauzak bere izenetik erraiten, hoin eskandalezko bizia alda zezan sustatzen, eta, izpiritu eta itzuliekin, aitzinera edo gibelera behar zenean egiten, baina nehoiz hari bermuki mintzatuak izan gabe. Gero hori erraiten zeeten andere horietan Berry-ko dukesa Anderearen izanaraz zituzten bihotzminen onhartzeko gaienak zirener, ezpaitzen hala ere bazegien bezala bizitzetik gelditu Luxembourg-en eta karmelitetan, eta hoin ezberdintasun ustagabetzekoaren mirets-araztera uztetik, eta lizunkeriaren aldetik beti handituz joan zena (…)

Berry-ko dukesa Andereak aita Jaunari gaindituz itzultzen zauzkon Rion-en ganik jasaiten zituen gogorkeriak eta larderia, printze horren ahuleziak harendako atxikimendu, gozatasun, erran behar da, menperatze'ta beldurrik gutiago ukan gabe hortako. Rion-en erreinu publikoaz eta alabaren eskandalaz lastimatua zen, baina etzen hatsaren hartzera menturatzen, eta baldin, aharra berdin azkar eta irrigarri zenbaitek publikorano zilaturik batzuetan, erasia zenbaiten egitera menturatzen bazen, zakur bati bezala egina zizakon, egun andana batez mutur egona, eta bakea nola egin ontsa eragozpenean zen. Elgar ikusten etzuten egunik etzen, usuenik Luxembourg-en.

Erreientaren lanak, auhariak eta bazkoak

Ordu da Erreientaren egiteko publiko eta bereziez mintzatzeko, haren eginaraz, josteta-aldiez, egunez.

Goiz guziak gobernuko gauzer emanak ziren, eta egiteko bereziek bazituzten bere egunak eta orenak. Bakarrik hasten zituen jantzi baino lehen, jendea ikusten zuen jeikitzean, laburra zena eta beti hetan dembora ainitz galtzen zuen entzunaldi batzuez aitzindua eta jarraikia; gero egitekoetako lana zuzenkiago bere gain zutenek bazadukaten bat bertzearen ondotik arratsaldeko bietarano. Horiek konseiluetako buruzagiak ziren, eta La Vrillière, gero laster ainitz zelatatzetako baliatzen zuen Le Blanc, konztituzioneko gauzez haiekin lan egiten zuenak, parlamentukoez, gertatzen ziren bertze batzuez; usu Torcy

postako eskutitzetako; batzuetan Villeroy-ko marexala putinka artzeko, astean behin atzerrietako minixtroak; batzuetan konseiluak; meza bere kaperan berex, besta edo igande zenean. Hastapenetan goizik jeikitzen zen; apurka apurka eztitu zena, eta gero aldakor eta berant bilakatu, etzana zen araura. Biak eta erdi hirian, jende guziak bazakusan xokoletaren hartzen; kompainiarekin solastatzen zen. Horrek laket zizakon bezenbat irauten zuen; orotan ohikoena etzoan oren erdi batera. Sartzen zen eta andere 'ta gizon batzuer entzunaldi emaiten, Orléans-ko dukesa Anderearen baitara joaiten, gero norbaitekin lan egiten zuen edo joaiten zen Erreienziako konseilura; bazoan batzuetan Erregeren ikustera, goizean bekan, baina beti goiz edo arrats, Erreienziako konseiluaren aitzinean edo ondotik, eta hurbiltzen zizakon, mintzatzen, gurrak eginez eta ikustea, Erregeren berarendako ere, atsegin zen, eta mundu guziari bizitzen ikasten zaukon errespetuzko itxura batekin.

Konseilutik landa, edo arratsaldeko bortzak hirian, konseilurik ezpazen, etzen gehiago egitekoen ordu; Opera zen edo Luxembourg, hor ezpazen bere xokoleta baino lehen izana, edo Orléans-ko dukesa Anderearen egoitzara batzuetan han auhaltzen baitzen, edo gibeletarik jalgitzea, edo gibel beretarik kompainia zenbaiten sarr-araztea, edo urtaro ederrean baldin bazen, Saint-Cloud-era edo bertze baserri batzuetara joaitea, noiz han auhaltzera, noiz Luxembourg-ean edo bere egoitzan. Madame Parisen zenean, meza aitzin ephe batez ikusten zuen; eta Saint-Cloud-en zenean, ikustera bazoakon, eta artha eta errespetu ainitz eman dauzko beti.

Auhariak beti kompainia azkarki bitxian zituen. Ohaide andereak, batzuetan Operako neska bat, usu Berry-ko dukesa Anderea, eta hamabi bat gizon, noiz batzu, noiz bertzeak, fazoinik gabe behin ere bere *errotakoak* (*) baizik izendatzen etzituenak. Broglio zen, Frantziako marexal eta duke hil denaren anaia zaharrena; Nocé; laurzpabortz aitzindari, ez lehenbizikoetarik; Brancas-ko dukea, Biron, Canillac, zenbait gizon gazte zeharkari, eta bertutean arteko andere zenbait, baina mundukoak; oraino izen gabeko jende ez ezagun zenbait, izpirituz edo zirtzileriaz distiratzen zutenak. Janari hautukoena hartako bereziki eginak ziren leku batzuetan egiten zen, estaia berean, mahiko tresna guziak zilharrez; berek usu eskua kozinerrekin lanean emaiten zuten. Aldi horietan zen bakoitza miatua izaiten, minixtroak eta etxekotuak bertzeak bezenbat bederen, izarigabeko errexeria zen libertate batekin. Gorteko eta hiriko galankeria iraganak eta oraikoak gupidarik gabe; ixtorio

zaharrak, kalapitak, irri-solasak, irriegingarritasunak, ezer ez ehor etzen utzia. Orléans-ko duke Jaunak bazadukan bertzek bezala bere zokoa, baina egia da solas horiek guziek biziki bekan zutela den gutienik kordokatzen. Bertze hainbertze edaten zen, berotzen, aho betez itsuskeriak erraiten, eta ontsa mozkorrak zirenean, etzatera joaiten, eta biharamunean berriz hasten. Auhaltiarren ordua ethorria zenaz geroz, guzia hanbat hertsiki zen kampo alderat hetsia nun zer gerta zaitekeen ere, Erreienterano heltzera entseatzea debaldekoa baitzen. Eztiot bakarrik jende berezien egiteko ustegabekoak, baina Estatuarekin edo Erreientarekin berarekin lanjer handienean zer ikus ukanen zutenak, eta heste horrek biharamunerano bazirauen.

Errientak horrela asti mugagabekoa galtzen zuen etxekoekin eta jostetetan, edo zirtzilkerian. Ainitz galtzen zuen ere entzunaldi errexegi, luzegi, hedatuegi batzuetan, eta errege zena bizi zenean, hura eta ni elgarrekin hain usu hetaz erasiaz ari ginazkonetan. Orhoit-arazten nazkon batzuetan; onhartzen zuen, baina beti bere burua eremaitera uzten zuen. Bertzalde mila gauza berezi, eta gobernuaren antolatzeko bertze andana batzu, gehienetan oren erdi bateko ikertzez bururatzen ahalko zituenak, eta gero garbiki eta bermuki erabakiko, luzatzen zituen, batzu ahuleziaz, bertzeak nahasteko gutizia miseriazko hartaz, eta batzuetan hautetsia bezala atheratzen zizakon erran zahar pozoindatuaz: *divide et impera*; gehienak gauza guziez eta jende guziez zuen mesfidanza hortaz; eta ara hortan esteus batzu mustro bilakatzen ziren gero bera eragozpen azkarrean ezartzen zutenak. Haren gana heltzearen etxekotasuna eta errexa ezin gehiago gustatzen ziren; baina hortaz egiten zen soberatasuna handiegia zen. Bazoan batzuetan errespetuz huts egiterano; horrek ukan baitzituen, azkenean, ondorio gaitz hanbat lanjerosagoak nun, nahi ukan zuenean, ezpaitzituen hertsatu ahal ukan berak hala ziren eta hala izan ziren baino gehiago eragozpenean ezarri zuten jende batzu. Horrelakoak izan ziren Stairs, konztituzioneran buruzagiak, Villeroy-ko marexala, horrelakoak ere parlamentua bereziki, eta orotara lege-gizoneria. Gauza hoin gotorrez ari nindakon zenbait aldiz gertaldiak heldu ziren arau; batzuetan zerbait irabazten nuen, eta eragozkai batzu baztertzen; usuago eskuetarik lerratzen zizatan erraiten naukona sinetsia ukan ondoan, eta bere ahuleziak bazeraman.

Baina ohi ez bezalakoa dena da, ez ohaidek, ez Berry-ko dukesa Andereak, ez errotakoek, mozkorreriaren erdian ere, behin ere eztutela haren ganik den gutienik larri den gauzarik jakin ahal ukan, gobernuko

eta egitekoetako edozeretan. Publikoki Parabère-ko Anderearekin bizi zen; aldi berean bertze batzuekin ere; emazte horien jelosiaz eta hisiaz jostatzen zen; hala ere etzen gutiago ontsa guziekin, eta emategi publiko horren eskandala, eta auhari horien egun orotako itsuskerien eta erlisionegabekeriena ezin handiagoa zen, eta orotan hedatua.

Garizuma hasia zen, eta banakusan Bazkoko eskandala itsusi bat edo sakrileio lazkarri bat. Horrek ninduen deliberatu Orléans-ko duke Jaunari aipatzera, nahiz aspaldidanik zirtzilkeriez ixilean nindagon esperanza guzia hortaz galdua ukanik. Erakutsi naukon beraz Bazkoz eroriko zen herstura hain lazkarria baziduritala Jainkoaren aldetik, hain gaixtoa munduarenetik, berak gaitz egitea onhartzen baitu, baina bertzetan eta oroz gainetik nagusietan gaizki aurkitzen, nun, ene ohiduraren eta deliberoaren kontra, enindagokeela horren ondorio guziak aitzineratu gabe, horietan munduari doakonean hedatu bainintzan; ezen erlisionari doakonean, ezpaitzen zorigaitzez hortan. Biziki astiz entzun ninduen; eta gero khexuan galdegin zer naukon eskaini nahi. Orduan erran naukon atherabide bat zela, ez eskandala ororen ekhentzeko, baina ttipitzeko eta solasetako soberakinen debekatzeko, eta ere haien beha egon behar zuen sendimenduen, hartzen ezpaldin bazuen, biziki errexa baitzen. Villers-Cotterets-ko bere etxera joan zadin zela aste sainduko azken bortz egunen iragaitera, eta Bazkoko igandea eta astelehena, erran nahi da astearte sainduz abiatzea, eta Bazkoko heren bestan itzultzea; ez ereman hara ez andererik ez errotakorik, baina bere gostuko sei edo zazpi jende, aipamen onekoak, haiekin solastatzeko, jostatzeko, ibiltzeko, mehe jateko hala gizenean bezain ongi jan baitzezakeen, elhe gaitzik mahian ez atxik, eta hori ez gehiegi luza; ofiziora joan ortzirale sainduz, eta Bazko igandez meza nagusira; gehiagokorik enaukola galdatzen, eta horrekin, solas guziez hitz emaiten naukola. Gaineratu nuen nehor etzela haren lerroko printzek zer egiten edo ez egiten zuten etzakienik, beraz bazkoak etzituela eginak ukanen; baina ezberdintasun osoa bazela burua gora ez egitearen, nor nahi izan ahalik ere, ozartasun eta gutiestezko itxura batekin hiri nagusiaren erdian, mundu guziaren begien aitzinean, eta ahalge, errespetu eta eragozpeneko itxura batekin lekuz aldatzearen artean; lehenak bekatoros ozar bat hastia-arazten duela, eta sineskabeak ere haren kontra jazarr-arazten; bigarrenak garitatezko urrikalmendu bat jende zuzener emaiten, eta mihi guziak geldi-arazten. Lagunduko nuela eskaini naukon bidaia hortako, gozagarri banindakon, eta urte oroz ordu

hartan etxean egitea ohi nuenaren hari emaitea, eta gogoeta-arazi nuen eginara hori jende apur bat ezagunena zela, Bazkoz bere buruaz eragozpenean zirelarik. Oharr-arazi naukon oraino egitekoak etzirela hura han ez izaiteaz gaizkituko guziak geldi-arazten dituzten egunetan, Villers-Cotterets-en hurbila, lekuaren ederra, ikusia etzuen urte andana, eta hara itzuli baten egitea onhesgarri zela.

Eskaintza miragarriki hartu zuen; arindua izan zen; zer eskaini nahi naukon etzakien; etzaukon ezer errexik baizik, gozagarririk ere aurkitu, atherabide hori gogoraturik eskertu ninduen, eta harekin joan nahi ukaiteaz. Ereman nahi zituenez arrazoinkatu ginen, aurkitzeko nekea izan etzen gauza, eta gauza hortan gelditu zen. Berdin uste ukan ginuen hark eta nik ezer etzela aitzinetik iragarri behar, eta manuak Pasioneko astean eman zitzan aski izanen zela. Berriz aipatu ginuen oraino bat edo bietan, eta zinez uste zuen bidaia hori zuhur zela, eta egin behar zuela. Zorigaitza dena deliberatua zuen ona bekan egiten zela da, inguratua zen frikun andanaz, eta bere abantaila hortan bekan zutenez, ala hari gustatzeko, ala haren hertsiki atxikitzeko, ala arrazoin oraino bihurriagoez. Hori zen bidaia hortaz gertatu zena.

Pasioneko igandearen egun bat edo biga aitzinetik aipatu naukonean, aurkitu nuen gizon bat eragozpenean, hertsatua, zer ihardets etzakiena. Zer zen errex senditu nuen, indarrak berrhetu nituen, emana zuen baimenetik lotu nintzakon; bidaia horren kalte den ttipienaren erakusteaz desafiatu nuen; azkarki jo nuen bazkoen gainetik jauzteko ausartziaz, Pariseren erdian, egin-araziko zituen hitzaldietan (…) Erran ahal ukan nuen; enuen ixila, trixtea, iluna baizik aurkitu, guziak aurdiki nituen arrazoin ezteus batzu, haien argalaz ezpaitut paper hau beteko; hitz batez, hortaz entzutera utz-arazia zuen lehen hitzean berean ohaide ‘ta errotakoer emana zeen izialduraren alderdi hartua. Ustegabe eztadila hitz hau usu atheratzen bazata. Orléans-ko duke Jaunak etzeen bertze izenik emaiten, ez hark, ez Berry-ko dukesa Andereak; Orléans-ko dukesa Andereak hari mintzatzean ere, eta hirurek, hetaz nornahiri mintzo zirenean, etzituen ehoiz bertzela izendatzen. Horrek doinua emana zuen, eta mundu guzia berexterik gabe etzen hetaz izen horrekin baizik mintzo. Printze hori jende zuzenekin bizitzera jar zadin beldur izan ziren, eta itzultzean etzitezen gehiago onhartuak izan eta ohian bezala hek bakarrik. Ohaidek etzuten beldur gutiago ukan, eta multzo on horrek hanbat egin zuen printze errex baten gainean, nun bidaia, lehen aipamenean berean, osoki hautsia izan baitzen. Uzten nuela etxera

joaiteko, othoiztu nuen heinean egon zadin bederen laur egun sainduetan, erran nahi da ortzegun, ortzirale, ebiakoitz eta igandean, eta gauza guzien gainetik etzezan egin kittorik sakrileio bat, hortik bilduko zuela usteko zuen jendearen baitan galduko baitzuen jeus ez eginik baino biziki gehiago, bazeraman biziak, aitzinean eta ondotik berdina, berehala salatuko zuelakotz, eta guzien aitzinean.

Hortan La Ferté-ra joan nintzan, ustez mukurru hori bederen baztertua nuela. Han ukan nuen aste sainduko azken egunak zimardikan baino gehiago eremanik, nahiz gordekeria gehiagorekin, egun saindu horietako eginbide gehienetan izana zela jakiteko dolua, Monsieur zenaren urratser jarraikiz, hunek abantzu beti Parisen iragaiten baitzituen; Bazko egunean meza nagusira joana zela Saint-Eustache-ra, haren parropia, eta ospe handiz han bazkoak eginak zituela. Ondikotz! zorigaitzeko printze horren azken komunionea izan zen, eta, munduaren aldetik, aitzinetik ikusia nuen ondorioa ukan zuena.

(*) *Errotakoak* hitza errotan xehakatuz hil-arazten ziren gaixtaginen izena da, erdaraz *"roués"* (*Itzultzalearen oharra*).

Agrigente-ko apezpikuaren garbanzoetarik Zikiliatik jesuisten haizatzera

Aitzineko udan gertatu zen Agrigente-ko apezpikuaren laborari batek garbanzoak ekharri zituela merkatura saltzeko. Saboiako Jaun, ordukotz Utrecht-ko bakeko azken antolamenduaz Zikiliako errege 'ta jabe aithortuaren zuzenbider behatzale batzuek, nahi ukan zaukoten ohi bezala hedagiako ordain-arazi. Laborariak, nor zen erran gabe handik harat igorri zituen, eta eginara horren gatik garbanzoak bahi-arazi zizazkon. Zuzenbide oroz libro uzten duen libertate elizatiarraz azkar, bere nagusiaren gana joan zen, hunek, bertze ikertzerik ez epherik batere hartu gabe, eskumikatze bat oihukatu zuen. Behatzalek etzuten hortik baizik ikasi garbanzoak norenak ziren, ordu berean berriz itzuli zituzten, laborariak etzuelakotz hitz batez aharra bururatu nahi ukan nor zen, eta garbanzoak norenak ziren erranez deitoratu ziren. Ihardespen eta zaingoa hoin arrazoinekoek etzuten apezpikua askietsi ahal ukan. Bere hartan gelditu zen, eta gaitzagoz mehatxatu zuen behatzale hek ezpaziren nahi ukanen zuen guziaren onhartzera jausten, eta hetarik ainitz athera nahi baitzuen, etziren deusen hitzemaitera menturatu bere buruzagien baimenik gabe. Hauek apezpikuaren eztitzeko auherretan

indar egin zuten; bertze eskumikatze bat baizik etzuten ukan. Monarkiako auzitegiari ainitz harrabots bazela iduritu zizakon norenak ziren jakin zeneko itzuliak izan ziren garbanzo batzuendako, eta gauzaren eztiki bururatzera entseatu zen.

Auzitegi horrek ezin gehiago trabatzen zuen Erromako gortea, ehoiz ezpaitzen horri lotzera heldu ahal izan Zikiliako erregek bere betean atxikitzeko ukana zuten artha bekaiztiaren gatik. Saboiako duke bat Zikilia bakarreko errege bilakaturik, ordurano haren aitzineko botheredunak baino ausik errexagoa iduritu zizakon Erromari. Erromako gorteak nahi ukan zuen beraz samindu, eta hanbat egin zen nun Agrigente-ko apezpikuak eskumikatu baitzuen monarkiako auzitegia, nahiz haren personaren eta eskumikatzen jujea zen, eta bera ez edozeinen meneko. Monarkiako auzitegiak etzuen pairamenekin jasan hoin egintza eroa; baina bertze apezpikuek, Erromako gorteak sustaturik, lagundu zuten, hala nola nun, zenbait dembora berantago, Zikiliako diozesa guziak bahituak izan baitziren eta oihukatzeak berrhetuak. Apezpiku guziek ihes egin zuten aldi berean itsasoz haraindira, eta hara laster jarraikiak izan aphez eta fraide andana batez, bahimena onhartu nahi zuten aphez eta fraidek jasan behar zituzten presondegi eta bertze zigorretarik gerizan jartzeko.

Erroma etzen guti eragozpenean izan hanbat jendalde sakratuen uholdeaz, bere lurreko ontasun ethorkiko ala elizakoen bahitze osoaz eskalegora hertsatuak, ezpaitzaitezkeen bizi haien bahitzea eragina zuenaren oneziez baizik, eta haien miseria mukurrutua zuena debekuak errepikatuz. Zikilia osoak hoin tirania bortitz eta mende ainitzez geroz behazun gabekoaren kontra erakutsi zuen indarrak hanbat gehiago zuen untzietaratzeaz dolu-arazi nun Zikilian aski aphez gelditua baitzen, eta ere eliza-gizon zuhur eta leial, elizako zerbitzuak orotan jarraikiak izaiteko, eta batasun erromatarreko bothereak, gehienik Frantzia, Parisko parlamentuak gauza hortaz eman legezko urratsez eta erabakiaz, erakusten hasi baitzizazkon Zikiliako egitekoak barne hartzen zituela ere.

Jesuistek, ontasun handiak eta etxe mirazkoak baitituzte Zikilian, Italia guzian bezala, erran behar da orotan, Frantzian salbu, guziek gogor egin zuten Zikilian gelditu z, eta debekuari hertsiki jarraikiz, eta horri zuzen-zuzena jarraikitzera sustatuz. Zikiliako erregek, eginara ausart horren ondorio lanjeros guzia senditu baitzuen, bere manuak igorri zauzkon segeretuki han erretorde utzia zuen Maffei kondeari, jadanik aipatu izan denari, horien betetzen jakin baitzuen ordenu,

segeretu eta antze osoki miragarriekin. Alde orotarik itsasoaz inguratua den irla horren izaeraz baliatu zen, hiri hoberenak eta bertze bizi-lekuak itsas-aldean baititu edo herri barnean guti barna. Goiz ber batez jesuista guziak, aita eta fraide, zahar eta gazte, osagarrian ala eri bat ere berezi gabe, bere etxe guzietan ekhenduak izan ziren, ordu berean karrosa batzuetara egotziak, edozein gauzaren hartzera utzi gabe. Haien hartzeko goaitan zauden untziek iragan-arazi zituzten Estatu elizatiarraren itsas-bazterretara, han uzten zituztela ahal zutena bilaka zaiten, den gauza gutienik gabe.

Ukaldi horrek Zikilian ukan zuen ondorioa asma daiteke, eliza-gizon horien ustegabetzea, eta aitasainduaren eta haien jeneralaren eragozpena. Hanbateko jendea aldi berean nun ezar, eta nun bizi-araz haien alderdiko gizazkar mila hek? Hori guzia izanik ere, etzen bi aldetarik batere amor eman. Baina gambara apostolikoak Erroman eta ingurunetan ihaurri ziren jende neurri gabe horri ogia ezin hornituz, eta gambara horrek bazemakonaz bertzerik etzuelarik, apezpiku zikiliarrek ere, egun batez erabaki bat ikusi zen Erroman iragarria bahitu horier guzier hiriaren hustea manatzen zeena zigor-pean, eta berexkuntzarik gabe hirur egun barne, eta bizitzeko behar zenik eman ez erakutsi gabe, jazartzearen sari zuzena, baina aipamen onik eman etzeena bere burua hortara utzia zuten hainbertze zentzu gaberi, eta horren martirak bilakatzen zirener. Bitartean Maffei-k itsas-bazter guziak zain-arazten zituen zorroztasun handiz Erromako mezulari eta sal-erospenetarik, hanbatetan nun bahitu utzi horietarik gehienak Zikiliara itzultzera entseatu zirenean, sartzea hetsia izan baitzizeen, azken etsipenera ereman zituena.

Bi aldetako bermutasun berdinak gauzak hein hortan utzi zituen, Erroma bizkitartean Zikiliako erregeri ez leihorreko haren edozein minixtrori jaukitzera menturatu gabe, bere lekuan aurkituko diren gertakariez eta gauza hunen berehala bururatzeko hunarano aitzineratu behar nituela uste ukan ditutanez, Zikilia nagusiz aldatu zenerano eta Emperadorearen eskuetan gelditu, Sardeña utziz Saboiako dukeari, errege lerroaren atxikitzeko. Orduan egiteko elizatiar guzia erori zen, eta Erromak ukan zuen, monarkiako auzitegia bere auzi-eremuan ohiko egintza osoan utziz, hortan kittorik atheratzeko zoriona, eta ezer etzadin gehiago aipa apezpiku ozarki eta eroki jazarle baten laborari ausart baten garbanzoetako gertakari larriaz gertatu zen guziaz; eta Emperadoreak, Zikiliako errege bilakaturik, jadanik Neapoliz eta Milanoren jabe, nahi

ukan zuen hoin urrun eremana zen eta arrazoin, zuzenbide, eta iduripen arinenik etzuen egintza bat ahatzi, baina lurreko bothere guziendako ikastaldi berritze indardun bat izan behar dena handi-nahi elizatiarraren soberakeria izigarriez, ezen, aro guzietan, ezpaitaiteke neurrian atxik deus-deusen egitera ez utziz baizik, ez eta den arinenik ere edozein estakuru-pean, eta begiratze ontsa zorrotz batekin hortan artzea bakarrik gogora zakidioneko ahalgabe osoenean atxikitzeko.

Espainiako errege 'ta erregina Alberoniren eskupean

Alberonik sinets-arazia zaukon Espainiako erreginari errege, bere senarra, hetsirik atxik zezan Orzini-ko printzesak egina zuen bezala. Bide segurra zen jiteak eta konzienziak ezkontideari berdin eratxikitzen zaukon printze baten gobernatzeko, horrek, lehenbizikoak bezala, baitzeraman hortik beti nahi zuenera, eta estakuru hoberena, erregek bere burua uzten zaukon orduko, ezeztatua ez izaiteko, eta erregek etzezan ezer ere jakin haren eta Alberoniren ganik baizik, gauza bera zena. Erregeren ofiziari guziak, handi, arteko ala xipi, baztertuak izan ziren beraz, erregeren ondoan sartzeak eta karguak ekhenduak. Barnetan etzituen gehiago ikusi bere gambarako hirur aitorenseme baizik, beti berak, eta oraino zerbitzuko ordu batzuetan, jeikitzean, apur bat etzatean, eta laurzpabortz mutil, hautan biga Frantzesak zirenak. Gambarako hirur aitorenseme horiek ziren: Santa-Gurutzeko markesa, erreginaren maiordomo-nagusia, hunekin biziki ontsa zena; Arco-ko dukea, ezkutari handia, ihizlari handia eta abantzu erretetxe guzien gobernaria, erregek azkarki maite zuena, behin ere Alberoniren azpian ukurtu etzena nehoiz ezpaitzuen baztertu ahal ukan, erreginarekin ere batere gaizki etzena, eta zuen gogo eztia, zuhurra eta artekoa hanbat gutiago beldurgarri zena nun bere karguetan mugatzen baitzen, eta jeusetan ezpaitzuen sartu nahi. Izpiritu ainitz bazuen eta Frantzesak hastiatzen zituen Santa-Gurutzeko markesaren adixkide mina zen. Herena Valouse zen, Anjou-ko duke Jaunaren ezkutari berezia, nerabe izanik, Espainiara jarraikia zizakona, eta han lehen ezkutari zena. Gizon zuzena zen, baina biziki mugatua, orotaz hiltzeko beldurrean, gobernua zuenarekin beti ontsa zena, erregez maitatua, mundu guziarekin ontsa, ezkutari handiari atxikia eta den gutieneko gauzan sartzeko ahalik gabea. Barneko heste hortan xehetasun gehiagorekin hedatuko niz neure

embaxadak emanen dautalarik Espainiaz bereziki artzeko aldia; xehetasun horiek, hemen, urrunegi ereman lezakete. Erraitea aski da Espainiako erregek bere burua utzi zuela presondegi egiazko eta biziki hertsi batean hestera, gelditu gabe erreginaren begien azpian zaindua, egunaren eta gauaren ordu oroz. Hortik beretik aldi berean bera presozain eta preso zen; gelditu gabe erregerekin baitzen, nehor etzizakon hurbiltzen ahal, ezpaitzaitekeen egin aldi berean erregeri hurbildu gabe. Horrela Alberonik atxiki zituen bi-biak hetsirik, haien presondegiko giltza sakelan.

Hala ere etzuen osoki baztertu ahal ukan Del Giudice kardinala, inkisidore handi zena, Asturiako printzearen gobernari, eta oraino doi-doia gobernuko egitekoetan zena, hetan buruzagitza nagusia ukana zuelarik lehenago. Daubenton jesuistak bazituen ere baitezpada, erregeren kofesari bezala, entzunaldiak usu. Haren ontsa ezagun-arazteko behar den guzia errana izanen da leku hortarik haizatua izana zela orhoit-araziz, Erromara baztertua, han lagundiako jeneralaren laguntzale egina izana zutela, eta hark berak zuela, eta azken segeretuan, *Unigenitus* konztituzionea egina Fabroni kardinalaren begien azpian. Orzini-ko printzesa Andereak A. Robinet igorr-arazi zuenean, sobera gizon ona eta ohorezkoa kofesariaren karguan egoiteko, Erromak eta jesuistek etzutela jeus ahatzi hara A. Daubenton-en dei-arazteko, lekua berriz hartu baitzuen, eta hara aitasainduaren konfienxia berezi guzia ekharri, hunekin ukan baitzuen eskutitzez harreman zuzena eta segeretukoa, eta ezpaitzen ez gutiziarik, ez xederik, ez handi-nahi gorde eta azkarrenik gabe. Bi gizon horiek ezin gehiago trabatzen zuten Alberoni, eta kardinalaren galtzera deliberatu zen, eta haiza-arazteko neke sobera senditu zuen jesuistaren menperatzera. Horrela Alberoni apheza, Parme-ko dukearen minixtro xoila Madrilen, lehen minixtro bothere osoduna zen han egiazki.

Botherea haren gainean oinarritua zuen indar handiak eta horren ezpaiak, begiak kardinalgorano goiti-arazi zauzkoten bere fortunaren jartzeko. Espainiari doakon izendatzearen ukaitea gogoratu zizakon beraz. Horren gutizia gorrian zen, baina etzuen ukaiten ahal erreginaren bitartez baizik, eta hunek, olde handi horren hastapen hortan, etzezakeen bere baitan akomea hautetsi atzerritar horren aphaltasuna Espainiako izendatzearekin, hortako gai ziren guziak gaitzetsiz.

Law dirulari eskoziarra

Eskoziar bat, nik dakita zein ethorkikoa, jokolari handia eta antolamendu egile handia, ebilia zen herri andana batean biziki gotor izabazia zuena, Frantziara ethorria zen Errege zenaren azken aroetan. Izena Law zuen; baina ezagunagoa izan zenean, jendea hain ontsa jarri zen *Las* erraiteari, nun Law izena galdu baitzen. Orléans-ko duke Jaunari aipatu zizakon diruzaingoko, sal-erospeneko, diru harat-hunatetako, monerako eta dirutzetako gaietan gizon jakitate barnakoa bezala; horrek ikusteko jakin-nahia eman zaukon. Aldi batzuez solastatu zuen, eta hain askietsia izan zen nun Desmarets-i aipatu baitzaukon haren ganik argiak har zezazkeen gizon bat bezala. Orhoit niz ere printze horrek aro hortan berean aipatu zautala. Desmarets-ek Law-ri mezu igorri zaukon, eta aldi andana batez harekin luzaz egon zen; haien artean zer iragan zen batere eztut jakin, ez eta zer ondorio izan zen, Desmarets askietsia izan zela ezpada, eta harendako estimu zenbait hartu zuela.

Orléans-ko duke Jaunak horren ondotik etzuen urrundik urrunera baizik ikusi; baina erregeren heriotzeari jarraiki zizazkon egitekoen lehenbiziko ondoriotarik landa, Law, Erret-Palazioan ezagutza aphal batzu eginak baitzituen eta Dubois aphezarekin lotura zenbait, berriz ethorri zen Orléans-ko duke Jaunaren aitzinera, gero berehala berexik mintzatu zuen eta dirutzetako langai batzu eskaini zauzkon. Lanean arr-arazi zuen Noailles-ko dukearekin, Rouillé-rekin, Amelot-ekin, azken hau salerospeneko. Lehenbiziko biak bere adminiztrazionean Erreientaren eskutik sartzen zen baten beldur izan ziren, hala nola nun luzaz harat-hunatean erabilia izan baitzen, baina beti Orléans-ko duke Jaunak lagunduz. Azkenean bankoaren langaia hanbat laket izan zizakon printze horri nun egin zadin nahi ukan baitzuen. Aipatu zeen berexki dirutzetako nagusiener, hetan kontra egite handi bat aurkitu baitzuen. Usu aipatua zautan, eta haren entzutean gelditua nintzan behin ere maitatua eztutan gai batez, beraz ez ongi hartua, eta haren egintza urrun iduritzen baitzizatan. Xedea osoki hartua ukan zuenean, dirutzeko eta salerospeneko bilkura bat egin zuen, han Law-ek jartzea eskaintzen zuen bankoaren langai guzia argitu baitzuen. Nahi zuen bezenbat entzuna izan zen. Zenbaitek, Erreienta deliberatua baitzakusaten, baia eman zuten; baina gehien-gehiena kontra joan zizakon.

Law etzen batere etsitu. Gehiener apur bat erdaraz mintzatu zizeen beharrira. Bilkura nunbait han berdina berriz egin zen, han Law-ek, Erreientaren aitzinean, bere langaia berriz aztertu baitzuen. Aldi

hortan guti ziren kontra joan, eta eztiki. Noailles-ko dukea etzen ixpixuaren atxikitzera menturatu, Villeroy-ko marexalak nahi ukanen zuen bezala beti Orléans-ko duke Jaunari gogor egitera baitzoan, bertze arrazoinik gabe; ezen etzen ez dirutzetan ez bertze egitekoetan jakinduru; etzuen beraz konseiluetan bi hitzez baizik aburu emaiten, edo biziki bekan gehiago erran nahi bazuen han ikertu nahi zela bazakien egiteko batez, paper orsto ttipi bat bazekarren, eta aburu emaitea hari zenean, begitakoak ezartzen zituen, eta berehala izkiriatuak ziren borzpasei lerroak irakurtzen. Ehoiz eztut bertzela aburu emaiten ikusi, eta azken molde hortan laurzpabortz aldiz gehienik. Bankoa horrela onharturik, behar ukan zizakon Erreienziako konseiluari aitzinera ekharri.

Orléans-ko duke Jaunak bere gain hartu zuen konseilu hortako ide bakoitzaren argitzeko nekea, eta bankoak kontra egilerik aurki etzezan nahi zuela eztiki entzun-araztekoa. Oso-osoa aipatu zautan; orduan ihardetsi behar izan zen bada. Erran naukon: ene jakingabea enuela batere gordetzen, ez eta ditutzetako gai hortako nuen higun guzia, bizkitartean argitua zautan guzia berez on baziduritala, zerga hartzerik gabe, gasturik gabe, eta nehori damurik ez eragozpenik eman gabe, dirua bapatean bikuntzen zelakotz banko horren billetez, eta errextasun handienean eremankorra bilakatzen; baina abantail horri bi kalte aurkitzen nauzkola: lehena banko horren gobernatzea behar zen baino gehiago paper ez egiteko aitzin-ikuste eta zuhurtzia askirekin, beti horren indarra baino azkarrago izaiteko, eta orori biphilki ihardukitzeko, eta ekharriko zituzten billeten diruaren galdegitera jinen ziren guzien ordaintzeko; bertzea, errepublika batean ezin hobea zena edo dirutzeta osoki jendaldearena den monarkia batean, Angeleterra den bezala, erabiltze gaizkorrekoa zela monarkia oso-oso batean, Frantzia bezala, hemen, gazki hasia eta gaizki eremana den gerla bateko beharrak, lehen minixtro baten ontasun goseak, hautetsi batenak, ohaide batenak, aberaskeriak, gastu eroek, errege baten eskuzabalkeriak laster bankoa agortua baitute, eta billet ekharle guziak hondatuak, erran nahia baita erresuma itzulipurdikatua. Orléans-ko duke Jaunak hori onhartu zuen, baina aldi berean atxiki errege batek abantaila hain handia eta baitezpadakoa ukanen zuela bankoaren ez hunkitzean edo minixtro, ohaide et a hautetsirik haren hunkitzera ez uztean, nun kalte nagusi horren beldur izaiterik ehoiz ezpaitzaitekeen izanen. Hori zen luzaz eztabadatu ginuena batek bertzeari berea sinets-arazi gabe, hala nola

nun, egun zenbait berantago bankoa Erreienziako konseiluaren aitzinera ekharri zuelarik, aburua luze luzean erran berri dutan bezala eman bainuen, baina indar gehiagorekin eta gehiago hedatuz; eta bururatu nuen bankoa utzi behar zela monarkia oso bateko amuzki hilgarriena bezala, herri libro batean jartzeko zen gauza hoberena eta zuhurrena bezala.

Guti menturatu ziren aburu hortako izaitera; bankoa onhartu zen. Orléans-ko duke Jaunak erasia ttipi batzu egin zauztan, baina eztiki, hoinbertze hedaturik. Desenkusatu nintzan sinesten nuen bezala aburu emaitea, ontsa gogoetatu ondoan, ene eginbide, ohore eta konzienziakoa zela uste nuelakoan, eta aski argi emaitea ene ikuspegiaren ontsa entzun-arazteko, eta horren hartzeko nituen arrazoinen. Gero datxikola, erabakia parlamentuan nekerik gabe errexixtratua izan zen. Kompainia horrek bazakien batzuetan Erreientari gogo onez gozagarri izaiten gero hari ondorio gehiagorekin gogor egiteko.

Ephe zenbait berantago, berehala erraiteko, Orléans-ko duke Jaunak nahi ukan zuen Law ikus nezan, bere langaiak argi zitzaztan, eta hori gozagarritasun bat bezala galdegin zautan. Aitzineratu naukon berriz ene ezkaitasun osoa dirutzetako gauza orotan; Law-ek enekin jokoa eder ukanen zuela hartan jeusik entzuten enuen hizkuntzan mintzatzen; biziki debaldetan bier gure astiaren gal-araztea izanen zela. Ahal ukan nuen bezenbat desenkusatu nintzan. Erreienta aldi andana batez berriz jaukitu zizatan, eta azkenean manatu zautan. Law etxera ethorri zizatan beraz. Nahiz bazuen atzerritarrarenik ainitz bere egonaran, erranaldietan eta doinuan, biziki hitz onetan mintzo zen, argi eta zorrotz ainitzekin. Biziki luzaz mintzatu zizatan bere bankoaz, berez, alabainan, gauza ezin hobea baitzen, baina Frantziaz bertze herri batendako, eta Erreienta baino gutiago errexa zen printze batekin. Law-ek etzituen ukan bi arrazoin horier ihardokitzeko Erreientak berak emanak zauztanak baizik, askietsi enindutenak. Baina gauza onhartua baitzen, eta ezpaitzen gehiago haren ontsa gobernatzeaz bertze egitekorik, hortan zen gure solasa gehienik ebili. Sendi-arazi naukon, ahal ukan nuen bezenbat, zein gauza beharrezkoa zen sobera errextasunen ez erakustea urrunegi joaiteko ahalik izan etzadin hoin Erreient onarekin, idekiarekin, inguratuarekin. Ahal ukan nuen bezain ontsa gorde nuen zer naukon hortan entzun-arazi nahi; eta bermatu nintzan oroz gainetik berehala ihardokitzeko heinean jartzearen behar-beharrean, eta orotan, haien ordaintzea galdeginen zuten bankoko billet

ekarle ororen ordaintzeari, hortik baitzetorren bankoak ukanen zuen konfienxia guzia edo haren itzulipurdikatzea. Atheratzean Law-ek galdegin zautan batzuetan enekin mintzatzera jin zadin onets nezan; elgarretarik berexi ginen biziki askietsirik, hortaz Erreienta oraino gehiago hala izan baitzen.

(…)

Berehala ezagutu nuen Law-ek etxera ikustaldi jarraiki horiek egin nahi ukan baldin bazauztan, etzela nitaz dirulari trebe baten egiteko xedea ukana zuelakotz; baina gizon izpirituduna bezala, eta bazuen ainitz, haren konfienxia egiazkoenean zen Erreientaren zerbitzari baten gana hurbiltzeko, eta azpaldidanik hari zintzotasun eta libertate handienekin guziaz eta guziez mintzatzeko heinean jarria zenaren gana, solastatze usu horren bidez ene adixkidantzaren irabazteko, azala baizik ikusten etzeenen egiazko gaitasunaz eneganik jakinduru izaiteko, eta apurka apurka jasaiten zituen eragozpenez ene gana aholku bila jin ahal ukaiteko, eta haiekin egiteko zuen jendez, Noailles-ko dukarendako nuen etsaitasunaz baliatzeko, hau, egun oroz besarkatzen zuelarik, jelosiaz eta hisiz hiltzen ari baitzen, azpiz ahal zuen behaztopabide 'ta traba guziak sortzen baitzauzkon, eta itho nahi ukanen baitzuen. Bankoa ari eta jori, lagundu behar zela uste ukan nuen. Law-ek nahi ukanak zituen manuer jarraiki nintzan, eta laster hartaz behin ere dolutu behar ukan eztutan konfienxia batekin mintzatu ginen elgarri. Eniz batere sartuko banko hortako xehetasunetan, jarraiki zizazkon bertze xedetan, ondorioz izan ziren egintzetan. Dirutzetako gai horrek liburu osoak balegizke.

Arouet San-Simundarren notariaren semea, Voltaire

Arouet, hil arteo aitarena ete enea izana den notaria baten semea, herritik urrundua izan zen eta Tulle-ra igorria, neurtitz azkarki khitzikari eta azkarki ozar batzuen gatik. Enindaike josta hoin ezteuskeria ttipiaren ezagun-arazten, Arouet hori bera, olerkari handi eta akademialari bilakaturik, Voltaire izenaren azpian, bilakatua ezpaliz, tragediako gertakari ainitzen artetik, halako norbait letretako errepublikan, eta ere halako jende gotor bat mundu berezi baten baitan. (*)

(*) Voltaire berriz aipatzen da laburzki 1717 urtean (*Itzultzalearen oharra*).

(1717)

Eztut hemen erranen Arouet Bastillan ezarria izan zela neurtitz biziki ausart batzu eginik, haren olerkiek, gertaldiek eta munduaren burukeriak egina daukoten izena izan ezpalitz. Aitaren notariaren semea zen, ainitz aldiz ikusi baitut hari izenpetzera paper batzuen ekhartzen. Ehoiz etzuen seme sineskabe hortaz jeus egin ahal ukan, sineskabekeriak, azkenean, fortuna egin baitauko Voltaire izenaren azpian, berearen estaltzeko hartua duena.

Protestanten berriz Frantziara itzultzeaz

Higenautak, hetarik ainitz erresuman gelditua edo berriz sartua baitzen, gehienak alegiazko uko egite batzuen estakuru, errege zenarenarekin erkidatuz libertatezkoa izenda zaitekeen aro batez baliatzen ziren. Lehenik biltzen ziren gordeka eta jende guti; gero kuraia hartu zuten hortaz axola guti ukan zelakotz, eta laster bilzarre berriak egin ziren Poitou, Saintonge, Guiena eta Languedoc herrialdetan. Biziki jende ainitzeko batera abiatu ziren ere Guienan, han baserri betean pheredikari batek sustagarri bizi-biziak emaiten baitzituen. Harmarik etzuten eta berehala barreatu ziren; baina bilduak ziren lekuaren ondo-ondoan bi orga aurkitu ziren eskopetez, baionetez eta pixtoletez beteak. Gauazko bilkura ttipi batzu egin ziren ere San-Antonio-ko hiribazterreko buruetan.

Erreientak aipatu zautan, eta gai hortan higenautez Errege zenaren erabaki eta aithormen guziak beteak ziren kontra-erran eta neke guziak, eta bertzalde horien betetzekoak haien ezkontza, testamendu eta bertzetan. Egia horren lekuko nintzan usu Erreienziako konseiluan, hanbat han aipatuak ziren auzien bidez, nola auzi batzuek kanzelariari gai horietan galdegiten zauzkoten aholkuez, hara erakartzen baitzituen erabakitzeko. Eragozpen horien deitoratzetik, Erreienta jin zen Errege zenak higenauter eginak zezteen bortizkeriez dolutzera, Nantes-ko erabakiaren hausteko hutsera berera, Estatuak hortik jasana zuen kalte neurrigabera eta oraino jasaiten jendearen gutitzean, sal-erospenean, Europako protestant guzien baitan eginmolde horrek phiztua zuen herrara. Arrazoinamendu azkar eta biziki egiazko andana baten ondotik, hanbat gaitzean berean nola protestantismoaren emeki emeki iraungitzeko molde ezti eta segurrean haien minixtroen gogoak bilduz, Erreienta abiatu zen Erregek Frantzia hartara jautsia eta utzia zuen

Estatu hondatuaz gogoetatzen, eta hortik ephe batez eginen zuen jendez, erdergintzaz eta eskulanez, diruz eta salerospenez goititzeaz, higenauten bere aiten herrira berriz deitze hain aginduaren bidez, eta azkenean hori eskaini zautan. Eztut ehor salatu nahi horrelako gogoeta bat Erreientari esondaturik, ehoiz ezpaitut jakin norenganik ethorria zizakon; baina Holandarekin, oroz gainetik Angeleterrarekin hertsiki lotura egiteko ethengabe ukana zuen gutizia ezin handiagoan, Noailles-ko dukearen, Canillac-en eta Dubois aphezaren eskuetan zenaz geroztik, eta han baitzen ehoiz baino gehiago, aieruak eztira nekeak. Deitze hortaz uste zuen bothere itsastarrak lausengatzen zituela, estimuzko, adixkidantzazko, gozagarritasunezko eta ikustatezko ezaugarri bat emaiten zeela, hori guzia erresumaren ephe batez phizteko, aberasteko, eta berlora-arazteko sinesteaz aphaindua.

*

1717

San-Simun eta Troyes-ko apezpikua *Unigenitus* bulaz aharran

Nahiz (*Unigenitus*) konztituzioneko egitekoa ezten *Orhoitzapen* hautan sartzen, aitzinatuak ditutan arrazoinen gatik, badira hortan bereziki nihaur hunkitzen nauten egintza batzu, edo nitaz ezagunak direnak, eta hor ezarri behar direnak jadanik batzuetan egina den bezala, omeneko egintza horren ixtorioan lekua ukanen dutela dudatzeko arrazoina baitut, ixtorio horren egilek ezpaitituzte errexki jakinak ukanen. Nahiz Erreientaren gabinetean antolatzen zen Effiat, (parlamentuko) buruzagi lehen, erregeren jende, prelat batzu, Dubois apheza eta Huxelles-ko marexalarekin, hala ere noiztenka zerbait jiten zizaukun gertaldi batzuetan Erreienziako konseilurano. Hor Troyes-ko Jaunak bere burua erakusten zuen beti konztituzionearen alde, eta Erromaren nahikarien, iduriz bere bizi guzian azkarki horien etsai izanaren penitenziaz. Guzia erraiten zaukon gero Bentivoglio nunzioari. Zuen adinean eztakit helburua zer ukan zezakeen. Urtarril huntako lehenbiziko egunetarik batez, konztituzioneaz ari izan zen Erreienziako konseiluan. Zertaz zen eniz hedatuko, ezpaitut gai hortan gelditzeko xederik. Banakusan haserre handi bat (konztituzioneari) menperatze itsu

baten galdegiteko baitezpada, argitzerik ez ihardesterik gabe, eta alderdi hori handituz bazoala beti neurri gabeko obedianza batera.

Enintzan Troyes-ko Jaunaren aburuko izan; phiztu zen; biak eztabadatu ginen; hainbertzetan eman zen bere aburueri, nun ihardetsi bainaukon bapatez konztituzioneak gutitan fortuna eder bat eginen zuela, bainakusan urratsez urrats laster dotrina eta fedeko artikulu bilakatuko zela: hortan horra Troyes-ko Jauna gaitzerraitez oihuka, eta beti muga iragaiten nuela; hortik hedatuz konztituzionea ehoiz etzaitekeela ez dotrina, ez erregela, ez fedeko artikulu bilaka; etzela hori nehoren buruan sartua Erroman, eta bere bizi guzian jesuista izana zen Tolomei kardinalak, eta jesuistatik kardinal eginak, trufan irri egina zuela soka hori hunki zizakonean. Ontsa oihu egina ukan zuenean, konseilu guziari behatu naukon, eta erran: "Jaunak, onets ezazue guziek betan eta bakoitzak berex konztituzioneran fortunaz aitzinetik iragarri dautzuetanaren lekukotzat har zitzaztaten, eta Troyes-ko Jaunak ihardetsi duen guziaren, nola hedatu den bere baitarik ezin daitekeela nehoiz artikulu, dotrina, edo fedeko erregelatzat aitzineratua izan, eta Erroman hortaz trufatzen dela, eta eman dezatazuen egun hemen gertatzen denaz orhoit-arazteko baimena konztituzioneak azkenean fortuna hori egina ukanen duenean, horrek eztuela batere gertatzen beranduko hemen errepikatzen dautzuetan bezala." Troyes-ko Jaunak zentzugabekeriaz berriz oihu egin zuen: bietan ez erraiteko, sei ilabeteren buruan, eta gutiago ere, profeta izan nintzan.

Paris, atseginkeria guzien ixurgunea

Errege zenaren gostuak, behazunak eta fagoreak egina zuten Parisez Europa guziko atseginkerien ixurigunea, eta haren ondotik luzaz hala jarraiki zen. Errege zenaren ohaidez bertzalde, haren baxtartez, Charles IX-garrenarenez, ezen haien alhargunsabat ikusi baitut bere errenarekin, Henri IV-garrenarenez, Orléans-ko duke Jaunarenez, Erreienziak neurrigabeko fortuna bat egina baitaue, Bourbon bi anaien adar biak, Malause eta Busset, Vertus-tarrak Bretainiako azken dukearen baxtartak, azken hirur Condé-ren andere baxtartak, eta Rothelin-darretarano, baxtarten baxtartak, erran nahi da Longueville-ko seme birden batenak, Orléans-ko baxtart horietan azkena ene aroan hil baita, eta haren arreba Nemours-ko Anderea ontsa berantago oraino;

Rothelin-darrak, diot, azken dembora hautan zerbait direla uste ukaiteko ausartzia ukan dutenak, eta abantzu sinets-arazi odoleko printze baten korona bateko ozarreriaz, guziak ustegabe handieneko ebaskeriara eroriak direnez geroztik goraki erabili dutena. Baxtart frantsez jendalde hortaz harat, Parisek bildu ditu Angeleterrako eta Sardeñako erregen ohaideak, eta Bavierako elektorearen biga, eta Angeleterrako, Bavierako, Saboiako, Dinamarkeko, Saxe-ko baxtart ainitzak, eta Lorrenakoetarano, guziek egin baitituzte hor fortuna aberats, handi eta lasterreginak, ordenak metatu, adin gabe baino gehiagoko gradoak, batzuek mugagabeko ohore eta hautesmenak, hetarik bat etzelarik Europako bertze herri edozeinetan bakarrik behatua izanen; azkenean ahaidekeria izigarrienen eta publikoenen ekoizpen ahalgegarrienetarano, Montbéliard-ko duke ttipi batenak, Vienako konseilu aulikoaz osperekin horrela aithortuak, imperio guziaz eta Würtemberg-ko etxe guziaz ukatuak, horiek ukan baitute alta printzenaren egiteko ausartzia, eta bertze alegiako printze batzuen laguntza aurkitu, hauk berek lerroa zuzengabe harturik, jaiotze legezko eta frantzes batekin eztirelarik hek baino gehiago printze. Frantzia bakarrik onhartzeko gai izan den hainbertze haunetarik, eta, Europako erresuma guzien artean, hortara laguntzeko eta eskuz zartatzen lehenbizikoa izaiteko erokeria ukan duen lehenbiziko nobleziaren gainetik, aithortu behar da bizkitartean Angeleterrako baxtart batek eta Saxe-ko bertze batek zerbitzu handiak eman dauzkotela Estatuari armadak lorioski manatuz.

D'Aguesseau kanzelari eta zigiluzain Noailles-ko dukeari esker

1. Nola izendatua izan zen

Ganderailu bezperan batzu auhaltzen ari ginen libertatean Louville-en etxean. Fruitua mahiratua izan eta apur bat berantago, Saint-Contest Estatuko konseilariaren beharrira mintzatzera jin zizazkon, berehala mahitik jalgi baitzen. Joanik guti egon zen; baina hain goganbehartua itzuli, zergatik ikasiko zaukula hitz emanez, ezpaiginuen gehiago mahitik jalgitzea baizik gogoan ukan. Supazter inguruan bilduak izan ginenean, berria erran zaukun. Voysin kanzelaria, etxean familiarekin auhaltzean, osagarri onean, bapatez burutik beheitiko batez joa izana zela, eta ordu berean Lamoignon-go Anderearen gainera hila

bezala eroria, hura bezala Voysin-darra, eta hitz batez bi orenen bizirik etzuela. Alabaina, etzen biziki urrunago joan, eta ezagutza etzizakon berriz jin. Jende hori aski ezagun-arazia dut hortara berriz ez itzultzeko. Saint-Contest-en emaztea Le Maître zen, Parisko jujeria zahar eta omeneko hartarik, eta Ormesson-en amaren eta imperkadore jeneralaren ahizpa, berehala bere nahikariak azken huntara ekharri baitzituen. Hori erran eta, utzi ginituen hunen abisatzera joaiteko. Etxe guzia etzana eta lo aurkitu zuen, hala nola nun biharamunean goizik berriz itzuli baitzen, eta imperkadore jenerala ohetik athera baitzuen. Hunek hain guti zuen kargu handi horrek beha zezakeela uste ukan, nun ezpaitzen hortako den gutienik higitu; gostuan jantzi zen, eta emaztearekin joan Saint André des Arcs-ko meza nagusira.

Noailles-ko dukea, arratsean eta gauan abisatua izanik, etzen hoin gertaldi handiaz axolatu gabe egon lehen minixtroaren kargura aitzinatzeko, ehoiz ezpaitzen hori zituen agiantza minenen gaia izaitetik gelditu. Betidanik imperkadore jeneralaren adixkidea zen. Aitaren mereximendu azkarra, semearen aipamen distiratua etziren Noailles-tarrak ohartu gabe egon ahalak eta biekin atxikimendu azkarra hartua zuten. Noailles-ko dukeak etzezakeen ukan kanzelari nahi bezalakoagorik. Uste ukan zuen aitzina izpiritu ezti, ezpaiko hori gobernatuko zuela, itsu bat bezala gertatzen zena harrabots eta alderdikarien erdian, eta bere burua zoritsu senditukо zuena Noailles-ko dukea bezalako bidari batek ereman ukan zezan. Huts egin-arazi eztaukon gogoeta hortaz betea, Orléans-ko duke Jaunaren baitara joan zen hau ohetik jalgitzen ari zelarik, eta bere kadera zilatuan jarria baizik ez, urdaila biziki nahasia eta burua loaz eta bezperako auhariaz azkarki xoratua, goiz oroz zen bezala jeikitzean, eta oraino ondotik luzaz. Noailles-ko dukeak athera-arazi zituen hor gertatu ziren mutil gutiak, Orléans-ko duke Jaunari kanzelariaren heriotzea ikasi, eta ordu berean kargua D'Aguesseau-rendako bombardatu. Berehala Erret-Palaziora dei-arazi zuen, han egon baitzen hura jin arteo oharpen handiagoz. Arte hortan, Larochepot, Vaubourg eta Trudaine Estatuko konseilariak jin ziren Erreientari zigiluen ekhartzera, untzia bere mahiaren gainean ezarri baitzuen eta hek igorri komplimendu batekin. D'Aguesseau-ri igorria izana zen mezularia, hau etxean ez aurkituz, bila joan zizakon parropiara. Ordu berean Erret-Palaziora ethorri zen Orléans-ko duke Jaunak janztea bururatu berria zuenean, eta bere karrosa geldegina. D'Aguesseau-k aurkitu zuen Noailles-ko dukea Orléans-ko dukearekin hunen

gabinetean, hunek, horrelako garaziak laguntzen diren lausenguzko komplimenduekin, egiten zaukona erran baitzaukon. Biziki guti ondotik, gabinetetik jalgi zen, eta D'Aguesseau besotik hartuz, kompainiari erran zaukon haren baitan ikusten zutela kanzelari berri eta biziki gai zen bat, eta berehala, zigiluen untzia haren aitzinera ekharr-araziz, karrosan igaitera joan zen untziarekin eta kanzelariarekin. Teilerietarat ereman zuen, haren laudorioa Erregeri egin, eta gero zigiluen untzia aitzineratu Erregek eskua gainean ezartzen zuela D'Aguesseau-ri emaiteko, Orléans-ko duke Jaunak bazatxikalarik.

D'Aguesseau, untzia horrela ukanik, laño izan zen komplimenduen uhainen aitzinean; ahal bezenbat gibelerat egin zuen, eta etxera joan zen bere untzi baliokoarekin, han guzia ahaidez eta adixkidez betea baitzen Orléans-ko duke Jaunaren mezuaz irekitan, hunek, huts horren gertatzean, harrabots handia egina baitzuen Saint André des Arcs eta inguruneko auzoalde guzietan. D'Aguesseau-k, zuen ustegabean, nun zen etzakien, eta etzen karrosan baizik bere baitaratu zigiluekin etxerakoan. Hara heltzean jasan ukan behar ziren lehenbiziko jazarraldien ondotik, anaiaren etxera igan zen, halako filosofo atseginkoi bat, izpiritu eta jakitate ainitzekoa, baina bitxi-bitxienetarik. Supazterrean pipatzen aurkitu zuen gambarako arropan. "Anaia, erran zuen, kanzelari nizala erraitera heldu nizauzu. Bertzeak haren gana itzuliz: "Kanzelari, erran zuen; bertzeaz zer egin duzu? - Gaur hil da bapatez. - Ontsa bada! anaia, ontsa gozo zata; nahiago dut ni baino zu izan zaiten." Ukan zuen komplimendu guzia izan zen. Noailles-ko dukeari jende ainitz ikustera ethorri zizakon. Kanzelaria egina zuela ageri zen, eta nehor jakin gabe izan etzadin ontsa gozo zizakon. Berri hori jakin nuen goizean goizik.

Bazkal-ondoan Erret-Palaziora joan nintzan; Orléans-ku duke Jauna etzen dukesaren egoitzatik goiti ethorria; gabinetetarik hara jautsi nintzan. Haren ohe ondoan aurkitu nuen han baitzagon buruko min baten gatik. Berehala eguneko berria aipatu zautan. Gauza egina baitzen, ezeren ez kontraerraiteko nuen erregelan jarraiki nintzan. Erran naukon kargu handi horrendako etzezakeela legegizon jakintsunago, argiz distiratuago, esku garbiagorik hauta, ez haren goititzea gehiago baieztatu behar etzenik. Gaineratu nuen bakarrik zuen adinak gaizkituko zuela bereaz esperanzarik gehiago ukanen etzuten jende ainitz, eta D'Aguesseau-k ordu arteo bizia parlamentuan iragan zuela ahatz zezan agintzen nuela, eta han buruan hartua zuen guzia, bere karguko eginbidez eta horren ezagutzeaz baizik ez orhoitzeko. Hautu horren

ondoriozko eskuzartatzen lausenguek ezarria zuten loriak etzuen utzi hitz horren phizuaren senditzera gero ukan baitzuen hortaz orhoitzeko aldi. Gar horren erdian, galdegin zautan halako khexu batekin harekin ontsa nintzanez. Ihardetsi nuen orhoit zaitekeela Errege hil aitzin, eskainia naukola eta usu hertsatua, nagusi izanen zenean Voysin haiza zezan, eta zigiluak eman D'Aguesseau zaharrari; lehentasuneko ukana ginuen auzian Luxembourg-ko Jaunaren kontra haren semeak egina zuen hitzaldiak ene bihotza eta estimua ukan-araziak zauzkola; gure bizi moldeko ezberdintasunaz, eta gure etxearenaz harekin harremanik ukan gabe, sendimendu horiek berak nituela ene baitan; egia zela hozte biziki agerira aldatuak zirela bonetaren egitekoaren ondotik, eta parlamentuari doakonaz iragan zenaren; baina D'Aguesseau orotan Frantziako kanzelari bilakatuko zelako esperanzan, eta bere lehenbiziko aitzin-gogoez buluziko zelakoan, harekin hein hortan biziko ninzala (gobernuko) egitekoen onetan, eta, egun hortan berean, komplimendu egitera joanen ninzakola. Hala egin nuen alabainan, hortaz Orléans-ko duke Jaunak azkarki arindua eta gozatua iduritu baitzuen, eta kanzelari berria ezin gehiago hunkia. Haren imperkadore jeneralgoko kargua Joly de Fleury, lehen abokat jeneralari emana izan zizakon, eta Noailles-ko dukeak, ezpaitzituen den gauza ttipienak bazterrerat uzten, bere buruari eman-arazi zaukon Saint-Cyr-ko etxearen ontasunen adminiztratzea Voysin-ek zuen gauza ikustatezko bat bezala, eta hartaz artzeko bere azpian zuzen hartu zuen D'Ormesson, orduan errekeitetako nagusi, kanzelarisa berriaren anaia.

2. Nor zen

Kanzelari batek norbait izan behar du, eta erreienzia batean hala izan eztadin ezin dateke. Hori hain luzaz hala izana da, oraino bizi denaz geroz, eta fortunaren itsas-portua eta geriza-lekua iduri lukeen kargu handi hortan fortunaz hanbat joa, nun hainbertze arrazoinek baineramate izkiriatzen ari nizan aroan oraino mundu huntako direnetan ez hedatzeko nihauri emana dutan erregelaren gainetik iragaitera.

1668-ko hazaroaren 26-an jaio zen; abokat jeneral, 1691-ko urtarrilaren 12-an, hogei-ta-bi urte 'ta erditan; kanzelari eta Frantziako zigiluzain, 1717-ko otsailaren 2-an, berrogei-ta-sei (*sic*) urtetan. Haren aitaren aita errekeituetako nagusi zen, urrunago ez joaitea on da. Errekeituetako nagusi horrek ezkondu zuen bizkitartean alaba Armentières-ko eta Conflans-ko Jaunen aitarekin, biak bertze nunbait aipatu dutan Jussac-ko Anderearen eta bailearen suhiak, oraino duten

Puyseux-ko lur ttipiarekin; eta kanzelariaren arrebak ezkonduak izanak dira, hura hala izan baino biziki lehenago, gaztena Le Guerchois Jaunarekin Estatuko konseilari hil dena haurrik gabe, bertzea Tavannes-ko Jaunari, Tavannes-ko Jaun, ordezkari jeneral, komandari Burgoñan eta ordenako zaldun denaren aitamak baitira, eta Erruango arxapezpikuarenak, aitzinean Châlons-ko apezpiku-kondea, paper ageriz hortako lerroa atxikia baitu.

D'Aguesseau, soin-araz artekoa, lodia izan zen, begitarte biziki bete eta gozagarri batekin, azken desgarazietarano, eta beti itxura zuhur eta izpiritudun batekin, begi bat alta bertzea baino biziki ttipiago. Ohargarri da behin ere eztela aburu emaile izana kanzelari izan baino lehen, eta parlamentuan errex haren ondorioer ez jarraikitzeko gostua bazutela, ukana zuen aipamenaren distiraren bekaizkeria zenbaitez, estimua eta adixkidantza gainditzen zituena. Ainitz izpiritu, behatze, sarkortasun, mota orotako jakitate, larritasun eta lege-gizonaren, zuzentasun, debozione eta bizi-moldeko garbitasunek egin zaukoten jitearen oinarria. Baderrateke izpiritu eder bat zela eta gizon ezin uhertu bat, Bouillon-darren egitekoan ezpada; horrekin eztia, ona, sendimendukoa, hurbiltzeko errexa eta gozoa, eta etxekoz-etxeko zenean irri-solas gazia, baina nehoiz ehor laidotu gabe; ezin gehiago jale-urria, urgulurik gabe jendetasunekoa, eta noble, den gutieneko zekeneriarik gabe, jitez auherra, hortik emeki ibiltze bat gelditua baitzizakon. Nork sinets elezake hoinbertze bertute 'ta antzez aphaindu lege-gizon bat, orhoitzea, irakurtze zabala, hitz ederra mintzatzean eta idaztean, eta zuzena solastatze arruntenetaranoko erranaldi ttipienetan, errextasunaren garaziekin bazituena, etzela izanen mende ainitzez geroz ikusia izanen zen kanzelari handiena? Egia bada buruzagi lehen ezin hobea izanen zela, ezta gutiago hala, kanzelari bilakaturik, D'Aligre 'ta Boucherat-nokoez dolu eman-arazi zuela. Itxurarik eztuen gauza hori ezta entzun errexa, alta begira ageri da hogei-ta-hamar urte kanzelari denaz geroztik, eta hain argiki nun hortan geldi bainindaike; baina gauza hoin bitxiak hedatua izaitea merexi du.

Gaitasun horien bildegi hoin zorizkoa lehenbiziko bizian gorderik geldituak zizazkon alderdi batzuetarik andeatua zen, eta oro betan argiratu zirenak bigarrenera heldu zen bezain laster. Parlamentuaren altzoan hartua zuen hazkurri luze 'ta bakarrak haren erregela eta nahikaria guziez orhatua zuen, hari behatzerano Angelesek bere parlamenduendako, gurekin izena baizik berdina eztutelarik, duten baino

gehiago maitasun, errespetu eta agurgarritasunekin; eta eztut gehiegi erranen aitzineratuko dutalarik kompainia harenganik sortzen zen guzia etzuela ikusten bere erlisionean ontsa jakina den sinesle batek eliza osoko konzilioen fedezko erabakiak egiten dituenaz bertzela. Erlisionearen iduriko hortarik sortzen ziren biziki usu aurkitzen ziren hirur gaitz ezin handiagoak: lehena, beti parlamentuaren alde zela, zer ere bazegien erret-larderiaren kontra, edo oraino hortik haratago, bere karguak, parlamentuen buruzagia eta heinkatzalea eta haien aldera erregeren ahoa egiten zuelarik, mugak iragaiten zirenean haien neurrian atxikitzera bortxatzen, oroz gainetik bermuki manatzea, erret-larderiari lotzen zizazkonean. Zituen zuzentasunak eta argiek parlamentuaren erotasuna erakusten zaukoten bada hortara emaiten zen aldi oroz, baina erasiatzea hura baino azkarrago zen. Zuen nagitasuna, parlamentuaren ohoratzeko zuen halako erlisione hura lagun, dolumintzen zen, hutsean zela ikusiz lastimatzen; baina hortara eroria zela erakustea gaizki egin bat zizakon, bertzeak zikintzen zituela ikusiz auhenetan zelarik, eta bera etzaitekeelarik hortaz zikindua izan. Bere talendu guziak bazematzan beraz gordetzeari, estaltzeari, desenkusatzeari, parlamentuaren hutsez lilluratzeko azterketa amarrutsu batzuen emaiteari, harekin antolamendu egiteari alde batetik, Erreientarekin bertzetik, hunen herabeaz, errextasunaz, arintasunaz baliatzeari guziaren lanpusteko, haren baitan guziaren ahultzeari, hala nola nun lehenbiziko lege-gizon hortan erret-larderiaren zurkaitz azkar baten orde, eta zuzenbiden egiazko juje bat, nekez atheratzen baitzizakon bortxazko elhe motel zenbait, nekerekin hartara jin ahal zena ahultzen zuena oraino, eta parlamentuari bihotz, indar eta goratasun emaiten; eta batzuetan bertze moldez argitu bada harekin, etzen gudu luze baten ondotik baizik, eta beti egitea hitzemana zen baino ontsa ahulkiago (…)

Marly-ren barreatzeaz

Orhoitzen niz zerbait ahatzia dutala hartaz orhoit dadin merezi duena gauzaren berezitasunaz, eta berriz ere ihes egin eztezatan hemen ezarriko dutana. Bazkal-ondo batez, Erreienziako konseiluan lekuen hartzera ginoalarik, Villars-ko marexalak bazterrera ereman ninduen, eta galdegin zautan Marly barreatuko zela banakienez. Ezetz erran naukon, alabainan enuen aipatzen entzuna, eta gaineratu nuen enezakeela sinets.

"Eztuzu beraz onhartzen," egin zuen berriz marexalak. Hortarik biziki urrun nintzala segurtatu naukon. Berriz erran zautan barreatzea deliberatua zela, bazakiela ez dudatzekotan eta, egitera utzi ezpanuen nahi, ephe bat galtzeko enuela. Ihardetsi nuen, lekuratzen ari ginelarik, berehala Orléans-ko duke Jaunari aipatuko naukola. "Berehala, egin zuen bizi-bizia marexalak, aipa zakozu orai berean, ezen manua jadanik emana da menturaz."

Konseilu guzia jadanik lekuan jarria zelarik, joan nindakon gibeletik Orléans-ko duke Jaunari, beharrira erran naukon zer ikasia nuen, norenganik erran gabe; othoizten nuela, egia balitz, gauza geldi zezan ni hari mintzatua izan arteo, eta haren aurkitzera Erret-Palaziora joanen nintzala konseilutik landa. Apur bat ahopiatu zuen, hatzemana izanik gaitzitua bezala, eta bizkitartean ene beha egoitea onhartu. Atheratzean Villars-ko marexalari erran naukon, eta Erret-Palaziora joan nintzan, han Orléans-ko duke Jaunak ezpaitzuen gauza ukatu. Erran naukon hoin konseilu gaizkorra nork emana zaukon enaukola galdeginen. Ona zela erakutsi nahi ukan zautan arthatzeko gastuen ekhentzeaz, salduko ziren hanbat urodi, ekhei eta bertze gauzez, eta Errege ainitz urtez hara joaiteko adinean etzen leku baten gune gozagarritasun gabeaz, bazituelarik ere hanbat bertze etxe gastu hain handiarekin arthatzeko, eta hetarik bat ez barreatzeko gai. Erran naukon hor aitzineratuak zauzkotela jende xoil baten aitorde baten arrazoinak, horren ibilara ezpaitzaitekeen edonola Frantziako errege baten aitordearena izan; aithortu behar zela Marly-ren arthatzeko gastua beharrezkoa zela, baina aldi berean onhartu Erregerenetan ttitta bat zela, eta berdin ekheien saltzeko abantaila burutik utzi, emaitzaz eta ebaskeriaz ezeztatuko baitzen; etzuela ere gauza ttipi horier behatu behar, baina zenbat miliun ziren huskindegi zahar hortara egotzirik izanak mirazko palazio baten egiteko, bere moldeaz Europan bakarra, bakarra oraino bere ithurrien ederraz, bakarra ere Errege zenaren ospeak emana zaukon omenaz; Frantziara zetorren atzerritar guzien ikus-nahiaren gaietarik bat zela; barreatze horrek Europa guzian hots eginen zuela diru baztertzeko arrazoin aphal horiek baztertuko etzuten gaitzerraite batekin; Frantzia osoa sumindua izanen zela hoin hautuko aphaindura ekhentzen ikusiz; nahiz hura eta ni behakor izan ahal ez gintazkeen Errege zenaren gostuaz eta lan hautetsiaz, etzuela haren orhoitzapena jo behar, hain erreinu luzeaz, hanbat urte distiratuez, hain nahikabe handi gizandiki jasanez, eta hortik hanbat zorionekin jalgia

izaiteko fortuna ustegabekoaz, mundu guzia utzia baitzuen haren personaren agurgarritasunean; azkenik gogoan ukan behar zuela gaitzitu guziek, ez alde ez kontra ziren guziek ere, gorte zaharrarekin bat eginen zutela erahiltzeaz oihu egiteko; Maine-ko dukea, Ventadour-ko Anderea, Villeroy-ko marexala etzizazkola egonen Erregeren ondoan hori gaizkinera ekharri gabe, Erreienzia demboran horren sustatzen jakinen baitzuten, eta haiekin bertze ainitz bururatua izanen zenean haren kontra hartu behar zuela gogoan harr-arazten. Hortaz guziaz den gogoeta arinenik egina etzuela argiki ikusi nuen. Arrazoin nuela onhartu zuen, Marly-ri etzizakola hunkiko hitzeman zautan, eta hartaz artha harr-arazten jarraikiko zuela, eta huts hortarik begiratu nuelakotz eskertu ninduen. Hortaz ongi segurtatua izan nintzanean: "Aithorrazu, erran naukon, Errege bertze munduan ontsa ustegabetua lizatekeela jakin ahal baleza Noailles-ko dukeak zauzula Marly-ren barreatzea mana-arazia, eta nik zitutala egitera ez utzi.- Oi! huntaz denean, ihardetsi zuen bizi-bizia, ezin sinets lezakeela egia da." Alabainan, Marly atxikia izan zen eta arthatua; eta Fleury kardinalak du, ikastetxe xoil bateko ordezkariaren zekeneriaz, latsaz murriztu, hango edergailu mirazkoena zenaz.

Berri on horren Villars-ko marexalari emaitera lehiatu nintzan. Noailles-ko dukea, hauen nagusi gelditukо zen arthatzeko gastuaren mozteaz eta ekheiez harat, D'Antin-i joko horren egiteaz ontsa gozatua baitzen, hau haren egin-nahi guzietarik erresuma barneko konseiluaren zaintzera ausartatua baitzen, erotua izan zen hori bere buruari ekhentzen ikusiz. Osoki ezetsia izaiteko, ukan zuen bederen, eta ontsa segeretuki berriz ere huts egin beldurrez, mubleria, oihaleria eta bertze salduak izanen zirela. Erreientari sinets-arazi zaukon, Marly-ren barreatzean gibelerat eginik harekin eragozpenean, hori guzia andeatua eta galdua izanen zela Errege Marly-ra joaiteko adinean izanen zeneko, eta salduz, biziki gotor irabaziko zela eta oraikoa arinduko. Eta gero Erregek bere nahitara mubleztatuko zuela. Baziren muble eder zenbait, baina gortelari, aitzindari, handi eta xipien oheak, jantzitegiak eta bertze, Erregeren muble, mihise, oihal eta holakoz mubleztatuak baitziren, elemenia bat bazen, guziaren saltzeak fagorez eta ohoinkeriaz emaitza artekoa ukan baitzuen, eta ordainen ezartzeak geroztik miliunak gosta. Enuen saltzea hasia izan zenean baizik jakin, nahi zuenak erosi baitzuen merke baino merkeago; horrela eneuen itsuskeria biziki damugarri hori debekatu ahal ukan.

Erreienta eta dukea *Unigenitus* bulaz eztabadatzen

1. Operako solasaldia

Fedezko artikulu berri baten ezinbertze hortan, legezko larderia oroz hain gabea, Elizako bilzarre oso eta libroari baizik emana izaiten eztenaz geroz, hari bakarrik Jesu-Kristoren agiantzek batiote harekin izanen dela menderen mendeak suntsitu arteo, Sorbonak eta laur apezpikuek uste ukan zuten ordu zela Elizak beti azken erremedio bezala erakutsi duenari hel egiteko, eta bere haurrek hausteko tresna bezala erabil dezaten onhartu duenari, egia entzuna zatekeen orduak igurikatuz, hartaz baitziren bakarrik, Errege zena bera, beti baliatu parlamentuetan, apezpikuen, dotoren eta bertzen artean, Erromaren egintzer ihes egiteko. Geroko konzilio orotako eta libro bati hel egitea izan zen. Bentivoglio-k eta konztituzionearen alderdi guziak goraki oihu egin zuten. Urrats handi horren baitan zen indar guzia sendi zuten; horrek hausteko zuen phizuaren azpian auhenetan zauden. Haien egintzako behazun hortarik beldurtu behar zuten ondorio izigarria sendi zuten, eta geldi-arazteko ifernua inharrosi zuten. Erreienta izitzera laster emana, konfienxiako gaizkor batzuek ereman-araztera uzteko errexa, haien eskuetara eman zen Sorbonaren eta laur apezpikuen gaztigatzeko, herritik igorri baitzituen, eta gero bere diozesetara itzul-arazi.

Orduan zuen Noailles-ko kardinalak ukaldi handi bat huts-egin, jadanik aldi bat baino gehiagotan egina zuen bezala. Bere etxean edo enean usu ikusten nuen. Gertaldi hortan ethorri zizatan enekin arrazoinkatzera. Dei egitera sustatu nuen. Parisko kalonjen bilkurez eta erretorez segur zen, eliza-gizon nagusiez eta komentu erregulako ala mundukoetako kongregazione gehienez eta aipatuenez. Hala zen ere hari beha baizik etzauden apezpiku andana batez; eta horiek guziek eman zezan lehia-arazten zuten (…)

Segeretuz erran zautan deia oso-osoa egina zela; baina uste zuela behar zela oraino ukaldia dilindan atxiki, eta pairamen aski ez ukanik etzuela bere burua erasia-arazi behar. Ehoiz enuen hortik athera-arazi ahal ukan, ez hark arrazoinik eman ukan ahulik baizik. Ephe luze baten buruan, atzinetik erran naukon pairamena galgarri izanen zizakola, azkenean deira jinen zela, baina berantegi; ordu huntan harekin dei egitera prest zen guzia aurkituko zuela bildua, herabetua, demborarekin berezia; astia utziko zeela azpikerier eta bildua ukanen zuten

Erreientaren larderiari, indarrekin etsai aurkituko zuena; aldiz ordu hartan ukaldiaz burxoratua, etzuela jeusetan hartaz beldurtzekorik ukanen, oroz gainetik berekin ukanen zituen parlamentuekin; aldiz irabaziak, bereziak, herabetuak izanen zirelarik hortarako utziko zuen astiaz, eta deia aithortu nahiko zuenean, utzia izanen zela. Enintzan profeta onegia baizik izan.

(…)

Erreienta, Errege zenaren aroko konztituzioneaz zer nuen gogoan baitzakien, eta, bere orduan errana dutan bezala, berak gogoan zer zuen, eragozpenean zen enekin. Hortaz eni mintzatzea hanbat errexago baztertzen zuen nun ezpainuen nihaurek behin ere hortara ekhartzen, eta jende batzuez egin-arazten zizazkon bortizkerietan ukaiten nituen eztitze zenbait ezpada, egiteko hortara guzira harekin deusetan sartzea ezpainuen batere bilatzen, bere burua eremaitera nola utzia zuen ezagutua nuenaz geroztik. Baina eragozpenean sendi zenean eta hein baterano hertsatua, ezin egon zaitekeen enegana jin gabe gogoa osoki idekirik, bere aieruek edo hurbiltzen zizazkon jenden eraginek haren begietan kaltegarrienik bilakatzen ninduten aldi eta gauzetan beretan. Hertsatua beraz, eta erran berri ditutan dei eta haserretze elgarren kontrakoez eragozpenean, gelditu ninduen, bazkal-ondo batez, paper batzuen biltzen ari nintzalarik, eta harekin buruz buru lanean ari izanik uztera nindoalarik, astean behin edo bietan gertatzen zizatan bezala.

Erran zautan bazoala Operara, eta hara ereman nahi ninduela gauza larri batzuez mintzatzeko. "Opera, jauna! egin nuen; he! zer lekua egitekoez mintzatzeko! aipa ditzagun hemen nahiko duzun bezenbat, edo Operara joan nahiago baduzu ontsa; eta bihar edo nahiko duzunean berriz itzuliko niz." Bere hartan egon zen, eta erran zautan biak haren egongia ttipian hetsiko ginela, hara joaiten baitzen gorderik eta egoitzatik estaia berean bakarrik, eta han bere gabinetean bezain ontsa edo hobeki izanen ginela. Othoiztu nuen gogora eman zezan ikusgarriak eta musikak hartuko ginituztela; haren egongia ikusten zuen guziak ikertuko ginituela solasean, arrazoinkatzen eta Operari behatzerik gabe, gure jestu guzien zilatzea bilatuko zuela; horrara hari gorte egitera heldu ziren jendeak bere aldetik arrazoinkatuko zirela hura bere egongia ttipian ikusiz enekin hetsia; zenbat irauten zuen bakoitzak neurtuko zuela; hitz batez, Opera libertitzeko, jostatzeko, ikusteko, ikusia izaiteko egina zela, eta ez batere han hetsia egoiteko ez egitekoez solastatzeko ez eta ikusgarrian berean ikusgarri izaiteko. Mintzatzea eder izan zizatan, azkenean irriz hasi zen,

esku batez bere xapela eta makila kanape baten gainean hartu zituen, bertzeaz ni besotik, eta horra biak abiatuak. Egongiara sartzean, nehor hara sar zadin debekatu zuen, idek zezaten zer gerta ahal zadin ere, eta nehor ez atheari hurbiltzera utz. Entzuna izaiteko irriskuan izan nahi etzuela ontsa erakustea zen, baina ere, hor enekin hetsirik, ikusgarrietako ez musikako gizona enintzalarik, Operan gutiago zela ezinez eta egitekoetako gabinet batean. Hortako zuen ondorio biziki gaitza ukan berri bat emanez Operan gertatu zen guziak atheratzean Parisen hedatu zuena, aitzinetik ontsa ikusia nuen eta Orléans-ko duke jaunari errana naukon bezala.

Ezarri ninduen berak han jartzea ohi zuela erran zautan lekuan, tauladari beha, huni bizkarra itzul-arazi baitzautan haren aitzinean bekoz-beko izaiteko. Egonara hortan, bete-betean ikusiak ginen, hura antzoki guziaz eta auzoko jargunetarik, eta zolako zati batez, ni antzokiaz bizkarretik, eta bazterretik eta abantzu aitzinetik Operan egongietako bertze alderdian zen guziaz. Herri ezezagun bat zen enetako, han ene ezagutzea neke izan baitzen hastapenean, baina begi zenbaitek, buruz-burukoak eta solasaren biziak laster agerian ezarri baininduten. Opera etzen hasi berria baizik; ezkinaukon ikusgarriari, biziki betea zena, jartzean ephe batez baizik behatu ez eta gehiago bururatzerano ezer entzun, hanbat ginituen solasak hartu.

2. Noailles-tarrak: duke hastiatua eta kardinala

(…) Une hortan, Erreientak moztu ninduen, eta halako bihotz-herstura batekin: "Baina, jauna, erran zautan, zer nahi duzu sinets dezatan, Noailles-ko dukeak berak dei horietaz gelditzen nauenean, eta erraiten hortan guzia menturan ezartzen dutala, jendearen gehien-gehiena konztituzionearen alde delakotz, eta ahur bat jende baizik eztelakotz bertze alderdian? - Jauna, hasi nuen berriz, hori itsusi da, baina enau batere ustegabetzen. Badakizu behin ere enizazula Noailles-ko dukeaz mintzatzen gure artean iragana denaren lehenbiziko aldiez geroztik; baina jokoan eta kontra-erran hain itxurazkoan ezartzen dautazunaz geroz, behar dautzut ere hartaz ihardetsi. Noailles-ko Jauna gizon bat da, jauna, erlisionerik ez ohorerik eztuena, eta ahalgetze ororano galdua duena, den abantail ttipiena aurkituko duela uste duen orduko. Errege zenaren aroan, Espainiatik deitua izanik, harekin gaizkitua, Maintenon-go Anderearekin, Burgoñako dukesa Anderearekin, jende guzia haren beldur eta gogo gaitzean, hitz batez

Espainian eta hemen galdua, etzuen izaiterik eta laguntzarik bere osaba baizik, eta huni esker, hunen alderdia zeritzotena, eta huni zatxikakon. Bere hegalez doanez geroztik, osaba hori bera eta horren alderdia, ezpaititu gehiago deusetan baliagarri, dorpe zazko; beraz nahi du hortik bildu bertze alderdiaren ganik bere burua gizon alderdigabe bat bezala ikus-arazia ukanaren saria (…)

Nahi duena aharrari iraun-araztea da bi aldetarik miretsia izaiteko, eta zuri badagien bezala mintzatzea zuretako duen atxikimenduaren zuri sinets-arazteko, eta gauzan den egiaren, odolari, adixkidantzari eta abantail-nahi orori ihardokitzekotan. Horra, jauna, nolakoa den Noailles-ko dukea, eta hortara bortxatzen nauzunaz geroz, norano zituen enganatua. Baina ni, egiatiagoa nizana, zuzenagoa eta zintzoagoa, bertze doinu batez mintzatuko nizazu: ezpaitautzut gordetzen, ez nehori eta ez hari berari ere, biziko egun ederrena eta atsegingarriena lizateela enetako juztizia jainkotarraren ganik haren lehertzeko eta xehatzeko emana izanen lizatana, sabel gainean bi oinez ibiltzekoa, askieste hortarako ezpaita eman enezakeen fortunarik. Eniz oraino zentzuz eta arrazoinez aski gabea ez ikusteko, zenbat higikor, zenbat trebe, zenbat zorrotz eta antzedun bada ere Noailles-ko dukea, ezin dezakeela galdua izaitea huts egin osaba (kardinala) galdua baldin badu, eta Erroma eta konztituzionariak heltzen badira errege zenaren aroan egina izaitea hain hurbil ukana duen bezala haren erabiltzera, eta berriz hortara egun oroz lanean ari diren bezala. Aitzinatzen dutana agerian da. Mailka sinets-arazten baldin badautzute utzi behar dezeezula, eta arropa gorriaz eta karguaz buluzten badute, horra gizon bat bederen deusetaratua, gaitzagorik ezpada, edo Erromara igorria. Izanara hortan, bi gauzetarik bat: edo Noailles-ko dukea osabaren fortunari jarraikitzen zako, edo uzten du berearen begiratzeko. Osabaren fortunari jarraikitzen bazako, horra bera baztertua, lekurik gabe, gehiago ezeretan sartu nahi gabe jendea sarraskitzen duen printze baten azpian, edo bederen etsaien abrekeria eta errabiara uzten. Horra nora deramaten odolak, adixkidetasunak, ohoreak, eta ni, ondorioz, zorionean igerika, hura ikusiz itzultzerik gabe osaba deraman uhaitzak hartua eta ithoa. Baldin, aldiz, izpirituko itzuli eta berexkuntza batzuekin, osaba uzten badu den lekuan aztaparka loturik egoiteko, gizon agerikienik eta osokienik desohoratua bilakatzen da; gainera, osabaren odolaren gastuz gupidesten duen alderdiari aierutsu bilakatzen zako, eta zuhauri ere ezpaitzira nehoiz haren baitan edozein gauzaz fidatzera menturatuko; jendearen higuntza

bilakatzen da eta bere osabaren alderdiaren hastioa, ezpailaiteke hau oso osoan harekin honda; azkenean jendearan higuntza eta lurraren gaitzestea; eta ni, ondorioz, ene mendekioari egiteko eta nahi ukaiteko ezer uzten eztaukon haren izanara desohoratuaz gozatzen. Ene abantail bizi eta minena, Noailles-ko dukea bezain gaixtagina banintz, zure Erreienziako lehenbiziko egunetan beretan, Rohan-go eta Bissy-ko kardinalen, eta haien lagunkiden lehiari ihardestea izanen zen beraz, haiekin batasun hertsi egitea, zure ondoan ene indar guziez haier zerbitzu egitea. Horietaz ohoratzen nauzun oneziak eta konfienxiak eginen ninduten haien artean gizon laiko nagusiena, alderdiaren aholku emailea eta eztitzalea, etxekotasun eta adei hanbat azkarragoekin nun gure indar guziekin helburu berera lan egina ukanen baiginuen, eta jadanik hartara helduak izanen baiginen. Etzazula uste ukan gogoeta hau berria zatala, ez eta jaun horiek orai arteo eni horren gogora-araztera entseatu gabe egonak direla, erran-arazterano, eta aldi bat baino gehiagotan, ezin entzun dutela nola, Noailles-ko dukearendako dutan herra guziarekin, osaba galduz segurki eta bermuki galtzen ahal nuelarik, banindagon Noailles-ko kardinalaren adixkide, eta, haien hitzen soberakeriaren erabiltzeko, haren gerizatzale azkarrena. Baina zuri jeus gostatzen etzauzun bertute horren ukaiteko ahalik ezpadut oraino, eta mereximendurik batere gabe soberakeria gaizkarriener ekhartzen dauezunaren, hori baita etsaier barkatzea, Jainkoak ezpaletsa mendekioaren atseginera aski eror nadin, eta aski gaixtagin bilaka egia ezagunari berari, zuzentasun eta ogengabetasun agerienari, eta erlisionearen eta Estatuaren onari alde egiteko; eta zuri ene indar guziez horien erakustetik geldi nadin, eta horier eratxikia den zure abantail bereziaren, hoin kapitulu handiaz entzun nahiko nauzun bezenbat!" Erran ihardoki-ezin hori bururatu nuen erranez hari zela ikustea nor, ni ala Noailles-ko dukea, zizakon abantail nahi gabe gehienarekin eta delako deiaz egia gehiagorekin mintzo.

(…)

3. Erreintak zergatik behar duen konztituzionaren etsai bilakatu

"Uste duzua, jauna, jarraiki nuen, (Espainiako erregeren) hein berean zirela zure izpiritu guziarekin, jakitate guziarekin, argi guziekin, zure biziaren nahasmen agerian bademazun guziarekin, jende guziaren zure gana hurbiltze libroarekin, zure jakintza hedatu eta zure jaiotzearekin hoin ohi ez bezalakoak direnekin, azkenik erlisionearen

gaitzesmenarekin eta beti danik hain publikoki erakutsi nahi duzun izpirituko libertatearekin? Ephe batez hortaz gogoetatzen ziren ber, minki sinetsiko duzu nehoiz etzaitezkeela Erromaren gizona bilaka, eta Espainiako erregeri eztaukola espesuki heiendako egina eta moldatua bilakatzen duten gaitasunetarik batek huts egiten. Burutik osoki ekhen ezazu beraz, zer ere egin badezakezu, ehoiz badituzkezula Erroma, jesuistak, konztituzionariak, zure alderdiko. Zorigaitzez hori badator, sinetsazu aldiz ontsa azkarki zure etsai handienetako ukanen dituzula, eta debekaturik ezer etzeela zure kontra ukanen. Baldin, horrekin, haien alderdiaren etsaia denaren hartzera bazoaz, legen eta estimu publikoarena baita; parlamentuen gana hurbiltzeaz axolatzen ezpazira gauza hortan haien haserretzetik gelditu (…); eta jarrikitzen badituzu eta bikuntzen ere, gauzak hartara joanen diren azken heinak bortxatuko zituen bezala, herritik urruntzeak, presondegiak, lurrekoen bahitzeak, atzerrira haizatze oraino ez entzunak, kargu eta benefizioen ekhentzeak; zure alde nor ukanen duzu, zorigaitzez hori gerta badadi, bat edo bertze alderditik, edo, oraino gelditzen bada, alderdi gabeko eta axolatuak eztirenetarik?”

Hortan gelditu nintzan eta enuen gehiagokorik erran nahi ukan, emana naukon hunkitzearen jujatzeko. Uste nuena gainditu zuen alta ni segurtatu gabe; gizon bat ikusi nuen ene arrazoinez hartua, eta etzuen horren aithortzeko nekerik ukan; aldi berean trabatua eta izendatu ditutanen ganik ihes egiteko eragozpenean, horiek, deien joaitera uzteko edo geldi-arazteko ordu gaixto horietan, baitzoazkon bat bertzearen ondotik begietarik galtzera ez uzteko. Gauzaren oraiko izaeraz arrazoinkatu zen eta bi aldetan ziren behargabez; aitzineratua naukon guziaren indarra onetsi zuen. Orduan enauzkon artetik hitz bakar batzu baizik erraiten mintzatzera uzteko, eta ontsa entzuteko; eta enuen nik errana sinetsia zuen gizon bat baizik ikusi, eta berak aithortuz, emanak nauzkon arrazoinetarik bati ihardesterik gabe, baina gizon bat erditzeko oinazetan. Hortan ginen, oihala erori zenean. Biak ustegabetuak izan ginen eta khexatuak ikusgarriaren bururatzeaz. Horrek bakoitzaren atheratzeko lehiaz eman zuen harramantzan, oraino ephe zenbaitez egon ginen solasaldi hori gelditu ahal ukan gabe.

Erreientari, eztela gehiago orai Estatu jeneralen biltzeko ordu

1. Zergatik ezten orai Estatuen biltzeko ordu

"Gai hortan sartu baino lehen, Zure Erret-Goitasuna orhoituko da laket bazako, harek ez ikusiak ukaiteko larriegiak diren bi gertakarien bidez, aro guziez haren gana hurbiltzeko ohorea ukana duten guzien artean, batek eztuela Estatu jeneralendako nik betidanik ukana dutan baino estimu, ez eta, horrela erraiteko, jitezko gostu gehiagorik. Bat hau da: Erregeren aita, Enejaun Delfin zenaren begien azpian ari nintzalarik, zati batzu hartu dezteezun langaietan, ene xedetan nagusia Estatu jeneralen bortz urtetarik biltzea zela, haien errextea hain usu debaldekoak bilakatuak dituen nahasmen hura gabe bil ahal zaiten; Estatu jeneral horiek izan zaiten handizki eta oro batean dirutzetako intendant goienak emaitza, zerga, hauen banakatze, biltze 'ta gastuendako; orotaz kondu emana izan zadin haien aitzinean; biltzeko aldi bakoitzaren artean deputatu bilkura batek iraun zezan hirur ordenetarik bakoitzako batez osaturik bitartean egun orotako gauzen eta lehiatuak ziren bertze batzuen egiteko, hein batzuetarano, ondoko estatuetarano bere gain ukanen zuten adminiztratze batez; lan ordu hortan ukan zitzaten lerro bat eta eskubide berezi bat, horiek erakutsi baitautzute norano doan "nazioneak" izendatu dituenendako dutan errespetua; eta Erregeren gastuendako aldaratua izanen zena, halako "lixta zibila" bezalako zerbait, diruzain batez erabilia izan zadin, bakarrik Erregeri berari baizik emanen etzakona hunen konduetako gambararen bidez. (*)

(*) Hemen ikusten da, laburpenez, Burgoñako dukearen xeder jarraikiz, San-Simunek nola asmatzen eta ikusten zuen Frantziarendako "erretate erdi-parlamentaria" bezalako zerbait. (*Itzultzalearen oharra*)

Bertzea da Estatu jeneralen biltzea Errege zena hil eta berehala, hortan Zure Erret-Goitasuna orhoitzen baitateke zenbat hartu dutan haren lehia-arazteko libertatea, deliberoa hartua zuela, eta, geroztik aburuz aldatu baldin bada, ezaguna baita enearen kontra joanez izana dela.

Ezta hemen bi gauza horietan gelditzeko ordu, aski baita zure gogora bi hitzez ekhar daiten. Lehenbizikoa ezin zaitekeen eraik Errege adineko eta Jainkoaren bihotzaren arauko baten azpian baizik, bere jendalden aita itzaiteko sortua, ordenuaren berrantolatzalea, eta eztitzale ezin uhertua zuzenbidearen eta bere abantailen berexte hautukoenaren bidez. Langai horren argitzeak ezer berririk elezazuke erakuts, ene gaitik urrun nindezake, holako printze bat galdurik dutan bihotzmin samina

berpitz lezake, eta lan baino bozkario gehiagorekin oraino Frantziaren ohore 'ta abantail azkarreko asmatua eta irezia nuenaren debaldeaz. Bertzea hain azkarki eztabadatua izana da Zure Erret-Goitasunarekin Erregeren heriotze aitzin eta ondoan, eta aro hori hain hurbil da, nun ezpaitezake zure gogotik ihes egina ukan.

(…)

Galdegai andana bat gogora badator aldi berean Estatu jeneralen erremedio motaz, baina bi nagusietara biltzen direnak, hautarik sortuko baitira azpi-zatiak: 1° erremedioaren beha egon behar denez Estatu jeneralen ganik; 2° Estatu jeneralek emanen dituzten trabak eztirenez haien biltzearen ondorioak ekhenduko dituela gogatzen direnak baino gaizkorragoak izanen.

Jainkoak baletsa, Enejauna, ezpazine erregeren heriotzean haien deitzeko hain serioski hartua zinuen delibero saindu eta zuhurretik baztertua izana, erran nahi da zure Erreienziaren aithortzeko bilkuran, egun berean haien deitzeko eskutitzen izenpetzeko, eta bi ilabete berantago biltzeko; bertze bi ilabeteko luzamena bilzarre berezietako hautatze 'ta eztabadatzek asti gehiago ukan zezaten bilzarre handiko deputatuendako, eta bertze bi ilabete Estatu jeneralen bilzarreko: etzuten sei ilabete baizik eginen, gehien-gehienik zortzi, bitartean dirutzeak ongi edo gaizki itzulikatuko baitziren aitzineko oldearen araura, baina zuretik ezer ere gabe. Erran bada ere, orduan sobera ondorio onekin egin zen bezala, artean bizi behar zela, ez ote zen, egiaz, Errege zena oraino zortzi ilabetez mundu huntan gelditu balitz, zorti ilabete horietan bizi ahal izanen?

(…) Orai dirutzetan guzia abiatua da: monera, zerga, garbitze, ekhentze, mozte, Estatuko diru paper, paperren aldatze eta balio galtze, kondarien manu. Horrek eman du gastuen ttipitze bat kapital andana handi baten osoan ala zatiz agortzeaz, eta metatuak ziren ordaintze gibelatu ainitzenaz, eta gainera dirutalde gotor ohi gabekoak sartuak datezke Erregeren kutxetan. Hori guzia ezta hala ere aski; eta ukaldi handiago batzuen joitera jin behar dela ondorioztatzea errex da, Zure Erret-Goitasunaren onezia ezpaita hortako manuen emaitera nekez baizik jiten ahal, eta bere karguen gatik gogora-arazten ahal dauzkotenak, eta gero bete behar dituztenak, gauzaren bere gain hartzeko beldur baitira.

Horiek orai sendi dute Erregeren heriotzean Estatu jeneralen bil-araztetik zu baztertuz egin duten hutsa. Ukan eztituzten antolamen eta

atherabide batzuen beha egonak ziren, Zure Erret-Goitasunari sinets-arazirik dirutzeta berriz errex jarriko zela beharrezko egintza batzuen ondorioz, eta hori berek hortan zuten konfienxiaz sinets-arazirik. Baina egintza horietan nagusiena da dirutzetan nahasmen gehiena bademana. Ezta hori aitzinetik ikusi dutalakotz, eta beti horren kontra zure errespetuak haizu utzi dautan bezenbat joan enizalakotz, hemen justiziako gambara aipatzen baldin badut, baina ondorioak halakoak baitira nun hitz baten ez erraitea ezina baita. Ontsa begiratuko niz orduan gambara horren kontra zure aitzinera emaiteko ohorea ukan nuen arrazoinetarik baten berriz hunkitzetik, horren aipatzekoa egin zinautan lehenbiziko orduetan beretan, eta usu zuri horien errepikatzeko libertatea hartua ukanik (…)

Dirutzeak arintzen dituen gauza bakarra, diru aldameneko nahasmenak zuzenduz, eta ordaintzeak errextuz, Law jaunaren bankoaren jartzea da, aithor baitut horri azkarki kontra egin daukotala, baina horren ondorio ona baitakusat alde izan baninzako bezain bozkario egiazkoarekin, ezpadut ere hortan abantailik batere hartu nahi ukan. Baina arintze horrek ezpaitu bertze erremedio batzu gabe egoiteko aski hitzemaiten, dakusagun azkenean, erakutsi den horren guziaren ondotik, Estatu jeneralen biltzetik zeri beha egon behar datekeen.

Bilzarre horrek, ezin gehiago errespetagarria, "nazionearen" gorputz osoa itxuratzen duena, konseilu biziki jende ainitzekoa egiten du. Deputatu bakoitzak bere herri eta ordenako auhen eta arrangurak ekharri behar ditu, hetaz ohian Erregeri eskatzera badatorren erremedioez bain hobeko jakinduru baita. Bakoitzak bere gaitza hanbat biziago sendi du nun sendimendu horren ondoriotik uste baitu eskatzera jina den arintzea ukanen duela. Gaitz orotakoekin badira ere ainitz bereziak, herrialde bakoitzaren emaitzen eta salerospenaren motari jarraikitzen zauzkonak, eta oraino Estatu jeneralak osatzen dituzten hirur ordenetan bakoitzaren naturalezari; eta gizona halako moldez egina baita nun bere gaitz bereziaz bertze guziekin batean jasaiten duenaz baino biziki gehiago hunkia baita, ondorioz gaitz orotako horier erremedio emaiteaz axolatu beharko dutenen gainean atseden hartzera ekharria, eta berari behatzen daukonaz baizik ez bizkorki lan egitera. Horren gertatzen ikusteaz da beldurtzeko erresumako alde guzietarik eta herriko hirur ordenetarik hartu den bilzarre batean, bakoitzak eztezan bere hura baizik gogoan ukan, orotakoaz biziki axolatzera jarri gabe, ez eta auzoarenaz, ezpada bereari doakonean baizik, eta abantail-nahi berezi

horrek bilzarrea bete eztezan erremedio ezberdin batzuen aitzineratze meta batez, batzu bertzen kontrakoak, hortik ezer athera gabe orotako gaitzari segurki doakon horren sendatzeko bildua izana delarik. Orduan, zer nahasmena! eta zer ondorioa Estatu jeneral horietarik?

Baina horietara igorriak izanen diren deputatuetan, dirutzetako jakiteaz ontsa jabe direnik aurkituko dela uste ahal dea, hortaz ikaskuntza jarraiki eta nagusirik egina dutenik, egina dutenaren bidez hortan hobetuak direnik? Mota hortako guziak ezagunak datezke segurki, eta ezta horrela bilzarre baten beharrik horier eskupean ukaiteko et aholku galdegiteko. Uste ukaiteko da, aldiz, multzo ttipiena eginen dutela deputatuen jendaldearen erdian, eta gehienek hizkuntza arrotz bat erabiltzen dutenarenean, errex aierukor bilakatuko zezteela, hortako behar bada gaitzetsiak, eta haien aburuak bederen debaldekoak. Ondorio horrek, bada, eztu Estatu jeneralen biltze bat balio.

(…)

2. Estatu jeneralen handitasuna eta lanjerra

Nehork eztu Estatu jeneralez ideia biziki zuzenik. Bilzarre horien naturalezaren eta larderiaren ikertzean ari izan den jende gutia, ala horien funtsezko izaeran, ala ixtorioarekin ikusteko dutenean, ezta ttitta bat bezala baizik ikusia izaiten ahal horiek egiten dituen multzoaren ondoan, hunen ainitza ezpaita duten larderiaz baizik axolatuko, eta ondorioz bere nahikariak joaiten ahal diren hartarano eremanen baititu. Aitzineko artikuluan lerroez hunkia izana denaren ondotik, ezta errex uste ukaitea, aitzin gogorik gabe arrazoinkatu nahi den ber, Estatu jeneralak muga daitezkeela erasia xoiletan, galdetan, Zure Erret-Goitasunak aitzineratuak ukanen dezteen gaietan. Estatu jeneralen izena hanbat handiagoa da nun ezpaita urrunean baizik agertua urte andana handi batez geroztik, handitua baita jendearen gogoan bilzarre horiek gertaldi gotorrenetan baizik atxikiak eztirelako aburu gaizki barnatuaz, beti erregeak beldurtu dituztelakotz, hortik ondorioztatzen baita handirik jeus eztaitekeela egin hek gabe edo haien bidez baizik, eta haien larderiak mugatzen, zalantzan emaiten, osatzen duela erregerena. Utrecht-en geroztik bururatu ziren (bakezko) antolamenduetan hedatu zen berriak, bilduko zirela, printzen arteko egitekoaren gertaldian egun oroz erraiten eta izkiriatzen denak, gogoeta horiek mugarik gabe gotortzen ditu; eta gehiegi lausengatuko dituzte hetan barne izanen direnak haien aldetik lañotasun handi baten beha egon behar dela uste ukaiteko, (Erregeren) adingabeko aro batean, duen onezia, errextasuna, gustatzeko nahikaria,

jende ainitzaren kontra joaiteko duen dolua hedatuki eta behazunen bidez orai ezagutzen zazkon printze baten azpian, eta hau, lehena delarik zortzi urteko Errege baten azpian, ezpaitagoke Espainian bera baino zaharragoa eta urte oroz ainiztuz doan (erret-familiako) adar bat ikusi gabe. Artikulu hunek aitzineratzen dituen gogoetak ezin handiagoak dira ainitzaz eta phizuaz; zuri da, Enejauna, horien guzien egitea, eta bere hedamen osora eremaitea. Etzira erret-larderiaren zurkaitza eta eremailea baizik; hortaz kondu zuzen bat eman beharko duzu egun batez, ukanaren zainlari bezala harendako begiratzen duzuen printze gazte bati; osorik itzuli behar daukozu, erregeak hortaz ezin gehiago bekaizti dira. Sobera badakizu zer ezberdintasuna ezarriko duen zuhauren eta zuhauren artean (Errege) adinera helduko den egunak; egun horrek du zure gogoeten gaia izan behar. Goregiak baitira eztezaket zuri horien aitzineratzea baino gehiago egin.

Baina, Erregeri larderia goienaz egun handi hortan eman beharko daukozunaz harat, zuhauri ere eman baharko daukozu, herrian eta atzerrian, jinen diren mendetako. Zure omena oso-osoan Estatu jeneraletan atxikia ukanen duzun eginararen araura izanen da. Antzoki handi hortan, oso-osoa agertuko zira, eta zure edozein zati hanbat begi zorrotzer gorde ahala izan gabe, horien gai eta ikerkuntza nagusia izanen baitzira. Hor, bakoitzak ikasiko du zure beldur izaiten, edo zuri lerroko errespetu hutsal batzuen baizik ez emaiten, zure maitatzen, zure adminiztrazionearen maitatzen, edo huntaz eta zutaz aspertzen; eta nardatze hori aroetako zorigaitzak printze hoberener ekharri deena da, gizonen maitasuna eta atsegina izaiteko berezikienik sortuak zirener, eta hobekienik abiatuak zirener. Debaldetan da beraz Zure Erret-Goitasuna bere nahikariaz, bere xedez, bere lanaz, gustatzeko duen gutiziaz eta arthaz, gaineratuko dut bere izpirituaz eta antzeaz lagundu nahiko. Erresuma hainbertze urte danik den izanara hoin bortxatuan, ezin da gusta arintzea emaiten den neurrian baizik. Hitzemanak, desenkusak, esperanzak, ezinean dela ageri izaiterano, guzia higatua da. Halako heinera heldu du guzia, nun ezpaita oraiko eta egiazko gauzez baizik gehiago askietsi nahi, ahalgabe mota orotakora hertsatua baita, eta horrek, duen behar motaz, bertze gogoeta oro gainditzen baitu.

Hirur ordenak abantzu berdin brentsaren azpian dira (abantzu diot, ezen egia da bigarrena bertze biak baino biziki gogorkiago eta gehiago hala dela), eztitu oihu gorak gutiago eginen, eta ez gutiago saminak. Noblezia, ohorearen gibelean guziaren ezartzen betidanik

ohitua, ohore guziaren odoletik hartzen, eta ondorioz horren nasaiki ixurtzen Estatuaren eta bere erregendako, ontasuner gutiago atxikia da, gehiegi baizik ageri ezten bezala. Bertze bi ordenak, bertutea eta karguak ezpaitituzte harmen bidez ukaiten, behakorrago dira: lehenak badu ontasun bat zaintzeko baizik eztuena eta aldarena dena; herenak badu arbasoek utzia daukoten ontasun bat duen fortuna guzia egiten daukona, goititze guzia, jabego guzia. Sinetsazu beraz, Enejauna, etzirela estatuer laket izanen arintze oraiko, hemengo, egiazko, azkar eta bere beharren eta beha daudenaren araukoa emanen deezun neurrian baizik. Zuzena den igurikatze horrek du orotara eztitu Eerregeren galtzeak eman duen dolua.

Ospe handiz hitzemana duzu eta aldi bat baino gehiagotan, gobernuko uhalak eskuan dituzunez geroztik, arintze hain baitezpadako eta hain gutiziatu hori. Hunarano, erran nahi da hogei ilabetez, ondoriorik batere etzako jarraiki; eta etzauzu ixilik utzi behar, guzia hartua izana dela azken gobernuaren azpian baino zorroztasun eta gogortasun gehiagorekin, hartarano nun bakoitza auhenka ari baita, eta saminki gomparatzen. Probinziak hortaz ozentzen dira. Estatuen aroa arintzearena izanen dea azkenean? Zuk hanbat sarkortasunekin badakusazunak, uste duzua laket izanen den heinean eman dezakezula? eta dirutzen izanarak ezpadu onhartzen, uste duzua Estatuer berek har dezaten debekatuko deezula gertatuko denaren kaltetan? eta zenbat gudua, Zure Erret-Goitasunaren eta haien artean gerta baladi, penagarri eta dolugarri lizatekeen, eta zer ondorioak ukan lezazkeen, herrian eta atzerrrian!

(…)”

3. Laburpenez …

Alabainan, Estatu jeneral horiek leze bat baldin baziren Erreientaren oinen azpian idekia, alde orotarik orduan ziren atheka gaixtoetan, eta bat bertzeari loturik Estatua azken nahasmenera eremanen zutenetan, lema eskuetan zuenaren errextasunaz, nagitasunaz eta herabeaz, bere abantail-nahietako hartaz baliatu nahiko zuten jende guziekin loturan baitzen. Hori da hitzaldi horren paperrera egoztera lehiatu ninduena hain ephe laburrez, eta berehala Orléans-ko duke Jaunari ekhartzera, lehenbiziko irakurtze batez haren geldi-arazteko, eta ordu zeno dirutzetaz Noailles-ko dukeak, eta D’Effiat-ek baxtarten egitekoaz atxikiak zauzkoten solas gaizkorrek noiz nahi har-araz zezazkoketen hitzemanen mozteko, berehala publiko bilakatuko

zituztenak, eta gauza hain bapatez laberatuko nun ezpaitzen hitzaren hausteko biderik izanen. Ongi senditu nuen ere hitzaldiak ondorio ona ukaiten bazuen, hala uste nuen bezala, bi gizon horiek errabiatuak izanen zirela, eta baxtartak bere alderdi eta delako nobleziarekin; eta ene gainera eror-araziko zutela Estatu jeneralen biltzeko ezina, hortik sustatu ahalko zuten harramantza guziarekin, eta gauzak bere baitarik sustatuko zuena. Hori zen erregeren heriotzean aitzineratu nituen Estatuen aipatzera ereman ninduena, ene arrazoin bizien bidez deliberatu zirenak, Noailles-ko dukeak trabatu zituenak, eta orduan bildu ukaitearen eta orai biltzearen artean zen ezberdintasunean indar emaitera. Hori zen ere Enejaun Delfinaren, Erregeren aitaren azpian ari izana nintzan gauza hortako langaiaren aipatzera ekharri ninduena; ontsa agerian ezartzeko, gaur-egun Estatu jeneralen kontra banindoan, orduko egoerari behatuz zela, eta ez "bilzarre nazioanalaren" (*) hastioz, bertze aldi batez nahi ukana eta delibera-arazia nuena, eta hortan zenbaiten ganik senditua nuen maltzurreria ilunenaren eta barnatuenaren bururano eremaiteko (…).

(*) Idazlearen erdaran: "l'assemblée nationale". Ohargarri da XVIII-garren mende hastapenean bururatzean agertuko diren hitzak berak, eta gogoeta politikoak hauekin, airean direla. (*Itzultzalearen oharra*)

"Erreienta" (diamanta) Frantzian

Biziki bekana den gertaldi batez, Mogol-Handiaren diamanten minetako langile batek ukan zuen horietarik baten iphurtziloan barna sartzeko ahala, mirazko loditasunekoa, eta, miragarriaena dena, itsas-bazterrera heltzekoa, eta untziratzekoa abantzu bidari guzien aldera behin ere egin gabe uzten ezten oharpenik gabe, duten izenak eta karguak ezpaitituzte hortarik zaintzen, purgatzea eta aiuta baten emaitea baita iretsia edo ipurtziloan gordea ukan ahala zutenaren itzultzeko. Iduriz hain ontsa egin zuen nun ezpaitzuten minetara edo edozein harrieriako saldegira hurbildua zelako aierurik ukan. Zoriaren mukurruz, Europara heldu zen bere diamantarekin. Printze batzuer erakutsi zauen, baina haien ahala gainditzen zuen, ereman zuen azkenean Angeleterrara, eta erregek miretsi erostera deliberatu gabe bizkitartean. Krixtalezko molde bat egin zen Angeleterran, eta handik gizona, diamanta eta molde osoki berdina igorri ziren Law-ren gana, hunek aitzineratu baitzaukon

Erreientari Erregerendako. Prezioak Erreienta izitu zuen, eta etzuen hartu nahi ukan.

Law, gauza ainitzetan handizki gogoetatzen baitzuen, ethorri zizatan gogoa ilundua, eta moldea ekharri zautan. Hari bezala iduritu zizatan Frantziako Erregeren handitasunari etzoakola munduan zen gauza bakar eta estima ezin baten prezioak gibel-araztera uztea, eta gehiago botheredun baldin baziren erostea gogoan ukaitera menturatu, are gehiago behar zela ihes egitera uztetik begiratu. Law-ek, ni horrela gogoetatzen ikusiz loriatua, othoiztu ninduen Orléans-ko duke Jaunari mintza nindakion. Dirutzen izanara ainitz gelditu zuen traba bat izan zen. Hoin eroste gotorra eginez gaitzetsia izaitearen beldur zen, hainbertze neke bazelarik behar baitezpadakoener buru egiteko, eta hainbertze jende oinazetan utzi behar zelarik. Sendimendu hori laudatu nuen; baina erran naukon etzuela Europako errege handienarekin jende xoil batekin bezala egin behar, hau biziki erasiagarri lizatekeela ehun mila libera emanez diamant eder batez aphaintzeko, zor ainitz ukan balu eta bera ez hauen ordaintzeko heinean; gogoari eman behar zela koronaren ohorea eta ez huni utzi preziogabeko diamant baten ukaiteko aldi bakarra, Europako guziak gainditzen zituena; haren Erreienziako ospe bat zela, beti iraunen zuena, eta dirutzeak ziren heinean, ez onhartzeak eginen zuen aldarapenak etzituela biziki arinduko, eta emanen zuen phizua biziki guti senditukо zela. Azkenean enuen Orléans-ko duke Jauna utzi, diamanta erosia izanen zela hark hitzeman ukana baino lehen.

Law-ek, eni mintzatu baino lehen, hanbat errana zaukon saltzaleari diamanta uste ukana zuen prezioan ezin saldua zela, hura zatika moztuz ukanen zituen damua eta galtzea, nun bi miliunetara ekharr-arazi baitzuen azkenean, gainera ephaitetik baitezpada atherako ziren ondarkinak. Tratua horrela egin zen. Bi miliunen intresa ordaindu zizakon kapitala egin ahal arteo, eta bitartean bi miliunen harrieria bahi bi miliunak osoki ordainduak izan arteo atxikiko zituenak.

Orléans-ko duke Jauna gozagarriki hatzemana izan zen jendeak eskuratze hoin ederraz eta bakarraz eman zauzkon esku zartez. Diamant hori *Erreienta* izendatua izan zen. Erregina Klaudiaren arhan bat bezain lodi da, moldez abantzu biribila, izariari doakon loditasunekoa, zuri huts-hutsa, orbain, lano eta lastakarik batere gabe, eta bortz ehun garataz goiti phizukoa. Neure burua laudatzen dut Erreienta hoin eroste aipatura delibera-arazirik.

Betiri Handia, Errusiako kzarra Parisen

1. Bidaiaren xedea eta Parisen sartzea

Betiri Lehenak, Mozkobiako tzarrak, zuzenki hain izen handia egin du bere herrian, Europa guzian eta Asian, nun ezpainiz hasiko hoin printze handiaren, aipatuaren, aro-zaharreko gizon handiener erkida daitekeenaren ezagun-arazten, bere mendearen miresmena egin duena, geroko menderena ere eginen duena, eta Europa guziak haren ezagutzeko hanbat artha hartu. Hoin ohigabeko printze baten bidaiari Frantzian ezer ahatzi behar etzakola iduritu zata, eta eztela horren ixtorioa moztu behar. Arrazoin horren gatik dut hemen ezartzen bere orduan behar lukeen baino apur bat berantago, huts hori egunen emaiteak zuzenduko duelakoan.

Bere aroan gauza batzu ikusi dira monarka hortaz, Holandan, Alemanian, Vienan, Angeleterran eta ipharreko alde batzuetan egin dituen bidaiak, bidaia horien arrazoina eta gerlako egintza batzuez, haren politikaz, familiaz zenbait gauza. Ikusi da ere Frantziara jin nahiko zuela errege zenaren azken urtetan, hunek onhargarriki xede hori utz-arazi baitzaukon. Eragozpen hori ez gehiago ukanez, bere ikus-nahia ase nahi ukan zuen, eta Erreientari erran-arazi Kurakin printze hemengo haren embaxadorearen bitartez, Aphal-Herrietarik abiatuko zela hara Erregeren ikustera jinik.

Ontsa gozatua ez iduritzeko biderik etzen izan, nahiz Erreienta hori gabe biziki gogotik egonen zen. Haren gastuen ordaintzeko behar zena gotorra zen; eragozpena ez gutiago handia printze hoin botheredun eta begi zorrotzarekin, baina burukaldiz betea, bizi-molde basatik ondar batekin eta ondotik jende andana bat eginaraz herri hautan ohi denetik azkarki ezberdina, xorokeriaz eta ara bitxiz beteak, eta hek eta bere nagusia eman behar edo haizu zizeela uste zutenean biziki samurrak eta biziki osoak.

(…)

Kurakin Jagellon-darren etxe zahar hartako adar batekoa zen, luzaz Poloniako, Dinamarkako, Noruegako eta Suedako koronak ukanak zituena. Gizon handi ontsa egin bat zen, bere ethorkiko handitasuna azkarki sendi zuena, izpiritu, itzuli eta jakitate ainitzekin. Frantzesa aski ontsa mintzo zuen eta bertze hizkuntza batzu; ainitz bidaiatua zen, gerlan zerbitzu egina, eta gero gorte batzuetan erabilirik izana. Azkarki

bazuen oraino Errusoaren usaina, eta zekeneria ezin handiago batek talenduak azkarki gaixtatzen zauzkon. Tzarra eta hura bi ahizpekin ezkonduak ziren, eta hetarik bazuten bakoitzak seme bat. Tzarina haizaturik izana zen eta Mozku ondoko komentu batean ezarria, Kurakin desgarazia hortaz hunkirik izana gabe. Bere nagusia osoki ezagutzen zuen eta harekin bere libertatea atxikia, konfienxia eta estimu ainitz; azkenik, hirur urtez Erroman egona zen, eta hortik Parisera embaxadore ethorria. Erroman, etzuen lerrorik ez egitekorik hartako tzarrak igorria zuen segeretuzkoa baizik gizon segur eta argitu bezala.

Monarka horrek, nahi baitzituen bere burua eta erresuma basatasunetik athera eta irabaztez eta antolamenez hedatu, senditua zuen ezkontzen beharra Europako lehenbiziko botheredunekin ahaidetzeko. Arrazoin handi horrek beharrezkoa egiten zaukon erlisione katolikoa, Grekak huntarik hain gutiz baitziren berexiak nun zuen xedea ezpaitzuen bere herrian onharr-arazteko nekea zela uste ukan, konzienziako libertatea utziz bertzalde. Baina printze hori aski jakina zen lehenik Erromak nahi zuenaz aitzinetik argitua nahi izaiteko.

(…)

Erreientak, (Kurakinen) ganik jakinik tzarraren ethortze hurbila Frantziara, itsasoko aldetik, igorri zituen Erregeren karroseriako zaldi, karrosa, karro estali, mahi eta gambarak, Du Libois-rekin, Erregeren aitoren-seme ohikoetarik bat, zenbait aldiz aipatu dutana, tzarraren igurikatzera joaiteko Dunkerque-ra, Pariserano guziaz haren eta jarraitzale guzien gastuen ordaintzeko, eta hari orotan Errege berari bezalako ohoren eman-arazteko. Monarka horrek bazuen bidaiari ehun egunen emaiteko xedea. Harendako mubleztatu zen Erregina amaren bizitegia Louvre-ean, han konseilu batzu biltzen baitziren, manu hori emanez geroztik buruzagien etxean bildu zirenak.

(…)

Kzarra Dunkerque-tik hurbil zela jakin zenean, Erreientak igorri zaukon Nesle-ko markesa Calais-en ongi-ethorri egitera eta Tessé-ko marexala ethorri arteo tzarrari jarraikitzera, hunek ezpaitzuen haren aitzinera Beaumont-erano baizik joan behar. Aldi berean Lesdiguières-ko hotela antola-arazi zen tzarraren eta haren jarrailendako, etxe berezi bat bere jende guziekin ingurua n Louvre-a baino nahigo ukanen zuenez ez jakinean. Lesdiguières-ko hotela handia eta ederra zen, Arsenal-ari zatxikola, eta Villeroy-ko marexalarena zen, hau Teilerietan bizi baitzen. Horrela etxea hutsa zen, Villeroy-ko dukeak, bizi-molde handiko gizona

ez izanez, urrunegi aurkitua baitzuen han egoiteko. Erregeren mublez osoki eta biziki handizki mubleztatu zen.

Tessé-ko marexalak tzarra Beaumont-en egun bat igurikatu zuen ez huts egiteko, zer gerta ere. Hara heldu zen ostaroko 7-ko ortziralean eguerdi hirian. Tessé-k gurra egin zaukon karrosatik jaustean, harekin bazkaltzeko ohorea ukan zuen, eta egun berean Parisera eremaitekoa.

Parisen marexalaren karrosa batean sartu nahi ukan zuen, baina hura gabe, bere jarrailetarik hirurekin. Marexala bertze batean jarraikitzen zizakon. Arratseko bederatzietan jautsi zen Louvre-ean, Erregina amaren bizitegian orotan sartu, berriz berehala karrosara igan eta Lesdiguières-ko hotelera joan, han jarri nahi ukan baitzuen. Han ere harendako zen bizitegia ederregi aurkitu zuen, eta berehala bere ohesarea arropategi batean heda-arazi zuen. Tessé-ko marexala, etxeko eta mahiko ohoreak egin behar baitzauzkon, orotara hari jarraiki eta izanen zen lekua ez utzi, Lesdiguières-ko hoteleko bizitegi batean jarri zen, eta lan handia ukan zuen hari jarraikitzen eta usu ondotik laster egiten. Verton, Erregeren mahizainak, tzarraren eta hunen jarraile guzien mahien zerbitzatzeko lana ukan zuen, horietan baitziren hamabi edo hamabortz jende gotor edo berez edo bere karguez, harekin jaten zutenak.

Verton mutiko izpiritudun bat zen, mundu berezi batean biziki sartua, janari oneko eta joko handiko gizona, tzarra hanbat ordenuekin zerbitza-arazi zuena, eta hain ongi egiten jakin, nun tzarrak eta haren jarraileria guziak ere adixkidetasun berezi batean hartu baitzuten.

2. Kzarra nor eta nolakoa zen

Monarka horrek bere burua mirets-arazi zuen bere jakin-nahi ezin handiagoaz beti gobernuko, sal-erospeneko, ikaskuntzako, poliziako zituen xedetara zoana; eta jakin-nahi hori orotara hedatu zen eta baliagarritasun jarraiki, azkar, jakitatezko bat zuen den gauza ttipienik etzuen gutietsi, etzuen egitea balio zuena baizik estimatu, eta haren baitan distiratu zuten izpirituaren adimenduak, zuzentasuak, gauzen hartze biziak. Guziak bazerakusan haren baitan zituen argien hedamen zabala eta jarraikian seriosa zen zerbait. Ara osoki ustegabekoan elgarri lotu zituen maiestate goiena, burgoiena, arinena, edukiena, aldi berean gutienik trabagarria bere segurtasun osoan jarria zuelarik maiestate hori sendi zuen jendetasun batekin, eta beti eta orotan eta ororekin nagusi, baina jenden arau bere mailak bazituena. Bazuen halako etxekotasun bat libertatetik zetorrena; baina etzen bere herriko basakeria zahar haren

hatz azkar bat gabe ara guziak lasterrez emaiten zauzkonak, tarrapatan ere, nahiak ez argiak, batean ere hertsatua ez kontra-errana izan nahi gabe. Mahia, usu beharbezalakotasunik gabea zuen, biziki gutiago oraino jarraikitzen zizakona, usu ere orotan bere etxean den errege baten ausartasun agerian, ikusteko edo egiteko xede zuena beti haren atseginera eta hitzera bortxatu behar ziren biden beregaintasun osoan. Bere gostura ikusteko gutiziak, ikusgarri izaitearen nardamenak, oro gainditzen zuen libertatearen ohidurak usu hauta-arazten zauzkoten alokako karrosak, fiakrak berak, etxean zituen eta ezagutzen etzuen lehenbiziko jenden eskupean aurkitzen zuen lehenbiziki karrosa. Barnera jauzi egiten zuen eta bere burua hirian gaindi ala kampora joan-arazten. Gauza hori gertatu zizakon Matignon-go Andereari, hara joana baitzen ikus guraz, eta karrosa ereman baitzaukon Boulogne-ra eta baserriko bertze leku batzuetara, eta hura oinez gertatuz ontsa estonatua. Orduan Tessé-ko marexalari eta haren jarrailer zizeen, horrela ihes egiten zeelarik, ondotik laster egitea, batzuetan berriz aurkitu ahal ukan gabe.

Gizon biziki handi bat zen, biziki ontsa egina, aski mehe, aurpegia molde biribilekoa; bekoki handi bat; bekainak ederrak; sudurra aski labur ezer soberarik gabe, muturretik lodi; ezpainak aski lodiak; larrua gorrail eta beltzaran; begi beltz eder batzu, handi, bizi, sartzale, ontsa hartuak; soa maiestate 'ta garaziaduna nahi zuenean, bertzela larde 'ta izigarri, usu jiten etzizakon kheinu batekin, baina begiak eta begitarte guzia itzultzen zauzkona, eta lazten zuena. Horrek ephe bat irauten zuen, behako nahasi eta lazkarri batekin, eta berehala ezeztatzen. Itxura guzian ageri zituen izpiritua, gogomena eta handitasuna, eta etzen halako garazia bat gabe. Soinean etzuen oihalezko lepoko bat baizik, perruka biribil beltzaran bat, errautsik gabe bezala, soin-gainak hunkitzen etzauzkona, soineko beltzaran hertsi bat, margo bakunekoa, urrezko botoinduna, barneko, galtza, galtzerdi, ez esku-larrurik ez esku-muturrekorik, bere ordenako gurutzea soinekoan eta gainetik xingola, soinekoa usu osoki idekia, xapela mahi baten gainean eta behin ere ez buruan, kampoan ere. Xoiltasun hortan, zenbat ere gaizki karrosatua eta lagundua bazen, hutsik etzaitekeen egin jitezkoa zuen handitasunezko itxuraz.

Bi aphairu ohikoetan edaten eta jaten zuena ezin asmatua da, zerbezaz, limonadaz eta bertze edari mota guziez aphairuen artean iresten zuena gabe, haren jarraileria guziak oraino gehiago; zerbeza botoila bat edo biga, bertze hainbertze arno et batzuetan gehiago, gero arno eztiak, aphairu azkenean aguardient akomeatuak, pinterdi edo

pinta. Nunbait han otordu bakoitzekoa hori zen. Jarraileriak haren mahian gehiago iresten zuen, eta guziek horrela jaten zuten goizeko hameketan eta arratseko zortzietan. Izaria azkarregi etzenean jeus etzen ageri. Aphez elemosinari bat bazen tzarraren mahian jaten zuena, edonor baino erdiaz azkarragoa, eta tzarra hartaz, maite baitzuen, ainitz jostatzen zen. Kurakin printzea bazoan egun oroz Lesdiguières-ko hotelera; baina bere etxean egon zen.

Tzarrak frantzesa ontsa entzuten zuen, eta uste dut, mintzatuko zuen nahi ukan balu; baina, handitasunez, bazuen beti itzultzale bat. Latinaz eta bertze hizkuntza ainitzez denaz, biziki ontsa mintzo zituen. Etxean ukan zuen Erregeren zaintzaletako sala bat, eta etzuen abantzu nehoiz kampora hetaz jarraikia izan nahi. Etzuen Lesdiguières-ko hoteletik jalgi nahi ukan, zenbateko ikus-nahia bazuen ere, ez eta han zela ere erakutsi, hara Erregeren ikustaldia ukana baino lehen.

3. Kzarraren ikustaldien egunkaritik

Larunbat goizean, hura heldu eta biharamunean, Erreienta tzarraren ikustera joan zen. Monarka hori bere gabinetetik jalgi zen, urrats zenbait egin zituen haren aitzinera, besarkatu zuen nagusitasunezko itxura handi batekin, bere gabineteko athea erakutsi, eta berehala itzuliz ikustaterik batere gabe, hara sartu zen. Erreienta jarraiki zizakon, eta Kurakin printzea haren ondotik, itzultzale izaiteko. Bi jargia aurkitu zituzten bat bertzeari bekoz-beko; tzarra mahiburukoan jarri zen, Erreienta bertzean. Solasaldiak oren bar hurbil iraun zuen, gobernuko egitekoak aipatu gabe, gero kzarra bere gabinetetik athera baitzen, Erreienta haren ondotik, hunek, arteko moldean itzulia izan zizakon gur handi batekin, sartzean aurkitua zuen leku berean uzten zuela.

Ondoko astelehenean, ostaroko 10-ean, Errege kzarraren ikustera joan zen, hunek karrosa athean hartu baitzuen, karrosatik jausten ikusi, eta harekin hein berean aitzinatu gambararano, han bi jargia berdinak aurkitu baitzituzten. Errege eskunekoan jarri zen, kzarra ezkerrekoan, Kurakin printzeak itzultzalea egin zuen. Jendea ustegabetua izan zen ikusiz kzarra Erregeren hartzen bi besoen azpitik, bere heinera goititzen, horrela airean besarkatzen, eta Errege bere adinean, etzaitekeelarik horri beha egona, ez batere beldurtzen. Erregeri erakutsi zauzkon garazia guziek jendea hunki zuten, harekin hartu zuen itxura samurrak, bere baitarik zarion ikustate hark, eta bizkitartean handitasunez, lerroko berdintasunez, eta adineko nagusitasun arin batez nahasiak; ezen hori guzia biziki garbiki sendi-arazia izan zen. Errege azkarki goretsi zuen,

hartaz loriatua iduritu, eta hori jende guziari sinets-arazi. Behin baino gehiagotan besarkatu zuen. Erregek biziki polliki egin zaukon bere komplimendu xipi eta laburra, eta Maine-ko Jaunak, Villeroy-ko marexalak, eta hor aurkitu ziren hautetsiek solasaldia bete zuten. Guziak oren laurden ttipi bat iraun zuen. Kzarrak lagundu zuen Errege hartua zuen bezala, eta karrosara igaiten ikusi.

Ostaroaren 11-ko asteartean, kzarra Erregeren ikustera joan zen laur eta bortz orenen artean. Erregez hartua izan zen karrosako athean, eta eremana berdin, orotan Erregeren eskuna ukan zuen. Urratseria guziaz aitzinetik hitz-hartua zen, Errege haren ikustera joan baino lehen. Kzarrak erakutsi zituen Erregeren ganako garazia berak eta maitasun bera, eta etzen hunen ikustaldia ukana zuena baino luzeagoa izan; baina jendetzeak azkarki ustegabetu zuen.

Goizeko zortzietako izana zen Erret-Plazaren, Irabazietakoaren eta Vendôme-koaren ikusten, eta biharamunean, Observatoire-aren, Gobelins-etako lantegien eta Erregeren Landaretegiaren ikustera joan zen. Orotan ainitz jostatu zen guziaren miatzen eta galde ainitzen egiten.

Ostaroaren 13-ko ortzegunean, purgatu zen, baina ez egon bazkal-ondoan aipamena bazuten langile batzuen etxera joan gabe. 14-ko ortziralean, goizeko sei orenetako joan zen Louvre-ko galeria handira Erregeren gaztelu guzien planen ikustera, Asfeld-ek bere jeinulariekin egin baitzauzkon horien ohoreak. Villars-ko marexala ere han gertatu zen arrazoin bereko ordezkari jeneral batzuekin. Plan horiek guziak biziki luzaz miatu zituen; gero Louvre-ko leku andana bat ikusi zuen, eta jautsi zen Teilerietako baratzetara, handik jende guzia jalgi-arazia baitzen. Orduan zubi itzulikarian lan egiten ari ziren. Eraikuntza hori azkarki ikertu zuen eta luzaz han egon zen. Bazkal-ondoan, Erret-Palaziora joan zen Madame-en ikustera, hunek komplimendu egitera igorria baitzaukon ohorezko zaldunaren bidez. Jargia ezpada, Errege eginen zuen bezala hartu zuen. Erreienta hara ethorri zizakon Operara eremaiteko bere egongia handian, bi-biak aitzineko jar-lekuan bakarrik tapiza handi batekin. Ordu zenbait berantago, tzarrak zerbeza galdegin zuen. Berehela ekharri zaukoten godalet bat betea kiker-azpiko baten gainean. Erreienta jeiki zen, hartu zuen, tzarrari eskaini, hunek, jendetasunezko irriño eta gur batekin, godaleta fazoinik batere gabe hartu baitzuen, edan, eta berriz kiker-azpikoan ezarri, Erreientak beti eskuan atxiki zuena. Itzultzen ari zuenean, oihal bat bazadukan azieta bat hartu zuen, tzarrari eskaini zaukona, hunek, jeiki gabe, zerbezarekin

egina zuen bezala egin baitzuen, ikuslariek hortaz aski ustegabetuak iduritu baitzuten. Laugarren agerraldian auhaltzera joan zen, eta etzuen nahi ukan Erreientak bere egongia utz zezan. Biharamuneko ebiakoitzean, alokako karrosa batera eman zen, eta langilen etxetara ainitz gauza berezien ikustera joan.

Ostaroaren 16-an, Mendekoste eguna, Hebainduetara joan zen, han guzia orotan ikusi eta ikertu nahi ukan baitzuen. Jateko salan, soldadoen saldatik jastatu nahi ukan zuen et haien arnotik, haien osagarriari edan, soingainean joz, eta "lagunak" izendatzen zituela. Ainitz miretsi zituen eliza, erremediotegia eta eritegia, eta etxe horren ordenuaz loriatua iduritu zuen. Villars-ko marexalak egin zauzkon hango ohoreak. Marexalsa ikuslearen egitera joan zen. Hura zela jaki zuen, eta onhesmen ainitz eman zaukon.

Ostaroaren 17-ko astelehenean, goizik bazkaldu zen Ragotzi printzearekin, hortara othoiztua baitzuen, eta Meudon-en ikustera joan zen, han Erregeren zaldi batzu aurkitu baitzituen bere gostura baratzen eta parkearen ikustera joaiteko. Ragotzi printzeak lagundu zuen.

(…)

Ortzirale 21-ean, Berry-ko dukesaren ikustera joan zen Luxembourg-era, han Erregeri bezala egina izan baitzizakon. Ikustaldearen ondotik baratzetan ibili zen. Berry-ko dukesa bitartean Meudon-era joan zen hari etxe guziaren astiz ikustera uzteko, egin baitzuen jakin-nahi handi batekin. Ekhainaren 16-an abiatu nahi baitzuen, ordu hartako Charleville-rako untziak galdegin zituen, Meuse-aren jausteko xedetan.

Ebiakoitz 22-an, Bercy-n izan zen, Pajot d'Ons-en-Bray-ren baitan, postako buruzagi nagusia, etxea gauza arraro eta berezi mota guziez betea baitu, naturalezakoez bezenbat mekanikakoez. A. Sébastien aipatua, karmetakoa, han zen. Egun guzian jostatu zen, eta mekanika eder batzu miretsi zituen.

(…)

Astelehen 24-an, Teilerietara joan zen goizik, Errege jeikia izan baino lehen. Villeroy-ko marexalaren egoitzan sartu zen, hunek koronako harrieriak ikus-arazi baitzauzkon. Uste zuen baino ederragoak eta ainitzago aurkitu zituen, baina hortan deus guti ezagutzen zuela erran. Ederza osoki aberastasun eta asmamenezkoez axola guti zuela erakusten zuen, oroz gainetik hetara hel etzaitekeenez. Hortik, Erregeren ikustera joan nahi ukan zuen, hau, bere aldetik, haren gana heldu baitzen

Villeroy-ko marexalaren egoitzara. Hori espesuki antolatua izan zen ikustaldi ageri bat izan etzadin, baina ustegabeko bat bezala. Elgar aurkitu zuten gabinet batean, han egon baitziren. Erregek, paper bildu bat baitzadukan eskuan, eman zaukon, eta bere Estatuen karta zuela erran. Galanteria hori azkarki gustatu zizakon tzarrari, jandetasuna eta adixkidantzazko eta maitasunezko itxura berdinak ukan baitzituen, ainitz garazia, baina ere maiestate 'ta berdintasunekin.

Bazkal-ondoan Versailles-ra joan zen, han Tessé-ko marexalak utzi baitzuen Antin-go dukearekin, eta ohoren egiteko kargua ukana zuena. Delfina Anderearen bizitegia harendako antolatua izana, eta han etzan zen Enejaun Delfin, Erregeren aitaren arte-gambaran, orai Erreginarendako gabinetak egiten baititu.

Astearte 25-ean, baratzetan gaindi ibilia zen, eta ur-aska handian untzira igana goiz-goizetik, D'Antin-i hunen etxera joaiteko emana zaukon orena baino lehen. Versailles guzia ikusi zuen, Trianon eta Basa-ihizitegia. Jarraileria gehiena jauregian ezarria izan zizakon. Berekin ereman zituzten andereño batzu, Maintenon-go Andereak zuen bizitegian etzan-arazi zituztenak, tzarra etzaten zenari hurbil-hurbila. Bloin, Versailles-ko gobernaria, ezin gehiago gaitzitua izan zen sintseriaren templo hori zikintzen ikusiz, zahartuak ziren horko jainkosa eta bera ere gutiago hala izanen zirelarik lehenago. Bere buruen hertsatzea etzen tzarraren eta haren lagunen ara.

Astezken 26-an, tzarra egun osoan ainitz jostatu zen Marly-n eta hango mekanikan, Tessé-ko marexalari Parisera mezutu zaukon biharamun goizean zortzi orenetan ethorriko zela Lesdiguières-ko hotelera, han aurkitu gogo baitzuen, eta Besta-Berriko prozesionea ikus zezakeen lekura eremanen zuelakoan. Marexalak Andredona-Maria-koa ikus-arazi zaukon.

Printze horren gastuen ordaintzeak balio zuen sei ehun eskudo egunean, nahiz bere mahia biziki ttipi-arazia zuen lehenbiziko egunetan beretan. Ephe batez ukan zuen biziki maite zuen tzarinaren Parisera ethorr-arazteko nahikaria; baina laster aburuz aldatu zen. Aix-la-Chapelle-ra edo Spa-ra joan-arazi zuen, beraren hautura, hura igurikatuz uren hartzeko.

(…)

Ekhainaren 11-ko ortziralean, joan zen Versailles-tik Saint-Cyr-ra han etxe guzia ikusi baitzuen eta anderaurenak bere ikastegietan. Ikusi nahi ukan zuen ere Maintenon-go Anderea, hau ikus-gura horren

iduripenean ohean jarria baitzen, ohe-erridauak hetsirik bat salbu erdikara baizik hala etzena. Tzarra gambaran sartu zen, sartzean leihoetako erridauen idekitzera joan, eta gero berehala oheko guzien, Maintenon-go Andereari behatu zaukon nahitara, hitzik ez erran ez hark tzarrari, eta edozein motako gurrik egin gabe, joan zen. Anderea hortaz azkarki ustegabetua izana zela jakin nuen eta oraino gehiago gaitzitua; baina Errege zena joana zen. Ekhainaren 12-ko ebiakoitzean itzuli zen Parisera.

4. San-Simun kzarraren ikusle, urrundik

Ekhainaren 15-ko asteartean, goizik joan zen Parisen D'Antin-en etxera. Egun hartan Orléans-ko duke Jaunarekin lanean bainintzan, oren-erdi batez bururatu nuen; ustegabetua izan zen eta atxiki nahi ukan ninduen. Erran naukon haren aurkitzeko ohorea beti ukanan nuela, baina ez joaitera zoan kzarrarena, eta D'Antin-en etxera nindoala ene nahitara behari egoitera. Gomitatuak eta Dukesa Anderearekin eta behatzera heldu ziren ere hunen printzesa alabekin andere zenbait baizik nehor etzen sartzen. Kzarra han bazabilan baratzera sartu nintzan. Urrundik ikusi ninduen Tessé-ko marexala ethorri zizatan, tzarraren aitzinera ene eremaiteko gogoan. Hortarik ontsa begira zadin othoiztu nuen eta hor nintzala etzadin ohar haren aitzinean, osoki ene gostura behatu nahi bainaukon, haren aitzinetik joan edo nahi nuen bezenbat igurikatu hari ontsa behatzeko, gehiago eginen ahal enuena haren ganik ezaguna baldin baninz. Aski mintzo zela aurkitu nuen, baina orotan nagusia baliz bezala. Gabinet batera sartu zen D'Antin-ek han plano batzu eta gauza berezi batzu erakutsi baitzauzkon, eta hark hari hetaz galde batzu egin. Hor nindakon aipatu dutan kheinu hari ohartu. Tessé-ri galdegin naukon hori usu gertatzen zizakonez; erran zautan egunean aldi bat baino gehiagotan, oroz gainetik bere burua hortarik eztuenean zaintzen. Gero baratzera berriz sartzen zela, D'Antin-ek iragan-arazi zuen behereko bizitegiaren luzean, eta jakin-arazi zaukon Dukesa Anderea han zagola bere alabekin eta haren ikusteko gutizia handia zutela. Jeus etzuen ihardetsi eta bere burua eremaitera utzi zuen. Emekiago ibili zen, burua bizitegi aldera itzuli zuen han guzia zutik baitzagon eta aphain-aphaina, baina ikuslari guzier ongi behatu zauen, eta etzauen buruaz gur arin-arin bat baizik egin guzier betan eta haien aldera itzuli gabe, eta burua gorarik iragan zen; bertze andere batzu hartuak zituen aratik uste dut hauekin jendetasun gehiago erakutsiko zuela, Dukesa Anderea han izan ezpaliz, ikustaldiaren ukaiteko zuen

nahiaz. Zein zen eta bertzetarik baten izena jakin nahi ezpalu bezala egin zuen ere. Hor oren bat hurbil egon nintzan hura utzi gabe eta hari behatzetik gelditu gabe. Azkenean horri ohartzen zela ikusi nuen: horrek neure baitara bilduagotu ninduen nor nintzan galda zezan beldurrez. Sartzera zoalarik, joaitean iragan nintzan mahia ezarria zen salatik. D'Antin, beti berdina, kzarinaren iduri egite biziki handiko baten ukaitera heldua zen sala hortako khebidean ezarria zuena, haren laudorioko neurtitz batzuekin, bere ustegabean tzarrari azkarki laket izan zizakona. Berak eta jarraikitzalek azkarki egite bazuela aurkitu zuten.

Erregek eman zauzkon Gobelins-etako bi tapizeria miresgarriak. Eman nahi ukan zaukon ere diamantekilako ezpata eder bat, onhartu ez nahiz desenkusatu baitzen; hark, bere aldetik, nunbait han hiruretan hogei mila libera eman-arazi zezteen zerbitzatua zuten Erregeren mutileri, D'Antin-i eta Estrées eta Tessé-ko marexaler bakoitzari bere irudia diamantez aphaindua, bortz urrezko medaila eta hameka zilharrezko bere biziko egintza nagusiez. Verton-i egin zaukon adixkidantzazko emaitza bat eta othoitzez Erreientari galdegin haren ondora igor zezan, Erregeren egitekoen kargutan, hitzeman zaukona.

(…)

5. Kzarra badoa Frantziatik

Ekhainaren 18-ko ortziralean, Erreienta joan zen goizik Lesdiguières-ko hotelera, tzarrari goraintzi erraitera. Ephe bat egon zen harekin, Kurakin printzea heren. Ikustaldi horren ondotik, tzarra Teilerietara joan zen Erregeri goraintzi erraitera. Hitz-hartua zen etzela haien arteko zeremoniarik izanen. Ezin daiteke erakuts tzarrak aldi horietan guzietan Erregerendako ager-arazi zuen baino gehiago izpiritu, garazia eta samurtasun, eta oraino biharamunean Errege Lesdiguières-ko hotelera joan zizakolarik bidaia onaren agiantza egitera, han guzia zeremoniarik gabe iragan baitzen ere.

Ekhainaren 30-eko igandean, tzarra abiatu zen eta Livry-n etzan, zuzen Spa-ra zoala han tzarina haren aiduru baitzagon, eta etzuen laguntzarik batere ukan nahi, ez eta Paristik jalgitzean ere. Ohartu zizakon aberaskeriak ainitz ustegabetu zuen; abiatzen Erregez eta Frantziaz hunkia izan zen, eta erran zuen bazakusala dolurekin aberaskeria horrek erresuma laster galduko zuela. Hartua izana zen araz loriatua joan zen, ikusia zuen guziaz, utzia izana zizakon libertateaz, eta Erregerekin hertsiki lotura hartzeko nahikaria handitan, hortako Dubois aphezaren eta Angeleterraren abantail-nahia traba handia izan baitzen,

usu urrikitzeko arrazoin handi eman duen gauza eta oraino ere bademana.

Bururatzerik elizateke tzar hoin minki eta egiazki handi hortaz, zituen hanbat antze handien eta handitasun guzien berezitasunak eta ezberdintasun arraroak beti eginen baitute eta ondoriotasun gibelatuenerano miresmen handienaren gai den monarka bat, bere ethorkiko, herriko eta ikaskuntzako basatasunaren huts handiak ukanik ere. Hori zen Frantzia osoan jarria utzi zuen omena, hartaz xoratua gelditu zen mira bat bezala ikusi baitzuen.

(…)

Monarka hori biziki askietsia izan zen Tessé-ko marexalaz eta zerbitzu guziaz. Marexal horrek manatzen zituen kzarra zerbitzatu zuten Erregeren etxeko aitzindari mota orotakoak. Jende ainitzek bere burua haren aitzinera ekharr-arazi zuten, baina goterretarik. Ainitz ere etziren hortaz axolatu; andere bat ere etzen hala izan, eta odoleko printzek etzuten ikusi, hortaz jeus ezpaitzuen erakutsi haiekin ibili zen aran ezpada, Erregeren etxean ikusi zituenean. Joaitean Frantziaz hunkia izan zen, eta aberaskeria handiak laster galduko zuela dolurekin bazakusala erran zuen.

Bazituen armadak Polonian eta ainitz Mecklembourg-en; azken hauk Angeleterrako errege azkarki khexatzen zuten, Emperadorearen aitzindarier eta ahal ukana zuen arteko guzier hel egina zeelarik tzarraren ekhartzeko haien handik ekhentzera. Hertsatuki othoiztu zuen Erreienta horren ukaiteko indar egin zezan tzarraren ondoan Frantzian zen bitartean. Orléans-ko duke Jaunak ezer etzuen ahatzi, baina ondorio onik gabe.

Hala ere kzarrak bazuen Frantziarekin batasun egiteko gutizia ezin handiagoa. Deus etzoakon hobeki gure sal-erospenari, gure aipamenari Ipharrean, Alemanian eta Europa guzian. Printze horrek bazadukan sal-erospenaren bidez Angeleterra menean, eta Georges errege bere Alemaniako Estatuez beldurrean. Holanda errespetu handitan zadukan ere eta Emperadorea hein onean. Itxura handi bat bazagiela Europan eta Asian ezin ukatua da, eta Frantzia mugarik gabe baliatuko zela harekilako batasun hertsi batez. Emperadorea etzuen batere maite, nahi ginituen Angeleterrari emanak izaitetik apurka urrundu, eta Angeletarrak ginituen haren gomiteri elkor izaitera ekharri ikustateari huts egiterano, horiek hura joan eta oraino luzaz iraun zutelarik. Debaldetan nuen gai hortaz Erreienta usu hertsatzen, eta haien

indar guzia senditzen zuen arrazoinak erraiten, eta ihardesten ahal etzeenak. Baina Dubois aphezaren sorginkeriari emana izaitea, aitzina D'Effiat, Canillac eta Noailles-ko dukea lagun, azkarrago zen oraino.

Martinikarrek gobernaria eta intendanta haizatzen dituzte

Martinikan gauza bat gertatu zen hain berezia eta batasunean hain ongi antolatua nun berdinik eztuela erran baitaiteke. Han Phélypaux-ren ondotik Varennes jarria zen, Turin-en ambaxadore izana zena, eta hura bezala gure irletako kapitain jeneral. Intendanta Ricouart zen. Martinikan batasun handian bizi ziren, eta han bere egitekoak biziki ontsa bazeramatzaten. Biziliarrak biziki gaizki erabiliak ziren. Aldi andana batez deitoratu ziren et beti debaldetan. Azkenean haren tiraniaz eta ohoinkeriez ezin bertzean eta justiziaren ukaiteaz etsituak, berek eginen zutela deliberatu zuten. Deus ez jendetze hark egin zuena bezain zuhurki elgarren artean antolaturik, eta segeretukiago eremanik, eta eztikiago ez eta gozagarrikiago eginik. Goiz batez hatzeman zituzten bakoitza bere etxean eta ordu berean, paketatu, haien paper eta gauza guziak zigilatu, hetarik bat ez baztertu, haien mutiletarik bati minik ez egin, untzi batera egotzi hala beharrez han zena Frantziarat abian, eta hura berehala belan ezarr-arazi. Kapitainari eman zaukoten aldi berean paketa bat gortearendako hartan goraki aithortu baitzituzten bere leialtasuna eta obedienzia, bazegitenaz barkamendu eskatu, eginak zituzten hanbat deitorez orhoit-arazi, eta haien laidoen bortizkeriaren ezin gehiago jasan ahalak ezartzen zituen behar baitezpadakoaz desenkusatu. Neke lizateke, uste dut, irletako bi nagusi horien ustegabearen emaitea bere buruak ikusiz horrela zamatuak, eta begien itzultzeko artean abiatuak, haien errabia bidean, ahalgea lurreratzean.`

Irlarien eginara etzen onhartua izan ahal eman zuen ustegabetzean, ez eta gaizkitua haien egintzaren arrazoin baitezpadakoaz agertu zenaz, eta horren segeretua eta neurria miretsi ziren. Haien eginara, bertze kapitain jeneral eta bertze intendant baten igurikatzean, hain manakorra eta geldia izan zen, nun ezpaitzen laudatu gabe egon ahal. Varennes eta Ricouart etziren lehenbiziko aldietarik hara bere buruaren erakustera menturatu, eta betikotz kargurik gabe egon ziren. Arrazoinekin erasia egin zen ahapetik hoin merkerik kitto athera zirelakotz. Haren ondokoen igortzean Martinikara, ikastaldi ederra izan

baitzizeen, etzen biziliarrer erasiarik egin hek ez entzunik eta hortik bere buruen berek liberatzeko beharrera hertsaturik zen ahalge ixilaren gatik.

Courson Guienako intendanta konseiluan kargutik haizatua

Courson, Bâville Languedoc-eko intendant edo hobeki erraiteko erregearen semea, etzen bater aita idurikoa. Bere lekuan ikusi da aldi bat baino gehiagotan harrika erahila izaiter zela bere Erruango intendantgoko leku batzuetan, handik ekhendu behar izan baitzen hain zuen bere burua hastia-arazia, baina aitaren aipamenak salbatu zuen eta Bordelera igorr-arazi. Barnean eta kampoan idi gizen bat zen, azkarki abrea, azkarki ozarra eta eskuak garbi etzituena, eta ez ere haren behazunean intendantgoa guzia egiten zituzten segeretarienak, hortako ahalik batere ezpaitzuen, eta gainera biziki auherra.

Bertze tirania batzuen artean, zerga idor batzu biziki bortitzak egin zituen Périgueux-en, bere manu bereziez, konseiluaren erabaki ez manurik gabe; eta ikusiz etzirela haien ordaintzera lehiatzen, handitu zituen, gastuak gehitu, eta azkenean zinegotzi eta bertze burjes zuzen eta aberats batzu preso-ziloetan ezarri. Hanbat egin zuen nun deputatuak igorri baitzituzten deitoratzera, eta athez athe ibili ziren Erreienziako konseiluko guzien etxetan, bi ilabete baino gehiago egon ondoan Noailles-ko dukearen aitzin-gambaretan hotz-eritzen.

Tolosako kondeak, gizon biziki zuzena baitzen, eta entzunak baitzituen, ihardespenik ukan etzezaketelakotz hunkia, aipatu zautan. Hura bezain sumindua nintzan. Ihardetsi naukon lagundu nahi baninduen egiteko hortan arrazoina alde ukanen ginuela. Orléans-ko duke Jaunari aipatu naukon, hortaz deus ezpaitzakien gaingiroki ezpazen. Erakutsi naukon mota hortako deitoratzetan garbiki ikusi behar zela; Périgueux-ko deputatuen hondatzeko bidegabea horiek Parisko lauzadan akitzen utziz eta entzun gabe, eta burjes zuzen batzuen preso-ziloetan ahitzen uztearen abrekeria zergatik jakin gabe, eta noren larderiaz han ziren. Onhartu zuen eta Noailles-ko dukeari aipatuko zaukola erran. Dirutzetako lehenbiziko konseiluan, Tolosako kondea abisatu nuen, eta biek galdegin ginaukon Noailles-ko dukeari noiz erakarriko zuen Périgueux-ko jende horien egitekoa.

Etzagon batere horren beha, eta baztertu nahi ukan ginituen. Erran naukon aski dembora bazela batzu preso-ziloetan zirela eta

bertzeak Parisko lauzadan; hori ahalge zela, eta etzaitekeela gehiago jasan. Tolosako kondea doinu berean hasi zen biziki idorki. Orléans-ko duke Jauna ethorri zen eta lekuak hartu ziren.

Noailles-ko dukea bere zakuaren idekitzen ari zelarik, erran naukon gora-gora Orléans-ko duke Jaunari Tolosako konde Jaunak eta nik galdegin berria ginaukola Noailles-ko Jaunari konseilura noiz erakarriko zuen Périgueux-ko egitekoa; jende horiek, ogendun ala ogengabe, oihuz eskatzen zutela entzunak eta jujatuak izaitea; eta horien ez luzazago ahitzen uztea konseiluaren ohoreko baziduritala. Bururatzean Tolosako kondeari behatu naukon, eta zerbait labur baina aski azkar erran zuen ere. Orléans-ko duke Jaunak erran zuen bertzerik etzuela galdegiten. Noailles-ko dukea hasi zen nahastekatuz egitekoez lehertua izaiteaz, astirik etzuela ukana eta bertze … Moztu nuen eta erran hartu behar zela, eta aspaldidanik hartu behar ukana, ezer ezpaitzen jende batzuen Parisko lauzadan ez hondatzera uztea baino lehiatuagorik, eta bertze batzuen preso-ziloetan usteltzen uztea baino zeren gatik jakin gabe. Orléans-ko duke Jaunak hitz bat erran zuen gogo berean, eta Noailles-ko dukeari manatu zortzi egun barne jar zadin egitekoaren erakartzeko heinean.

Estakurutik estakurua hirur astez gibelatu zuen oraino. Azkenean erran naukon Orléans-ko duke Jaunari hartaz agerian trufatzea zela, eta zuzenbide ukatze publiko eta argienaren egitea. Ondoko konseiluan gertatu zen Orléans-ko duke Jaunak errana zaukola gehiago igurika etzezan. Tolosako konde Jauna et ni jarraiki ginindakon galdeginez hea azkenean Périgueux-ko egitekoa erakarriko zuenez. Ordukotz berehala egina izanen zela ezkinuen dudan eman, baina amarruak etziren bururatuak.

Astearte bat zen, bazkalondo, orduan Orléans-ko duke Jaunak konseilua usu laburtzen baitzuen Operara joaiteko. Hortaz segurrik Noailles-ko kondeak konseilu osoa atxiki zuen egiteko batzuetan. Haren eta Tolosako kondearen artean nintzan. Egiteko bakoitzaren bururatzean galdegiten naukon: "Eta Périgueux-koa? - Sarri" ihardesten zuen, eta bertze bat hasten. Azkenean jokoari ohartu nindakon, eta ahapetik erran Tolosako kondeari jadanik jelosten ari baitzen ere, eta biek egin ginuen ezkinela enganatuak izanen. Zakua hustua ukan zuenean bortz orenak ziren. Paperrak berriz hartan ezarri eta hetsi zuen et Orléans-ko duke Jaunari erran oraino bazuela ekhar zezan galdegina zaukon Périgueux-ko egitekoa, baina luzea eta xehea izanen zena;

Operara joan nahi zukeela; lehenbiziko aldiko izanen zela; eta berehala, ihardespenik igurikatu gabe, jeikitzen da, alketxa baztertzen du eta joaiteko itzultzen da. Besotik hartu nuen: "Emeki, erran naukon, Haren Erret-Goitasunari zer laket zakon jakin behar da. Jauna, egin naukon Orléans-ko duke Jaunari, beti banadukala bermuki Noailles-ko dukearen mahunga, biziki axolatzen zirea egun Operaz? - Baina ez, ihardetsi zautan, Périgueux-ko egitekoa ikus daiteke. - Baina itho gabe, egin nuen berriz. - Bai, erran zuen Orléans-ko duke Jaunak, eta erdi-irriz zagon Duke Jaunari: Etzira hara joaiteaz axolatua? - Ez, jauna; dakusagun egiteko hori, ihardetsi zuen Duke Jaunak. - Oi! berriz hor jar zaite beraz, erran naukon Noailles-ko dukeari doinu bermu-bermu batez eta azkar-azkarra besotik thiratuz, harrazu berriz zure jar-lekua eta zakua berriz idek." Hitz bat erran gabe alketxa harrabots handiz ekharri zuen, eta gainean jarri hausteko heinean. Begietarik errabia zarion. Tolosako kondea irriz ari zen eta bere hitza errana zuen ere Operaz, eta kompainia guzia guri beha, erdi-irriz abantzu guziak, aski ustegabetuak alta.

Noailles-ko dukeak hedatu zituen bere paperrak eta erakartzen hasi zen. Paper batez ari zen arau, miatzen nuen, eta han edo hemen hark errana zuzentzen. Ene ihardespenez gaitzitzera etzen menturatzen, baina erotua zen. Bâville-en laudorio bat egin zuen, merexi zuen estimuaz, Courson desenkusatu, eta hortan ahal ukan zuen bezenbat elhekatu guziaren agortzeko eta ikusteko ziren gauza nagusienen gal-arazteko. Jendearen akitzeko eta erabakiaren nahitara emaitekotan horrek burutzerik etzuela ikusiz, moztu nuen eta erran aita eta semea bi zirela, etzela hemen gaia semearen egintzez baizik, hea intendant bati, bere ofizioz, berak nahi bezenbat legar-pean jenden ezartzea haizu zizakonez ala ez, eta bere departamenduko hirietan eta baserrietan zerga emaitea, horiek manatzen dituen erabakirik gabe, ez eta konseiluaren deliberorik ere, eta bakar-bakarrik bere manu bereziez, eta jende batzuen atxikitzea laurzpabortz ilabetez preso-ziloetan bizitzen, auzi molderik ez itxurarik gabe, zerga idor horiek etzituztelakotz nahitara ordaintzen, eta oraino gastuez lehertuak. Gero haren gana itzuliz begietara behatzeko: "Hortaz da, jauna, gaineratu nuen, aburu garbi eta zuzena eman behar, zure erakarpena egina denaz geroz, eta ez gu hemen Bâville-ko Jaunaren goresmenean jostatu, batere ezpaita auzian." Noailles-ko dukea, bere baitarik joana, hanbat gehiago nun baitzakusan Erreienta erdi-irriz, aburu emaiten hasi zen edo izaitekotz ahopiatzen. Etzen alta presoak liberatu behar zirela ez bururatzera menturatu. "Eta gastuez, erran nuen,

eta zerga horien manuaz, zer dagizu? - Baina (presoak) liberatuz, erran zuen, manua erortzen da." Enuen ordu hartan urrunago joan nahi ukan. Liberatzeaz deliberatu zen, manuaren hausteaz, batzuek gastuen ordaintzeaz intendantaren gain, eta huni berriz hastearen debekatzeaz.

Ene aldi izan zenean, aburu bera eman nuen, baina gaineratu etzela aski jende hoin zuzengabeki eta gaizki erabilien ordaintzeko; uste nuela diru zenbait eman behar zizeela, konseiluari laket izanen zizakon moldean; eta bere karguko larderiaz hanbat sobera baliatzen zen intendantaz, Erregerenarenaz zuzengaizki baliatzerano ezagunak etziren zerga batzuetara bortxatzeko, berainik, berak nahi bezala, berak nahi dituenen gainean, bere erabaki bakarren bidez, on iduritzen zakona preso-ziloetara egozten duena bere larderia hutsaz, eta horrela herrialde bat ohoinkeriara emaiten, uste nuela Haren Erret-Goitasunak othoiztua izan behar zuela hortaz halako justizia egin zezan nun behazun bezala geldi zadin intendant guziendako.

Kanzelariak, arroparen eta Noailles-ko dukearen adoratzalea, hitzaldira jo zuen gauzaren eztitzeko. Tolosako kondea eta Duke Jauna ene aburuko izan ziren. Ene aitzinean mintzatuak ziren gehienek arrazoin nuela erakutsi zuten jestuz, baina etziren berriz mintzatu. Orléans-ko dule Jaunak erabaki zuen (presoen) liberatzea eta Courson-en manuaren eta jarraikia zizakon guziaren haustea; gaineratekoaz, jende horien ordaintzea bere gain hartzen zuen, Courson-i buruaren xahutzea, berak gaitzago merezi zuelarik, baina aitak gupidatua izaitea. Jeiki nahi ukaitera zoanean, erran nuen erabakiaren berehala izkiriatzea on zela, eta Orléans-ko duke Jaunak baieztatu zuen. Noailles paperrera eta tintara jauzi zen arrano bat bezala eta izkiriatzen hasi, ni beheiti behatzen eta izkiriatzen zuen arau irakurtzen. Manuaren haustean gelditu zen eta horrela berriz hastearen debekatzean konseiluaren erabaki edo delibero baten baimenik gabe. Artikulua hitzez hitz erran naukon; kompainiari behatu zuen, begiez eskatuz bezala. "Bai, erran naukon, horrela onharturik izana da; berriz galdegitea aski da." Orléans-ko duke Jaunak baietz erran zuen. Paperra hartu nuen eta berriz irakurri; izkiriatua zuen. Berriz hartu zuen erotua, bertzekin nahas-mahas zakura egotzi, itzultzean alketxa hortik hamar urratsetara bota, eta joan zen basurde bat berro artetik bezala, nehori behatu ez agurrik egin gabe, eta gu irriz. Duke Jauna ethorri zizatan, eta bertze batzu, Tolosako konde Jaunarekin hortaz jostatu zirenak. Alabainan Noailles-ko Jauna hain guti bere

buruaren jabe izan zen nun, joaiteko itzuli zenean, mahia jo baitzuen gehiago etzela egoiteko biderik zin eginez eta erranez.

Noailles-ko hoteleko jende etxekotu batzuen ganik jakin nuen, adixkide batzuer erran baitzeeten, etxera heltzean ohean jarria zela nehor ikusi nahi gabe, sukarrak hartu zuela, biharamunean omore izigarrian izana zela, eta erraitera utzi zuela eman-arazten nauzkon aharrak eta atheraldiak etzezazkeela gehiago jasan. Goga daiteke horrek eninduela zuzendu.

Ixtorioa iduriz norbaitek jakin-arazi zeen Périgueux-ko deputatueri (ezen arratsean berean hirian gaindi ibili zen) esker handi emaitera ethorri baitzizaztan. Noailles nitaz hain beldur izan zen nun ihardespenak ezpaitzezteen bi egun baizik igurika-arazi.

Ilabete guti ondotik, Courson ekhendua izan zen bere probinziaren bozkariozko suetan. Horrek etzuen hobetu ez eta berantago dirutzetako erret-konseiluko bi konseilari karguetarik baten ukaitetik debekatu, ezen Périgueux-ko egiteko hortan jadanik Estatuko konseilari zen (…)

Zerga eta gastuen ttipitzeko erabakiak parlamentuan

Bilkura, bere lan luze 'ta aspergarria bururaturik, aldi bat baino gehiagotan bildu zen Orléans-ko duke Jaunaren egoitzan, han azken erabakiak hartuak izan baitziren biziki aho batez. Handienak izan ziren: hiriko etxeko arranderi etzela hunkiko; hamarkuneko zerga ekhenduko zela, hanbat bakean ekhenduko zelako hitza hain ospez emana izana zelakotz, nola abantzu jeus, egiazki, bil etzaitekeelakotz. Eraikuntzetako urtekal emana zen miliun bat eta berrehun mila liberako dirua erdiratua izan zen; mozte andana bat izan zen biziki debaldetan eman lansari batzuetan, eta bertze batzuetan ttipitzeak. Ilabetekal hamar mila libera Erregeren "atsegin ttipi" delakoetako, eta hogei-ta-hamasei mila libera arropategikoak, ttipituak izan ziren, atsegin ttipiak erditara, arropategia hogei-ta-laur mila liberetara. Erregeren adinean, hori guzia ebaskerietan zoan. Izan ziren ere bertze gauza batzu moztuak eta hogeiko denarioan hartuak ziren diruen intresetan ttipitzea.

Konseiluetako buruzagi eta lehenak konseilu ohi gabeko batera manatuak izan ziren agorrilaren 19-ko ortzegun arratsaldean, han Noailles-ko dukeak elgarrekin hitz-hartua zenaz kondu eman baitzuen.

Erabakia molde berean idatzia izanen zela deliberatu zen, parlamentura errexixtratzera igorria izaiteko. Biharamunean bilkura berriz ere bildu zen Orléans-ko duke Jaunaren egoitzan erabaki moldearen ikusteko eta hobetzeko.

Buruzagi lehenak bazuen liskar bat inkestekin eta errekeitekin deputatuen hautuaz eta zenbataz, izendatu beharko zirelarik hori geldeginen zuten aldietan. Gambara handiak buruzagi lehenaren alderdikari iduri zuen, gambara hortan hautuaren nagusi izanez, bertzeak baztertu nahi baitzituen, eztirelarik alta hura baino gutiago parlamentuko gambarak. Harrobots ainitzen ondotik, hitz-hartu ziren gambara handiak bakarrik ukanen zituela zazpi deputatu, eta inkestetako bortz gambarek eta errekeitetako biek bana: horrela zazpiek deputatuen erdia, eta gambara handiak bakarrik bertze erdia. Gauza hori etzen buruzagi lehenarendako ontsa iragan, kompainiarekin aski gaizki gelditu baitzen, hunek aspaldidanik frikun bikun batendako zadukalakotz, bere ofizioa Orléans-ko duke Jaunaren ganik ahal bezenbat diruren biltzea zuena.

Erabakia parlamentura ekharririk aldia ederregia iduritu zizakon hortaz ez baliatzeko. Jaunek deliberatu zuten Erregeren hartzeak eta gastuak xeheki erakuts-araziak izan behar zizezteela erabakia errexixtratua izanen zenez hek deliberatu baino lehen. Buruzagi lehena Erreientari hortaz kondu emaitera joan zen, eta biharamunean hunek bazkal-ondoan parlamentuaren deputatu-alde bat hartu zuen, erran baitzaukon erret-larderiari den jokada ttipienik etzuela jasanen, hori bere gain edukiko zueno. Hamalaur deputatu hautatuak bildu ziren. Erregeren jendeak joan ziren gero Erret-Palaziora. Parlamentua bildu zen, eta zerga hamarkunaren eta ainitz diru hartze bortitzena ekhentzea errexixtratu zuen, eta bertze gai batzu. Gelditzen zirenetan, Orléans-ko duke Jaunak, Noailles-ko dukea hartua zuen beldurrak bultzaturik, eta parlamentuari gorte egiteko gutizian, ukan zuen duke horren bidez bere aitzinean parlamentuko hamalaur deputatuer horien eztabada-arazteko ahulezia, buruilaren 5-eko igande goizean, eta hor sarr-arazi zuen ere Law jauna, Mizizipiko kompainiari hortik jinen zizazkon abantailen argitzeko. Hortan guzian, hitz bat ere ez Erreienziako konseiluan, eta ahal baliz, ainitz gutiago oraino bereziki eni; hortakotz elhe bat enaukon hortaz Orléans-ko duke Jaunari erran, ohi nuenari jarraikiz, parlamentuaz gai zenean.

Hau biharamun goizean bildu zen, eta bazkal-ondoan, komisariek ekharriko zutenaren entzuteko, eta ezpaitzen oraino errexixtratzearen

bururatzekotan izan, eta buruilaren 6-a baitzen, Erregek luzatu zuen 14-rano. Erreientari eguna eta orena galdegin zaukon Erregeri erasien erraitera jiteko. Ortzegun 9-an ethorri ziren; Erreientak aitzineratu zituen, eta Erregek erran zeen nahi zuena kanzelariak argituko zeela. Deputatu-aldea ainitzekoa izan zen. Azkenean, biharamun goizean ortzirale 10-ean, erabaki osoa errexixtratua izan zen, zati zenbait argitzen zituen Erregeren aithormen batekin. Gero berehala, parlamentuak ukan zuen lanartetara sartzeko baimena, eta konseiluek ukan zuten ere hirur asteko bat. Horrela, parlamentuak, baduelarik adingabeko erregen aitorde izaiteko nahikaria, hemen erakutsi nahi ukan zuen eztela hori alegiaz, eta hortaz ospeko ofizio bat egin zuen.

Hauekin ikusteko ukan zuen nagusiaren eta minixtroaren ahulezia bi-bier debaldekoa izan zizeen. Parlamentua xoratzeranoko urguluz bete zen, Erreientaren larderiak beheiti egin zuen; bati eta bertzeari ohartzean etzuen luzatu. Noailles-ko dukeak, beti gorte aphal baten egiten ohitua zizakon arroparen beldurrean baitzagon beti, etzuen bere burua gaitzes-arazi baizik, eta etzen hori senditu gabe luzaz egon. Erreientak, berme ihardokiz eta lanjeros bezain arrazoingabe zen nahikaria batez trufatuz, parlamentua erabakiaren errexixtratzera bortxatuko zuen, publikoa gibeletik zuelarik zerga hamarkunaren eta hetan azkarki ikusteko zuen bertze gauza batzuen ekhentzeaz. Printze horrek etzuen jakin abantail hortaz baliatzen, hain alderdi baliagarria ukaiten ahalko zuelarik, eta sustatu zituen, aitzitik, abantail-nahi batzuendako elgarrekin biltzen zirenak eta bidea ideki zeen, nahasterako, bere larderiaren xipitzerako, eta haien nahien menean izaiteko heinera ekhartzeko, ezpaitzituzten, ainitzez ere, hari gauzen gobernatzera uztekoak, eta laster zer egin ainitz eman baitzaukoten.

Bretainian nahasmen eta mehatxu

1. Estatuen bilzarrea

Bretainiako Estatuak bildu ziren harrabots izanen zela dudatzera ez uzteko aran, eta probinzian hortara prest jarriak zirela. Haien biltzera Rennes-tik heldu zen Montesquiou-ko marexalaren aitzinera ethorri zen nobleziak, gaizki hartu zuen bere postako kaderatik etzela jalgi zaldiz haiekin batean igaiteko, eta estatuetara bere egoitzatik oinez joaiteko orde, hara bere burua kaderan ereman-arazi zuela. Bi gauza horietan

noblezia etzen hutsean; baina aldiaz baliatu zen Montesquiou-ko marexalari biziki gaizki egiteko, guzietan aharratu baitzuten, eta hortik, "emaitza urriaren" (*) oihukatuz ez emaiteaz ez askietsirik, 1672-az geroz egina zuten bezala, eta hortan emana izana zizeen miliun bateko ttipitzeaz, etziren bere duken aroko lege bereziez baizik mintzatu, eta gauza andana bat aldatu nahi ukan zuten, Léon-go printzea, nobleziaren buru baitzen, eta han estimatua, deusetara heldu ahal izan gabe. Bazen zenbait dembora han nahasmen gertatzea ikusiko zelako ustean zirela. Montesquiou-ko marexalak ukana zuen Estatuen berexteko manua Erregeren borondateari ez obeditzera emanak ikusten baldin bazituen. Egun zenbaitez gibelatu zuen; baina Estatuek erranik etzirela aburuz aldatuko, bilzarrea igorri zuen. Herri hortako nahasmenen hastapena izan zen, eta Maine-ko Jaunaren eta Anderearen egintzen ondorioa.

(*) "Emaitza urria" erdarazko "le don gratuit" da, herrialde batzuetako Estatuen bilzarreak erregeri egiten zaukon diruzko emaitzaren izena. (*Itzultzalearen oharra*)

2. Alègre-ko Anderearen segeretuzko ikustaldia San-Simuni

Bazuen zenbait dembora harreman segeretuzko eta oraino ilunbekoagoko batean nintzala, hunek, eni erhia hizkiaren gainean ezarri nahiz, aski erakusten baitzautan larriki alderdikatze lanjeros batzuen ikus-arazteko, eta hortaz argitzen ahal ninduen guzia ezin zilatua uzten. Alègre-ko Andereak, senarra geroztik biziki berantago Frantziako marexal ukana baitu, goiz batez aphez bat igorri zautan etxean entzunaldi biziki segeretuzko baten eskatzera, eta oroz gainetik haren etxera ez joaiteaz othoiztera. Nihundik enuen ezagutzen, eta behin ere enuen harremanik ukana haren senarrarekin. Gertaldia berezia iduritu zizatan, eta emazte hori ainitz hala zen ere. Aski aipatua dut ezagun-arazteko, haren alaba Barbezieux-ko Anderearen ezkontzan, eta ezkontza horren ondorioetan. Alégre-ko Anderea etxera ethorri zizatan beraz erran orenean.

Lehenik burutzerik gabeko komplimenduak eta laudorio miragarriak izan ziren; laburzki ihardetsi eta gauzara jin nahi nuen; baina laster ohartu nintzan hortara sartzeko eragozpenak aitzin-solasa gehitzen zuela. Hortik Orléans-ko duke Jaunaren laudorioetara jo zuen, harendako nuen atxikimendukoetara, konztituzionera, gobernamendura. Itzuli eta ingurune guziak agortu zituen ene aldetik ezin erran daitekeen ezin egonean. Azkenean goi-erranen doinuan hasi zen, ahoa tinkatuz, begiak itzulikatuz, adatsa antolatuz, mahungerdia thorratuz, noiz

zilatzeranokoan eni so eginez, noiz begiak beheitituz eta aireztatzekoa erabiliz, bi hitz motz erranez eta erran-nahia dilindan utziz, ixil ilun batera eroriz. Joko horrek beti iraun zuen geroztik ukan nituen ikustaldi guzietan, eta laurzpabortz ilabetez aski usu izan zirenetan. Azkenean entzun-arazi zautan ainitz gauza biziki larriak ari zirela Orléans-ko duke Jaunaren eta haren gobernuaren kontra azpiz moldatzen, hortaz duda etzezakeela, eta berezirik ezer erran gabe eta leku ez jenderik izendatu gabe, etzen bazakienaren segurtasunaren azkartzetik gelditzen, eta horri begira nezan ene sustatzetik, eta Orléans-ko duke Jaunari jakin-araz nezon, harendako zuen atxikimenduaz mirak erraiten zauztala eta konzienziaz ene gana jiteko uste zuen ezinbertzeaz harendako nuen atxikimenduaren gatik, eta hark ene baitan zuen konfienxiaz. Erran ahal naukon, oneziaz emaiten zauztan abisuetan, enuela ikusten hartzeko debaldekoa zen khexu bat baizik, behar ziren neurrien hartzera ereman zezakeen argirik batere gabe, enaukon gehiagokorik athera ahal ukan, batzuetan berrikusiko ninduela mixterio berean ezpada, gehiago noiz eta nola erranen ahal zautan ikusiko zuela; berriz jin zen bazakienaren segurtasunari indar emaitera, komplimendu eta aithormenetara, eta oroz gainetik nahi ukan zuen Orléans-ko duke Jaunaren eta ene segeretu osoa, eta nehoiz enindadin haren etxera joan, den aieru ttipienak galduko zuelakotz. Elhasturia horrek guziak bi oren hurbil iraun zuen, eta mixterioa eremana izan zen ene gabineteko athea haren gainera hetsiko nuela hura urrats batez urrunago lagundu gabe baitezpada nahi ukaiterano.

Banakien bada zerbait azpiz moldatzen ari zela oraino bilduak etziren Bretainiako Estatuetan. Baina Alègre-ko Anderea Tolosakoa zen, haren senarra Auverñakoa. Ingurumen bretainiarrik enauen ikusten. Haren bitxiak, bizi debotak eta aski baztertuak, izpirituak, ezen bazuen, nahiz ameskeriara itzulia zela zioten, eman zautaten azpikerietan sartzea bilatzen zuelako aierua. Enaukon beraz errana zautan guziari oharpen handirik eman, eta ezpaitzen biziki uher zen baizik deus, enuen Erreienta khexatu behar zela uste ukan.

3. Bigarren ikustaldia

Bretainiako Estatuetako harrabotsaren ondotik, berriz ethorri zen, gertatu berria zena aitzinetik ontsa jakina zuela erran zautan, eta oraino zeren gatik; Erreientak huts egiten zuela gauza bururatua zela uste bazuen, edo gaia Estatuen nahikarietan zituela; eta eskuak eni hartuz eta belhaunen gainean zapatuz begiak itzulika zerabiltzala: “Hori

guzia, jauna, ontsa segur izan zaite eta etzazula Erreinta jakingabean utz, ezta oin-adarra baizik, bertzerik asko ikusiko duzu; baina … eta … ezen …" Eta bertze hitz motz batzu, badakien eta bere baitan badatxikan emazte batek bezala, eta berehala joaiteko jeikitzen da. Egin ahal ukan nuen, enaukon bertzerik jeus athera ahal ukan. Eta athean hara zoala: "Ezta oraino ordu, erran zautan, berriz ikusiko zitut, baina etzaitela lokar." Hori ziola, athea hesten du eta badoa.

Zenbat iluna bazen ere bigarren ikustaldi hori, uste ukan nuen alta behar naukola Orléans-ko duke Jaunari kondu eman. Nahiz ontsa bazakien nor zen Alègre-ko Anderea, eta ezpazuen ere haren elhetan nik baino argikiago ikusten, uste ukanen nuen baino oharpen gehiago emaiten zeela iduritu zizatan. Harreman horri jarraik nindadin nahi ukan zuen, erran nahi da haren onhartzera eta entzutera beti emana izan, haren etxea debekatua zizatanez geroz; esker ona erakuts nezon haren izenean, eta ene hoberena egin nezan ahal zen guziaren haren ganik atheratzeko. Harreman hortara itzultzeko aldi bat baino gehiago ukanen dut.

*

II

Neke 'ta lanjerren aldi

1718

Dukeak gatz zerga ekhendu nahi du

Zergen biltzeko araren nahasmen ezin huts eginek hanbat gehiago bazadukaten Erreienta, nun irakitzea eskuztagarria bilakatzen ari baitzen parlamentuan eta probinzia batzuetan. Zerga arautua jarri nahi izana zen Parisko jeneralitatean. Bazuen urte bat jende batzu lan hortan ari zirela, zortzi ehun mila liberako gastuaz bertze ondoriorik gabe. Gogoratu zen orduan Vauban-go marexalaren erret-dexima, zuzentzera eman zena Bignon aphezari eta Renaut ttipiari, hunek eskaintzen zuela bere gastutan entsegu batzuen egitera joaitea probinzia batzuetan, eta gero joan baitzen egiazki. Entsegu horiek guziak zorigaitzekoak izan ziren ondorio onik batere gabe eman zituzten gastuez. Ala langaiak bere baitarik gaizkorrak izanez, ala egiten ziren moldeaz hala bilakatzen zirelakotz, behar bada ere dirutzetako jende abrearen abantail-nahiak eta bekaizkeriak hetan erein zituzten trabez, beti dirutzetako lege-gizonek lagundurik, segur da Erreintaren xede onak, ezpaitzuen jendearen arintzea baizik bilatzen, osoki enganatuak izan zirela, eta zergen biltzeko ara ohikora itzuli behar izan zen.

Nahiz eztutan behin ere dirutzetan sartu nahi ukan, eniz egona dirulariez, intendantez eta dirutzetako bertze lege-gizonez erran berri dutana nihaurek phorogatua ukan gabe. Joa gelditua nintzan gatz zergaz Maisons-ko presidentak errana zautanaz, horren biltzeko erabiliak ziren lauretan hogei mila gizonen andana izigarriaz, eta hortan jendearen bizkarrean egiten ziren itsuskeriez. Hala nintzan ere berdin Erregeren menpeko diren herrialden ezberdintasunaz, haien zati batean gatz zerga idorki jarria baita, bertzetan gatza libro delarik, Erregek eztuelarik alta hautan gutiago biltzen, eta gauza hortan gozatzen direlarik bertzeak zergalari gaixtagin guzien menekotasun zuzengabeko batean direla arrazoinekin ikus-arazten dituen libertate batez, horiek ezpaitira bere ohoinkeriez baizik bizi eta aberasten. Asmatu nuen beraz gatz zergaren ekhentzeko xedea, gatzaren libro eta salgai bilakatzekoa, eta hortarako

Erregeri jende bereziak dituen gaztoki gutien eros-araztea, duten balioa baino heren bat gehiagotan; Erregek guziak ukan zitzan; gatz guzia bere menekoer sal zezan, jarria izanen zen arauan, nahi lukeena baino gehiagoren erostera nehor bortxatu gabe. Etzen abantzu Brouage-ko gaztokiez baizik jabetu behar. Erregek hortan irabazten zuen, alokatze hastiagarri horren gastuez arintzeaz, eta gainera jendeak irabazten zuen guzia libertatean, eta zerga-mutil andana izigarri horren ganik jasaiten dituen ohoinkeria ezin zenbatuez liberatzeaz, gosez hil bailaitezke bere saria baizik ezpalute; Estatuak handizki irabaziko zuen abeleriaren aldetik, begiez ikusten den bezala, gatz apur bat emaiten zeenen, gatz zergarik ezten herrietan, eta bortxazko karioak emaitea debekatzen deenen artean.

Hori Erreientari eskaini naukon beraz bozkariorekin onhartu baitzuen. Gauza, eztabadatzera emanik, jartzera zoan, lehenik kontra joan ahal etziren Fagonek eta dirutzetako bertze lege-gizon batzuek bere neurriak hain ontsa hartu zituztelarik, nun xedea utz-arazi baitzuten. Zenbait dembora berantago berriz hortara itzuli nahi ukan nuen, eta gauza segurtatua zela eta zortzi egun barne egina izanen zelako uste guzia ukan nuen. Berek, zerbait jakin baitzuten, huts egin-arazi zaukoten oraino. Argitu ditutan abantailen gainera, bat izanen zen ontsa baitezpadakoa, jendearen odolaren gostuz bizi diren zergalari horien ekhartzea, soldado, ofiziale edo laborari bilakatzera.

Gertaldi horrek konseiluan nintzan aroan ezagutu dutan egia bat erran-arazten dauta, eta sinetsiko ahal enuena, bildu dutan jakitate trixte batek ikasi ezpalauta: on den oro ezin egina dela. Jende gutik gogo onez nahi duenean, hanbat bertzek dute aitzinera daitekeen on mota ororen kontrako abantail-nahia. Hori nahi dutenek eztazkite itzulikatzeak, hautarik gabe ezer ezpaita ongi heltzen, eta eztezakete kontra emanak zezteen trebetasun eta aipamenari alde egin, eta traba horiek gorenetik ari diren eta larderia duten jenden aipamen guziaz lagundurik, hanbat dira gehituak eta ilunbekoak, nun egiten ahal den on guziak behar baitu baitezpada ilhortu. Egia lastimagarri hau, eta beti hala izanen dena gure gobernu mota bezalako batean, Mazarin kardinalaz geroztik, ezin gehiago konsolagarri bilakatzen da senditzen eta gogoetatzen dutenendako, eta gehiago jeusetan sartzerik eztutenendako.

Erreientak dukeari bizi-moldez aldatuko dela hitzemaiten

1. Hitz emana eta jana

Eztezaket, Lorrenako Jaunaren eta Anderearen Parisko bidaia hortaz, ezteus bat bazterrerat utz, ezpaitu Orléans-ko duke Jauna gero eta gehiago nolakoa zen erakutsi gabe uzten. Orléans-ko dukesa Anderea Montmartre-ra joana zen egun batez, handik gero berehala joan baitzen, Orléans-ko duke Jaunarekin banabilala, Erret-Palazioko baratze xipian, aski luzaz mintzatuz Lorrenako antolamendukoak etziren egiteko batzuez, bapatean ixildu zen, eta enegana itzuliz: "Banoazu, erran zautan, atsegin emanen dautzun gauza baten ikastera." Gero erran zautan bazeraman biziaz akitua zela; adinak ez eta beharrek etzutela gehiago hori galdegiten, eta mota hortako gauza ainitz; auhal-ondoen gelditzera deliberatua zela, eta molde onean iragaitera, jan-edan urriagoan eta beharbezalakotsun gehiagotan, batzuetan bere egoitzan, usu Orléans-ko dukesa Anderearenean; osagarriak hortan irabaziko zaukola, eta berak egitekoetako astia, baina etzuela aldatze hori eginen Lorrenako Jauna eta Anderea joan eta baizik, sarri gertatuko zena, haiekin eta emazte andana batekin arrats guziez Orléans-ko dukesa Anderearen etxean auhalduz osoki aspertuko zelakotz; baina, joanak izanen ziren orduko, sinets nezakeela etzela gehiago errotakoekilako eta putekilako - haren beraren hitzak izan ziren - auharirik izanen, eta bizi zuhur, arrazoinezko eta zuen adinari eta zenari zoakona eremanen zuela.

Aithor dut ene ustegabe ezin handiagoan xoratua senditu nintzala hartaz hartzen nuen artha biziaren gatik. Erran naukon ontsa aspaldidanik bazakiela enindakola bere biziaren eskandalaz eta hartan galtzen zuen demboraz mintzatzen, hortan neurea galtzen nuela ezagutua nuelakotz; bizimoldez alda zaitekeela aspaldidanik etsitua nuela; hortaz bihotzmin handitan nintzala; etzatekeela jakin gabe hori beti zenbatetarano nahi ukana nuen bere eta ene artean hanbat aldiz hortaz iragana zen guziaren gatik, eta hortik goga zezakeela emaiten zauztan ustegabeaz eta bozkarioaz. Gero eta gehiago segurtatu ninduen erabakia hartua zuela, eta hortan utzi nuen auhalondoko ordua beldu baitzen.

Biharamunean berean jakin nuen errotakoek errana zaueten jende batzuen ganik, Orléans-ko duke Jauna etzela haiekin mahian jarria baizik irriz hasi zenean, bere burua laudatuz eta hartara luze-luzea eroria nintzan hoberenetik emana zautala. Gure solasaldiaren ixtorioa erran zeen, bozkarioa eta esku zartatzea miragarriak ukan zituena. Ene bizkar jostatu den aldi bakarra da, bere ez erraiteko, gai batez sakatu zautan

gezurrak, eta iresteko ukan nuen zozokeriak, gogamena ekhendu zautaten bapateko bozkarioan, ohore emaiten zautana eta hari guti. Enaukon irri-solasa banakiela erraiteko atsegina eman nahi ukan ez eta errana zautanaz orhoit-arazi: etzen ere bera eni aipatzera menturatu.

Ehoiz eztut zilatu zer burutaldik hartua zuen gauza horren eni erraiteko eta gero haier ixtorioaren salatzeko, bazituelarik urteak eta urteak enaukola bazeraman biziaz ahorik idekia, bera ontsa begiratzen zelarik hortaz jeusen erraitetik eta horrekin ikusteko zuen jeusez. Egia da bada batzuetan bere konfienxiako mutilekin, aski bekan auhen bat athera zakola, baina behin ere bertzen aitzinean, gaizki nerabilala eta batzuetan idorki mintzo nindakola, hori larriki, bi hitzez, ezer saminik gaineratu gabe ez eta ogendun nintzala. Egia zion ere: zenbait aldiz, harekin edo Estatuarekin ikusteko zuten arrazoin gabekeria edo baitezpadako huts batzuek, gobernuko egitekoetan edo gauza larri batzuetan, ezin jasanera eremana nindutenean, eta arrazoin onez elgar entzunik oraino baztertu edo egin behar zen baitezpadako zerbaitetan, hura osoki sinestera ekharria eta deliberatua, zuen ahulezia edo errextasuna eskuetan itzultzen zizaztan eta hari osoki kontrakoa zenaren egitea ekhentzen zaukoten, berak nik bezenbat zen bezala sendi zuena, eta hori harekin bortizkienik ar-arazi nauten gauzetarik bat da; baina gogotik buruz buru ginenean bertzen aitzinean baino gehiago bazegitan jokoa, irri-solasezko atheraldi batez bapatean arrazoinamendu larri baten moztea zen. Orduan enindagon, batzuetan haserreak hartzen ninduen joan nahi ukaiterano. Erraiten naukon, irri egin nahi bazuen, harekin nahi bezenbat eginen nuela, baina gauza seriosenen nahastea eskukaldiez, irri solas arruntez, ezin jasana zela. Bihotz guziaz irri egiten zuen, hanbat gehiago nun ezpaitzen hori bekan, eta nik behar nuelarik zain egon, ehoiz ezpainindagon, eta hisitzen bainintzan eta gauzaz eta hatzemana izaitera uzteaz; eta gero berriz lotzen zen ari ginen hari. Printzek behar dute bada atseden hartu eta batzuetan adixkidetzat ukan nahi dituztenekin jostatu. Hala nintzala ontsa bazakien ere, eta nahiz etzen beti ordu horietan nitan idorra zeritzonaz askietsia, eta bere ahuleziak, batzuetan nitarik gorde-arazten zuena kontra eginen nauela ontsa sendi zuen gauza larri batzuetan, usuegi baldin bazeraman, etzen enetako hartako gai zen adixkidetasun, estimu, konfienxia guzirik gabe, beti gainditzen zituztela batzuetan jeikitzen ziren lanoak eta Dubois aphezaren, Noailles-en, Canillac-en eta bertze haren etxekotuenetarik batzuen jaukitaldiak. Enekin zituen khexaldiak, biziki bekan zirenak eta

beti estimu handirekin, hotz egitea ziren, mutturreria, ixila. Hori beti biziki labur. Berak etzezakeen iraun; ordu berean ohartzen nintzan; galdegiten naukon libroki nori aiher zen eta zer gaixtakeria errana zizakon; gauza aithortzen zautan adixkidetasunekin eta ahalgetua zen, eta harenganik ehoiz baino hobeki berexten nintzan beti.

2. Dukearen laudorioak

Halabeharrak erakatsi zautan egun batez zuzenean nitaz zer gogo zuen. Hemen erranen dut, ezteus horietarik behin betikotz atheratzekotan. Orléans-ko duke Jauna, bazkal-ondo batez Teilerietako Erreienziako konseilutik Erret-Palaziora itzultzean, Chartres-ko duke Jaunarekin eta Conflans-ko bailearekin, orduan gambarako lehen aitoren-seme, haiekin heren bakarrik, nitaz mintzatzen hasi zen Teilerietako gortean berean, bere seme Jaunari ene laudorio bat egin zaukon halakoa nun ezpainiz hemen erakartzera ausartzen. Eztakit konseiluan zer gertatua zen ez eta hortara zerk ekharri zuen. Bakarrik erranen dutana, nitan adixkide hoin leial baten ukaitean zuen zorionean egon zela, aro guziez hoin aldakaitza, ni nindakon eta izana nindakon bezain baliagarria, hoin segurra, hoin zintzoa, hoin abantail-nahi gabea, hoin bermua, haren baitan ordu oroz kondatu ahal zuena, zerbitzu handienak eginak zauzkona, eta egiaz, zuzen eta garbi mintzo zizakona orotaz, eta bere abantailik gabe. Laudorio horrek iraun zuen Erret-Palazioan oina lurreratu zuten arteo, bere seme Jaunari ziola nahi nindaukola ezagun-arazi, eta beti ene adixkidetasunean eta ene aholkuetan aurkituak zituela zoriona eta laguntza, hemen ezarriak diren guziak haren hitzak baitira zuzen-zuzena. Conflans-ko baileak, bera nasaitasun hortaz ustegabetua, segeretu-pean erran zautan biharamunean, eta ezin ahatzi dutala aithor dut. Eta egia da, zer ere egin ahal baita, eta nihaurek ere, gaizki egiten ikusten nuenaren nardamenez eta hisiz, beti enegana itzuli dela, eta abantzu beti lehenik, ahalgez, adixkidantzaz, konfienxiaz, eta nehoiz eztela edozein eragozpenetan gertatu, ene bila ibilia izan gabe, bihotza ideki gabe, eta orotaz enekin aholkatu gabe, ez bizkitartean beti ni sinetsia ukanez, bertze batzuek gero itzul-arazirik. Etzen alta hori biziki usu gertatzen, eta orduan zen gero enekin ahalgetua eta eragozpenean, eta ni orduan nindakon apur bat ausartzen, ene aholkuez berantagoko batzuetara bere burua utzirik gaizki sendi zenean; hori hemen usu ikusia da, eta geroak erakutsiko du oraino.

3. Erreientaren ohaideak

Etzen ohaide batekin askietsia izaitekoa. Aldamena behar zen gostuaren phizteko. Enuen haiekin errotakoekin baino harreman gehiago. Ehoiz etzauztan aipatzen, ez nik ere hari. Abantzu beti haier gertatuen ezjakinean nintzan. Errotako horiek eta mutil batzu lehiatzen zizazkon hetarik batzuen aitzinera ekhartzera, eta beti andana hartan bati lotzen zen. Sabran-go Anderea (berez Foix-Rabat-tarra), eta aipatu dutana, haren amak bere egitekoendako ordu zenbaitez gortera agertu ukan behar zuelarik, hunen ganik ihes egin zuen libertatean ezarri zuen izen handi bateko baina ontasun eta mereximendu gabeko gizon baten ezkontzeko. Ezer etzen andere hura bezain ederrik, berdinik, gozagarriagorik, hunkigarriagorik, itxura handi eta nobleagokorik, handikeriarik batere gabe. Itxura eta arak laño eta jitezkoak, gogatzera utziz bazazkiela bere ederra eta soinara, handia zuena eta munduko ederrena, eta laket zuenean enganatzerano xumea. Izpiritu ainitzekin, sartzalea zen, atsegingarria, arropari emana, ez batere gaixtoa, xoragarria bereziki mahian. Hitz batez, bazuen Orléans-ko duke Jaunak behar zuen guzia, laster hunen ohaide bilakatu baitzen, bertzeak bertze.

Ez berak ez senarrak jeus ezpaitzuten, edozer on izan zizeen, etzuten alta fortuna handirik egin. Montigny, Turmenies-ren anaia, erret-tesoraren zainlarietarik bat, Orléans-ko duke Jaunaren gambararietarik bat zen, sei mila libera lan-saritan, eta hoteleko nagusi lehen egin zuen hala zen Matharel hil zenean. Sabran-go Andereari sei mila libera bere senarrarendako beti hartzeko on zirela iduritu zizakon, hain guti hartaz axolatzen zelarik, nun, hartaz mintzatzean ezpaitzuen bere "alandorra" baizik izendatzen. Orléans-ko duke Jaunak kargua eman zaukon eta Montigny-ri ordaindu. Andere horrek zaukon biziki atsegingarriki erran, errotakoekin auhaltzen ari zen batez, printzeak eta lekaioak orhe beraz eginak zirela, Jainkoak munduaren egitean bertze gizon guziak eginak zituenetik berezia zuena.

Ohaide guziek, ordu batean, bazuten bakoitzak bere aldia. Zorionekoa zena, (gobernuko) egitekoetetan biziki gauza guti ahal zutela da eta etzirela horietako segeretuetan batere barne; Erreienta hortaz jostatzen zen eta etzen behar baino gehiago axolatzen.

Chirac, Erreientaren medikua, Landaretegiko buruzagi

Poirier-ek etzuen astirik ukana, Fagon hilez geroztik, Landaretegiko buruzagigoaren hartzeko. Ustegabetua izan nintzan goiz batez Chirac etxera ethorri zizatalarik, ezen eztut uste orduan ehoiz mintzatua nindakola eta abantzu harekin gertatua ere. Buruzagigo hori eman-araz nezon othoizteko zen. Erran zautan zuen ontasunarekin, eta alabainan biziki aberatsa zen, etzela irabazien handitzeko, baina alderantziz beretik hartan ezartzeko. Hain ongi marrazkitu zautan sendagarrietako baliagarri ziren hanbat landare ohargarri eta bekan arthatzetik zenbat utziak ziren, han behar zelarik erakusketa egiteko eta antolatzeko artha hartu, mediku lehen batek, guzia gortean hartua, etzezakeela behar zen bezala atxik, are gutiago berriz hala ezar guzia eroria zen heinean, nun sinets-arazi baitzautan baliagarritasun publikoak bertze batek bere gain har zezan galdegiten zuela. Gaineratu zuen, eginbidez eta gostuz, behar zen artha guzia hartuko zuela hiri nagusia ohoratzen zuen eta mediku, jakintsun eta ikusinahien erakaspeneko zen leku horren arthatzeko eta ara onean ezartzeko; bertze nehor baino leku hobean izanen zela hara alde orotarik landare ohargarrienen eta arraroenen ekhar-arazteko eta han jin-arazteko, Orléans-ko duke Jaunaren manuen bidez, hanbat gauza, azkenean, nun galdegin bainaukon bakarrik zergatik, bere nagusiaren konfienxian izanez, etzaukon hari berari hel egiten. Hortan askietsia utzi ninduen, ezen bazuen mintzaera, elhe eder, itzuli, antze eta xorroxtasun ainitz. Bere aroko mediku jakintsunena zen, theorian eta egintzan, eta, haren lagun guziek eta aipamen lehenekoak zirenek aithor zutenaz, haien guzien nagusia, haren aitzinean oro ikasle batzu bezala errespetutan baitziren, eta hura haiekin larderia osoan bertze Aezkulapioz bat bezala.

Ehor etzen hori jakin gabe; baina gero baizik ikasi enuena eta ikusi nuenak erakatsi zautana ere ondotik, ontasunetan igerika eta, zekeneriak josia zela da; ohorea, zuzentasuna, beharbada erlisionea ere etzituela ezagutzen eta ozarreria orotako gai zela. Bere nagusiak ezagutzen zuela sendi zuen, eta nahi zuen haren ondoan ezagutzen etzuen batez lagundua izan nahi zuenaren eta bere baitarik uste ukaitera menturatzen etzenaren eremaiteko. Bi egun berantago aipatu naukon Orléans-ko duke Jaunari, ihardokitze zenbaiten buruan eman baitzuen. Ehoiz geroztik eztut Chirac-ez aipurik ukan; baina, gaitzenik egin zuena, landeretegian ezer etzuela ezarri da, etzuela jeusetaz artharik hartu, baliagarria zena beretako bildu zuela, guzia andeatu, eta hiltzean larre

utzi, hala nola nun berriz egin behar izan baitzen eta abantzu osoan berriz ezarri. Hartaz mintzatzeko aldi ukanen dut oraino bertze nunbait.

Saint-Pierre apheza *Polysynodia*-ren egilea Akademiatik haizatua

Gauza biziki xume batek egin zuen orduan harrabots ero bat. Saint-Pierre-tarrak aipatu ditut hemen zenbait aldiz, hetarik bat Orléans-ko dukesa Anderearen ezkutari baitzen; bertzea, anaia, Madame-ren lehen elemosinari. Hunek bazituen izpiritua, letrak eta ametsaldiak. Bazuen biziki aspaldi Akademia frantzeseko zela eta bere buruaz biziki hartua, gizon ona eta gizon zuzena alta, liburu, langai eta politikan eta gobernamenduan on publikoaren aldeko bermoldatze egile handia. Gobernuaren aldatzeaz libertatean zela uste ukan zuen eta on publikoaren alde bere asmamenari olde emaiteko aldian. Liburu bat egin zuen beraz *Polysynodia* izenburutu zuena, hartan zen bezala erakusten baitzuen Estatuko segeretariek eta dirutzetako begiztatzale jeneralak azken erreinuan bazerabilaten bothere despotiko eta usu tiranikoa, "vizir"-ak deitzen baitzituen, eta haien departamenduak "vizirgo"-ak, eta hortan hedatu zen zuhurtzia baino egia gehiagorekin.

Agertu zeneko, aitzineko gobernamendu guziaren eta Erreienziaren ondotik hartara itzultzeaz lausengatzen ziren guzien jazartze orotako bat egin zuen. Errege zenaren gortelari ohiek jeus gostatzen etzeen esker on bat erakutsi nahi ukan zuten bertze batzuen kaltetan. Villeroy-ko marexalak bere buruari oharr-arazi zuen harramantza izigarri batez, eta nahiz edo bortxaz gorte zahar guzia jazarr-arazi. Horietarik harat nehor etzen gaitzitzen behar bada zuhurtziari huts egiten zuen lan batez, baina Errege zenari berari errespetuz jeusetan huts egiten etzaukona, eta egiarik baizik erakusten etzuena, orduan bizi zen guzia lekuko ukana baitzuen, eta gauza ageria zela nehork ezpaitzezakeen uka. Akademiak, letretako bertze jendeak, gainerateko mundua, sumindu ziren ere eta erakusterat eman zuten, gorte zaharreko jaun horiek etzezazketelakotz oraino jasan egia eta libertatea, hain ziren esklabotasunari jarriak. Baina Villeroy-ko marexalak hanbat itzul-inguru egin zuen, hitzaldi gora, harramantza, bere bortizkeriez hanbat jende ereman harekin oiharzunean ez oihukatzera menturatzera, nun Orléans-ko duke Jaunak, Saint-Pierre-tarrak

ezpaitzituen aspalditik maite, eta Villeroy-ko marexalak larderian baitzadukan, ezpaitzaukon hirrunharrun hari ihardoki nahi ukan. Saint-Pierre-ko apheza Akademia frantzesetik haizatua izan zen beraz Akademiak nahi gabe, ezpaitzuen bururano ihardoki nahi ukan; baina etxe gutitarik, egiaz gotorretarik gutitan ibiltzen bazen ere. Liburua ekhendua izan zen; baina Akademiak, Erreientak arte-neurriendako zuen gostuaz baliatuz, ukan zuen hautatzerik etzela eginen eta Saint-Pierre-ko aphezaren lekua etzela betea izanen; hura hil arteo egina izan dena, gaizki egin zaukotenek oihu eginik ere.

Cellamare Espainiako embaxadorea Frantzian nahasmen phizten

Erregeren persona sakratu hain preziosaren begiratzea zen ere estakurutako baliatzen zena xede gaixtokoek gupidarik biziki gabe hedatzen zituzten hitzaldietan jendearen khexatzeko eta Orléans-ko duke Jaunaren kontra sustatzeko. Phizten zituzten zuzengabeko harrabotsak Cellamare, Parisen Espainiako embaxadoreak ufatzen zituen. Iduripenez zuen helburua laur erresumen arteko antolamenduaren ondorio onera heltzearen trabatzea zen; eta, hortarako, guzia haizu uste zizakon. Ephe bat etzuela galtzeko uste ukan zuen Parisera ethortzen ikusi zuenean Stanhope kondea, Angeleterrako erregeren Estatuko segeretaria eta konfienxiako minixtroa. Hunek gero Madrilera iragan behar baitzuen, Cellamare berriz higitzen hasi zen, ez bakarrik atzerrietako minixtroen ondoan, baina ere erresuma barnean, Erreientaren eta Angeleterrako erregeren arteko batasunaren hausteko eta zituzten xeden bururatzera ez uzteko. Cellamare-ek, Stanhope ethorri eta berehala, jakin-arazi zuen, Erreienta sartzen baldin bazen korona horren eskaintzetan laur erresumen antolamenduaz ala Espainiako erregek nahi zuenaren kontrako bertze antolamendu zenbaitez, Haren Erret-Goitasunak hartuko zituen loturek hauste ideki bat eginen zutela Haren Maiestate Katolikoaren eta haren artean, Frantziako koronari mugagabeko gaitzak, eta segurki hein bereko kalte bat printze baten eta bertzearen abantail berezietan. Provane Saboiako minixtroak, Cellamare-ek sustarik, bere oharpenak hanbat indarrekin egin zituen nun biek sinetsi nahi ukan baitzuten Erreienta Stanhope-ri elhe on batzuen emaitean egona zela, eta Haren Erret-Goitasunak luzatzera eginen zuela

ezer bururatu gabe, erabakitzea gibelatuz Vienako ihardespenak ukanak izan arteo, eta Espainiako untzieria Italiako itsas-bazterrera heldu eta armada españolen lurreratzearen ondorioa ikusi arteo. Gogoeta horiek zuzenak zirenez ikustea etzoakon Cellamare-ri berari baizik. Stanhopek ikusi zuenean etzauzkon bere sendimenduak gorde; laur erresumen arteko antolamenduaren zaintzale biziki samina agertu zen, Europako bakearen atxikitzeko bide ezin huts egina ikusia baitzen ordukotz.

(…)

Cellamare hasia zen beraz bere gogamenen laburtzen eta oinarritzen bakarrik Frantzian Espainiako erregeren alde bere ustez ikusten zituen antolamenduetan. Jendearen artean erraiten zirenak biltzen zituen, eta, ala Haren Maiestate Katolikoari gustatzeko, ala Alberoniri gorte egiteko, segurtatzen zuen Frantzesak bozkario bezenbat ustegaberekin mintzo zirela Espainiak itsasoan ezarria zuen untzieriaz, jendearen agiantzak egintza horren ongi heltze zorionezkorako zirela, eta, gortea bertze gogo batean baldin bazen, gobernatzen zutenen abantail bereziek etzutela nazionea bere sendimenduak erakutsi gabetan uzten. Alde zituen gogamen horietan, Cellamare bazarraikan, zion, bere ardantzaren arthatzeari eskua eman gabe bizkitartean oraino ondua etzen fruituari. Jadanik arnoa erautsi behar zutenen ahoaren eztitzerako ziren mahatsak agerian saltzen ari ziren, lastoaren gainean gelldituko ziren bertzen merkaturat eremaiteko behar zenaren egitera zoazin. Erranaldi itxuratu horien azpian zituen Cellamare-ek bere intzul-inguru segeretukoak gordetzen, baina hartua zuen gortearen eta parlamentuaren arteko berexkuntza hurbilaren esperanza agertzera uzten zuen, zinez uste baitzuen horren ondorio azkarrek aldamen handiak ekharriko zituztela. Bazadukan parlamentua Maine-ko dukeaz, Tolosako kondeaz eta Villeroy-ko eta Villars-ko marexalez lagundua zela, et azkenean, izpirituak ziren heinean, Erreienta Espainiarekin hauste ageri batera jitearen Angelesen bezain beldur izanen zela bederen, gertaldi hori Haren Maiestate Katolikoaren minixtroek uste baitzuten Angeleterrako erregek azken artharekin baztertuko zuela, sinetsirik ere Stanhope-ren bidaiak Madrilera erakusten zuela Angeleterrako gortearen nahikaria zerbait atherabideren hatzemaiteko nazione angelesari segurki batere laket izanen etzizakon hauste batera ez jiteko.

Gai beretik, laur erresumen arteko antolamendurano

Angeleterran nahasmenen phiztea edo sustatzea etzen orduan Cellamare-ren gogoa zadukan gai nagusia; bazakien Alberonik lehen oharpena emaiten zaukola Frantzian laster sortzen ikusiko zirela uste zuen nahasmenen ondorioari, Espainiako errege 'ta erregina eta hauen lehen minixtroa (Alberoni) sendikorkienik hunkitzen zituen gauza. Hori zen, beraz, Cellamare artha gehienekin jarraikitzen zizakon egitekoa, eta segeretu gehienarekin egiten zuela uste zuena, nahiz Orléans-ko duke Jauna ontsa jakina zen haren egintzez eta atzerriko gorte batekin zuhurtziarik gabe sartuz bere fortuna eginen edo aitzinatuko zutela uste zutenen izenez. Espainiako embaxadoreak Madrilera bazigorran, Pattes izen-pean, haiekin zituen solasaldien erakarpena, eta Haien Maiestate Katolikoen ihardespenez emaiten zeen kondu alde onera itzuliaz, indar egiten zuen jadanik hartuak zituzten zuhurtzia gabeko agintzen gero eta gehiago azkartzean. Cellamare-ek ezer etzuen ere ahazten bere nagusi erregeri lagundu behar zirela entzun-arazteko, printze horrek nahi bazituen zuten gogo onean atxiki eta ondorio onarekin lan egiteko heinean ezarri. Frantzia orduan bake osoan zen, eta ezpaitzen gerla hurbil baten iduripenik batere ikusten, kargu gabeko aitzindari andana batek nahi zuen Espainiaren zerbitzura joan. Cellamare-ek, segur izanez bere nagusiaren abantaileko zela hunen zerbitzuko ez bakarrik aitzindarien ukaitea, baina oraino tropa frantzesetako soldado-alde baten, eta jakinez Alberonik bazuela zortzi milataranoko atzerritar andana baten biltzeko xedea, Frantzian errex bilduko zen soldado-alde baten moldatzea eskaini zaukon, eta Espainiako erregek orduan bere zerbitzuko zituen erreximendu walondar eta irlandesetan hartzea. Kargurik gabe zauden aitzindari batzuek etzutela Espainian ukaitea baino hobeki galdeginen uste ukaiteko aldi zen alabainan, eta Cellamare-ek hori sinetsia zuen Espainiako zerbitzuan izaiteko berari hel hegiten zaukotenen galde usuez. Folard zalduna horietan zen; baina lehenik zer nahi zuen galda zezakeen eta etzen bere buruaren menturara zabilan batendako harr-araztekotan.

(…)

Dirutzetako adminiztratzean sartuak ziren berritasunek, bankoaren jartzeak, Law-i emaiten zizazkon langaiek, berritasun horietan guzietan Erreientak eginak zituen soberakeriek, parlamentuaren kontra-eginek, halako gerla batek (Erreienziako) konseiluaren erabakien eta

horien ezeztatzeko kompainia horrenen artean, itxura bazemoten gerla barneko eta hurbil batez, ez bakarrik hiri-nagusian baina erresumako alde orotan, zerasaten aitzin-erran gaizkorretan sinesteari. Cellamare-ek bozik biltzen zituen abisu falsuak eta hanbat artha gehiagorekin ikertzen nun uste baitzuen, horiek Alberoniri emanez, lehen minixtro horrek harturik ukana zezakeen sendimendua Del Giudice kardinalaren iloba, Cellamare zen bezalako baten kontra ezabatuko zuela. Gauza guziak gotortzen zituen beraz eta uste zuen Madrileri berri on bat bazemola segurtatuz Erreientak erreximendu batzu Parisko inguruetara ekharr-arazten zituela; zaiztzaler manua emana zizeela eta musketarier ere prest izan zaiten. Bazuen ustea aldi berean Holandako errepublikak Londresen eztabadatzen ari zen antolamenduan etzuela sartu nahi ukanen, Emperadorearen, Frantziaren, Angeleterraren eta (Holandako) Estatu Jeneralen artean aspaldidanik aipu zen batasunaren moldatzeko; Espainiako erregeren antolamendu hortan sarr-arazteko indar egiten ari zirelaik debaldetan, eta hortaz eztabadatzea zelarik Frantziaren aldetik Madrilera Nancré-ko Jaunaren igortzeko arrazoina, eta Stanhope-ko kondearen Angeleterraren aldetik.

Baina Espainiako embaxadorea hoinbertze esperanza hutsalen ustean lausengatzen ari zelarik, Londresen eztabadatua zen laur erresumen batasuneko antolamendua hiri hortan izenpetua izan zen lehenik agorrilaren 2-an, eta gero Vienan eta La Haye-en, Espainiako erregek hortan sartzea etzuelarik onhartua, eginak izanak zizazkon othoitz biziak izanik ere.

Atzerrietako egitekoak *Orhoitzapen*-etan

Orhoitzapen hautako leku batzuetan ikusi da atzerrietako egitekoez beti mintzatua nizala Torcy-ren arabera. Aitarekin eta aitaginarrebarekin gobernatuak zituen Errege (zenaren) heriotzerano; gero hetako haria atxikia zuen buruzagi egona zen eta gero intendant goiengoa ukana zuen postaren segeretutik. Zenbat ere hetaz Erreientak eman nahi ukana baitzautan bere gabinetean Erreienziako konseilua, ondorioa hartua izan arteo, guzia mota hortan gordea zizakon molde huts bat baizik bilakatua etzenetik, ene orhoitak etzauztan horietako jarraipena eta orduak emaiten ahalko hainbertze egintza gurutzatuen artean, behar diren zuzen eta zorroztasunean bertze laguntzarik ukan

ezpanu. Torcy-k egina zuen eskutitz guzien laburpen bat 1718-ko agorrilerano ereman zuena, eta damu ezin zuzendua da, eta geroztik hortaz ontsa erasiatu dutana, ezpaitu postak ukan ditueno ereman, ikusiko baitugu Dubois kardinalak ekhendu zauzkola 1721-ean. Ordurano gauza ontsa ohargarriak ikusiko ziren hirur urte horietan ehortziak geldituko direnak, eta Alberoniren erortearen itzuli-mitzuli eta azpikeria guziak eta Espainaiko ezkontza bikunarenak. Torcy-k utzi dauzta bere laburpenak; hortik dut Erregeren heriotzeaz geroz eman dutan ixtorio xehea, atzerrietako egitekoen jarraipenaz eta xehetasunez. Laburtu ditut eta behar dena baizik eztut ezarri. Baina 1718-an gertatu dena hain bitxi eta hain gotor iduritu zata nun uste ukan baitut enuela behar laburtu eta zatiak hartuz egon (…); baina atxiki dut Torcy-ko Jaunaren eskutitz zati guzien kopia zuzena eta osoa, hetan baieztatuko baita atzerrietako egitekoez baderakartan guzia, eta ikusiko, gainera, (*Unigenitus*) konztituzioneko egitekoaren jarraipen guziari doakona, hortaz jeus ezpaitut erran, eta ikusiko baitira Bentivoglio nonzaren eta Rohan-go eta Bissy-ko kardinalen aldetik, eta gudu deitoragarri hortako gizazkarrenetik, buruko ilen zuti-arazteko itsuskeriak, lerro eta mota orotakoak, jarraipen, zuzentasun, zorroztasun batekin, hainbertze egintza segeretuko eta barnatu eta abantzu guziak batzu bertzeak baino gaizkin eta hastiagarriagoetako gertaldi ttipienaren kontra joan nahi dutener bide oro ekhentzen dezteetenak, eta kontra-egin osoa bete-betean zuzentasunean, eztian, egian, eta pairamen et neurri soberan Noailles-ko kardinalaren baitan eta alde hortan harekin eta haren azpian agertu diren lehenbizikoenean.

Nahiz kopiatu dutan estiloaren garbiak, malguak, nobleziak eta zuzenak begietara jauz-arazten duen, bere gozagarriaz eta eztiaz, enearekilako ezberdintasuna, eztaukot alta irakutzaleari jakin-arazi gabe utzi nahi ukan, ehoiz *Orhoitzapen* hauk aurkitzen badute, enetik eztena zein den, bertzerenaz jabetzen direnen gaitzestez, eta aldi berean atzerrietako egitekoez derakartanean konfienxia osoa eman nahi ukan daukot, nun hartua dutan argituz, nere burua hartara bortxatua dutan arauari leialki jarraikitzeko, ezer ez erakusteari *Orhoitzapen* hautan eskuetarik edo begien aitzinetik iragana etzatanik, edo nola hetan erautsi dutan erranez izendatzen ditutan ithurburu segurrenetarik hartua eztenik baizik.

Behar da orai, 1718 urte hortako gertaldien haria berriz hartu baino lehen, atzerrietako egitekoez ikusi berria denaz gogoeta labur

zenbait egin. Ezta hori, ixtorioak, eta are gehiago orhoitzapenak, egiten eta irakurtzen dituenaren gogamenek leku guti eta bekan ukan behar dutela eztakitalakotz, gertaldier jarraiki nahi baita, eta jakin-nahia eztadin izan arrazoinamendu arrunt, usu geza eta hantu batzuez moztua, eta izkiriatzen ari denak bere izpirituaz eta zentzuaz eman nahi duen gogamenaz. Ezta ere hori hemen gogoeta zenbaiten emaitera nakharrena, baina gaiaren handitasuna eta moldatu duten gatinaduraren ondorio gaizkorrak, horien azpian Frantzia auhenetan egonen baita menturaz mendetan eta mendetan.

La Tour-ko Aita Oratorioko jeneralari usu erraiten entzun daukot, zentzu, izpiritu eta jakitate handiko gizona baitzen, eta eginbide 'ta debozione handikoa, gizonek ontsa gauza guti izan behar zutela Jainkoaren aitzinean, behatuz, emperadore erromatar gehienetan, zer nagusiak emanak zauzkon mundu osoari, haiekin erkidatuz azken mende hautako monarka botheredunenak eztirelarik botherez eta gobernuko eremuz emperadore horiek imperioaren gobernatzen zerbiltzaten lehenbiziko aitzindarien heinera heltzen. Mundu osoko monarka horetarik, menden zerrendan ondoko ukan dituztenetara jausten baldin bada, eta imperio erromatarraren erorteak bat bertzearen ondotik moldatu dituen zatikatze guzietara, aurkituko da, xipian, gogamen bera, eta erresuma horiek guziak, errege berezien azpian, noren aztaparretara eta jokora jin diren miretsiko da. Ikusgarriak gogoa irakurteak baino gehiago joiten duelakotz denez eztakit, baina deusek enau atzerrietako egitekoez erakutsi berria denak baino gehiago hunki. Ikusten dira bi monarkia azkarrenak bi printze osoki ezberdinez gobernatuak, hauen nortasun azkarki ezberdina orotan ageri baita oro gainditzen duen izpirituko goientasun batekin, ete baten baitan biziki zorrotzarekin, bi haur bezala jende aphaleneko bi gizonez berdin eremanak, gozoan eta trabarik gabe bakoitzak badagiela bere nagusiaz eta menean duen monarkiaz, bere handi-nahi bereziaren esklaboa eta jostagailua, bi printzen eta bi monarkien abantail agerienen kontra joanez (*). Bi gizon gobernuko jakitate den gutienik gabe, estimagarririk edozer gabe, bere baitan gozatasun den arinenik gabe, bakoitza bere buruaz bertze laguntzarik gabe, bere abantail-nahia eta handi-nahia nagusiari gorde nahi edo ahal eztauzkotenak, ez eta bere oldarra eta erokeriak, eta abantzu lehenbiziko mailetik beretik nehor gupidesten eztutenak, eta bortizkeriarik baizik ez erakusten.

(*) Bi monarkia horiek Espainia eta Frantzia dira, bi gizonak Alberoni eta Dubois kardinal eta minixtroak (*Itzultzalearen oharra*).

Alberoni Espainian, Frantzian Dubois eta hunen ondokoak

1. Alberoni Espainiako errege 'ta erreginaren egiazko nagusi

Alberonik aurkitzen du errege bakarti bat, hetsia, jiteaz osoki ezkontidearen beharretan, debota eta gogo arrangurek jana, erlisioneko ekhai handiez guti hartua eta haren azalari emana, herabea, hisitia, nahiz eztia eta ereman errexa, asmamenik gabe, izpirituz auherra, bertze batek eremana izaiten uzteari jarria, azken heinerano erabilgarria nehori mintzatuko eztela eta nehor hurbiltzera, are gutiago nehor bere buruari mintzatzera utziko eztuelako segurtasunaz, eta bereaz bertze emazterik gogoan ukanen eztuelakoaz, ospenahia alta, gora eta irabazteaz eta Europan estimatua izaiteaz hunkia, eta, ezin entzuna dena, kuraiakoa izanik ere Madrildik atheratzea behin ere gogoan hartu gabe, eta munduko bizi trixtenaz, egunoro berdinenaz askietsia, behin ere horren aldatzeaz axolatu gabe ez eta bere omore ilunari ihizitaldi batzuez bertze jostagailurik emaiteaz, eta bidean erreginarekin buruz-buru, eta orstapean han iragan-arazten ziren ihizien tirokatzera emana; erregina bat izpirituz, garaziez, goratasunez, handi-nahiaz, gobernatzeko eta uzitzerik gabe manatzeko nahikariaz betea, hortaratzeko eta hortan egoiteko ezer gosta etzizakona; suharra, sardana, bekaiztia, khexua, beti begien aitzinean zuela Espainiako erregina alhargunen izanara trixtea, zer gosta behar bazizakon ere horren baztertzekotan, eta hortako, zer gostarik ere, bere semetarik bati nahi zaukona bere gain zen Estatu bat moldatu, eta gero bati baino gehiago; Españolak begitarte ageriz hastiatzen zituena, hetaz ere berdin herratua, eta atherabiderik etzuena ahal ukan zuen bezenbat aitzinatu zituen Italiarretan baizik; aholku eta konfienxiarik etzuena bila joana zizakon eta harekin ethorria zen Parmeko menpekoan eta ministroan baizik; bertzela gauza oroz jakingabea, ama biphil batek Parmeko palazioko bihitegi batean hazia, ezpaitzaukon jeusen ezagutzarik eman, eta nehori ikustera eta hurbiltzera ez utzi, eta hortik arterik gabe Espainiako erregeren *spelunca*-ra (edo harpe-zilora) iragana, han egon baitzen bizi izan zeno, izan ahal datekeen ehorekin harremanik gabe; horrela Alberoniren begietarik baizik ez ikustera hertsatua, bidaiako aldiaz geroztik hari jarria zen bakarra,

Espainian Parmeko menpeko eta minixtro izaiteaz konfienxia bere ustez eman ahal ukan zezokeen bakarra, erregeren eta monarkiaren gobernatzeko baliatu nahi ukan zezakeen bakarra, ezpaitzen, Estaturik ez ukanez, hura gabe egonen ahal, ezpaitzaukon ere, uste zuenaz, huts eginen ez eta itzalik ekharriko. Hori izan zen Alberoniri eskainia eta aitzinera emana izan zizakon alhorra bere fortunara lehiakiderik ez kontrerrailerik gabe lan egiteko. Hori izan zen haren segurtasunaren ithurburua barnean eta atzerrian orotara abiatzeko, gobernu agertzeko neke, ezin erakutsi bateko ilunbetan aberasteko, beraren bilakatzeko beldurgarri, edozein motako ikustaterik gabe trabarik batere etzuelakotz aurkitu kardinal izaiteko gupidarik gabe Espainaiako errege 'ta erreginaz baliatzean harrabots handienekin eta eskandala handienarekin, ete geroztik Sebillako arxapezpikugoko, hori izan baitzizakon beherapenaren hastapena, azkenik Emperadoreari gerla ero baten sortzeko Europa guzia kontra izanik ere eta Europa guziak utzirik; eta Emperadorea, aldiz, Frantziaz, Angeleterraz eta Holandaz azkarki eta bizkorki lagundua zelarik. Hortik gerla hoin eroki hasi baten jasaiteko indar mirazkoak, beraren beharrezko bilakatzeko eta goien botherean edukitzeko eta aberasteko bidetan, ur uhertuan arraintzan artzeko merkatuetan, (armadetako) hornimenduetan, berak eskuetan zituen mota orotako langaietan; hortik Espainia uste ukaitera menturatuko etzen antolamendu edozeinen ez onhartzean hisitze gaizkor hura, eta ordukotz erreginaren seme bat Italian jartzen zuena, laster Parmeko eta Tozkanako Estatuen jabe ikusteko agintze eta itxura guziarekin Angeleterrak Emperadorearen ondoan egin zuen lanaz, nahi baitzuen Espainako eta Indietako sal-erospena ekhentzen zaukon gerla bat baztertu.

Espainia debaldetan ezindu zuten indar horiek, berriki berreraikia zuen untziera suntsitu zuten, hortarik korona horrek jasan baitzuen, gertaldien gatinatzeaz, kalte lehergarria Indietan, beldur izaiteko baita hortarik eztela behin ere zutitu ahalko. Hori zen Espainiako lehen minixtro botheredun oso horren erreinuak egin zuena, biziki laburra izanik ere, Espainia osoa laidoztatu ondoan, Erroma desohoragarriki erabili, Europako bothere guziak iraindu eta bereziki Frantziako Erreienta biziki lanjeroski, hunen kontsa erresuma guzia jazarr-arazi nahi ukan baitzuen, azkenean Espainiatik ahalgegarriki haizatua, hortaz kittorik gertatu zen zenbait ilabete ergozpenean egon eta. Eta bere arropa gorriaren eta Espainian ezartzetik ontsa begiratua zen neurri

gabeko aberastasunen atherbean, Erroman lehenbiziko karguetan itxura egin zuen, eta han bere kontra phiztua zuen Europa guziaren haserreaz beteki trufatu, eta bere nagusiena ozarki gaitzetsi, errauts arruntenetik goititua zutelarik hari gaitzik ez egin ahal ukaiteko eta hartaz ezin mendekatzeko heinerano. Erakaspen hori, bizkitartean, zein azkarra bazen ere, ez eta Espainiako erregek Alberoniren eginara gaizkor eta eroez ukan zuen ezagutzea, haizatua ukan zuen ondoan, eta mihiak liberatuak izan zirenean, etzizakon aski izan jende bakar bati (gobernuaren) uzteaz higuntzeko. Auherkeria eta ohidura azkarrago izan ziren; Espainian ikusi zen ere zerbait, ezpada bortitzagoa, bederen irriengingarriagoa, Alberoniren bothere osoari jarraiki zizakon Holandes baten erreinuan, eta, bere aldian haizatua, joan baitzen neurriaren gainditzera Barbariako itsas-lapurren baitara, han, bertze gerizagunerik ez ukanez, bere egunean bururatzera; baina deusek etzaukon Filipe V-garrenari lehen minixtro baten ukaiteko atseden hutsezko eta galgarria utz-arazi, ezpaita heriotzerano gabe egon ahal izan, bere omenaren eta monarkiaren zorigaitz handian.

2. Dubois eta Erreienta

Frantzia etzen zoritsuago izan, ezin entzuna den gauza, gobernu hobereneko deusek huts egiten etzaukon printze baten azpian, mota orotako jakitate, gizonen ezagutze, jende berezi bat baizik izan etzen aroan ainitz ikusia eta egina; traba ohi gabekoenak, erresuma guzien gobernuaz gogoetatzea, eta oroz gainetik gureaz; ezer ahazten ez nahasten etzuen orhoitza; argiak mugagabe; gorputzeko ezten sendimendu amorraturik batere, eta bertzeak segeretuan zadukanean eta gobernuko gauzetan indarrik batere gabe; gauzen berexteko ikusmen hautukoa, mesfidanza ezin handiagoa, ustegabetzeko errextasuna lanean, hartze bizia, elhe jitezko eta noblea, mota orotan mintzatzeko zuzentatsun eta errextasun berdin gabe batekin; izpirituz mugarik gabe, eta bertze nunbait errana dut, gogo hain zuzen eta argia, nun ehoiz ezpaitzuen hutsik eginen egiteko eta gauza bakoitzean izpirituaren lehenbiziko argiari eta hartzeari jarraiki balizako. Ehork ehoiz eztu hark eta Dubois aphezak bezain luzaz ikusi eta ikasi ukana; ehork ere eztu hortakotz ontsa ezagutu; eta ene biziko ordu orotan eta (Dubois) lehen minixtro aithortu zuen hartan berean hortaz errana dautanaz orhoitzen nizanean, eta oraino geroztik, hartaz egin duena ezin entzuna zata, eta bere burua oso-osoa haren eskuetara utzi duela. Eztu balio hemen berriz has dezatan *Orhoitzapen* hautan ikusia dena Dubois aphezaren aphaltasun

mugabagekoaz, mutileriako hastapen higunez, izpirituaz, bizi-moldez, jiteaz, iztiletik athera zuten mail guziez, eta Orléans-ko dukearen Erreienziarano ereman zuen biziaz. Urrunago eremana da ere: erakutsi da Stanhope 'ta Angeleterraren bidez orotara heltzeko zuen xede barnatua; horren betetzen nola hasi zen, Angeleterrako erregek eta biek ukanen zuten elgarren beharraz Erreientaren hantzeko ukan zituen trebetasunaz eta itzul-inguruez; azkenean *Orhoitzapen* hauk Hanovre 'ta Londreserano ereman dute, eta hori da hastapenetik begiek galdu behar eztuten haria.

Horra beraz Orléans-ko dukea oso-osoa ezteusko gizon baten eskuetara utzia, beteki ezagutzen zuelarik burumun erre, hertsi, neurririk gabe oldardun bat bezala, gezur eta abantail-nahi orori utzia zen frikun bat bezala, bizi den gizonik hartan ehoiz fidatu etzelarik, lizunkeriez, ohorez, aipamenez alde orotarik galdua, haren erranek eta arek higungarririk baizik jeus etzutelarik, eta aho betez orotan eta nun nahi gezur urrina zariona, gizon bat azkenik ehoiz ezer sakraturik ukan etzuena; bat eta bertzea ezagutu dituenarendako, hortaz (Erreientaren) lilluratzea lehen lerroko mira da, orotarik ukan zituen abisuez handitua oraino.

(…)

Bere nagusiaren izpirituaz jabetua, (Dubois) hala izan zen (Erreientari) gogoko libertaterik ez uzterano eta, ene ustez ezin entzuna den larderia batez, bere abisuetara, sendimenduetara, eta, oro erraiteko, nahi zuenera eremaiterano, usu printze horren gogo on eta zentzu handi, zuzentasun eta xorroxtasunaren osoki kontrakoak. Horrela atzerrietako egitekoetako mekanika guziaren nagusi bakarra bilakatu zen, Huxelles-ko marexalak ezpaitzuen ordutik ukan horien azal hutsa baizik, atzerrietako egitekoen konseiluan oraino gutiago, eta Erreientaren zerbitzari konfienxiakoenek horietan sartze bekan batzu bakarrik zatika eta hitz xoil eta laburrez, arrazoinamendu oroz murriztuak, are gehiago aholku emaite arinenaz. Dubois-ek etzuen beraz gehiago trabarik ukan, eta jakin zuen bere libertateaz baliatzen osoan erabiltzeko, eta hertsatuko zuen tresna oroz arintzeko.

(…)

3. Gobernua Dubois-en ondotik: Duke Jauna eta Fleury kardinala (1723-1743)

Dubois-en heriotzeak etzaukon Angeleterrari baizik dolurik utzi. Jarriak ziren laguntzek iraun zuten Erreienta oraino bizi egon zen laur

ilabetez. Duke Jauna, haren lekuan bombardatua Fleury, Fréjus-ko apezpiku ohi eta Erregeren erakaslearen bitartez, uste ukan baitzuen printze mugatua baino gehiagoko hortaz lehen minixtro iduri bat eginen zuela, eta bera Estatuaren jabe bilakatuko zela; Duke Jauna, diot, Angeleterraren fortunaren egiteko espesuki egina zen gizon bat izan zen, itsuki Prie-ko markestsaren eskuetan baitzen. Hau, ederrarekin, ninfa baten itxura eta soinara, izpiritu ainitz, eta, zuen adineko eta lerroko, irakurketak eta ezagutzak, sendimendu bortitz gaizkorrenen soberakinaz mirestekoa zen: handi-nahi, zekeneria, herra, mendekio, gupidarik ez neurririk gabe menperatzalea, eta Duke Jauna nagusi izan zenetik, kontra-erran den ttipiena jasan nahi ukan gabe, horrek egin baitzuen haren erreinuaz erreinu odolez eta nahasmenez bete bat. Angelesak, gure barnea ontsa ezagutzen baitzuten, haren biltzera lehiatu ziren, eta Dubois kardinalak haien ganik ukana zuen sari beraren bidez, guzia laster burura eremana izan zen. Dubois galduz deus etzuten beraz galdu, Duke Jaunak (lehen) minixtro iraun zueno, hau, "Medea" berri horrek eremanik, oso-osoki joan baitzen, Angeleterrari zoakonean, Dubois-ren hatzetan. Korona horren zoriona halakoa izan zen nun gero berehala Duke Jaunak uste ukan baitzuen haren behar handitan zela. Errege eritu zen, eta nahiz gaitza etzen lanjer handikoa eta egun guti barne joan zen, Duke Jauna hanbat izitua izan zen nun gau batez jeiki baitzen buluz-gorririk, gambarako arropan, eta Erregeren azken aitzin-gambarara igan, Monseigneur-en behereko bizitegitik, Orléans-ko duke Jauna hartan hila baitzen, eta gero Duke Jaunak ukana baitzuen. Bakarrik zen, ezko-argi bat eskuan. Maréchal aurkitu zuen gaua aitzin-gambara hortan zeramana, eta egun guti berantago erran zautana, hau, agertze hortaz harritua, haren gana joanik galdegin baitzaukon zertara heldu zen. Gizon galdu bat aurkitu zuen, bere baitarik joana, Maréchal-ek eritasunaz erran zaukonaz segurtatua izan ahal etzena, eta azkenean, beldur osoan, hau erraitera utzi zuena: "Zer bilakatuko niz, bere gauko bonetari ziola erdi aphal erdi gora; hortik atheratzen bada eniz berriz hatzemana izanen; behar da ezkondu." Maréchal-ek, bazterrean harekin bakarrik baitzen, entzun ezpalu bezala egin zuen; bere baitara ekhartzera entseatu zen, eta berriz etzatera igorri zuen. Andere infanta igorria izan zen aroa zen. Duke Jauna desohoragarriki ari izana zen Orléans-ko duke Jaun zenaren semearekin, (Erreientak) estimuz eta garaziez mukurru betea zuelarik, eta jokoa eder eta merke ukana zuen printze horrekin. Haren menean izaiten ikustearen beldur zen heriotzearen bezenbat; eta horren

baztertzeko, Errege ezarri nahi ukan zuen laster haurren ukaiteko heinean. Horrela, Espainiari hoin laido bortitza eginez, egin-orduranoko enganamenduak eta egin zen moldeak oraino sendikorrago egin zutena, herra ezin ematu baten beha egon zen, eta gero eta gehiago Angeleterrari eman. (*)

(*) Espainiarekin Erreientak eta Dubois-ek egin zituzten antolamenduetan, Luis XV-garren gazteak Espainiako infanta batekin ezkondu behar zuen, hortako embaxadore berezi San-Simun izendatu baitzen, urrunago ikusten den bezala. (*Itzultzalearen oharra*).

Irauteko bortitzegia izan zen haren erreinua, bururatu zen, jakina den bezala, etzuelakotz Prie-ko Anderearenganik berexi nahi ukan, eta hark ere Fleury gobernatzera ez utzi, hau gobernu egiazkoaren ukaiteaz akitu baitzen, eta itxura eta ageriaren Duke Jaunari uzteaz. Printze hori (minixtro) izan zen Orléans-ko duke Jauna hil zen ordu berean, 1723-ko negilaren 23-an, eta 1726-ko Bazko astelehenean gelditu, Charost-ko dukeak, gorputzeko zaintzalen kapitainak ekharri zaukon manuaz, berehala Chantilly-ra erretira zadin, hara joan baitzen ordu berean gorputzeko zaintzalen ordezkari bat lagun.

Fleury-k, oraino kardinal etzenak, baina sei aste edo bi ilabete berantago hala izan, hartu zituen beraz egun berean gobernamenduko uhalak, eta eztitu biziarekin baizik utzi 1743-ko urtarril azkenean. Ehoiz Frantziako errege batek, ez eta Luis XIV-garrenak ere, eztu hain ara osoan, segurrean, kontra-egite orotik urrunagoan erreinatu, ez eta hain osoki eta despotikoki gobernuko, Estatuko eta gorteko zati guziak eskuan ukan, ezteuskeria handienetarano. Errege zenak usu eragozpenak senditu zituen minixtroen arteko gerlaren gatik, eta batzuetan armadako jeneralen eta gorteko handi hautuko batzuen ganik erasiak. Fleury-k hein berean atxiki zituen aholkatzerik gabe, erasia egiteko ahorik gabe, bere artean eztabadatzera ere menturatu gabe. Etzituen izendatzen bere manuen ukaiteko eta betetzeko baizik, den ihardespen arinenik gabe, eta biziki zuzen betetzeko eta hetaz hari kondu emaiteko zehe batez ere urrunago joan gabe, eta hetarik bat, ez eta Erregeri gehienik hurbiltzen zizazkon gorteko jaunetarik, anderetarik eta mutiletarik bat ere menturatu gabe printze horri jeusetaz hitz bakar baten erraitera, osoki orobatekoa zen ezteus bat ezpazen. Nola gobernatu zuen, hori *Orhoitzapen* hauk hartu behar duten aroa urrundik iragaiten duen gauza da.

(…)

Fleury etzen bakarrik atzerriko eskaintza eta lan-sari ukaiteko ahalik etzuena, baina ere aitzineratzera menturatzen zizakon edozein neurriren. Etzen beraz hori izan Angeleterraren aldera itzul-arazi, guti erraitea da, eman-arazi zuen bidea, eta oraino hura eta korona haren abantaila gogoan ukan gabe, eta hori da orai argitu behar dena. Ontsa egiteko erran behar da hemen hura eta ni elgarri orotaz mintza ginindaiten ohi ukan nuela beti. Beti biziki on iduritzen zizakon holako edo halako erresumarekin zertan zen galda nezon; beti zintzoki ihardesten zautan eta xeheki. Biziki ohian ere lehenik aipatzen zautan, hala nola ere nun haren baitara nindoala nihauri behatzen zautaten gauza batzuez mintzatzeko, eta moztua izaiteren beldurrez, astiak huts eginez, Erregeren baitara joaiteko ordua zuelakotz, edo bertze horrelako eginbehar zenbait, (gobernuko) egitekoez ahoa usu hesten naukon, hor neurendako nintzala erranez, astiak huts egin beldur nintzala, eta horrara nakharrena argitua ukanen naukolarik, gero loriatuko nintzala erran nahiko zautanaren jakiteaz; eta alabainan, bururatua nuenean, berriz hasten zizatan Estatuko egitekoez mintzatzen, batzuetan gortekoez, baina ehoiz ixtorioz baizik, haren eta ene aldetik arrazoinamenduz, aholku galdatzeari hurbil zaitekeen jeusik gabe. Hori hemen aski da; ondoan ikusten ahalko da konfienxia debaldeko hortan zerk ezarria ninduen. Gaineratuko dut bakarrik ehoiz ez edozein orduz etzizatala haren gabineta hetsia izan, eta arrazoin baitezpadako eta bekan bat ezpazen beti nik nuela uzten; behin ere eztautala enekin aski egona zela erakutsi, eta usu egon-arazten ninduela, zergatik nindoan galdatzen, mintzatzen atherano eni jarrikiz, et aski usu ere apur bat athearen aitzinean zutik, ideki baino lehen.

Minixtro horrek bertute bat itzuli zuen usu hartaz erasiatu dutan huts batera. Apezpikurano eremana zuen bizi behartuak, ezen biziki benefizio guti zuen bertzela, oroz gainetik gaztaroan ikastetxe 'ta semenarioetan eremana zuenak, bizi idor batera jarria zuen, oro gabe egoitera, eta xuhurtasun handi batera; baina ohidura hori etzen haren baitan behartasun luze batetik athera diren abantzu guzienean bezala, oroz gainetik sortze onik gabe direnenean, diru, ontasun, benefizio egarrira, irabazien metatzera, edo zikoizkeria zoldatsu eta zikinera itzulia. Aberasteaz gutienik axolatzen zen munduko gizona zen, eta, nahiko zuen guziaren ukaiteko nagusi izanik, gutienik hartu duena, minixtro izaite luze 'ta bothere osoko iraupen guzian agertua izan zakon bezala. Baina bere alderako abantail-nahi eta urrunegi eramana izan den

xoiltasun horrekin, mahian, etxean, muble 'ta karroserian, eta behartuekin, bere familiarekin, adixkide batzuekin ere bereaz eskuzabal, diruaz bere baitan axola ahamenik gabe, dirua bera sobera estimatu zuen, eta urritasun zuhur eta neurtu bat ez aski ukanez, harenaren atzinean izanak ziren minixterien nasaikeriaz sobera joa, Estatuko eta jende berezien alderako zekeneria batera erori zen, horren ondorioak biziki gaizkorrak izanak baitira. Zein ohargarria eta larria bada ere, ezta hemen gai hortaz artzeko lekua, bertze nunbait gertatuko dena menturaz. Aski da hemen ikastetxe 'ta semenerioetako itzul-inguruetan ezin hobea zela erraitea, eta, hitz aphal hau barka dadila, ezko porroxketan, hori egin-arazi baitu zin-zinez, Errege alta azkenean hortaz akitu baitzen, bere gabinetetan, eta mutil batek lepa-hezurra hautzi baitzuen bordalde handiko mailalde batean. Bertze huts bat ere sobera ohitua kargu handiak daduzkatenen baitan, eta Fleury kardinala ontsa urrun ereman duena, egintza gaizkorren ezagutzeak zuzendua ahal izan gabe, gizamenak, urratsak, laudorioak, atzerritar eta monarken gezurrezko aithormenak, egiazkoak eta haren estimuz eginak bezala hartzen zituela da, hartan konfienxiazkoak, egiazko adixkidantzazkoak, buruari eman gabe zuen karguari eta haren beharretan izaiteari, edo haren biltzeko edo enganatzeko - Europako guziko boteredunez izana den bezala - gutiziari zor zauzkola.

Angeleterra zergatik den Frantziaren etsaia

Mende andana batean ikusi denak behar dauko Frantziari Angeleterra zer den ikasi: gure portu eta herrialden gutiziaz etsaia, itsasoko imperioan etsaia, sal-erospenean etsaia, kolonietan etsaia, gobernamendu moldean etsaia; eta neurri oro mukurrura eremana erlisioneko etsaitasunaz, erresumaren nahigabean Stuart-tarrak berriz tronuan ezarri nahi ukan direlakotz egin diren entseguez, Europa gaineratekoarekin batean duenaz, eta bertze erresumekin gurearen kontra batu duenaz, hori baita Espainiaren Frantziako etxean ikusteaz bekaizgoa ezin handiagoa, eta bi erret-adarren batzeaz elgarren handitasuneko Europa osoak hartzen duen beldurra, izpirituko zuhurtziaz bidatuak izaiten balakite, hori izan baita Austriako etxearen bi adar koronadunetako konseiluen buruan izan dena Alemanian eta Espainian, eta handitasun eta botherez horrelako heinera ereman

dituena haien Estatuak berexten dituen eremu zabala hor izanik ere, ethengabe trabatu dituen behargabea, eta Frantziaren eta Espainiaren artean eztena lurrak eta itsasoak mugakide dituztelakotz.

Ikusi den gauza berak erakasten du ere Frantziak beti behar ukan duela ororen beldur izan Angeleterraren aldetik hau barnean bakean izan deno; Frantziak ere, hortan sartu gabe, abantail handienak ukan dituela Arrosa xuri eta Arrosa gorriaren arteko aharra luze 'ta bortitzetarik, eta geroztik, Henri VIII-garrenaren larderiak eta sendimendu bortitzek arteka eman dauzkoten inarrosaldietarik; azkenik Cromwell bothere handienera ekharri duten nahasmenetarik. Maria guti erreinatu da, eta berriz erlisione katolikoaren jartzeko eragozpenean bere anaia adingabekoaren erreinu laburretik landa. Elizabeth, erregina hain aipatu hura, berez Henri IV-garrenaren adixkidea zen, eta bertzela, etzen Eskoziaz, Irlandaz ere trabatua izan gabe, eta bere ematasunaz ere ezkontzera lehiatzen zuten menpekoekin, hauer eza ez nahiz eman, eta ez ere bere tronua nehorekin uzitu. Jakes Lehenaren ahuleziak, idazle eta jakitatez ezin hobea izaiteko zuen eritasunak, ihiziko tirriak, gobernuko egitekoetako zuen higunak etzuten utzi haren aroan Angeleterra beldurgarri izaitera. Haren semabitxia, berriz tronuan ezarririk iraultza hain bitxien ondotik, Errege zenaren adixkide berezia zen, eta huni gerla egiteko parlamentuak eskua bortxatu zaukon alta, eta barnean ainitz jazarraldi jasan behar ukan zuen. Jakes II-garrenaren erreinu laburrak, eztu aipatzea balio. Frantziak abreki senditu du Guillaume-ren erreinu guzia, eta Ana erreginaren azken urtek hartaz konsolatu baldin badute, ezta hori Dunkerque-en khario ordaindu gabe izan, eta gerizarik gabe ezarria izan den itsasalde hortako traba guziekin. Ikusten da aitzina Angelesen izpiritua zer izan zen hortaz bakearen ondotik, eta bakearen herraz (…)

Argi da beraz Frantziaren abantail ageria, zuhurki ahal duen bezenbat, bereaz horietara hanbat ekharria den nazione baten barneko nahasmenen sustatzea eta bizirik atxikitzea dela. Hori zen errege zenaren xedea, eta egitea heriotzeak debekatu zaukona. Guzia prest zen. Jarraikitzea aski zen, Dubois aphezaren abantailak trabatu zuenean Canillac-en eta Noailles-ko dukearen bidez. Aski da *Orhoitzapen* hautan, Torcy-ren bitartez, atzerrietako egitekoez erakarria den guziaren irakurtzea Angeleterra barnean ethengabe nahasia izan zela ikusteko, iraultza baten hastetik orotaz beldurtzekotan zela (…); eta Dubois aphezak bere hegaldatze handia hasia ukan zuenetik Angeleterrara iragan

zen lehenbiziko aldian berean, etzuela korona horrek ez bakarrik Frantziaren aldetik deusen beldur izaiterik ukan, baina (Frantziari) nahitara manatu zaukola Dubois aphezaren abantailaz, gero Prie-ko Anderearenaz, azkenik Fleury kardinalak untzieriarendako ukan zuen zikoizkeria hain gaizki gogatuaz, eta gaineratekoan Horace Walpole-ek hunen gainera lilluramen baten botatzeko ukan zuen antzeaz.

(…)

Ikusi den hortarik guzitik ondorioztatzen dena, Frantziako untzieria errotik suntsitua dela da, sal-erospena beraz ere, salgaitegi guziak agortuak, eraikuntzak ezinak; itsasora untzi igortzera eztaitekeela mentura nun eztiren, diren leku orotan, haizatuak, mundu bateko eta bertzeko itsasoen eremu zabal guzian; portuak eta itsas-bazterrak zuzen-zuzena trabatuak dituela, kolonia hoberenak ekhenduak, eta gelditzen zaukona azkarki mehatxatua eta Angelesen menean, zinez hortako nekea hartuko nahi ukanen duten orduko. Angeleterraren itsas-botherea kontra-phizurik batere gabe da, bere untziez itsaso guziak estaltzen baititu. Holanda, hortaz bere baitan auhenka, ezta erakustera ere menturatzen. Espainia ezta Angeleterrari haren untzieriaren hondatzeko eta sal-erospenaren eta Indietako hirien makurtzeko eman daukogun laguntza gaizkorretik luzaz atherako; eta Frantziak behar lituzke hogei-ta-hamar urte bake eta gobernamendu zuhurrenetik untzieriaren goititzeko Colbert eta Seignelay-k utzia duten heinera. Hori da, bertze gaitz ainitzen artean, Frantziak Errege zena hilez geroz gobernatu duten azken ministroer zor dauena. Angeleterra gure gaitasun gabeaz irabazi osoan da.

Erreientak Parisko parlamenduaren erabakiak hausten ditu

1. Segeretuko bilkura eta dukearen hitzaldia Erreientari

(Erreienta) abisatua nuen, ikusi den bezala, parlamenduaren, baxtarten, eta nobleziaren izena zuzengabe hartu zuenaren lehenbiziko urratsez. Berrhetua nuen, horien urratsari eta batasunari ohartua izan nintzaneko. Sendi-araziak nauzkon horien xede guziak eta hauen ondorioak, zein errex zen hastapenean horier erremedio emaitea, eta gero neke, bereziki haren omoreko eta jiteko gizon batendako. Baina enintzan hortako behar zuen gizona. Zerbitzari guzien artean zuen zaharrena nintzan ba, atxikiena, harekin libroena; emanak nauzkon

hortako lekukotasun azkarrenak, bere biziko eta guziez utzia izana zen aro lanjerosen guzietan; beti ontsa gertatua zen aro gaitz horietan emanak nauzkon aholkuez; nitan konfienxia osoaren ukaiteari jarria zen; baina zer aburu bazuen ere nitaz eta ene egiatasunaz eta zuzenaz, usu horietaz lekukotasun handiak eman baititu, ene bizitasuna zeritzonetik begiran zagon, eta baxtartek zuzengabe ukan zutenak, parlamenduaren egintzek eta noblezia berri horren asmamenek hanbat asaldatua zuten ene lerroarendako nuen amodiotik. Nitaz zituen aieruer ohartu nintzeen bezain laster, hori erran naukon, eta gaineratu, herrikoi eta haren zerbitzari bezala ene eginbidea eginik askietsia, gehiago enaukola aipatuko. Hitza atxiki nuen; bazen urte bat baino gehiago enaukola nihaurek hortaz ahoa idekia. Batzuetan ene aitzinean aipatzen baldin bazizakon, ni ixil osoan egon ahal izan gabe, hori gaitzikeria edo mutturkeriatzat hartua izan baitzaitekeen, hitz zenbait banerron axolagabean eta ahulki, ahal nuen bezain guti erran nahi zuena, eta solasaren eror-araztera zoana.

Dubois aphezaren itzultzeak Angeleterratik, ezpaitzen haren fortuna bere nagusiarenaren ttipitzeaz akomeatzen, Law-ek ukan zuen izialdurak parlamentuak eskua lepora eman zezon, eta utzia gerta zadin, zigilu-zainak bere karguaren galtzeaz ukan zuen beldurrak, egin zuten bilkura bat, Law-ek hartara Duke Jauna ekharr-arazi zuena, hain handizki (Law-en) sistiman ikusteko bazuena, huni gogoratu baitzizakon gertaldiaz baliatzea Maine-ko dukearen itzulipurdikatzeko, bere herraren asetzeko eta horren lekuaren hartzeko Erregeren ondoan. Abantail-nahi ezberdin horien batzeak, ondorio berera heltzen baitziren, olde bat eman zuen Erreienta ereman zuena, eta bapatean lanjerra eta zuen erremedio bakarra ikus-arazi zauzkonak, eta ephe bat etzuela galtzeko sinets-arazi. Dubois eta Law-ek gogoa hartu zaukoten haien abisu lanjerosak sobera baizik gustatuak etzizazkon eta berdin jarraikia etzizeenen kontra, eta guzia hain laster deliberatua izan zen, nun ezpaitzuen ehork airerurik batere ukan. Hori da orai agertu behar dena.

Ezagutzen enituen gertaldi horietan, ohi bezala Orléans-ko duke Jaunarekin lanean ari nintzan bazkal-ondo batez, ustegabetua izan nintzan, hartan ginena moztuz, parlamenduaren egintzez saminki mintzatu zizatalarik. Ihardestean egin naukon gai hortan ohi nuen hotz eta axolagebeko itxura, eta berehala ari nintzan hari jarraiki. Geldi-arazi ninduen, parlamenduaz ihardetsi nahi enaukola ontsa bazakusala erranez. Egia zela aithortu naukon, eta bazela aspaldi horri ohartua

zaitekeela. Hertsatua azkenean, eta ezin gehiago hertsatua, hotz-hotzik erran naukon orhoit zaitekeela Erreienzia baino lehen eta geroztik parlamenduaz errana eta aholkatu naukonaz; bertze aholku batzuek, ala enganatzale, ala bederen nor beraren balia-arazteko eta handi-arazteko emanek, hura bera eta parlamendua zalantzan ezarriz, bat bertzearen bidez, eneak gaindituak zituztela; gainera, bere bururari sinets-araztea utzia zaukola "bonetaren" egitekoak eta haren ondorioek etzautatela parlamenduaz ez eta baxtartez gogo hotzez arrazoinkatzeko libertatea uzten, hanbatenaz nun horrek ahoa hetsia zautala, errana naukon bezala, eta gai hortaz berriz idekitzeko neke ainitz ukaiterano; banakusala bizkitartean egina naukon profeziaren betetzea urrats handiz aitzinatzen; luzaz bekain izurdura bakar batez parlamentuaren gaztigatzeko eta hezteko nagusi izana zelarik, bere gozatasun guriak hanbaten egitera utzia zuela, eta gero eta aitzinago joaitera, nun mailka eremana baitzuen orai zen mehaka hartara, eta bere buruari Erreienziako larderia guziaren ekhentzera, eta behar bada ere erabilia zuen moldeaz kondu emaitera, edo ukaldi bortitz, eta aldi berean biziki neken bidez bere gain hartzera; zenbat gehiago luzatuko baitzuen, are gaitzago izanen zela; hari zela beraz bere baitan zertan zen miatzea, hortaz ontsa gogoetatzea, ez gauzaz beraz ez eta bere buruari hitzeman zezokeenaz lausengatzea, eta alde batera edo bertzera deliberatzea; eta berriz bere larderiaz jabetzeko nahiaren alderdia hartuko zuen bezenbatean, etzadila arinki hartzera eman, eta harturik, hasi eta ez bururatzea izanen zen arinkeria ezin gehiago lanjerosagora ez eror, eta hortik osoki gutietsia izaitekora, eta ondorioz lezera. Hoin hitzaldi azkarrak eta ene ahoan aspaldi danik hoin bekanak, eta hotz bermu eta ezti batekin erranak, eta hartu nahiko zuen alderdiari orobatekoa bezalakoak, sendi-arazi zaukon zenbat guti nuen onera egiteko gai zela uste, eta bururano horren eremaiteko, eta zenbat guti ere indar banagien hortara ekartzeko. Bere baitan sistatua izan zen, eta hori Dubois, Law eta Argenson-ek emana zaukoten sendimenduaren ondotik errana baitzizakon, mirazko ondorioa egin zuen.

(…)

2. Erreintaren deliberatzetik "Justiziako ohe"-ra

Emana dutan parlamenduaren erabakia etzen oraino argiratua. Aipatzen hasi zen, eta erregeren jendek egin behar zuten ikerraldiko batzordeaz jarraikia izan, eta hori izan zen gauzak lehia-arazi zituen ukaldia, eta Erreientaren deliberatzea burura ereman. Jakin zen parlamentuak, imperkadore jeneralaren mesfidanzaz, haren orde bertze

komisari batzu izendatuak zituela, inkesta egiteko manuarekin; hortara ari zirela biziki segeretuz; bazela jadanik ainitz lekuko horrela entzunak izanik; guzia jartzen ari zela biziki gordeka goiz batez Law-en bila joaitera uxer batzuen igortzeko heinean, gorputzaz jabetzeko erabakia eskuan, gerizapena ezabaturik, eta hirur oren barnetan haren hartzeko, palazioko herskunean.

Berri horiek jakinik, aitzinean erran erabakiaren argiratzeari hurbildik jarraiki zizazkonak, La Force-ko dukea eta Fagon Estatuko konseilaria, aldi bat baino gehiagotan aipatu dutana, joan ziren agorrilaren 19-ko ortzirale goizean Erreintaren baitara, eta hanbat hertsatu zuten nun manatu baitzeen bi-biak gerta zaiten, egun hartan berean, Law-ekin, ene etxean, egin behar zenaz gogoetatzeko. Ethorri ziren alabainan, eta lehenbiziko aldia izan zen Orléans-ko duke Jauna bere gaitzaren senditzen hasten ari zela eta zerbaiten egitea onhartzen zuela jakin-arazi zautana. Etxean ukan nuen lehenbiziko bilkura hortan, ikusi nuen Law-en bermetasun ordurano handia, jalgi zizazkon nigarretarano kordokatua. Gure arrazoinamenduek ezkinituzten hastapenean askietsi, solasa indarraren erabiltzeaz baitzen, eta ezpaikinauden Erreientarenari beha. Law-ek eskuratua zuen salbagaiak etzuen parlamendua ephe batez ere gelditua ukanen. Haren erabakiak hautsiz, etzen errexixtratze ukaiterik uste ukan behar; hauste horien erran-araztea parlamenduari gutietsiko zuen ahulezia bat zen, eta aitzinago joaitera sustatuko zuena. Eragozpena alde orotarik beraz. Law-ek, bizi baino gehiago hila, zer erran etzakien, gutiago oraino zer bilaka. Haren izanara hertsia iduritu zizakun segurtatzeko lehiatuena. Hartua izana balitz, harenaz egina izanen zen, lehenik aitzinatuak eta Erreientaren gostura eta ahuleziaren araura jarraikiak izanen ziren (parlamenduarekin) solastatzeko bidek lekua bertze batzuer utzia ukanen zuten baino lehen, segurki hobeki egitera deliberatu baino lehen eta palazioan athea hautsiz sartzera zaintzalen erreximenduarekin, bide lanjerosa horrelako gauza batean, eta beti azken heinerano gaizkorra, ongi helduz ere; laztagarria baldin, Law-en orde, ezpalitz haren gorputza baizik aurkitu. Law-i erran naukon beraz joan zadin ordu berean Erret-Palazioan Nancré-ren gambarara, biziki adixkide baitzuen eta ordu hartan Espainian izanki, eta bizia eman naukon La Force-ko dukeak eta Fagon-ek onhartu zuten aholku horrekin eta Law jarraiki zizakon ene gabinetetik atheratzean. Bazen ba segurrean ezartzeko bidea Bankoan egon-araziz; baina uste ukan nuen Erret-Palazioan egoiteak distira

gehiago ukanez Erreienta azkarkiago hunkiko zuela eta gehiago sustatuko, eta emanen zaukula bide segur eta beharrezkoa zen bat Law-ek harekin ordu oroz eta lehiatu gabe mintatzeko ukanen zuen errextasunaz.

Hori bururaturik, nik "justiziako ohea" aitzineratu nuen eta bertze hirurek onhartu zuten parlamentuaren erabakien haustea errexixtra-araz zezakeen bide bakarra bezala.

(…)

3. Erreinta eta dukea Maine-ko dukeari Erregeren erakaskuntzaren ekhentzeaz eztabadan

(…)

Aitzin-solas labur horren ondotik gaiari lotu ginen. Erran zautan parlamenduan ukaldi handi baten joitera deliberatua zela; justiziako ohea Teilerietan biziki onhartzen zuela, hor palazioan baino hautestera eremana ninduten arrazoinen gatik; Duke Jaunaz segur zela, ehun eta berregoi-ta-hamar mila liberako lan-sari berri batekin, Erreienziako konseiluaren buru bezala, eta bazuela ere goiz hortan berean Conti-ko Jaunaren hitza; Duke Jaunak nahi zuela Erregeren erakaskuntza Maine-ko dukeari ekhendua izan zizakon, haren beraren abantaileko ere zen gauza, Errege adinean eta jakitatean atzinatzen ari baitzen; baitezpadakoa zizakola etsai horren hortik ekhentzea; bazuela horrela justiziako ohearen atxikitzeko gutizia, ahal bazuen, ondoko asteartean berean, eta hor Maine-ko dukeari erakaskuntzaren ekhentzekoa.

Moztu nuen, eta garbiki erran etzela hori ene aburua. "He! zergatik ezta zure aburua, bere aldian ni moztuz. - Zeren eta, erran naukon, aldi berean sobera hastea baita. Zer da orai bertze oro baino lehen lehiatua duzun egitekoa, eta luzamenik batere behar eztuena? Parlamendukoa da: horra phundu nagusia; hori aski ukan dezazula. Hortan ukaldi azkar bat joz, eta gero edukitzen jakinez, ephe batez zure larderia guzia berriz eskuratzen duzu, eta gero Maine-ko dukeaz gogoetatzeko asti guzia ukanen. Etzazula parlamenduarekin batean nahas; etzazula gauza bera dela uste ukan: elgarrekilako desgaraziaz, abantailez elgarretaratzen dituzu. Parlamenduko martira izanen da eta hala aithortuko du; beraz jendearena, hedatzen jakina duten gogamenean. Ikusazu bada lehenik publikoak zer eginen duen eta zer gogatuko parlamenduaren kontra eginen duzuen harrabotsaz. Maine-ko Jauna eztuzu aurdiki nahi ukan, egin zinezakeen eta egin behar zinuenean, publikoa eta parlamendua horren beha zaudenean; utzia duzu

Maine-ko dukea baten eta bertzearen erabiltzera bere nahitara, eta nahi duzu hortik ordu eztelarik ekhendu. Bertzalde, uste duzua laido horrek etzituela urrunago eremanen? Eta gainera, Duke Jaunak nahi dua erakaskuntza, ala Maine-ko Jaunari ekhentzeaz askiesten dea? - Ezta hortaz axolatzen, ihardetsi zautan Erreientak. - Ongi bada, erran naukon; baina entsegu egizu beraz arrazoinera ekhartzeko sobera egitera eremaiten zituen ordu huntaz. Goga dezazula oraino, jauna, gaineratu nuen, Maine dukearen aphaltzeari kontra egiten daukotanean, nihauren abantail kharioenari daukotala egiten; erakaskuntzatik (duken) lerrora ezta urrats bat baizik: badakizu hortan ene nahikarien suhartasuna, eta bertzalde osoki hastiatzen dutala Maine-ko Jauna, ereman baikitu bortxaz, barneko iluntasun ontsa gogatu batez, "bonetaren" egitekora, eta xede aitzinetik gogatuaz, horri jarraiki zakon guzia gosta baitauku; baina Estatuaren ona eta zurea ene lerroa eta mendekioa baino kharioago zazta, eta othoizten zitut hortaz gogamen guziak egin ditzazun."

Erreienta nihauren aldeko indarraz ene arrazoinez bezenbat ustegabetua izan zen behar bada. Besarkatu ninduan, guzian laburzki amor eman zautan, eta erran mintzo nindakola ez duke 'ta pare, baina adixkide bezala. Aldiaz baliatu nintzan gauza hortan zituen aieruez erasia arin zenbaiten egiteko. Hitz-hartu ginen beraz Maine-ko dukearen uzteko bertze aldi errexago batera.

(…)

4. Parlamenduaren erabakiak Erreienziako konseiluan hautsiak; La Force 'ta Gixun-go dukeak konseiluan

Erreienta, bere ohiko errextasun eta herabearekin, parlamenduko gauzetan Erreienziako konseiluaz mesfidan zen; etzaitekeen alta hura gabe egon kompainia horrekilako guduan, abantzu bertze egiteko guzietan egona zen bezala, han behar baitziren erabakiak molde zuzenean hautsi. La Force-ko Jaunak, bere burua baitezpadakoa bilakatu nahiz, gotortuak zauzkon herabetasun horren arrazoinak gauza hortan, eta ondorioz biziki errex ekhendua zaukon Erreienziako konseilura deitua izanen zelako agintza parlamendtuko gauzez ari izanen zen orduko, eta gero utzia konseiluan behin sartuz geroz beti han gelldituko zelako ustea. Hori zen La Force-ko dukearen suhartasunaren arrazoina parlamenduaren kontra, eta, beraz eta erran ditutan ezteus horiez, Erreientaren baitan phizteko entsegu egina zuenarena.

Printze horrek, usu urriegia, batzuetan ere ez aski, nahi ukan zuen oraino hartan giren igande berean, ezpaititut gertaldi hortako ixtorio larriak hautsi nahi ukan, nahi ukan zuen, diot, parlamentuaren erabakien haustea aipa zadin Erreienziako konseiluan. Goizean aipatu zautan Condé-ko hotelera egina nuen ikustaldiaz kondu emana ukan naukon ondoan. Erakutsi naukon hoin goizik erabakien haustearen iragartzeko behargabea, justiziako ohea ondoko ortziralera utzia izana zenaz geroz. Buruan hartua zuen, ahal zuen bezain ihardespen gutiren ez onhartzeko ere heinean, hortan zigiluzainaren aburuan bermatuz. Hori izan zen ere, justiziako oheraren gibelatzeari loturik, gehienik azpi joko zenbaiten beldurra eman-arazi zautana, ezen enuen ikusten lehia hori zertako zen ona, ezpazen hartua zen deliberoaren argiratzeko, eginen zen orduaren ikustera uzteko, beraz horri huts-egin-arazteko, hortara lan egiteko laur egun bazirelarik aitzinean.

Etzen alta baztertu ahal izan. La Force-ko Jaunak, etzagolarik Erreientaren soin-gainetan enetan baino gutiago, hori jakin zuen haren ganik, eta othoiztu ninduen hara manatua izan zadin behar zena egin nezan. Axola gutiena emaiten zautan gauza zen hori, baina bera axolatu zen, eta Erreientari ekhendu zaukon Erreienziako konseilura jiteko manua, dirutzetako paperreria zenbaitekin gauzaren gordetzeko, nahiz hara erakartzera jitetik baztertua izana zen zigiluzaina (konseiluan) sartu zen ordutik. Guziek, ethortzen ikusi zenean, bilzarrea hasi baino lehen, elgarri behatu zuten; eta Villeroy-ko marexala, arauer behatzale handia, etzen haren jakingabeko erakartze hortaz, dirutzetako konseiluko buruzagi bezala, askietsia izan. Erakarpen estakuruzko hori hitz gutiz igorria izan eta, La Force-ko dukea han berean gelditu zen, eta Erreientak aitzineratu zuen parlamentuaren erabakiez eztabadatzea, eta hautsi behar zirela erranez bururatu. Zigiluzainak irakurri zituen eta arinki aztertu, eta hautsi behar zirela bururatu. Hortaz etzen aho bat baizik izan. Horrela La Force-ko Jaunak eginak zituen hitzaldiak sakelan gelditu zizazkon. Gero Orléans-ko duke Jaunak erran zuen behar zela hauste hortako erabakia idatzi, baina, egiteko hori ez oraino behar zen heinean izanez, uste zuela aski larria zela hausteko erabaki horren ikusteko bertze konseilu batean argiratu baino lehen, eta hortako bildu beharko zela bizpahirur egunetan, zigiluzainak moldatua ukanen zuelarik. Arratsean berean jakina izan zen parlamenduaren erabakiak hautsiak izanen zirela. Jendea hanbat zagon horren beha, nun

ustegabetua izan baitzen etzirelakotz oraino eginak, eta Jainkoak nahi ukan zuen etzela barnago zilatu.

Gero La Force-ko Jaunarendako konseiluan gelditzea nola egin izan zen, eta biharamun astelehenean han izaitea. Orléans-ko duke Jauna etzen hortaz batere axolatzen, eta parlamenduaren erabakien haustea hain arinki iragana zen nun ezpaitzen batere hortaz La Force-ko Jaunaren sariztatze beharrik. Hunek ontsa senditu zuen eta laguntzaz oihu egitera jin zizatan nardagarritasun bitxi batekin. Banuen bertzerik asko buruan. Enuen axolarik batere La Force-ko Jaunaren sarr-arazteko Erreienzian. Ongi sendi nuen, sartzen baldin bazen, huts egin gabe ene gain ezarriko zela. Zerbitzu hori irrigarri baino gaitzago bilakatzeko heinean jarria zen. Hala zen gainera konseiluaren handitzea, jadanik arrazoingabeki betea. Orléans-ko duke Jaunak ontsa ikusten zuen; enuen alta La Force-ko dukea enganatu nahi.

Handiago batzuekin ezin jasanezko eragozpen hortan, Erret-Palaziora joan nintzan bezperako lan ohia bururatua enuelako estakuru. Hasi nintzan Erreientari erranez etzuela parlamenduaren erabakien haustearen egin-arazteko lan handirik ukan, eta La Force-ko Jaunaren hornimenduak zorionez debaldekoak gertatuak zirela. Erreientak hitz hori senditu zuen eta erran zautan, hortako ekharr-arazia zuela ager etzadin, dirutzetako ezteus bat erakarr-arazia zaukola. "Bai, erran nuen, baina hain ezteusa nun ezpaitu nehork entzun erakartzera zergatik jina zen. Baina egun, zer badagizu? - Erreienzian sartzera ontsa gutiziatua da, ihardetsi zautan erdi-irriz eta ene baimenaren bila bezala. - Badakit ba, egin nuen, baina ainitz gira. - Bai, zinez, erran zautan, eta ainitz sobera." Ez onera ez gaizkira egiteko, ixildu nintzan, erhia behar zenaren gainean ezarririk askietsia, eta La Force-ko dukeari erran ahal ukaiteko. Ephe bat berantago Orléans-ko duke Jaunak gaineratu zuen gogoetaz bezala: "Baina ezta bat gehiago baizik. - Bai, erran nuen, baina Gixungo dukea, gerlako buruzagi ordea, bertzea diruetakoa den bezala, eta gainera zaintzalen koronela, nola utz gibelean?- Alafe, arrazoin duzu, erran zuen Erreientak; hots, eztut La Force-ko Jauna ezarriko."

Hortako errana naukon, eta gero konzienziako urrikiak hartu ninduen nitan fidatua zen gizon bat horrela bazterturik. Neure baitan ephe batez eztabadatu ondoan, erran naukon Erreintari, ene ixilaren ondorio bezala: "Baina hitzeman baldin badaukozu. - Bada holako zerbait, ihardetsi zautan. - Ikusazu beraz, egin nuen berriz; ezen ene aldetik, aski baitzata zure aitzinera emaitea eta orhoit-araztea horrelako

aldi batez ahaztea, gizon bati laido egitea lizateela. - Atsegin emaiten dautazu, erran zautan, laidoa lizate." Eta ixil apur baten ondotik. "Baina ororen buruan, jarraiki zuen, han egiten denaren gatik, eta den zenbatean, bi gehiago ala gutiagok, eztute gauza handirik egiten. - Ha bada! nahi duzua, erran naukon? - Alafe, nahikaria badut, erran zautan. - Hori bada, gogo onez egiteko etzaitela bederen bietan has. Gixungo dukea barne hortan da: nahi duzua dei egin dezotan! - Bada nahi dut," erran zuen berehala.

Athea ideki nuen, eta Gixungo dukea aski gora deitu, Le Blanc Jaunarekin jarria baitzen aski urrun. Heldu zen artean, Orléans-ko duke Jauna aski hurbil jin zizatan, eta gero Gixungo dukeari. Athea hetsi nuen eta hetarik urrats zenbaitetan egon. Gauza etzen ohargarri, eta lekuko bakarra ukan ninduen ikusgarri bilakatu zen alta.

Orléans-ko duke Jaunak, entzun bainuen, Gixungo dukea othoiztu zuen Erreienziako izan nahi ukan zezan, horrek etzuenez trabatuko galdegin, etzela astean bietan baizik han izan behar, eta oraino etzela, harendako, nahi ukanen zuenean baizik izanen; etzuela horrek bere Puteaux-ko etxera joaitetik hertsatuko; zintzoki ikus zezan ontsa zizakonez, etzaukola galdatzen gauzak trabatuko eta gerlako konseilutik baztertuko etzuen neurrian baizik. Othoizte hoin bitxiki eman horietan guzietan, Gixungo dukea galdua, ez garaziaz beraz, baina araz, murdukatzez eta lurreranoko murgiltzez gainditua ari zen. Ehoiz enuen ikusi ez hoinbertze komplimendu alde batetik ez hoinbertze gur bertzetik. Azkenean Orléans-ko duke Jauna ere gurtu zen, eta biak, erraiteaz ezinduak, ari ziren elgarri komplimenduka antzokian agerraldi baten egiteko jestuekin; azkenean, neure baitan irri egiteaz akiturik, eta gehiago ezin egonean, berexi nituen Gixungo dukeari komplimendu eginez.

Atheratzean, eskua tinkatu zautan, eta berehala erraiteko, athera arteo igurikatu ninduen, eta etzen hori labur izan. Erran zautan ongi bazakusala Erreienziako konseiluan sartzea nori zuen zor. Adixkide 'ta etxekoer erran zeen, eta egia da, ni gabe, Orléans-ko duke Jauna etzela hori gogoan; baina Gixungo dukeak hoin ontsa egin etzuena, onharturik abantzu desenkusatu zela da. Egia da etzuela batere hori gogoan, eta garazia bat bezala galdegina izan zizakola, baina etzen ere jendeari jakin-arazi behar.

Gehitze berri hori guti gustatu zen. La Force-ko dukeak bere burua gutiets-arazia zuen; Gixungo dukea etzen konseiluko argiak biziki

handituko zituen batentzat hartua. Konseiluko zirenak abantzu batallun bat bilakaturik gaitzituak ziren, eta etzirenak, izan etzaitekeen gertaldiaren bila zauden, eta oraino irriegingarriago iduritzen zizeen arrazoin gabeko handitze hori. Biak jasan behar ukan nituen.

(…)

5. Justiziako ohearen aitzin-atolamenduak

5 a. San-Simungo dukearen etxean

Egunaren gaineratekoa ene etxean iragan zen Dubois aphezarekin, Fagonekin eta La Force-ko dukearekin, bat bertzearen ondotik, gure egiteko guziaren berriz lantzen. Guzia aitzinetik ikusia zen, eta behargabe bakoitzako erremedioak oso-osoan hautatuak: parlamenduak Teilerietara jitea ezpazuen onhartzen, bahitzea prestatua, hari zoazkon egitekoak eta haren meneko ziren bertzeak konseilu nagusiari emanez, errekeitetako nagusiak horren erraitera joaiteko eta behar zen leku orotan zigilu ezartzeko hautatuak; gorputzeko zaintzaleak hautatuak ere, eta zaitzaletako erreximenduko soldako multzoak haien laguntzeko; parlamenduaren zati bat jiten baliz eta bertze batek eza emaiten balu, gaztigu bera ezaren emailendako; parlamenduak (Teilerietara) jinik ezpazuen entzun nahi eta jalgi nahi bazuen, gaztigu bera; zati bat egoiten baliz, eta bertze bat joaiten, berdin joaiten zirenendako, gambara osoak baldin baziren, bertzela bakarrik athera zirenen bahitzea; abururik eman nahi ezpazuten, aitzina joan, eta berdin zenbat parlamenduko jende guti egona bazen ere; guziak jalgiak baldin baziren, berdin egin justiziako ohea, eta zortzi egun berantago bertze bat konseilu handian egina izanen zenaren errexixtratzeko; baxtartetarik edo bertze jaun zenbait jazartzen baliz, hetaz jabe bilzarrean berean, harrabotsa handia baldin bazen, ezpazen hala bilzarretik jalgitzean; Paristik jalgitzen baziren berdin har. Hori guzia ontsa antolaturik nori eta zer igorri behar zen ere, Dubois aphezak egin zuen keinu zerrenda ttipi bat, hala nola zangoen guruzatzea, oihal baten inharrostea, eta bertze jestu xoil batzu, lehenbiziko goizean egin behar zituzten gorputzeko zaitzalen aitzindarier emaiteko, hauek, justiziako oheko salan banakatuak, behar baitzuten etengabe Erreientari behatu huni keinu xipienean obeditzeko, eta zer egin behar zuten jakiteko. Gehiago egin zuen, Orléans-ko duke Jaunaren arintzeko, eraiki baitzaukon, hala erraiteko, ordutegi bat, erran nahi da manuak emaiteko ukanen zezteenak manatu behar zituen orenak, behar zen ordu berezia baino lehenago eman etzizan, eta urrunago ez joaiteko zer erran beharko zen,

baten ere ez ahazteko eta manu bakoitzaren emaiteko bere orduan eta neurkadan, hori baliatu baitzen segeretuaren atxikitzeko azken ordurano.

5 b. Erret-Palazioan

Arratseko zortziak hirian, Millain ethorri zizatan Erret-Palazioan hitz-hartua ginueneko. Erran zautan Duke Jauna izana zela zigiluzainaren eta La Vrillière-en etxean; haien hitza hartua zuela gure egitekoaz, eta han ikusiak bi erabakiak igorriak zezteen bezala izenpetuak eta zigilatuak. Millain eskertu zuen, eta ene igurikatzera athe ttipira igorri ene jenden gatik; eta, ephe bat berantago, jarraiki nindakon ezko-argirik gabe. Ibagnet (*) gure beha zagon, eta sarr-arazi ginituen itsuka norbait aurki beldurrez. Izitua izan nintzan ikusiz Orléans-ko duke Jauna ohean, sukarra bazuela erran baitzautan. Aithor dut enuela jakin hea etzenez biharamunekoa. Pholsua hartu naukon aski bapatean, eta alabainan bazuen. Erran naukon etzela soineko eta gogoko akidurarena baizik, hogei-ta-laur orenen buruan arindurik utziko zuena; hark, bere aldetik, hitzeman zuen, zena zen, justiziako ohea eginen zuela. Duke Jauna, sartu berria, ohe zangoan zagon, eta ezko-argi bakar bat gambaren ezpaiginen han gu laurak baizik. Jarri ginen, Duke Jauna eta ni, eta emanak eta emaiteko ziren manuak berriz ikusi ginituen, ez ene aldetik khexu handirik gabe hain bitxiki eta ordu gaizki jina zen sukar hortaz munduko gizon osasunekoenaren baitan, eta behin ere ukana etzuenean.

(*) "Ibagnet" edo "d'Ibagnet" zen Erret-Palazioko athezainaren izena. (*Itzultzalearen oharra*).

Hor deliberatu zen justiziako ohea hasia izanen zela goizeko sei orenetan parlamentuan eta, bederatzi eta hamarrak artean, Teilerietan; Erreienziako konseilua, bi egun lehenago arratsaldeko iragarria, goizeko zazpietako manatua zortzietan atxikia izaiteko, eta konseiluetako buruzagiak abisatuak egiteko lehiatu guziak hara ekharr zitzaten, nahi izanen zen bezenbat luzatua izan zadin; Haren Erret-Goitasunak aburuak hartu zituela, ohi ez bezala, buru banaka, odoleko printzekin bat zela erakusteko, eta behar etzen bezala mintzatu nahi zuenaren lotsatzeko. Aitzineratu nuen, konseiluak egitekorik aski ezpazuen justiziako ohea prest izan baino lehen, Haren Erret-Goitasunak mana zezan bakoitza bere lekuan egon zadin, eta oroz gainetik edonori debeka athera zadin edozein estakuru izanik ere.

Gero, Duke Jaunak irakurri nahi ukan zuen (Erregeren) ikaskuntzaren galdegiteko prestatua zuena. Bere eskuz egin berria zuen nunbait han geroztik agertua den bezala. Haren Erret-Goitasunak

zerbait aldatu zaukon, eta nik ere, eta gero gogoratu zizatan behar zela Villeroy-ko marexalaren urgulua lausengatu, eta hortaz dena izkiria-arazi naukon Duke Jaunari mahi ttipi eskasez bila joan nintzan zakurtegi baten gainean.

Ondotik, baxtartez gai handia. Deliberoa: hek han izanez, etzela haier zoakonaz ezer erranen konseiluan; justiziako ohetik baztertzeko, etzeela jakin-arazia izanen, odoleko printzen eta haien artean gertatua zen erabakiaz geroz, parlamentura gehiago joan nahi etzutelako estakuru. Orléans-ko duke Jaunak, beti esperanzara ixuria, uste ukan nahi zuen arrazoin horrek trabatuko zituela; eta, gainera, ustegabean hartuak izanez (…)

Gero, berriz aipatu nuen baxtarten jauts-arazteko gaia bere paregoen heinera. Erreientak eta Duke Jaunak erran zautaten garbiki manatua zela eta deliberoak izenpetuak eta zigilatuak ikusiak nituen bezala; hortan, esker onak eta laudorioak. Aitzineratu nuen baimena ukan nezan, bilzarre aitzinean, hortaz parer bi hitzen erraiteko, orduna nehori ezpaitzezaketen jakin-araz. Egin nezan on zela deliberatu zen haien onera itzultzeko (…)

6. Erret-Palaziotik jalgitzean

Erreientak erran zaukun larriki bere gauko ordutegia goizeko zortzi orenetarano, orduan Erregeren baitara joanen baitzen soineko handian. Bitartean ahal zuen bezenbat atseden hartzera sustatu nuen, eta bere Erreienziaren salbatzeko behar zenaren egitera biharamuneko egintzetan, eta hortarako izan zadin deliberatu, bermu, gogoa argi, gauza ttipiener behatuz, oroz gainetik bere buruaz osoki jabe izanez. Horrekin "gau on" erran naukon, eta ohe zangora gibeleratuz, Duke Jauna eskertu nuen eginak zituen ikustaldiendako, bihotzetik joan zitzaztan hitzekin, harenetaz jarrikiak izan zirenak eta bi besarkaldi tinkienez. Millain zutik egona zen, eta biziki zuhurki mintzatua bilkura hortako zati batean. Athera baino lehen ohera hurbildu nintzan eta Orléans-ko duke Jaunari galdegin naukon mixterio guziaren Chaulnes-ko dukeari erraiteko baimena, haien kapitaina izanez zaldizko ariner emanen zen manuaz azaletik Haren Erret-Goitasunaren ganik jakinen zuenaz geroz, eta onhartu zuen. Pholsua hartu naukon, ez khexurik gabe. Oraino segurtatu nuen jeus etzela izanen, baina nihaur segurregi izan gabe. Azkenean agurtu nuen eta jalgi nintzan hamarrak hirian, Millain-ekin, sartuak ginen lekutik, eta Duke Jauna ohiko athetik. Neure burua Millain-ekin bakarrik

ikusi nuenean iragaiten ari ginen gabinetean, besarkatu nuen atsegin ezin handiagoarekin. Bihotz ixurtze horiek Duke Jaunarekin eta harekin hasperenez eginak izan ziren entzunak ez izaiteko, batzu Erreientaren ganik haren ohe zangoan baiginen, bertzeak D'Ibagnet-en ganik, gure aiduru baitzagon ondoko gabinetetan argi emaiteko eta idekitzeko mailaldera, haztamuka jautsi baiginuen igana ginuen bezala; eta besarkada batekin beherean, ezpainuen horren atsegina utzi nahi ukan, berexi ginen bakoitza bere etxera itzultzeko.

Geldi-arazi nuen etxeari hurbil, Luynes-ko hotelaren aitzinean, eta hara igorri Chaulnes-ko dukearen othoizteko mintzatzera jin zakiditan karrosara. Ethorri zen xapelik gabe, igan, eta berehala karrosazaina, manua baitzuen, abiatu zen eta etxera ereman ginituen, ene gabineterano nik Chaulnes-ko dukeari hitzik erran gabe, bere burua horrela eremana ikusiz azkarki ustegabetua. Ontsa gehiago hala izan zen, athea hetsi eta, biharamuneko antolatua zen ikusgarri handia ikasi naukonean. Osoki eman ginen, hura eta ni, berregintza hoin ustegabeko, hoin bapateko, hoin hurbil, hoin segeretuko baten xoramenduari, horren esperanzak, nola ere eginen baitzen, baiginituen bakarrik atxikiak Errege zenaren mailu lazkarriaren azpian gineno. Gure lerroaren gainean baxtart zigante horiek, Frantziako Titano horiek, bat bertzearen gainean, mailka eta mailka, metatu mendi horien ezeztatzeak eta urtzeak; horien izanara hurbilak, eta horrek emanen zuen ustegabeak, baina haien eta paren artean hain ezberdinak; gure berpizteak, gure berrizaiteak iragan ezteustuen ondotik, ehun gauza aldi berean ikusiek, bihotzak zabaldu zauzkun ezin erraiteko heinean, eta "bonetaz" Maine-ko dukearen ilunkeria barnatu eta hanbat gogatuen sari zuzenak eta bere etxean egiteko horrek huts egin zaukunean egina naukon, eta hemen bere lekuan ikusi den mehatxuaren zati baten betetzeak. Duke Jauna etzen ahatzia izan, ez eta Millain ere, buruz-buruko solas hortan. Elgarretarik berexi ginen azkenean gertakari handi horren aiduru.

(…)

Justiziako ohe aitzineko konseilua

1. San-Simungo hoteletik Teilerietara

Goizeko bortzak hirian atabalak entzuten hasi ziren Parisen gaindi, eta laster gero soldadoak ibiltzen ikusi. Seietan Des Granges

parlamentura joan zen eskutitz zigilatuaren emaitera. "Jaunak", hek bezala erraiteko, etziren orduan bilduak baizik. Buruzagi lehena deitu zuten, hunek gambarak bil-arazi baitzituen. Horrek guziak oren erdi bat iraun zuen. Gero obedituko zutela ihardetsi zuten, eta eztabadatu Teilerietara nola joanen ziren, karrosan ala oinez. Azkenak irabazi zuen, molde ohituena bezala, eta jendearen hunkitzeko ustean eta Teilerietara jendetze oihukari batekin ethortzekoan. Gaineratekoa hobeki emana izanen da beherago bere lekuan.

Aldi berean zaldizko batzu joan ziren pare eta koronako aitzindari guzien etxera, eta ordenako zaldunenera, probinzietako gobernari edo ordezkari jeneralenera hauekin Errege lagundu nahi izan baitzen, justiziako ohearen jakin-arazteko, Des Granges-ek berak, bapateko eragozpen hortan, ezpaitzuen hortara joaiteko astirik ukana. Tolosako kondea Saint-Denis-ko ondora joana zen auhaltzera, Nevers-ko Jaunaren etxera, eta etzen gauan aski berant baizik itzuli. Zaintzale frantzes eta suizak harmetan jarri ziren auzoalde batzuetan, zaldi-arinen goaita eta musketarien bi kompainiak prest-presta bere hoteletan; zelataririk eztuten jandarmarik etzen, eta zaintzale frantzes eta suizetako erreximenduetako zelatari ohikoak bakarrik Teilerietan.

Lo guti egina baldin banuen zortzi egun hetan, gutiago egin nuen oraino azken gau huntan, gertakari hain larrier hain hurbil. Seiak baino lehen jeiki nintzan, eta guti berantago ukan nuen ene abisuzko paperra justiziako oheko, gainean ezarria baitzen enezaten iratzar, Des Granges-en ikustatea, geroztik erran zautanaz, paper horrek ezer etzezatakeela ikas segur baitzen. Bertze (pare) guziak iratzar zaiten ezarria zen, haien ustegabea asma daitekeen bezalakoa izan baitzen. Zazpiak hirian, Orléans-ko duke Jaunaren athezain batek jakin-arazi zautan zortziak hirian eginen zen Erreienziako konseilua, eta hara ethor nindadin soineko handian. Beltzez jantzi nintzan, ezpainuen soineko handiz jantzi mota hori baizik, eta bertze bat urre oihalezko handizki egina, hartu nahi ukan enuena, erasatzeari aldirik ez uzteko, nahiz biziki ordu gaizki, parlamentua eta Maine-ko dukea laidoztatzen nituelakoan. Bi aitorenseme hartu nituen karrosan enekin, eta eginen zen guziaren lekuko izaitera joan nintzan. Aldi berean betea nintzan beldurrez, esperanzaz, bozkarioz, gogamenez, Orléans-ko duke Jaunaren ahulezian mesfidatzez, eta ukan zezakeen ondorio guziaz. Gerta zaitekeen guzian ahal bezain ontsa zerbitzu egitera bermuki deliberatua nintzan ere, baina ezertaz jakinduru nintzala agertu gabe, eta lehiarik gabe, eta banindagon

gogoa erne egoiteari, oharrean, begirantzan, lañotasunean eta itxura handizki neurriko batean.

Etxetik jalgitzean Valincourt-en athera joan nintzan, Tolosako hotelaren gibeleko athearen bertze aldean egoiten baitzen. Azkarki ohoreko gizona zen, izpiritu ainitzekoa, kompainia hoberenean bizi, untzieriako segeretari jenerala, bere lehen gaztarotik Tolosako kondearena zena, eta beti geroztik haren konfienxia handienean. Enaukon utzi nahi ukan Tolosako kondeari bereaz beldur izaiterik batere ez eta ere bere burua eremaitera utz zezan (Maine duke) anaiari. Igorri nuen beraz Valincourt-en othoiztera, biziki ontsa ezagutzen bainuen, mintzatzera jin zakiditan. Izitua ethorri zen, erdi jantzia, karriketan zerasatenaz, eta berehala galdegin zautan hori guzia zer zen. Burutik hartu nuen, eta erran: "Ongi entzun nezazu, eta hitz bat ez gal. Zoaz urrats beretik Tolosako konde Jaunari erraitera ene izenean hitz emaiten daukotanean segurta dadila, dagola zuhurki, bertze norbaiti doakonaz gaitzi dezaketen gauzak gertatuko direla, baina ontsa sinets dezala eztuela berak ile bat galduko; hortaz den khexu laburrenik ukan dezan eztut nahi, zoaz, eta etzazula ephe bat ere gal." Valincourt-ek ahal ukan zuen bezenbat tinkatu ninduen. "Ha! Jauna, erran zautan, aitzinetik ikusia ginuen bada azkenean ekaitz bat gertatuko zela. Ontsa merezitua da, baina ez konde Jaunak, betiereko zordun izan behar baitzaizu." Ordu berean abisatzera joan zizakon, eta, Tolosako kondeak, gero jakin baitzuen anaiaren erortetik salbatua nuela, eztu behin ere ahatzi.

2. Teilerietan, konseilu aitzinean

Zortziak hirian heldu nintzan Teilerietako gorte handira, bidean ohi gabeko deusi ohartu gabe. Noailles-ko dukearen, Villars-ko eta Huxelles-ko marexalen eta bertze batzuen karrosak han ziren jadanik. Igan nintzan jende ainitz aurkitu gabe, eta ikusi nituen zaitzalen salara sartzeko eta jalgitzeko atheak ideki zizaztala, hetsiak baitziren. Justiziako ohea Erregek han jatea ohi zuen aitzin-gambara handian antolatua zen. Han apur bat gelditu nintzan, guzia ordenuan zenez ontsa ikusteko, eta Fontanieu hortaz beharrira goretsi nuen. Berdin erran zautan etzela Teilerietara goizeko seietan baizik ethorria, bere langile 'ta langaiekin; guzia hain zorionki eta errex eraikia eta iragana izana zela nun Erregek ezer ezpaitzuen entzun; gambarako lehen mutila behar ordu zenbaitendako Erregeren gambaratik atheraia zela, goizeko zazpi orenetara, eta tresneria horren guziaren ikusteaz ontsa ustegabeturik izana; Villeroy-ko marexalak etzuela haren ganik baizik ikasia, eta hain

harrabots guti egina zela eraikitzean, nun ehor ezpaitzen ohartu. Guzia begiaz ongi ikerturik, antolatzen bururatzen ari zen tronura hurbildu nintzan; bigarren aitzin-gambarara sartu nahi bainuen, mutil urdin batzu jin zizaztan etzela iragaiten erraitera, eta hetsia zela. Galdatu nuen nun egoiten zen konseiluaren igurikan, eta nun ziren karrosak gortean ikusiak nezteenak. Batzuek eskaini zautaten hek han zauden gainaldera eremaitea. Coste-ren semeak ereman ninduen maialde ttipi batetik, haren gainean mota orotako jendez eta kanzeleriako aitzindariz ainitz jende baitzen. Atxikitzen zen athe batera ereman ninduen, agertu nintzaneko ideki zizatana. Han aurkitu nituen zigiluzaina eta La Vrillière bere "eresieria" (*) guziekin. Oraino elgarrekin bakarrik aurkitzea ontsa gozagarri izan zizaukun, egin behar zirenen berriz gogoratzeko. Etzen alta nahi ukana nuena. Enuen karrosarik ikusia korralean jende aierugarri batzuenenik baizik. Horrelakotzat enaduzkalako estakuru, eta ezjakin osoan nintzalako, sobera erakutsi gabe alta, ziren lekura joan nahi nuen, haien bilkuraren trabatzeko, eta haien urratsetarik ahal zen guziaren ikasteko. Ustegabez zigiluzainaren gambarara eroririk, uste ukan nuen sobera eginen nuela bertze norapait joaitea galdeginez; utzi nuen beraz ene lehenbiziko nahikaria.

(*) "Eresieria" hitzak itzultzen du "bucoliques", erdara zaharreko "paper eta horrelako bertze ezteuskeria" erran-nahian. (*Itzultzalearen oharra*)

Zigiluzaina xutik zagon, ogi azal bat ezkuan, ohiko konseilu bat baizik ezpalitz bezain bere baitan, haren ganik iragan behar zuen guziaz eta gai hoin ezberdin, hoin larri eta behargabeak hoin errex ukan zezazketenez eragozpenik batere gabe. Griñatua iduritu zizatan bakarrik Erreientaren bermetasunaz, eta betea, arrazoinekin, guritzeko ordu etzelako gogoaz et oraino gutiago lerro batez gibelerat egitekoaz. Galdegin nauen hea neurri guziak hartuak zirenez ordu oroz parlamentuan gertatuko zenaz abisatuak izaiteko. Hitzeman zautaten eta alabainan biziki ontsa zerbitzatuak izan ziren.

(…)

Gero erakuts-arazi nauzkon (zigiluzainari) zigiluak hutsik balusazko zakuan eta zer gerta ere behar ziren paperrak izenpetuak eta zigilatuak, behar orduko prest-presta. Baziren balusazko bi zaku lodi, bete-beteak, begitik utzi etzituenak eta beti haren ikusmenean ereman zirenak eta haren oinetan ezarri, hanbat konseiluan nola justiziako ohean, zigiluak hetan baitziren. Nehork ere etzuen hori jakin, ezpazen Erreientak, Duke Jaunak, zigiluzainak, La Vrillière-ek eta nik. Ezko

berotzekoa eta tresneria gambara berezi batean zituen, eta hurbil-hurbila, urarekin eta sua phizturik, prest-presta nehor horri ohartua izan gabe. Horrela gure ikerraldiaren bururatzen ari ginelarik, beti gerta zaitekeenaz solasean, jin zizakon Orléans-ko duke Jauna heldu zela erraitera, eta, justiziako oherako arroparen hartzen ari zelarik konseiluaren ondotik aldatu behar ez ukaiteko, jautsi nintzan haren ondotik nindoala iduri ez ukaiteko. Nahi ukan nuen ere La Vrillière han geldi zadin, konseiluko salan ez elgarrekin sartzeko.

Bero handien ondotik, (konseilua) sala lerroaren azkena den barne xipi hortan atxikia zen, Errege, bere gambara xipian ez gozoki izanez, etzatera konseiluko salara jina baitzen; baina egun handi huntan, Errege ohetik jalgia izan zeneko, janztera ereman zen bere gambara xipira eta hortik bere gabinetetara. Oheko gordagailuak ezarri ziren eta Villeroy-ko marexalarenak, hunen ohe-zangoan ezartzen zela konseiluko mahia, eta hor egin zen. Aitzineko barnean sartzean, jende ainitz aurkitu nuen hoin ustegabeko gauzaren lehen harrabotsak horrara ekharria zukeena, eta horietan konseiluko zenbait. Orléans-ko duke Jauna jende andana hortan zen barnearen behereko buruan, eta, geroztik jakin nuena, Erregeren baitatik atheratzen zen, han ikusirik Maine-ko dukea soineko handian, atherano jarraikia zizakona, bazoalarik, batek bertzeari hitz bat errana ukan gabe.

3. Konseiluan sartzea

Jendealde erdi horri begi ukaldi bat eman ondoan, sartu nintzan gabineteko konseiluan. Han aurkitu nituen banazkatuak osatzen zuten gehienak neurea handitu zuten seriosaren eta gogo indartu baten itxuran. Abantzu nehor etzen nehori mintzo, eta bakoitza, zut ala jarririk, han edo hemen, aski bere lekuan zagon. Hobeki ikertzeko enintzan ehoren gana joan. Ephe bat berantago Orléans-ko duke Jauna sartu zen, itxura alai, libro, batere hunkia iduri etzuen batekin, kompainiari erdi-irri batekin so egin baitzaukon: hori iragarpen onekoa iduritu zizatan. Ephe bat berantago bere berriak galdegin nauzkon. Aski ontsa zela ihardetsi zautan gora-gora; gero, beharrira hurbilduz, gaineratu, manu emaiteko usu ukanak zituen atzarraldiez harat, biziki ontsa lo egina zuela eta ez guritzera deliberatua heldu zela. Hori ezin gehiago gustatu zizatan, iduritu baitzizatan, zuen egonaran, egia zerradatala eta hortara sustatu nuen bi hitzez.

Gero ethorri zen Duke Jauna, ezpaitzuen enegana hurbiltzen berandu eta galdegiten hea Erreientaz ongi iragartzen nuenez eta

bermerik egonen zenez. Bazuen hunek halako bozkario gora baten itxura jakinduru zenari sendi-arazten zizakona. Conti-ko printzeak, gogoa hits, ez behakor, bere suhiaz bekaizti, goganbehartua baizik etzuen iduri, baina deus bereziz. Noailles-ko dukea begiez guziaren iresten ari zen, eta haserrez phindarretan zituen, bere burua zolan ikusiz hoin egun handian, edozein gauzarik ezpaitzakien. Horrela eskatua naukon bereziki Duke Jaunari, aurkitu nuen baino lotura handiagoan zirela ustez. Hartaz aski mesfidan zen, estimurik gabe, are gutiago adixkidetasunik, haren ganik berriki Maine-ko Jaunarekin beldur izaiteko zuenaz bertzalde.

Hau bere aldian agertu zen soineko handitan, eta Erregeren aldeko athe ttipitik sartu. Ehoiz etzuen egin hainbertze gur eta hain barna, nahiz etzen hortan urri, eta bakarrik gelditu zen bere makilaren punttan, konseiluko mahiaren ondoan, ohearen aldera, jende guziari beha. Hor naukon, hari bekoz-beko, mahia bien artean, bizian egina naukon gur alaiena igorri, atsegin sendikorrenarekin. Berdina itzuli zautan eta bakoitzari behatzen jarraiki zuen gelditzera egiten zuten begi batzuekin, aurpegia khexu, abantzu beti bere buruari mintzo.

Abantzu nehork etzuen bere buruari galdatzen hori guzia zer ote zen; orok bazakiten parlamentuaren erabakien hausteko deliberoa hartua zela hortako han izanik. Konseilu hau ohiz kampokoa zen, jakin-arazia eta gero gibelatua, hausteko konseiluak erabakia zuenaren ikusteko. Guziendako argi izan zen beraz hori zela ikusiko berehala errexixtratua izaiteko, ez behar bada ustegabean justiziako ohe bat egin gabe, bereziki Erreientaren ondoan hautetsiak direla uste duten zenbaitendako. Duke Jauna jin zizatan berriz ere aski jarraikian Maine-ko dukea hor soineko handian ikusteaz zuen bihotzminaren entzun-araztera eta Orléans-ko duke Jauna azkar nezan sustatzera, gero jin zizatan zigiluzaina gauza berarendako. Ephe bat berantago Orléans-ko Jauna jin zizatan hortaz mintzatzera, soineko hortaz aski eragozpenean, baina beti ahultasunik erakutsi gabe. Ihardetsi naukon horren beha egon behar zuela errana naukola beti; guritzea galtzea lizatekeela; "Rubicon" delakoa iragana zela. Ahal ukan nuen azkarrena eta bilduena gaineratu nuen haren sustatzeko eta ere harekin luzazegi solasean ez agertzeko. Harenganik berexia izan nintzan orduko, Duke Jauna khexu eta ezin egonean jin zizatan Erreienta nolako gogo moldetan zen galdegitera. "On" ihardetsi naukon silaba bakarrez, eta harekin mintzatzera igorri nuen.

Eztakit harat-hunat horiek, bakoitza begien emaiten hasia baitzizeen, Maine-ko dukea lotsatu zutenez; baina Duke Jauna, nitarik urrunduz, Erreientaren ganatua izan zen orduko, Maine-ko dukea joan zen Villeroy-ko marexalari eta D'Effiat-i mintzatzera, bat bertzerean ondoan jarriak baitziren mahi beherean Erregeren athe aldera, bizkarraz murruari. Etziren Maine-ko dukearendako jeiki, eta hau zutik egon zizeen aitzinean eta hurbil-hurbila, han hiruek bazatxizkatela solas batzu aski luzeak, eragozpen eta ustegabean eztabadatzen ari diren batzu bezala, jarriak ziren eta aski ongi ikusten nituen bien aurpegietarik iduritzen zizatan bezala, begietarik ez galtzera entsegatzen nintzala. Bitarte hortan guzian Orléans-ko duke Jauna eta Duke Jauna elgarrekin mintzo ziren leiho aldean, sartzeko athe ohikoaren ondoan, zigiluzaina aski hurbil zuten, eta hetara joan zen. Duke Jauna, ordu hortan, apur bat itzuli zen, horrek eman baitzautan hari bertze solasaldiaz kheinu baten egiteko aldia, berehala ohartu baitzizakon. Bakarrik nintzan konseilu mahi aldera, orori biziki behakor, eta bertzeak, banatuak, oraino gehiago hala izaiten hasi ziren. Apur bat berantago Maine-ko dukea jin zen abiatua zen lekuan jartzera, bertze biak ziren lekuan gelditurik. Maine-ko dukea orduan berriz eni bekoz beko gertatu zen, mahia bien artean. Ohartu nintzan galdua iduri zuela, eta bere buruakin aitzinean baino gehiago mintzo zela.

Tolosako kondea ethorri zen soineko handitan, Erreientak haiekin zen biak utzi berriak zituenean; kompainia agurtu zuen itxura larri eta bere baitan sartu batekin, nehoren gana joan gabe eta nehor haren gana. Orléans-ko duke Jauna hari bekoz beko gertatu zen ete enegana itzuli, nahiz urrats zenbaitetan, hura eni erakutsiz bezala eta bera penatua zela. Burua apur bat beheititu nuen eta gelditz so egin naukon, erraiteko bezala: "Zer, bada?" Orléans-ko duke Jauna Tolosako kondearen aitzinera joan zen, eta gora-gora erran zaukon, hurbil zagon guziaren aitzinean, soineko handitan ikusiz ustegabetua zela; etzaukola justiziako ohea jakin-arazi nahi ukana, baitzakien, emana zuten azken erabakiaz geroztik, parlamentura joaitea etzuela maite. Tolosako kondeak ihardetsi zuen egia zela; baina, Estatuaren onaz ari zenean, bertze gogoeta oro baztertzen zuela. Orléans-ko duke Jauna berehala itzuli zen ezer erantzun gabe, enegana jin, eta erran aphal-aphala urrunago eremaiten ninduen aldi berean: "Horra bihotza erdiratzen dautan gizon bat. Badakizua zer erran dautan?" eta eni errepikatzen. Goretsi nuen baten eginara, bertzearen sendimendua; ihardetsi Tolosako

kondearen berriz (bere lerroan) ezartzea deliberatua izanez, eta bilzarre berean, etzaukola haren izanarak bihotz-minik eman behar, eta hasi nindakon eztiki konsolatzen. Moztu ninduen hari mintzatzeko zuen gutiziaren erraiteko. Erakutsi naukon etzela hori batere gauza errexa, eta hortara jin baino lehen, behar zela bederen ezin bertzearen beha egon. (…)

4. Baxtartak konseilutik jalgitzen dira

Maine-ko dukeak utzi zituen bere bi gizonak eta anaiari kheinu bat egin haren gana ethor zadin han jarria zen Villeroy-ko marexalaren ohe zangora. Khexu batean aski guti mintzatu zizakon, bertzeak berdin ihardetsi zuen, etzela harekin sobera bat iduriz bezala. Maine-ko dukeak berrhetu zuen; gero Tolosako kondea joan zen bi ohen zangoen eta mahiaren artetik khebidera, Orléans-ko dukea han baitzagon Duke Jaunarekin, eta urrats zenbaitetan gelditu, mintzatzeko igurikan dagon gizon bat bezala. Orléans-ko duke Jaunak, ohartu baitzen, Duke Jauna utzi zuen ephe bat berantago, eta Tolosako kondearen gana joan. Sudurraz osoki murru aldera itzuli ziren, eta horrek aski iraun zuen zertaz ari ziren bertzek asmatu ahal ukan gabe, ezpaitzizeen bizkarra baizik ikusten, eta ezpaitzen ez sendimendurik ez eta abantzu jesturik ere ageri.

Maine-ko dukea bakarrik gelditua zen anaiari mintzatua zizakon lekuan. Begitarte erdi hil bat erakusten zuen, egitera igorria zuen elgarrizketari so zagon ebaska bezala, eta gero begi galdu batzu bazerabiltzan kompainiaren gainetik ogendun baten nahasmenarekin eta kondenatu baten khexuarekin. Orduan Huxelles-ko marexalak deitu ninduen. Maine-ko duekari bekoz beko zen, mahia bien artean, bizkarra itzulia zaukon, beraz Maine-ko dukeari. Marexala hor zagon multzoan Tallard-ko eta Estrées-ko marexalekin et Troyes-ko apezpiku ohiarekin, Noailles-ko dukea hurbildu baitzizeen enekin batean.

Huxelles-ek galdegin zautan zer ziren bada harat-hunat horiek guziak, eta ihardespenetako berari galde bera egin bainaukon, galdegin zautan printze horiendako edo behar bada Maine-ko Jaunaren haurrendako neke zenbait bazenez justiziako ohe hortan. Ihardetsi naukon Maine-ko eta Tolosako Jaunendako ezin izan zaitekeela, odoleko printzen eta haien artean gertatua zen erabakiak zituzten ohore guzien gozamena uzten zeenaz geroz; baina, Maine-ko dukearen haurrez zenaz, ezkinuela jasanen.

Multzoan horrela gelditu ginen apur bat, ni Maine-ko Jaunari behatzen ari, eta batzuetan itzultzen Erreientaren eta Tolosako kondearen elagarrizketari so, baitzirauen. Berexi ziren azkenean, eta bi anaien ontsa ikusteko astia ukan nuen, Tolosako kondea gure aldera jin baitzen, mahia artean, ohe zangoak luzatuz, anaiaren gana, hau beti bakarrik gelditua bere makilaren gainean, Villeroy-ko marexalaren ohe zangoan, handik higitua etzen leku berean. Tolosako kondeak azkarki penatua iduri zuen, haserre ere. Maine-ko dukea, beraren gana heldu zizakola ikusiz, kolorez aldatu zen.

(…)

Maine dukea, herioa bezain hits, aldixartzeko heinean iduritu zizatan: doi-doia higitu zen mahiaren behereko burura joaiteko, aski hurbil baitzen, Tolosako kondea Erreientari hitz labur-labur baten erraitera jin zen bitartean, eta gabineteko sahetsean harat abiatu. Horiek oro begien hesteko artean egin ziren. Erreientak, Erregeren jargiaren ondoan baitzen, gora erran zuen: "Goazen jaunak, har ditzagun gure lekuak." Bakoitza bereari hurbildu zen, eta enearen gibelera beha nindagolarik, ikusi nituen bi anaiak sartzeko athe ohikoaren ondoan, abiatzera zoazin jende batzu bezala. Jauzi egin nuen, horrela erraiteko, Erregeren eta Orléans-ko duke Jaunaren jargien artera Conti-ko printzearen ganik ez entzuna izaiteko, eta Erreientari beharrira erran naukon sendimendurekin, bere lekuan baitzen: "Jauna, horra atheratzen ari direla. - Badakit, ihardetsi zautan gostuan. - Bai, ihardetsi naukon, baina badakizua jalgiak izanen direlarik zer eginen duten? - Jeus ez, erran zautan; Tolosako kondea jina zata anaiarekin jalgitzeko baimenaren eskatzera; zuhurki egonen direla segurtatu nau. - Eta egoiten ezpadira? egin nuen. - Baina egonen dira, eta ezpadira, ongi jarraikiak izan diten manu onak badira. - Baina erokeria zenbait baldin badagite, edo Paristik jalgitzen badira. - Hartuak izanen dira, badira manu onak, hitzemaiten dautzut." Hortan, gozoagoturik, lekuan jarri nintzan.

(…)

Harat-hunat horiek guziek bakoitzaren nahasmena eta jakin-nahia handitua zuten. Guzien begiak Erreientaren gana itzulirik, sartzeko athe ohikoari bizkarra itzul-arazia zuten, eta gehienak etziren ohartu baxtartak etzirela han. Tolosako kondearen alkian jarri nintzan. Gixungo dukeak, ene bertze sahetsean baitzen, gu bien artean alki bat utzi zuen, beti baxtarten aiduru. Erran zautan haren ondora hurbil nadin, eta alkiz huts egiten nuela. Hitzik enuen erantzuten, kompainiari beha egiazko

ikusgarria baitzen. Bigarren edo heren galdean, ihardetsi naukon alderantziz ene gana hurbil zadin. "Eta Tolosako konde Jauna, egin zuen. - Hurbil zaite," egin nuen berriz, eta ikusiz ustegabez balditua zagola, soinekotik hartu eta hurbil-arazi nuen. "Zaugi eta jar zaite." Hain azkarki thiratu nuen, nun ene ondoan jarri baitzen ezer entzun gabe. "Baina zer da hau, erran zautan jarria izan zeneko, nun dira bada jaun horiek? - Batere eztakit, egin nuen ezin egonean, baina eztira hemen." Aldi berean Noailles-ko dukea, Gixungoaren ondoan baitzen, eta, eguneko hoin antolamendu handian jeusetan barne ez izaiteaz errabian, so egitearen eta ikertzearen bortxaz aitzinetik ohartua zen iduriz segeretuan nintzala, eta bere jakin-nahiak garhaiturik, mahiaren gainera luzatu zen Gixungo dukearen aitzinetik, eta erran zautan: "Jainkoaren izenean, duke Jauna, egidazu bada hau guzia zer den erraiteko garazia." Enintzan harekin neurririk batere hartzekotan, usu ikusi den bezala, baina ba biziki gaizki egiteko heinean. Haren gana itzuli nintzan itxura hotz eta gutiesteko batekin, eta, entzuna eta behatua ukanik, burua itzuli nuen. Hori izan zen ene ihardespen guzia. Gixungo dukeak hertsatu ninduen zerbait erran nezon, guzia banakiela erraiterano. Eza eman naukon beti, eta bitartean bakoitza lekuratzen ari zen, ezpaitzen so egiteaz eta hori guzia zer zatekeen asmatzeaz bertzerik gogoan, eta luzaz egon baitziren baxtartik gabe jarri behar zela ohartzen, nahiz batek etzuen ahorik idekitzen.

Konseiluan gertatu zenean sartu baino lehen, eman behar da egun hartako bilkura, eta han egin zen barnea nola antolatua zen, erran berria denaren hobeki entzun-arazteko, eta eginen denari argi gehiagoren emaiteko:

(Erreienziako konseilua justiziako ohe egunean)

khebidea

Erregeren jargia

leihoa Haren Erret-Goitasuna

Duke Jauna

Erregeren ohea

Conti-ko printze J.
San-Simungo duke J.
Gixungo duke J.

Zigiluzain J.
La Force-ko duke J.
Villeroy-ko marexal duke J.

Noailles-ko duke J. Villars-ko marexal duke J.
Antin-go duke J. Tallard-ko marexal duke J.
Huxelles-ko marexal J. Estrées-ko marexal J.
Troyes-ko apezpiku J. ! Besons-ko marexal J.
La Vrillière-ko markes J. Le Pelletier-Sousy J. Erregeren
Effiat-ko markes J. Torcy-ko markes J. gobernaria-
ren ohea

konseiluko mahia

leihoa

Erregeren
athe xipia

sartzeko athe ohikoa

5. Justiziako ohea bildu aitzin Erreienziako konseilua
5 a. Parlamenduaren erabakien haustea
(…)

Ohartu behar da konseiluko mahia ez aski luze izanez bi lerroetarik bakoitza errexki egon zadin, D'Effiat eta Torcy buruan zirela, D'Effiat abantzu mahi-buru erditan, La Vrillière-ri leku gehiagoren uzteko gozokiago izkiria zezan. Orléans-ko duke Jauna, bertze buruan, apur bat itzuli zen Erregeren jargiaren aldera, bi aldetara hobeki ikusteko, behin ere egiten etzuena. Baina, egun hartan bere alderdia ikusi nahi zuenaz bertzalde, etzen horrela agertzeaz samurtu, eta ikustera usteaz. Zigiluzainak oinetan zuen, lurrean, zigilu hutsak hartan ziren balusa beltzezko zakua, behar orduko paperreriekin, zigilatuak eta izenpetuak, eta bertze zakua mahian bere aitzinean konseiluan irakurri behar zuen guzia hartan ezarria baitzuen, gauza bakoitza irakurria izan behar zen ordenuan, eta errexixtratu behar zena, oro justiziako ohean ere irakurriak izan ziren gauzak eta paperrak. Bitartean Errege bere gabinetetan zen eta etzen batere agertu konseilu hori egin zen lekuan ez eta ere horri zatxikazkon barnetan.

Guzia osoki bere lekuan jarria izan zenean, eta Orléans-ko duke Jaunak ephe batez han zen guziari behatua ukan zaukonean begiak oro hari loturik baitzauden, erran zuen Erreienziako konseilu hori bildua zuela azkenik deliberatua zuenaren irakurtzeko eta entzuteko; uste ukana

zuela biderik etzela irakurtzen entzunen zen konseiluaren erabakiaren errexixtra-arazteko justiziako ohe bat eginez baizik, eta beroek ezpaitzuten uzten palazioko jendetzearen artean Erregeren osagarriaren irriskutan emaitera, uste ukana zuela Errege zenaren behazunari behar zuela jarraiki, batzuetan bere parlamendua Teilerietara jin-arazia baitzuen; justiziako ohe bat egin behar zenaz geroz, gogatua zuela aldi hortaz baliatu behar zela zigiluzainari kargu emaiteko eskutitzen hor errexixtra-arazteko, eta bilzarre hori hortarik hasi, eta zigiluzainari irakur zitzan manatu zaukon.

Irakurtze hortan, ezpaitzuen zigiluzainaren aithortzera parlamenduaren bortxatzeko aldiaren hartzeaz bertze baliorik, kompainia horrek hastiatzen zituelakotz zigiluzainaren persona eta egin behar zuena, begitarter beha egon nintzan. Orléans-ko dukearen baitan ikusi nuen larderiazko eta oharrezko itxura bat, hain berri izan zizatana nun estonatua utzi baininduen. Duke Jaunak, bozik eta distiran, etzuen ezeren dudan iduri. Conti-ko printzeak, ustegabetua, gogoa nunbait, bildua, iduriz etzuen jeus ikusten eta jeusetan etzen sartzen. Zigiluzainak, larri eta gogoetan, buruan sobera gauza bazuela iduri zuen; bazuen ere ainitz egiteko eta hori lehenbiziko aldian. Hala ere, lekua bere zakuarekin hartu zuen gizon ontsa argi, ontsa deliberatu, ontsa bermu batek bezala. La Force-ko dukea, begiak azpiz, aurpegien ikertzen ari zen. Villeroy-ko eta Villars-ko marexalak elgarri mintzo ziren arteka; biek begia haserre zuten eta aurpegia joa. Nehork etzuen bere burua Tallard-ko marexalak baino hobeki moldatu; baina etzuen kampora distiratu zuen barneko mahasmendu bat itho ahal ukan. Estrées-ko marexalak iduritu zuen balditua eta etzuela aintzira bat baizik ikusten. Besons-ko marexalak, ohian baino gehiago bere perruka gotorraz inguratua, osoki bere baitara bildua iduri zuen, eta begia aphal eta haserre. Pelletier, biziki arin, laño, jakin-nahian, orori beha zagon. Torcy-k, ohiki baino hiruretan dorpeagoan, bazidurien ebaska guziari beha zagola. Effiat, bizi, xixtatua, sumindua, jauztera prest, bekaina orori ixurtuz, begia nahasia, alde orotara bazerabilala lehiaka eta oldez. Ene aldean zirenak, enezazkeen ontsa iker: enituen aldika baizik ikusten batzu eta bertzen egonaraz aldatzetik, eta ikusi-nahiak eninduen mahiaren gainera aitzin-arazten eta haien aldera itzul-arazten lerroaren ikusteko, biziki bekan eta laburzki baizik. Jadanik aipatuak ditut Gixungo dukearen ustegabea, Noailles-ko dukearen hisia eta jakin-nahia. D'Antin beti bere soin-aran hain libroa, guzia herabetua eta ohildua iduritu zizatan. Huxelles-ko marexala itxura

onaren egitera entsegatzen zen, eta ezin estal zezakeen erdiratzen zuen etsipena. Troyes zaharrak, osoki balditua, etzuen ustegabea, eragozpena, eta garbiki zertan zen ezin jakina baizik erakusten.

(…)

Lehenbiziko nahasmen hortan, uste dut jende gutik zuela zigiluzainak bazegien eskutitzen irakurtzeari beharria eman. Bururatua izan zenean, Orléans-ko duke Jaunak erran zuen bozak behar zirela banaka hartu etzuela uste, ez (eskutitzen) gaiaz ez errexixtratzeaz, eta uste zuela guzien aburua justiziako ohea hortik hasi behar zela izanen zela.

Gelditze labur baten ondotik, baina ohartzekoa, Erreientak hitz gutiz eman zituen azken Erreienziako konseiluan han irakurriak izanak ziren parlamenduaren erabakien haustera delibera-arazia zuten arrazoinak, eta horren egitea Erreienziako konseiluko erabaki batez. Gaineratu zuen parlamenduak orai zuen eginara ikusiz, erabaki horren parlamendura igortzea berriz ere Erregeren larderiaren irriskutan ezartzea izanen lizatekeela, errexixtratzea segurki ez onhartuz jendeari desobeditze garbi bat erakutsiko baitzaukon; eta hortara heltzeko justiziako ohe baten bidea baizik ez izanez, gogoan hartua zuela biziki segeretuzkoa egin-arazi behar zuela alderdikari eta gogo gaixtokoer bere desobeditzeari jarraikitzeko aldiaren ez uzteko, hortara prest jartzeko astia ekhenduz; uste ukana zuela, Jaun zigiluzainarekin, parlamenduaren erasien usuak eta arak merexi zutela kompainia hori berriz eginbidearen mugetan ezarria izan zadin, baitzen zenbait dembora begietarik galduak zituela; Jaun zigiluzainak irakurriko zauzkola konseiluari (parlamenduaren) erabakien hausteko deliberoa eta geroan jarraiki beharko zizeen erregelak bazaduzkan erabaki bat. Gero, zigiluzainari behatuz: "Jauna, erran zaukon, jaun haueri nik baino hobeki argituko dauezu: hortako behar dena egizu beraz erabakia irakurri baino lehen."

(…)

Irakurtzea bururaturik, Erreientak, ohi ez bezala, bere aburua erakutsi zuen erabaki horri eman zauzkon laudorioez; gero, nehork oraino ikusiak etzauzkon Erreient baten airea eta doinua hartuz, kompainiaren ustegabea burura ereman zuena, gaineratu zuen: "Egungo aldi huntan, jaunak, bozen hartzeko erregela ohikotik baztertuko niz, eta uste dut konseilu huntan guzian horrela badagitan on izanen dela." Eta, behako arin bat eman ondoan mahiaren bi aldetara, bitartean xinaurri baten urratsa entzunen baitzen, Duke Jaunaren aldera itzuli zen eta

aburua galdegin zaukon. Duke Jaunak erabakiaren aldera eman zuen, arrazoin labur, baina azkar andana bat aitzinatuz. Conti-ko printzea ere molde berean mintzatu zen. Gero ni, zigiluzainak berea emana baitzuen irakurri eta berehala. Aburu bereko izan nintzan, baina orotakoago, nahiz berdin azkarki, eta ez ausartzeko Haren Erret-Goitasunaren alde izaitera odoleko printzen moldean. La Force-ko dukea gehiago hedatu zen. Oro mintzatu ziren, baina gehienak biziki guti; eta zenbaitek, hala nola Villeroy-ko, Villars-ko, Estrées-ko, Besons-ko marexalak, Troyes-ko Jauna eta D'Effiat-ek, agertzera utzi zuten deliberatua zenera ihardokitzera ez menturatzeko bihotzmina, argi baitzen deusetan mozteaz behar zela etsitu. Aurpegia aurdikia agertu zizeen, eta nahi zuenak ikusi zuen parlamentuari zoakona etzela ez nahi zutena ez eta gerta zaitekeela uste ukana zutena. Tallard hetan bakarra izan zen hortan jeus erakustera eman etzuena; baina Huxelles-ko marexalaren hasperenezko silaba bakunak maskatik gelditzen zizakona eror-arazi zaukon. Noailles-ko dukeak hanbat nekez zuen bere burua atxiki, nun nahi zuen baino gehiago mintzatu baitzen, eta ezin erranezko herstura batekin. Orléans-ko duke Jaunak aburua eman zuen azkenik, baina biziki ohi gabeko indar batekin; gero gelditze bat egin zuen berriz.

Ordu hortan Villeroy-ko marexalak, bere gogoetaz betea, egin zuen hortzen artetik: "Baina jinen direa?" Eztiki ihardetsia izan zizakon. Orléans-ko duke Jaunak erran zuen Des Granges-ri hitzemana zaukotela, eta etzuela dudatzen gaineratu, eta berehala abisa-araziko beharko zela bidean zirela jakinen zenean. Zigiluzainak erran zuen egina izanen zela. Orléans-ko duke Jaunak egin zuen beharko zela bederen athean erran-arazi; eta berehala horra Troyes-ko Jauna zutik. Beldurrak hain bapatean hartu ninduen etzadin joan athean erastera, nun hara hark baino lehen laster egin bainuen. Itzultzen ari nintzanean, D'Antin-ek, bihurtua baitzen iragaitean ene aiduru izaiteko, othoiztu ninduen hau guzia zer zen garaziaz erran nezon. Lerratu nintzan, ezer enakiela erranez: "Ongi, egin zuen berriz, bertze norbaiti!" Lekuraturik, Orléans-ko duke Jaunak erran zuen oraino nik dakita zer; eta Troyes-ko Jauna berriz ere airean, ni ere aitzineko aldian bezala. Iragaitean erran naukon La Vrillière-ri athera joaite guziak bere gain har zitzan, Troyes-ko Jaunaren edo bertze norbaiten hitz-mitzen beldurrez, nintzan urrunetik, hori sobera ageri baitzen. Alabainan, baitezpadakoa zen, eta ordutik La Vrillière-ek egin zuen. Ene lekura nindoala, berriz ere D'Antin goaitan, eni deika, Jainkoaren izenean eta eskuak juntatuz; ihardoki nuen, eta

erran: "Ikusiko duzu." Gixungo dukeak, itzultzean, debaldetan hertsatu ninduen ere, barne nintzala ontsa ageri zela erraiterano: gor eta elkor gelditu nintzan.

(…)

5 b. Baxtart legeztatuak paren lerrora jautsiak

Harat-hunat arin horien ondotik, Orléans-ko duke Jaunak, bere alkian oin-erdi batez goititurik, erran zaukon kompainiari, lehenbiziko aldian baino doinu oraino bermuago eta nagusia renago batekin, bazuela bertze bat aitzinera ekharri behar zena entzuen berria zena baino ontsa gotorragoa. Aitzin-solas horrek ustegabea berrhetu zuen aurpegietan, eta entzuleak higitu gabe utzi. Ixil ordu baten ondotik, Erreientak erran zuen odoleko printzen eta legeztatuen - hori zen erabili zuen hitza "printze" gaineratu gabe - artean jeikia zen auzia jujatua zuela; orduan bere arrazoinak ukanak zituela horren ez urrunago eremaiteko; baina etzela gutiago Frantziako parer justiziaren emaiteko beharrean, Erregeri aldi berean galdegina baitzaukon guzien errekeita batez, Haren Ma iestateak berak hartua zuena, eta Erreientak berak legeztatuer jakin-arazia zeena; justizia hori ezin zaitekeela gibelera utz hoin gizalde ospedunarendako, erresumako handi guziez egina, Estatuko lehenbiziko jaunez, handizkienik aipamenekoak zirenez, eta gehienak emanak zituzten zerbitzuez bere burua hautets-arazia baitzuten; uste ukana baldin bazuen haiek errekeita egin zuten aldian etzeela ihardetsi behar, etzela hertsatuagoa baizik senditzen dilindan egon etzaitekeen justiziaren ez luzatzera, eta orori hautetsiz parek nahi zutenaren; bihotzminekin zituela ikusten hain hurbilak zizazkon (*) jende batzu (erabili zuen hitza izan zen), hortan lehenbizikoak ziren lerrora iganak, eta etengabe igaiten jarriki zuena lege guzien kontra; egiari begiak etzezazkeela hets; printze zenbaiten fagoreak, eta ontsa berriki, alderantzia zuela paren lerroa; ohore horri egin kalte horrek etzuela irauna legeak bortxatuak zituen botherea bezenbat baizik; (…) legeztatuek ukana zutela ihardesteko asti guzia, baina baliagarririk ezer etzezaketela aitzinera eman legen eta behazunen kontra; etzela egiazko eta dilindan zen eta ikertua etzela erran etzaitekeen auzi bateko errekeitari zuzenbide emaiteaz bertzerik; hortan erabakitzeko ezarr-arazia zuela Jaun zigiluzainak irakurriko zuen aithormena, gero Erregek atxikiko zuen justiziako ohean errexixtra-arazteko.

(*) Baxtart legeztatuak, Maine-ko dukea eta Tolosako kondea, Orléans-ko duke Jaun Erreientaren koinatak ziren, Orléans-ko dukesaren anaiak. (*Idazlearen oharra*)

Ixil handi bat jarraiki zizakon hoin guti igurikatua zen eta baxtarten atheratzeko mixterioa argitzen hasi zuen hitzaldiari. Aurpegi ainitz beltzaran ilunez margotu ziren. Haserreak phindar egin zuen Villars-ko eta Besons-ko marexalenetan, D'effiat-enean, Estrées-ko marexalarenean ere. Tallard zozo bilakatu zen ephe batez, eta Villeroy-ko marexala osoki nahasi. Enuen ikusi ahal Huxelles-ko marexalarena, ainitz dolutu zizatana, ez eta Noailles-ko dukearena ere, ezpada artetan bazterka. Nihaurena moldatu behar nuen, guzien begiak gainetik baitzoaztan bat bertzearen ondotik. Aurpegian ezarria nuen larritasunezko eta lañotasunezko azal bat gehiago. Begiak banabiltzan emeki eta enuen gorenean aitzinera zuzen baizik so egiten. Erreientak egiteko hortaz ahoa ideki zueneko, Duke Jaunak igorria zautan behako irabazle bat, ene serios guzia aurdikitzer baitzautan, eta berrhetu behar nuela oharr-arazi eta ez gehiago neuren azpian haren begien ukaitera irriskatu. Horrela neure buruaren jabe, guzien hatsaren irestera behakor, orotako han eta neure baitan ere, higitu gabe, soin guzia tinkan, bozkarioak eman dezakeen sendigarrien eta bizien guziaz hartua, nahasmen loriagarrienaz, neurrigabekoenean eta jarraikienean agiantzatu atseginaz; ene sendimendu oldearen gordetzeko hersturaz izerditan nintzan, eta herstura hori bera atsegin bizi bat zen egun eder horren aitzinenean ez ondotik ehoiz senditu eztutana. Soineko atseginak izpirituarenak baino zenbat ttipiagoak diren, eta gaitzen araua bururatzen dituzten onen hura bera dela zenbat egia!

Erreienta mintzatzetik gelditu eta ephe baten buruan zigiluzainari erran zaukon aithormena irakur zezan. Berehala egin zuen, lehenik mintzatu gabe, aitzineko aldian egina zuen bezala. Edozein musika ene beharrietan hein berera hel etzaitekeen irakurtze hortan, oharpena zatitu nuen alde batetik osoki Millain-ek egina zuen eta erakutsia zautana zenez ezagutzean, eta beteki hala zela aurkitzeko gozoa ukan nuen, bertzetik han zirenetan egiten zuen ondorioaren ikhertzean; entzule gutik erakutsi zautaten, begitarteko aldamenetik, ariman zer gertatzen zizeen, eta bertzetan gutik ere entzun-arazi, Villeroy-ko marexala hartu zuen etsipenezko itxuratik, eta Villars-i jauzi zizakon haserre erotik, erremedio ekharri behar zizakola nahasmenak, ezpaitziduriten horren jabe, athera-araz ahal zezeenari. Sakelan nuen eta orduan agertu. Gure errekeita zen baxtarten kontra mahi gainean ene aitzinean ezarri nuena, eta han utzi azken orstoan idekirik, baitzauduzkan gure izen guziak hizki lodiz moldizkituak.

(…)

Aburuak galdegin eta abantzu berehala harturik, Orléans-ko duke Jaunak erran zuen: "Jaunak, horra beraz iragana dena; justizia egina da, eta Jaun paren zuzenbideak segurtatuak. Badut orai garaziazko egintza bat zuen aitzinera ekharri beharra, hanbat gehiago konfienxiarekin badagit, nun horrekin ikusteko dutenekin mintzatzeko artha hartua baitut, onhartu nahi baitute, eta izkiria-arazia baitut nehoren ez gaizkitzeko moldez. Erranen dutana Tolosako kondearen persona bakarrari doako. Ehor ezta haien fagoretan egina izana den guzia zenbat duen gaitzetsi eztakienik, eta eztuela Erreienziaz geroztik Errege zenaren borondateari errespetuz baizik onhartu. Mundu guziak badazagutza ere haren bertutea, mereximendua, axola, esku garbitasuna, abantail-nahi gabea. Ezin dut bizkitartean entzun duzuen aithormenean ezarria izaitetik baztertu. Justiziak eztema salbuespenik haren fagoretan, eta behar zen paren zuzenbidea segurtatu. Orai hau ezin hautsia denaz geroz, uste ukan dut behar zizakola mereximenduari itzuli sortzeari zuzentasunez ekhentzen daukotana, eta Tolosako konde Jaunaz beraz berexkuntza bat egin, hunek, erregela baieztatuz, utziko baitu eta hura bakarrik gozatzen dituen ohore guzietan, bertzeak oro bertze, eta hori haren haurretara hedatua izan ahal gabe ezkontzea gertatzen baldin bazako eta ukaiten baditu, ez eta ere nehorendako berexkuntzaz ondorioztatua. Odoleko printzek hau onhartzen dutela atsegin dut, eta aipatu deetan pareak ene sendimenduetan sartu direla eta hortara othoiztu nutela ere. Eztut dudan emaiten ukana duen estimuak eskaintza hau gozagarri egiten dautzuela;" eta zigiluzainaren gana itzuliz: "Jauna, jarraiki zuen, nahi duzua bada aithormena irakurri?", hura, ezer gaineratu gabe, irakurtzen hasi baitzen.

(…)

Aburuen hartzea bururatu eta, Duke Jaunak igorri zautan begi ukaldi distiratu bat, eta mintzatu nahi ukan zuen; baina zigiluzainak, ezpaitzizakon haren ondoan ohartu, zerbait erran nahiz ere, eta hari astia utzi gabe, eta bere alkian maiestaterekin goitituz: "Jaunak, erran zuen, Duke Jaunak zerbait aitzineratu behar dautzue; zuzena eta arrazoinezkoa iduritu zata; nik bezala gogatuko duzuela eztut dudatzen." Eta harengana itzuliz: "Jauna, erran zaukon, nahi duzua aztertu?" Hitz guti horiek bilzarrera egotzi zuten mogimendua ezin errana da. Uste ukan nuen alde orotarik jaukituak ziren jende batzu ikusten nituela eta hatsa galdurik sartuak diren atherbean guzien erdian sortzen zizeen etsai batek

hatzemanak. "Jauna, erran zuen Duke Jaunak Erreientari mintzatuz, Jaun parer justizia emaiten deezunaz geroz, uste dut zuzenbidean nizala nihaurendako ere zuri galdatuz: errege zenak emana dauko Erregeren ikaskuntza Maine-ko Jaunari. Adingabea nintzan, eta errege zenaren gogoan Maine-ko dukea odoleko printze zen, eta koronarako gai. Orai adinean niz, eta Maine-ko Jauna ezta bakarrik gehiago ez odoleko printze, baina bere paregoko lerrora jautsia da ere. Villeroy-ko marexala gaur egun haren lehena da eta orotan aitzinean doako: eztaiteke beraz Erregeren gobernari egon, Maine-ko Jaunaren intendant goiengoaren azpian. Galdegiten dautzuet beraz ene adinari, ene lerroari, eta Erregeren personaren eta Estatuarendako dutan atxikimenduari ezin ezetsia zeen kargu hori. Uste dut, gaineratu zuen ezkerreko aldera itzuliz, Villeroy-ko marexal Jaunaren erakaspenez baliatuko nizala horren ongi egiten, eta haren adixkidantzaren merezitzeko".

Hitzaldi hortan, Villeroy-ko marexal Jaunak abantzu murgil egin zuen, intendant goiengoaren izena entzun zueneko; bekokia bere makilaren gainera eman zuen, eta zenbait dembora molde hortan egon zen. Bazidurien ere etzuela hitzaldiaren gaineratekoa entzun. Villars, Besons, Effiat-ek soingainak makurtu zituzten azken ukaldiak ukanak zituzten jende batzuek bezala; enuen ene aldean Gixun-go duke bakarra baizik nehor ikusi ahal ukan, baimena eman zuena bere ustegabetze miragarriaren artetik. Estrées bere baitara itzuli zen lehena izan zen, inharrosi, kompainiari behatu bertze mundutik itzultzen den gizon batek bezala.

(…)

Aburuak hartu eta, Erreientak, Duke Jaunaren gana itzuliz: "Jauna, erran zaukon, uste dut nahi duzula irakurri Erregeri justiziako ohean erraiteko xede duzuna." Hortan Duke Jaunak irakurri zuen moldizkitua izana den bezala. Ixil ilun et oso batezko ephe batzu jarraiki zizazkon irakurtze horri, hetan Villeroy-ko marexala, hitsik eta khexu, ezpaitzen murdukatzetik gelditu. Azkenean, bere alderdia hartzen duen gizon batek bezala, burua aphal, begiak hiltzera, mintzoa ahul: "Eztitut bi hitz hauk baizik erranen, egin zuen: horra Errege (zenaren) erabaki guziak aurdikiak, eztezazket ikus bihotzminik gabe. Maine-ko Jauna ontsa zorigaitzean da. - Jauna, ihardetsi zuen Erreientak doinu bizi eta gora batez, Maine-ko Jauna koinata dut, baina gordea baino nahiago dut etsai bat agerian." Hitz handi hortan batzuek burua beheititu zuten. Effiat-ek berea bi aldetara azkarki inharrosi zuen. Villeroy-ko marexala

aldixartzeko heinean zen, hasperenak ene aitzinean han hemenka entzuten hasi ziren, ebaskaz bezala; bakoitzak senditu zuen aldi hortan magina egotzia zela eta geldi-arazlerik izanen zenez etzakien.

(…)

Agorrilaren 28-an, justiziako ohea Teilerietan

1. Bilzarrera sartzea

Parlamendua ethorri zen azkenean, eta, haur batzu bezala, horra gu biak leihoetan. Arropa gorrietan heldu zen, birazka, gorteko athe handitik, iragan zuena Embaxadoren salara joaiteko, han buruzagi lehena, Aligre-ko presidentarekin karrosan ethorria, haien beha baitzagon. Ondoko gorte ttipitik iragana zen, oinez bide gutiagoren egiteko. Gure bi leihoak ikuslez betetzen ari ziren bitartean, gabineteko barnearan ez begietarik galtzeko artha hartu nuen, solasaldien gatik eta atheratzen beldurrez. Des Granges aldi bat baino gehiagotan jin zen gauzak zertan ziren erraitera, nahiz nekerik etzen, ni beti ibilki eta orori arthoski beha. Ala beharrordu, ala debekatuaren gutizia, batzuek atheratzera galdegin zuten batek bertzearen ondotik. Erreientak onhartu zuen ixilik egoiten eta berehala itzultzen baziren. Eskaini zaukon ere La Vrillière-ri behar zuenera joan zadin Huxelles-ko marexal eta bertze aierugarri batzuekin batean; baina egiazki horien ez begietarik galtzeko, eta biziki ontsa entzun zuen eta egin. Berdin egin nuen Villars-ko eta Tallard-ko marexalekin, eta ikusirik Effiat Erregeren athe ttipiaren idekitzen Villeroy-ko marexalari, hara laster egin nuen, laguntzeko estakuru, baina egiazki athean elhekatzera ez uzteko eta mezu zenbait etzezan baxtarter igor. Han egon nintzan ere Effiat-ekin Villeroy-ko marexala sartua izan zen arteo, behargabe beraren baztertzeko athearen berriz idekitzean, berehala gero hetsi bainuen (…)

Azkenean parlamendua lekuan, pareak ethorriak, eta buruzagiak izanik bi alditan bere larruzko jantzien hartzen ondoko barnean ezarriak ziren haizolbe batzuen gibelean, Des Granges jin zen guzia prest zela jakin-araztera. Erabilia izana zen hea Errege bitarteaan bazkalduko zenez, eta ezaren ukaitera heldua nintzan, beldurrez eta gero berehala justiziako ohean sartuz, eta ohiko orduan baino lehenago janik, gaizki gerta zadin, eragozpen handia izanen baitzen. Des Granges-ek Erreientari jakin-arazia ukan zaukoneko abiatzen ahal zela, Haren Erret-

Goitasunak erran zaukon parlamentua abisa-araz zezan, Erregeren aitzinera jin behar zuen deputatu aldearendako, Suizen barnearen burura jiteko, hara deliberatua baitzen, eta erran zaukon gora-gora kompainiari Erregeren hartzera joan behar zela.

Hitz horietan, bozkariozko nahasmen bat senditu nuen ene aitzinean iraganen zen ikusgarri handiaz, gogora-arazi baitzautan behar nuela neure buruari oharpenez bikundu. Villars-i jakin-arazia naukon behar zuela gurekin ibili, eta Tallard-i Frantziako marexalekin, urratsa zaharragoer utziz, gertaldi horietan duke izenezkoak ezpaitira ezagunak. Indar egin nuen seriosezko, larritasunezko, lañotasunezko izari handienaren ukaitera. Orléans-ko duke Jaunari jarraiki nindakon, Erregeren egoitzan athe ttipitik sartu baitzen, eta Errege bere gabinetean aurkitu. Bidenabar, Labriteko dukeak eta bertze batzuek komplimendu biziki azkartuak egin zauztaten, zerbaiten jakiteko gutizia handi batekin. Ikustatez ordaindu nuen, jendetzearen zinkurinaz, ene jantziaren trabaz, eta Erregeren gabinetean sartu nintzan.

Bizkarrekorik eta lepaitzinekorik gabe zen, ohian bezala jantzia. Orléans-ko duke Jauna ephe zenbaitez haren ondoan egon eta, galdegin zaukon abiatzea laket zizakonez: berehala leku egin-arazi zen. Horrara itzulia zen gortelari gutia, bilzarreko salara sartzeko lekurik ez ukanez, baztertu zen, eta kheinu egin naukon Villars-ko marexalari, emeki hartu baitzuen atherako bidea, La Force-ko dukea gibeletik, eta gero ni, ontsa behatzen nuela arterik gabe Conti-ko printze Jaunaren aitzinean ibiltzeari. Duke Jauna jarraikitzen zizakon, eta gero Orléans-ko duke Jauna. Haren ondotik Erregeren gambarako athezainak bere mailuekin, gero Errege gorputzeko zaintzalen laur kapitainez inguratua, Labriteko duke gambarari handiaz, eta Villeroy-ko marexal bere gobernariaz. Gibeletik heldu zen zigiluzaina ezpaitzen parlamentuan errexixtratua, gero Estrées, Huxelles, Tallard eta Besons-ko marexalak, ezpaitzaitezkeen sar bilzarrean Haren Maiestatearen gibeletik baizik eta ez aitzinean. Ondotik heldu zizezteen Erregeri jarraikitzeko abisaturik izanak ziren ordenako zaldunak eta probinzietako gobernari eta ordezkari jeneralak, beherean jarri behar zutenak, buru has eta bozik gabe, bailen alkian. Ordenu hortan hartu zen zabalzako bidea Suizen salarano, hunen beherean aurkitu baitzen parlamentuko deputatu aldea, ohi bezala laur buruzagi burukodunez eta laur konseilariez egina.

Erregeri hurbiltzen ari zizazkolarik, La Force-ko dukeari eta Villars-ko marexalari erran nauen hobeki eginen ginuela gure lekuetara

joanez, Erregeren sartzeak emanen zuen trabari alde egiteko. Jarraiki zizaztan orduan banazka duke lerroan zaharrenak aitzinean, zeremoniako urratsetan. Gu hirurak baizik ezkinen egin ginuen bezala urrats egin ahal ukaiteko, D'Antin ezpaitzen jiten; Gixungo dukeak lerroa utzia zuen, Tallard etzen pare, eta zaintzaletako laur kapitainak Erregeren inguruan ziren bere makilekin holako zeremonietan.

(…)

2. Dukea behako guzien erdian

Parlamendua lekuan eta Errege ethortzera zoala, athe beretik sartu nintzan. Lekua aski libro gertatu zen, gorputzeko zaintzalen aitzindariek lekua egin-arazi zautaten, eta La Force-ko dukeari, eta Villars-ko marexalari, banazka jarraikitzen baitzizaztan. Arte hortan gelditu nintzan ephe batez, zolan sartzean, ikusgarri handi hortaz bozkarioak hartua, eta hoin ordu baliodunak hurbiltzen ikusiz. Gelditu behar ukan nuen ere, beha nindakonaren garbiki ikusteko aski neure baitaratzekotan, eta berriz ere serios eta lañotasunezko azal berri baten hartzeko. Haren ganik maitatua izan enadin artha hartua izana zen kompainia batez ohartuki ikhertua izaitearen beha nindagon ba, eta ikuslari jakin-nahiaz, hoin segeretu barnatutik zer jalgiko zen aiduru, hoin bilzarre gotorrean, hain ephe laburrez manatuan. Gainera, nehor etzen banakiela jakin etzezakeenik, atheratzen baizik enintzan Erreienziako konseiluaz bederen.

Enintzan hutsean: agertu orduko, begi guziak gainean gelditu zizaztan. Aitzinatu nintzan emeki grefier nagusiaren aldera, eta bi alkien artean makurtuz, salaren zabal guzia iragan nuen Erregeren jenden aitzinetik, agurtu baininduten itxura alai batekin, eta alki goretako gure hirur mailak igan han pare guziak, azpimarratzen dutana, lekuan baitziren eta xutitu, mailerat hurbildu nintzaneko; errespeturekin agurtu nituen heren mailaren gainetik. Beti aitzina nindoala, La Feuillade hartu nuen soingainetik, nahiz harekin harremanetan izan gabe, eta beharrira erran ontsa beha zezan ez den gutienik higitzeari, parlamentuaren alderako aithormen bat entzunen zuela, haren ondotik bertze biga izanen baitziren; azkenean ordu zorionezko eta ustegabekoenetara heltzen ari ginela; baxtartak bere paregoko lerro lehentasunezko xoilera jautsiak zirela, Tolosako kondea bakarrik bere lerroan atxikia ondoriotasunik gabe, ez eta bere haurrendako ere. La Feuillade entzun gabe egon zen ephe batez, eta gero bozkarioaz hartua ezin mintzatzerano. Ondoan tinkatu zizatan, eta uzten nuela, erran zautan:

"Baina Tolosako kondea, nola? - Ikusiko duzu," ihardetsi naukon, eta iragan nintzan; baina Aumont-eko dukearen aitzinetik nindoala, orhoitu nintzan Orléans-ko duke Jaunarekin hitz-hartua zuen ordu ederraz arratsaldean edo biharamunean parlamentuarekin akomeatzeko, eta gaizki-aldi horien guzien galanki bururatzeko, eta enintzan egon ahal izan, hari behatuz, erdi-irri trufari baten igortzetik. Metz-ko Jaun Coislin-go dukearen eta Tresmes-ko dukearen artean gelditu nintzan, eta bertze hainbertze erran nauen. Lehenak sudur-zurruntza egin zuen, bertzea loriatu zen eta berriz erran-arazi zautan. Berdin erran naukon Louvigny-ko dukeari, ezpaitzen bertzeak bezain ustegabetua izan, baina berdin zorionean. Azkenean ene lekura heldu nintzan, Sully-ko eta La Rochefoucauld-ko duken artean. (…)

Leku gora batean jarririk, aitzinean nehor gabe gaineko jarlekuetan, gurean lekurik ukanen etzuten paren bigarren alkia ezpaitzen La Force-ko dukerano luzatzen, ukan nuen han ziren guzier ontsa behatzeko astia. Egin nuen ere ene begien ahal eta zorrotz guziaz. Gauza bakar batek hertsatzen ninduen, ez gauza berezi batzuetan ene nahitara gelditzeak; neure behako hain gozatuen suaren eta distira errankorraren beldur nintzan; eta gehiago nintzan abantzu jende guziarenak enen gainean aurkitzen nituela ohartzen, are gehiago nindagon ene begiruneaz haien jakin-nahiaren agortzeari. Ñiñika phindardun bat bota naukon halarik ere buruzagi lehenari eta alki handira, harendako gogarako lekuan bainintzan. Erabili nuen parlamentu guziaren gainetik; ikusi nauzkon ustegabe bat, ixil bat, gogo ilun bat, ondorio onekoak iduritu zizaztanak. Buruzagi lehenak, ozarki aurdikia, presidentek, galduak, orori beha oharpenekin, bazemataten ikusgarri gozagarriena. Ikus nahi xoila zutenek, hetan ezartzen baitut aburu emaiterik eztuen guzia, etzuten gutiago ustegabetuak iduri, baina bertzeak bezala galduak izan gabe, eta ustegabe geldi batean; hitz batez, guziak igurikatze handi bat sendi zuen, eta nahi zuen lehia-arazi konseilutik jalgitzen zirenen gogoa zilatuz.

Enuen ikhertze hortako asti handirik ukan, Errege berehala ethorri zen. Sartze hortako harramantza, Haren Maiestatea, eta jarraikitzen zizakon guzia, lekuratua izan arteo iraun baitzuen, bertze mota bateko bitxikeria bilakatu zen. Bakoitzak nahi zuen Erreientaren gogoa, zigiluzainarena eta jende gotorrenena zilatu. Konseiluko gabinetetik baxtarten jalgitzeak oharpena bikundua zuen, baina orok etzakiten, eta orduan guziak ohartu ziren etzirela han. Marexalen gogo iluna, gehienik haien zaharrenarena Erregeren gobernariaren lekuan,

agerian emana izan zen. Buruzagi lehenaren gogo aurdikidura handitu zuen, hor bere nagusia, Maine-ko dukea, ez ikusiz, behako itsusi bat egotzi baitzaukun Sully-ko Jaunari eta eni, bi anaien lekuak berak hartuak baikinituen. Ephe labur batez bilzarrearen begi guziak bapatez gainean gelditu zitzauzkun, eta ohartu nintzan zerbait handiren beha egonaren bildua jarri zela begitarte guzietan. Erreientarenak bazuen maiestate ezti baina deliberatu baten itxura, osoki berri izan zizakona, begiak oharle, egonara larri baina errex bat; Duke Jauna, zuhur, neurrian, baina guzia aphaintzen zuen eta bazatxikala sendi zen nik dakita zer distiratuez inguratua; Conti-ko printze Jauna trixte, gogoetan, eremu urrun batzuetan ibilki beharbada. Enituen, bilzarrean, arteka baizik ikusi ahal ukan eta Erregeri behatzeko estakuru, serios baitzagon, maiestatean, eta aldi berean izan zaitekeen pollitena, egonara guzian larri garaziarekin, iduriz behakor eta batere ez aspertua, biziki ongi itxuratzen zuela eta eragozpenik batere gabe.

3. Justiziako ohearen hastapena

Guzia lekuratua eta berriz jarria izan zenean, zigiluzaina bere kaderan egon zen zenbait minutaz, higitu gabe, azpiz beha, eta begietarik zarion suak golko guziak zilatzen zituela iduri zuen. Ixil ezin handiago batek garbiki iragartzen zituen beldurra, oharpena, nahasmena, guzien beha zagon jakin nahia. Parlamentu hori, Errege zenaren azpian ere D'Argenson hori bera usu jitera manatua zuena eta, poliziako ordezkari bezala, manuak emanak zauzkona auzitegiko taulan zutik eta buru-has; parlamentu hori, Erreienziaz geroztik horren kontra bere gogo gaixtoa hedatua zuena, orotaz gogoetatzera eremaiterano, eta oraino presoak eta paperrak bazaduzkana haren khexa-arazteko, buruzagi lehen hori, hura baino hain goragoa, urguluz hain betea, bere Maine-ko dukeaz hain burgoia, zigiluen ukaiteko hain uste azkarrean; Lamoignon hori espantu egina zuena urka-araziko zuela bere justiziako gambaran, han bere burua hain beteki desohoratua zuelarik, ikusi zuten arropako lehenbiziko aphaindurez jantzia, haien buruzagi izaiten, haien ezabatzen, eta bere karguan sartzean, berriz bere eginbidean ezartzen zituela eta hortaz erakaspen publiko eta azkar baten egiten, buruan gertatzen zizeen lehenbiziko aldian berean. President hutsal horiek ikusten ziren bere behakoen itzultzen haien urguluari hain azkarki larderia emaiten zeen, eta handik hartzen zuten lekuan berean haien ozarreria ezeztatzen zeen gizon baten ganik, eta ezin jasan zezazketen harenek zozo bilakatuak.

Zigiluzaina, pheredikari baten aran, entzuleria ospetsu horri jarria izan zenean, buru-hastu zen, zutitu, Erregeren gana igan, belhauriko jarri tronuaren mailetan, gambarari handia bururdiko batzuen gainean zatzan mail beren erdiko ondoan, Erregeren manua hartu zuen, jautsi zen, bere kaderan jarri eta burua estali. Alde bat erran behar da zeremonia bera egin zuela egiteko bakoitzaren hastapenean, eta berdin bakoitzaz aburuak hartu aitzinean eta ondotik; justiziako ohean hura edo kanzelaria etzazkola nehoiz Erregeri bertze moldez mintzatzen, eta huntan Erregeren gana joan zen aldi oroz, Erreienta zutitu zela eta (Erregeri) hurbildu zizakola haren entzuteko eta hari eman behar ziren manuen jakin-arazteko. Ixil ordu zenbaiten ondotik bere lekuraturik, bilzarre handi hori ideki zuen hitzaldi batekin. (…) Lehenbiziko hitzaldi horrek, zigiluzainaren eskutitzen irakurtzeak eta jarraiki zizakon Blancmesnil abokat jeneralaren hitzaldiak, aburuak harturik, zigiluzainaren hitzak, bi athen idekitzeko eta idekirik atxikitzeko eman ziren manuek, eta batzuetan errepikatu, etzuten nehor ustegabetu, etziren gainerateko guziko aitzin-solasez baizik baliatu, eta jakin-nahiaren gero eta gehiago zorrozteko, horren askiesteko orduak hurbiltzen ari ziren arau.

Lehenbiziko egintza hori bururaturik, bigarrena iragarria izan zen zigiluzainaren hitzaldiaz, zuen indarrak hartu baitzuen parlamentu osoa. Orotako gogo-iluntze bat begitarte guzietara hedatu zen. Hainbertze jendetarik abantzu bat etzen auzoari mintzatzera menturatu. Ohartu nintzan bakarrik Pucelle apheza, nahiz konseilari-aphez, alkietan eni bekoz-beko zela, beti zutik izan zela, zigiluzaina mintzatu zen aldi oroz, hobeki entzuteko. Bihotz-min samin eta hisiz betea zidurien batek ilundu zuen buruzagi lehenaren aurpegia. Ahalgea eta nahasmena jarri zizazkon. Palazioko erdarak "alki handia" deritzonak, han dauden burukodunen isensatzeko, burua beheititu zuen seinale batean bezala, eta nahiz zigiluzainak neurtzen zuen bere mintzoaren doinua, adigarria bakarrik egiteko, halako moldez egin zuen bizkitartean nun ezpaitzen bilzarre osoan hitz bat ere galdu, bat etzelarik ere bere ondorioa emaiten etzuenik. Ontsa gaitzago izan zen aithormenaren irakurtzean. Bazidurien erranaldi bakoitzak parlamentuko aitzindari horien oharpena eta lastima aldi berean bikuntzen zituela, eta lege-gizon hain burgoi horiek, bere erasiez etzituztelarik oraino bere urgulua eta handi-nahia askiesten, zigor hoin azkarraz eta hoin publikoaz joak, ikusi zituzten bere buruak zuten izaerako lerro egiazkora ahalgegarriki jautsiak, nehor hetaz urrikitu gabe

ezpada haren alderdi xipia. Ordu hain berezi hetan begi ukaldi bakar batek sendi-arazi zuenaren erraitea, hori da ezin egin dena, eta, ukan baldin banuen ezer ikusi gabe utzi enuelako gozoa, badut horren ezin eman ahal ukaiteko dolua. Blancmesnil-en gogo biziak ezin gehiago ustegabetu ninduen. Zuen karguak nahi ukan zuen gauza bakoitzaz mintzatu zen egonara laño eta zuhurki trabatu batekin, bere hitzen gutiago jabe izan gabe, aitzinetik moldatuak ezpalire bezain xorroxki arautuak.

Aburuen ondotik, zigiluzainak erabakia errana ukan zuelarik, ikusi nuen delako alki handi hori higitzen. Buruzagi lehenak zuen mintzatu nahi eta agertua izana den erasia egin, maltzurreria zorrotzenez, Erreientaren ganako ozartasunaz eta Erregeren alderako oieskeriaz betea. Gaixtagina ikaran zagon alta erraiten ari zuenean. Mintzo arteka hautsiak, begien hersturak, gorputz osoa hartzen zaukon nahasmen ageriak, ukatzen zuten bere burua eta lagunkideak hartarik ixuri gabe utzi ahal etzituen pozoin ondar hura. Hor nuen jakituz iretsi ezin erran daitezkeen atsegin bizi handienekin, legelari burgoi horien ikusgarria, guri agurraren ukatzera ausartzen direnak, ahuspez belhauriko, eta gure oinetan tronuari gizamen emaiten, (gu) aldiz jarririk eta burua estalirik, alki goienetan eta tronuaren beraren sahetsetan, egonara eta ebilera hauk, hain handizki ezberdinak, bakarrik direlarik mintzo, gauzaren ageri zorrotz guziarekin, zinez eta egiazki *laterales regis* ("erregeren sahetsekoak") direnen aldera, heren ordenako *vas electum* ("untzi hautatu") horren kontra. Begiak geldirik, burjes burgoi horier lotuak, banabiltzan belhauriko edo zutik zagon alki handi hortan guzian gaindi, eta belhaurikatze luze eta berrhetu bakoitzan horradura horien uhainetako izurdura zabaletan, ezpaitzen gelditzen zigiluzainaren ahotik Erregeren manuaz baizik: urtzintz-larru arrunta margoan marta-larruarena egin nahi lukeena, eta buru horiek hasik eta gure oinen heinera aphalduak. Erasia bururatu eta, zigiluzaina Erregeren gana igan zen, gero, abururik batere hartu gabe, begiak buruzagi lehenaren gainera egotzi zituen, eta erran: *Erregek obeditua izan nahi du, eta orai berean obeditua*. Hitz handi hori aire gaixto ukaldi bat izan zen presidentak eta konseilariak ara ezin ageriagoan lurreratu zituenak. Guziek burua beheititu zuten, eta gehienak luzaz egon ziren berriz goititu ahal ukan gabe. Gainerateko ikuslek, Frantziako marexalak salbu, lastima hortaz guti hunkiak iduritu zuten.

4. Baxtarten erortea, Luis XIV-garrenaren erreinuaren zinezko bururapena

Baina garhaipen ohiko hori jeus etzen izan berehala jarraikiko zizakonaren ondoan. Zigiluzaina, azken erran hortaz, bigarren egintza hori bururaturik, hirurgarrenera joan zen. Berriz aitzinetik iragan zizatanean, paren aburuaren hartzea eginik parlamentuari zoakon erabakiaz, errana naukon paren aburua etzezan har jarraikiko zen egitekoan, eta etzuela eginen ihardetsia zautan. Zuhurtzia bat zen gauza hortan ohargabetik begiratzeko hartua nuena. Parlamentuaz erranak ziren azken hitzen ondotik arte baten buruan, zigiluzaina Erregeren gana igan zen berriz, eta berlekuraturik, han egon oraino ephe zenbaitez ixilik. Orduan jende guziak ontsa ikusi zuen parlamentuko gauza bururaturik, bertze bat izanen zela. Bakoitzak, dudan, aitzinetik zer zen gogatzera indar bazegien. Geroztik jakin da parlamentu osoa bonetaz gure alderako erabakiaren beha zagola, eta gero argituko dut zergatik etzen aipatu. Bertze batzuek, begiek oharr-arazirik baxtartak etzirela hor, uste ukan zuten zuzenago haier behatzen zizeen zerbaitez ariko zela; baina etzuen ehork zertaz asmatu, ainitzez gutiago norano hedatuko zen.

Azkenean zigiluzainak ahoa ideki zuen, eta lehenbiziko erranaldian berean anaietarik baten erortzea iragarri zuen eta bertzearen bere lerroan atxikitzea. Erranaldi horrek aurpegi orotan egin zuena ezin errana da. Zenbat hartua baninduen ere neurearen edukitzeak, enuen alta ezer galdu. Ustegabetzeak garhaitu zituen bertze sendimenduak. Ainitzek gozoan iduritu zuten, ala zuzentasunez, ala Maine-ko dukearendako herraz, ala Tolosako kondearendako maitasunez. Buruzagi lehenak osoki galdua iduritu zuen; aurpegia, hain burgoia eta hain ozarra, daldara batek hartu zaukon; errabiaren soberakinak zuen bakarrik aldixartzetik begiratu. Are gaizkiago izan zen aithormenaren irakurtzean. Hitz bakoitzak lege balio zuen eta erorte berri bat ekhartzen. Oharpena ororena zen, bakoitza bazadukan geldi hitz baten ez galtzeko, eta begiak irakurtzen ari zen grefieraren gainean. Irakurtze horren hereneko heinera, buruzagi lehenak, gelditzen zizakon hortz gutia karraskaka, utzi zuen bekokia makilaren gainera erortzera, bi eskuez baitzadukan, eta, egonara bitxi eta hain ohargarri hortan, irakurraldi beretako hain lehergarri, guretako hain phitzkarri horren entzutea bururatu zuen.

Bitartean ni bozkarioz hiltzera nindagon. Aldixar beldur izaitean nintzan; bihotzak, sobera zabaldurik, etzautan hedatzeko lekurik

aurkitzen. Jeusen jalgitzera ez uzteko neure buruari banegion indarra mugagabekoa zen, eta bizkitartean oinaze hori atsegin bizi zizatan. Erkidatzen nituen menpekotasunezko urte eta aroak, parlamentura garhaiturik herrestatua izana nintzan egun hilgarriak, han aldi andana batez baxtarten garhaipenezko besta izaiteko, gure buruen gainerako mukurru hortara igaiteko hartuak zituzten mail guziak; erkidatzen nituen, diot, justiziazko eta arau zuzenezko egun hunekin, erorte izigarri horrekin, aldi berean erresortaren indarraz goititzen ginituenarekin. Ene begiek bazakusaten, azkenean, mehatxu horren ondorioa eta bururapena. Neure buruari zor naukon, eskertzen nuen nihauren bidez egiten zelakotz. Banakusan horren handitasun distiratua Erregeren eta bilzarre hoin goragarriaren aitzinean. Garhaile nintzan, mendekari, mendekioan igerika; bizi guziko ene gutizia oldarkorrenen eta jarraikienen betetze osoaz atseginean nintzan. Gehiago jeusez ez axolatzera nindagon. Alta enintzan irakurtze hoin bizkorgarri hori entzun gabe, hitz guziek ene bihotzean joiten baitzuten zirikak arrabitean bezala, eta aldi berean bakoitzaren gainean emaiten zituen ondorio guziak ikertu gabe.

Gauza hortaz zigiluzainak erran zuen lehenbiziko hitzean, bi pare apezpikuen begiek eneak aurkitu zituzten. Behin ere eztut haien ustegabearen berdinik ikusi, ez eta bozkariozko olde hoin agerian emanik. Enituen hortara jarri ahal ukanak gure lekuen urrunaren gatik, eta ezin zuten bapatez hartu zituen higitzeari ihardoki ahal ukan. Begiez iretsi nuen haien bozkariotik trago goxo bat, eta neureak haienetik baztertu, soberakin hortaz garhaitua izan beldurrez, eta enintzan gehiago haier so egitera menturatu.

(…)

Odoleko printzen onharmeneko eta Frantziako paren galdekatzeko artikulu larriek ororen oharra berriz atzarri zuten, eta buruzagi lehenari sudurra bere makilatik goiti-arazi, berriz hartan emana baitzen. Pare zenbaitek ere, Metz-ko Jaunak sustaturik, hortzen artean murmurikatu zuten, griñatuak, gero bere lagunkider argitu zeetenaz, bilzarre betean ez galdekatuak izanik neurri hortako gertakariaz, hortaz mintza-arazten eta errekeita-arazten zirelarik bizkitartean. Baina nola mentura mota hortako segeretu bat adin orotako -gehiagokorik ez erraiteko - paren bilzarre batean, eta, gehiago dena, arrazoinen eztabadatzea nola egin? Hortaz gaitzitua izan zen biziki gutiak erran zuen Erreienziako (konseilukoek) bertzendako ihardetsia zutela, iduriz,

hortako mezurik gabe, eta bekaizkeria ttipi horrek sistatzen zituen behar bada Tolosako kondearen lerroaren atxikitzeak eta bertze gauzek bezenbat. Hori sortu orduko gelditua izan zen; baina ezer ez, mundu huntan, kontra-erraile zenbait gabekorik.

Abokat jenerala mintzatua izan zenean, zigiluzaina Erregerengana igan zen, odoleko printzen aburua hartu zuen, eta gero Sully-ko dukearen eta enegana ethorri. Zorionez nahi ukan zuen baino gogo hobea ukan nuen: ene egitekoa zen eta ere. Aitzinera eman naukon ene xapel lumazko flokaduna, ara deliberatuki biziki ohargarrian, erranez aski gora: "Ez, jauna, ezkaitezke izan juje, auzilari gira, eta eztugu Erregeri esker emaiteaz bertzerik egiteko egin nahi daukun justiziaz." Erdi-irri egin zuen eta desenkusatu zizatan. Gibelera igorri nuen Sully-ko dukeak ahoaren idekitzeko astia ukan zezan baino lehen; eta berehala bi aldetara behatuz, atseginekin ohartu nintzan ezeste hori guziez ikusia izana zela. Zigiluzaina bertzerik gabe itzuli zen, eta zerbitzuko lekuan ziren paren aburua hartu gabe, ez eta bi apezpiku parena ere, Frantziako marexaletara joan, gero buruzagi lehenaren gana eta buruzagi burukodunetara jautsi, eta behereko bertze alkietara joan; ondotik, berriz Erregeren baitara iganik eta lekura jautsirik, erran zuen errexixtratzeko erabakia, eta ene bozkarioa azken mukurruan ezarri.

Gero berehala Duke Jauna zutitu zen, eta, Erregeri gurra eginik, ahatzi zuen mintzatzeko jarri behar zuela eta burukoa ezarri, Frantziako paren ohidura etengabekoari jarraikiz: etzen ere gutarik bat zutitu. Bere hitzaldia egin zuen beraz zutik eta buru-has, aitzineko hitzaldien ondotik agertu dena moldizkiturik, eta guti entzungarriki irakurri, zintzurra ezpaitzuen alde. Bururatua ukan zueneko, Orléans-ko duke Jauna zutitu zen eta huts bera egin zuen. Erran zuen beraz, zutik eta buru-has ere, Duke Jaunaren galdea zuzen iduritzen zizakola; eta laudorio zenbaiten ondotik gaineratu, orai Maine-ko duke Jauna bere paregoko lehentasuneko lerroan zenaz geroz, Villeroy-ko marexala, hura baino lerroan zaharragoa, etzaitekeela gehiago haren azpian egon, arrazoin berria eta biziki azkarra zena, Duke Jaunak aitzineratuak zituenen gainera. Galde horrek azken mukurrura eremana zituen bilzarre guziaren ustegabea, buruzagi lehenaren eta, bere itxura galduan, Maine-ko dukeaz axolatzen zela bazidurien jende guti haren baldidura. Villeroy-ko marexalak, tantitu gabe, begitarte gaitza egin zuen beti, eta ezkutari lehenaren begiak usu nigarrez busti ziren. Enuen ontsa ikusi ahal ukan haren gusi eta adixkide min Huxelles-ko marexalarena, begietara sartua

zuen bere xapelaren bazter zabalen atherbean jarri baitzen, eta ezpaitzen bertzela higitu ere. Buruzagi lehenari, azken ukaldi hortaz lehertua, begitartea abisez bezala barreatu zizakon eta uste ukan nuen ephe batez kokotsa belhaunetara eroria zizakola.

Bitartean zigiluzainak Erregeren jender mintza ziten erranik, ihardetsi zuten etzutela Duke Jaunaren hitza entzuna, hortan, eskutik eskura, paper bat igorria izan baitzizeen, arte hortan zigiluzainak errepikatu baitzuen biziki gora Villeroy-ko marexalak paregoan Maine-ko dukearen aitzinean zuen lehentasunaz Erreientak gaineratua zuena. Blancmesnil-ek etzuen Duke Jaunaren paperrera begien emaitea baizik egin, horren ondotik zigiluzaina joan baitzen bozen biltzera. Enea eman nuen aski gora eta erran: "Egiteko huntan, jauna, ontsa gogotik niz Erregeren erakaskuntzako intendantgoa goienaren Duke Jaunari emaitearen alde."

(…)

Errexixtratzea ari zenean, begiak banabiltzan eztiki alde orotara, eta, neurrian atxiki banituen beti, enuen ihardoki ahal ukan buruzagi lehenaren gainean ordainaren hartzeko gutiziari, ehun aldiz lehertu nuen beraz, bilzarrean, ene behakoen ukaldi jarraikian luzatuez. Laidoa, gaitzesmena, gutieztea, irabazi osoa ene begietarik munetarano bortizki igorriak izan zizazkon; aldi bat edo bietan soa nitan gelditu zuen, eta atsegin hartu nuen irriño ebaskako, baina beltz batzuez laidoztatzen, nahasmenaren burura ereman baitzuten. Haren errabian igerika nindagon eta hari horren sendi-arazteaz ahogozoan. Batzuetan hartaz jostatzen nintzan ene bi auzoekin, kheinu batez erakutsiz, hortaz ohar zaitekeenean; hitz batez, haren gainera zabaldu nintzan batere gupidetsi gabe ahal ukan nuen bezenbat.

Azkenean, errexixtratzeak bururatuak izan zirenean, Errege bere tronutik behereko alkietara jautsi zen, bere mailalde ttipitik, zigiluzainaren kaderaren gibelera, Erreienta eta bi odoleko printzeak eta jarraiki behar zizakon jaunak gibeletik. Aldi berean Frantziako marexalak jautsi ziren bere gaineko alkietako burutik, eta, Errege bazoalarik zolan harat, hartzera joana zizakon deputatu aldeak lagundurik, konseilarien alkien artetik iragan ziren, gure aitzinean, Erregeren jarrailetan emaiteko, Haren Maiestatea handik sartua zen bezala jalgi zen bilzarreko athetikan; aldi berean ere bi apezpiku pareak, tronuaren aitzinean iraganez, gure buruan emaitera jin ziren eta eskuak eta burua tinkatu zauztaten, ene aitzinetik joaitean, elgarren atsegin bizi batean. Jarraiki ginezteen, berriz

alkien luzara birazka bihurtuz, lerroan zaharrenak lehenik, eta gaineko alkietarik buruko mailetik jautsirik. Jarraiki ginen zuzen-zuzena, eta aitzinean ginuen athetik jalgi. Gero abiatu zen parlamentua, eta bertze athetik jalgi, gu banazka sartuak ginena baitzen eta Errege hartarik sartua eta jalgia zena. Lekua egin-arazia izan zizakun mailerano. Jendetzeak, munduak, ikusgarriak hertsitu zauzkuten elheak eta bozkarioa. Dolu zizatan. Berehala ene karrosara joan nintzan eskupean hatzeman bainuen, eta gortetik biziki zorionki athera baininduen, hala nola nun ezpainuen trabarik batere ukan, eta ezpainuen bilzarretik etxera oren laurden bat eman.

Justiziako ohearen ondotik

1. Parisko parlamendua khexu

Justiziako ohearen biharamunean, agorrilaren 29-ko astelehenean, hogei-ta-zazpi musketari, bere aitzindariek manaturik, eta hirur gizonaldetan zatiturik, bakoitza errekeitetako nagusi batekin, joan ziren, goizeko laur orenak baino lehen, Blamont, inkestetako buruzagiaren, eta Saint-Martin eta Feydeau de Calendes konseilarien bere ohetarik eta etxetarik eremaitera. Hiltzeko izialdura ukan zuten, baina etzuten ihardoki. Ezarriak izan ziren bakoitza karrosa batean, prest-presta atxikiak zirenak, eta berex eremanak, lehena Hyères-ko irletara, bigarrena Belle-Ile-ra, herena Oléron-go irlara, nehori bidean eta presondegiaren lekuan mintzatu gabe, eta hiltzeko beldurrean ikusiz alhor hurbilena Misisipi zutela. Balio zuen deusik etzen aurkitu bi konseilarien etxean, baina mugagabean Blamont-enean, hanbat Parisen nola baserriko etxean, bitartean hara bertze errekeitetako nagusi bat joana baitzen, hala nola nun bere egintzetarik eta eginararen harrabotsetik gertatu zizakonaren bila zabilala bazidurien gizon baten zuhurtzia gabearen edo segurtasunaren mirestekoa izan baitzen.

Hartze hori, apailu gutiagorekin egiten ahalko zena, etzen palazioan jakina baizik izan, gambarak bildu zirenean eta herriz urrundu horien emazter deputatu-alde baten igortzera deliberatu haien preso-aldiaz kompainiak sendi zuenaren lekukotasunez, eta bertze bat ahal bezain handia Erregeri eta Erreientari, hortaz deitoratzeko. Joan ziren beraz igande goizean berean Erret-Palaziora, eta bazkal ondoan Teilerietara. Haien hitzaldia, buruzagi lehenak egin zuena, hertsagarria

izan zen, baina hitz biziki neurtu eta biziki errespetudunetan. Ihardespena bier berdintsu egin zen, larria eta orotakoa. Astelehenean eta asteartean parlamentua hetsirik egon zen, eta abokat bat, Laguntzen gortean auzi eginik, bere kompainiak haizatua izaitekotan zen, hunek bere ofizioak utziko zituela deliberatua baitzuen; bizkitartean erabaki handi hori, justiziako behar ororen haustera zeramana, jendearen jazarr-araztera eta delako Broussel aipatuaren, azken adingabean (*), bigarren aldi baten entseatzera zeramana, etzen jasan ahal izan. Astezkeneko, parlamentuak berriz hasi zituen bere baitarik ohiko egitekoak; baina Erregeren jender manatu zauen goiz oroz Erret-Palazioan gerta ziten, lagunkiden itzul-arazteko galdearen errepikatzeko. Joko horrek, debaldekoa bezain irri-egingarria, buruilaren 7-rano iraun zuen. Azken heineratzeak Frantzesen gostukoak baitira, erasan zen, justiziaren gelditzeak ezpaitzuen ondoriorik emana, parlamentua abiatuko zela hutsartetako ez berextera, eta biltzen jarraikiko zuela buruileko Andre-dona-Mariarano. Etzen alta hortara menturatu. Utzi zaukon bakarrik hutsartetako gambara atxiki behar zuen buruzagiari usu Erreientaren gana lagunkiden itzultzearan eskatzera joaiteko manua. Buruzagi horrek ontsa ikusi zuen, lekuen urruntasunetik, nora helduak ziren eta nehori mintzatu gabe atxikiak jakin baitzen azkenean, etzirela handik berehala atheratzekotan, Erreienta bizpahirur aldiz ikusi zuen, eta gero debaldeko azpertze hortaz libro utzi.

(*) Broussel: Luis XIV-garrenaren adingabeko nahasmenetan, "La Fronde" izeneko jazarraldian sartu zen Parisko parlamentari baten izena. (*Itzultzalearen oharra*)

Horrela bururatu zen egiteko handi hori, eta hain baitezpadakoa nun Estatuaren sosegua horren menean baitzen, erret-larderiaren azkartzeaz Erreientaren eskuetan, itxura alegiazko eta huts bat baizik laster utziko etzaukon zatitze bat baztertuz, mota orotako nahasmenak erakarriko zituena, gauza egin-nekea, ondorio ona berdin zor izan baitzizakon lehiari eta segeretu osoari, moldatzen ari zen alderdiaren antolamendu gutiari, eta haren buruzagi nagusien ahuleziari.

Egintza horrek atzerrietan Erreientari ekharri zaukon ohorea ezin sinetsia da. Bertze parlamentuak, guziak zundatuak izanak baitziren, eta zenbaitek ezpaitzuten Pariskoarekin batu nahi ukan, obedienzian azkartu ziren, eta probinziak, bere gain jartzeko egintzek eta gero behazunak lilluratuak izanik, etziren gehiago ausartzia erakustera menturatu. Bretainia, hango estatuen bilzarrea eta parlamentua jazarraldira zoazilarik agerian, hasi zen ukaldi hortan apurka apurka obedienzian sartzen, eta,

izan bazen jende berezi andana bat gero uste ero batzuen gatik jazartzera amildu zirenak, hain andana artekoa izan ziren, mota hain gaitzeskarria, bideak hain ezteusak eta lazta eta oihuak hain urrikalgarriak bere buruak agertuak ikusi zituzten orduko, nun justiziako bide ohikoez haien zigortzea aski izan baitzen, beldurtzeko behargabe motarik batere eta ondoriorik batere gabe. Horra nola den bermutasuna Estatuen salbamendua, eta nola ahuleziara erortzen diren gogo-oneziak eta errextasunak egiten dituen gaitzesmena eta jazartzeak, guzia lanjerrera eta hondamenera baderaman, eta ezin den berriz jar zoriona eginara bezenbat buru duten indarrezko ukaldi batzuez baizik. Ororen beldur izana nintzan ukaldi bikun aldi berean parlamentuaren eta Maine-ko dukearen gainean joa izanen zen batez, eta alabainan ororen beldurtzeko zen. Erreientak, egitekoen ezinbertze hortan, Duke Jaunarekin batzeaz ukana zuen beharrak, Duke Jaunak Erregeren erakaskuntzako intendantgo goienaren joaitera ez gehiago uzteko ukana zuen hisiak (…), abantail-nahi ezberdin horiek, baina orduan bi printze horien baitan, bakoitza bere helburuko, bateratu zirenek, gogoeta zuhurrenak gainditu zituzten. Ondorio onak bozkarioz mukurru bete ninduen, eta hortik bildu nuen (gure) lerroko ekoizpen goxagarria hanbat gehiago balioduna izan zizatan nun gauza handi horrek ezpaitzauztan ez gogoa ez bihotza lilluratzen, eta ezpainuen gozatu ahal ukan konzienzia garbi batek bere bururari Estatua hautetsia daukon oneko gizon baten ariman ixurtzen duen bake guziarekin.

2. "Boneta" zergatik utzi den

Erreienzia hortako ixtorioaren zati hain ohargarri hunen bururatzeko, erran behar da zergatik enuen uste ukan "bonetarendako" aldi hortaz baliatzeko ordu zela. Uste ukan nuen etzela Erreintaren ahuleziaren gainean aldi berean hainbertze gauza zamatu behar eta baxtarten paren lerrora jaustearen egiteko hain baitezpadakoa ez trabatu, hortaratzeko esperanza abantzu utzi behar baitzen, (Erregeren) erakaskuntzaren eskuz aldatzeko aldi hortan ezpaginuen ukaiten; ez trabatu, diot, hau baino hain beheragokoa zen bertze egiteko batez. Banadukan boneta berez hain gauza irrigarria zela boneten aldetik, eta hain hausten hasia, nun guretako guti behar bezalakoa baitzen ere baliatuko ginuen Erreientaren mendekio bat bezala baizik ukaitea. Beldur nintzan parlamentua, ukanen zuen laidoaz sumindurik, bere erorteaz errabian zen Maine-ko dukearekin baturik, eta elgarren ukaldiak gero eta gehiago tinkatzen zituenean, munduak hutsik gabe gure gain

emanen zituen azken egintza batzuetara joan zadin, gure abantaila kompainia horren gogo-saminduretarik bat bilakatzen baldin bazen. Ezberdintasun guzia senditu nuen bere paregoko lerrora baxtarten jaustea bezalako abantail baten azkartasuneko, Duke Jauna berme ukanen zuena, parlamentua kontra ukaiteko orde, aldiz hunen ohidura eta erregelekin bat zelarik, bertze abantail batekin, osoan (parlamentuko) buruzagietara zuzen emanez, eta haien azpikeriez parlamentura, sinets-araziko baitzaukoten, etzuelarik bemerik ukanen bat ez bertzea ezagutzen etzituen Erreient baten haserrean eta bermetasunean baizik (…) Gogoeta horiek estima-arazi zautaten etzela boneteko egitekoaren ordua, eta behar zela batzuetan doluturik egoiten jakin (…)

Justiziako ohearen biharamunean berean, Duke Jaunak hartu zuen Erregeren erakaskuntzako intendant goiengoa eta hortako kargua bete. Egun guti berantago jarri zen Maine-ko dukeak Teilerietan zuen bizitegian. Justiziako ohearen eguneko arratsaldean Villeroy-ko marexala, Fréjus-ko Jauna eta erakaskuntza guzia lagun, joan zen putinka, nahiz errabian, Condé-ko hotelera, han errespetu malguek alde batetik, eta goresmen alegiazkoak bertzetik, bertze ikusgarri bat eman baitzuten. Biharamunean berean, Errege joan zen "Cours" delakoan ibiltzera han Duke Jaunak lagundu baitzuen, Maine-ko dukearen ordez, eta publikoki karguan sartu baitzen.

Rancé-ko zalduna 84 urtetan galeretako ordezkari izendatua

Aro hautan ukan nituen ahatz eztezazketan bi garazia, ezpaitut hanbat atsegin eta hanbat sendigarria egin dautatenik ukan. Ikusi dateke, *Orhoitzapen* hautako hatsarretan, Trampako abade aipatu eta saindua izana zela barnatukienik miretsia eta errespetatua nuen gizona, eta samurkienik eta elgarrekinenik maitatua: behin ere ikusia enuen anaia bat utzia zuen, eta harekin ehoiz harremanik ukana enuena; ontsa urrundik, eta mota orotan, galeretako aitzindari zaharrena zen; aipamena bildua zuen eta itsaturi-aldearen maitasuna: untzi-alde hortako buruzagi lehen zen, urte anitzez geroz Marzellako portuko manatzalea, eta lauretan hogei-ta-laur edo bortz urtez goititan buru guzia eta osagarri guzia atxikiak zituen. Buruan hartu zuen behar zuela hortaz baliatu Parisera itzuli baten egitera jiteko, ehoiz ezpaitzen han izana dakitanaz. Troyes-ko Jauna izan zen, aitaz haren lehen gusia baitzen, haren ethortzea ikasi

zautana. Izena Rancé-ko zalduna zuen. Ikustera joaitera lehiatu nintzan eta bazkaltzera gomitatzera: Trampako Jaunaren hanbat egite bazuen, nun eskandalarik eman gabe erranen baitut haren maitari erori nintzala, eta irri egiten zela hari behatzetik enindaitekeela geldi ikusiz. Haren solasek etzuten zaharraren egiterik zuten zuhurtziatik baizik, munduko itxura eta jendetasun guziarekin. Bapatez asmatu nuen harendako gauza bitxienaren eta gozagarrienaren egitea: ehoiz etzen galeretako ordezkari jeneral bakar bat baizik izana, saltzen den kargua eta Roye-ko markesak zuena. Deliberatu nuen Erreientari bigarren baten galdegitea Rancé-ko zaldunarendako, haren ondotik kargua gehiago emana izanen etzelakotan, eta alde hortarik gauzak aitzinean ziren moldera itzuliko zirela. Troyes-ko Jaunari aipatu naukon, haren ez jakinean ezpaitzen zerbait egin nezan oneskarri izanen. Ene gogamenak loriatu zuen, eta lagunduko ninduela hitzeman zautan. Aldi berean othoiztu nuen segeretua gu bien artean geldi zadin esperanza hutsalik eta egiazko bihotzminik ez emaiteko, ezin garhai ginezakeen eza baldin bazen: adixkidantzak, azkarra denean, biziki hunkigarri bilakatzen du. Hain ongi aitzineratu nauzkon Orléans-ko duke Jaunari Rancé-ko zaldunaren zerbitzuak, mereximendua, Trampako Jaunaren anaia izaitea, adin handia, haren ohiko gabeko aitzinatzeak ezpaitzezakeen ehori ogenik egin ez behazunik eman, nun, Troyes-ko Jauna han izanez, arinki laguntzen ninduela, behar bada hortako asti guti uzten bainaukon, galeretako bigarren ordezkari jeneral baten egitea ereman bainuen, Rancé-ko zaldunaren ondotik betea izan etzaitekeena, eta hamar mila libera lan-sari, zuenaren gainera. Bozkario bizienak hartu ninduen, eta, uste enuen bezala, Rancé-ko zaldunarenaz handitu zena oraino, ustegabetzea ezin sinetsia ukan baitzuen. Goga daiteke hea erabakia ontsa egina zenez. Bi ilabate Parisen ereman zituen, nahiko nuen baino biziki gutiago, eta bere kargu berriaz oraino zenbait urtez gozatu zen. Baina, behazunak Frantzian lanjerosak baitira, Roannois-ko zaldun eta galeretako eskadra buruzagi lehenaren adinak, karguan lehentasunak, zerbitzuek, sortzeak hanbat oihukatu zuten Rancé-ko zaldunaren heriotzean, nun karguan huni jarraikitzera heldu baitzen azkenean, harekin gelditu dena bizkitartean.

Erreientak eta Dubois Estatuko segeretari berriak Espainiari gerla aithortzen eta Cellamare Espainiako embaxadorea preso

(…) Zortzi egunen buruan Espainiari gerla aithortua izan zizakon bizkitartean.

Zortzi egun horietan, egin nuen geroztik Erreienzia osoan egin eztutana: Orléans-ko duke Jaunaren baitara joan nintzan hirurzpalaur aldiz, eta, orduan baizik ehoiz gertatu etzatana, ehoiz enuen ikusi ahal ukan. Gerlaren beldurra, hara eremana ninduena, herste hortaz handitu zen, ikusi bainuen Dubois-ek zadukala eneganik hetsia. Izkiriatu naukon ikustearen eskatzeko: ihardesterik ez; berriz ere izkiriatu nuen: ahoz erran-arazi zautan, ikusten ahalko ninduen orduko, jakin-araziko zautala. Orduan gauza etsitua zela uste ukan nuen, eta enuen huts egin.

(Gerlaren) berria agertu zen egunean, jakin-arazi zautan nahi nuenean ikusiko ninduela. Erret-Palaziora joan nintzan; aurkitu nuen gizon bat eragozpenean, burua aphal, ahalgez mintzatzera menturatzen etzizatana. Sartzea hotza egin nuen, ixilak hortakotz aski luzaz iraun zuen. Azkenean hautsi zuen mintzoa aphalik "Zer erranen dugu? batekin. - Jeus ez, ihardetsi naukon, gauza eginetan erraiterik ezpaita, ezpaita gehiago hortaz ontsa izan zaiten agiantza egitea baizik (…)"

Cellamare, Espainiako embaxadorea, zentzu eta izpiritu ainitzekoa, aspaldidanik nahasmen ainitzen antolatzen ari zen, Torcy-ko Jaunak postetako eskutitz batzuetan hartu zatietarik ikusten den bezala. Hor ikusten da Alberoni kardinalak zenbatetarano zuen gauza hori buruan, eta zenbat lehiarekin zaukon hari gustatzeko Cellamare-ek ihardesten. Xedea etzen Orléans-ko duke Jaunaren gobernamenduaren kontra errexuma osoaren phiztekoa baino deus gutiago, eta, haren personaz zer egin gogo zuten argiki ikusi gabe, nahi zuten ezarri Espainiako errege Frantziako egitekoen buruan, hark izendatu konseilu eta minixtro batzuekin eta haren azpian Erreienziako ordezkari bat egiazko erreienta izanen zena, eta Maine-ko dukeaz bertzerik etzena. Parlamentuen alde ukaitera zauden, Pariskoaren moldean, (*Unigenitus*) konztituzionearen buruen eta aitzinatzale nagusien, Bretainia osoaren, baxtarten eta Maintenon-go Anderearen uztarriari jarria zen gorte zahar guziaren; eta aspaldidanik etziren ahal zituzten guzien Espainiari lotzera entseatzetik gelditzen, mota orotako lilluramen, agiantza eta ezperanzez. Ikusiko da hartu zituzten neurriak guti arautuak izan zirela holako xede

gotorrarekin. Egia da etzirela onduak izaiterano heldu. Frantziaren eta Espainiaren arteko haustea egitera zoan, behar ziren horren ondorioak lehen bai lehen geldi-arazi eta jazarraldia ahal zuten bezain guti gibelatu. Hatzemanak izan ziren azken neurrien hartzera zoazinean; baina Erreienta eta Estatua hortan bitxiki enganatuak izan ziren, eta Orléans-ko duke Jaunak ezin sinetsizko ahulezia bat erakutsi zuen.

(…)

Poitiers-ko eskutitzak Dubois aphezaren gana heldu eta biharamunean, Cellamare-ko printzeak, nahigabeko gertakari batez abisaturik bere aldetik, baina uste baitzuen oraino banko haustea egina zuen diruzaina haiekin zelakotz zituela bi bidaiari gazteak eta hauen paperrak harr-araziak, bere khexua gorde zuen itxura biziki sosegatu baten azpian, eta joan zen arratsaldeko oren bat eta erditan Le Blanc Jaunaren baitara, Espainiatik itzultzean emana zeen erregeren pasaportekilako eskutitz multzo baten eskatzera. Le Blanc Jaunak, erakaspena molde bat baino gehiagotan eginik ukana baitzuen goizean etxean ikusia zuen Dubois aphezaren ganik, eta gero Orléans-ko duke Jaunaren ganik, elgarrekin ikusia baitzuten, embaxadorearen aldera egin behar zuenaz gerta zaitezkeen aldietan, ihardetsi zaukon paketa ikusirik izana zela, gauza larriak bazirela han, eta, hari itzulia izaitetik urrun, bazuela haren beraren bere hotelera itzul-arazteko manua Dubois aphezarekin, hau, ordu berean Cellamare-ren ethortzea Le Blanc Jaunaren etxera jakinik, laster hara ethorria baitzen. Igan-arazi zuten beraz Le Blanc Jaunaren karrosara, et han harekin sartu ziren. Embaxadoreak, ongi senditu baitzuen etzela horrelako komplimendua egiteko behar zen segurtasun guzia hartu gabe menturatzen, etzuen trabarik batere eman, eta etzituen bere odol hotza eta itxura sosegatua ephe batez ere galdu, haren etxean bulego eta untzieria guzien miatzen eta nahi ukan zituzten paperren berexten eman zituzten hirur orenetan, jeusen beldurrik eztuen eta bere eginaraz segurrean den gizon bat bezala. Le Blanc-i beti ikustate ainitz egin zaukon; Dubois aphezari aldiz, ongi senditu baitzuen jeusen gupidesterik etzela harekin, eta zimarku guzia agertua zela, azken gaitzespena erakutsi nahi ukan zaukon, hartarano nun, Le Blanc untziño bati lotzen ari zizakola: "Le Blanc Jauna, Le Blanc Jauna, utzazu hori, ezta hori zuretako; hori ontsa doako Dubois aphezari," hor baitzen; gero, huni behatuz, gaineratu zuen: "Bere bizi guzian makaela izana da, eztira horiek emazten eskutitz batzu baizik." Apheza irriz hasi zen, khexatzera ezin menturatuz. Cellamare-ek eman

nahi ukan zuen atheraldi bat zen iduriz. Jadanik zahartua zen, bere adina baino ere zaharrago iduri zuen. Bazuen izpiritu, jakitate eta ahalmen ainitz, eta hori guzia azkarrera, lizunkeria motarik batere, eta zuen galanteria guzia munduarekin harremanetakoa zuen, jakin nahi zuenaren zilatzea, Espainiako erregeri alderdikarien egitea eta atxikitzea eta zuhurgabetasunik gabe Erreientaren alderako haserregoaren ereitea; hori zen beraz bakarrik kompainia hoberenetan hautuz sartzera bazeramana. Bertzela, bere etxean irakutzen eta lanean biziki hetsia. Bere bi lagunekin etxera heltzen ari zenean, musketari alde batek hartu zituen atheak eta etxea.

Guzia hartua izan zenean, Erregeren zigilua eta embaxadorearena ezarriak izan ziren bulego guzietan eta paperrak bazaduzkaten untzi guzietan. Dubois apheza eta Le Blanc joan ziren biak Erreientari kondu emaitera, eta embaxadorearen ondoan utzi zituzten musketariak haren eta haren mutileriaren zaintzeko, eta Du Libois, Erregeren ohiko aitorensemetarik bat, beti embaxadoren ondoan baten uztea egiten den bezala gertaldi gaizkorretan. Hunek bazuen ainitz izpiritu eta adimen, eta abantzu beti hautaturik izana zen egiteko trixte horietako.

Goiz huntan etxean ikasi nuen Poitiers-ko hartzea, deus ere jakin ukan gabe han hartuak zirenez. Mahian nintzanean, mutil gorri bat jin zizatan Orléans-ko duke Jaunaren ganik erraitera laur orenetan Teilerietan izan nindadin Erreienziako konseiluko. Ezpaitzen egiten zen eguna, galdegin naukon zer berri zen bada. Hura bere aldetik, ene jakingabeaz ustegabetua izan zen, eta ikasi zautan Espainiako embaxadorea harturik izana zela. Ahamen bat jana ukan nuen orduko, kompainia utzi nuen, Erret-Palaziora joan nintzan, erran berria dutan guzia han ikasi bainuen Orléans-ko duke Jaunaren ganik. Paperrak aipatu nauzkon; Duboiz aphezak zituela erran zautan; etzuela oraino ikhertzeko astirik ukana, ez eta hetaz kondu emaitekorik; zerbait erakutsiko zaukola bakarrik Erreienziako konseiluari, inkesta berak egin nahi ukana zuela gertakari hortaz. Solas horiek eta bertze batzu berdin guti argiek ordua hartu zuten, eta joan nintzan Teilerietan igurikatzera. Ustegabea aurkitu nuen aurpegi batzuetan, elgarrekin bi, hirur edo laurko multxo zenbait; orotara, Espainiako embaxadorearen hartzeko harrabotsaz joak, eta horren baiestera guti ekharriak.

Orléans-ko duke Jauna guti berantago ethorri zen. Bazuen, ezagun dutan edozein gizonek baino hobeki, elhearen antzea, eta, aitzinlanik batere behar gabe, nahi zuena bazerran, ez gehiago ez gutiago;

hitzak zuzen ziren eta argi, jitezko garazia batek laguntzen zituen, zenaren itxurarekin, beti jendetasunezko aire batekin nahasirik. Konseilua ideki zuen Poitiers-en hartuak izanak ziren jendez eta paperrez, Estatuaren kontrako zimarku bat biziki lanjerosa agertu zutenak, lehertzera zoana, aitzinatzale nagusia Espainiako embaxadorea zuena (…)

Dubois aphezak ixtorio labur eta gaizki arautu bat ahopiatu zuen embaxadorearen etxean aurkitua zuenaz, eta gehiago hedatu zen aurkintza horren phizuan eta jadanik zimarkuaz ikusten zenarenean. Irakurri zituen bi eskutitzek etzuten Cellamare zela egiteko horren buruan dudatzera utzi, eta Alberoni hura bezain barna sartua zela. Biziki gaitzitu zen ere eskutitz horien itzuliez Orléans-ko Jaunaz, ezpaitziren gupidatsu ez gauzetan ez hitzetan.

Printze horrek hitza berriz hartu zuen erakusteko neurri ainitzekin etzuela batere uste Espainaiko errege 'ta erregina mota hortako egiteko batean sartzen zirela; etzuela hori Alberoniren gogo gaitzaren gain baizik emaiten eta hari gustatzeko embaxadorearen, eta Haien Maiestate Katolikoer justizia geldeginen zeela.

(…)

Negilaren 13-ko asteartean, atzerrietako minixtro guziak Erret-Palaziora zoazin eguna, eta Cellamare preso hartu eta lehenbiziko asteartea, guziak han izan ziren, embaxadore 'ta bertze. Bat etzen gertatua zenaz deitoratu; guzier eman zizeen konseiluan irakurriak izanak ziren bi eskutitzen kopia. Bazkal-ondoan, Espainiako embaxadorea karrosa batera igan-arazi zen Du Libois-rekin, zaldieriako kapitain batekin eta dragonetako batekin, haren Blois-era eremaiteko hautatuak, eta han harekin egoiteko Saint-Aignan-go dukearen (*) Frantziara ethortzeko berriak ukanak izan arteo. Zenbait egun ondotik, Sandraski, zaldieriako brigadiera eta uzardetako koronela, Seret uzardetako bertze koronel bat, eta bertze aitzindari ttipiagoko batzu Bastillara eremanak izan ziren.

(*) Frantziako embaxadorea Madrilen (*Itzultzalearen oharra*).

Maine-ko duke 'ta dukesa preso

1. Eguberri eguneko konseilu ttipia Erret-Palazioan

Negilaren 25-eko igandean, Eguberri eguna, Orléans-ko duke Jaunak manatu zautan bazkal-ondoan haren etxean gerta nindadin, laurak hirian. Duke Jauna, Antin-go dukea, zigiluzaina, Torcy eta Dubois apheza han gertau ziren. Gauza batzu eztabadatu ziren Cellamare-ez eta haren bidaiaz, atzerriko ministroen zinkurinen baztertzeko behar ziren neurriez, nahiz etzuten hortako gutiziarik batere; Espainiako erregeri ukanen zela uste etzen justiziaren galdatzeko araz; azkenik parlamentuaren errexixtratzerik gabe egoitekoaz, eta erret-bankoaren hori gabe segurki jartzekoaz. Hori guzia erabili zen Erreientaren aldetik gogo berdintasun eta libertate batekin, ezpaininduen bertzerik ere bazela asmatzera utzi. Konseilu ttipi horrek azki luzaz iraun zuen. Bururatua izan zenean, bakoitza joan zen. Abiatzen ari nintzalarik bertzeak bezala atheratzeko, Orléans-ko duke Jaunak dei egin zautan, eta gertatu nintzan bakarrik Orléans-ko duke Jaunarekin eta Duke Jaunarekin. Berriz jarri ginen. Neguko gabinet ttipian zen, galeria ttipiaren buruan. Ixil ephe baten ondotik, erran zautan so egin nezan etsenez nehor galeria ttipi hortan gelditurik, eta buruko athea, handik sartzen baitzen etzaten zen bizitegira, hetsia zenez. Ikustera joan nintzan; hala zen, eta nehor ez galerian.

Hori jakinik, Orléans-ko duke Jaunak erran zaukun ezkinela ustegabetuak izanen Maine-ko Jauna eta Anderea luze luzea Ezpainiako embaxadorearen egitekoan baziren, hortan idazkizko phoroguak bazituela, egin gogo zutenean gorago argitua dutana baino gutiagokorik etzela. Gaineratu zuen ontsa debekatua zeela zigiluzainari, Dubois aphezari eta Le Blanc-i hori bazakitelako den aieru ttipiena eman zezaten, gu bier segeretu bera eta oharpen bera gomendatu zaukun, eta nahi ukana zuela ere, deusetara deliberatu baino lehen, Duke Jaunarekin eta enekin zer egin beharko zen ikusi. Gogatzen nuen bada ene baitan, bertze hirur gizon horiek gauza bazakitenaz geroz, etzela haiekin arrazoinkaturik izana gabe, eta behar bada bere alderdia jadanik Dubois aphezarekin harturik; Duke Jauna nahi zuela konfienxiaz lausengatu eta hortan eginen zuen guzian erdizka ezarri; ene gana aldiz, hirur horiekin bakarrik ez gelditzeko egin behar zenaz enekin egiazki eztabadatu, eta beti ohitua baitzen, hemen beti ikusi den bezala, eni gauza segeretuko gotorrenen jakin-arazten laster deliberatzea galdegiten zutenean eta gehienik bera era gozpenean ezartzen. Duke Jauna berehala gauzara zuzen joan zen, eta erran zuen biak hartu behar zirela eta haien ganik ezeren beldurtzeko izanen etzen lekuan ezarri. Aburu horren alde izan

nintzan eta ordu berean ez eginez izanen ziren behargabe lanjerosen, hanbat zimarku guziaren burxoratzeko eta nahasteko buru zituenak ekhenduz, horiek biak ziren bezala eta Cellamare jadanik hartua eta eremana, nola bere burua agertua ikusten zuten jende hoin lagunduen ukaldi lasterrezko eta etsipenezkoetarik gerizatzeko (…)

Orléans-ko duke Jaunak alderdi hoberen-hoberena zela aurkitu zuen, baina Maine-ko Anderearen lerroari oharr-arazi zuen, gutiago zinez nola hunen anaiaren semea mintza-arazi nahiz. Duda horrek biziki ondorio ona ukan zuen (Duke Jaunak) izabaren eta haren senarrarendako zuen herraren gatik, biek zabalki merexitua zutela aithortu behar baita, eta ere Estatuaren iraultzera zeraman egitekoaren nolatasunaz (…)

Deliberamendu hortaz solas batzuen ondotik, nun ohatuko ziren izan zen. Bastilla eta Vincennes etziren egoki iduritu, behar zen hoin tentamendu hurbila Parisen zituzten alderdikarietarik, parlamentuaren omoretarik, buruzagi lehenak eginen zituen jukutrietarik baztertu. Lekuak eztabadatu ziren, ezen hartu behar zirela, eta bat bertzearen ganik berexi aldi batez deliberatua baitzen. Maine-ko dukearen ohatzeaz ari izan zen lehenik; aipatu ziren lekuetan, Orléans-ko duke Jauna Dourlens-ez mintzatu zen. Izen hori hartu nuen, Charost eta haren semen zirela han gobernari aitzineratu, ethorki leialeko gizonak zirenak, eta nihaurek enuela haien zuzenaz, bertuteaz, Estatuari atxikimenduaz ihardesteko beldurrik, eta Charost betidanik ene adixkide berezia. Hitz hortan, Maine dukearen igortzea Dourlens-era onhartua izan zen, eta han hertsirik atxitzea, eta ontsa hertsiki zaindua.

Gero Maine-ko Anderearen ohatzera iragan zen. Aitzineratu nuen hau hautatzeko biziki nekeago zela ari zen jendearen lerroaz, emaztetasunaz ete omoreaz, ihes egiteko eta beldurrik gabe errabiatzeko eta orotara abiatzeko gai zena, bai bere jitezko kuraia eta oldeaz, eta beretako deusen beldurrik gabe izaiteaz emaztetasun eta sortzearen gatik, senarra aldiz, azpiz hain lanjerosa, agerian hain gaitzeskarria, azken heinera eroriko zela eta han urkabearen beldur etengabean bere soin guziaz ikaran egonen zen presondegian ez higituko. Leku batzu eztabadaturik, Orléans-ko duke Jauna erdi-irriz hasi zen, Duke Jaunari behatzen eta hari behar zuela bada lagundu erraiten, beretik eman zezan, Estatuaren eta bere egitekoa zuela Erreientarena bezenbat, eta berehala Dijon-go gaztelua aitzineratzen dauko. Duke Jaunak eskaintza bitxia aurkitu zuen, Maine-ko Anderea leku ezin gehiago segurrean ezarri

behar zela baietsi, baina bere izabaren presozain izaitea, hori ezin onhartua zela. Bizkitartean hori erdi-irri batekin erran zuen ere, eta eman zaukon Erreientari berrhetzeko aldia. Duke Jaunak berea zaintzen zuen, hitzik enion, eta begi guziez so nindagon. Azkenean Duke Jaunak galdegin zautan etzuenez arrazoin. Erdi-irriz hasi nintzan ere eta ihardetsi nuen arrazoin zuela enezakeela uka eta are gutiago Orléans-ko duke Jauna arrazoinean zela ere eta handiagoan eta hobean (…) Luzaz ezpaian egon zen Orléans-ko duke Jaunak eta nik erran ahal ginakon guziari, hortan ikustateak ukan baitzuen, haien artean iragana zen guziaren ondotik, egiazko higuntasunak baino zer ikus gehiago. Bere burua garhaitzera utzi zuen ere azkenean, eta onhartu zuen bere izaba maitearen presondegi hertsia Dijon-go gazteluan; hori guzia deliberaturik, eta ephe laburrean egitekotan, elgarretarik berexi ginen.

Ondoko astelehena eta asteartea, negilaren 26-a eta 27-a, behar ziren neurrien hartzen eta manuen emaiten iragan ziren, behar zen segeretu guziarekin (…)

2. Maine-ko duke 'ta dukesa preso hartuak bere alderdiko batzuekin

Negilaren 29-ko astezkenean, Erret-Palaziora manatua izan nintzan, bazkal-ondoko, Orléans-ko duke Jaunaz, Duke Jaunarekin, Dubois aphezarekin eta Le Blanc-ekin, neguko gabinet ttipian. Azken neurrien hartzeko zen eta harturik izanak ziren guzien laburpeneko. Solasetan ginelarik, Maine-ko dukea jin zen Sceaux-tik Orléans-ko dukesa Andere (bere arrebaren) ikustera, eta, harekin oren batez mintzatu eta, Sceaux-era itzuli zen. Maine-ko Anderea zenbait egun hetan Parisen gelditua zen, Saint-Honoré karrikako etxe aski bien arteko batean, alokatua zutena. Parisko erdigunea zen. Hor zelatan zagon eta bere adixkiden helbideko bulegoan, senar beldurtia ezpaitzen hortan fidatzera menturatua. Orléans-ko duke Jaunaren baitako solasaldia aski luzea izan zen. Guzia ikusia izan zen eta behin betiko arautua biharamunean eginen zeneko. (…) Gabinetetik jalgitzean, hitza hartu nuen Le Blanc-ekin, ukaldia emana izanen zeneko, lakaio bat xoilki igorriko zuela ene berrien jakitera.

Biharamunean, goizeko seiak hirian, gorputzeko zaintzale batzu hel-arazirik Sceaux-ko inguruetara harrabotsik eta agertu gabe, La Billarderie, gorputzeko zaintzalen ordezkaria, hara joan zen eta Maine-ko dukea hartu zuen, meza bere kaperan entzunik atheratzen ari zela, eta errespetu ainitzekin othoiztu zuen etxera sar etzadin, eta berehala

ekharria zuen karrosara igan. Maine-ko Jaunak, etxean ez haren jendetarik batenean ezer aurki etzadin behar zena egina baitzuen, eta Sceaux-en bere mutilekin bakarrik izanez, etzuen den gutieneko ihardokitzerik egin. Ihardetsi zuen zenbait egun hetan komplimendu horren beha zagola, eta ordu berean karrosara igan zen. La Billarderie haren ondoan jarri zen, eta aitzinean gorputzeko zaintzaletako azpi-aitzindari bat et Favancourt, musketarietako lehen kompianiaren brigadiera, presondegian atxiki behar zuena.

Maine-ko dukearen karrosaren aitzinean ezpaitziren igaiteko orduan baizik agertu, Maine-ko dukeak Favancourt ikusiz ustegabetua eta hunkia iduritu zuen. Etzen hala izanen zaintzaletako azpi-aitzindariaren ikusteaz; baina bertzearenak aurdiki zuen. La Billarderie-ri geldegin zaukon horrek zer erran nahi zuen, ezpaitzaukon orduan gorde ahal ukan Favancourt-ek bazuela hari jarraikitzeko eta zoazin lekuan harekin egoiteko manua. Favancourt aldi hortaz baliatu zen bere komplimenduaren ahal zuen bezala egiteko, Maine-ko dukeak abantzu deus ezpaitzaukon ihardetsi, nahiz ara ikustatezko eta beldurtuan. Solas horiek ereman zituzten Sceaux-ko ethorbidearen bururano, hor gorputzeko zaintzaleak agertu baitziren. Ikusteak Maine-ko dukea kolorez alda-arazi zuen.

Karrosan ixila hautsia izan zen. Artetan, Maine-ko Jaunak bazion haren kontra ziren aieruez osoki ogengabe zela, Erregeri biziki atxikia zela, etzela gutiago Orléans-ko duke Jaunari, ezpaitzen hori aithortu gabe egonen ahal, eta ontsa zorigaiztun zela Haren Erret-Goitasunak haren etsaietan sinesten baitzuen, baina nehor ehoiz izendatu gabe: hori guzia zotinka eta hasperen andana baten artetik, noiztenka gurutzearen seinale batzu eta othoitzez bezalako marmarika batzu ahapetik, eta beheti murgilduz iragaiten ziren eliza edo gurutze bakoitzean. Haiekin karrosan aski guti jan zuen, arratsean bakar-bakarrik, eta artha ainitz etzateko. Etzuen biharamunean baizik Dourlens-era zoala jakin. Hortaz jeus etzuen erakutsi. Gertaldi horiek guziak eta atheraia izan zenean haren presondegikoak azkarki ezagutzen nuen Favancourt horren beraren ganik jakinak ditut, hark baitzautan armadako aria ikasia, eta Crenay-ko brigadako brigadier-azpiko baitzen, brigada hortan berean nintzanean, eta geroztik beti gorte egina baitzautan. Maine-ko dukeak ukan zituen bi morroin berekin eta abantzu beti begiz zaindua izan zen.

Hartua izan zen ordu berean, Ancenis, bere aita Charost-ko dukeak zuen gorputzeko zaintzaletako kapitain karguaren iraupena ukan

berria zuena, joan zen bere etxean, Saint-Honoré karrikan, Maine-ko dukesaren hartzera. Gorputzeko zaintzale oinezkoetako ordezkari bat eta azpi-aitzindari bat, eta gorputzeko zaintzale multzo bat aldi berean agertu ziren, eta etxeaz eta athetaz jabetu. Ancenis-ko dukearen komplimendua saminki hartua izan zen. Maine-ko Andereak nahi ukan zituen untxi batzu hartu. Ancenis-ek etzuen onhartu. Galdatu zituen bederen bere harrieriak: aharra gora-gora alde batetik, biziki laño bertzetik; baina amor eman behar izan zen. Haserretu zen haren lerroko jende bati egin bortiztasunaz, Ancenis-i sobera gaitzigarririk deus erran gabe eta nehor izendatu gabe. Abiatzea ahal bezenbat luzatu zuen, Ancenis-ek hertsaturik ere, hunek azkenean eskua aitzineratu baitzaukon, eta erran jendeki, baina bermuki, abiatu behar zela. Athean bi karrosa handi aurkitu zituen, biak sei zalditakoak, horien ikusteak azkarki gaitzitu baitzuen. Igan behar izan zen alta. Ancenis sahetsean jarri zizakon, ordezkaria eta azpi-aitzindaria aitzinean, bi emazte gelari, hautatu zituenak, bere jantziekin, miatu zirenak, bertze karrosan. Hiri-harresietarik abiatu ziren, karrika handiak utzi: nehor etzen higitu, ezpaitzen hortaz ustegabea eta hisia erakutsi gabe egon hal izan, nigar bat etzuen utzi, eta zotinka ari izan zen egina zizakon bortizkeriaz oihukatzen. Usu deitoratu zen karrosaren idorraz eta ahalgegarriaz, eta artetan nora zeramaten galdegin zuen. Essonne-en etzanen zirela erranez gelditu ziren, gehiagokorik deus erran gabe. Hirur zaintzaleak ixil osoan egon ziren. Etzaterakoan behar ziren artha guziak hartu zituzten. Biharamunean abiatu zelarik, Ancenis-ko dukeak agurtu zuen, eta gorputzeko zaintzaletako ordezkariari eta azpi-aitzindariari utzi gorputzeko zaintzale batzuekin lagundua izaiteko. Nora zeramaten galdegin zaukon: ihardetsi zuen bakarrik: "Fontainebleau-ra", eta Erreintari kondu emaitera jin zen. Maine-ko Anderearen khexua Paristik urruntzen ari zen arau handitu zen; baina Burgoñan zela ikusi zuenean, eta azkenean Dijon-era zeramatela jakin, ainitz oihu egin zuen.

Ontsa gaitzago izan zen gazteluan sartu behar izan zenean, eta bere burua Duke Jaunaren giltza-pean preso ikusi zuenean. Haserreak itho zuen. Ilobaz errabian mintzatu zen, eta lekuaren hautu lazkarriaz. Bizkitartean, lehenbiziko oldar horien ondotik, bere baitaratu zen, eta etzela hoinbertzetarano errabiatuaren egiteko lekuan ez izanaran gogoan hartu zuen. Errabia amorratu hura golkoan sartu zizakon, eta etzuen gehiago ez hunkiarena eta segurtasun gutiesle bat baizik erakutsi. Gazteluko Erregeren ordezkariak, guzia Duke Jaunarena, azkarki

hertsian atxiki zuen, eta biziki hurbildik zaindu hura eta haren bi gelariak. Dombes-ko printzea eta Eu-ko kondea (*) aldi berean Eu-ra urrunduak izan ziren, han ukan baitzuten beti aitorenseme ohiko bat ondoan, eta Maine-ko Anderaurena (*) Maubuisson-era igorria.

Haren adixkide ona, Polignac-eko kardinalak, harekin orotan zela uste izan baitzen, ukan zuen goiz berean berehala Anchin-go bere abadiara abiatzeko manua, Erregeren aitorenseme ohikoetarik bat lagun, harekin egon baitzen Flandres-etan izan zeno; kardinala goiz haren beraren azkenera abiatu zen. Ordu berean, Davisard, Tolosako parlamentuan abokat jenerala, Maine-ko dukearen aldeko eta odoleko printzen kontrako idazki batzuez bere buruari oharr-arazia; Parisko bi abokat aipatu, bat Bargetton izenekoa, horietan harekin lan egina zutenak; Montauban-go Anderauren bat, Maine-ko Andereari ohoreko neska bezala eratxikia, eta lehenbiziko emazte gelari bat, hautetsia, konfidenxiakoa, eta izpiritu ederraren aipamenekoa, Maine Jaun-Anderen bertze sehi batzuekin, Bastillara eremanak izan ziren.

(*) Maine-ko Jaun-Anderen hirur haurrak. (*Itzutzalearen oharra*)

Frantziako embaxadoreak Madrildik Donibane-Garazira ihes egiten du

Saint-Aignan-go dukea, goga daitekeen bezala, Madrilen biziki gaizki zen, bi gorteak elgarren artean ziren izanaraz, eta Alberonik Espainian Orléans-ko dukearen kontra atxikitzeko bere baitan lege egina zuen herraz, haren egintza guziez gaitzerraiteaz, gobernamenduaz, bizi moldeaz, ogen gutienik etzuten egintzez, eta Espainiaren aldekoenak zituen urrats eta elgarri hurbiltzera zeramatenetarano. Lehen minixtro horrek etzatxikan ere aspaldidanik Saint-Aignan-go dukearekin neurririk batere, Madrilgo gortearen eskandala handitan, eta Frantziaren aldera gutienik ekharriak zirenen ere. Embaxadorea etzagon bere eginararen zuhurtziari esker baizik, eta itzul-arazten zuten manuez loriatu zen. Abiatzeko entzunaldia galdegin zuen beraz, eta, anartean, bere adixkide guzier eta gorteari egin zeen. Alberonik, ordu oroz zimarkuaz Cellamare-en ganik berri baitezpadako batzuen aiduru baitzagon, nahi zuen Frantziako embaxadorearen personaren jabe izan, behargaberik baldin bazen, gertatzen ahal zizakonetik Espainiako embaxadorearen gerizatzeko. Abiatzeko entzunaldi hori gibelatu zuen beraz estakuru

batzuekin. Azkenean Saint-Aignan, ukan zituen manu errepikatuez hertsatua, eta hanbat gehiago argiak nun dudatzen hasten ari baitziren ephe guti barne ukaldi zenbait eroriko zela Cellamare-ren gainera, kardinalari mintzatu zizakon bermuki, eta erran, ezpazaukoten abiatzeko entzunaldia eman nahi, gabe egoiten jakinen zuela. Hortan, kardinalak haserrez ihardetsi zaukon mehatxatuz horren debekatzeko zer egin jakinen zutela bada. Saint-Aignan zuhur izan zen eta bere hartan egon; baina ikusiz nolako gizonaren menean zen, eta Madrilen atxikitzeko mixterioaz arrazoinekin gogatuz, bere neurriak hain ongi eta hain segeretuki hartu zituen, nun gau hartan berean abiatu baitzen, eta Pirenetako oinetara heldu hatzemana eta hartua izana ahal zaitekeen baino lehen, ontsa gogatzen baitzuen Alberonik, gizon neurri gabea zen bezala, etzuela haren hartzera gibeletik igortzea huts eginen.

Saint-Aignan-ek, jadanik hanbat zorionekin aitzinatua, etzuen uste ukan luzazago irriskutan egoiteko ordu zela, eta mendi horien artean karrosen traban. Bera eta dukesa emaztea, emazte gelari bat eta hirur mutil gibeletik, bidari ontsa segur batekin, mando batzuetara igan ziren Donibane-Garazira heltzeko bidenabar alhatzeko behar zen ephe batzuetan baizik ez gelditu z. Karroseriari manatu zaukon Iruñera bere gostura joan zaiten, eta bere karrosan ezarri zituen gambarako mutil bat eta emazte gelari bat gogoz erneak, bere buruak embaxadore 'ta embaxadoresarentzat harr-araz zizaten manaturik, hartzera jiten baldin balizezteen, eta ontsa gora oihu egin. Etzuen gauzak huts egin. Alberonik haien ondotik igorriak zituen jendek karroseria batu zuten biziki guti berantago. Alegiako embaxadore 'ta embaxadoresak biziki ontsa egin zuten bere jokoa, eta gelditu zituztenek etzuten bere hartzea egina zutela dudatu, abisua Madrilera igorri baitzuten, eta ontsa zaindu zuten hara itzul-arazia zuten Iruñen.

Enganio horrek salbatu zituen Saint-Aignan-go Jauna eta Anderea eta eman zeen Donibane-Garazira heltzeko aldia. Han izan zireneko, karrosa eta laguntza eskatzera igorri zuten Baionara, hara joan baitziren segurtasunean eta han bere akidurez atseden hartu baitzuten. Saint-Aignan-go dukeak jakin-arazi zaukon mezu batez Orléans-ko duke Jaunari, eta Baionara heldua zela erraitera igorri zaukon Iruñeko gobernariari, eta karroseria tzul-araz zezon othoiztera: han enganatuak izanik ontsa ahalgetu ziren. Karroseria Baionara itzulia izan zen. Baina Alberoni erotzeko haserrean sartu zen eta hutsa gogorki zigorr-arazi zuen.

1719

Espainiako gerlako ageria Fontenelle-ek idatzia, eta gerlaren eta Erreientaren kontrako idazkiak Frantzian

Inharrosaldi hori guzia ari zelarik, Espainiaren kontrako antolamendua agerian zen. Stairs, Kœnigseck eta Dubois aphezak horren ezagun-arazteko behar zena egina zuten deliberatua izan zeneko, gibelera itzultzeko biderik izan etzadin, Erreientaren bortxatzeko berehala gerlaren aithortzera, eta ordu berean horren ondorioz egiteko zenera. Dubois-ek, beti Fontenelle-en lumaz baliatzen baitzen, hain ezaguna zuen izpirituaz, hizkuntzaren garbiaz eta idaz-lan akademikoez, gerlaren aithortzeko aitzinean berehala egin behar zen ageria egitera eman zaukon. Erreienziako konseiluan erakutsi baino lehen, Orléans-ko duke Jaunak bildu ginituen bere gabinetean Duke Jauna, zigiluzaina, Dubois apheza, Le Blanbc eta ni, haren ikhertzeko. Hortako eman zautan manuaz ustegabetua izan nintzan gerla horren kontra hain azkarki errana naukon guziaren ondotik. Duke Jauna, Erreientarekin hain hertsiki jarria justiziazko oheaz geroztik, hor zen itxura egiteko, eta Argenson eta Le Blanc Dubois aphezaren bi esku-mutilak bezala. Enuen beraz batere gogora eman zerk ninduen hor borzkarrenetako onharr-arazten, ezpazuen bederen Dubois-ek gutiesteko ahalik ez ausartziarik etzuen (ni bezalako) gatibu batez bere irabazaldia aphaindu nahi ukana, eta bere nagusiari erakutsi etzela haren aburuko etzirenez gaitzitua, edo Erreientak, enekin ahalgez, ikustate ttipi hori egin nahi baitzautan, eta beharbada ene laguntzaz baliatu ageriaren hitz azkarregien eztitzeko.

Le Blanc-ek idazkiaren irakurtzea egin zuen emeki. Hautsi nahi izan zen aldaketa zenbaiten egiteko. Eskaini nuen guzia jarraikian entzun zadin osoan eta erran-nahi guzian hartzeko, bakoitzak bere oharrak egin bere baitan, eta bigarren irakurtzea hautsi eta zuzen uste zena erran: ara hortan egina izan zen. Idazki hori izan behar zuena izan zen, erran nahi da maskatua, aphaindua, baina azpi-hariaren erakusterano urrikalgarri, edozein antzek ezpaitzezakeen zola gorde ez eta publikoari deus onhargarririk erakuts; bertzela, ahal bezain ongi izkiriatua, Fontenelle-ek ezpaitzezakeen gaizki egin. Aski arrazoinkatu zen, guti ondorioztatu, gauza guti aldatu. Ageri eder hori bi egun berantago Erreienziako konseilura ekharria izan zen. Aho batez iragan zen, Erreientak hara

bazekarren guzia bezala. Jendea etzen hoin molda-errexa izan. Oraino gutiago hala izan zen gerlaren aithortzean, Espainiaren kontrako ageriari ephe gutiz jarraiki zizakona (…)

Batasun laurkuneko antolamendua gero berehala moldizkitua izan zen, ezpaitzuen baimenik ukan. Angeleterrak gerla aithortu zaukon aldi berean Espainiari, eta Holandak etzuen luzatu batasun laurkunera sartzen, erran nahia da Frantzia, Emperadorea, Angeleterra eta Holanda. Etzen Espainiako erregeren eskutitz bat agertu gabe izan, Parisen egina, Orléans-ko duke Jaunarendako biziki laidagarria, eta berehala azkarki hedatua izan zena Parisen eta probinzietan, Espainiako erregek zer zen ere etzakielarik, Espainia guziak bezala. Laster bertze idazki batez jarraikia izen zen, Parisko selairu zenbaitetan egina, nahasmenen sustatzera entseatzeko Espainiako gerlaren ariaz, dirutzetako adminiztratzearen kontra orotako khexuarenaz, eta (*Unigenitus*) konztituzionearen alde eta kontrako alderdienaz, ezpaitziren hartan Erreientaren bizi-moldeak eta eginara gupidesten. "Errega katolikoaren 1718-ko negilaren 25-eko aithormena"-ren gezurrezko izena zuen. Parlamentua, azken justiziazko oheaz saminii orhoit baitzen, eta aldi berean hortaz oraino ikaran, etzen bigarren idazki ixilik egoitera menturatu, lehenbizikoan egina zuen bezala, baina ere justiziaren zigor handienak merexi zituen idazki baten ekhentzea aski ukan zuen jazarle eta gezurrezko bezala. Orléans-ko duke Jaunak idazkia eta parlamentuaren erabakia berdin gaitzetsi zituen; etzuten beraz fortunarik batere ukan.

(…)

Erregeri Espainiako erregek delako eskutitzak, Cellamare-ri Erregeren eskuetan eman zezan manatua zizakona, erregen arteko bide ohikoa baita elga rri mintzatzeko eta erasia egiteko, egiazkoaran itxurarik ezer eluke, estiloa bi monarka handien artean egoki dena izaiten ahal baliz. Idazki hain bitxi horren irakurtze xoilak du beraz Espainiako erregeren ganik heldu delako uste izaitetik ez gai egiten, eta Sceaux-ko gabineteko izpirituaren eta elhekatzearen biziki gai. Idazki horiek harrabotsa eman zuten, eta berehala berez erori ziren. Orléans-ko duke Jaunak gaitzetsi zituen, eta etzen batere hunkia izan.

Etzen berdin gertatu abantzu ordu berean agertu ziren bersu batzuez *Philippiques* izenaren azpian, eta laster eta nasaitasun handiz hedatua izan zirenak. La Grange, lehenago Conti-ko printzesa Errege (zenaren) alabaren nerabe hazia, izan zen egilea, eta etzuen ukatzen.

Ifernuak bota dezakeen egia eta gezur guzia neurtitz ederrenetan erraiten zuen, estilko poetikoenean, eta asma daitekeen antze eta izpiritu guzian. Orléans-ko duke Jaunak jakin zuen eta olerki hori ikusi nahi ukan, ezen idazkia luzea zen, baina etzen hortara heldu, nehor ezpaitzizakon erakustera menturatu.

Aldi bat baino gehiagotan aipatu zautan, eta azkenean ekhar nezon hain azkarki manatu, nun ezpainuen ez erraiteko biderik ukan. Ekharri naukon beraz, baina irakurtzea, ehoiz eginen enaukola erran. Hartu zuen, eta irakurri han ginen bere neguko gabineteko leihoan xutik. Irakutzean zen bezelakoa aurkitu zuen, ezen artetan gelditzen zen hartaz mintzatzeko biziki hunkia zela iduritu gabe. Baina bapatean, ikusi nuen aurpegiz aldatzen eta nigarra begian enegana itzultzen, eta aldixartzekotan. "Ha! erran zautan, sobera da, itsuskeria hau ni baino azkarragoa da." Gaixtaginak Orléans-ko duke Jauna Erregeren pozoindatzeko xedetan, eta bere gaizkintzaren egitera prest-presta erakusten duen gunean zen. Hor ditu idazleak berrhetzen gemena, poesia, dei egiteak, ederza izigarri eta lazkarriak, ahapaldiak, Erregeren gaztetasunaren, ogengabetasunaren marrazki hunkigarriak eta emaiten zituen esperanzenak, erahiltzalearen eskuetarik hoin bitima maitearen salbatzeko nazioneari othoitzak; hitz batez antzeak duen arinen, samurren, azkarren eta beltzen, ospedunen eta hunkigarrien guzia. Orléans-ko duke Jauna hartara eroria zen ixil ilunaz baliatu nahi ukan nuen paper hastiagarri horren ekhentzeko, baina enuen egin ahal ukan; hoin itsuskeria lazkarriaz deitoratze zuzenetara eman zen, Erregerendako maitasun samurrera, eta gero irakurtzea bururatu nahi ukan zuen. Eztut ehoiz gizon bat hain hartua ikusi, hain minki hunkia, zuzengabe hain gotorraz eta hain jarraikiaz hainbertze lehertua. Nihaur ere, neure baitarik joana nintzan. Hura ikusiz, aitzin-gogoan gehienik zirenek, gogo onez baizik izan etziten ber, ogengabetasunari eta hartan murgildua zen gaizkintzaren hastioari amor emanen zuten. Neure baitaratzen lanak ukan nituela garbiki erraitea da, eta munduko neke guziak apur bat bere baitara haren itzul-arazten.

La Grange horrek, berez edozein moldetan ezer balaio etzuena, baina olerkari ona zena, eta hori baizik ez, eta behin ere bertzerik ez izana, horren gatik Sceaux-ra zilatua zuen, eta han Maine-ko Anderearen hautetsi handietarik bat bilakatua. Hunek eta senarrak jakin zituzten haren bizia, eginara, bizi moldeak eta gaixtaginkeria saldua. Ontsa baliatu zituzten. Guti berantago hartua izan zen eta Santa Margaritako irletara

igorria, handik jalgitzeko baimena ukan baitzuen azkenean Erreienzia bururatu baino lehen. Ukan zuen bere buruaren Parisen orotan erakusteko ausartzia, eta, han ikusgarrietan eta leku publiko guzietan agertzen zen bitartean, Orléans-ko duke Jaunak hil-arazia zuela erraiteko ozarreria ukan zuten. Orléans-ko duke Jaunaren etsaiak eta printze hori berdin ezin akituak izanak dira: lehenbizikoak itsuskeria ilunen guzietan, hau barkamendu debaldekoenean, hitz errankorrago batez ez erraiteko.

Frantziako armada Pasaiako portuan

Saint-Georges-ko zalduna (*) biziki ontsa hartua izana zen Espainian. Alberoni, Angeleterraren kontra errabiatua, eta atherabiderik ezpaitzuen nahasmenak han sustatuz baizik, untzi-alde bat harma-arazi zuen; baina, itsasoratua izan zeneko ekaitz batek barreatu zuen eta biziki gaizki erabili. Bitartean Maréchal, Tullybadine eta Seaford lordak, Pasaiako portutik abiaturik harma ainitzekin fregata batzuetan, ontsa helduak ziren Eskoziara.

Alberonik azkartzen hasia zuen Pasaiako portu hori, eta han baitzuen itsaso handiko untzi-eraikuntzaren bil-leku handiena, Angeleterraren bekaizkeriako arrazoin segeretukoa zen kardinal hori Espainako untzieriaren berriz jartzera serioski ari izana zenaz geroztik. Angelesek etzuten untzieriarik jasan nahi Europako edozein erresumetan. Nahi zutenera helduak ziren Dubois aphezak zuen abantailaz Frantzian bat molda etzadin zinez ukanik, eta zen gutia erortzera utz. Espainiako untzieriaren hondatzea biziki handiagoko angeles batez Neapoliz eta Zikiliaren laguntzera joitearen arrazoinak egina zuen Emperadorearen abantailenganako atxikimenduak bezenbat bederen; eta batasun laurkunaren ondorioz Espainiari gerlaren aithortzeak zuen ikuspegi nagusia Pasaian bersortzen ari zen Espainiako untzieriaren aurdikitzea zen. Holandarekin Angeleterraren batzeak etzuen korona hau errepublika horren gainean zuen lehentasunaz gehiegi baliatzetik debekatzen, eta itsas-ibilaldi eta sal-erospenetako trabaz horri usu deitoratzeko aldien emaitetik, eta libertateko herri horietako gogo argienek sendi zuten batasun lehoindar horren phizua, eta, behin Angeleterrak nahikaria bezenbat ahal baldin bazuen, etzuela haien untzieria hobeki erabiliko, Europan untzieriadun bakarra izaiteko xedetan. Hori zen Holandesak batasun laurkunetik hain gibel egoitera ekharriak zituena, ezpaitziren hartan azkenean sartuak, berant eta

nahigabetara bezala baizik, Espainiako untzieria bersortzen ari zenaren barreatzeaz gaitzituak baitziren, eta guzia gehienik hortara zoala baitzakusaten.

Alabainan, Cilly Bidasoako gaztelu ttipi zenbaitez jabetua izan zeneko, segeretuki eta bapatean Pasaiako portura abiatu zen, hartu zuen eta (portuaren) zaintzeko hasiak ziren gazteluak ere, lantegietan ziren bederatzi untzi erre zituen, bertze zur meta gaitzeko bat eta eraikuntzetako behar ziren gauza guziak ere, eta etzuen balia zaitekeeen den gauza ttipiena utzi. Ukaldi horrek Angeleterra bozkaria-arazi zuen, eta Dubois-en buruan (kardinal) xapelaren segurtasuna jarri. Gudaldi hilgarri hortaz bozkario hastiagarri bat erakutsi zuen, eta Frantzia osoak nehork gorde ukan nahi etzuen bihotz-min bat, eta Erreienta zenbait egunez eragozpenean ezarri zuena. Helburu handi hori betea izanez, etzen arteko axolarik baizik ukan Espainiako mugan egin ziren gudaldiez. Dubois aphezaren eta hunen nagusiaren gozaldi angeles eta hain guti frantzes hortan, Montauban-go Anderaurena, Maine-ko Andereari biziki atxikia zena, Malézieu-ren semea, Davisart eta Bargetton abokata, Bastillan zirenak, libertate osoan ezarriak izan ziren, nahiz Saillant, presondegi hortarik atheratzean, Auverñara bere aitaren etxera urrundua izan zen.

(*) Izen alegiazko hori hartzen zuen Jakobe II-garren, Angeleterrako errege katoliko aurdikia izana zenaren seme Gales-ko printzeak, bere erresumaz berriz jabetu nahiz. (*Itzultzalearen oharra*)

Berry-ko dukesa Erreientaren alaba hautetsiaren heriotzea

Hoin mota guzietako bizimolde gaitzean, hortaz jendearen mintzatzeak sumintzen zuen. Bazerasan ozarki haren lerroko jendez mintzatzea etzela haizu, ez eta haien egintza publikoenetan merexi zukeenaz gaitzerraitea, nor berak ikusiak balitu ere, are gutiago barne minean baizik iragaiten etzenaz. Horrek zuen jende guziaren kontra haserretzen, haren baitan zuzenbide sakratu baten bortxatzeaz bezala, errespetugabe gaizkinenaz, barka ezinenaz. Heriotzea ere ikusgarri bitxi bat izan zizakon. Hortara da orai jin behar.

Errautsi zuten oinaze luzek etzaukoten sinets-arazi ahal ukan bizi huntaz gogatu behar zuela zuen izanari zoakon bizi-molde batekin, ez eta laster jarraiki behar zizakon bertzeaz, azkenean familiakoek eta medikuek uste ukan zuteno behar zaukotela atxiki lerro hortako printzer

azken-azken mugan baizik erraiten etzeen hizkuntza bat, baina Chirac-en erlisione gabeak ezetsi zuena. Hala ere, bere aburuko bakarra izan baitzen, eta mintzatuak ziren bertze guziak erran beretan jarraiki baitziren, mundu huntako eta bertzeko erremedioen hartzea onhartu zuen. Sakramenduak ukan zituen atheak idekirik, eta han zirener bere biziaz eta zen araz mintzatu zizeen, baina bateko eta bertzeko erregina bat bezala. Ikusgarri hori bururaturik, eta etxekoekin hetsia izan zenean, bere burua haiekin goretsi zuen erakutsia zuen bermutasunaz, eta hea etzenez ontsa mintzatua galdegin zeen, eta etzenez handitasunekin eta kuraiarekin hiltzea.

Guti berantago, berekin Mouchy-ko Anderea baizik etzuen atxiki, erakutsi zauzkon gakoa eta untxia, eta bere erhaztundegia ekhar zezon erran; ekharria izan zen, eta idekia. Berry-ko dukesa Andereak egin zaukon hartarik emaitza bat bertze ainitzen ondotik; ezen, usu ukana zuenetik harat, etzen egunik, eri zenez geroz, ahal zuen guzia haren ganik biltzen etzuenik, usu dirua eta harrieriak, gutienik joiak. Erhaztundegi horrek berak berrehun mila eskudo balio zuen. Mouchy-sa, zen harraparia izanik ere, etzen burxoratua izan gabe egon. Athera zen eta senarrari erakutsi zaukon. Arratsa zen. Orléans-ko duke Jauna eta Anderea joanak ziren. Senar-emazteak ohointzaz salatuak izaiteaz beldur izan ziren, aipamena hain baitzuten ona. Uste ukan zuten beraz etxean gutienik etsai zituztener zerbait erran behar zeetela, orotara hastiatuak eta gaitzetsiak baitziren.

Batetik bertzera gauza laster jakina izan zen, eta San-Simungo Anderearen beharrira jin. Erhaztundegi hori ezagutzen zuen eta hain ustegabetua izan zen, nun uste ukan baitzuen Orléans-ko duke Jaunari jakin-arazi behar zaukola, eta ordu berean mezutu baitzaukon. Berry-ko dukesa Anderea zen heinak egiten zuen jende guti zela Muette-en etzaten, han saloin batean egoiten baitzen. Mouchy-ko Anderea, erhaztundegiaren egitekoa agertzen ari zela eta gaizki itzultzen, San-Simungo Anderearen gana hurbildu zen biziki erazgozpenean, hori nola iragana zen erran zaukon, erhaztundegia sakelatik athera zuen, eta erakutsi zaukon. San-Simungo Andereak zen lekutik hurbilenak ziren andereak deitu zituen hek ere ikus zezaten, eta haien aitzinean, ezpaitzituen xede hortan baizik deituak, erran zaukon Mouchy-ko Andereari hori emaitza biziki ederra zela, baina hain ederra nun aholku emaiten baitzaukon lehen-bai-lehen Orléans-ko duke Jaunari kondu emaitera joan zadin, eta ereman zezon. Aholku horrek, eta lekukoen

aitzinean emanak, bitxiki nahasi zuen Mouchy-ko Anderea. Eginen zuela ihardetsi zuen hala ere, eta senarraren gana joan zen berriz, eta harekin bere gambarara igan.

Biharamun goizean Erret-Palaziora joan ziren elgarrekin, Orléans-ko duke Jaunari mintzatzea eskatu zuten, hunek, San-Simungo Andereak abisaturik, berehala sarr-arazi baitzituen, eta gabinetean zuen gutia jalgi-arazi, ezen biziki goiz zen. Mouchy-ko Andereak, senarraren aitzinean, ahal zuen bezala egin zuen bere komplimendua. Orléans-ko duke Jaunak, ihardespen orotako, galdegin zaukon erhaztundegia nun zen. Sakelatik athera zuen eta eskaini zaukon. Orléans-ko duke Jaunak hartu zuen, deusek huts egiten zuenez ontsa behatu, berriz hetsi, sakelatik giltza bat athera, bere bulegoko tirant batean hetsi zuen, eta gero igorri zituen buru kheinu batez, hitz bat erran gabe, ez eta hek ere. Gurra egin zuten eta joan ziren hein berean suminduak eta ahalgetuak. Ehoiz geroztik etziren Muette-ra agertu. Gero berhala Orléans-ko duke Jauna ethorri zen, alaba ephe batez ikusia ukan zueneko, San Simungo Anderea berekin hartu baitzuen, mezutua zaukonaz eta egina zuenaz ainitz eskertu, berak egin berria zuena erran, eta erhaztundegia etzizakola gehiago eskuetarik atherako. Hain haserre zen ozarreria hortaz, nun ezpaitzen saloinean aipatu gabe egon ahal izan Mouchy-ko Jaun-Anderearen alderako elhe biziki damugarriekin, han zen jende guziaren esku zarta handietan, mutiletarano ere.

Mouchysaren ez han izaiteak zorionez Berry-ko dukesa Anderea hunki zuenez eztakit; baina etzuen behin ere aipatu, eta guti ondotik bere baitan biziki sartua iduritu zuen, eta Gure Jauna berriz ere hartu nahi ukan zuen. Ukan zuen, iduritu zenaz, debozione ainitzekin, eta lehen aldikotik osoki bertzela. Castries-ko aphezak, bere lehen elemosinaria, Tours-ko arxapezpikugora izendatua, gero Albi-kora egina izan zena, eta azkenik ordenako komendadorea, eman zaukon Passy-ko parropiara haren bila izanik, gero berriz hara itzuli baitzuen, Orléans-ko duke Jaunak eta Chartres-ko duke Jaunak lagundurik. Aphez horrek egin zuen pherediku labur bat, ederra, hunkigarria eta hain egokia nun entzun zuen guziak miretsi baitzuen.

(…)

Arratsa ontsa aitzinatua, eta Berry-ko dukesa Anderea gero eta gaizkiago Chirac-ek (behar gabeko erremedioaz) pozoindatua zuenaz geroztik, gorteko medikuek Boufflers-ko marexalari bertze hainbertze egin zaukotela bere lekuan ikusi den bezala, gertaldi berdinean,

Fontainebleau-n, eta ondorio berarekin, Orléans-ko duke Jauna gambarara sartu zen eta ohe zangora hurbildu, erridau guziak idekiak baitzaduzkan; enuen han ephe zenbaitez baizik utzi eta gabinetera bultzatu nuen, han ehor ezpaitzen. Leihoak idekiak ziren, eta burdinazko leiho-mahiari bermatuz eman zen, eta nigarrak berrhetu zizazkon itho zadin beldurtu ninduen heinerano. Erauntsi handi hori iragana izan zelarik, mintzatzen hasi zizatan mundu huntako zorigaitzez eta gozagarriena denaren iraupen gutiaz. Aldiaz baliatu nintzan Jainkoak eman zautanaren erraiteko, ahal ukan nuen eztitasun, goxotasun eta samurtasun guziarekin. Etzuen bakarrik erran naukona ontsa hartu, baina ihardetsi zautan eta solasaldia luzatu.

Hor oren bat baino gehiago egonik, San-Simungo Andereak jakin-arazi zautan eztiki ordu zela Orléans-ko duke Jaunaren hortik eremaitera entsea nadin, are gehiago nun gambaratik ezpaitzaitekeen gabinet hortarik baizik jalgi. Karrosa prest zuen, San-Simungo Andereak ekharr-arazteko artha hartua baitzuen. Enintzan nekerik gabe heldu bihotzmin saminenean murgildua zen Orléans-ko duke Jaunaren hortik eztiki ekhentzera. Gambara berehala iragan-arazi naukon, eta Parisera itzul zadin othoiztu nuen. Onhartu zuen azkenean. Nahi ukan zuen han geldi nadin behar ziren manu guzien emaiteko. San-Simungo Anderea othoiztu zuen jendetasun ainitzekin zigilu guzien ezartzean han izan zadin, gero bere karrosan ezarri nuen, eta joan zen. Eman nauzkon gero San-Simungo Andereari erranak zauztan manu guziak gorputzaren idekitzeko, egin-araz zitzan, eta gainerateko guzian, eta enuen gambara hartako ikusgarrian egoitera utzi, ezpaitzen han laztagarririk baizik.

Azkenean uztailaren 21-ko gauerdi hirian, Berry-ko dukesa Anderea hil zen, Chirac-en gaizkintzatik bi egun berantago. Hunkia izan zen bakarra Orléans-ko duke Jauna zen. Galtze zuten zenbait dolutu ziren; baina hetan bizitzekoa ukan zutenak etziren haren galtzeaz dolutuak iduritu ere. Orléans-ko dukesa Andereak liberatua izaitea senditu zuen, baina ikustatezko arau guziekin. Madame-ek (*) etzuen arteko herstura bat baizik ukan. Zenbat ere dolumindua bazen Orléans-ko duke Jauna, konsolamenduak etzuen biziki luzatu. Bere burua hartara utzia zuen uztarria eta hain dorpea bazidurikona, hautsia zen. Oroz gainetik Rion-en ezkontzaren eta hunen ondorioen hersturez arindua aurkitzen zen, eragozpen hanbat handiagoa, nun gorputzaren idekitzean, printzesa gaixoa haur beharretan aurkitu baitzen; hatzeman zen ere buru

munetan ontsa etzoan zerbait. Etzuen horrek oinaze handirik baizik hitzemaiten eta arthoski gordea izan zen ordu hartan.

(*) **Itzultzalearen arte-hitza:**

"Madame" Erreientaren ama eta printzesa "palatinarrak" aipatzen du Berry-ko dukesa bere alababitxiaren heriotzea 1719-ko uztailaren igande 23-ko eskutitz batean:

"Luisa maite-maitea, hanbat beldurtu nauena biak eta erditan gertatu da azkenean: Berry-ko dukesa gaixoa hil da … Gehiago eninduela ezagutzen iduritu zatalarik, utzi nuen. Ene seme gaixoa gelditu da ene ondotik, harr-arazi dauko bere baitara itzul-arazi duen irazkin bat; oraino luzaz mintzatu zako. Gero ohe gainean othoitzak egin dira goizeko oren bat arteo, orduan berriz ere aldixartu da, baina ezta biak eta erditan baizik hil: heriotzea ontsa eztia izan da, diotenaz. Iraungitzen den argi bat bezala joan da. Atzo ideki da. Eztut komprenitzen nola eztuen oinaze gehiago ukan. Bazuen urdailean mingaixto bat, bertze bat ixtalokian, barea dena usteldua zen, etzen ahi bat baizik; burua urez betea zen, muna erditara hertsitua: ene medikuak uste du hortako zela oinazearendako hain soraioa (…)"

Les lettres de la princesse Palatine (1672-1722), "Le temps retrouvé", Mercure de France, Paris 1985, orr. 578-579.

Alberoni kardinala, Espainiako lehen minixtroa, haizatua

Alberonik, Espainian hastiatua bakarrik beretua zuen monarkiaren tirano abre bezala, eta Frantzian, Angeleterran, Erroman, eta Emperadorearen ganik etsai amorratu eta berezia bezala hartua, etzuen khexu den gutienik bazuela iduri. Ezina zen bizkitartean Espainiako erregek eta erreginak etzazkitela bere armaden eta untzieriaren zorigaitzak Zikilian, Neapolizko jazartzearen lanjer hurbila, hainbertze galtzeren ezin antolatzea, eta ezin ihardokitzea, bakarrik gehiago batere etzuen Espainiaren indarrekin, Emperadorearen, Frantziaren eta Angeleterraren eta Holandaren ere guzier, batuak zirener, eta aitasainduaren eta Italia osoaren oihuer. Erreienta eta Dubois apheza, aspaldidanik Alberoniren ikusteko bakoitzak bere etsai berezia bezala arrazoin sobera baizik etzutelarik, bere baitan ethengabe haren eror-arazteko bidez axolatuak ziren; ordu hori alde zutela uste ukan zuten, eta baliatzen jakin. Nola egin zen, hori da ene baitarano ethorri ezten xehetasun bitxia, eta ontsa dolutua izaitea balio duena. Orléans-ko duke Jaunak Dubois-ren ondotik ilabete gutiegi iraun du harekin hortaz ainitz gauza erabili ukana dezataneko, eta hau argira emanak eztitutanetarik bat da haren konfianxa berriz idekia izana zizatanaz

geroztik, oldeak eta bertze gauza batzuek ereman bainaute, huntara itzultzeko xedea beti gogoan. Orduan berean segurki jakin dutan guzia Orléans-ko duke Jaunaren ganik, baina hitz biez, eta geroztik Espainian, argi ez xehetasun gehiago aurkitu gabe, ikusia da Torcy-z erakarria izana denean, Alberoni beti beldurtua zuena, eta gertatu zizakona. Madrilera zethorren Parmetar ttipienaz ikaran zagon; ezer etzuen baztertu Parmeko dukearen ganik eta asmatu ahal zuen bertze bide orotarik ethor ziten debekatzeko; beti ikaratuz ikusi zituen bidaia hautsi ahal etzizeen eta itzul-araztera heldu etzizeen gutiak.

Hauen artean, jeusek etzuen erreginaren amañoak bezenbat izitu, huni, gupidesten artetik, ahaburdin ukaldi batzu igortzen baitzauzkon zenbait aldiz hein batean atxikitzeko, hortan politikazko arrazoinamenduak omoreak baino ikusteko gutiago baitzuen beharbada. Amaño hori Parme herriko laborarisa lodi bat zena, Dona Laura Piscati izenekoa zen; Espainiara etzen beti maitatua zuen erregina baino zenbait urte berantago baizik ethorria, guti ondotik bere *assafeta* egin baitzuen, erran nahi da lehenbiziko gelaria, baina Espainian hemen baino ainitz gehiago gotorra den (kargua). Laurak ekharria zuen bere senarra, alde orotarik laboraria, nehork ikusten eta ezagutzen etzuena; baina Laurak bazituen izpiritua, maltzurra, itzul-ingurua, edo ohiduraz, edo menturaz aieru gutiago emaiteko politikaz atxikia zuen itxura arruntaren artetik xedeak, eta ethorki hortako jendeak bezala osoki abantail-nahia zen. Etzen jakin gabe zenbat ezin egonean zuen Alberonik hura han izan zadin jasaiten eta erreginaren ondoan zuen fagoreak zenbat zuen beldurtzen, berak nahi baitzuen bakarrik haren jabe izan. Eta noizten haren ganik ukaiten zituen ostikoez ohiko gupidestez baino sendikorrago, etzuen etsai biziki beldurgarri bat bezala baizik ikusten, muga hertsi batzuetan bazadakuna, fagoreaz baliatzetik trabatzen zuena erregina bera hortan hertsatuz, eta xedea haren Parme-ra itzul-araztea zuena, eta hortara heltzeko ezer ez ahazten. Horra ikasi ahal dutan guzia bertze xehetaxunik gabe, hau ezpada: gertaldia alde zuela ikusiz Espainiako egitekoen izanaraz aitzinatu berria denetik, han Alberoniren tirania orotara hastiatua baitzen, Erreientaren diruak errex bildu zuen, eta Dubois aphezaren azpi-lanak Alberoniri jaukitzera menturatzeko erreginaren ondoan, eta hunen bitartez erregerenean, Espainia hondatua zuen minixtro bati bezala, bakeko traba bakarra zena bere xede berezien gatik, hauen abantailen azpian ethengabe utziak baitzituen Haien Maiestate Katolikoak eta Europako bothere guzien eskuan. Ezpaitut

dakitana baizik erraiten, hoin gertakari ohargarriaz ontsa labur izanen niz.

Laura ontsa heldu zen. Alberonik, ustegabekoena zen orduan, ukan zuen Espainiako erregeren paper bat, hartaz ordu berean joan zadin manatzen zizakona hura ez erregina ikusi gabe eta haier izkiriatu gabe, eta bietan hogei-ta-laur oren barne abia zadin Espainiatik jalgitzeko; eta bitartean gorputzeko zaintzaletako aitzindari bat ondora igorria izan zizakon abiatu arteo. Manu lehergarri hori nola hartua izan zen, eta kardinalak zer egin zuen eta zer bilakatu zen, eztakit; badakit bakarrik obeditu zuela eta Aragonako bidea hartu. Hain artha guti hartu zen haren paperrez eta bazeramatzanez, neurrigabeak izan baitziren diruz eta harrieriaz, nun ezpaitzizakon lehenbiziko egunen ondotik baizik jakin-arazi Espainiako erregeri Karlos II-garrenaren testamendu bereziak huts egiten zuela. Berehala asmatu zen Karlos II-garrenak Filipe V-garrena Espainiako errege izendatzen zuen, eta bere Estatu zabal guziak emaiten zauzkon idazki balios hori Alberonik eremana zuela, Emperadorearen garazia onen eta gerizapenaren ukaiterako baliatzeko beharbada, eskaintza bat eginez. Alberoniren arrastatzera igorri zen. Etzuen lanik gabe eta mehatxu izigarrienetarik gabe testamendua azkenean itzuli, oihu handienak eginez, eta ere huts egiten zutela aldi berean ohartu zen bertze paper gotor batzu. Harr-arazia zuen izialdura hain barna egina zen, nun ehor ezpaitzen ordu hortarano mintzatzera ez bozkario erakustera menturatu, nahiz joana zen. Baina gertakari horrek (kardinalaren) itzultzetik segurrean ezartzen zuen, orotako alegera berdinik gabeko gainditze bat izan zen, haren kontrako madarizione eta salatzezko bat errege 'ta erreginari, hanbat hauek etzazkiten gauza publikoez, nola ixilik uzteko baizik on eztiren gaizki-egin berezi andana mugagabekoez.

Orléans-ko duke Jaunak etzuen bere bozkarioa hertsatu, gutiago oraino Dubois aphezak: zuten etsai berezi hori haien lanak zuen aurdikitzen, eta harekin Alberonik Erreientaren eta Espainiako erregeren artean hain azkarki eraikia zuen harresia, eta aldi berean bakeko eragozpen bakarra. Azken arrazoin hunek bozkario bera jauz-arazi zuen Italian, Vienan, Londresen; batasuneko erresumek elgar goretsi zuten; Holandesetarano loriatuak izen ziren hoin minixterio bikunaz, oldartsuaz, indardunaz liberatuak izanez (…)

Orléans-ko duke Jaunak igorri zuen Marcieu-ko zalduna, gizon biziki trebea, biziki adimendukoa, eta biziki Dubois aphezaren eskukoa,

erresumako azken mugetara han Alberoniren aiduru egoiteko, Probenzan Italiarako untziratu behar zuen ordurano laguntzeko, ikusmenetik ez galtzeko, hiri handi eta ere herri gotorretarik ahal bezenbat baztertzeko, ohore molde orotakorik emana izan zezon ez onhartzeko, oroz gainetik harekin nehorendako salbuespenik gabe edozein solastatzeren debekatzeko, hitz batez, ikustaterekin ikusmenean atxikia zen presoner bat bezala eremaiteko. Marcieu-k egiteko gozagaitz hori zuzen-zuzena egin zuen, baina hanbat gehiago beharra zena nun, Alberoni zen desgaraziatua izanik ere, oraino haren egintza lanjerosen beldurra baitzen, Frantziako zati handi bat iragaiten zuela, han Erreientaren etsaia zen guziak hari hel egina baitzaukon, eta Bretainiako nahasmena ezpaitzen oraino bururatua, eta etzen arrazoin handirik gabe libertate, hurbiltze, ikus-nahi oro ere arthoski debakatua izan baldin bazizakon (…)

Etzuen beraz ikustaterik batere ukan Erreientaren, Dubois-en, ez nehoren ganik, eta egin zituen, abantzu gelditu ere gabe, Marcieu-k ezarriak zituen bidaia egunak, Mediterraneako bazterrerano, hara heltzean untziratu baitzen, eta Italiako itsas-bazterrera iragan. Bidaia hortan zuen Marcieu-k jakin haren ganik Orziniko printzesaren desgaraziako gertaldi hain ohargarria, errege bien artean hitza harturik, Espainiako erregina berriak ukan baitzuen egiteko moldearen kargua, hemen desgarazia horren aroan emana izan dena, eta Brancas-ko markes, gero marexal izanaren ganik jakin nuena, Marcieu-k hari geroztik errana baitzaukon. Alberoni, bere Argus-en ganik liberaturik eta Italiara heldurik, han bertze eragozpen batzuekin gertatu zen Emperadorearen haserreaz, ehon ezpaitzuen onhartu nahi ukan, eta Erromako gortearen suminduraz, garhaitu baitzuen, aldi hortan, arropa gorriaren errespetuarendako zuen bekaizkeria. Luzaz herratua eta gorderik egoitera hertsatua izan zen, etzen Erromara hurbildu ahal izan aitasainduaren heriotze ondoan baizik. Gizon hain ohigabeko horren gainerateko bizia ezta *Orhoitzapen* hautako gaia. Baina ahatzi behar eztena da, Frantziatik iragaitean eman zuen errabiazko, etsipenezko eta erokeriazko azken lekukotasuna. Montpellier-tik izkiriatu zauzkon Orléans-ko duke Jaunari Espainiari gerla lanjerosenaren egiteko bideak; eta Marzellatik, untziratzera zoala, berriz izkiriatu zaukon eskaintza beren errepikatzeko eta hetan lehia-arazteko. Beharbezalakotasun guti atxiki zuen Espainiako errege 'ta erreginaren aldera, eta etzen egon ahal izan gaineratu gabe aitasainduak, Emperadoreak eta Haien Maiestate

Katolikoek Jainkoari kondu eman beharko zaukotela Sebillako arxapezpikugoko bulen ukaitetik hura trabaturik.

Ezin daiteke hemen egon azken aldi batez Alberonitan eta (gobernuko) egitekoetan eliza-gizonen, eta bereziki kardinalen onhartzeko itsumenean gelditu gabe, hauen lege berezi-bereziena baita mota orotako desohoragarrien eta gaizkinena den guziko gaztigu-gabea. Eskergaitz, leialtasungabe, jazartze, hitz-jate, nor beregain izaite, bertze ondoriorik gabe, ez eta ere usuenean edonoren ibileran ogendun goien horien aldera, aski guti sendigarriki ere jendearen gogoan, aro guzietako behazunez gauza horri jarria baita.

Erreienta eta Errege

Printze hori etzizakon behin ere (Erregeri) hurbiltzen, izan ziten jendearen aitzinean ala edozein barnetan, errege zenaren aitzinera jiten zen errespetuzko itxura berarekin baizik. Ehoiz den libertate ttipienik, etxekotasunik biziki gutiago, baina garaziarekin, adinaz eta karguaz larritasunezko ezer gabe, solasa haren heinekoa, eta harekin eta haren aitzinean, alaitasun zerbaitekin, baina biziki neurtua eta seriosaren zimurren ekhentzea baizik egiten etzuena eta haurraren eztiki heztea. Harekin lanean ari zenean, arinki bazegien, ezer etzela hari kondu eman gabe egiten erakusteko, adinaren heinera arautzen eta laburtzen zuena, eta beti Erregeren meneko minixtro baten ararekin. Emaiteko ziren gauzetan, gobernu, mota orotako kargu, benefizio, lan-sari, eskaintzen zituen, galdatzalen arrazoinak laburzki irakurzten, hautetsi behar zena aitzinatzen, bere aburua behar zen moldean emaiten zaukola gaineratzea ehoiz ez ahazten, baina emaitea etzoakola hari, Errege zela nagusi, aski zuela hautatzea eta erabakitzea. Zenbait aldiz ere hortara hertsatzen zuen hautua balio gutikoa zelarik; eta bekan Erregek norbaiten alderako ixuria bazuela iduritzen baldin bazizakon, (Errege) herabe 'ta loriosegia baitzen ontsa argiki mintzatzeko, eta Orléans-ko duke Jaunak horri beti handizki behatzen zaukon, bazerrakon garaziarekin uste zuela zer zuen nahi, eta berehala: "Etzirea bada nagusia? Eniz hemen zuri kondu emaiteko baizik, eskaintzeko, zure manuen ukaiteko eta egiteko." Eta ordu berean gauza arinki emana zen den gutienik ere handi-arazi gabe, eta berehala bertze zerbaitetara iragaiten zen. Eginara horrek jendearen aitzinean eta barnean, oroz gainetik Erregerekin lan egiteko ara horrek, monarka

ttipia loriatzen zuen; gizon bat zela uste zuen, erreinatu nahi zuen eta esker on guzia sendi zuen horrela erreina-arazten zuenaren aldera.

Erreienta eta jende bereziak etziren irrisku handitan; Errege guti axolatua zen eta bekan, eta oharr-arazia den bezala, herabe 'ta loriosegia zen horren usu erakusteko, ainitzez gutiago ekharria zerbaiten galdegitera. Orléans-ko duke Jaunak artha handia hartzen zuen ere Erregeren inguruan hurbil zen guziari ontsa egiteko, etxekotasunekin, berari buruz gogo oneko multzo baten egitekotan, eta garazia batzuen egitera entseatzen zen Erregek zerbait moldez maite zituela uste zeneri. Horrek ere Erreienta miragarriki laguntzen zuen, garazia eta kargu balio gutiko aldi batzuetan, horietan Erregek haur baten gogoa erakutsiko baitzuen. (Erregek) baitzakien ikusia zuenetik hortan Orléans-ko duke Jauna harekin beti nola ari zen, printze hunek bazituen karguak zuen handitasunaren eta haren betetzeko behar ziren gaitasunen hari erakusteko libertatea eta errextasuna, azkarrean egoitekoa, baina bati hura zela nagusi erranez, erraitea aski zuela; othoizten zuela bakarrik bere arrazoinak emanak baldin bazazkon etzezan hori gaizki har, horren egitea bere eginbidea zuela, eta gero hari obeditzea. Gehiagokorik etzen behar, Erregek bihotzminik gabe 'ta alaiki onhartzen zuen; baina aldi mota horiek etziren abantzu nehoiz gertatzen. Lan horietan Villeroy-ko marexala beti heren zen; neke zen Fréjus-ko apezpikuak (Fleury-k) lan bakoitzean zer gertatzen jakin etzezan, eta Erregek, buruz-buruko solasaldiak baitzituen bere erakaslearekin, Villeroy-ko marexalak errabian izanik ere debeka etzazkeenak, etzezon erakustera eman Orléans-ko duke Jaunaz zenbat askietsia zen. Gehiagokorik etzen behar uhaletarik (apezpikuaren) atxikitzeko, eta marexalari, eztiki huni nagusitu nahi baitzuen eta hau aurdiki, Erreientaren kontrako hitzaldien uzteko, ezpaitzaitezkeen Erregeri gusta, Orléans-ko duke Jaunak berari buruz ethengabe bazadukan gogo onean.

Printze horrek, Alberoniz arindurik, bazakusan bakea eta Espainiarekilako antolamendu hurbila, estakuru hori eta alde hortako esperanza hutsalak jende nahasieri ekhendurik, Maine-ko duke 'ta dukea gehiago higitzera menturatzeko ahalik gabe, gortean haien alderdikariak ezagutuak, izituak eta higitzeko ahalik ez biderik gabe ere, bertzeak laztatuak; azkenik Poncallet (*sic:* "Poncallec") eta bertze batzu berriki edo aitzinean Bretainian arrastatuak, hiltzerako auzi baten jasaitera prest; horrek orotan bakoitza bere baitan sartzera ekharriko baitzuen, eta gelditasuna berriz jarriko. Gelditzen zizakon dirutzetako eta Law-en

adminiztratzearen eragozpena, eta parlamentuaren garhaitzearen bururatzea hortan trabarik gehiago ez ukaiteko, Teilerietako justiziako ohean emana izana zizakon ukaldi handiaz zen burxoratua izanik ere, apurka apurka berriz bere baitaratzen ari baitzen, eta hain minki nahi baitzuen, baina hortara hain lanjeroski zuzen heldurik, Erregeren eta jendearen artekari larderiaduna izan.

*

1720

Entragues-ko aphezaren bitxikeriak

Jendearen berezitasunak aldi hortako bereko gertakari batekin ez ahatzia izaitea merezi du. Entragues-ko apheza ezin gehiago mundu handikoa izana zen gizon bat zen; etzen Balsac baino deus gutiago. Entragues izen hori nundik ethorria zizeen eztakit, ezen Balsac-tarrak Illiers-tarrekin batuak dira. Hunen izena Crémeaux zen, aitorenseme xoil-xoila, Lyon-go aldean; munduan jarri zituena, hunen anaiaren ezkontza La Vallière-ko Andere, Erregeren ohaide, Courtalvel izeneko eta aitorensemetasun ttipieneko sabel-ahizpa batekin izan zen. Ahizpa horren aitak Saint-Remy izena zuen, Gaston Luis XIII-garrenaren anaiaren hoteleko nagusi lehena. La Vallière-ren alarguntsarekin ezkondu zen, Le Prévost izena zuena, Bernard-Rezay parlamentuko konseilariaren ganik alargundua lehenbiziko ezkontzaz, haurrik ezpaitzuen hunen ganik ukan. La Vallière-ren ganik ukan zituen Erregeren ohaidea, eta oraiko La Vallière-ko dukearen aitabitxia; et azken senarraren ganik, Entragues-ko Andere hau, aipatzen den aphezaren goneta.

Montespan-go Anderearen haurrek etzuten ama aithortu baten ezberdintasunak, eta Conti-ko printzesa Andereak bere amaren eta ahaide guziendako beti nahi ukan zuen atxikimenduak berezi zituen. Entragues-ko Anderearen gerizapenak zuen beraz, Conti-ko printzesaren izeba zuzena baitzen, Entragues-ko apheza haren etxean sarr-arazi. Printzesak Entragues-ko Anderea beti ainitz maitatu zuen, beti hartakoa izan zen mundu handiko egina zen izpirituaz biziki maitagarria baitzen ere. Hortik, Entragues-ko apheza kompainia onetan jarri zen hauen doinua eta mintzaera baitzituen, berezitasun gozagarri

batekin, oraino jostagarriago bazegiena, eta bere jitea zuena; baina jite hori etzuen segurra; gaixtoa zen, nardakerietan gustatzen zen eta jenden nahasten, horrek ainitz etxe gotorretarik haiza-arazi baitzuen; ukan zituen abadiak eta priadoretxeak, baina nehoiz ez ordenarik. Gizon handi bat zen, biziki ontsa egina, larruaren hits berezi batekin, espes atxikitzen zuena odol ekhentzen bortxaz, bere onkeria ziona; lo egiten besoak goiti estekaturik esku ederren ukaiteko; eta, nahiz aphez jantzietan, hain bitxiki emana zen nun bere buruari ustegabetuz so egin-arazten baitzuen. Bizi-molde gaitzek aldi bat baino gehiagotan urrun-arazi zuten. Caen-en zen batez, justiziako Egun Handiak han gertatu ziren, hauetan baitzen Pelletier de Souzy, geroztik hiri-harresiak ukan dituena, Des Forts-en aita, minixtro eta dirutzetan orotako begiztatzale izana dena. Pelletier-ek Entragues-ko apheza ezaguna baitzuen nahiz arteko neurri batean, uste ukan zuen, urrundua zen lekura heltzean, haren ikustera joaitea eginbide zuela. Joan zen beraz eguerdi hirian: aurkitu zuen gambara biziki garbi batean, ohea berdin, alde orotan idekia, barnean jende bat jarririk, galanki emana, tapizeria lanean ari zela, emazten gauko buruko batekin, dentelazko mototxa bat, iletan floka ainitz, aphaindura, papoan xingolazko zerrenda bat, ohe-soingaineko bat hegalka eta larrulitxak. Hori ikusiz Pelletier-ek gibelerat egin zuen, bertute gutiko emazte baten etxean zela uste ukan, eta athera abiatu nahi, ezpaitzen handik urrun. Jende horrek hel egin zaukon, hurbil zadin othoiztu, bere izena eman, eta irriz hasi zen: Entragues-ko apheza zen, ohi-ohiki jantzikai hortan etzaten baitzen, baina beti emazte mototxa guti edo aski antolatuekin. Bertze hanbat ixtorio balizateke hartaz egiteko nun burutzerik ezpailizate. Horrekin izpiritu eta solastatzeko gaitasun ainitz, irakurtze eta orhoitze ainitz, jakitatea ere, jitezko lerdentasuna eta mintzaera garbia; biziki jale urria, fruituz eta urez ezpazen.

Aipatzen den orduan, bizia bazeraman Conti-ko printzesaren etxean, Beringhen ezkutari lehenarenean, eta geldituak zizazkon etxe gotor batzuetan. Jakin zen, jeusek hortaz duda-arazi ahal etzuelarik, higenauten ofizioan izana zela igande batez Holandako embaxadorearen etxean; hortaz espantu egin zuen ere, eta erran ukana zuela azkenean bere anaiekin auhari sainduaren egiteko zoriona. Jendea hanbat gehiago ustegabetu zen nun arraza katolikokoa baitzen, eta ezpaitzuen edozein erlisionek gogoa hartzen zaukola eta atxikitzen ordu arteo iduritu. Erokeria horren harrabotsak, eta aphezeriak egin zituen oihuek etzuten

utzi Orléans-ko duke Jauna nahi ukanen zuen bezala irri eginez gelditzera. Manua eman zuen beraz, bizpahirur egunen buruan, har zezaten eta Bastillara ereman; baina artean bide egina zuen eta Anchin-era heldua erresumatik atheratzeko; hortik Tournay-ra, jeus etzen labur eta errexagorik. Buruan hartu zuen Lille-ra joaitea eta han komandantari bere izenaren emaitea. Mugetan (manua) jakin-arazia zuten, eta hortara, hurbilena izanez, heldua zen. Komandantak segurrean atxiki zuen eta Orléans-ko duke Jaunari jakin-arazi, gazteluan ezarr-arazi baitzuen. Hor Entragues-ko apheza akitu zen, eta arnegatu, gero Parisera itzuli zen azkenean bertze ondoriorik gabe, ez beretako, ez zituen benefizioendako. Gizon hoin ergelaren ganik ezer seriosik ezpaitzaitekeen asma, Dukesa Anderearen etxean onhartua izan zen, Maine-ko Anderearenean, eta ibiltzea ohi zuen eta han biziki etxekotua zen etxe guzietan, eta jeus gertatu ezpalizako bezala onhartua. Ephe batez bere burua mezan erakutsi nahi ukan zuen othoitz-liburu handi batekin, eta gero apurka apurka bere bizi eta eginara ohikora itzuli zen. Etzen, zuen bizimolde gaixto guziarekin eta ainitzetan gaizki ezarria zuen jokoarekin, bere bizi guzian beharduner ainitz eman gabe, eta iresten zituen fruitu eta horma guziekin lauretan hogei urte eritasunik gabe iragan ukanak gabe. Kuraia eta debozione ainitzekin jasan zuen hartarik hil zen eritasun luzea, eta biziki girixtinoki bururatu zuen biziki guti girixtinoa ukana zuen bizia.

Erregeren gatu ttipia konseiluan

Errege lehen aldikotz (Erreienziako) konseilura ethorri zen otsailaren 18-ko igandean. Deus etzuen erran ez sartzen ez konseilu demboran, ez atheratzen, ezpada Orléans-ko duke Jaunak athera zadin eskainirik han asper zadin beldurrez, bururano egon nahi ukan zuela. Gero etzen orotara ethorri, baina aski usu, beti bururano, eta ez higitu ez mintzatu gabe. Haren han izaiteak etzuen bilkuran ezer aldatu, haren jargia beti han baitzen mahi buruan bakarrik, eta Orléans-ko duke Jaunak, Errege han ala ez, ezpaitzuen han ziren guziek bezalako alketx bat baizik. Villeroy-ko marexalak etzuen bere ohiko jar-moldea aldatu. Egun guti berantago Berwick-ko marexala ere sartu zen; jendeak murmurikatu zuen, atzerritarra baitzen; baina atzerritar hori nahitez bere herrian bahitua zen, bertze batera haizatua, Frantzes bilakatua, hogei-ta-hamar urtez geroz Frantzian, gelditu gabe zerbitzuan, duke, pare,

Frantziako marexal, bi koronen armadetako jeneral, Espainiako handi, eta leialtasun phorogatu baino gehiagokoa; gainera, orduan Erreienziako konseiluan egiten zeneko, nor izan edo ez baliorik etzuen; jadanik baginen hamabortz, hamaseigarrena egin zuen.

Errege hara jin zen aldi batez, zuen gatu ttipi bat jarraiki zizakon, eta ephe bat berantago, haren gainera jauzi zen, gero mahi gainera, han ibiltzen hasi baitzen; eta berehala Noailles-ko dukea oihuka, gatuek izitzen baitzuten. Orléans-ko duke Jauna abiatua zen berehala haren handik ekhentzerako lanean, eta ni erdi-rriz, niola: "He, jauna, utzazu gatu ttipi hori, hamazazpigarrena eginen du!" Orléans-ko duke Jauna gogotik irriz hasi zen, eta kompainiari beha, hau ere irriz, eta Errege ere, biharamunean aipatu baitzautan jeikitze ttipian, atheraldia senditurik bezala (*), baina hitz biez, hori berehala Paris guzian ibili baitzen.

(*) San-Simun Erreientaren ondoan ari izana zen, baina debaldetan, Erreienziako konseilari multzoa ttipitu nahiz. (*Itzultzalearen oharra*)

Dubois Cambray-ko arxapezpiku

1. Arxapezpikugoa nola bildu zuen

Cambray hutsa zen, duela guti ikusia den bezala, Erroman La Trémoille-ko kardinalaren heriotzeaz, erran nahi da Elizako arxapezpikugo aberatsena eta kargu handienetarik bat. Dubois apheza etzen khorodun baizik; ehun eta berrogei-ta-hamar mila libera arrandek gutiziatu zuten, eta bertze hainbertze behar bada kardinalgora neke gutiagorekin igaiteko mail horrek. Zen ozarra izanik ere, zer bazen ere bere nagusiaren gainean hartua zuen burupea, azkarki eragozpenean gertatu zen eta ozarreria maltzurraz estali zuen: Orléans-ko duke Jaunari erran zaukon amets gozagarri bat egina zuela, Cambray-ko arxapezpiku zela amets egina. Erreienta, senditu baitzuen horrek nora zeraman, brixtez itzuli zen eta jeus etzuen ihardetsi. Dubois, gero eta gehiago eragozpenean, moteldu zen eta bere ametsaren hedatzen ari izan; eta gero, indarretan segurtatuz, bapatean galdegi zuen zergatik etzuen ukanen, Haren Erret-Goitasunak bere nahi hutsaz fortuna horrela egiten ahal zaukola. Orléans-ko duke Jauna sumindua izan zen, izitua ere, apezpikuen hautatzean zenbat guti arranguratua bazen ere, eta gaitzesmeneko doinu batekin, ihardetsi zaukon: "Hi! hi, Cambray-ko arxapezpiku!" sendi-arazten zaukola bere aphaltasuna eta gehiago oraino

bizi-moldeko eskandala. Dubois gehiegi aitzinatua zen biderditan gelditzeko; behazunak eman zauzkon. Zorigaitzez, sobera baizik etzen, eta aphaltasunez eta bizi-molde bitxiz, ikusi den bezala Godet, Chartres-ko apezpikuari esker, apezpikutegiak bete zituen bere esteusko eta jakitate gabeko semenarioekin, A. Tellier-i eta hunen konztituzioneari, aldi berean aphaltasuneko, jakitate gabeko eta bizi-molde gaixtoetako, eta jarraiki zezteener.

Orléans-ko duke Jaunak, hoin arrazoin gaixtoez gutiago hunkia nola jeusetan ez erraitera ez menturatzen ohitua zuen gizon batek gartsuki hertsatua izaiteaz eragozpenean, hortik athera nahi ukan zuen, eta erran zaukon: "Baina sakre bat hiz, eta nor duk sakratu nahiko hauen bertze sakrea? - Ha! hori baizik ezpada, egin zuen bizi-bizia aphezak, gauza egina da; nork sakratuko nauen badakit, ezta hemendik urrun. - Eta nor debru duk hori, ihardetsi zuen Erreientak, hire sakratzera menturatuko dena? - Nahi duzua jakin? egin zuen aphezak; eta, berriz ere, guzia bakarrik hortan dea? - Nor bada? erran zuen Erreientak. - Zure lehen elemosinaria! egin zuen Dubois-ek, kampoan hor dagona; eztu bertzerik galdeginen; erraitera banoako;" Orléans-ko duke Jaunaren zangoak besarkatzen ditu, labur-laburra gelditzen dena eta ez erraiteko indarrik ukan gabe hatzemana, jalgitzen da, bazterrera hartzen du Nantes-ko apezpikua, badio Cambray baduela, sakra dezan othoizten du, eta hunek ordu berean hitzemaiten; sartzen da, inguru-minguruka, badio Orléans-ko duke Jaunari haren lehen elemosinariari mintzatzetik heldu dela, sakratuko duela hitzemana baitauko, eskertzen du, laudatzen, miresten, gauza gero eta azkarrago zigilatzen, egina bezala dadukala eta Erreientari ehoiz eztela ezaren emaitera menturatuko sinets-araziz: horrela zuen Dubois-ek bere burua Cambray-ko arxapezpiku egin.

Izendatze horren eskandala ezin handiagoak harrabots bitxia egin zuen. Dubois zen ozarra izanik ere, ezin gehiagoko eragozpenean izan zen, eta Orléans-ko duke Jauna hain ahalgetua nun laster ohartu baitziren hori aipatuz bihotzmin emaiten zizakola. Gutitan ordenak hartu behar izan ziren. Dubois-ek uste ukan zuen, zen heinean eta Noailles-ko kardinalari, haren beharra baitzuen eta beti ukanen baitzuen (*Unigenitus*) konztituzioneko egitekoak, eremana zen bezala, ezartzen zuen izanara hain kaltegarrian, egin-araziko zauzkola haren ganako urrats guziak, hanbat lehiarekin nun kardinalak baitzuen hartaz eta zituen etsaier emaiten zeen gerizapen guziaz, urrundik gupidesten baitzituen bere kardinalgorako, gaitzitua izaiteko arrazoin; eta (Noailles-ko)

kardinalari, bere aldera itzuliko zuelako esperanzan, bederen eztituko zuelakoan, hori mereximendu izanen zizakola Orléans-ko duke Jaunaren eta haren ondoan (…) Huts egin zuen: haragiak eta odolak ehoiz etzuten indarrik ukan Noailles-ko kardinalaren eginaran. Dubois aphezaren gorputzeko eta gogoko bizioak eta bizi-molde hain publikoak ezagunak zizazkon. Ordena sakratuetan hunen sarr-arazteko jeusetan barne izaiteak laztatu zuen (…) Bertze norapait itzuli behar izan zen beraz.

Besons, marexalaren anaia - biak elgarri hain atxikiak eta Orléans-ko duke Jaunak hain ontsa arthatuak eta saristatuak, biak bere itxura baserritar, dorpe eta arruntaren azpian hain gortelari onak -, Bordeleko arxapezpikugotik Erruangora aldatua izana zen, eta Pontoise azken diozesa hortako da, horrela Pariskoa hunkitzen baitu, eta hiri huntara hurbiltzen Pontoise beretik lekoa gutitan. Dubois aphezak lehiatu nahi zuen eta bidaia ageri baten ahalgea baztertu. Besons-tarrak Noailles-ko kardinala baino bil-errexagoak iduritu zizazkon; hala izan ziren alabainan. Erruango arxapezpikuak baimena eman zuen. Dubois-ek, bere gain zituen egitekoen estakuru, ukan zuen ordena guzien aldi batean ukaiteko baimen labur bat, eta bere buruari eman hortara prestatzeko erretretarik ez egitekoa. Joan zen beraz goiz batez Paristik laurzpabortz lekoatara, han Erruaneko diozesako parropia bateko elizan, Pontoise-ko bikarigo handikoa, Tressan-ek, Nantes-ko apezpikuak, Orléans-ko duke Jaunaren lehen elemosinariak, meza ixil berean, *extra tempore* erran zuena, eman baitzauzkon Dubois aphezari, sudiakregoa, diakregoa eta aphezgoa, eta gero Erruango arxapezpikugoaz eta ekonomagoez bat eta bertzeak zituen Besons hil zenean saristatua izan zen. Bi prelatez oihu azkarki egin zen, eta arxapezpikuak, estimatua eta onetsia baitzen, galdu zuen hortan. Bertzeak aldiz, etzuen irabazi baizik.

2. Arxapezpiku berria Erreienziako konseiluan

Dubois aphezak horrela ordena guziak ukan zituen egun berean, bazkal-ondoan Erreienziako konseilua izan zen Louvre zaharrean, bazabiltzan mingorri guziek, Erret-Palazioan ere, debekatzen baitzuten ohian bezala Teilerietan egin zadin. Ustegabetu zen Erreienziako konseilu batez Dubois gabe, hara laket zizakona erakartzen baitzuen atzerrietako egitekoez, baina ontsa gehiago egin zen ethortzen ikusi zenean. Dembora etzuen ukanak zituen guziez esker on emaiten galdua. Eskandala berri bat izan zen lehenbizikoa iratzartu eta larritu zuena. Lehen komunionea egin berria zuen, Mazarin dukeak atsegingarriki erran zuen bezala. Guziak jadanik konseiluko gabinetera ethorriak ziren,

eta Orléans-ko duke Jauna ere, eta han ginauden zutik eta barreatuak. Mahi behereko izkina batean nintzan Conti-ko printzearekin, Tallard-ko marexalarekin eta ahazten zatan bertze batekin solasean, Dubois apheza sartzen ikusi nuenean jantzi laburretan, bere ohiko egonaran. Ezkinauden holako egun batean batere haren beha, horrek egin baitzuen ustegabez zerbait erran ginuela. Horrek burua itzul-arazi zaukon, eta ikusi zuen Conti-ko printzea haren gana zoala, bera Aita Jaunaren irri-karkara harekin, baina harenaren garazien ukaitetik ontsa urrun zena eta aldiz samina, bi urratsez aitzineratu baitzizakon, ordena aldi batez goizean berean hoin bapatez ukanak zituen guziez mintzatu, zeremonia horren ondotik hain ephe guti barne konseilura ethortze lasterraz, nahiz Paristik urrun egina zen, hoin hurbil jarraikiko zen sakratzeaz, zuen ustegabeaz eta jende guziarenaz, eta berahala hitzaldi hantu bat pherediku aski atsegingarri batek ukan zezakeen izpiritu eta maltzur guziarekin, eta bertze nor nahi khordokatuko zuena. Dubois-ek, ezpaitzuen hitz baten erraiteko arterik ukana, mintzatzera utzi zuen, eta gero ihardetsi, hotz-hotza, aro zaharraz apur bat gehiago jakinduru izan baliz, ustegabetzen zuen hori biziki guti bitxi idurituko zizakola, berak aphez bezala ezpaitzuen san Ambrosioren behazunari jarraikitzea baizik egiten, eta hasi zen hura nola ordenatu zen erraiten. Enuen ixtorio hori entzun, san Ambrosio izendatzen entzun nuen ordu berean, bapatean ihes egin nuelakotz gabineteko bertze burura, erkidatzearen hastioaz eta burura zezan erran gabe egon ahal enadin beldurrez, ezen sendi nuen hori zintzurrera jauzten ari zizatala, eta erran nezon beldurrez zenbat guti beha zagon san Ambrosio horrela hatzemana eta ordenatua izaiteari, nolako ihardokitzea egin zuen, eta zenbat urruntze 'ta beldurrekin, azkenik orotarik egina izan zizakon bortxakeria guzia. San Ambrosioren aipamen sinestegabeko horrek berahala munduan laster ezgin zuen goga daitekeen ondorioarekin. Izendatzea eta ordenatze hori otsail azkenean egin ziren.

(…)

3. Dukearen indar debaldekoa zeremoniatik Erreientaren urruntzeko

Bururatu nuen (sakratzeko zeremoniara) joan etzadin othoi-othoiztuz, eta Dubois apheza eta ni elgarrekin zer heinetan ginen bazakiela erranez; gomitatua etzuen aipameneko gizon bakarra nintzala; hori izanik ere, hitzeman nahi baldin bazautan sakratze hortara etzela joanen eta hitza atxikitzen, neurea emaiten naukola joanen nintzala, ni,

eta luze-luzean han geldituko, zer laztura sendi banuen ere hortaz eta zenbat zauritua banintzan ere harekin baketzeko gotelari urrats horrek segurki erran-araziko zuenaz, ni horrelako ezteuskeriatik hain urrun eta hortaz hoilatzera menturatzen nintzana, gaur-egun egin behar zenaz geroz, maiteki ene bizi guzian aphalkerietarik birjintasun osoa atxikirik.

Solas hori, bizi-bizia errana eta oraino librokiago eta gementsukiago hedatua, burutik bururano entzuna izan zen. Arrazoin nuela erran zautanaz ustegabetua izan nintzan, begiak idekitzen nauzkola, gehiago oraino besarkatu baininduen, egiazko adixkide bezala mintzo nindakola erran, eta etzela joanen hitzemaiten zautala eta atxikiko zuela. Hortan berexi ginen, ni berriz baieztatuz, joanen nintzala berriz hitzemanez, eta hura indar hortaz ni eskertuz. Ezin egonik batere etzuen ukan, joan nadin gutiziarik batere, ezen ontsa ezagutzen nuen, eta arimaren zolarano ikertzen nuen, eta nik nuen utzi, hoin urrats ahalgegarritik eta ohi ez bezalakotik urrundurik ontsa askietsia. Hitza etzautala atxikiko nork erranen zuen? ezen egin nahi zuela ikusiko da; baina huna zer gertatu zen.

Nahiz hortaz ontsa segurtatua nintzan, hala ere printzearen errextasunak eta ahultasun ezin handiagoak, eta Dubois aphezaren urguluak eta haren gainean zuen burupeak, segurrenaren hartzera ekharri ninduten sakratzera joan baino lehen. Biharamun goizean berrietara igorri nuen Erret-Palaziora, eta bitartean ene karrosa prest ezarr-arazi ene hitzaren atxikitzeko. Baina ontsa ahalgetua izan nintzan, zenbat jarria banintzan ere Orléans-ko duke Jaunaren ezteukerier, zer gertatzen zen ikustera igorria nuena itzuli zelarik eta erran zautalarik Orléans-ko duke Jauna bere karrosara igaiten ikusi berria zuela eta zeremonia egun bekanetako ospe guziaz inguratua, sakratzera joaitera abiatzen. Zaldiak ekhen-arazi nituen, eta ene gabinetean barna sartu nintzan.

Bihardamun jakin nuen Parabère-ko Anderearen ohaide hautetsi baten ganik, erreinukoa hura baitzen orduan baina ez leiala, sakratze aitzineko gauan Orléans-ko duke Jaunarekin zatzala Erret-palazioan, bi mihisen artean, horrela guti gertatzen zena Orléans-ko duke Jaunaren gambaran eta ohean, baina abantzu beti haren etxean, nitaz laudoriorekin mintzatzea gogoratu zizakola, hemen ezarriko eztutana, eta sendimendurekin harendako nuen adixkidetasunaz, eta berriki aitzineratua naukonaz betea, sakratzera etzela joanen, den hobekienik eskertzen baininduen hortako. Parabère-sak laudatu ninduen, arrazoin nuela onhartu zuen, baina bururatu zuen joanen zela erranez. Orléans-ko

duke Jaunak, ustegabetua, erran zaukon eroa zela beraz. "Eroa, bai, ihardetsi zuen, baina joanen zira. - Eta nik, egin zuen berriz, diozut enizala joanen. - Bai, diozut, erran zuen, eta joanen zira. - Baina, egin zuen berriz, mira dun hori, badion San-Simungo Jaunak arrazoin duela, eta orduan, zergatik noaken bada? - Nahi baitut, erran zuen . - Huna bertzerik, ihardetsi zuen, eta zergatik nahi dun joan nadin, zer dun erokeria hori? - Zergatik, erran zuen, zeren. - Oi! zeren, ihardetsi zuen, zeren, eztun hori mintzatzea; erratan bada zergatik, ahal badun." Eta aharra zenbaiten ondotik: "Nahi duzua beraz baitezpada jakin? ezpaitzira jakin gabe Dubois aphezak eta nik hitzak ukanak ditugula elgarrekin, duela laur egun, eta ezkirela oraino burura helduak. Sudurra orotan sartzen duen debru bat da; gaur hemen elgarrekin etzanak girela jakinen du. Bihar ezpazira haren sakratzera joaiten, nik debekatua dautzutala sinetsiko du huts egin gabe; jeusek eztauko burutik ekhenduko, eztauta barkatuko; ehun gaixtakeria eta ehun itsuskeria egina dauzta zure ondoan, eta laster gure nahastera helduko da; bada, hori da nahi eztutana, eta hortako dut nahi haren sakratzera joan zaiten, nahiz San-Simungo Jaunak arrazoin duen." Hortan, eztabadatze aski ahul bat, gero sakratzera joaitearen deliberatzea et hitzemaitea, laster liealki egin zena.

Ondoko gauan Parabère-sa etxean etzan zen bere maitalexkarekin, huni ixtorio hau kondatu baitzaukon, hain zizakon gozagarria iduritzen. Arrazoin beraz maitalexkak erran zaukon Biron-i, hunek arratsean berean kondatu baitzautan. Deitoratu nituen hunekin Erreienta bazadukaten gatinak, eta eztaukot behin ere geroztik sakratze hori aipatu, ez eta hark eni; baina gero ontsa ahalgetua izan zen ete enekin ontsa eragozpenean. Dubois aphezari sakratzera joaitera ez uzteko errana naukonaren erraiteranoko ahulezia ukan zuenez eztakit, ala Parabère-saren ganik jakin zuen, hortan Orléans-ko duke Jauna alda-arazirik haren ondoan mereximendu egiteko eta zuen ahalaren erakusteko. Baina (Dubois) bete-betean jakinduru izan zen eta nehoiz eztauta barkatu; geroztik jakina dut Belle-Isle-en ganik Le Blanc Jaunari eta hari errana zauela, jasan-arazia nauzkon behargabe guzietan, eta batzuetan ezarria nuen lanjer bizian ere, deusek etzuela hain barna hunkia eta zauritua, eta arimaren zolarano, nola Orléans-ko duke Jauna haren sakratzera joaitetik debekatu nahi ukanak, huntaz mintzatzeko ordu baita orai.

4. Zeremonia elizan eta bazkaria Erret-Palazioan

Oro berdin handizki egina eta hautatua agertu zen urguluz eta handi-nahiz zoratua zen minixtro baten fagore mugagabekoaren distira-arazteko, bere nagusia hartara hertsatua zuen menpekotasun publikoen eta neurrigabekoenaren, eta hortaz bere buruaren aphaintzeko ausartzia ezin-hezienaren, Frantzia guziaren begietan distira handienarekin ager-araziz, eta hortik Europa guziarenetan, nahi baitzaukon molde argienaz ikasi Frantziako nagusia hura zela, ala barneko, ala kampoko, azal hutsal bat baizik etzen izen baten azpian, eta hari bakarrik behar zela hel egin zer ere garazia ala zer egiteko izan zadin, Frantzian gauza ororen emaile bakarrari eta epaile egiazkoari bezala.

Val-de-Grâce delakoa hautatua izan zen sakratzearen egiteko, erret-komentu bat zelakotz, Parisko ederrena eta eliza bereziena. Rohan-go kardinala, orotan Noailles-ko kardinalari kontra egiteaz loriatua eta hunek Dubois aphezari bere diozesan ordenatua izaitearen onhartzeko emana zaukon ezaz baliatzeaz, hoin ephe baliosa hatzeman zuen Erreintari bere gortearen ontsa egiteko eta hunen minixtroaren eratxikitzeko, zeremoniaren egitera lehiatuz. Alabainan haren jaiotzeko kardinal bat, Strasbourg-eko apezpikua, eta mota orotako abantailez dirdiran, Dubois aphezak nahi ukanen zituen guziak baino biziki goragoko sakratzalea zen. Ohoreari doakonean, ezta lehenbiziko urratsa baizik gostatzen denik; Rohan-ek jauzia egina zuen, Tallard-ek bere abantailetan sinets-araziari jarraikiz, hemen bere lekuan ikusia den bezala, A. Tellier-ek nahi zuena jasan zuenean, elemosinari handi izaiteko, eta bere burua eman zuenean, Noailles-ko kardinalari, bere argier eta beteki ezaguna eta ezagutzen zuen egiari alde eginez, jesuista izigarri horren gaixtakeria eta bortizkeria guzien eskuetara (…)

Eliza handizki aphaindua izan zen, Frantzia osoa gomitatua; bere buruaren ez erakustera nehor etzen menturatu, eta ahal ukan zuen guzia han izan zen zeremonia guzian. Galeria leihosaredun batzu antolatuak izan ziren embaxadore ‘ta bertze minixtro protestantendako. Bat izan zen handizkiago egina Orléans-ko duke Jaunaren eta Chartres-ko duke Jaunarendako. Izan ziren anderendako; eta Orléans-ko duke Jauna komentutik sartu baitzen, eta haren galeria barnean gertatu baitzen, orotara idekia gelditu zen, hanbatetarano nun barnea eta kampoa mota guzietako edari hotxez beteak ukan baitzituen eta egiten eta nasaiki emaiten zituzten aitzindariez. Nahasmen horrek egunaren gainerateko guzian jarraiki zuen barnean eta kampoan zerbitzatuak izan ziren mahi

ainitzekin bestan zen jende xehearendako eta hara sartu nahi ukan zuen guziarendako.

Orléans-ko duke Jaunaren gambarako aitorenseme lehenek eta haren aitzindari lehenek egin zituzten bestako ohoreak, jende hautukoak lekuratu, haier ongi-ethorri egin, bidatu, eta haren aitzindarietako bertze batzuek artha berak hartu jende gutiago gotorrendako, bitartean barrandari guziak eta polizia guzia ari zirelarik karrosa elemeniaren hurbil-arazten, lerrokatzen, jalgi-arazten ahal zen ordenu eta gozotasun guziarekin. Sakratzean, guti behar bezalakoa izan zena konsekratuaren eta ikuslen aldetik, oroz gainetik zeremoniatik atheratzen, Orléans-ko duke Jaunak askietsia zela erakutsi zeen hartuak zuten nekeaz eskupean ukan zituen jende gotorrer, eta bazkaltzera joan zen Asnières-era Parabère-ko Anderearekin, hau ontsa gozatua sakratzera eremanarazirik, ikusi zuena, eta haren gain sobera egiazki baizik eman etzena beharbada, ikusi zuena, diot, hastetik bururano beharbezelakotasun gutirekin.

Prelat guziak, aphez hautuzko guziak, eta laiko andana gotorra Orléans-ko duke Jaunaren aitzindariez eta haren gastutan gomitatuak izan ziren zeremonia demboran Erret-Palazioan bazkaltzera. Bi mahi bakoitza hogei-ta-hamar mahikoduna izan ziren bizitegi handiko barne handi batean, Parisen gotorrena zen guziaz beteak izan zirenak, eta bertze mahi andana bat berdin ongi zerbitzatuak ondoko bertze barne batzuetan jende gutiago gotorrendako. Orléans-ko duke Jaunak eman zaukon arxapezpiku berriari balio handiko diamant bat erhaztunetako. Egun hori guzia utzia izan zizakon gizonen baiestea eta Jainkoaren benedizionea ukan eztituen irabaz-besta handi horri. Enuen den gauza gutiena ikusi, eta ezkira hortaz Orléans-ko duke Jauna eta ni behin ere mintzatu.

Horn-ko konde holandesa Parisen erahiltzale, errotan hilarazia

Bazen bi ilabete hurbil Horn-ko kondea Parisen zela, joko eta lizunkeriako bizi ilun bat eremanez. Hogei-ta-bi urteko gizon bat zen, handia eta biziki ontsa egina, Horn-ko etxe zahar eta handi hartakoa, XI-garren mendeko ezagunak ziren Aphal-Herrietako herjaun ttipi hetarik, eta geroztik omeneko gizaldi lerro luze batetik. Horn-ko hiri ttipi eta jaurerriak Brabant-ean, Ruremonde-ko ondoan, emanak dauzko etxe

horri ethorkia eta izena. Liège-ko herrialdekoa da, eta Loos-ko konderri zaharraren menekoa zen (…)

Horn-ko J. adar heren eta azkenaren burua izan zen, eta bazekarren beti Baussignie-ko Jaunaren izena (…) Eugène-Max, haren ondoko borzkarren gizaldikoa, Horn-ko printze egina izan zen. Hunen seme bakarrak, Filipe-Emanuel, Horn-ko printzeak, ukan zituen kargu, ofizio eta hautesmen gotorrenak, zibilak eta armadakoak, Karlos II-garren Espainiako erregeren azpian, hunen testamendua onhartu baitzuen (…) Antoinette, Ligne-ko printze, urrezko iletzeko zaldun eta Espainiako handiaren alabaren ganik, bi seme utzi ditu: Maximilien-Emmanuel, Aphal-Herrietako iraultzari jarraiki zaukona, ontasun guziak han baititu, eta han Horn-ko printzearen izena baitu, eta Antoine-Joseph Horn-ko konde izenekoa, hemen aipatzen dena, eta etzena oraino Austriako tropetan kapitaingoatik atheraia baizik, gutiago gaztetasunaren gatik nola biziki jende gaixtoa baitzen, eta biziki trabagarria bere amaren eta anaiarendako. Hanbat gauza gaitzigarri ikasi zituzten Parisen zeraman biziaz hara heldua zen dembora gutiaz geroztik, nun igorri baitzaukoten konfienxiako aitorenseme bat haren zorren ordaintzeko diruarekin, Flandres-etara itzul zadin sinets-arazteko, eta, ezpazen hortara heltzen ahal, Erreientaren larderiari othoiez hel egiteko, haren jendakiakoak izaiteko ohorea baitzuten Madame-ren aldetik (*), haien gana itzul-araz zezan. Zorigaitzak nahi ukan zuen aitorenseme hori erranen den erahiltzea egina ukan zuen biharamunean ethorri zela.

Horn-ko kondea joan zen Pasioneko ortziralean, epailaren 22-an, Quincampoix karrikara, nahiz, zion, ehun mila eskudoren banko-balio erosi, eta hortako hitz-hartu zen ostatu batean diru-jokari batekin. Diru-jokaria han gertatu zen bere diru-zakuarekin eta banko-balioekin, eta Horn-ko kondea, erran zaukonaz, bi adixkide lagunekin; ephe bat berantago hirurak diru-jokari zorigaitzeko hortara jauzi ziren; Horn-ko kondeak eman zauzkon puñal ukaldi batzu, eta diru-zakua hartu; haren alegiako adixkide hetarik batek, Piemontesa zena eta Mille izenekoa, diru-jokaria etzela hila ikusiz, erahiltzea bururatu zuen. Egin zuten harrabotsean, ostatuko jendeak lasterrez ethorri ziren, ez lehia askirekin erahiltzearen ez egina aurkitzeko, baina aski goiz erhailtzalez jabetzeko eta haien arrastatzeko. Aharra hortan, heren gaixtaginak ihes egiten du; baina Horn-ko kondeak eta Mille-ek etzuten egin ahal ukan. Ostatuko jendek justiziaren bila igorri zuten, hauen aitzindarien eskuan utzi baitzituzten, eta hauek (Palazioko) Athezaindegira ereman. Gaizkintza

laztagarri horrek, horrela egun argiz eginak, harrabots handia eman zuen berehala, berehala ere jende gotor batzu, omeneko etxe horren ahaideak, joan ziren urrikiz oihukatzera Orléans-ko duke Jaunaren gana, hunek haier mintzatzea ahal ukan zuen bezenbat baztertu baitzuen, eta justizia on eta lehiatua egina izan zizeen arrazoinekin manatu. Azkenean jendakiak Erreienterano zilatu zuen; Horn-ko kondearen erotzat harr-araztera entseatu ziren, osaba bat hetsia bazuela erraiterano ere, eta Etxe-Xipietan hetsia izan zadin eskatu zuten, edo Garitateko aiten etxean, Charenton-en, han ere eroak ezartzen baitira; baina ihardespena izan zen etzaitekeela erotasuna abretasunerano bazeramaten eroez goizegi hustua izan. Beraz galdeari eza ukanik, aitzinera eman zuten zer desohorea zatezkeen auzia eta haren ondorioak omeneko etxe batendako, zen handien guziari bazatxikona, eta abantzu Europako monarka guzieri. Baina Orléans-ko duke Jaunak ihardetsi zeen desohorea gaizkiginean zela eta ez zigorrean. Hertsatu zuten etxe horren ohorea hari berari bazatxikola erranez: "He bada, jaunak, erran zauen, desohorea zuekin batean hartuko dut."

(*) "Madame" Erreientaren amak eta Horn-ko kondearen ahaideak gertakari hori luzeki aipatzen du bere eskutitz aipatuetan. Huna zer dion 1720-ko jorrailaren 21-ean (*op. cit.* orr. 609): "Horn kondea biziki gaizki hazia izana zen eta Parisko gaixtagin guziekin lotua zen. Alde orotarik gizon biziki arina zen, gain-gaineko heinerano *sodomista*, hots etzen haren baitan gomendagarririk zuen begitarte pollita baizik, ezen sortzeak baliorik batere ezpaitu bertutea lagun eztuelarik." (*Itzultzalearen oharra*)

Auzia etzen ez luzea ez nekea. Law-ek eta Dubois aphezak, banko-jokarien segurtasunean hanbat abantail zutenak, hori gabe diru-paperra erortzen baitzen labur-laburra eta atherabiderik gabe, auzia urriki gabekoa izan zadin behar zena egin zuten Orléans-ko duke Jaunaren ondoan; eta hunek garazia egiteko ethengabe jasaiten zuen jaukizarreari alde egiteko, hek azkenean bere burua hortara jitera utz zezan beldurrez, jeus etzuten ahatzi auzi egitera parlamenturen hertsatzeko; gauza urrats handitan zoan, eta etzen errota baino jeus gutiago aipu. Ahaidek, gaizkilearen salbatzeko itxaropen ukaiteko ahalik ez ukanez, etzuten zigor motaren aldatzea baizik gogoan ukan. Zenbait enegana jin ziren, haier zerbitzu emaiteko zerbait egin nezan, nahiz ahaidetasunik eztutan Horn-ko etxearekin; jakin-arazi zautaten errotak etxe hori guzia etsipenean ezarriko zuela, eta horri bazatxikakon guzia, Aphal-Herrietan eta Alemanian, herri horietan baitzen ezberdintasun

biziki handia eta gotorra erahiltzeak eginak zituzten ethorkiko jenden zigortzean; buru mozteak etzuela ondoriorik batere horrela hil-arazi zenaren familian, baina errotak halako desohorea emaiten zeela, nun osabak, izabak, eta anaiarrebak, eta ondoko hirur gizaldiak, edozein kupitulutan sartzetik bahituak baitziren, hori, ahalgeaz bertzalde, ekhentze biziki damugarri bat baitzen, eta familiaren abantaila, kargu hartzea eta esperanzak debekatzen baitzituen, kalojesen komentuetara eta apezpikutegi soberanoetara heltzeko; arrazoin horrek hunki ninduen, eta Orléans-ko duke Jaunari ahal bezain hobeki erranen naukola, baina garazia hortik harat deusetara abiatu gabe.

La Ferté-ra abiatzera nindoan, han aste sainduko astiaz baliatzeko. Joan nintzan beraz Orléans-ko duke Jaunaren gana, ikasi berria nuen hori argitu bainaukon. Gero erran naukon Horn-ko kondearen biziaren garazia galdeginen zaukona, erahiltze alde orotarik hoin hastiagarriaren ondotik, etzela Horn-ko etxearen abantailaz baizik axolatzen, eta etzela haren zerbitzari izanen; uste nuela ere etzela hala izanen errotan hil-arazi nahian amorratuko zena, Horn-ko kondeak hortara kondenatua izaitea huts egin ezpaitzezakeen; uste nuela bazela *arteko bide* bat (…) Erakutsi naukon bide hori ontsa xoila zela. Errotan hil-arazteko erabakiaren hartzera eta erraitera uztea zela, zigorraren aldatzea prest-presta atxikiz izenpetua eta zigilatua ezartzeko ez ukanez eguna baizik erabakiaren ordu berean, berehala igor hori behar zenari, eta egun berean burua motz-araz Horn-ko kondeari. Hortan justizia osoa emana da, errotako erabakia errana, jendea askietsia, Horn-ko kondea zinez gaztigatua denaz geroz (…) Hori hitzeman zautan, eta ontsa ezagutzen bainuen, gogo onez zela ikusi nuen. Utzi nuen eta biharamunean abiatu nintzan.

Aitzinetik ikusia nuena gertatu zen. Dubois-ek eta Law-ek setiatu zuten, eta hain ongi itzul-arazi nun La Ferté-n ikasi nuen lehenbiziko berria Horn-ko kondea eta haren Mille gaixtagina Grève-an errotaratuak izanak zirela da, bizirik, eta azken hatsa errotan emana zutela ondoko asteartean, epailaren 26-an, arratsaldeko laurak hirian, urkabe berean, "kestionean" emanak izan ondoan. Ondorioa Orléans-ko duke Jaunari errana naukon bezalakoa izan zen. Horn-ko etxea eta Aphal-Herrietako noblezia handi guzia sumindua izan zen, eta etziren neurrian egon ez hitzetan ez izkirioetan. Hobeki dena, izan ziren ere mendekiozko xede bitxi batzu gogoratu zizezteenak, eta, Orléans-ko duke Jauna hil eta luzaz geroztik, jaun horietarik aurkitu ditut, hortaz eni mintzatu gabe

egon ahal eztirenak ez eta bihotzean atxikia zuten pozoinaren barreatzetik.

Horn-ko kondea Parisen hil-arazi zen egun berean, epailaren 26-ko asteartean, Bretainiar andana bat eginak izan ziren Nantes-en konseiluko bilkuraren erabakiaz. Pontcallet-ko, Talhouet-ko jaunek, Montlouis eta Coëdic dragonetako kapitainek han burua moztua ukan zuten.

Dangeau-ko markesa

1. Gortelari on bat

Courcillon-go Philippe, Dangeau-ko markesa zeritzona, Parisen hil zen lauretan-hogei-ta laur urtetan, buruilaren 7-an: halako ur margazkiko jende bat izan zen, hartan, egin zituen *Orhoitzapen* bitxien ariara, jakin-nahiak hemen apur bat hedatzera ekhartzen baitu. Noblezia bizki laburra zuen, Chartres-ko herrialdekoa, eta familia higenauta. Goizik katoliko bilakatu zen, eta zilatzera eta fortuna egitera azkarki ari izan. Mazarin kardinalaren minixterioak Frantzian eginak eta utziak dituen zauri handien artean, joko gotorra eta hunen gaixtaginkeriak mundu guzia, handi eta xipi, laster jarri zuenetarik izan ziren. Handik nasaiki erautsi zuen ithurrietarik bat izan zen, eta hastiatzen eta gaitzesten zituen jaunen hondatzeko bide hoberenetarik bat, nazione frantzes guzia bezala, nahi baitzuen hetan bere baitarik handi zen oro aurdiki, eta hura hilez geroz haren paperretarik hortara gelditu gabe lan egin baita gaur-egun ikusten den ondorio onarekin, hain segurki iragartzen duela monarkia hunen bururapen eta urtze hurbila (*). Jokoa ezin gehiago modan zen beraz gortean, hirian eta orotan, Dangeau agertzen hasi zelarik.

Gizon handi bat zen, biziki ontsa egina, adinarekin lodi bilakatua, beti aurepegi gozagarri batekin, baina hitzemaiten zuena bazatxikana: okaztatzeko gezatasun bat. Jeus etzuen, edo biziki gauza guti; orduan jokatzen ziren joko guzien beteginki ikasten ari izan zen (…), eta jokoen eta karten apailamendu guzien barnatzen, horietan nagusi izaitera heldu baitzen bekan baizik hutsik ez egiterano, "lansquenet" eta "bassette" delakoetan ere, horien zuzenki estimatzen eta irabazi behar zutela uste zituenen kargatzen. Jakitate horrek ainitz eman zaukon, eta egin zituen irabaziek ezarri zuten etxe onetara, eta apurka apurka gortera, kompainia

onetara sartzeko heinean. Eztia zen, gustatzera ekharria, lausengaria, munduko aire, izpirituarekin, jokoan kondu egile lasterra eta hoberena, hortan, zer irabazte gotorrak egin baditu ere, eta ontasun handia eman daukotena eta fortunaren oinarria eta bideak, nehoiz eztu aierurik eman, eta aipamena beti osoa eta garbia atxiki du. Biziki jokolari gotorren beharrak Erregeren jokoko eta Montespan-go Anderearenarendako, hor onharr-arazi zuen; eta, osoki jarria izan zenean, hartaz zuen Montespan-go Andereak atsegingarriki erraiten etzaitekeela egon hura maitatu gabe 'ta hartaz trufatu gabe, eta hori osoki egia zen. Maite zen ehoiz ezer ezpaitzizakon ehoren kontra atheratzen, eztia baitzen, gustatzera ekharria, zerbitzu egina, ohoragarria; baina bertzela hain leuna, hain geza, hain ezteusen mireslea, ezteus horiek Erregerekin edo kargu ala fagoretan zirenekin ikusteko bazuten ber; horien beren hain lausengari aphala, eta goititu zenez geroztik, urguluz eta gezeriez hain hantua, nehori errespetuz huts egin gabe bizkitartean, eta gutiago aphala izan gabe, bere delako aipamenen entzun-arazten eta balia-arazten hain hartua, nun ezpaitzizakokeen egon irri egin gabe.

Erregeren eta haren oihadearen jokoetan jarria izaiteaz baliatu zen aipamenez bere buruaren aphaintzeko, eta ikusi zuen etzezakeela hori diru bortxaz baizik egin. Eman zaukon beraz Vivonne-ko Jaunari, iduritzen zatanaz, gauza hori 1670-koa baita, Tours-ko eta Touraine-ko gobernuaz nahi ukan zuen guzia, eta erosi, ilabete guti berantago, Erregeren irakurtzalegoko bi karguetarik bat, sartzeak emaiten baitituzte, hain bekanak eta baliagarriak Luis XIV-garrenaren aroan. Diruak hasi zuen beraz etzate ttipiko gizon bilakatzen, probinziako gobernari, eta Erregeren eta Montespan-go Anderearen joko-aldietan etxekotu bat, abantzu egun oroz jokoan artzen baitziren. Izpiritu gutirekin, baina dena mundu handikoa eta beti kompainia onean izaiten bazakienarena, errima moldatzen ere bazakien. Orduan Errege jostatzen zen batzuetan errima-buru batzuen betetzera emaiten. Dangeau-k suharki nahi zuen ukan bizitegi bat, bekanak zirenak Errege Versailles-en jarri zen lehenbiziko aroetan.

Montespan-go Anderearekin jokoan zen egun batez, Dangeau hasperenka ari zen norbaiti erdi-ahapetik bizitegi baten ukaiteko zuen gutiziaz, aski gora Erregek eta Montespan-go Andereak entzun ahal zezaten; entzun zuten alabainan eta jostatu zituen, eta gero Dangeau-ren ezartzea itxindietan gozagarri iduritu zizeen, errima-buru batzu ordu berean harendako eginez asma zezazketen bitxienak: eman zauzkoten,

ustez eta ehoiz etzuela hetan burutzerik ukanen, bizitegi bat hitzeman jokoa bururatua izan gabe eta handik athera gabe betetzen baldin bazituen. Errege'ta Montespan-go Anderea ziren hatzemanak izan. Dangeau-k Museak alde ukan zituen, bizitegia irabazi zuen, eta ordu berean ukan. Zaldieriako erreximendu bat bazuen; Erregeren erreximendua ukan zuen; eta gero gerla gortea baino gutiago baitzoakon, ez alta beldurreriaz salatua izanik, Alemaniako printze batzuen ondoan erabilia izan zen, gero Italian. Delfin Jaunaren ezkontzan, hain ongi egin zuen nun haren meninetarik bat izan baitzen, nahiz bertze guziak ethorki hautukoak ziren. Ikusi ahal da hemen Maintenon-go Andereak, Delfina Anderea nahi baitzuen bereak zituen jendez inguratu, iragan-arazi zuela Richelieu-ko dukesa, Erreginaren ohorezko anderea, Andere Delfinaren gana, eta, gozagarritasun horren eztitzeko, printzesa horren ohorezko zaldungoa eman-arazi zaukola Richelieu-ko dukeari, hitzemanik, zenbait dembora atxiki eta, nahi zuen bezenbatean saltzen ahalko zuela onhartua izanen zen nahi zuenari. Jokoan bitxiki gaizki heldua zen. Dangeau, jadanik menina eta probinzian gobernadore, izan zen haren gizona; bortz ehun mila libera bildu zauzkon. Horrela Dangeau Andere Delfinaren ohorezko zaldun bilakatu zen, eta baitezpada hortik ordenako zaldun, izendatze handian, hirur urte berantago, 1689-ko urthatsez.

Neska azkarki aberats batekin ezkondua zen 1682-an, Morin Judioa zeritzon zergalari batena, horrek Estrées-ko marexal bertze alabaren senarra zenaren koinat egin baitzuen. Haren ganik Dangeau-k ukan zuen alaba bakar bat, Montfort-ko duke Chevreuse-ko dukearen seme zaharrenarekin esposatu zuena, hortaz azkarki hantu baitzen. Alhargundurik, aski aberats gertatu zen berriz Lœwenstein-go kondesa batekin ezkontzeko, Andere Delfinaren ohorezko anderea, eta Fürstemberg-ko kardinalaren arreba baten iloba, baitzituen ahizpa batzu Alemanian handizki jarriak, eta anaiak kargu handietan. Ikusi da Lœwenstein-darrak nor ziren, eta Madame-ek, eta Andere Delfinak ere egin zuten harrabotsa, harma palatindarrak Courcillon-eneri lotuak ikusiz, Dangeau-ko Anderearen ibil-kaderan, eta zenbat debaldekoa izan zen arrazoinekin. Dangeau-ko Andereak ontasun izpirik etzuen, baina begitartez, soin-araz eta garaziez xoragarria zen. Hemen usu aipatu da. Atsegin bat zen Dangeau zer lorietan zoan harrotuz emazteraren ahaiden dolua zekarrenean, eta hauen handitasunez zerasanean. Azkenean, azal bat bertzearen gainean metatuaren bortxaz, horra jaun

bat, eta horren arak oro erakusten zituena urratzeko irri egin-arazterano. Hortako zion La Bruyère-ek, bere hauteko *Caractères de Théophraste*-etan, Dangeau etzela jauna, baina jaun baten moldean egina (**).

(…)

(*) San-Simunek lerro hauk 1751-an idazten ditu. Ezta ordukotz Frantziako monarkiaren iraupena laburtua dela ikusten duen bakarra.

(**) Dangeau ezagutu da La Bruyère-ek "Pamphile" ("oro maite duena") deritzonean: "Pamphile-ek, hitz batez, handi izan nahi du; hala dela uste du; ezta hala; handi baten moldean egina da." (*Idazlearen oharrak*)

2. Lausengaritik alderdikarira

1696-an Estatuko konseilari ezpatadun izan zen, eta hemen bere lekuan ikusi da Burgoñako duke Enejaunaren ezkontzan, Andere Delfinaren heriotzean galdua zuen ohorezko zaldungoa itzuli zaukola, eta haren emaztea palazioko andere egin, senarrak zuen karguaren gatik hetan lehenbizikoa izan zena baitzen, dukesarik hetan ezpaitzen izan orduan; eta ezta ahatzi Dangeau-ko Andereak Maintenon-go Anderearen ondoan ukan zituen etxekotasunez eta fagoreaz mintzatzea, Erregerenak ekharri baitzauzkoten. Horrek guziak Dangeau hantu zuen, eta irrigarritasunak miragarriki handitu zauzkon. Errege 'ta Maintenon-go Anderea adoratzen zituen; minixtroak eta gobernamendua ere adoratzen; debozione hori, erakustearen bortxaz, munetarano sartua zizakon. Haien gostuak, sendimenduak, urruntzeak, osoan beretzen zituen. Erregek bazegien guziak, zer motakoa izan zadin ere, eta batzuetan bitxienekoa, Dangeau miraz xoratzen zuen, azaletik barnerano iragaiten zizakona. Berdin zen Maintenon-go Andereak maite zuela, aitzinatzen ala baztertzen zuela bazakusan guziaz, eta hori guzia hain ontsa bere baitan lotu zuen, nun bere gauza bilakatu baitzuen, hek hil ondoan ere. Hortik badator bere *Orhoitzapen*-etan politika ikaratu guziaz Orléans-ko duke Jaunaren kontra eta orotan baxtarten, eta bereziki Maine-ko dukearen aldera gorde ahal eztuen alderdikaritasuna, ala handi-nahiak, ala gaitzipenak, ala itsumenak eratxikia zaukon guzian, eta Orléans-ko duke Jaunari zoakon edo hunen kontrakoa zen guzian.

Arrazoin beraz, eta bertze batzuez, parlamentuaren, baxtarten eta printze atzerritar egiazko ala falsu guzien alderdikari handia zen, jakingabe osoenarekin, ustegabetzeranokoa bere bizia gortean eremana zuen gizon batendako, hala nola nun ezpaitu hortan neurririk atxiki ahal ukan bere *Orhoitzapen*-etan, hortaz aldi ainitzez egiaren baztertzerano, eta bertze batzuetan ondotik joanez molde arruntenean, ezera zeramatenen

erraitera ez menturatuz, eta bertze batzuetan bere begien aitzinean iragana zena ixilduz. Duken hastio hori Maintenon-go Andereanetik heldu zizakon, baxtarten maite-min zaharra eta gerizatzalea, nahiko baitzuen, eragozpen ororen hetarik baztertzeko, erresumako lerro lehena aurdiki. Horrela, hunen kontra zoan orok, mota orotan, zen berria eta bitxia izanik ere, laguntza aurkitzen zuen haren ondoan. Dangeau ezin konsolatua zen bere buruaren duke egin-arazteko entseatua zuen guzia debaldetan eginik, eta heldua etzen lerroaren kontra herra berezi bat hartua zuen; horrela ordainduko zela uste zuen. Emaztearen jendakiek, hunek, egiazko Alemansa bezala, uste baitzuen deus etzaitekeela hel imperioko printze baten ez eta konde zahar baten ere heinera, semearen ezkontza Elbœuf-ko eta Mantoue-ko dukesen gana hain hurbilak, gauza hortan burua osoki xoratua zaukoten. Bere lekuan ikusi da Fürstemberg-ko kondesaren atxikimendu hertsia Soubise-ko Anderearekin eta batasun horren arrazoina, eta Soubise-ko Anderea nor zen Erregeri buruz eta Maintenon-go Andereari ere. Ikusi da ere Fürstemberg-ko kondesa hori nor zen (izen bereko) kardinalari buruz, bere senarraren aitaren eta Dangeau-ko Anderearen amaren anaia, hauekin bizi zena etxekotasun osoan. Dangeau-k etzuen gehiagokorik behar Rohan-darren aitzinean balhauriko bezala izaiteko, eta, horri datxikola, Bouillon-darrenean, bi etxe horiek elgarrekin batean zutenaren gatik. Hori da haren *Orhoitzapen*-etan agertzen dena alderdikaritasun ezin handiago batekin, edo laudorioetarik edo idortasunetik, azkenik ezjakinez edo gaizkiagoz egiten dituen hutsetarik, eta gauzen erraiteko duen uzkurtasunetik. Beharrezko ohar horien ondotik, jin gaiten orai utzi dituen *Orhoitzapen*-etara, bera hain betean marrazkitzen dutenak, eta hain azkarki jitearen araura.

3. Orhoitzapen ala egunkari?

Gortera ethorri zen hastapenetik, erran nahi da Erregina amaren heriotze inguruan, egun oroz eguneko berrien izkiriatzen hasi zen, eta lan horri jarraiki zako heriotzerano. Jarraiki zuen ere horien izkiriatzen egunkari bat bezala, arrazoinkatzerik batere gabe, hala nola nun ezpaitira egun berezi batekilako gertakariak baizik, egin eta eman dituenaz hitz bat ere gabe, are gutiago gorteko edo jende berezien arteko azpikeria edozeinik ez mobimendu edozeinik gabe. Gortelari xume baten aphaltasuna, nagusiaren eta fagorean den edo sendi duen ororen debozionea, laudorio gezen eta miseriazkoenen nasaitasuna, ithotzeko eta betiereko isentsua Erregeren egintza ezpaikoetarano, nehon uzten eztituen beldurra eta fagore handiena nehoren ez gaitzitzeko, guziaren

desenkusatzeko, bereziki jeneraletan eta Erregeren gostuko, Maintenongo Anderearenekо, minixtroeneko bertze jendetan, gauza horiek orok orsto-alde guzietan dirdiratzen dute, hautan bekan baita egun bakoitzak bat baino gehiago bete dezakeela, eta miragarriki nardatzen. Erregek egun oroz egin duen guzia, ezpaikoenik ere, eta usu odoleko printze lehenek eta minixtro onetsienek, batzuetan bertze jende mota batzuek, hor aurkitzen dira egintzetan idorki, baina ahal den bezenbat laudorio esklaboenekin, eta hark ezpada bertze nehork laudatzea gogoari eman elezakeen gauza batzuendako.

Neke da gogoan hartzea nola gizon batek ukan ahal dituzkeen egun oroz berrogei-ta-hamar urtez goiti horrelako liburu baten izkiriatzeko pairamena eta iraupena, liburu hoin meharra, hoin idorra, hoin hertsatua, hoin begiratua, hoin hitzez-hitzkoa, agortasun higungarrieneko azal batzu baizik ez izkiriatuz. Baina erran behar da ere egiazko Orhoitzapen batzuen idaztea neke izanen zizakola Dangeau-ri, barneko gauzen eta gorteko mekanikeria guzien jakitea galdegiten baitute. Nahiz etzen abantzu nehoiz handik jalgitzen, eta oraino ephe batzuetako baizik, nahiz han zen hautamenekin eta kompainia onetan, nahiz han maitatua zen, eta estimatua ere ohorearen eta segeretuaren aldetik, egia da bizkitartean ehoiz etzela edozeren jakinduru izan ez eta edozein gauzetan ikasia. Bazeraman bizi ergela eta azalekoa bere *Orhoitzapenak* bezalakoa zen; ezer etzakien mundu guziak ikusten zuenetik harat; aphairu eta bestetan izaitea aski zizakon ere, zuen handieriak *Orhoitzapen*-etan artha handia hartzen du horietan zela erakusteko, baina etzen ehoiz barneko deusetan izan. Ezta hori etzelakotz batzuetan bere adixkidekin zer ikus bazuketen gauzez jakinduru, haien beren ganik, jende gotorretarik zenbait baitziren, eta zerbait ikasten ahal baitzaukoten, baina hori bekan zen eta labur. Mota hortan haren adixkideak zirenek, biziki guti, sobera ezagutzen zuten haren jite arina harekin bere astiaren galtzeko.

Dangeau bierartekoa baino aphalagoko izpiritu batekoa zen, biziki ezteusa, mota orotan ahal gabea, errex itzala gauzarentzat hartzen zuena, airez baizik asetzen etzena, eta horrek osoki askiesten zuena. Zuen gaitasun guzia behar bezala ibiltzea zen, nehoren ez gaitzitzea, lausengatzen zuten haize ufen gehitzea, halako estimu baten biltzea, atxikitzea eta hartaz gozatzea, ohartu nahi izan gabe, Erregetik hasiz, haren handikeriek eta ergelkeriek kompainia usu jostatzen zutela, ez eta hortan usu enganioetara eror-arazten zutela. Horrekin guziarekin, haren

Orhoitzapenak egunkariek ixilean uzten dituzten egintzez beteak dira, zahartzean ainitz irabaziko dute, indar gehiagorekin izkiriatu nahiko duenari ainitz baliatuko zazko, ordutegiaren zuzentasuneko, eta nahasmenetik baztertzeko. Azkenean baderakusate, zuzentasun nahikoenarekin, gorteko azalaren marrazkia, egunekoena, gortea osatzen duen guziarena, lanak, jostetak, Erregeren biziaren uzitzea, larriki mundu guziarena, hala nola nun deus ezpailizate ixtorioarendako erreinu guzien horrelako *Orhoitzapen* batzuen ukaitea baino baliagarriago, ahal baliz, Charles V-garrenaz geroztik bederen, miragarriko argi bat bota bailezakete, ezteukeria horien artetik, erreinu horiez izkiriatu den guzian.

Hitz bi oraino idazle berezi hortaz. Egunkari baten egiteaz etzen batere gordetzen, deusen beldur ez izaiteko moldez baitzegien; baina etzuen erakusten; hura hil ondoan baizik ezta ikusi. Ezta oraino moldizkitua izana, eta Luynes-ko duke, haren semabitxiaren eskuetan da, kopia batzuen hartzera utzi baitu. Dangeau-k, jeus ezpaitzuen gaitzesten, eta orotan izan nahi baitzuen, eskatua zuen eta goizik ukana Akademia frantzesean leku bat, haren "dekano" hil baita, eta bat Jakintzetako Akademian, nahiz mota orotan jeus etzakien, urgulu bazizakon ere kompainia horietan izaitea eta horietan ziren jende omenekoekin ibiltzea. Haren *Orhoitzapen*-etan aurkitzen dira dukatez eta Espainiako gorteko lerroez jakingabeko huts gotor batzu azken heinerano ustegabetzen dutenak. Hodi bateko operatze handia jasan zuen, hil uste ukan baitzuen, eta harri biziki gotor batez pikatua izan zen. Hil baino bi urte aitzinean pikatua izan zen bigarren aldikotz; harria etzen gotorra, doi-doia bi orenen sukar ukan bazuen; ilbate batez sendatua izan zen, eta geroztik ontsa izan da. Azkenean, adin handiak, eta beharbada gorterik ez mundu handirik ez ikusteaz aspertzeak, bizia bururatu zaukon egun gutiko eritasun batez.

Law-ek atzerrira ihes egiten du Erreientaren baimenarekin

Urtea bururatu zen Law-en bapateko eta segeretuzko ihes egitearekin, atherabiderik ezpaitzuen gehiago, eta publikoari utzi behar izan baitzizakon azkenean. Etzen jakin Argenson-en seme zaharrenak, Maubeuge-en intendant zenak, egin baitzuen haren hartzeko zozokeria. Horren jakin-arazteko igorri zuen eskutitza ordu berean itzulia izan zizakon erasia azkar batekin Orléans-ko duke Jaunak igorr-araziak

zauzkon pasaporter ez obediturik. Semea berekin zuen; Bruxelles-era joan ziren, han Prié-ko markesak, Aphal-Herri imperialetako gobernadoreak biziki ongi-ethorri ona egin baitzaukon, eta ostatu eman; han guti gelditu zen, Liège-ra eta Alemaniara heldu, han guziek eza eman zaukoten printze batzuer bere antzeak eskaintzen zezteela. Horrela harat eta hunarat ibilirik, Tyrol-era iragan zen, Italiako gorte zenbait ikusi zituen, batek ezpaitzuen geldi-arazi, eta azkenean Veneziara erretiratu zen, errepublika horrek batere ezpaitzuen erabili. Emaztea eta alaba jarraiki zizazkon zenbait dembora berantago; zer bilakatu diren eztut jakin, ez eta semea ere. Law Eskoziarra zen, biziki dudazko aitorenseme, aurpegi eta itxura gozagarrikoa, galanta eta hetan ainitz bidaiatua zen herri orotako anderekin biziki ontsa. Emaztea etzuen batere ezkontidea, Angeleterrako etxe onekoa zen eta ongi ahaidetua, Law-i maitazarrez jarraikia zizakona, haren ganik seme bat eta alaba bat ukanak zituena, eta haren ezkontidetzat hartua zena eta haren izena bazakarrena nahiz etziren ezkonduak. Azkenean jendea hortaz jelosten hasia zen: hek joan eta segur izan zen. Emazte horrek bazituen begi bat eta matelaren gaina arno-orbain itsusi batez estaliak, bertzela ontsa egina, gora, burgoia, hitzetan eta aretan ozarra, gizamenak ukanez, guti ordainduz edo batere, eta ikustaldi hautatu batzu bekan eginez, eta etxean larderiarekin bizi. Estimua handia zuenez senarraren ganik eztakit; baina harendako adeiez, arthaz eta errespetuz betea iduri zuen. Biek abiatu zirenean berrogei-ta-bortz eta berrogei-ta-hamar urte artean zuten. Law-ek utzi zeen joaitean orotako ordaineskua Vendôme-ko priadore handiari eta Bully-ri, harekin ontsa irabazia baitzuten. Mota orotako ontasun ainitz egina zuen, eta oraino gehiago zor, hala nola nun ezpaita oraino nahas-mahas hori ontsa berexia hartzedun zituenekin haren egitekoen arautzeko izendatua izana den konseiluko komisione batez. Hemen bertze nunbait erran dut, eta berriz ere diot, etzela haren baitan ez zikoizkeriarik ez frikunkeriarik. Gizon ezti bat zen, ona, errespetuduna, aipamenaren eta fortunaren gehiegiak gaizkitua etzuena, eta ibilarak, karroseriak, mahiak eta mubleriak nehori eskandalik eman ahal etzaukotena. Haren egintzer sorr-arazi zizezteen traba guziak jasan zituen pairamen eta jarraipen berezi batekin, azkenera, atherabidez labur zela ikusiz, eta bizkitartean bilatuz eta ihardoki nahiz, idor bilakatu zenerano, omoreak hartu zueno, eta ihardesteak gaizki arautuak izan zizazkono. Sistimako, karkulako, erkidapenezko gizon bat zen, mota hortan azkarki ikasia eta barna, eta, behi ere nehor enganatu gabe, jokoan orotan mugagabe irabazia zuena,

hori ezin sinetsia iduritzen baitzata, karten apailamendua jakinaren bortxaz.

Haren bankoa, bertze nunbait erran dutan bezala, gauza ezin hobea zen errepublika batean edo Angeleterra bezalako herri batean, han dirutzeta errepublikan baita. Haren Mizizipi delakoak bera enganatu zuen, zinez uste ukan baitzuen Ameriketan saldegi aberats eta handiak egiten zituela. Angeles bat bezala arrazoinkatzen zen, eta etzakien zenbat salerospenaren eta horrelako saldegien etsaiak diren (Frantziako) nazionearen arintasuna, gauza horietan ez trabatua izaitea, bapatez aberasteko gutizia, gobernu despotiko baten behargabeak, eskua ororen gainera bademana, jarraipenik ez edo guti duena, eta hartan minixtro batek badagiena beti bertze batek barreatua izaiten dena. Urre-zilharrezko moneraren bahimena, gero harrieriarena, ehoiz argitu ahal eztutan sistima bat da, eta uste dut nehork ere egin ahal eztuena Abraham-enaren ondotik jarraiki diren mende guzietan, Sara-rendako zilharrezko hobi bat erosi baitzuen galdu zuenean, beretako eta bere haurrendako. Baina Law sistimako gizona zen, eta hain barnatua, nun ezer ezpaitzizakon aditzen, nahiz jitez argia zen eta mintzatze errexekoa, angeles ainitz baldin bazen ere haren frantzesean. Urte andana batez bizi izan da Venezian biziki ontasun gutirekin, eta han hil katoliko, zuzentasunean bizi izanik, zuhurki eta lañoki, eta Elizako sakramenduak hartu zituen debozionerekin. 1720 urtea horrela bururatzen da.

*

III

Dukea Espainian embaxadore

1721

Dubois kardinalgora hurbiltzen

Zenbat artha hartzen bazuen ere Dubois-ek Erroman egiten zituen itzul-inguruen gordetzeko, Torcy-k hanbat gauza ikusi zuen postetako segeretutik, nun uste ukan baitzuen Orléans-ko duke Jauna abisatu behar zuela Dubois aphezak han egiten zituen urratsez. Erran zaukon beraz, bere ohiko neurriarekin, han aphez hori Haren Erret-Goitasunaren baimenarekin ari baldin bazen bere xapelari buruz lanean, deus etzuela erraitekorik; baina, dudan, ikusten zuenaz abisatu behar zuela uste ukana zuela. Orléans-ko duke Jauna irriz hasi zen. "Kardinal! ihardetsi zuen, frikunxka hori! nitaz trufatu nahi duzu; elizateke hori ehoiz gogoan ukaitera menturatuko." Eta Torcy bere hartan egon baitzen eta phoroguak erakutsi baitzauzkon, Erreienta haserretu zen, eta erran zaukon, ozar ttipi horrek hori buruan hartzen bazuen, hobi zilo uzki batean ezarr-araziko zuela. Hitz hori bera bizpahirur aldiz errepikatua izan zizakon Torcy-ri, erran nahi da Torcy-k xapel horri buruzko azpikerien jarraikitzeaz atzerriko eskutitzetan aurkitzen zuena berriz aipatzen zaukon aldi oroz. Azken aldian, xapela ukana izan zenetik hurbil izan zena, Torcy-k ihardespen bera ukan zuen haserre berean; baina ihardespen horren biharamunean berean, Orléans-ko duke Jaunak deitu zuen, zoko batera ereman, eta erran: "Errazu, jauna, Erromara ene izenean izkiriatu behar da Cambray-ko Jaunaren xapelaz; astirik ezta galdu behar." Torcy gizairudi bat bezala gelditu zen hitzik gabe, eta Erreientak utzi zuen manu hori eman orduko Torcy-rekin bezperan haserreturik izana ezpaliz bezain odol hotzean, eta beti bien artean Erroman Dubois aphezaren fagoratzeaz baizik mintzatua ezpaliz bezala. Huntaz da bada atsotitz gaixto hau erraiten ahal: "horrek lastoa baderama". Torcy-k ezin sinetsia zuen bada, ez orai xapel hortaz Orléans-ko duke Jaunak egiten zuena, ez batere etzuelakotz uste ukana Orléans-ko duke Jaunak hortaz egiten zituen mehatxuzko ihardespenatan etzela komedia zerbait, baina iragaiteaz, hogei-ta-laur oren barne, hobi zilo uzki bateko mehatxu horietarik, zen arxapezpikua

izanik ere, Torcy-ri manatzera, hortarik aipatzen etzaukolarik eta bereziki hortako deiturik, haren, Erreientaren izenean Erromara izkiria zezan, Dubois aphezaren xapelaren fagoretan, gogo-berdintasun osoenean: orduko alhorra horrelakoa zen.

Turkiako embaxadorea Parisen

1. Parisen sartzea

Parisek ukan zuen guti ohikoa zen ikusgarri bat, epailaren 28-ko igandean, bekaizkeria ainitz eman baitzeen Europako lehenbiziko botherer. Jaun Handiak, ehoiz ezteelarik embaxadarik igortzen, ezpada bekan Veneziara, bakezko antolamendu aldi handi zenbaitez, bat deliberatu zuen, galderik ukan gabe, koronara heltzeaz Erregeren goresteko, eta berehala abia-arazi zuen Mehemet-Effendi Tefderdar, imperioko diruzain handia, ohigabeko embaxadore bezala, jarrailari andana handi batekin, Erregeren untzietan itsasoa hartu baitzuten, Konztantinopoliz-en ustegabean gertatu zirenak. Cette-ko portuan leihorreratu zen, Languedoc-en, Probenzan izurritea baitzen. Egin zituen ere berrogei-urruneko bat eta Bordeletik itzulia Parisera jiteko, lurreratuz geroz gastu guziez ordaindurik, han Erregeren aitorenseme ohiko batek hartu baitzuen eta hizkuntzetako itzultzalek, Pariserano laguntzen zutela. Epailaren 8-an ethorri zen San-Antonioko bazterrauzora han egon baitzen zortzi egunez, Erregeren ganik komplimenduak ukanik eta bertze, Europako monarken embaxadore ohigabekoak bezala.

Epailaren 16-ko igandean, Estrées-ko marexala eta Rémond, embaxadoren sartzalea, arratsaldeko oren batean hartzera joan zitzazkon. Heldu orduko, zaldiz igan ziren embaxadorea bien artean. Marexalaren bi karrosa, ainitz zangoko mutil, nerabe, aitorenseme, eskuko zaldi, polizia trompetekin eta timbalekin, Orléans-Dragonetako bi zaldizko multzo, Erregeren zaltegietako sei eskuko zaldi, hogei-ta-hamasei Turko zaldiz birazka, eskopetak eta aztak eskuetan, Merlin sartzale laguna zaldiz, gero embaxadako aitzindari nagusiak, Erregeren gambarako laur trompeta, embaxadorearen sei eskuko zaldi, ara turkoan apailatuak, eta hori guzia ezin gehiago handizki egina; azkenik Erregeren itzultzalea, embaxadorearen aitzin-aitzinean, zaldia ara turkoan apailatua zuena. Lerro berean zoan marexalarekin eta sartzalearekin, bere jantzidunez eta zangoko mutil turkoez inguratuak. Embaxadorearen

ezkutaria bazoakon zaldiz gibeletik, haren sabrea bazeramala, eta Koronel-jeneraleko hogei aitzindari bazituzten bazterrean eskun eta ezker; gero heldu ziren grenadariak zaldiz, Koronel-jeneraleko erreximendua, eta gero Erregeren karrosak eta sartzetara joaiten diren bertzeak, konestableria ondotik. Erregeren oinezko erreximendua, Bastillako kompainia, eskopetariena, lerrokatuak ziren Erret-Plazarano; embaxadorea bidatua izan zen itzuli luze batzu eginez Saint-Denis, Saint-Honoré karriketara eta bertze, eta orotan soldado multzoak, zelatari andanak. Karrikan lerroan aurkitu zuen monerako prebostaren kompainia, zelatariak zaldiz Zubi-Berrian bazterretan zaintzaletako erreximenduarekin, eta ainitz trompeta eta timbala Henri-IV-garrenaren gizairudiaren inguruan. Arropa laburreko ordezkariaren kompainia eta irlako prebostarena, karrika Dauphine eta Vaugirard-koetan aurkitu ziren. Ohigabeko embaxadoren hotelera heldurik, Tournon karrikan, gortean oina lurreratu zuten. Marexalak embaxadorea lagundu zuen gambararano, hunek berehala, eskua emanez, bere karrosara lagundu baitzuen, eta gortetik jalgitzen ikusi. Embaxadoreak eta haren jarrailek igan zituzten zaldi guziak Erregeren zaltegietakoak ziren, eta embaxadorearen eskuko zaldiak ere, Turko batzuek zaldiz zeramatzatela.

2. Teilerietako entzunaldia

Ilabete bereko 21-eko ortziralean, Lambesc-eko printzea eta Rémond, embaxadoren sartzalea, joan ziren Erregeren karrosan embaxadorearen hartzera ohigabeko embaxadoren hotelera, beti han egon baitzen eta gastu oroz ordaindu bere jarraile ainitzekin, Parisen izan zeno, eta berehala abiatu ziren Erregeren entzunaldira joaiteko: poliziako kompainia bere timbala eta trompetekin zaldiz, sartzalearen karrosa, Lambesc-ko printzearena, haien jantzieriaz inguratuak, sei eskuko zaldi aitzinean eta zortzi aitorenseme zaldiz, Orléans-ko hirur soldado multzo, Erregeren zaldizain batzuek zeramatzatela zaldiz, hogei-ta-laur Turko zaldiz, birazka, harmarik gabe, gero Merlin sartzale laguna, eta Turko gotorrenetarik zortzi zaldiz, embaxadorearen semea zaldiz, bakarrik, eskuan zeramala Jaun Handiaren eskutitza zetazko oihal batean, sei eskuko zaldi Turkoen aran apailatuak, Erregeren laur trompeta zaldiz; embaxadorea Lambesc-eko printzearen eta sartzalearen artean, hirurak lerro berean zaldiz, zangoko mutil turkoez eta bere jantzieriez inguratuak, Koronel-jeneral erreximenduko hogei aitzindari bazterretan; erreximendu hori bera, aitzinean grenadari batzuekin zaldiz, bazarraikakon; gero Erregeren karrosa eta konestableria. Soldado multzo

berak eta aitzinean sartzean erran kompainiak ezarriak gertatu ziren iragan zituzten karriketan, Dauphine karrikan, Zubi-Berrian, Monerako eta Saint-Honoré karriketan, Vendôme-ko plazan, Erret-Palazioko aitzinean, Saint-Honoré athean, bere trompeta eta timbalekin; athe horren kampoaldetik zabaldokirano, Erregeren erreximendua bi bazterretan lerroan, eta zabaldokian gorputzeko zaintzaletako gizonaldeak, jandarmetakoak, zaldizko arinetakoak, eta musketarietako bi kompainia osoak. Leku hortara heldurik, ibiliak ziren tropak eta karrosak joan ziren ur bazterrean lerrokatzera, Teilerietako zabaltzaren azpian: embaxadorea, laguntzen zuen guziarekin eta jarraikitzen zizakon zaldizkoeria guziarekin, zubi itzulkaritik sartu zen Teilerietako baratzean, handik Teilerietako palaziorano, zaintzale frantzes eta suizetako erreximenduak lerrokatuak ziren bi aldetan, atabalak joiten ari eta ikurrinak hedatuak. Embaxadorea eta laguntzen zuen guzia horrela iragan zen zaldiz bidexka handi guzian harat, bi lerro horien artean, zabaltzaren behererano, han oina lurreratu baitzuen, eta behereko bizitegi batera eremana izan zen, hari atseden harr-arazteko antolatua entzunaldiko ordu arteo.

Eguerditan, embaxadorea, Lambesco-eko printzea eta sartzalea lagun, bizitegi hortarik jalgi zen bere jarraileria guziarekin, semea aitzinean, eskuak goitituriik bazeramala Jaun Handiaren eskutitza, eta sartzale-lagunari bazarraikan. Bertze ohigabeko embaxadorek bezala, zeremonietako nagusi handia eta nagusia aurkitu zituen mailaldearen beherean, gainerano Ehun-Suizak bazterretan; bertze batzu lerrokatuak aurkitu zituen haien salan, bere ikurrina zabalik, eta Courtenvaux sartzean ongi-ethorri egiteko, haien kapitaingoa baitzegien bere iloba haurraren orde. Noailles-ko dukeak, zaintzalen kapitain aldikoa, hartu zuen zaitzalen salan sartzean, hauk lerroka eta harmetan. Bizitegi handia iragan zuen galeriarano. Koronako tapizeria ederrenez hedatua zen; andere azkarki aphainduek betetzen zituzten mail handizki ederztatuak, eta galeria, oineko tapiza ederrez estalia, gizonez biziki betea zen. Zolan, hirur mailez trebeskatua zen, eta une bat haratago, bertze biez hetan baitzen Erregeren tronua; sahetsetan zituen, eskun eta ezker, Orléans-ko duke Jauna eta odoleko printzeak, zutik et beti buru-has. Gambarari handia, gambarako lehenbiziko aitorensema, jantzitegiko nagusi handia eta Villeroy-ko marexala, laurak Erregeren gibelean zauden; Cambray-ko arxapezpikua lehenbiziko bi mailen beherean; eskunean eta gibelago, bertze hirur Estatuko segeretariak hein berean.

Embaxadorea Erregez ikusia izan ahal zen orduko, biziki behera gurtu zen Orienteko aran, eskuna golkoan. Orduan Errege zutitu zen buruhastu gabe, eta Embaxadorea aitzinatu lehenbiziko hirur mailen beherera, hor egin baitzuen bigarren gurra. Gero hirur mail horiek igan zituen, eskunean zituelarik Lambesc-ko printzea eta Noailleko dukea elgarrekin hein berean, ezkerrean sartzalea eta itzultzalea, gibelean semea, Jaun Handiaren eskutzitza bazekarrala erran den aran; embaxadoreak egin zuen hor heren gurra, semearen eskuetarik Jaun Handiaren eskutitza hartu, buruaren gainera goititu zuena, eta gero Cambray-ko arxapezpikuari eman, atzerrietako egitekoetan Estatuko segeretariari bezala, hunek ezarri baitzuen ondoan zen mahi baten gainean tronuaren eskunean, urrez josi oihal batez estalia zena. Embaxadoreak egin zaukon bere komplimendua Erregeri biziki gogo onez, itxura biziki errespetukoarekin, baina ez herabea eta eragozpenik gabe. Itzultzaleak aztertu zuen. Errege etzen mintzatu ez eta Orléans-ko duke Jauna ere; Villeroy-ko marexalak egin zuen ihardespen labur bat intzultzaleak embaxadoreari erran zaukona. Orduan bere gurra egin zuen eta gibelka urrundu zen, Erregez ikusia ahal izan zeno bizkarrez itzuli gabe, bertze bi gurrak egin zituen jitean eginak zituen leku berean, eta gero joan zen emeki, azkarki behatuz eta itxura biziki segur batekin ikusmenera heldu zizakon guziari. Lambesc-eko printzeak ereman zuen hastapenean sartua zen bizitegira eta agurtuz utzi zuen. Embaxadoreak han atseden apur bat hartu zuen; gero, sartzalea sahetsean ezkerretik, Teilerietako palazioko zabaltza iraganez, zaldiz igan zen laguntzen zuen guziarekin, bidexka handian, zubi itzulikarian, zabaldokian, aurkitu zituen gune beretan jitean eginak zituen tropa berak eta ukanak zituen ohore berak, Erregeren oinezko erreximendua lerroka Konferenziako atherano, lagundua zuten tropak Teilerietako ur-bazterrean lerrokatuak, eta karrosak, berriz abiatu baitziren jiteko ordenu berean. Erret-zubiaren aitzinetik, Theatinen ur-bazterrarenetik, Mazarin ikastetxearenetik, Dauphine karrikatik iragan zen, eta orotan, ohigabeko embaxadoren hoteleko atherano, aurkitu zituen entzunaldira joaitean eginak zituen tropa, soldado multzo, gerlako tresna berak, anartean jarriak baitziren haren itzultzeko lekuetan. Zeremoniaren berezitasunak hemen ezartzera ekharri nau, nahiz egunkarietan aurkitzen den.

Espainiarekin ezkontzak: dukeak embaxadoregoa galdegiten du

1. Dukeak berria nola jakiten duen

Azkenean Espainiak, ez bakarrik Frantziaz utzia izanik, baina Angeleterrarekin antolemanduaren izenpetzera ezin gehiago hertsatua, onhartu zuen, ezin bertzean, horrekin Angelesek ukan baitzituzten bere salerospeneko xedatuak zituzten abantail guziak eta bertze nazione guzienaren hondamena, bereziki Frantziakoarena eta Espainiaren kalte handitan. Angelesek, gainera, ukan zuten bere nahitara *asiento* delakoa (*), eta baimenezko untzia; atxiki zituzten Port-Mahon eta irla guzia Gibraltar-ekin. Egia da Espainiari berriki hartu untzi zenbait itzuli zauzkotela, eta bertze ezteus batzuez ordaindu zutela. Antolamendu horri esker, Emperadoreak, Angeleterrako erregek bazegion othoitz suharrean, bere galde biziak Erroman berrhetu zituen, eta, aitasainduak tronura heltzeko (**) egina zuen eta ikusi berria den agintza bitxiak lagundurik, gauzak ezarri zituzten azkenean Dubois-ek xapel gorriaren laster ukaiteko nahi zituen heinean.

(*) *Asiento* ("ezarpena") zeritzoten gazteleraz itsasoko negozioko abantail berezi bati.

(**) Clément IX-garrena hil eta, kardinalek aitasaindu hautatu zuten Conti kardinala, Innocent XIII-garrena, Dubois kardinal eginen zuelakoan erresuma horietako eta Frantziako kardinalen bozekin, San-Simun-ek gorago errana duen bezala: "Tencin-ek eta Lafitau-k bere alderdia atxikia zuten eta Conti kardinalaren ganik paper bat ukana, hitzemaiten zuena, aitasaindu hautatua baldin bazen, berehala gero Dubois kardinal eginen zuela" .

(*Itzultzalearen oharrak*)

Horrela nabela zintzurrean ezarririk Espainiari Angelesen askiesmen oso eta neurrigabekoeneko, edo izaitekotz Dubois-enarendako, aithor dut eztutala entzuten nola Frantziaren eta Espainairen arteko ezkontza bikuna hoin bapatean jarraiki ahal zen. Segeretua hain osoa izan zen nun ez gobernu bat ez jande berezi bat ezpaitzen jelostu. Aspaldidanik Dubois aphezak atzerrietako egitekoez eni buruz ahoa hetsia zaukon bere nagusiari; eta hertsikiago oraino hemen eztu aspaldi errana dutanaz geroztik. Horrek etzuen alta egiten Orléans-ko duke Jaunak etzautala beti phorroxka zenbait uzten, baina xehetasun eta jarraipen guti, eta ene aldetik biziki neurrian nindagon. Joanik ekhainaren lehenbiziko egunetan Orléans-ko duke Jaunarekin lan

egitera, aurkitu zuen bere bizitegi handian bazabilala bakarrik. Ikusi nindueneko: "Oi bada! erran zautan eskua hartuz, eztautzuket munduan nahiena nuen eta baitezpadakoena zizatan eta bozkario berdina emanen dautzun gauzaz segeretu egin; baina segeretu handiena eskatzen dautzut." Gero, irriz hasiz: "Cambray-ko Jaunak erran dautzutala balaki, elezata barka." Berehala ikasi zautan bakea egina zuela Espainiako errege 'ta erreginarekin; Erregeren eta infantaren ezkontza, hau ezkontzeko adineratua izanen zeneko, deliberatua zela, eta Asturiako printzearena (Erreientaren alaba) Chartres-ko Anderaurenarekin.

Ene bozkarioa handia izan baldin bazen, ustegabetzeak gainditu zuen. Orléans-ko duke Jaunak besarkatu ninduen, eta hoin egiteko handiak berari emaiten zauzkon abantail handiez lehenbiziko gogoeten ondotik, eta Erregeren ezkontzako egokitasun ezin handiagoaz, galdegin naukon nola egin ahal ukana zuen hortara heltzeko, oroz gainetik bere alabaren ezkontzarendako. Erran zautan esku aldi batez egina zela, Dubois aphezak debrua berekin zuela baitezpada nahi zituen gauzendako; Espainiako errege xoratua izana zela Erregek haren alaba galdeginik; eta Asturiako printzearen ezkontza infantaren ezkontzako *sine qua non* baldintza izana zela, Espainiako errege nahitez delibera-arazia zuena. Hortan ongi zabaldurik eta elgarrekin gozaturik, erran naukon heren alabaren ezkontzako segeretuak osoki atxikia izan behar zuela haren abiatzeko ordurano, eta Erregeren ezkontzarenak iragan urtek egitera utzia ukanen zuteno, erret-etxearen bi adarren batasun hoin handi eta hertsi hortaz Europaren bekaizkeriaren trabatzeko, batasun horren beraren beldurretan egona baitzen, eta horren haustea haren politikaren xede guzia izana, ezpaitziren gobernuak hortara sobera baizik helduak eta sobera luzaz, eta hauste horren ustean behar baitziren ahal izanen zen bezain luzaz utzi, oroz gainetik infantak ezpaitzituen hirur urte baizik, Madrilen 1718-ko epailaren 30 goizean jaiorik. Urteak baziren beraz aitzinean Asturiako printzearekin (Erreientaren) alabaren ezkontzaz Europaren khexuen eztitzera uzteko, printzea 1707-ko agorrilekoa izanez, ezpaitzegien hamalaur urte baizik, eta Chartres-ko Anderaurenak, izen hori hartua baitzuen Chelles-ko Andereak botuak egin eta, hamabi baizik ez, 1709-ko negilekoa izanez. "Ontsa arrazoin duzu, ihardetsi zautan Orléans-ko duke Jaunak, baina hori ezin egin da, Espainian aithormena sarri berean nahi baitute, eta infanta hunarat igorri, galdea egina izanen deneko eta ezkontzako kontratua izenpetua. - Zer erokeria, egin nuen berehala, eta zertako ezkila zeinu hori on ote

lizate, Europa osoaren gogoen alhan eta lanean ezartzeko ezpada? Hori gogoan sarr-arazi behar zee (Espainiakoer) eta hortan azkar egon, beharragorik deus ezta. - Hori guzia egia da, erran zuen Orléans-ko duke Jaunak; zuk bezala gogoetatzen dut, baina burutiak dira Espainian, horrela nahi ukan dute, eta utzi zee. Gauza egina da, hitzhartua eta erabakia; enetako gauza alde orotarik hain handi da, uste dut etzinautala burukaldi horren gatik hausteko aholkurik emanen." Onhartu nuen, ezin-egon hoin ordukaitzekoaz soin-gainak goitituz.

(…)

2. Embaxada galdegin eta ukana

Arrazoinamendu horietan guzietan, enindagon nihauri gogoa eman gabe, eta ene seme bigarrenaren fortunaren egiteko hoin gertaldi naturalari. Erran naukon beraz, gauzak baitezpada erraiten zautan heinean baldin baziren, infantaren ezkontzera galdegitera igortzeko lehia bazela beraz, eta ezkontzako kontratuaren izenpetzera, hortan behar zela jaun hautuko eta tituludun bat, eta embaxada hori eman zezatan othoizten nuela bere gerizapenarekin eta Espainiako erregeren ondoan gomendio batekin Ruffec-eko markesa Espainiako handi egin zezan; La Feuillade pare egina zuela, bere etsai handiena eta ozarrena, hala laket izana baitzizakon bere adixkide Canillac-i, mundu guziaren eskandala handitan, haren kontra sumindurik ikusia nuen gizon bakarra makila ukaldika jo-arazi nahi ukaiterano, orhoit baitzaitekeen horren egitera enuela utzia, eta gainera diru ainitz emana zaukola ehoiz harat igortzeko xedea ukan etzen Erromako embaxadaren estakuru arinean; aldi berean ere Brancas-ko dukea pare egina zuela; aithortzen naukola ez munduaren aldetik ez hari buruz enuela neure burua ez aitaren (la Feuillade) ez semeraen (Brancas) hein berean zela uste ukaiteko umiltasuna; arestian berean Nevers-ko Jauna duke 'ta pare egina zuela, ezpainuen ere haren sahetsekoa nintzala uste; ixilean uzten nituela esku betez barreatuak zituen garazia muga ezinak, bereziki Saint-Germain-go eta Versailles-ko kapitaingoa, aitak ukana zuena, Noailles-ko dukeari eta haren haurrer emana; jende guziak bezala haien iraupena ukana nuen gobernu ttipi batzuez bertzerik jeus enuelarik, zer emaiten ahal zautan enuela ikusten; enaukola galdegina ene bigarren semea duke egin zezan, nahiz etzuen ehun molde distiratuez laidoztatua La Feuillade-ek bezala, eta nahiz Brancas-ko eta Nevers-ko Jaunek etzuten guti baizik, eta nola, edo batere zerbitzurik eginik, ene semearen adina horietaz ogendun egin etzaitekeelarik: "Baina harendako nehori kalterik egin eztezakeen gauza

bat eskatzen dautzut, dukearen lerroa eta ohoreak emaiten dauzkona, Erregeren ezkontzaren egiteko embaxadari naturalki bazarraikana, eta handiezia horri buruz eman dezatazun ehork baiets baizik eztezakeena." Orléans-ko duke Jaunari neke izan zizakon burura nezan uztea, ordu berean eman zautan eta Ruffec-eko markesari handieziaren ukan-arazteko haren ganik behar zena oro, adixkidantza ainitzez ondu zuen, eta segeretua osoa galdegin zautan eta ezer enezan edozein antolamenduez erakuts hark egin nezan jakin-arazi baino lehen.

Ongi entzun nuen, egitekoaren beraren segeretuaz harat, bere Dubois-ren itzultzeko astia nahi zuela eta hari pirularen irets-araztekoa. Eskerrak eginik, bi garazia eskatu nauzkon: bata etzezatan embaxadorearen lan-saririk eman, baina hortan hondatu gabe gastuen egiteko larriki behar zena, bertzea etzezan bertze egitekorik ene gain eman, ezpainuen haren ganik urrundu nahi, eta egiteko batetik bertzera Espainian erroak egin, are gehiago ezpainuen joan nahi ene bigarren semeari handieziaren ukan-arazteko baizik, eta berehala gero itzuli. Beldur bainintzan Dubois-ek, embaxada hori ezin debekatuz, herritik urrun han atxik nindezan hemen nitaz arindua izaiteko, Espainiako egitekoen estakuru, eta gertakaritik ontsa ikusi nuen etzela zuhurtzia hori debaldekoa izana. Orléans-ko duke Jaunak bata eta bertzea eman zauztan ainitz elhe goxagarriekin ene hemen ez izaitea luzea izan zadin nahi etzuelakotz. Uste ukan nuen horrela etxearendako gauza handi bat egina nuela eta biziki askietsirik etxeratu nintzan. Baina, ene Jainkoa, zer den gizonen xedez eta egintzez!

Dubois kardinal

1. Esker on eta komplimendu

Aitasaindua tronura helduz geroz dembora baziragan arau, eta bizi-bizia hertsatua baitzen aitasaindu hautatua izaiten baldin baliz Dubois aphezari izkirioz emana zuen hitza atxik zezon, Dubois-en ezin egona zituen esperanzekin batean handituz zoan, eta etzaukon atsedenik uzten. Ontsa burxoratua gertatu zen ikasi zuenean aitasainduak kardinal egina zuela bakar-bakarrik, ekhainaren 16-an, bere anaia, hamar urtez geroz Terracine-ko apezpikua, Montecassino-ko fraide beneditanoa. Dubois izendatzerik etzela eginen hura barne izan gabe zagon, eta sur 'ta garretan jarri zen. Etzuen luzaz igurikatu: ilabete bat berantago,

uztailaren 16-an, aitasainduak kardinal egin zuen, don Alexandre Albano, aitasaindu zenaren iloba eta kardinal camerlingaren anaiarekin. Berria eta komplimenduak bozkario ezin handiagoarekin hartu zituen, baina beharbezalakotasun apur batekin neurtzen jakin zuena, eta ohore guziaren emaiten Orléans-ko duke Jaunaren gerizapenari, hunek, ikusi den bezala, ezpazuen ere hortan ikusteko guti edo batere ukan. Etzen alta egon ahal izan jende guziari erasan gabe gorri erromatarrak baino gehiago ohoratzen zuena ororen agintza zela, eta bothere guziek horren hari eman-arazteko, hortara aita-sainduaren sustatzeko ukana zuten lehia, eta haren hautatzearen aitzinatzeko bere eta koronen izendatzeak igurikatu gabe. Hortaz hoilatzen zen, eta ezin agortua zen noiz nahi berriz hasten zuen kapitulu hortan, eta nehor enganatu etzuenean.

Nahiz hemen ikusia den heinean ginen elgarrekin, uste ukan nuen behar nuela Orléans-ko duke Jauna Dubois-ez eta nitaz errexean ezarri, hunekin baitezpadako eta bortxazko harremanak ukanen bainituen ene embaxadan. Etxera joan nindakon beraz, han errespetuz, komplimenduz, esker onezko aithormenez estali baininduen eginten naukon ohoreaz, iraganik aipatu gabe. Elgarrekin ginen aran, eta haren etxera nereman gertaldian, ikustaldia zeremoniazkoa baldin bazen ere, eta baldin bazen ere han mugagabeko jendea, Erregeren eskuetarik ukan berria zuen bere xano gorriarekin oraino beltza ukan balu bezala egin zuen, lagundu ninduen eskuaz, errespetuzko hitzez, bere bizitegiko bururano ereman, eta hartara zoan gorte ttipirano. Orléans-ko duke Jaunak ainitz esker on erakutsi zautan urrats hori nihaurek eginik, eta enuen gehiago kardinal berria printze horren etxean aurkitu ene gana jin gabe, athetan gibelera eginez eta mirak eni erranez baizik, horietan fidatzeaz begiran nindagola. Bere xanoaren ukaitean Erregeren eskuetarik, apezpiku gurutzea lepotik ekhendu zuen, (Fleury) Fréjus-ko apezpikuari eskaini, zorion bazekarrala erran, eta hortako zuela haren amodioz erabil zezan othoizten. Fréjus gorritu zen eta eragozpen ainitzekin hartu zuen. Gurutze hori, nahiz bertze guziak bezala egina, molde biziki ohargarrian egina zen alta, eta horrek osoki errex berex-arazten zuen. Fréjus, Erregeren etxean kardinal berriaren biziki usu aurkitzera ekharria, etzen gurutze horren aski usu ez erabiltzera menturatu.

(…)

2. Dubois eta Madame

Passarini apheza, aitasianduaren ohorezko gambararia, bonetarekin jinik, kardinal berriak Erregeren eskuetarik hartu zuen, eta erret-odolari bere ikustaldiak egin zauzkon ohiko zeremoniekin. Bi ilabete hurbil ukanak zituen hortara prestatzeko, eta aithortu behar da ontsa baliatu zituela. Madame-ri eta Orléans-ko duke 'ta dukesa Jaun-Anderer komplimendu bat egin behar zeen, hauen ganik ukan zuen zeremoniazko entzunaldian; ezen odoleko printze 'ta printzesen ikustaldiak, ezpaitira zeremoniazko ikustaldi eta komplimendu batzu baizik, baina ez entzunaldiak hitzaldi ttipi bat den komplimendu moldatu batekin. Beha egon behar zuen Madame hari zeremonian ongi-ethorri egiteaz, agurtzeaz eta alketx baten emaiteaz nahigabetan izanen zela, eta Orléans-ko dukesa Anderea hari jar-leku bizkardun baten emaiteaz, hain luzaz hain lagunkide xipi ikusirik; eta Madame-ek etzaukon behin ere bere semearen ezkontza barkatua, beti gaitzesmen handiena erakutsia zaukon, hartaz neurririk gabe mintzatua zen, eta garazia orotako galdegina zaukon Orléans-ko duke Jaunari, Erreienziara helduko zen egunean ehoiz erabil etzezan salduko eta desohoratuko zuen frikun ttipi hori (*). Dubois kardinalak alegia egin zuen, Madame-ren aitzinean agertu zen errespetuz eta eragozpenez betea. Ahuzpez eman zen (Madame) agurtzera heldu zizakolarik, jende inguruaren erdian jarri, ephe batez bere bonet gorria buruan ezarri eta berehala ekhendu, eta komplimendua egin zuen. Hasi zen berak izanara hortan Madame-ren aitzinean izaiteaz zuen ustegabetzetik, bere sortzeko aphaltasunetik eta ukanak zituen lehenbiziko karguetarik, horiek ainitz izpirituretkin eta hitz hautatuenetan erabili zituen hanbatez Orléans-ko duke Jaunaren oneziaren, bihotzaren eta botherearen goititzeko, hoin beheratik ikusten zuen lekura igan-arazia baitzuen, izana zenaren ehoiz ez ahaztea beretako erakaspen egin, printze horri zor zaukonaren azkarkiago senditzeko, eta bere baitan zuen ahal guziaren erabiltzeko, bere burua den gutienik laudatu eta goretsi gabe, haren zerbitzatzeko, beti lanõtasuna agerian emana baitzen haren entzunaldietako hitzaldietan, Madame isensu arin batez inguratu zuen, azkenean errespetu barnatuenetan eta esker onetan urtu zen. Hanbat zuzentasunekin et hain ongi mintzatu zen nun, zer sumindura bazen ere hartaz eta haren fortunaz, entzun zuten guziak xoratuak izan baitziren, eta Madame bera etzen egon ahal izan, hura jalgia izan zenean, haren egonararen eta hitzaldiaren laudatzetik, aldi berean zen lekuan ikusiz errabian zela gaineratuz.

Orléans-ko duke Jaunarekin eta dukesa Anderearekin ukan zituen entzunaldiak ondorio on berarekin iragan ziren; hitz ezberdinetan funtsa berdina izan zen. Madame-enean hedatu niz, neke 'ta ohargarriena baitzen, eta berehala erakarri nahi ukan dut kardinalgoko hartze horrekin ikusteko duen guzia.

(*) Orléans-ko duke bere semearen erakasle zenean, Madame printzesa "palatinarrak" estimatu zuen Dubois aphezaren lana jakitatezko gauzetan. Politikako karguetara goititzen eta gero arxapezpiku ikusiz, kardinal, laster lehen minixtro, Madame-ren eskutitzek eztute batere gordetzen, ohi duten zintzotasunarekin, aphez trebearen aldera sendi zuen hastioa. Huna zer zion jadanik Leibniz filosofo aleman eta adixkide zuenari, 1716-ko hazaroaren 5-ean: "Adimendua badu, hori ezin ukatua da; baina ene semeak bere konfienxia haren baitan ezar dezan etzata gutiago urrikalgarri, ezen, derragun gure artean, Jainkoak garazia handi bat eginen zautan eni eta ainitz jende zuzeni bere bizi guzian ezagun gabean eta gortetik urrun atxiki balu." (*Op. cit.*or. 693)

1721-eko jorrailaren 21-ean: "Gure aphez ttipi ozar eta erakasle Cambray-ko arxapezpikuak ontsa nahi luke kardinal bilakatu. Harekin ongi arautzeko Alberonik behar luke aitasaindu izendatua izan; betegina lizateke eta hala nahi dut ene bihotz guziaz." (or. 623)

Uztailaren 16-an: "Atzo Cambray-ko arxapezpikua hunara ethorri zen eta jakin-arazi zautan kardinal lerrora izendatua zela. Horra Alberoni lagun batekin." (or. 626)

Agorrilaren 13-an: " Ezin maita dezaketan norbait ezagutzen dut bada; baina gaizkirik eztaukot egiten, Dubois kardinal berria da. Bizi guzia pozoindatua dauta. Jainkoak barka nahi dezakola, baina ukan lezake bada bertze munduan kondu emaiteko beharra." (or. 627)

Eta berezikiago San-Simunek hemen erakusten duen kardinal berriaren entzunaldiaz, buruilaren 25-ean: "Hemen jende guzia jantzi handitan da, zeremonia bat baitut hirur orenetan, jakiteko Dubois kardinal madarikatu horren entzunaldia; aitasainduak bonet gorria igorria dauko eta agurtu behar dut, jartzera gomitatu eta ephe batez solastatu. Bortxazko lana izanen zata, baina bortxazko lanak eta nahigabeak, horiek dira ene egunorotako ogia. Baina horra gure kardinala heldu dela; behar dut beraz hemen gelditu.

Kardinalak othoiztu nau iragan dena ahatz dezatan, entzun ahal daitekeen hitzaldi ederrena egin dauta. Segur da gizon horrek izpiritu ainitz baduela; adimendukoa den bezain ona baliz, gehiagokorik ezer eluke behar." (or. 629) (*Itzultzalearen oharra*)

Erregeren eritasuna eta Villeroy-ko marexalaren erakaspenak

Uztailaren azken egunean, Errege, ordu arteo osagarri hoberenean, buruko eta zintzurreko min batekin atzarri zen; ikara bat jin zizakon, eta arratsaldean, buruko eta zintzurreko mina handiturik, oheratu zen. Joan nintzan biharamunean, eguerdi hirian, haren berrien jakitera. Gaua gaixtoa izana zela aurkitu nuen eta bazirela bi oren berrhetze aski azkar bat ethorria zela. Orotan lastima handi bat ikusi nuen. Banituen sartze handiak, gambaran sartu nintzan beraz. Jendez biziki hutsa aurkitu nuen, Orléans-ko duke Jauna, khebideko izkinan jarria, biziki bakarrik eta trixte. Ephe batez hurbildu nindakon, eta gero Erregeren ohera joan. Ordu hartan Boulduc-ek, haren botikarioetarik bat, zerbait edatera eskaintzen zaukon. Ferté-ko dukesa, bere ahizpa Ventadour-ko dukesaren bidez, sartze guziak baitzituen Erregeren amabesoetako bezala, Boulduc-en soin-gainetara zagon, eta itzulirik sartzen nor ari zen ikusteko, ikusi ninduen, eta berehala erran zautan erdi-ahapetik: "Pozoindatua da, pozoindatua da. - Ixil zaite bada, Anderea, ihardetsi naukon, hori laztagarri da!" Berrhetu zuen eta hain ontsa eta hain gora, nun Erregek entzun zezan beldur izan bainintzan. Boulduc-ek eta biek elgarri behatu ginuen, eta berehala ohetik eta harekin harremanik batere enuen errabiatu haren ganik baztertu nintzan. Eritasun hortan, bortz egun baizik ezpaitzuen iraun, baina lehenbiziko hirurak bortitzak izan baitziren, biziki gaitzitua eta atsekabetua nintzan; baina aldi berean hain askietsia Erregeren gobernadoregoa hain hisiki ez onharturik, eta hain nahasia hala izaiten ahal nintzala gogoratuz, eta zer heinetan izanen nintzan, nun gauaz jauzian atzartzen bainintzan, eta atzarraldi horiek hala enintzalakotz bozkario sendikorrenekoak zizaztan. Eritasuna etzen luzea izan, eriondoa aldiz laburra, gogoak eztitu eta boztu baitzituen, eta *Te Deum*-ez eta alegrantziazko uholde bat eman. Helvétius-ek ukan zuen ohore guzia, oinetik odol-ekhentze bat nahiz hisitu zen Orléans-ko duke Jauna han zen konsulta batean; irabazi zuen: hobetze biziki ageria jarraiki zen berehala eta gero laster sendatzea.

Villeroy-ko marexalak etzuen gertaldi hori huts egin bere pozoin eta aphaltasun guziaren erakusteko; jeus etzuen ahatzi bere aieru, artha, khexu ezin handiagoen agertzeko, et arropari gorte egiteko. Etzuen lege-gizon den ttipiena Teilerietan ikusi hori bere buruari jakin-arazia ukan gabe eta bera Erregeren berrien hari emaitera eta pherekatzera joan gabe, lehenbiziko jaunendako ezin hurbildua zelarik. Lege-gizon gotorragoak, erran nahi dut beti parlamentukoak, edo bertze

kompainietako buruzagiak, edo auzitegiko haien jendeak, ordu oroz Erregeren gambaran sarr-arazten zituen eta ohearen ondo-ondorano ikus zezaten, sartze handiak zituztenek etxekotasun beraz doi-doia baliatzen zirelarik. Berdin egin zuen lehenbiziko eriondoan, ahal ukan zuen bezenbat luzatu zuena lege-gizoner hautesmen beraren emaiteko zer orenetan ere jiten baziren, gorteko handiener eta embaxadorer berdina eman gabe; uste zuen "populuaren tribunoa" zela eta hek (Erroman) zuten fagoreaz eta bothere lanjerosaz gutiziatua zen. Hortik bertze burutaldi batera itzuli zen, Orléans-ko dukearen kontrako helburu berera zoana. *Te Deum*-ak ainiztu zituen, lerro orotako Erregeren aitzindari ttipiak kanta-araztera sustatuz egun batzuez eta eliza batzuetan, orotan han izan zen, ahal zuen guzia hara ereman zuen, eta laster egin oraino sei astez Parisko eliza guzietan kantatu ziren *Te Deum*-etara. Bertzerik etzuen aipatzen, eta sendatzeaz zuen zinezko bozkarioari, alegiazko bat xertatzen zaukon alderdikaria eta hortan hutsik ez egin ahal ukaiteko xedea urrintzen zituena. Besta andana handia egin-arazi zuen Lyon-en eta bere seme arxapezpikuari, horien berrien heda-arazteko artha hartuz.

Errege Jainkoaren eskertzera joan zen zeremonian Andredona-Mariara eta Santa-Jenofebara. Sintsineria horiek, horrela luzatuak, agorril azkenerano eta San-Luisen bestarano iraun zuten. Bada urte oroz orduan arratsean musikaldi bat (Teilerietako) baratzean. Villeroy-ko marexalak behar zena egin zuen musikaldi hori halako besta bat bilaka zadin, eta su-ikusgarri bat gehi-arazi zaukon. Jendetzearen ekharr-arazteko ezta gehiagokorik behar; halakoa izan zen, nun izkilima bat ezpaitzan zola guzian lurrera eroriko. Teilerietako leihoak aphainduak ziren eta jendez beteak, eta Carrousel-go hegaztegi guziak han atxik daitekeen guziaz beteak, plaza bezala. Villeroy-ko marexala igerika zagon jendetze hortan, eta Errege okaztatzen zuen zokoetara gordetzera baitzoan noiz nahi; marexalak besotik atheratzen zuen eta eremaiten noiz leihoetara handik ikusten baitzituen Carrousel-go gortea eta plaza bete-betea, eta hegaztegi guziak jendez ihaurri, noiz baratzera zeramatenetara, eta han bestari beha zagon jendetze mugagabera. Hori guzia *Biba Errege!* oihuka ari zen ikusten zuen arau, eta marexala beti gordetzera joan nahi zuen Errege atxikiz: "Ikusazu bada, ene nagusia, mundu hori guzia eta jende hori guzia, hori guzia zurea da, zu zira horren guziaren jabea, zu nagusia; so egiezu beraz horien bozkariatzeko, oro zureak baitira; horren guziaren jabe zira." Erakastaldi ederra gobernari baten ganik, (Erregeri) buruan

sarr-araztera akitzen etzena leihoetara bazeraman aldi bakoitz, haina zen ahatz zezan beldur! Bete-beteki gogoan atxikia du ere. Eztakit bertzerik ukan duenez erakaskuntzen emaiteko kargua ukana daukotenen ganik. Villeroy-ko marexalaren ikastaldi hain usu eta hain publikoki errepikatuak, harrabots handia eman zuen eta hari ohore guti. Berak jasana du erakaspen eder horien lehenbiziko ondorioa.

Espainiako embaxadaren antolatzeko nekeak Dubois-ekin

Urrats horiek guziak egiten ari ziren bitartean, Dubois kardinalarekin eskuka nintzan. Ene embaxadaz errabian zen, eta horren antolatze osoan eta iraun zuenen guziak agerian erakutsi zautan bezala, deliberatua zuen, itxura guziak salburik, honda-araziko eta galduko ninduela. Hortaz ontsa mesfida nintzan, eta berehala ukan nuen hortaz dudarik ez ukaiteko aldi. Haren ganik eni hastapenean, adixkidantza, atxikimendua nasaiki, embaxada horrek eta ondorioek eni eta ene haurrer ekharri behar zezteenaz, Orléans-ko duke Jaunak esker onez eta adixkidantzaz zor zautan guziaz, eta hark berak aro guzietan harendako ukanak nituen lehengo oneziez. Solas horiekin eta orotako gai batzuekin, ahal ukan zuen bezenbat gaian berean sartzea baztertu zuen guziaren gehienean lehiatzeko xedetan, eni harekin deusetaz eztabadatzeko astirik ez uzteko, hedatuko zauztan arte guzietara ene eror-arazteko, eta bertzela ahal ziren behargabe orotara. Aingira bat izan zen eskuen artean lerratu zizatana ene abiatzerano ephe zenbait senditu zuen guzian. Hori hurbiltzen ikusi zuelarik, handi eginaren pheredikatzen hasi zizatan eta neramatzan jende 'ta karroseriako xehetasunetan sartu nahiz. Argitu naukon, eta bertze edonork behar bezalakoa baino hobea aurkituko zuen; baina xedea ene hondatzea baitzuen, erasian hasi zen eta heren batez handitu zuen. Gastu horren gehiegia erakutsi naukon, dirutzetako izanara, diru aldatzeak bazeman galtze izigarria; erantzun orotako hau ukan nuen: hein hortako embaxada batean horrek horrela izan behar zuela Erregeren ohoreko, Haren Maiestateak gastu guzia bere gain hartuko zuela. Orléans-ko duke Jaunari aipatu naukon, ene erraitekoer asti gehiago utzi baitzeen, baina, kardinalak erranak sinetsirik, gauza berak erran zauztan.

Gai hortan iraganik, (kardinalak) jakin nahi ukan zuen zenbat jantzi eremanen nituen eta ene haurrer zenbat emanen, eta hauk zein

izanen ziren; hitz batez, etzen izan hetan sartu etzen mahiko eta zaltegiko xehetasunik eta bikunduz handitu etzuenik. Ene ihardokitzeak eta arrazoinek trabatua, igortzen zauztan noiz Belle-Ile, noiz Le Blanc, hauek, berainik bezala eta ene adixikide bezala, sustatzen baininduten hoin gizon oldartsu, hoin lanjeros, Orléans-ko duke Jaunaren errextasunaren eta ahuleziaren hoin azkarki jabe zenaren kontra ez hisitzera, ni joan eta, kontra-phizurik gabe gelldituko baitzen eta joko ederra ukanen baitzuen ene hor ez izaiteaz baliatzeko, nik aldiz baitezpada haren ganik iragan beharko nuelarik ene embaxadak iraunen zuen guzian. Hori guzia etzen sobera egia baizik. Amor eman behar izan zen beraz, nahiz sendi nuen abiatuz geroz Erregeren moltsa gupida ukanen zutela enearen kaltetan.

Ezkontzak aithortuak izan zireneko, lehia-arazi nuen (ni ere) aithortua izaiteko, ene karroserietako lana egin-arazia ahal ukaiteko. Hori berezi-bereziki debekatua izana zizatan ordu arteo, eta arrazoinekin nehoren ez atzarr-arazteko, baina arrazoin hori ezkontzen aithormenarekin erortzen zelakotz, eta ere lehia baitzen, horrek nekerik batere eman zezakeela enuen uste ukan. Hortan huts egin nuen. Zer aitzinatu ahal banuen ere debekuak iraun zuen. Kardinalak nahi baitzuen lehiatuz gastua bikun nezan, hala gertatu zen bezala, eta ni ezarri ere, asti eskasez, ororen ez ukan ahalean, eta huts hori ene gain eman, hanbat osoki artegatua zuen Orléans-ko duke Jaunaren ondoan nola Espainian, eta gainera bekaiztier nitaz oihu egin-arazteko. Hala ere enintzan hortan lehia-araztetik gelditu, eta aldi berean behar nituen argitasunetan hastetik, horiek, kardinalaren eta Orléans-ko duke Jaunaren ganik nitara zuzen iraganez, ezpaitzaukoten jendeari, karroseriek bazegiten bezala, jeus erakusten. Hori ere ukan ahal enuena da; ihardetsi zautaten arinki gaia bizpahirur solasaldiek agortuko zutela. Kardinalak nahi baitzuen enindadin airera baizik argitua izan, gogoetatzeko, galdegiteko, argitua izaiteko astia ekhendu nahi baitzautan, eta egotzi nahi baininduen eragozpen batzuetara eta zozokeria batzuen egiteko gertaldietara gero horien bortizki salatzeko xedetan. Azkenean, hainbertze gibeleratzez eta hain lanjerosez akitua, eta gogoan ontsa harturik ene aithortzea etzela horier azken heinerano iraun-arazteko baizik luzatzen, joan nintzan buruilaren 23-ko asteartean Orléans-ko duke Jaunaren gana, eta bereziki hartu nuen bere Teilerietako bizitegian zen ordua; hor, hain ontsa mintzatu nindakon, nun erran baitzautan aski zela Erregeren baitara joaitea. Ereman ninduen, eta bere gobernari-orde eta jende gutirekin zen

Erregeren gabinetean, aithortua izan nintzan. Gabinetetik jalgitzean, Orléans-ko duke Jaunak bere karrosara igan-arazi ninduen, eta Erret-Palaziora ereman han hasi baiginen ene embaxadako egitekoez serioski mintzatzen.

Uste dut Dubois kardinala ontsa gaitzitua izan zela oraino luzatu nahi zuen ene aithortzeaz, eta molde hortan egina izanaz. Baina horren ondotik, etzen gehiago gibelatzeko biderik izan. Biharamuneko ene karroserietan lan egiten hasi zen, hautan kardinalak erakustera eman baitzuen aitzinean geldi eta luzamen egina zuen bezenbat lehia eta ezin-egon. Langilen lehi-araztera bazigorran, mutil mota bakoitzaren soineko bat ikusi nahi zuen, jantzieria eta bertze, handi-egina oraino gehitu zauen, eta enetako eta ene haurrendako egin jantzi guziak bere aitzinena ekharr-arazi zituen. Azkenean aithortua izan nintzaneko ene abia-arazteko lehia hain handia izan zen, nun ereman ahal zen guzia egin-arazi baitzuen postako sokorga batzuetan Baionarano, merke izan etzizatana.

Nor eremanen nuen jakin nahi ukan zuen, ni jarraileria handi baten eremaitera sustatuz. Izendatu nauzkon Lorge-ko kondea, Céreste-ko kondea, ene bi semeak, San-Simungo apheza, hunen anaia, hunen erreximenduko aitzindari nagusia, Espainian zerbitzatua zuena, biziki ohartua zena, hautamen handiko aitzindaria, eta ezin gehiago baliagarri izan zizatana; geroztik Blaye-ko Erregeren ordezkari egin nuen; ene bigarren semearen erreximenduan kargua utzia zuen kampoko buruzagi bat, Mathan-go apheza, San-Simungo aphezaren adixkidea, eta geroztik beti enea gelditua dena. Bertze nunbait ikusi da Brancas-ko Jaunarekin biziki hala nintzala. Céreste, aitamez haren anaia, baina hogei-ta-bortz urtez gazteagoa, ene haurren adixkide zen ere. Bidaia horren egiteko gutizia ukan zuen, eta anaiak ere jin zadin nahi ukan zuen, eta hori ohorez hartu nuen. Hark eta nik ezagutza handia egin ginuen bidaia hortan. Gizon gazte hortan aurkitu nuen gizon bat betegina eta berdin egina gozagarria deneko eta funtsezkoa deneko. Estimuak egin zuen adixkidantza geroztik mina iraun duena.

(…)

Kardinalak gogoan hartua zuen ene hondamena eta eni ahal ukanen zuen eragozpen, egiteko eta nahasmen guzien sortzea Espainian. Uste ukan zuen arrazoinekin jeus etzela hortara hel-arazteko ene bizkarrera berrogei aitzindarien emaitea baino hoberik. Ezin aurkituz, enituan ereman hogei-ta-bederatzi baizik, eta kardinala ontsa heldu

baldin bazen ene molsari zoakonaz, hain zoritsu izan nintzan, eta jaun horiek hain pherestu, nun ezpaitzuen xedatua zuenetik ezer ukan. Sartine-ri (*) manatu zaukon han baizik egin etzaitekeen guzia Espainian egin-araz zezan, behar nituen gauza, mando, karrosa, mutil español, jan-edanendako, Frantziatik ukan nezazkeenez bertzalde, eta nahitara egin zuen.

(*) Sartine, sortzez Lyon-darra, Espainian estimu eta kargutan zena Alberoni haizatua izanez geroztik, eta laster Barzelonako intendantgoa ukan zuena: "biziki Frantzesa gorde gabe, eta bizkitartean orotara aro guzietan Españolez maitatua" dio San-Simunek. (*Itzultzalearen oharra*)

Espainiako bi handi: Veraguako eta Liriako dukeak

Baina (Sartine) gehienik baliatu zizatana, jenden, haien arteko loturen, urrunduak zirenen, aipamenezko eta nortasunetako mailen, eta egin behar denean argitzen eta bidatzen duten eta urratsak trebeki egin-arazten dituzten mila motako gauzen ezagun-araztean izan zen. Ukan-arazi zautan gainera Veraguako dukearekin etxekotasuna, bere emaztearen anaia, hau, nahiz biziki gazteagoa, kargu handienetarik iragana baitzen, gogo zuzentasun eta izpiritu handi batekin, biziki aphaindua baitzuen eta batzakien muga gabean, hanbat jende batzuez eta bertzez eta azpikeriez, nola sortzeaz, lerroez, eta ezin gehiago mota orotan ikasi dautaten horrelako jakitate bereziez. Hemen aitzinetik ikusia den bezala, Espainiako handiez ari izan denean, erran dut, arrez arr eta legez Portugaleko etxeko adar batetik zela, eta jausten zen, amabitxiaren aldetik, Kristobal Kolon aipatutik. Ohaide ilun batek, harekin hondatzen etzena, zikoitza baitzen, eta irakurtzeak hartzen zauzkoten astia eta auherkeria; biziki ontsa zen alta mundu guziarekin, eta gorteaz estimatua egin zezakeen bezenbat. Begitartez itsusia, ezin gehiago zikina eta satsua, begi izpirituz bete batzuekin, eta arina itxura dorpe baten azpian, kompainia onekoa eta zenbait aldiz ohartu gabean biziki gozagarria, bertzela eztia, solas onekoa, irri-solasa entzuten zuena hanbaterano nun adixkidek etxekotasunez "don Puerco" ("jaun Urde") baitzeritzoten, eta Liriako dukearen etxean, Madrilen, bazkaltzen ari ginen aldi batez, alhasearen gainean jatea eskaini baiginaukon, mahian onhartua izaiteko zikinegia zelakotz. Hori guzia irri-solasetan zoan, munduan nehork baino hobeki hartzen baitzituen. Liriako dukesa haren arrebak eta biek

elgar ezin gehiago maite zuten; bertze anaiarik ez arrebarik etzuten eta aitamak galduak zituzten, hala nola nun (dukea) hilik urteak berantago ezkondua izan gabe, haren ontasun handiak Liriako dukesari eta hunen haurrer iragan baitzitzezteen.

Liriako dukeak bazituen izpiritua eta xedeak; egilea zen eta gortelaria, biziki ontsa bazazkien lekua eta jendeak, mundu handikoa zen Espainian hori izan daitekeen bezenbat, ororekin ontsa, batzuekin harremenetan, baina Espainian jarria izaiteaz lastiman, ezpaitzen hango tristeziari jartzen; etzuen embaxada batzuen bidez handik atheratzea baizik gogoan, eta atsegina hain gartsuki maite zuen, nun hortaz hil baitzen berantago Neapolizen. Angeleterrako eta Mozkobiako embaxadatik itzulirik, gibeleratekoan, Frantziatik iragan zen, eta eman zauztan izkirioz Errusiako gorteaz gauza biziki berezi batzu.

San-Simunen Espainiako embaxada berezia: joaiteko bidaia, Madrilen lehenbiziko entzunaldiak

1. Paristik Bordelera

Azkenean postaz abiatu nintzan urriaren 23-an, enekin nituela Lorge-ko kondea, ene haurrak, San-Simungo apheza eta hunen anaia, eta bertze guti zenbait. Kompainiaren gaineratekoa batu zizatan Blaye-en, hala nola Mathan-go apheza, eta Baionan Céreste-ko Jaunarekin. Etzan ginen Orléans-en, Montrichard-en, Poitiers-en. Poitiers-tik etzatera Ruffec-era ginindoala, Osunako kondea aurkitu nuen Vivonne-en. Haren ikusteko gelditu nintzan, eta jakinez mezan zela, igurikatzera joan nindakon elizako athera. Jalgi zenean, komplimendu, ongi-ethorri, besarkatze izan ziren; gero elgarrekin joan ginen postara, hark eta nik oina han lurreratua baiginuen, ezen postaz zethorren hura ere. Athetan komplimendu ainitz, egin nahi bainauzkon, zuzen dena bezala, Frantziako ohoreak. Gambara batera igan ginen, han bakarrik utzi baiginituzten eta oren bat eta erdiz solastatu baiginen. Frantzesa gaizki mintzo zuen, baina salastatzeko behar zen baino gehiago.

(…)

Ene berlina hautsi zen Couhé-ra heltzean, Vérac-ko Jaunarena den lur bat; bertze haxa bat ezarri behar izan zen. Hirur onenez goiti egon nintzan beraz han, Orléans-ko duke Jaunari eta Dubois kardinalari izkiriatzeko baliatu nituenak ukana nuen solasaldiaz eta ephe batez

jauregiaren eta parkearen ikusteko. Gibelatze horiek Ruffec-era hel-arazi ninduten gauerdi inguruan, han ene aiduru zaudela herriko eta eskualdeko noblezia ainitz, bazkaltzera et auhaltzera eman bainauen han egon nintzan bi egunetan. Zinezko atsegina ukan nuen Puy-Robert-en besarkatzen, Royal-Roussillon erreximenduko koronel ordezkari zena ni hartan kapitain nintzalarik. Ruffec-etik joan nintzan bi orenez La Cassine-ra, Blaye-tik laur lekoatan den etxe ttipi bat, aitak Blaye-ko bere aintziren bazterrean eraikia zuena eta atsegin handiz ikusi nuena; Omiasainduko eguna eta bezpera han iragan nituen, eta biharamunean goizik Blaye-ra joan nintzan, eta han bi egunez egon. Ethorkiko jende andana aurkitu nuen han, herriko eta auzo herrialdetako noblezia ainitz, eta Boucher, Bordelen intendant zena, Le Blanc-en koinata, han igurikatzen nindutela, goiz-arratsetan aphairu eder egin bainauen egonaldi labur hortan. Ongi baliatu nuen gazteluaren ikusteko barnetik eta kampotik, irlako gazteluaren eta Blaye-ko aitzin-aitzinean den Médoc-ekoaren, handik iragan bainintzan aro biziki gaixto batekin. Baina ikusi nahi ukan nituen, eta hara ereman nuen ene gobernamenduaren iraupena zuen semea. Bordelera hain aro txarrarekin iragan ginen, nun guziek luza nezan eskatzen baitzautaten, baina enuen egonaldi labur hortako baimena baizik, eta enuen luzatu nahi ukan. Boucher-ek ekharria zuen bere bergantina handizki aphailatua, jarrikitzen zizatan guziaren iragan-arazteko behar zen untzixkeria guziarekin, eta ere Blaye-ra ikustera jina zizatan guziaren, gehienak gurekin Bordelera iragan baitziren. Portuaren eta hiriaren ikuspenak ustegabetu ninduen, erresuma orotako hirur ehun baino gehiago untzirekin ene irigaitean bi lerrotan emanak, aphaindura guziarekin eta bere kanoiaren eta Trompeta gaztelukoarenaren harrabots handitan.

Bordele sobera ezaguna da ikusgarri horren erakusten gelditzeko; erranen dut bakarrik, Konztantinopoliz-ko portuaren ondotik, hunen ikustea mota hortan mirets daitekeen gauza ederrena dela. Lurreratzean ainitz komplimendu eta ainitz karrosa aurkitu ginituen, intendantaren etxera ereman ginituztenak, hara ethorri baitzizaztan Bordeleko zinegotziak komplimendu egitera zeremoniako jantzitan. Jaun horiek batzu ethorkikoak baitira eta bertzeak gotorrak, eta zinegotzeria hori bertze hiriko bilzarre guzietarik ezin gehiago ezberdina baita, ihardetsia ukan nauenean intendantaren aldera itzuli nintzan, eta gurekin auhaltzera gomita nitzan onhar zezan othoiztu nuen; uste etzuten jendetasun horri biziki sendikor iduritu zitzaztan; jantzien uztera joan ziren, eta auhaltzera

itzuli. Eztaiteke intendantak goiz eta arrats egin zaukun aphairua baino handi eginagorik egin, ez eta hautukoagorik, ez hiriko ohoreak hark eta emazteak egin zauzkoten baino hobeki han egon nintzan hirur egunetan, bidaiaren antolatzeko gutiago ezin egonez. Arxapezpikua eta (parlamentuko) buruzagi lehena etziren han; parlamentua lanartetan zen. Hala ere palazioa ikusi nuen eta hirian ikusteko zena. Nahiz aspertzen ninduten hiriko etxearen ikustetik itsusia baita, joaiteko nahian egon nintzan; bertze ikustate bat egin nahi nauen zinegotzier, ondorik gabea; han gertatu ziren; erran nahi ukan nauen biziki gutiago ninduela ikusi-nahiak horrarat ekhartzen, jakin-arazia baitzautaten ikustea merezi zuenik jeus enuela aurkituko, guzier ikustaldi baten itzultzeko aldiak baino, ezin gehiago laket izan zizakeela iduritu zizatana.

2. Baionatik Loiolara

Azkenean, Boucher Jaun-Andereak ongi eskerturik, abiatu ginen, larre handiak iragan, eta Baionara heldu, han oina lurreratu baiginuen D'Adoncourt han biziki gaitasunekin manatzen zuen, eta Errege beteginki zerbitzatuz adoratua zenaren etxean. Ene haurrak eta ni haren etxean egon ginen, eta ene jende guzia auzoan. Karrosaz aldatzeak guretako eta paketeriarendako han laur egunez atxiki ginituen, hetan deus ezpaiteke D'Adoncourt-en artha onez erran, haren jendetasun errexaz eta komplimendu gabeaz, eta goiz eta arrats haren janariaz, garbia, handia, hauta. Aitzindari batzuez lagundua lekoa batean aitzinera ethorria zizakun. Ordukotz zaldiz igana nintzan. Artilleria, komplimenduak, horia guzia Bordelen bezala jasan izan behar zen, eta berriz ez erraiteko, gauza bera izan zen itzultzean, Blaye-en salbu han debekatu bainuen. Dreuillet, Baionako apezpikua, ikustera ethorri zizatan, gero gurekin bazkaltzera eta hirian zen handien guziarekin, baina biziki guti. Biharamunean prelat horren etxean izan nintzan, debozionekoa zena, jakintsuna, eta bizkitartean kompainia onekoa, eta bere diozesan eta herrialde guzian beteginki maitatua. Zitadelaren, gazteluen, eta ikustaldi zenbait merezi zuen guziaren ikusten izan nintzan.

(…)

Sartine-ren eskutitz bat aurkitu nuen Baionara ni baino oren bat lehenago ethorria. Sartine-ek igortzen zautan, (hazaroaren) 5-tik arratseko hameketan, Espainiako errege, Pecquet bezperan heldua zela jakinik, ene berantaz biziki gaitzitua zela, horren ondorioa izanen baitzen printzesen aldizkatzearena, neguko aro gaixtoena jasanen baitzuten.

Haien Maiestate Katolikoak etzaudela ene ethortzearen aiduru baizik Burgos-era abiatzeko, horrarano infantaren laguntzea deliberatua baitzuten, eta ezin gehiago nahi baitzuten ene urratsa lehia nezan. Sartine bidaia hortarik haien itzultzera auherretan entseatu zen. Berainik gaineratu zuen Haien Maiestate Katolikoak sendikorki gaitzituak izanen zirela, Montpensier-ko Anderaurenaren abiatzea emana zen egunetik ephe batez gibelatzen baldin bazen, eta Grimaldo-ko markesak izkiriatzen zautan ordu berean eskutiz bat igortzen zaukola Espainiako erregeren manuz horren jakin-arazteko eta ene ihadespenaren ukaiteko.

Ihardetsi naukon Sartine-ri othoizten nuela Haien Maiestate Katolikoer erran zezeen ene izenean ezer enuela ahatzia ez ahatziko bidaiaren lehiatzeko. Izurriteari buruzko oharpenen gertaldiek abiatzea debekatua zaukotela ene karroseriari eta bidean lehiatzeko deusen egin ahal ukaitea, Espainiako pasaportuak etzirelakotz azken ilabateko 29-an baizik ethorriak, eta pasaportu horiek Gasteiz-tik diragan bideko izanez, hartu nahi nuen Iruñakoa baino luzeagoa, oraino gibelatzen nindutela; gainera ene Madrilera ethortzeak guti edo aski aitzinaturik ere etzezakeela ondoriorik batere ukan Montpensier-ko Anderaurenaren abiatzean, ilabete hunen 15-eko jarria zena; erregeren eta Orléans-ko duke Jaunaren horren aitzinatzeko nahikaria debaldekoa zela, anatolamenduak lehenago ezin eginak baitziren. Paristik mugara berrogei-ta-hamar egun emanen zituela biden eta karroseria andanaren nekearen gatik, hortik baitzetorren Madrildik mugara, bidea heren batez laburrago izanez, infanta etzaitekeela abiatzera lehiatua izan aldizkatzeko lekura zuzen heltzeko, eta, ondorioz, behar zen asti guzia ukanen nuela hura abiatu aitzin egin behar nituen guziendako, ezpaita horien gatik ephe bakar batez gibelatua izan ahalko.

9-an, Baionara heldu eta biharamuna, Liñarez-ko dukesari komplimendu egitera igorri nuen, Espainiako erregina ohiaren gambarari lehena, eta (erreginari) enetako bazkal-ondoan entzunaldi bat eska zezon othoiztera. Ihardestez erreginaren komplimendu bat ukan nuen. Haren karrosak hartzera jin zitzaztan eta haren etxera ereman ninduten: zinez ustegabetua izan nintzan hara heltzean. Bazen aski aspaldi hiritik biziki hurbil den baserriko etxe batera baztertua zela, aitzinean bi leiho baizik etzituena korrale ttipi batera bazematenak eta luzetazunik ez biziki gehiago. Korraletik, arte-bide ttipi bat iragan nuen eta barne luze baino zabalago batean sartu nintzan, biziki arruntki mubleztatua, ikustea baratze handi eta eder batera zuena. Erregina aurkitu nuen igurikatzen

ninduela, Liñarez-ko dukesa eta biziki jende gutirekin. Erregeren komplimendua egin naukon eta eskutitza eskaini: ezin daiteke egin zuen baino jendekiago ihardets Erregeri zoakoanz, eta ez ere eni onezia gehiagorekin. Solasaldia ezkontzetako zorionaz izan zen, aldizkatzeko orduaz eta ene bidaiaz. Xutik zen, gibelean jar-lekurik gabe; burua enuen estali, ez eta egitera abiatu ere. Liñarez-ko dukesa eta D'Adoncourt bakarrik apur bat solasean sartu ziren. Ene haurrak aitzineratu nauzkon eta enekin ziren jaun horiek zerbait erran baitzeen, guzier oharpenekin eta oneziarekin eta biziki frantzes onean mintzatzera entseatuz. Handia zen, lerdena, biziki ontsa egina, itxura handikoa, begitarte onekoa, edertasuna ukana zuela ikustera uzten zuena. Madame-ren berri ainitz galdegin zautan. Jantzi guzia beltza zuen eta ile-antzea oihal batez eztalia, baina ileak ikustera uzten zituena, eta gerri-ara ageri zizakon ere. Soineko hori etzen ez frantzesa ez española, zaia buztan luze batekin Liñarez-ko dukesak izkinatik bazatxikana, baina biziki argala. Alharguntsa soineko bat zen, baina soin-gainean oihal luze eta zabal batez hautsia, eta diamant biziki eder batzuekin. Liñarez-ko dukesari doakonaz, haren jantziak laztu ninduen: osoki alharguntsa batena zen eta aski serora batenaren iduria. Eztut ahatzi behar erreginari eskaini nauzkola ere Orléans-ko duke Jaunaren komplimenduak eta eskutitza, ikustate handi batekin ihardetsi baitzeen.

Entzunalditik atheratzean, bazkaltzera gomita-arazi ninduen, biharamuneko, haren aitzindari gehiena hartan egoiten zen eta hura ere egona den Baionako etxe batean. Joan nintzan, San-Esteban del Puertoko kondeak egin zuenari jarraikiz, Cambray-ko bilkurara zoala, eta aitzinean (ikusi den) Osunako dukeari Frantziara heldu zelarik. Bruges-ko Jaunak, erregina ohiaren etxeko buruzagia baitzen, egin zituen aphairuaren ohoreak biziki ona eta handi egina izan zena, eta han gertatu baitziren Baionako apezpikua, D'Adoncourt eta laguntzen ninduen lehentasunezko guzia. Bigarren entzunaldi bat ukan nuen erreginaren ganik aphairuaz haren ezkertzeko eta abiatzean agurtzeko. Solasaldia luzea izan zen eta lehen aldian baino etxekotasunezkoagoa; erakutsi zautan azkenean hartan aurkitzen zen izanara trixtea, urteak geroz Ezpainiaz ordaindua izanaren hutsez, eta othoiztu ninduen aipa nezeen Haien Maiestate Katolikoer eta handizki zor zizakon guziaz laguntza zerbait ukan-araz nezon.

D'Adoncourt-en ganik xehetasun ttipi andana bat ikasi nuen Parisen eta gortean ezkontzen gibel-arazteko eginak ziren indarrez arte

hortaz haien hauts-arazteko baliatu nahiz, baina hortan guti argitu ninduten. Bakarrik zilatu nuena izan zen Adoncourt-ek, Espainian harreman handiak baitzituen orotaz gortearen ontsa jakinduru atxikitzeko, eta ere han jaun batzuekin lotua, ni baino gehiago Osunako dukearen konfienxian izana zela eta azpikeria hortan ziren jendeak izendatuak zauzkola, hanbat gure nola Espainiako gortekoak. Sustatu nuen Dubois kardinalari horren jakin araztera eta nihaurek mezutu naukon.

3. Loiolatik Burgosera

Pireneak iraganez, utzi nituen, Frantziarekin, horrarano utzia eninduten euriak eta ekaitzak, eta zeru argi bat eta giro loriagarri bat aurkitu, ordu oroz aldatzen ziren xixtazko ikusmen eta eskualde batzuekin, gutiago hala etzirenak. Guziak urratsa handia eta eztia duten mando batzuetara iganak ginen. Bidenabar mendi handi batzuen artetik baztertu nintzan Loiolaren ikustera joaiteko, leku aipatua San Inazioren sortzeaz, lats aski gotor baten bazterrean bakarrik dagona, ibar hertsi-hertsi batean, bi bazterretarik hersten duten mendi harritsuek hormategi bat egiten baitaukokete elhurrez estaliak direnean eta eltze bat udan. Hor laurzpabortz jesuista aurkitu ginituen, azkarki ikustatekoak eta jakinak, ehun jesuisten eta elemenia bat ikaslendako hasia zen eraikuntza mirazkoaz artha hartzen zutenak, etxe hortaz fraidegaitegi baten, ikastegi baten eta botu-etxe baten egiteko xedetan, haien etxek egin behar dituzten guzietako baliatua eta lagundiaren leku nagusi izaiteko.

San Inazioren aitaren lehenbiziko egoitza xipia ikus-arazi zaukuten, borzpasei leihoko etxe bat baita, zola bat baizik eztuena etxeko lanendako, gainean estai bat eta gorago bihitegi bat. Gehien-gehienik erretor baten egoitza lizateke, eta behin ere etzuen jauregi baten iduripenik ukan. Ikusi ginuen San Inazio, gerlan zauriturik, luzaz etzana egon zen gambara, eta haren jartzalea izan behar zuen lagundiaz gogoa argitua izan zizakona; eta amak hartaz erditu nahi ukan zuen zaltegia, azpian dena, Betelemeko barrokiaren debozionez. Jeus ez bi barne horiek baino aphalagorik, lehertuagorik; jeus ere orotan dirdiratzen duen urrez lilluragarriagorik. Bada ere bietarik bakoitzean sakramendu saindua han datzan aldare bat, eta bi aldare horiek azken handi eginekoak dira.

Bere eraikuntza neurrigabekoarendako barreatzera zoazin jesuisten etxea biziki gauza apurra zen eta gehienik hamabi bat jesuisten egoitekoa. Eliza berria abantzu bururatua zen, molde biribilean, ustegabetzen duen handitasun eta goratasunekoa, aldare elgarren artean

berdinekin, inguruan eta bi aldetara berdin. Urrea, margoak, gizairudiak, aphaindura aberatsenak eta mota guzietakoak, orotan barretuak antze nasai, baina zuhur batekin; eraikuntza lan zuzen eta miragarri bat, harbizi hautuzkoenak, harri nabarra, hargorria, harrurdina, zutabe leunak, bihurriak, marratuak, bere harroingain eta burdina-hori urreztatuzko aphaindurekin, galeria lerro bat aldare bakoitzaren artean, eta hara igaiteko mailak harbiziz eta maildegiak aphainduak, aldareak eta inguruan dituztenak miresgarriak. Hitz batez, Europako eraikuntza ospetsuenetarik bat, hobekieniek gogatua eta handizkienik aphaindua. Hartu ginuen han ehoiz jastatu dutan xokolet hoberena, eta zenbait oren ikusten eta miresten emanik, berriz hartu ginituen gure bidea eta gure egoitza, biziki berant eta neke ainitzekin.

15-ean heldu ginen Gasteizera han aurkitu bainuen probinziako deputatugoa, igurikatzen ninduela hauteko arno xahartuzko eskaintza handi batekin; laur aitorenseme gotor ziren herrialdeko egitekoen buruan zirenak. Auhaltzera gomitatu nituen, eta biharamunean gurekin bazkaltzera; frantzesa mintzo zuten, eta ustegabetua izan nintzen Español hoin alaien eta mahian hoin kompainia onekoen aurkitzeaz. Ene bidaiatzeko arrazoinak Frantzian eta Espainian iragan nintzan orotan bozkarioa jauz-arazi zuen eta eni ongi-ethorria eman-arazi. Leihoetan emaiten ziren ene bidaia benedikatuz. Salinasen, bertzeren artean, han gelditu gabe iragan bainintzan, andere batzuek, haien etxeak eta haiek berak ikusiz lerro onekoak iduritu zizaztanak, hain garazia onez galdegin zautaten Espainiaren zoriona bururatu zuenaren ikustea ephe batez, nun uste ukan bainuen galantasunekoa zela haien etxera igaitea; xoratuak iduritu zizaztan, eta munduko neke guziak ukan nituen haien uzten ene bideari jarraikitzeko.

Gasteizen Sartine-ren eskutitz bat ukan nuen hel nadin lehiatzeko, baina eguna haren eskutitz Baionatik itzulia zizatanaren aitzinekoa zen; eta, 17-an, goizeko bortz orenetan, ethorri zen Sartine-ren bertze eskutitz bat, mezutzen zautana Baionatik izkiriatuak nauzkon arrazoinek, nahiz baitezpadakoak, etzutela batere gelditua Haien Maiestate Katolikoen lehia ezin handiagoa, hortan othoiztu bainuen ahal zuen bezenbat alda-leku ukan-araz zezaztan, zer gosta ere, ene bidaiaren ahal ukanen nuen bezenbat lehiatzeko.

Burgos-era 18-an heldu nintzan, han egoiteko xedea bainuen, ikusteko egun batez bederen zer bilakatuko zen ene seme gehiena hartua zuen sukar aski azkar bat, ainitz khexatzen ninduena, ene alda-lekuak

antolatuak izan ahal zaiten igurikatuz; baina Pecquet ethorri zizatan urratsaren berriz ere lehiatzera, eta hanbat bizitasunekin nun semea ete abantzu enekin zen guzia utzi behar izan baitzen. Mathan-go aphezak harekin gelditzea onhartu zuen haren arthatzeko eta bakarrik ez uzteko.

Pecquet-en ganik jakin nuen hoin ezin egon soberakina emaiten zuena. Madrilen egoitea maite ez ukanez, erregina zen Lermara joaiteko handik jalgitzeaz phindarretan, han ihizi biziki nasaia aurkituko zuela errana baitzaukoten. Pecquet-ek erran zautan Grimaldok eta Sartine-ek jeus etzutela ahatzia bidaia horren hausteko, bederen gibelatzeko, baina Maulévrier-ek (Frantziako embaxadore ohikoak) ezin egon hori hazia eta handitua zuela, embaxadore sortzedun eta berez lerroko bat ethortzen ikusiz errabian, eta ezin egona zena Villeroy-ko dukea izan baliz, La Feuillade edo Rohan-go printzea, pairamen gehiagorekin jasanen zuela erran gabe.

(…)

4. Burgos-tik Madrilera: Espainiako erregen lehenbiziko entzunaldia

Burgos-tik abiatu nintzan beraz 19-an, enekin bigarren semea, Lorge-ko kondea, Céreste-ko Jauna (horiek biak etziren guzia baino apur bat berantago baizik abiatu), San-Simungo apheza, hunen anaia, hunen erreximenduko aitzindari lehena ete mutileria biziki guti. Alda-leku guti aurkitu ginuen eta gaizki jarriak; urrats egin ginuen gau eta egun, etzan gabe, Madrilerano, korrexidoren karrosez baliatuz, ahal ukan ginuen lekuetan, hanbatetarano nun azken hamaki lekoak - hemengo bikuna balio dutenak - postako zaldiz egin behar ukan bainituen. Horrela Madrilera heldu ginen ortzirale 21-ean, arratseko hameketan. Hirian sartzean, ezpaitu ez harresirik, ez atherik, ez heskailurik, ez bazter-herririk, jende batzu zain aurkitu ginituen, nor ginen eta nundik heldu galdegin zaukutenak, hor bereziki ezarriak izanak zirenak ene ethortzeko orduaren jakiteko. Biziki akitua bainintzan Burgos-tik beti gelditu gabe urrats eginik, eta biziki berant baitzen, ihardetsi nuen Frantziako embaxadorearen jende batzu ginela, bera biharamunean ethorriko zela. Gero jakin nuen, Sartine-ren, Grimaldoren eta ni baino lehen heldua zen Pecquet-en araura, Madrilen 22-an baizik enintzala izanen uste ukana zutela guziek.

(…)

Grimaldo-k erran zautan Haien Maiestate Katolikoen bozkarioa ene ethortzeaz, eta berak komplimendu garaziadunenak egin eta, eman

zautan haien izenean goiz huntan berean edo arratsaldean haien agurtzera joaiteko hautua. Lehiatzea egokiago zela uste ukan nuen, eta joan nintzan harekin orduan berean, hara jin zen ere Maulévrier-en karrosan. Ara hortan lehenbiziko ikustaldiaz neke oro ekhendua izan zen, horren egin beharretan nintzan guzien aldera, edo nahi ukan zezaketenera, hortaz odola ontsa arindu baitzizatan.

Palaziora heldu ginen errege mezara abiatzera zoan ordu berean, eta Handien eta Mirailenaren artean den saloin ttipian, ehor ezpaita hor galdegina izanik baizik sartzen. Ephe guti berantago, errege ethorri zen Handien saloinetik. Grimaldok abisatu zuen saloin ttipian sartzera zoalarik: berehala enegana jin zen, gortelari aski aitzinean eta ondotik, baina guren jendaldearekin iduripenik eztutenak. Gur handia egin naukon; ene ethortzeaz zuen bozkarioa erran zautan, Erregeren berriak galdegin, Orléans-ko duke Jaunarenak, ene bidaiakoak, eta seme gehienaren berriak Burgos-en eri gelditua zela jakina baitzuen, gero Mirailen gabinetean sartu zen bakarrik. Ordu berean gorte guziaz inguratua izan nintzan, kompliduekin eta ezkontzen eta bi koronen batasunaren bozkariozko erranekin. Grimaldok eta Liriako dukeak jaunak izendatzen zauztaten, abantzu guziek frantzesa mintzo baitzuten, haien ikustate ezin mugatuer enekin ihardestera indar egiten nuela.

Errege sartua izan eta oren laurden erdi baten buruan, ene bila igorri zuen. Sartu nintzan bakarrik Mirailen saloinean, biziki zabala dena, baina luze den baino biziki gutiago. Errege, eta erregina haren ezkerrean, abantzu saloinaren zolan ziren, zutik, eta bat bertzearen ondo-ondoan. Hurbildu nintzan hirur gur handiekin, eta behin betikotz ohartu nintzan erregek burua etzuela behin ere estaltzen entzunaldi publikoetan baizik, eta kaperan mezara joitean eta handik itzultzean, bere lekuan argituko dutan gauza. Entzunaldiak oren erdi bat irauten du (ezen erregek dute beti uzten) zuten bozkarioaren erakusten, gutizien, ezin egonaren, mugagabeko idekitze batekin, biziki ontsa (mintzatu ziren) ere Orléans-ko duke Jaunaz eta Montpensier-ko Anderaurenari zorionaren emaiteko gutiziaz erakutsi zautaten haren irudi batekin eta Erregeren bertze batekin. Solasaldiaren buruan, hartan erregina errege baino ontsa gehiago mintzatu baitzen, nahiz hunen zorionak ere xoratasunean distiratzen zuen, egin zautaten infantak erakutsi nahi zauztatela erraiteko zoriona, eta jarraiki nindakien manatu zautaten. Iragan nituen bakarrik haien ondotik erreginaren gambara eta gabineta, barneko galeria bat, han zerbitzuko bi andere eta kargutan ziren bizpahirur jaun gertatu baitziren,

abisua, iduriz, ukana zutenak, bertze nunbait argituko dutan bezala, eta galeria hori guzia iragan nuen ondotik jarraile guti horrekin, buruan baitzuen infanten bizitegia. Eztut don Fernando eta don Karlos baino haur pollitagorik ikusi, ez hobeki eginik, ez eta don Filipe baino troxatu ederrago bat. Erregek eta erreginak hek eni ikus-araziz atsegin hartu zuten, eta ene aitzinean itzul-araziz eta ibil-araziz biziki gogo onez. Gero andere infantaren egoitzan sartu ziren, han indar egin bainuen ahal ukan nuen bezenbat galatasunen hedatzeko. Alabainan, xoragarria zen, itxura ttipi arrazoinezko eta batere eragozpenik gabeko batekin. Erreginak erran zautan infanta hasten ari zela frantzesaren aski ongi ikasten; eta erregek, Espainia berehala ahatziko zuela: "Oi! egin zuen erreginak, ez bakarrik Espainia, baina errege 'ta ni, bere senar Erregeri baizik atxikia ez izaiteko;" hortan indar egin bainuen ez muturik egoiteko. Hortik jalgi nintzan Haien Maiestate Katolikoen ondotik, jarraikitzen nindakiela galeria ttipi hortan eta haien egoitzan zehar. Berehala utzi ninduten oneziazko lekukotasun ainitzekin; eta, jende guziarekin saloinera itzulirik, han berriz inguratua izan nintzan, komplimendu ainitzekin.

Ephe guti berantago, erregek dei-arazi ninduen Asturiako printzearen ikusteko, Haien Maiestaterekin baitzen Mirailen saloin hortan berean. Handia aurkitu nuen, eta zinez marrazkitzeko egina; ileak hori eta eder, larrua xuri baina kolorekin, begitartea luze, baina gozagarri, begiak ederrak, baina sudurrari hurbilegi: ainitz garazia eta jendetasun aurkitu naukon. Erregeren berri ainitz galdegin zautan, gero Orléans-ko duke Jaunarenak eta Montpensier-ko Anderaurenarenak, et hau noiz ethorriko zen.

Haien Maiestate Katolikoek ene lehiaz askieste ainitz erakutsi zautaten, bere bidaia entzunaldien hartzeko heinean jartzeko eni astiaren uzteko gibelatua zutela erran; bakar bat aski izanen zela infantaren galdearen egiteko eta ukaiteko; artikuluak entzunaldi horren bezperan izenpetuak izanen ahalko zirela, eta entzunaldiko egun hortako bereko arratsaldean kontratua. Gero guzia noiz prest izanen zen galdegin zautaten; erran nauen laket izanen zizeen egunean izanen zela, antola-arazten nuen guzia haier gorte egiteko baizik ez izanez, hortara gutiagorekin hobeki heltzea uste ukanen bainuen haien abiatzearen ez gibel-arazteko, oraino egin zaitekeen guziaren hedatzeko luzatuz baino. Ihardespen hori azkarki laket izan zizeela iduritu zizatan, baina nehoiz etzuten eguna deliberatu nahi ukan, hortan ondoko asteartea eskaini bainauen azkenean. Lehiatze horren bozkarioa begitartean agertu zizeen,

eta biziki eskertzen nindutela erran zautaten. Hortan, errege apur bat gibelatu zen, erreginari ahapetik mintzatu zizakon, eta hau hari, gero Asturiako printzearen eta ene gana hurbildu ziren, eta deliberatu zuten ondoko ortzegunean abiatzea, ilabeteko 27-an. Berehala eman zautaten ez bakarrik haier jarraikitzeko baimena, baina ere hurbildik jarraik nindakien manatu zautaten, egoitzetako nekeak ezpaitzituen doi-doia baizik zerbitzuko aitzindari beharrenak bidean haien laguntzera uzten. Entzunaldi horren guziaren bururapena izan zen.

(…)

5. Espainiako errege 'ta erregina, eta Grimaldo minixtroa

Lehenbiziko begiztatzeak, etortzean Espainiako erregeri lehenbiziko gurra egin naukonean, hain azkarki ustegabetu ninduen, nun ene zentzu guziak bildu behar ukan bainituen berriz neure baitaratzeko. Enuen Anjou-ko dukearen hatzik batere ikusi, bilatu behar ukan bainituen haren begitarte luze, itxuraldatuan, eta Frantzian zenean ere baino ainitz gutiago erraiten zuenean. Azkarki makurtua zen, ttipitua, bidarra aitzinera, bulharretik biziki urrun, oinak zuzen-zuzena, elgar hunkitzen, eta ibiltzean elgar mozten, nahiz laster bazabilan eta belhaunak bat bertzetik oin batez urrun. Ohore eginez erran zautan hura, ongi errana zen, baina bata hanbat bertzeari loturik, eta hitzak hain terrentan, itxura hain ñuku, nun hatzemana izan bainintzan. Upulurda batek, batere urrekirik gabe, ile-oihal beltzaran moldekoa, joan behar zuen ihiziaren gatik, etzauzkon itxura ez egonara hobetzen. Bazuen perruka estekatu bat, gibelerat emana, eta xingola urdina upulurdaren gainetik, beti eta aro guziez, hala nola nun khordoin gorri batekin lepoan zuen Urrezko Iletzea ezpaitzizakon ikusten, lepokoak eta xingola urdinak abantzu beti gordetzen zaukotelakotz. Monarka hortan bertze nunbait hedatuko niz.

Erreginak, oren laurden bat berantago baizik ikusi enuena, gorago erran den bezala, izitu ninduen bere begitarte titatuaz, josiaz, pikotaz gehiegi itsustuaz; anderen Espainiako jantzia orduan atzinekotik osoki ezberdina, eta Orziniko printzesak asmatua zuena, andere gazte 'ta ontsa eginendako abantailduna den bezenbat gaizkorra da adinak eta gorputz-arak dituzten huts guziak ikustera uzten dezteenendako. Erregina moldean egina zen, orduan mehe, baina lepoa eta soin-gainak eder, ontsa moztuak, aski beteak eta biziki zuriak, besoak eta eskuak bezala; soin-ara lerden, ontsa hartua, sahetsak luze, ezin gehiago arina eta xehea besoaren aldetik, artekoa baino apur bat gorago; doinu italiar arin batekin,

frantzesa biziki ontsa mintzo zuen, hitz onekin, hautatuekin, eta indar egin gabe, mintzoa eta ahozkatzea biziki gozagarriak. Garazia xoragarri, jarraiki, jitezko batek, fazoin arinenik gabe, laguntzen zauzkon hitzak eta egonara, eta hauekin batean aldatzen ziren. Uzten etzuen handitasunezko eta maiestatezko aire batekin batzen zuen oneziazko, jendetasunezko ere itxura bat, usu etxekotasun maitagarri batekoa. Nahaste hortarik heldu zen, etxekotasun zenbaitekin haren ikusteko ohorea bazenean, baina beti errege han izanez, bertze nunbait erranen dutan bezala, harekin bakoitza errexean zela, nor zen ahatzi ahal gabe, eta laster jartzen zela haren begitarteari. Alabainan, hura apur bat ikusi ondoan, errex ohartzen zen pikota hain bortitz batek haien itxura ezin ezabatua etzaukon ederra eta gozagarria ukanak zituela. Arte hitza, embaxadoregoko ofizio horren hastapeneko olde bizian, luzegia lizateke hemen gehiago baldin banerro; baina hitz batez oharr-arazi behar da, bertze nunbait hedatuago izanen dena, gau eta egun, lanetan, entzunaldietan, jostatzean, debozionetan, errege 'ta erregina etzirela nehoiz elgarren ganik berexten, ez eta ephe batez ere, salbu batak eta bertzeak berex emaiten zituzten ospeko entzunaldietan. Gauza horiek oro bere aldian argituak izanen dira.

Grimaldok, sortzez Española, Flandretarra iduri zuen. Ile horia zen, xipi, lodi, zorrodun, begitartea gorri, begiak urdin eta bizi, itxura izpirituduna eta xorrotxa, horrekin onezia bazuena. Nahiz bere karguak haizu utz zezokeen bezenbat idekia eta zintzoa, komplimenduan soberakina, jendetasunekoa, zerbitzu egina, barnez gure Estatuko segeretariak bezain loriosa zen, bere esku ttipi zorro handian lotuekin, hauek, handik abantzu baztertu gabe eta elgarretaratu gabe, haren erranaldiak bere jokoaz laguntzen zituztela: horrek guziak bazegion haren aldera bere burua zaindu behar zen itxura bat. Ahala bazuen, izpiritu ainitz eta ikusi ainitz, gizon ohorekoa eta egiatia zen, erregeri eta hunen egitekoer bermuki atxikia, gortelari handi bizkitartean, eta xedea aro guzietan Frantziarekilako batasun hertsia ukan zuena. Horra hemen aski adixkidetasun eta konfienxiaren biltzen jakin naukon minixtro hortaz, biziki baliagarriak izan baitzizaztan eta haren eta ene artean hura hil arteo iraun baitute, bertze nunbait erranen dutan bezala, hura (kargutik) erori eta urteak ondoan gertatu zena.

(…)

6. Hazaroaren 25-eko entzunaldi handian

Hazaroaren 25-eko asteartean, ukan nuen ene entzunaldi ospekoa. Maulévrier, embaxadore ohiko bezala ezpaitzen edozein motako gastutan sartua, etxera ethorri zizatan goizean goizik, apur bat berantago ethorri baitziren don Gaspard Giron eta erregeren karrosa ezin ederrago, zortzi zaldi zuribeltz miragarriekilakoa, hartan, ordu zuzenean, igan baiginen hirurak. Bi zaldi mutilek bazadukaten ezkerretik bakoitzak uhal batez laurgarren zaldia. Karrosamutilik etzen, eta erregeren karrosazainak ereman ginituen bere burukoa besapean. Ene bortz karrosa, ekharria nuen guziaz beteak, bazarraikaten, eta bertze hogei bat gorteko jaunekin, eni ohore egiteko igorriak zituztenak Liriako dukearen eta Sartine-ren arthaz, hauen aitorenseme batzuekin barnean. Erregeren karrosa ene jantzidun oinekoez eta etxeko aitzindariez inguratua zen, erran nahi da gambarako mutil, sotozain, eta bertze. Aitorensemeak eta segeretariak ene azken karrosetan ziren; Maulévrier-enak (biga baizik etziren), Robinekin eta hunen segeretariarekin, heldu ziren ene azkenen gibeletik. Palazioko plazara heldu eta, Teilerietan nintzala uste ukan nuen. Zaintzale españolen erreximenduak, jantzietan, aitzindari, eta soldado, zaintzale frantzesak bezala, eta zaintzale walonen erreximendua, jantzietan, aitzindari eta soldado, zaintzale suizak bezala, harmetan ziren, ikurrinak airera, atabalak joiten eta aitzindariak ezpata luzeaz agurtzen. Bidean karrikak jendetzez beteak ziren, merkatarian eta ofizialen saldegiak, leiho guziak aphainduak eta jendez beteak. Bozkarioak begitarte guzietan dirdiratzen zuen, etz ezkinuen benedizionerik baizik entzuten.

Karrosatik atheratzean aurkitu ginituen Liriako dukea, Chalais-ko printzea, Espainiako handi zena, eta Valouse ezkutari lehena, Frantzes bezala eginbidez heldu zizazkula erran zaukutenak. Caylus-ek laurdena egiten ahalko zukeen bada. Mailaldea zikailariez betea zen bere aitzindariekin, gure Ehun-Suizak bezala jantziak, zikaia eskuan, eta egitekoak berdinak dituzte. Zaintzalen salan sartzean, lerroan aurkitu ginituen harmekin, eta iragan ginen athea hetsirik zen entzunaldikoari datxikakon barnerano. Hor ziren handi guziak eta lerroko jende elemenia bat, hala nola nun ezpaitzen gure gortean baino biziki jende gutiago, baina ixil gehiago. Embaxadoren sartzaleak egiteko guti du. Maiordomoarenak azkarki itzaltzen du. Hor komplimendu eta bozkario berrhetze bat izan zen, abantzu bakoitzak nahi ukan baitzautan berea bereziki erran, eta horrek oren laurden bat iraun zuen orduan atheak ideki baitziren eta handiak sartu; gero berriz hetsi zen.

Lerroko jendalde horrekin egon nintzan oraino apur bat, bitartean errege bere bizitegira ethorri baitzen, eta entzunaldiko barnean sartu handiak sartuak zirenaren bertze aldean zen athetik, haren aiduru baitzauden hor, eta igurikan ginauden guziak hartarik sartuko baiginen. Zintzoki aithortuko dut hemen Espainiako erregeren ikusteak hain larderia guti emana zautala lehenbiziko aldian, hain guti ere haren gana hurbiltzeko ohorea ukana nuen bertze aldietan, nun ordu hartan ezpainuen oraino zer erran behar naukon gogora emana.

Deitua izan nintzan, eta jaun horiek guziak enekin sartu ziren, neure burua eremaitera uzten naukola don Gaspard Giron-i, ene eskuna hartu baitzuen, eta (embaxadoren) sartzaleak Maulévrier-en ezkerra, ene ondoan baitzen. Athera hurbiltzen ari nintzalarik, La Roche ethorri zizatan erregeren izenean erraitera, erdi ahapetik, Haren Maiestate Katolikoak jakin-arazten zautala eta othoizten ninduela ustegabetua ez izaiteko ezpazen ene lehen eta azken gurrean baizik buru-hasten, baina ez bigarrenean; Frantziako embaxadore batendako bertze edozeinen baino gehiago egin nahiko zuela; baina ezin hauts zezakeen betiko ohidura zela. La Roche othoiztu nuen erregeri erran zezon ene esker on biziki errespetuzkoa eta senditua hoin oharpen oneziaz beteaz, eta athetik sartu nintzan.

(…)

Aphur bat gelditu nintzan athearen aitzinean ikusgarri ezin gehiago maiestatez bete horri beha, nehor ezpaitzen han higitzen eta ixila osoa baitzen. Urrats zenbaitez aitzinatu nintzan emeki eta erregeri egin naukon gur handi bat, ordu berean buru-hastu baitzen, xapela hankaren heinean atxikiz; barnearen erditan egin nuen bigarren gurra, eta, beheitituz, eskunera itzuli nintzan apur bat, begiak handietan ibiliz, oro buru-hastu zirenak, baina ez lehen gurrean bezenbat, orduan erregek bezala egina baitzuten, hau etzelarik bigarren hortan higitu, jakin-arazia zautan bezala. Gero aitzinatu nintzan berdin emeki erregeri aski hurbiltzerano, hor egin bainuen heren gurra, hura buru-hasten zela lehenean egina zuen bezala, eta berehala burua estali zuen, hortan handi guziek hark bezala egin baitzuten. Orduan hasi nuen ene hitzaldia eta borzpasei lehenbiziko hitz erran-eta burua berriz estali nuen erregek erran gabe.

(…)

Haina ustegabetua izana banintzan ethortzean Espainiako erregeren ikustean, eta huntarano ukanak nituen entzunaldiek hain guti

joa baninduten, erran behar da hemen egia zuzen eta zintzoenarekin haren ihardespenek hartara egotzi ninduten mirariak abantzu neure baitarik joan-arazi ninduela. Ene hitzaldiaren phundu bakoitzari ihardetsi zuen, ordenu berean, gaitasun, garazia, usu maiestate, oroz gainetik itzuli eta hitzen hautu hain estonagarriarekin eta arau hain zuhurki neurtuarekin, nun Errege zena entzuten nuela uste ukan bainuen, hain nagusia eta hain jakina mota hortako ihardespenetan.

Filipe V-garrenak jakin zuen jenden berdintasunaren lotzen Errege bere ilobarendako halako adei batekin, eta samurtasun jaio baten agertzera uzten minki maitatua zuen eta hartaz beti dolu zuen anaia baten seme horrendako. Bihotz frantzes bat dirdiratzera utzi zuen aldi berean Españolen monarka zela erakustetik gelditu gabe. Bozkarioa bere koronaren abantaila baino ithurburu garbiagotik jalgitzen zizakola sendi-arazi zuen, erran nahi dut odol beraren batasun hertsitik; eta Asturiako printzearen ezkontzaz, bere tronutik mail zenbaitez gorago igaiten zela iduritu zuen, onezia serios batekin mintzatuz, gutiago sendi zuela Orléans-ko duke Jaunari egiten zaukon ohorea odol beraren fagoretan, nola hunek egiten zaukon garazia berezia, ezterrat ez sobera denik ez gehiagokorik, harendako zuen gogo onaren lekukotasun hoin segurrarekin bozkarioz betetzea baizik ez gogoan ukaitea onhartua ukanik. Gune horrek xoratu ninduen oroz gainetik, bere lehentasun osoa, deusik erran gabe, senditzera eman zuen arintasunaz, gauza iraganen ahazteko garazia hain guti merezituaz, eta zuen oneziak hortan ezarri nahi zuen zigilu hain guti igurikagarriaz. Oro hanbat antze 'ta xorroxtasunekin errana izan zen, eta bizkitartean hain errex ixuria, gelditu gabe, moteldu gabe, hitzen bila ibili gabe, nun zen guzia sendi-arazi baitzuen, barkatzen zuen guzia, eta aldi berean zertara ekharria zen, den gutienik laida zezakeen hitz bakar bat utzi gabe ez eta itzuli bakar bat, eta guziak aldiz ohoragarriak.

Miretsi nuena oraino, izan zen bi ezkontzez ihardestean doinuz eta egonaraz aldatze egiazkoa baina aski guti senditzen zena: Erregerendako maitasun samurra, Frantziarekilako atxikimendu libroa, hunen tronua bere alabarendako ikusiz zuen bozkarioa, aurpegian eta persona osoan agertzen zizazkola mintzo zen arau; eta bertze ezkontzaz ihardetsi zuenean, erran-nahi bera agertu zen ere, baina maiestateduna, handitasunekoa, bere buruaren hezten badakien printze batena, sendi duena, badagiena, eta onhartu nahi duen guziaren phizua eta balioa hedamen osoan ezagutzen dituena. Behin betiko dolutan izanen niz hoin

ihardeste bereziak ez ordu berean izkiriatu ahal ukanik eta hoin betegintasun ustegabetzekoaren itxura hoin ezberdin bat baizik hemen ezin emanez.

Bururatua ukan zuenean azken artikulu hortaz laudoriozko hitz bat zor naukola uste ukan nuen, eta Orléans-ko duke Jaunaren esker berri bat, haren zerbitzari berezi bezala. Horri ihardesteko orde, Espainiako erregek egin zautan ikustatez mintzatzeko ohorea eta haren ondoan hoin gozagarriak zizazkon egiteko batzuetako hautatua izana nintzanalakotz zuen atseginaz. Gero buru-hasturik, aitzineratu nauzkon laguntzen ninduten Erregeren tropetako aitzindariak, eta Espainaiko errege joan zen, berriz ere oneziazko hitz zenbaiten ohorea egiten zautala.

(…)

(Erreginaren entzunaldira) Infanten bizitegiko aldetik ethorri ginen, eta erregina bere jarrailekin bertze burutik sartua zen.

Sartzean lehenik aurkitu ginuen barnearen beherea ilun zen eta heskailu batek hartan iluna handitzen zen lekutik zazpi-zortzi urrats aitzinago gelditzen zuen jendeaz betea. Barnearen atheak eta ondo-ondoan izan nintzalarik baizik ideki etzen heskailuarenak egin zuten lerrokatze bat bakarrik iragaitera utzi ninduena, hala nola nun gero gibelera ikusi ahal bainuen. Biziki luzea zen barne horren buruan, erregina jarria zen halako tronu batean, erran nahi da jargia azkarki zabal, ideki eta aphaindu batean; oinak laurki handizki egin batean, zabalez eta goraz ohigabekoa, zenbait mail aski aphal gordetzen baitzituen, erregina jalgi zelarik ikusi nuen bezala. Harresiaren luzean ziren handiak, lerroan, bizkarra harresiari eta burua estalirik. Aitzinean arkuen luzean laurki batzu baziren, zabal baino luzeagoak, eta arteko loditasunekoak, balusaz edo satin gorriz eta damasez, guziak berdin galoin urrekin inguruan, eskuaren zabaltasunean gehien-gehienik, izkinetan punpula urre lodi batzuekin. Balusazko laurkietan ziren Espainiako handien emazteak, eta haien seme gehienenak satin edo damasezkoetan, guziak berdin zango-aztaletan jarriak. Harresiko handi lerro horrek, eta laurkietako emaztenak, haien aitzinean, barnearen luze osoa hartzen zuen, une apur bat utziz erreginari hurbiltzean, eta bertze bat ni sartu nintzan heskailuari.

Ephe zenbaitez heskailu hortako athean gelditu nintzan ikusgarri hoin ospedunari beha, aldi berean, ene gibeletik, Veraguako eta Liriako dukeak, Masseran-go printzea eta erregeren bizitegitik laguntzeko

ohorea egina zautaten bertze handi zenbait, harresira lerratu ziren, azkenik lekuratuen ondotik (…)

Emeki aitzinatu nintzan behereko bigarren laurkirano, barnearen zabaltasun erdian urrats eginez, eta hor, gur handi bat egin nuen. Aitzinera berdin jarraiki nintzan gelditzen zen luzetasunaren erdirano, hor egin bainuen bigarren gurra, beheitituz apur bat laurkien aldera itzulirik, begiak ikusteko heinean nituen gainetik erabiliz, eta berdin egin nuen goititzean handien aldera, buru-hastu baitziren, anderek gorputzaz bere laurkien gainetik gur arin bat egina zautaten bezala. Bazen ethorkiko andere ainitz xutik jarriak ziren anderen laurkien gibelean, eta arku bakoitzaren hutsa betetzen zuten. Zenbait ethorkiko jende haien gibelean emanak ziren, baina gehiena heskailuen kontra, barneko aldean ahal ukan zuena, jendaldea gibelean. Gero aitzinatu nintzan erreginaren laurkiko behererano han egin bainuen heren gurra, hari erreginak bakarrik ihardetsi baitzuen soinaren beheititze biziki ageri batez. Ephe bat berantago erran nuen "Anderea", eta hitz hori erranik burua estali nuen, eta berahala buru-hastu nintzan eskua ene xapeletik ekhendua ukan gabe eta enuen gehiago estali. Handiak, ene bigarren gurraz geroz, buru-has geldituak ziren eta etziren berriz estali.

Hitzaldia erregeri egin berria naukonaren gauza beretan ibili nuen, behar zena ekhenduz eta gehituz, Espainiako erregeri bezala edo ez. (Erregina) lañoki aphaindua zen, baina harrieria miragarriez dirdiran eta erregina handi bat ontsa sendi zuten garazia eta maiestate batekin. Bozkariozko olde hain handi batek ustegabetu zuen nun eragozpenean zela erakustera utzi baitzuen, eta geroztik eni horren aithortzen atsegin hartu zuen; etzen egon eni hitz hoberenetan ihardetsi gabe infantaren ezkontzaz zuen bozkarioaz, Erregerendako zuen estimuaz eta maitasunaz eta sendimendu bizienaz ere, Orléans-ko duke Jaunarendako zuen adixkidantzaz, eta Espainian hunen alabaren zoritsu ikusteko zuen gutiziaz, oroz gainetik bi koronen batasunaz, erret-etxe bereko jendenaz, elgarrekin zuten handitasunaz eta beti berak baizik izan etzaitezkeen hauen abantailez zuen nahikaria eta zorion ezin handiagoaz; gero eni oneziazko ezaugarriak.

Entzunaldi hori lehenbizikoa izan baliz, ihardespenak xoratuko ninduen, hain zen ongi egina eta ahal zen garazia oroz eta maiestatez lagundua. Baina aithortu behar da, ainitz izpiritu, jitezko itzuli eta errextasunekin mintzatzean, ezin heldu ahal zela erregeren zuzentasun eta xorroxtasunera, gai bakoitzean mintzoa hanbat aldatuz ahozkatuak,

are ainitz gutiago hainbertze erregen ondoriotasun zuzena sendi zuen doinu goren hartarano, hanbat maiestate jitezkoarekin gauzer eta jender arautzen zizeena hautaz ihardestean erran zuen baino gehiago entzun-arazi baitzuen.

Bururatua ukan zuenean gur handi bat egin naukon eta joan nintzan ikustateak haizu utzi zautan bezenbat lehiarekin balusazko azken laurkietara heltzeko eta hauen ondotik laster iragaiteko aldi berean belhauna aphur bat gurtuz gainean jarria zen andere bakoitzaren aitzinean eta erranez: "*A los pies de Vuestra Excellentia*" (sic), erran nahi baitu "Zure Hoberentasunaren oinetan", hortan bakoitzak irriño bat egin baitzuen eta soina gurtuz ihardetsi; erne izan behar da egiten den horrelako laster hortan, erregina ari delarik oinen azpian duen laurki handiaren uzten, zutitzen, halako tronu haren mailetarik jausten eta bere bizitegira itzultzen hara deman galeriako athetik, eztelarik tronu hortarik barne horren zabaltasun abantzu erdiaz baizik berezia, eta galeriaren osoaz, biziki artekoak direnak; eta erreginarekin batean hari jarraikitzeko zutitzen den gambarari lehenaren ondoko azken laurkiarekin bururatua ukan behar da, bere bizitegiko athean erreginaren hatzeman ahal ukaiteko, haren aitzinean belhaun baten lurrera emaiteko, eskaintzen dautzun eskuaren apatzeko eta borzpasei hitzez eskertzeko, hark berdin ihardesten baitu.

Enuen laurkiekin hoin laster bururatua ahal ukana, erregina ikusi nuenean bere bizitegiko athean; jadanik hanbat oneziarekin eta etxekotasunekin arthatua ninduen nun uste ukan bainuen zorion hoin handiko ordu horietan libertate mota zenbaitez balia nindaitekeela, hanbatetarano nun haren gana laster egin bainuen eta oihu egin haren Maiestatea ontsa lehiaz joaiten ari zela, eta, ikusi bainuen gelditzen eta itzultzen, erran naukon enituela hoin ordu eta ohore preziosak galdu nahi; irriz hasi zen, eta ni, belhaun bat lurrean eskularrurik gabe eskaintzen zautan eskuari musuz; onezia ainitzekin ihardetsi zautan.

(…)

Madrilgo Plaza Nagusia argitan eta gorteko dantzaldia

Plaza hori eremuz Parisen ez bertze nehon oraino ikusia nuen edozein baino eremuz biziki zabalagoa da, eta zabal baino luzeagoa. Inguratzen duten etxen bortz estaiak hein berekoak dira, leiho guziak

elgarren arteko neurri eta idekidura berdinekin, bakoitza aldamio batekin guziak luzean eta aitzinatzean osoki berdinak, burdin-hesi batekin oro elgarren artean goratasunez eta eskulanez berdinak, eta hori guzia estaia guzietan berdin-berdina. Aldamio horietan guzietan ezartzen dira bi ezko zurizko zuzi gotor, bakar bat aldamioko buru bakoitzean, xoilki aldamioen itzultzeko erdiaren kontra emanak, doi-doia kampora makur, deusi estakatuak izan gabe. Horrek bademan argia ezin sinetsia da, ederraz balditzen du eta badu hartzen duen halako maiestate bat. Hizki ttipienak nekerik gabe irakurtzen dira plazaren erdian eta gune guzietan zola argitua eztelarik.

Aldamioan agertu nintzaneko, plazan zen guzia leihoen azpira bildu zen eta oihuka hasi: *Señor! tauro! tauro!* (sic) Jendea zizatan ari zezen besta bat ukan-araz nezon galdeka, hartako tirria gehiena duen munduko gauza baita, eta erregek konzienziako axolaz urteak geroztik haizu utzi nahi etzuena. Biharamunean jendearen oihu horien erregeri aipatzean egon nintzan ere xoilki, hortaz ezer eskatu gabe, ene balditzea erranez hoin argitze ustegabetzaleaz eta miresgarriaz. Ikusi nuen etxean gertatu ziren Don Gaspard Giron eta Español batzuek, ikusgarri horri beha joa ninduen balditzeaz loriatuak, hanbat gehiago gozorekin jakin-arazi zuten, nun ezpaitziren Frantzesak miresmenean izaiteari jarriak, eta jaun ainitzek atsegin handirekin aipatu zautaten.

Doia-doia ukan nuen argitze eder hortarik atheratzean auhaltzeko astia, palaziora itzuli behar izan zenean erregek Handien saloinean antola-arazia zuen dantzaldiko, gauerdi ondoko bi orenetarano iraun baitzuen.

Saloin hori, berdin zabala eta ederra dena burdin-horiz, harbiziz, urreztatzez, margazkiz, handizki argitua zen; sartzeko athearen bertze buruan baziren, (kontratuen) izenpetzean bezala, sei jargia lerroan, han errege, erregina eta bertzeak jarri baitziren ordenu berean. Erregerenaren eskuneko besoan, arterik batere gabe eta oin-erdi batez baino gutiago aitzinaturik, balusa gorribeltxezko alketx bat urrezko lits eta zur urreztatuarekin, erregeren maiordomo nagusiarendako, hartan jarri baitzen errege jargian egin zen aldi berean. Azken infantaren jargiako beso ezkerrean bazen molde berean balusa beltzezko laurki bat, urrerik gabe, izkinetan punpula beltz batzuekin, erreginaren gambarari lehenarendako, erdi-alharguntsan jantzia, erreginak etzuelakotz jasan nahi ukan serora soinekoeria handi hura guzia, alharguntsen jantzia dena hala direno, eta Baionan Liñarez-ko dukesari ikusia naukona. Arrazoin

beraz, laurkia beltza zen, bertzela urrearekilako balusa beltzez izanen baitzen. Andere horrek ukan zezakeen eskunekoa bezalako alketx bat, baina ohiduraz laurkia hautesten zuen, lerro berekoa baita. Jargien gibelean baziren balusa gorrizko alketx batzu urrezko lits eta zur urreztatuekin, erregeren zaintzalen kapitain aldikoaren, gorputzeko sotozainaren, erreginaren maiordomo nagusiaren, andere infantaren gobernariaren eta Popoliko duke, Asturiako printzearen gobernariarendako. Athe falsu batean, jargia guzien gibelean gambarari lehenaren aldetik, baina ez haren bizkarrera, baziren balusa gorri-beltzezko bi alketx urrezko lits eta zur urreztatuekin, don Gaspard Giron-ek hetara ereman baiginituen, Maulévrier eta ni, gure aitzinean leiho-sarerik gabe, fagore berezi bat izan zena, eta nehor gabe gure aitzinean, hala nola nun ikusgarri eder hori eta jantzak beti bete-betean ikusi baiginituen.

(…)

Ondoko barne batean baziren mota orotako edari, bixkotxeria, arno, nasaiki, baina ordenu handian, hara baitzoan, kontrajantzetako nahasaldietan, nahi zuena eta anderer (zer edan eta jan) ekhartzen. Aphainketa ospe handiz ageri zen: aithortu behar da gure jantzaldi aphaindu ederrenetako behakoa hortara eztela hurbiltzen.

Biziki bitxi iduritu zizaztanak, hirur apezpiku izan ziren, bizkarrekoarekin, barneko gizonen aldeko buruan dantzaldi osoan: Abrantes-ko duke Cuenca-ko apezpikua, eta Madrilgoaren meneko bi apezpiku *in partibus*; eta gambarari lehenaren soinekoa jantzaldi bateko, arrosario handi bat bazadukala agerian, jantzaldiaz eta jantzez solasean eta elheka, aldi berean arauez erortzera uzten zituen "Abe Maria"-etan mur-mur-mur, jantzaldiak iraun zueno. Biziki gaizkor iduritu zizatana ere, izendatu ditutan sei karguetakoak ezpada, Maulévrier eta ni, gizon bat han etzela jarri da, ez jantzariak ere, hala nola nun ezpaitzen saloin hortan guzian, jarleku bakar bat, ez eta jendearen gibelean ere, erran ditutanez bertze.

Erreginak, ezpaitezake jantza seriosik eman infantekin baizik, ikedi zuen jantzaldia erregerekin; printze horren jantza, azkarki maite zuena, ustegabetzeko gai handi bat izan zizatan; jantzan, osoki bertze gizon bat izan zen, bizkarra eta zangoak zut, zuzentasunekin, egiaz ere garaziarekin. Erreginari doakonaz, gero Asturiako printzea hartu baitzuen, eta biak ezin gehiago ontsa eginak, Frantzian ehor eztut

dantzan hobeki artzen ikusi, gizon ala emazte, guti hari hurbiltzen, hain ontsa are gutiago, bertze bi infantak biziki polliki, zuten adineko.

Espainian, gizonek eta emaztek adin guziez orotako margoak baderabiltzate, eta nahi duenak jantzatzen du hiruretan hogei urtez goitirano, den irrigarritasun arinenik gabe, eta hori gauza ohigabekoa iduritu gabe ere, eta hortan gizon eta emaztez behazun bat baino gehiago ikusi nuen: infant gaztenak Robecque-ko printzesa hartu zuen etzelarik berrogei-ta-hamar urtetarik urrun, eta ontsa ageri zituen.

(…) Robecque-ko Anderea erreginaren palazioko andere zen eta omen, bere ama bezala, erreginarekin biziki ontsa. Espainiara jin ziren baino lehen bizki ontsa ezagutuak nituen, eta egin nituen lehenbiziko ikustaldietarik bat hori izan zen: lehenago elgarrekin jantzan ari izanak ginen, eta badiduri erreginari erran zaukola.

Infantarekin jantzatu eta berehala, ezen, atzerritar bezala, etzen Espainiako erregeren menean, saloinaren luzatasun guzia iragan zuen, gur eder bat egin Haien Maiestate Katolikoer eta nindagon zokoan ene hatzemaitera jin zen irriz gur eder batekin jantzara eremaiteko; itzuli naukon nitaz trufatu nahi zuela erranez: eztabada, galantasun, azkenean erreginaren gana joan zen, hunek deitu baininduen, eta berak eta erregek jantzan ar nadin nahi zutela erran. Jostatu nahi zuela erraiteko libertatea hartu nuen; manu hori ezin zaitekeela seriosa izan; eman nuen adinaren, karguaren, hainbertze urtez jantzarik ez eginaren estakurua, hitz batez ahal izan zizatan guzia. Guzia debaldetan izan zen, errege solasean sartu zen, biek othoiztu ninduten, biziki ontsa jantzatzen nuela sinets-araztera entseatu ziren, azkenean manatu zuten eta obeditu behar izan zen moldean: athera nintzan beraz ahal ukan nuen bezala.

Erreginak nahi ukan zituen lehenetarik jantzan arr-arazi gure lekuko frantzesak, arropaz hortakoa etzen San-Simungo apheza salbu, eta berantago jantzaldian, enekin ethorriak ziren Erregeren tropetako bizpahirur aitzindari hautatuenetarik.

Jantzaldia ideki eta oren baten buruan andere infanta etzatera ereman zen. Kontrajantzek usu menuetak mozten zituzten. Asturiako printzeak zereman beti erregina, erregek bekan dantzatzen zituen, baina kontrajantzetan, jendea nahasten baita, eta kontrajantzako ordenuaren arau, andere bakoitzak jantzan ari den guziarekin jantzatzen baitu, bat bertzearen ondotik, eta gero eremailearekin buruan gertatzen baita, erreginak berdin guziekin jantzatzen zuen; ahal ukan nuenetik ihes egin nuen, nahiz biziki guti; goga daiteke bat enakiela.

Jantzaldia bururaturik, Villagarcias-ko markesak, maiordomoetarik bat eta ikusi dutan zuzenenatarik eta garaziadunenetarik, geroztik Peruko erretorde izana dena, ehoiz eninduen atheratzera utzi nahi ukan edariak ziren barne batean atseden hartua ukan gabe, han irets-arazi baitzautan hauteko arno huts baso bat, azkarki izerditan bainintzan kontrajantza eta menuet bortxaz, biziki phizua zen jantzi batekin.

Dukea Eskorial-go palazio-komentuaren ikusten

1. Palazioa

Negilaren 2-an Madrildik abiatu nintzan (Lermara joana zen) gortera joaiteko, eta etzatera Eskorialera joan nintzan Lorge-ko eta Céreste-ko kondekin, ene bigarren semearekin, San-Simungo aphez eta hunen anaiarekin, Pecquet eta Erregeren tropetako bi aitzindari nagusiekin, Espainian izan nintzano enekin egon baitziren. Espainiako erregeren manuen eta Grimaldo-ko markesaren eskutitzen gainera, banituen ere nonzarenak Eskorialgo priorearendako, aldi berean hango gobernaria baita, komentu ezin ederrago eta gaitzeko hortako mirarien eni ikus-arazteko, eta ikusi nahiko nituen guzien idekitzeko, ontsa jakin-arazia baitzizatan, nonzaren baimenik gabe, erregeren eta hunen ministroenak ez eta ene kargua etzizaztala hortan ainitz baliatuko. Ikusiko da hala ere enintzala egon hieronimista latz horien arruntasuna eta sineskeria senditu gabe.

Fraide zuri eta beltz batzu dira, jantzia zeleztinenaren idurikoa dutenak, azkarki auherrak, jakitate gabeak, bizimoldeko garraztasunik batere gabe, eta, bat abadia ezten komentuen ainitzaz eta aberastasunez, Frantzian beneditanoak diren bezalatsu direnak Espainaian, eta hek bezala kongregazionetan. Hek bezala hautatzen dituzte ere bere buruzagi orotakoak eta bereziak, Eskorialgo priorea salbu erregek izendatzen baitu, eta han uzten laket zakon bezenbat edo bezain guti, eta arauka Eskorialen Haren Maiestate Katolikoa baino ontsa hobeki ostatatua da. Handi egin mota orotako eraikuntza moldez mirazkoa da, etxe hori, eta aberastasunezko meta neurri gabea badadukana, margazkiz, aphainduraz, mota guzietako untziz, orotan ihaurtuak diren harrieriaz, ezpainiz horien erakusten abiatuko eztelakotz ene gaia; aski izanen da erranez gauza eder horien guzien ezaguleak eta ikusi nahi dituenak hirur ilabete eman

lezazkeela gelditu gabe eta guzia oraino ikertua ukan gabe. Matxarro baten moldeak eraikuntza ospeko horren egitura guzia arautu du, san Laurenzen eta San-Quintin-go guduaren ohoretan, bezperan Filipe II-garrenak irabazia, hunek egintza muno baten gainetik ikusiz, komentu horren eraikitzeko botua egin baitzuen bere tropek gudua irabazten baldin bazuten, bere gortelarier galdegiten zeela aita emperadorearen atseginak horrelakoak zinerez, hunek, alabainan, hortan ontsa hurbilagotik hartzen baitzituen. Ezta athe, zerrapo, edozein motako tresna, ez baxeraki, matxarro batez aphaindua eztenik.

Madrildik Eskorialerako bidea Paristik Fontainebleau-rakora biziki hurbiltzen da. Eskualdea zabal da eta biziki desertu bilakatzen Eskorialera hurbiltzean, bere izena biziki hurbil lekoa batean den herrixka gotor batetik hartzen baitu. Eskoriala ohartu gabe igaiten den gain batean da, handik desertua ikus ahala ageri baita hirur aldetara; baina itzulia da eta lotua bezala Madril alde orotarik zenbait lekoatan guti edo aski inguratzen duen Guadarramako mendiari. Herririk ezta Eskorialean; Haien Maiestate Katolikoen egoitzak matxarroaren buztana egiten du, aitzindari handienak eta behar diren aitzindariak, erreginaren andereak ere, komentuan ostatatuak dira; bertze guzia biziki gaizki egina da hara heltzen den aldean, oro han biziki gaizki eraikia baita gortearen gaineratekoarendako.

Elizak, mailalde handiak eta kalostra handiak ustegabetu ninduten. Miretsi nituen botikaritegiko lerdena et baratzen gozagarria, zabalza luze 'ta hedatu bat baizik eztirelarik alta. Hilhobitegiak halako laztura batez eta maiestatez izitu ninduen. Aldare handiak eta sankristiak begiak ezindu zauztaten bere neurrigabeko aberastasunez. Liburutegiak eninduen batere askietsi, eta liburuzainek are gutiago. Ikustate ainitzekin hartua izan nintzan eta auhaltzeko janari ona, baina español-aran, ohorea prioreak eta bertze fraide lodi batek eginten zautatela. Lehenbiziko aphairu hortarik hara, jatera ene jendek egin zautaten; baina fraide lodi horrek ekharri zituen beti ez onhartzea zuzen izanen etzen jateko batzu, leku guzietara eremaiteko xedetan ezpaiginituen uzten. Latin biziki gaixto batek ordaintzen zuen entzuten etzuen frantzesa, eta guk ere ez ezpañola.

Khoroan, aldare handian, meza nagusia erraiten duen aphezaren eta haren laguntzalen alkien gibelean badira leiho berinadun batzu. Leiho horiek, abantzu khoroaren heinean direnak, biziki gora baita, Filipe II-garrenak eraik-araziak zituen, eta han hil zen bizitegikoak dira.

Gibeletarik sartzen zizakon bizitegi hori ikusi nahi ukan nuen. Eza ukan nuen. Hisitu ahal nintzan ikusi nahiko nuenaren ikus-arazteko erregeren eta nonzaren manuekin, debaldetan. Erran zautaten bizitegi hori Filipe II-garrena hilez geroz hetsia zela, ehor geroztik hara sartua izan gabe. Erran nuen banakiela Filipe V-garrenak bere jarrailekin ikusia zuela. Aithortu zautaten, baina aldi berean erran bortxatuz sartua zela eta atheak hauts-araziko zituela mehatxaturik, errege bakarra zela, Filipe II-garrenaz geroztik, aldi bakar bat sartua zena, eta ehori etzuela ehoiz idekitzen ez idekiko. Jeus enuen sineskeria mota hortan entzun; baina hortan gelditu behar izan zen. Louville-ek, erregerekin sartua zenak, erran zautan guziak etzituela borzpasei gambara ilun baizik, eta zilo ttipi batzu, hori guzia ttipi, zureria erraustua, tapizarik gabe ikusi zuenean, ez eta mublerik batere: horrela ez sartuz enuen gauza handirik galdu.

2. Hilhobitegia eta Don Karlos-en burua

Hilhobitegira jaustean, athe bat ikusi nuen ezkerretik mailaldearen erditan. Fraide gizenak *Usteldegia* zela erran zaukun, eta ideki zuen. Borzpasei mail igaiten dira murruaren loditasunean, eta gambara luze 'ta hertsi batera sartzen da. Eztira harresi zuriak baizik ikusten, buruan sartzen den lekutik hurbil leiho handi bat, aitzinean athe aski xipi bat, muble orotako zurezko mahi luze bat, barnearen erdi guzia badadukana gorputzen ezartzeko eta arthatzeko. Han ezartzen den bakoitzarendako, murruan leku bat zilatzen da, gorputza usteltzen han ezartzen baita. Ziloa gainera berriz hesten da harresia hunkia izana dela iduritu gabe, guzian leun baita eta zuri-zuria dirdiran, eta lekua azkarki argia. Fraideak erakutsi zautan Vendôme-ko Jaunaren gorputza gordetzen zuen harresiaren gunea bertze athearen ondoan, ezpaita, fraidearen itxuraren eta solasaren araura, behinik-behin handik atheratzekotan. Erregenak, eta haurrak ukanak dituzten erreginenak, ephe zenbaiten buruan hortik atheraiak dira eta zeremoniarik gabe haiendako diren Hilhobitegiko tiraderetara eremanak. Infantenak eta haurrik ukan eztuten erreginenak, aipatzera noan ondoko barnera eremanak dira, eta han dira betikotz.

Leku hori hoin hetsia izana gatik, ezta usainik batere sendi. Gure heineko harridazkiak irakurri ginituen, eta fraideak bertze batzu galdegiten ginauzkon arau. Horrela itzulia egin ginuen, horietaz solasean eta arrazoinkatuz. Barnearen burutik iragaitean, Don Karlos zorigaitzekoaren khutxa ikusmenera agertu zizaukun. "Horri denaz, erran nuen, badakigu ontsa zergatik eta zertaz hila den." Erranaldi hortan, fraide lodia nahasi zen, herio naturalez hila zena atxiki zaukun,

eta hortaz hedatuak ziren ipuinen kontra erasten hazi zen. Irriño bat egin nuen zainak etzauzkotela moztu egia zela erranez. Hitz horrek fraidea azkena haserretu zuen, halako olde batekin erasian hasi baitzen. Hortaz ixilik jostatu nintzan. Gero erran naukon erregek, Espainiara ethorri eta guti ondoan, Don Karlosen khutxaren idek-arazteko gutizia ukana zuela, eta banakiela han zen gizon baten ganik (Louville zen) burua zangoen artean aurkitu zizakola; Filipe II-garrenak, haren aitak, bere aitzinean motz-arazia zaukola presondegian. "Oi bada! egin zuen fraideak osoki eroturik, ongi merezitua zuela badidurike; ezen Filipe II-garrenak aitasainduaren baimena ukan zuen," eta hortik bere indar guziez mirak metaka oihukatuz Filipe II-garrenaren debozioneaz eta justiziaz, eta aitasainduaren mugarik gabeko bothereaz, eta orotan mana, erabak eta haizu utz dezakeela dudan emaiten duen edonoren heresiaz. Nahiz ene karguak hortaz gerizatzen ninduen, enuen erasialdi irriegingarri bat eztabadatu nahi ukan fraide tripuntzi horrekin. Irria aski izan zizatan eta ixilik egon ziten keinu egitea, enekin zirener egin nauen bezala. Fraideak nahi ukan zuen guzia bere gostura erran zuen beraz, eta aski luzaz eztitu nahi ukan gabe. Gure itxuretarik trufatzen ginuela ohartzen zen beharbada, nahiz jestu ez hitzik erran gabe. Azkenean gambaren gainerateko itzulia erakutsi zaukun, beti haserre; gero Hilhobitegira jautsi ginen. Gangaren azpian dilindan dagon elizargi gaitzeko eta miragarriaren hiruretarik nunbait han bien phizteko fagore berezia egin zautaten, haren argiak itsutu baiginituen, eta Hilhobitegiko leku guziak ikus-arazten baitzituen, ez bakarrik den izkirio xipieneko marra xipienak, baina alde orotan ziren gauza mehenak.

Hirur egun egon nintzan Eskorialean, bizitegi handi eta eder batean ostatatua, eta enekin zen guzien bizitegia ontsa egina ere. Gure fraideak, Usteldegiko egunetik harat bere omore gaixtoa beti erakutsia zuena, etzuen onik berriz hartu gure abiatzeko bazkarian baizik. Urrikirik gabe utzi ginuen, baina ez Eskoriala (…)

Lermara abiatua zen gorterakoan dukea pikotaz eritzen da

Heldu ginen azkenean, 9-an, Villaalmanzoko gure herrixkara, han munduan daitekeen gozagarrikienik aurkitu bainintzan, enekin zen guzia bezala. Han seme gehiena aurkitu nuen oraino ontsa eriondo, Mathan-go aphezarekin, Burgostik heldu zirela. Biziki alaiki auhaldu ginen, eta ontsa

ibili gogo nuen biharamunean, eta herrixkaren eta ingurunen ezagutzen jostatu; baina gauaz sukarrak hartu ninduen, egunean handitu zen, ondoko gauan bortitz bilakatu, hanbaterano nun ezpaitzen 11-an, egun hartan baitzen, Lerman karrosatik Espainiako errege 'ta erreginaren jaustera abiatzearen aipatzeko ordurik izan. Gaitza handitu zen hain lasterrez nun lanjer handitan aurkitu baininduten, eta beherala gero azken heineratua. Guti ondotik odola ekhendua izan zizatan, pikota agertu zen, herrialde guzia hartaz betea baitzen. Aroa halakoa zen urte hartan, nun egun oroz horma hamabi edo hamalaur orenez bortizki ari baitzen, goizeko hameketarik laur orenetarano hurbil aldiz, daitekeen iguzki ederrena zelarik, eta ibiltzeko eguerdi hirian beroegia; harresi zenbaiten gatik emaiten etzuen gunetan, horma etzen ephe batez ere urtzen. Hotz hori hanbat gehiago samina zen, nun airea garbiago eta bixiago baitzen, eta zerua zohar betegin eta jarraikienekoa.

Espainiako errege, ezin gehiago pikotaren beldur baitzen, eta ezpaitzuen arrazoinekin konfienxiarik bere lehen medikuan baizik, igorri zautan ene eritasuna jakin zueneko, sendatua izanen nintzan arteo ene ez uzteko manuarekin. Ukan nituen beraz beti borzpasei jende ene ondoan, zerbitzatu ninduten ene mutilen gainera, Europako mediku zuhur eta hoberenetarik bat, kompainia biziki onekoa zena gainera, ez gau ez egun uzten eninduena, eta hirur barber biziki onak, hetan La Fare-ek berekin ekharria zuen bat eta igorri zautana. Orotan ukan nuen pikota itxura onekoa biziki nasaiki, agertu zenetik ixtripu lanjerosik batere gabe, eta berexi ziren mahiz eta harreman guzietan, kozinan ere, enea egiten zutenak, ikusten ninduten jaun eta mutilak, eta ikusten enindutenak. Mediku lehenak egun oroz erremedio berrien ukaiteko artha hartzen zuen zer gerta ere, eta etzautan edari orotako uraz bertzerik eman, hartan izari arau iranjak bere azalarekin bi zatitan mozturik botatuz, suaren aitzinean emeki irekitzen baitzen, phizkarri ezti et gozo bat usua azkar izan zenean, eta gero Rota-ko arno apur bat idikiarekin eta epher batekin egiten ziren salda batzuekin. Deus etzen beraz eskas izan eririk ni baizik etzuten eta ene ez uzteko manua zuten jende horien arthetan, eta jeusek etzuen ene jostagailuetan huts egin hartzeko heineratua izan nintzanean, ene ondoan zen kompainia onaz, eta hori eritasun hortarik sendatzen ari direnek aspertzerik eta utziak iziateaz bertzerik sendi eztuten ordu batean. Gaitza osoki bururatzen ari zenean, sangaratua eta purgatua izan nintzan aldi bakar batez, gero neure ohiko moldean bizi

izan ahal bainintzan, baina halako bakartasun batean. Mediku lehen hortaz mintzatzeko aldia ukanen dut.

Eritasun hortako ephe luze horrek harreman guzietarik baztertu ninduen bitartean, San-Simungo apheza ari izan zen egitekoez Dubois kardinalarekin, Grimaldorekin, Sartine-rekin eta bertze batzuekin.

Popoliko dukea eta haren semea

(*Itzultzalearen aitzin-oharra:*

San-Simunek aipatzen ditu, gehienetan luzaz eta xeheki, Espainiako embaxada berezia ukan zuenean bizi ziren Espainiako 112 handiak, duke, printze, konde, markes, eta gorteko bertze kargudun nagusiak. Ohargarrienetarik bat da hemen emaiten den Popoliko dukearen marrazkia.)

POPOLI, *Cantelmi*. Neapolizko erresumako etxe hoberenetarik bat. Espainiako koronara Filipe V-garrenaren heltzeko aroan, Cantelmi kardinala Neapolizko arxapezpiku zen, eta haren anaia Popoliko dukea artilleriako nagusi handia, hunen eginaraz Errege eta (Espainiako) errege semabitxia ezin gehiago askietsiak izan baitziren. Popoliko duke hori dukate hortako eta Neapolizko erresuma guzian zituen ontasun gotor abantzu guzietako anaia gehienaren ondoko izana zen, anaia gehienaren alabarekin egin zuen ezkontzaz, bi alaba baizik ezpaitzuen eta semerik ez. Popoliko azken duke hau gizon handi beltzaran bat zen, ontsa hornitua, giza-begitarte eder batekin, jaun handia sendi zuena eta armadako jenerala, ara guziak handiak, abantailekoak, jendetasunezkoak. Jeus etzaitekeen gehi haren kampoko itxurari. Izpiritu eta eginara ainitz bazuen, oraino gehiago itzul-inguru eta azpikeria, mintzari ederra, eta nahi zuen guzia bere xedetera erranez edo ixilduz edo itzuliz, sarkintasun eta garazia ainitzekin, jitez gora, behar zuela uste zuenean ezin gehiago aphala, handi-nahia, ezin gehiago zikoitza, oraino gehiago beldurtia, falsua, bikuna, ezin gehiago lanjerosa, eta bere diruaz eta gauza oro harendako utzi zituen fortunaz baizik axolatzen etzena.

Espainiarakoan Paristik iragan zen. Erregek, nahi baitzauzkon semabitxiari hunen erresuma berrietako etxe handiak eta jaun handiak eratxiki, eta bi anaia horiek Neapolizen egina zuten guziaz biziki askietsia, hautuki ikusi zuen; hark gizon trebe bezala luzatzera egin zuen, han arxapezpiku zen anaia kardinalak Neapolizen egin zezakeena balia-arazi, zuten jendakia handia, adixkideak, eta (Izpiritu-Sainduko) ordena

eskatu, Erregek hitzeman baitzaukon, eta Espainiako erregeren lepokoa ukan ere baino biziki lehenago ezaugarriak igorri, Urre-Ihetzekoa eman baitzaukon hunek ere. Bere lekuan ikusi diren iraultzek Espainia osoa harma-pean ezarririk, Popoliko dukeak zerbitzatu zuen eta manamenduak ukan, bere baitako aipamenarekin, eta bere azpikeriez eta solas hantuez lagunduz, laster ekharri baitzuten Espainiako grado militar handienera, kapitain jeneralarena dena, biziki gaizki bete zuena Kataluniako armadaren buruan, Berwick-ko dukeari utzi zaukona, eta bera Madrilera itzuli Barzelonaren setiatzea hastera zoan orduan. Filipe V-garrenak gorputzeko zaintzalen kompainiak egin zituenean ordu arteo Espainian ezaguna etzen Errege bere aitabitxirenen moldean, Popoliko dukeak, jadanik artilleriako nagusi handi zenak, ukan zuen gorputzeko zaintzalen kompainia italiarra, eta delako *banquillo*-ko iphizta sorturik, bere lekuan ikusi dena, Espainiako erregek egin zituen Espainiako handi hala etziren gorputzeko zaintzalen kapitainak, bertzen artean Popoliko dukea. Azkenean Asturiako printzearen gobernari egin zuen, eta ezkondu zenean maiordomo nagusi.

Espainian kargu hortan aurkitu nuen, eta bizkitartean gorteko jaun osokienik gaitzetsia. Emaztea, bere ontasun guziak zor zauzkona, eta begitartez eta araz biziki maitagarria ziotena, erreginak biziki maite baitzuen hunen palazioko andere izana zen, eta bertutean aipamena oso zuen. Apur bat bitxiki hil zen, eta bekaizkeriaz pozoindatua zuelako aipamen publikoa zuen, eta erreginak hortaz usu erasiatua duela ere. Bazuen haren ganik seme bakar bat, Peltoranoko printzearen izena zakarrena, mutiko ona, batere ez gaixtoa, eta bihoztuna ere; baina ergela, eroa, ezin gehiago biziatua. Aitak, deus ez emanez zikoizkeriaz edo guti, ohoin bilakatua zuen, eta hala izan zen eta bizi guzian xahutzale handi. (Dukea) Cellamare-ren aita, Giovenazzo-ko duke zaharraren herkide eta adixkide mina zen; garaziaz eskatu zaukon semea bere aldean atxik zezan, berekin ikustaldi egitera ereman, berak eginen ahal zuen bezala begira eta hurbildik atxik. Uste ukan zuen, semea nolakoa bazen ere, aitaso horren errespetuak eta ondoan ukaiteak hein batean atxikiko zuela, izpirituaz, antzez, ukanak zituen karguez aipamen handitan baitzen eta jende guziaz errespetatua. Gizon zahar horrek Popoli-ko dukearendako adixkidetasun aski ukan zuen haren galdearen onhartzeko, hala nola nun Peltorano gaztea etxean baitzuen eta goizetik arrats berarekin, zoan leku orotara laguntzen zuela, eta asti librorik batere ukan gabe. Huna (Peltoranori) zer bururatu zizakon:

Gertatu zen jakin zuela jaun bat, izena ahatzi zautana, etzela segurki etxean izanen, eta Giovanazzo-ko dukeari haren ikustera joaitea eskaini zaukon, batzuetan ikustera joaiten baitzizakon, eta aspaldi baitzen etzela han izana. Gizon zaharrak xede hortaz eta haren ondoan beti zer ikas bazen gizon baten ikustera joaiteko gutiziaz laudatu zuen, eta arratsaldean eremanen zuela erran zaukon. Peltoranok, bereaz segurrean, arthak aitzinetik hartu zituen. Madrilgo etxek, ederrenek ere, korralik eztute, edo biziki bekan dira bederen. Karrosak karrikan gelditzen dira eta oina han lurreratzen da; athetik sartzen da, gure athe handiak bezala argia athetik baizik hartzen eztuen leku luze 'ta zabalean baita, eta zoko biziki ilunak dituenean, bizitegietara hartarik igaiten den mailaldea zolan. Jaun horren athean gelditurik zaudela, etzela etxean erraitera jin zizezteen; berehala Peltoranok duke zaharra othoiztu zuen azkarki sendi zuen beharrordu bateko ephe batez jaustera utz zezan, jauzi egiten du, eta athari estali hortan sartzen da; han egon zen dembora luzexko iduritu zizakon gizon zaharrari, eta ez ote zen gaizki gertatzen ikustera igortzekotan zen, Peltorano itzuli zenean eta gostura karrosara igan desenkusa ainitzekin. Karrosa abiatzen eta urratsaren hartzen ari zelarik, Madrilen egiten den bezala, emazte bat atharitik jalgitzen da, karrosara jauzten, atheari eskuez lotzen, oihuka hasten eta Peltoranori laidoz ebasten duelakoan, leku hortara hitzhartua duela, laur pistola hitzemanak, eta badoala ordaindu gabe. Duke zaharrak osoki balditurik haizatu nahi du; azkarkiago oihu egiten du, ordaindua izanan dela, hala izana gabe eztuela utziko, jende guziari jaukitu nahi dutela oihukatuko duela; hainbertze harrabots egin zuen, eta hain deliberatuki, nun gizon zaharrak, ahalgez, haserrez eta suminduraz ithoa, sakelatik harturik laur pistola eman baitzauzkon haren ganik liberatzeko, Peltorano aldiz, berarekin sos bat ezpaitzuen, karrosaren zoko batera bildua zagolarik, eta azpitik irriz zahar onaren nahasmenaz, hitzhartua zuen lekura bere burua hari ereman-arazirik, eta gainera hori ordain-arazten. Giovanazzo-ko dukea, bere diruaren gostuz emazte ausart horren ganik liberaturik, joan zen zuzen Popoliko dukearen etxera, gertaldi guzia hari erran zaukon, semea utzi nehoiz gehiago haren artharik ez hartzekotan, eta bigarren desohore bat etzuela jasanen erran. Peltorano ontsa gaizkitua eta erasiatua izan zen, ezpaitzuen beharrien inharrosteaz bertzerik egin, eta ezpaitzen zuhurrago bilakatu; irririk eta bere egintza pollitaren kondatzeaz bertzerik etzuen egin.

Ihizi horrek zuen Boufflers-ko marexalaren alaba esposatu, bere lekuan ikusi den bezala, Madrilen aurkitu bainuen erreginaren palazioko andere, harekin biziki ontsa, eta jende guziarekin estimuan eta aipamenean.

(…)

Espainiako errege 'ta erregina 1721-ean

1. Erregeren gogoa eta arrangurak

Filipe V-garrena etzen argi goienekin sortua, ez eta irudimena deritzotenetik deusekin ere. Hotza zen, ixila, trixtea, urria, ihiziaz bertze edozein atseginek hunkitzen etzuena, jendearen beldur, bera buruaren ere, emaitza gutikoa, gostuz eta ohiduraz bakartia eta hetsia, zentzu onekoa alta eta zuzenekoa, eta gauzak aski ontsa endelgatzen zituena, buruan hartzen zuenean hisitia, eta usu orduan ezin itzulia, eta bizkitartean eremana eta gobernatua izaiteko osoki errexa.

Guti sendikor zen. Gerlaldietan, bere burua nahi zuten lekuan ezartzera uzten zuen, su bizi baten azpian ere den gutienik kordokatua izan gabe, eta norbaitek beldur zuenez ikhertzen jostatuz. Gerizatua eta lanjerretik urrun hala ere, ohoreak hortaz paira zezakeela gogoari eman gabe. Orotara, gerla egitea maite zuen, joaiteko ala ez joaiteko axolagabe berarekin, eta han ala ez han, guzia jeneraler egitera uzten zeen beretik batere eman gabe. Ezin gehiago loriosa zen, edozein egintzetan ihardokitzerik ezin jasana; laudorioak maite zituela gogora eman-arazi zautana, erregina ethengabe laudoriotan ari zizakola da eta begitarteaz ere, eta egun batez eni galdeka entzunaldi baten buruan, solasaldira itzuli zena, enuenez biziki ederra aurkitzen, eta ezagutzen nuen guzia baino ederrago. Debozionea etzuen ohidurakoa baizik, arrangurazkoa, beldurrezkoa, urrats ttipiz egina, erlisionea batere ezagutu gabe, aitasiandua jainko bat gaitzitzen etzuen ber, azkenik haienaldera amorratua zen jesuisten azal eztia. Nahiz osagarri biziki onekoa zen, beti behatzen zaukon, beti harendako beldurrean zen. Luis XI-garrenak bizi azkenean hanbat aberastu zuen bezalako mediku batek, "maître Coetier" batek, jende aberatsa eta bothereduna eginen zuen haren ondoan: zorionez, harena oneziako eta ohoreko gizon azkarra zen, eta geroztik haren ondoko izan zena osoki erreginaren eskuan eta labur atxikia.

Filipe V-garrenak neke gutiago zuen ontsa mintzatzeko nagitasun eta bere buruaz mesfidanza baino. Horrek zuen solasean sartzeko hain herabea eta urria egiten, erreginari egitera uzten baitzaukon ibilgunean eta entzunaldi berezietan jarraikitzen zizakonarekin, eta iragaitean batzuer eta bertzer mintzatzera uzten baitzuen ere, abantzu nehoiz haier jeus erran gabe: bertzela hutser eta irrigarritasuner munduan hobekienik ohartzen zizeen gizona zen, eta hortaz ixtorio hobeki errana eta atsegingarriena bazegiena. Beharbada laster hortaz zerbait erranen dut. Ikusi da zenbat gaitasunekin eta zuzentasunekin ihardetsi zautan ene entzunaldi handian, eta zenbat elhearen eta doinuaren hautamenekin ezkontza bataz eta bertzeaz, eta horrek berak ongi baderakusa beteginki mintzatzen bazakiela, baina abantzu nehoiz etzuela hortako nekea hartu nahi. Azkenean, apur bat olatua nuen, eta, beti solasaldira itzultzen ziren ene entzunaldietan, usu entzun dut ontsa mintzatzen eta arrazoinkatzen; baina jendea bazenean, etzautan ohiki galde motz bat edo horrelako zerbait zen hitz labur bat baizik erraiten, eta etzen ehoiz edozein solasalditan sartzen.

Ona zen, zerbitzatu errexa, barnekoekin etxekoz-etxeko, batzuetan ere kampoan jaun batzuekin. Frantziaren amodioa orotarik bazarion. Esker on eta adei handi bazadukan Errege zenarendako, eta Monseigneur zenarendako samurtasun handi bat, oroz gainetik Enejaun Burgoñako duke zenaren, bere anaiaren, hura galdurik ezin konsolatua baitzen. Erregerendako ezpada, etzata iduritu erret-familiako bertze edozeinendako jeus sendi zuela, eta behin ere eztauta gorteko edonorez berririk galdatu Beauvillier-ko dukesa bakarraz baizik, eta adixkidantzarekin.

Neke da bere koronaz zituen arranguren entzutea, eta horien batzea bere aiten koronara, zorigaitz gertatu baliz, itzultzeko zuen gogo harekin, uztea hanbat ospe handiz aithortua zuelarik, eta aldi bat baino gehiagotan. Hori Errege zenarekin ezkontzean Erreginaren uzten indarra burutik ekhen etzezakeelakotz da, eta haiekin azkarturik izanak ziren artha guziak; eta aldi berean ezin entzun zezakeen Karlos II-garrenak ukanak zituela bere testamenduan haren gozamendari baizik, eta ez bere irabaziak eman dezazkeen nornahi bezala jabe, etzen monarkia baten nahitara emaiteko zuzenbidea eta ahala. Horra zertan zuen A. Daubenton-ek ethengabe gudukatu behar ukana. Gogamen hortan, Frantziara itzultzeko xede hori hazten zuen, bai hemengo korona eta egoitza hautesten zituelakotz, bai are gehiago behar bada

Espainia utziz bere arranguren agortzekotan. Ezin gorde da hori guzia biziki gaizki antolatua zela haren buruan, baina horrela zela da egia, eta ezin-eginak bakarrik duela hortara bortxatua zela uste zuen uzte hori debekatu, horrek ukan baitzuen ere eragin biziki nagusi bat egin zuen tronuaren uztean, ni Espainiara joan aitzinean jadanik gogoan zerabilana, nahiz korona semeari uzten zaukon. (Espainiako koronaz) zuzengabean jabetze bera zela uste zuen bada, baina ere hortan arranguraz nahi ukanen zuena ezin eginez, tronua utziz bere buruaz ahal zuenaren egitea aski zizakon bederen. Horrek zaukon ere hainbertze pena eman semearen heriotzean berriz hartu zuenean, jasana zuen asperraldia izanik ere, eta usu aholku galdez haren gana ez aski joanik hisia, eta semea eta minixtroak haren abisuer ez jarraikirik. Ontsa sinets daiteke printze horrek eztautala gai minbera hori behin ere aipatu, baina eniz hortaz bertze nunbaitik gutiago jakinduru izana. Grimaldoren eta ene artean denaz, ehoiz ezta horrekin ikusteko den gutienekorik zuenaz hitz bakar bat erran.

Erreginak etzuen hastiatzen zuen Espainiaren uzteko gutizia gutiago, eta Frantzian erreinatzera jiteko, hemen zorigaitz gertatu baliz, bizi gutiago hetsi eta ontsa gozagarriago baten eremaiteko ustea baitzuen (…)

Espainiara ethorririk, lehenik Orziniko printzesaren haizatzeaz segurrean, eta gobernuan haren lekuaren hartzeko xedearekin, berehala hartu zuen eta hain ontsa beretu, erregeren izpiritua bezala, nun laster bataren eta bertzearen jabe izan baitzen. Gobernuko egitekoez, deus etzizakokeen gorde. Erregek etzuen ehoiz hura han izanez baizik lan egiten. Erregek bakarrik bazakusana oro, irakurtzen zuen eta hartaz harekin arrazoinkatzen. Edo menekoer, edo minixtro atzerritarrer emaiten zezteen entzunaldi berezi guzietan erregina beti han zen, aitzinean jadanik argitua den bezala, hala nola nun jeusek ezpaitzezakokeen huts egin ahal egitekoen eta garazien aldetik. Erregerenetik, hunekin gau eta egun zuen betiereko buruz-buru horrek hunen ezagutzeko aldia emaiten zaukon, eta, hala erraiteko, gogoz ezagutzekoa. Bazakusatzan beraz gimperretik antolemenduetan sartzeko aldiak, zituzten ondorio onak, ihardokitzeak, nola gurtu gero berriz abiatzekotan, nola bermuki atxik eta indarrekin nola irabaz. Itzul-inguru horiek oro baitezpadakoak zitzazkon, zenbat estimutan baldin bazen ere; eta erraitera mentura badadi, laguntza azkarrena erregeren jitea zuen, eta batzuetan hel egiten zaukon. Orduan gauazko ezek ekaitzak sortzen

zituzten. Erregek oihu egiten zuen, mehatxatzen, noiztenka aitzina joaiten; (erreginak) bazatxikan berme, nigar egiten zuen eta batzuetan bere burua zaintzen. Goizean guzia ortzietan zen; barneko (sehieria) ttipienak eta minenak bazegien batari eta bertzeari usu zerk sustatua zuen ere zilatu gabe. Bakea ondoko gauan hartzen zen, eta bekan zen etzela erreginaren abantailetan erregeren ganik nahi ukana zuena baitzeraman.

Mota hortako aharra bat gertatu zen Madrilen nintzalarik, eta ontsa urrun eremana izan zena ere. Bourck zaldunaren eta Sartine-ren ganik jakin nuen berek "asafeta"-ren ganik ikasirik, eta ahatzia eztutan xehetasunarekin, baina erranen eztutana. Hortan sarr-arazi nahi ukan ninduten, eta asafetak hortara hertsa nezaten galdegina zauela. Irriz hasi nintzan eta erran segur izan ziten aholku horri jarraikitzetik ontsa begiratuko nintzala, eta ere erran berria zautatena den gutienik banakiela nehori erakustetik.

Horrela erreginaren bizia asma daitekeen guzia baino hertsatuagoa eta khexuagoa zen; eta zenbat handia bazen ere zuen botherea, hanbat antze, malgutasun, itzul-inguru eta pairameneri zor zauen, nun ezpaita gehiegi erraitea, zenbat hedatua bazen ere, ainitzez kharioegi ordaintzen zuela. Baina hain zen bere nahietan bizia, hain ernea, hain deliberatua, hain oldekoa, eta bere abantailak hain kharioak zizazkon eta hain handiak iduritzen, nun jeus ezpaitzizakon xede zuenera heltzeko gostatzen. Lehenbiziko helburua ahal zuen bide oroz beharretik eta Espainiako erregina alhargun baten bizi molde trixtetik gerizapean jartzea ukan zuen, eta berea etzuen erregeren seme et ondokoaren ganik gerta zizakokeenetik.

Bertze xede batzuek etzuten horri lotzen luzatu, eta horren gutiago nekea bilakatzen. Printze batzu ukan zituen, eta ordutik gogamen guziak erregeren bizian bere gain ziren monarka batzuen egitera itzuli zituen, haien herrietara, errege hil eta, bazter ahal zadin eta han mana. Gau eta egun gogatzen zuen helburu hortara heltzeko, behar ziren egitekoak horren errexteko moldera itzuli, berari atxikiak zizazkon jendeak egin, eta haier larderiaz lagun zezaketeen karguak ukan-arazi. Hortara zen ere oso-osoa eman (…)

2. Espainiako erregeak ihiztari

Ihizia erregeren egun orotako atsegina zen, eta erreginarena ere hala behar zuen izan. Baina ihizi hori beti berdina zen. Haien Maiestate Katolikoek egin zautaten aldi batez han izan nadin manatzeko ohorea,

biziki berezia, eta ene karrosan joan nintzan. Horrela ontsa ikusia dut, eta bat ikusia duenak guziak ikusiak ditu. Ihizi beltz eta gorrailak eztira ibarretan aurkitzen. Mendien aldean bilatu behar dira beraz, eta herri horiek latzegiak dira, hemen bezala oreinen, basurden eta bertze ihizien lasterkatzeko. Ibarrak berak hain dira agorrak, gogorrak, zilo barnatuez beteak, hegia gainera helduz baizik ikusten etzeenez, nun ihiztor lasterkari edo erbikari hoberenak erbien ondotik berehala ezinduak bailitzateke, zangoak zaurituak, eta luzazko embalduituak ere. Bertzela guzia belar handi azkarrez hanbat betea da nun zakur lasterkariek ezpailezakete bere usnatik laguntza handirik ukan. Airekoer tiratzea, bazuen aspaldi erregek ihizi mota hori utzia zuela, eta zaldiz etzela igaiten; horrela ihiziak oihan-joitetan gelditzen ziren.

Arco-ko dukeak, ezkutari handiko karguaz ihizi-aldi guzietako buruzagigoa baitzuen, hautatzen zuen errege 'ta erreginak joan behar zuten lekua. Bi orstailpe handi egiten ziren, bat bertzeari bizkarrez, abantzu hetsiak, besoen heinera halako leiho handi eta zabal andana batzuekin. Errege, erregina, zaintzalen kapitain aldikoa eta ezkutari handia, laur ezkopeta betetzalekin, bakarrik ziren lehenbizikoan, hogei bat ezkopeta eta haien kargatzeko behar zenarekin. Bertze orstailpean, ihizin izan nintzan egunean, ginen Asturiako printzea bere karrosa berexean Popoliko dukearekin eta Surco-ko markesarekin ethorria, orstailpe hortan ere Santa-Cruz-ko markesa, Giovenazzo-ko dukea, erreginaren maiordomo-nagusi zena, Valouse, gorputzeko zaintzaletako bizpahirur aitzindari eta ni, ezkopeta ainitzekin eta hauen kargatzeko gizon zenbaitekin. Palazioko andere eguneko bakar bat jarraikitzen zizakon aldizka erreginari bertze karrosa batean, bakar-bakarrik, handik ezpaitzen jalgitzen, eta konsolatzeko liburu edo orratz-lan zerbait ekhartzen zuen, jarraitzaletarik nehor ezpaitzizakon hurbiltzen. Haien Maiestatek eta jarraitzale horiek bidea lasterrez egiten zuten, zaintzale eta zaldi lasterkarien alda-leku batzuekin, hirurzpalaur lekoa bederen egin behar baitziren, Paristik Versailles-erakoen bikuna bederen balio dutenak. Orstailetan oina lurreratzen zen, eta karrosak berehala eremaiten ziren, palazioko andere gaizoa eta zaldi guziak, ezin ikusiak izaiteko lekura, biziki urrun, karroseria horiek ihiziak ohil etzizaten.

Bi, hirur, laurehun baserritarrek hortara manaturik gauko hesi batzu eginak zituzten, eta goiz-goizetik oihukatzeak, urrundik ihizien izitzeko, jeik-arazteko, ahal zen bezenbat biltzeko, eta emeki orstailpen aldera bulzatzeko. Orstailpe horietan, etzen den gutienik higitu ez

mintzatu behar, ez eta jantzi ikus-errexik ukan, eta bakoitza zutik zagon, ixilik. Igurikatzeak oren bat eta erdi iraun zuen bederen, eta etzizatan biziki jostagarri iduritu. Azkenean oihu batzu entzun ginituen urrundik, eta berehala gero ihizi-alde batzu ikusi berriz eta berriz iragaiten gure ezkopeten menean edo erdi menean, eta ordu berean errege 'ta erregina tiro ederretan. Atsegin edo sarraski mota horrek oren bat eta erdi baino gehiago iraun zuen, iragaiten ikusten ginituela, hiltzen, makeltzen, orein ar eta eme, basahuntz, basurde, erbi, otso, azkon, azeri, pitox elemeniak. Errege 'ta erregina tiro egitera utzi behar ziren, aski usu ezkutari handiari eta zaintzalen kapitainari tiratzeko baimena emaiten zeetela, eta guk ezpaiginakien tiroa zein eskutarik zoan, erregeren orstailpekoa ixildua izan zadin igurikatu behar zen, gero printzea tiratzera utzi, usu ezpaitzuen zertara egin, eta guk are gutiago. Azeri bat hil nuen alta, egia erran egoki zen baino apur bat lehenago, beraz apur bat ahalgeturik, desenkusak egin nauzkon Asturiako printzeari, irriz hasi baitzen eta kompainia ere, gero ni haier jarraikiz, eta hori guzia ainitz ikustaterekin. Baserritarrak aitzinatzen ari diren arau eta elgarretara hurbiltzen, ihizia ere aitzinatzen da, eta, beti oihuka, orstailpen ondo-ondora ethortzen direnean bururatzen da. Orduan karroseriak berriz jiten dira, eta bi orstailpekoetakoak jalgitzen dira eta elgarretaratzen, hil diren ihiziak erregeren aitzinera ekhartzen dira. Gero karrosen gibelean ezartzen dira. Hortan guzian, solastatzen da, ihizi-aldiaz. Hamabi bat ihizi edo gehiago ereman ziren egun hartan, erbi, azeri eta pitox zenbait. Gaua erori zizaukun orstailpetarik abiatu eta guti ondotik. Horra Haien Maiestate Katolikoen atsegina astelegun guzietan. Erabiltzen diren baserritarrak ordainduak dira, eta oraino erregek aski usu zerbait eman-arazten daue, karrosara igaitean.

3. Atoxako debozionetik Buen Retiro-ko ibilgunera

Atoxako Andredona Maria edo Atoxa, laburtzeko ohikiago dioten bezala, Ama Birjinaren irudi mirakuluzko bat da, bertzela aski artekoa den eliza bateko kapera aberatsean, Madrildik kampoko komentu zabal eta miragarri batekoa, baina azken etxetarik ezkopeta ukaldi baten menean baino gutiagotan, eta Buen-Retiroko palazioaren parke buruari datxikola, badaukana ere hieronimiten komentu eder eta handi bat, eliza palazio horren elizetako erabiltzen zaukona, handik hara joaiten baita, atherbean, alde orotarik, komentura bezala. Atoxa hanbat da Madrilgo debozione handia, eta Gaztela guzikoa, nun iduri horren aitzinean baitira eskaintzen botuak, othoitzak, esker publikoak erresumako behar eta

zorionendako, eta erregeren eritasun lanjeros eta sendatzetan. Erregek eztu nehoiz egiazko bidaiarik hasten, eta hori orhoitaz aitzinagotik, zeremonian iduri horren aitzinera othoitz egitera joan gabe, horri Atoxako Andredona Mariari abiatzeko agurraren egiteaz bertzerik ezpaiteritzote, eta badoa berdin itzultzean. Iduri horren aberastasunak, urrez, harrieriaz, dentelaz, oihal ederrez, mirazkoak dira. Beti andere handi eta aberatsenetarik batek du haren aphainduren anderearen izena, eta azkarki gutiziatua den ohorea da, nahiz biziki gostakorra, ezen berrogei mila libera eta zenbait aldiz berrogei-ta-hamar behar baititu urte oroz dentelaz eta oihalez hornitzeko, laster komentuaren abantailera erortzen direnak. Eniz debozione horietaz gogoetan gelldituko. Albako dukesa, Parisen embaxadoresa ikusi dena zen orduan kargu hortan. Ondoko nor ukan zuen eztakit. Ni Madrileratu eta egun gutitan hil zen.

(…)

Hirurzpalaur dominikanoek, komentuko gotorrenetarik, ongi ethorria egiten zeeten Haien Maiestateri eta joaiten ikusten zituzten, hetan gelldituz beti zerbait erraiten baitzeeten, eta barne horietan aurkitzen zituztener, galerian sartu aitzin eta atheratzean.

Behin ere enuen ikusi fraide hain gizenik, hain handirik, hain oiesik, hain mokhorrik. Urgulua zarioten begietarik eta ibilara guzitik. Haien Maiestaten han izaiteak etzuen batere ahultzen, ez haier mintzatzean ere; hori diot itxuraz, eginaraz, doinuaz, ezen etziren españolez baizik mintzo eta enuen entzuten. Ustegabetu ninduena, ezin sinesterakoan ikusi nuen lehen aldian, jauntto fraide horiek ukondoak anderen sudurrera emaiteko zuten ozarreria eta ausartzia izan zen, eta gambarazain lehenarenera bertzenera bezala, hauk, jestu hortan, gur handi bat egiten baitzeeten, mahungak umilki apatzen, gero bere gurrak berrhetzen, hetarik bat den gutienik tantitu gabe, bekan gero hitz zenbait erraiten baitzeeten itxura ozar batekin, eta den jendetasun arinenik erakutsi gabe, hortan, gertatzen zelarik, andere horiek ihardesten baitzuten, doinuan eta egonara guzian, munduan datekeen errespetu handienarekin. Batzuetan jaun zenbait ikusi dauet mahungaren apatzen, baina ebaska bezala, itxura ahalgetu eta lehiatu batekin, baina fraidek haier mahunga nehoiz aitzinera eman gabe. Nahiz zeremonia bitxi hori errepikatzen zen errege Atoxara zoan aldi oroz, beti ustegabetu ninduen, eta enindakon jarri ahal izan.

Galeriak bazeman ere Andredona Maria-ko kaperaren eta aldare nagusiaren aldera; sakramendu saindua baten eta bertzearen

tabernaklean zen, eta orduan agerian baldin bazen, beti gertatzen etzena, Andredona-ko aldarean zen, biziki handizki eta argiz mugagabearekin. Azkarki gora zen; eta benedizionearen emaiteko, jausten zen eta gero igaiten aldare gibelean gordea zen mekanika batekin. Hori apur bat operako mekanikeria biziki ez egoki bat iduritu zizatan. Sakramendu saindua agerian etzelarik, benedizionerik etzen. Fraidek ezin ikus zaitekeen bere khoroan kantatzen zituzten Ama Birjinaren letariak eta bertze othoitz batzu doinu baratz, trixte eta biziki ilun batekin, eta horrek oren erdi edo hirur laurden bat bazirauen. Benedizione hori biziki errexa zen Haien Maiestaten ikusteko eta haier gorte egiteko.

Atoxatik usu gertatzen zen errege Retiro-ko parkera sartzen zela, eta benedizionean gertatuak ziren hek berak jarraikitzen zizazkon. Oina Ibilgunean lurreratzen zen, ederra dena, zabala, ezin gehiago luzea. Han errege jokatzen zen ezkutari handiarekin eta lehenarekin, Santa-Cruz-ko markesarekin edo bertze jaun zenbaitekin, et beti hirur joan-jin itzuli osotan, erregina beti sahetsean, eta behar zenean alderdiz aldatzen zen beti haren ezkerrean izaiteko. Ibilgune hori ezin gehiago gozagarria zen erreginak ekhartzen zituen garazien gatik. Jaunik baizik etzen Ibilgunean, eta erreginari jarrikitzen zizeen palazioko anderea. Errege 'ta erreginari jarraikitzen zizeen, hunek solasaldia bazadukala batzuekin eta bertzekin, etxekotasun maitagarri batekin, eta noiztenka errege jostatzen zuen erraiten zituen irri-solasez, Valouse ohiki eragozpenean ezartzen zutela eta alaitasuna handitzen. Azkarki jaukitzen zuen ere Arco-ko dukea, Santa-Cruz-ekin aharran ezartzen jostatzen zen, eta hala egiten nun usu atheraldi onak erraiten baitziren. Ezkutari handia etzen batzuetan erregina mokokatu gabe egoiten, libroki, eta batzuetan gozagarriki. Jokari zenbaitek itzulika bat edo ukaldi gaixto bat baldin bazagien, irri egiten zen eta bizkarrera erortzen zizakon, hala nola nun Ibilguneko aldi horrek beti laburregi baitzidurien. Errege, beti larri, erdi-irriz ari zen, batzuetan hitz labur eta bekan bat erranez. Biziki ontsa eta garazia onez jokatzen zen, eta erreginak azkarki miresten zuen. Azken itzulia egin eta, karrosak Ibilgunearen burura jiten ziren, eta itzultzen zen. Otsail erditik jorrailaren erdira ihiziak bakean uzten ziren eta ume egiten; ihizira joaiterik etzen, eta Ibilguneak, ibilaldi zenbaitez luzaturik, parkean berean batzuetan, huts hori betetzen zuen, abantzu egun oroz.

*

1722

Asturiako printzearen ezkontza

1. Zeremonia Lerma-ko kaperan

Erregeren belhaurikatzekoa aldarearen aitzinean zen, mailetarik aski hurbil, Versailles-en Erregeren belhaurikatzekoa bezala, baina aldareari hurbilago, eta bi laurkiekin bat bertzearen ondoan. Kapera gortelariz hutsa zen. Erregeren laurkiaren ondoan eman nintzan, tapizatik harat eskuneko buru-buruan, eta uste baino hobeki jostatu. Borja kardinala, apezpiku jantzietan, epixtolako izkinan zen, begitartea ene aldera itzulirik, bere leitzonearen ikasten ari bi elemosinariekin elizathorretan, liburu handi bat idekirik aitzinean bazatxikakotela. Prelat onak etzakien hartan irakurtzen; entseatzen zen, gora-gora irakurtzen zuen eta makur. Elemosinariek zuzentzen zuten, gaitzitzen zen eta erasian ari zizeen, berriz hasten, berriz zuzendua izaiten, eta gero eta gehiago haserretzen, haien aldera itzultzerano elizathorratik inharrosiz. Ahal nuen bezenbat irriz ari nintzan, ezpaitzen jeusetaz ohartzen, hanbat zen bere leitzonean hartua eta nahasia. Espainian ezkontzak bazkal-ondoan egiten dira, eta elizako athean hasten bataioak bezala. Errege, erregina, printzea eta printzesa hara ethorri ziren gorte guziarekin, eta errege gora iragarria izan zen. "Igurika bezate, egin zuen kardinalak haserre, eniz prest." Gelditu ziren, alabainan, eta kardinalak bere leitzonean jarraiki zuen, bere xanoa baino gorriago eta beti erotua. Azkenean athera joan zen eta han aski luzaz egon. Ikusi-nahiak hara eremanen ninduen, ene lekuaren atxikitzeko arrazoina izan ezpalitz (*). Jostagailutik galdu nuen, ezen ikusi nituen errege 'ta erregina bere belhaurikatzekoan elgarri solasean eta irriz, eta gortea guzia irriz ere. Nonzak enegana ethortzean ustegabetua zela erakutsi zautan jestuez, eta errepikatuz: "*Signor, signor!*" eta nik, ezer enaukola entzunen deliberatua bainuen, irriz kardinala erakusten naukon, eta erasiatzen nuen hari erakaspena ez hobeki eginik bilzarre sakratuaren ohoretan. Nonzak frantzesa ontsa entzuten zuen eta biziki gaizki murdukatzen. Irri-solas horrek eta hartua nuen itxura xintxoak, nonzaren jestuer ohartu gabe bezala, hain zorionki egin zuten nun gehiago bertzerik ezpaitzen aipatu, are gehiago nun kardinalak hortara eman baitzuen zeremoniari jarraikiz gero eta gehiago, zertan zen ezpaitzakien, ez eta zer bazegien, ordu oroz bere elemosinariez zuzendua eta erakutsia, eta hura haier erasiaz hantua,

hala nola nun errege 'ta erregina ezin baitzauden, eta lekukoa izan zen ehor ere ez. Enakusan belhauriko ziren printzearen eta printzesaren bizkarra baizik, bakoitza laurki baten gainean, belhaurikatzekoaren eta aldarearen artean, eta bekoz kardinala azken eragozpeneko sinoetan. Zorionez enuen hor ikustekorik ukan nonzarekin baizik, erregeren maiordomo nagusia bere semearen ondoan jarria izanik, hau zaintzalen kapitain aldikoa, belhaurikatzekoaren tapizako buztan ondoan. Handiak inguruan metan ziren, eta jende gotorrez zen guzia; gaineratekoak kapera osoa betetzen zuen ezin higitzeko heinerano.

(*) Frantziako embaxadore berezi bezala, dukeak Erromako nonzari lehentasuna hartua zaukon gorteko urratsetan, eta hemen, aitzinetik kaperan sarturik, zeremoniako jar-lekuan. (*Itzultzalearen oharra*)

2. Dukea eta semeak ohoretan

Kardinal gaizo horrek ikusten zuen guziari bazemon libertimenduaren artetik, ohartu nintzan errege'ta erreginaren baitan atsegin ezin handiago bati ezkontza hori egiten ikusiz. Zeremonia bururatu eta, luzea izan etzena, eta nehor ezpaitzen belhaurikatu, ez eta errege 'ta erregina ere, baina ba behar zen orduan bi ezkontideak, Haien Maiestate Katolikoak xutitu ziren eta oineko oihalaren behere ezkerreko izkinara baztertu, eta elgarri ahapetik mintzatu *credo* on baten iraupenean behar bada, gero erregina zen lekuan gelditu baitzen eta errege jin zizatan zeremonian beti egona nintzan lekura. Enegana ethorririk erregek egin zautan hitz hauen erraiteko ohorea: "Jauna, zutaz hanbat askietsia niz molde oroz, eta bereziki zure embaxadaren ene ondoan egiteko ukana duzunaz, nun nahi baitauzkitzut ene bozkarioa, estimua eta adixkidantza erakutsi. Espainiako lehen lerroko handi egiten zitut, zu eta aldi berean Espainiako handi izaiteko zure bi semetan hautatu nahiko duzuna eta zurekin batean hortaz gozatzeko; eta zure bigarren semea Urre-Iletzeko zaldun egiten dut." Berehala belhaunak besarkatu nauzkon, eta ene esker onaren erakustera entseatu nintzan eta ene gainera bazematzan garazien gai bilakatzeko nuen gutizia ezin handiagoaren, ene atxikimenduaz, ene zerbitzu umilenez eta errespetu barnatuenaz. Gero eskua apatu naukon, eta itzuli nintzan ene haurrer hel egin-arazteko, ephe zenbait eman baitzituzten abisatuak izaiten eta nitarano jiten, eskerren berrhetzen baliatu nituenak. Hurbildu zireneko, gaztena deitu nuen, eta garaziez betetzen gininduen eta enekin batean Espainiako handi egiten zuen erregeren belhaunak besarka zitzan erran. Zutitzean erregeren eskua apatu zuen, hunek erran baitzaukon egina

zuenaz biziki gozatua zela. Gero zaharrena aitzineratu naukon Iletzeaz esker zezan, biziki behera gurtu baitzen bakarrik eskua apatuz. Hori egina izan orduko, errege joan zen erreginaren gana, hara jarraiki bainindakon ene haurrekin. Biziki behera gurtu nintzan erreginaren aitzinean; ene esker on berezia egin naukon, gero ene haurrak aitzineratu, bigarrena lehenik, gero zaharrena. Erreginak onezia ainitzekin hartu ginituen mila ikustatezko gauza erranez, gero erregerekin abiatu zen, gibeletik printzearekin eskua printzesari emaiten zaukola, agurtu baiginituen zoazilarik, eta bere egoitzara itzuli ziren. Jarraiki nahi nindeen, baina jendetzeaz eremana bezala izan nintzan ene ingurura komplimenduetan lehiatu baitzen. (…) Grimaldo jendetze hortan ikusia ukaitea etzizatan aski izan. Apur bat utzia izan nintzaneko, haren egoitzara igan nintzan eta zor nauzkon eskerrak eman nauzkon bihotzeko ixuri handi batekin. Alabainan, bozkario gorenean nintzan Espainiako embaxada gutizia-arazia zautan helburu bakarrera heldua nintzala ikusiz, eta abantzu guzia hari naukon zor.

(…)

3. Dukeak ezkondu berrien etzate ageria ukaiten du

Españolen lañoak eta larriak ezteete ezkontiden etzatearen ikustea haizu uzten: eztei auharia bururatu eta, solasaldi apur bat egiten da, aski laburra, eta bakoitza badoa etxera, jendakia hurbilenak ere, adin orotako gizon eta emazte, gero ezkonduak buluzten dira bakoitza berex, eta lekukorik gabe etzaten ezpada zerbitzuko behar den jende gutia, aspaldidanik ezkonduak balire bezala. Enintzan ohidura hori jakin gabe eta gauza hortaz enuen manurik batere ukanik. Hala ere, gure ezkontzez jakinduru izanez, enezakeen biziki azkarra bezala ikus betetze bederen alegiakoa jarraikitzen etzizakon ezkontza bat.

Hitzhartua zen, Asturiako printzearen adinaren eta beraztasunaren gatik, etzela Asturiako printzesarekin biziko Haien Maiestate Katolikoer ordu zela iduriko zizeelarik baizik, eta urte batez bederen, den gutienez, etzela eginen uste zen. Hortaz nuen bihotz-mina erran naukon Grimaldo-ri Lerman; jeus enuen irabazi; Española zen, etzuen ene segurtatzeaz bertzerik egin ezer alda etzaitekeela uste zuen gauza batean (…) Beraz Lerman (Espainiako erregen ganik) ukan nuen entzunaldian ezkontzaren aipatzen hasi nintzan, bataz eta bertzeaz, ezkontzaren betetzeaz, printzearen adinak eta beraztasunak galdatzen zuten ephea azkarki baietsiz. Hortik jin nintzan Orléans-ko duke Jaunak elizaz egina zela jakinez ukanen zuen bozkariora; eta lausengatzen hasi

nindauen ezkontza handi hortarik ukanen zuen ohore ezin handiagoaz, hortako zuen sendikortasunaz, eta gehiago, oraino ahal baldin bazen, Haien Maiestate Katolikoen garazia onen itzultzetik zuen ohorearen lekukotasun hain balios eta segurraz, bainakien beti hanbat garsuki nahi ukana zuela. Hor gelditze bat egin nuen, hitzaldi horren ondorioaren ikusteko, eta iduritu baitzizatan egin-arazia zautan xedeari ihardesten zuela, ausartu nintzan gaineratzera ohore hori handia bazen eta Orléans-ko duke Jaunarendako kharioa, are gehiago zela Europa guziaz eta Erreientari gaizki nahi zaukoten Frantzesez bekaiztua, eta are gehiago ezkontzaren azkartasuna balioduna; enintzala Espainiako ohidura zuhur eta lañoak jakin gabe, baina uste nuela hala ere hauts zaitezkeela gertaldi hoin berezian azkartasun horren azken maila zen bezalako gauza handi baten aldera (…)

Errege 'ta erreginak guziaren erraitera utzi ninduten moztu gabe. Ondorio onera zoala senditu nuen. Elgarri so egin zuten, eta erregek erran zaukon erreginari: "Zer diozu? - Baina zuhaurek, jauna," zuen ihardetsi. Hortan, hitza berriz hartu nuen, eta erran nauen enituela enganatu nahi; aithortzen nauela hortaz enuela manurik batere, ez ahoz ni abiatu aitzin, ez izkirioz ukanak nituen manuetan, ez eta Paristik abiatuz geroz edozein mezutan; hortaz haier erraiteko hartzen nuen libertatea, neure baitarik eta ene gogamenetarik bazetorrela bakar-bakarrik eta hortan uste nuela enintzala gutiago bi koronen zerbitzari zintzo baten atxikimenduarekin mintzo, Frantzez zintzo bezala, Español on bezala, Orléans-ko duke Jaunaren zerbitzari bezala baino, bi monarkietan eta Europa osoan ukanen zuen ondoriaren gatik (…)

Arrazoin horiek garhaitu zituzten Haien Maiestate Katolikoak; berriz elgarri so egin zuten, hitz zenbait erran ahapetik, eta erregek erran zautan: "Baina eskaintzen duzuna onhartzen baginu, nola egin nahi zinuke?" Ihardetsi nuen egin errexagorik jeus etzela; Haren Maiestateak moldea ikusia zuela Burgoñako duke Enejaunaren ezkontzan; baina debalde zela hartua izanen zen deliberoaren jakitera uztea egiteko ordua baino lehen, berritasun guzien etsai ziren jenden erranen baztertzeko, ezpaitzituzten berehala hoin arrazoin azkarrak eta larriak ikusiko; Haien Maiestatek nahi baldin bazuten hoin baitezpadakoa bazidurien alderdia hartu, aski izanen zela deliberoaren eztiki hedatzea etzateko aitzinean egin behar zen dantzaldi handian (…); egiteko, Haien Maiestateak bakarrik, behar zen jende xoilarekin, izanen zirela buluztean, ikusiko zituztela ohean emaiten, ohe-buruko bi aldetan ezarr-araziko zituztela

Popoli-ko dukea printzearen ondoan, Monteillano-ko dukesa printzesarenean, erridau guziak ohearen hirur aldetara osoki idekiak; athearen bi alderdiak idek-araziko, eta gorte guzia sarr-araziko, gambara eduk zezakeen guziaz bete-araziko; oren laurden batez igurika bakoitzaren ikuspenaren osoki asetzeko; gero erridauak hets-araz jendearen aitzinean et hau igorr-araz, anartean Popoli-ko dukeak eta Monteillano-ko dukesak hartuko baitzuten erridauen azpira lerratzeko artha, eta begietarik ephe batez ere printzearen eta printzesaren ez galtzekoa, eta jendea azkenerano aitzin-gambaretarik jalgi eta, printzea jeik-araz eta bere bizitegira ereman.

Errege 'ta erreginak egitarau hori guzia onhartu zuten, eta solasaldi hortaz arrazoinkatze apur baten ondotik, horrela egin-araziko zutela hitzeman zautaten, eta ene esker on lañoen guziak egin nezteen.

(…)

Españolen gaitzespena baztertu nahi nuen, eta uste ukan nuen enezakeela Villena-ko markesa neure alderdira ekharriz baino hobeki egin, azken heinerano Española, eta, bere adinaz, maiordomo nagusiko karguaz, eta gehiago oraino zuen estimuaz eta ororen errespetuaz, (gaitzespen) guzia bere baiesteaz hautsiko zuela, haren ganik bil baldin banezakeen.

Beti bereziki arthatua nuen egin ahal ukaiteko ukana nuen ephe laburrean, eta jarraikian ihardetsia zautan mota orotako artharekin, adixkidantzaz ere, Villahalmanzo-ra jiterano ni Lerma-ra joan ahal baino lehen. Haren etxera joan nintzan beraz Grimaldoren baitarik landa, eta erran naukon segeretuz mintzatzera heldu nindakola, ontsa gaitzitua azken bi egunetako egitekoek aholku galdez haren gana joaitera ez utzirik. Hortik argitu nauzkon etzate publikoaren alde nituen arrazoin guziak, eta Españolak gaitzi zezazkeenaz nuen bihotz-mina (…) Guziaren erraitera utzi ninduen, eta gero ihardetsi zautan arrazoin horiek guziak, alabainan, biziki azkarrak zirela; erresuma guzietako ohidurak etzirela hoin oharpen larrier amor eman behar etzuten lege batzu; hari zoakonaz, etzuela gaizkirik batere ikusten, eta etzuela uste, ere, nehork aurki zezakeela, gauza berri baten egiteko arrazoinak, aldi huntan, ezagunak eta haztatuak izanen zirenean. Ihardespen horrek, hain phizu handiko jaun batek hainbertze garazia onekin eginak, azkarki errexean ezarri ninduen. Erran naukon, eta Haien Maiestatekin hitzhartua zen egiteko moldea jakin-arazi ondoan, othoiztu nuen horren argitzea onhar zezan, apur bat publikoki, dantzalditik landa, enekin egin berria zuen ara

berean, jende gehienaren berdin gogatzera ekhartzeko eta bere aburuaren larderiaz onhartzera eremaiteko.

(…)

4. Auharia, dantzaldia eta etzatea

Hartuak nituen artha horiek ezin gehiago askietsirik, lerroko Frantzes guziekin joan nintzan Arco-ko dukearen etxean auhaltzera, gomitatuak baiginindu en, eta gorteko hautetsienetarik batzu han gertatu baitziren. Auharia ara espainiarrekoa izan zen, baina *olla* hauteko batek ordaindu zituen hetara guti ohituak ginen bertze jateko batzu, Mantxako arno hoberenarekin. Jaunek etxean egiten dituzten arnoa eta olioa, beretako, miragarriak dira, eta ontsa kondenatzen dute lurralde beretarik usaina bera ezin jasan daitekeenak egiten dituen auherkeria publikoa. Ekharri ziren ere xingar ttipi gorri-arin batzu, Espainian berean biziki arraroak, Arco-ko dukearen eta bertze bi jaunen etxean baizik egiten eztirenak, halako parke ttipi batzuetan hetsiak diren urde batzuez, oro suge biperaz ihaurri diren berroz beteak direnetan, urde horiek hetaz alhatzen baitira bakar-bakarrik. Xingar horiek badute usain bat miragarria, eta gostu bat hain bizkorra eta phizkarria nun gauza hoin hautukorik jeus ezin jan baita. Auharia luzea izan zen, nasaia, bozkarioz eta jendetasunez betea, ongi eta handizki zerbitzatua. Mahitik landa guziak erregeren bizitegietara iragan ginen, han guzia jadanik dantzaldiko antolatua baitzen.

Gorteko gehiena ethorria zen, gaineratekoa berehala jarraiki. Haien Maiestateak eta Haien Goratasunak laster agertu ziren, eta jantzaldia erreginak ideki zuen Asturiako printzearekin. Jantzaldi hori erakutsia dutan Madrilgoa bezala moldatua izan zen. Horrela errepikatu gabe utziko dut. Nonzak, Maulévrier-ek eta nik leiho-arte batetik ikusi ginuen, gure alketxen gainetik. Baina enuen atseden handirik ukan neurearen gainean, hanbat menuet eta kontrajantza zizatan jantza-arazi. Banuen soineko bat ezin gehiago phizua, egun hortako eta bezperako harat-hunat jarraikiek ezin gehiago akitua ninduten; baina ezkontzako besta zen, gutiziatu ahal ukana nuena baino gehiago ukan berria nuen; hortik, ene besta berezia zen ere, zerbaiti ez erranez esker gaitz ukanen nuen. Jantzaldi hori biziki alaia izan zen, maiestateari eta handitasunari ezeretan huts egin gabe. Gauerdi ondoko bi orenetarano hurbil iraun zuen. Nonza bakarrik jarria, Maulévrierekin eta enekin, ezen etzen bertze embaxadoretarik bat Lerma-ra agertu; Abrantes-ko dukea, Cuenca-ko apezpikua zutik, auzoko bertze apezpiku bat bezala; bi

apezpiku *in partibus* Toledokoaren menekoak, eta inkizidore handia, ezkontzan izanak zirenak, jantzaldian hastetik bururano egon ziren soineko motx eta bizkarrekoan, burukoa eskuetan. Burgos-ko apezpiku diozesanoa, herritik urrundua arkidukearendako eta Austriako etxearendako azkarki erakutsia zuen atxikimenduaren gatik, etzen agertu ahal izan, ez eta Borja-ko kardinala han izan ahal bere handi-nahikarien gatik. Jantzaldian jakin zen etzate publikoa izanen zela. Ustagabetzeaz bertzerik etzela iduritu zizatan, baina khexurik ez batere. Jantzaldiaren ondotik nehor etzen joan: etzate horren ikusteko igurikatu zen.

Jantzalditik atheratzean, jende guzia errege 'ta erreginari jarraiki zizeen printzesaren bizitegira, eta aitzin-gambaretan igurikatu zuen. Gambaran etzen behar zen zerbitzua baizik sartu. Deitua izan nintzan. Ikusaldia labur izan zen; Haien Maiestateak eta printzea ezin gehiago alai. Guzia deliberatua zela argitu dutan bezala iragan zen, eta Villahalmanzora itzuli nintzan eta ezin gehiago beharretan nintzan ohera.

Madrilen azken entzunaldiak eta Parisera itzultzeko bidaia

1. Abiatzeko entzunaldietan, Asturiako printzesa berriaren opetsak, eta Espainiaren uzteko bihotz-mina

Ephailaren 21-an hartu nuen abiatzeko entzunaldia, zeremonian, errege 'ta erreginaren ganik berex. Berriz ere ustegabetua izan nintzan erregeren erranaldien handitasunaz, zuzentasunaz eta arautzeaz, lehen entzunaldian izana nintzan bezala, andere infantaren galdatzea egin naukolarik, eta Orléans-ko duke Jaunaren eskerrak erran hunen alaba anderearen ezkontzaz. Ukan nituen ere Haren Maiestate Katolikoaren eta oroz gainetik erreginaren ganik, oneziazko ezaugarri berezi ainitz eta ene abiatzeaz dolu ainitz; ainitz ere Asturiako printzearen ganik. Baina horra, mota ontsa ezberdin batean, ikusi berria den Toledoko kardinal-kalonjen eta bertze kalonjen berdintasun osoa eliza hortan bezain ustegabetzekoa den zerbait, eta izkiriatu gabe ezin utz dezatana, zenbat irrigarria bada ere. Enekin zen guziarekin heldurik Asturiako printzesaren entzunaldira, pabellun baten azpian baitzen, zutik, andereak alde batean, handiak bertzean, hirur gurrak egin nituen eta ondotik komplimendua. Gero ixildu nintzan, baina debaldetan, hitz bat ezpaitzautan ihardetsi. Ixil ordu zenbaiten ondotik, ihardestekoa eskaini

nahi ukan naukon, eta Erregerendako, andere infantaren et Madamerendako, Orléans-ko duke Jaunaren eta Anderearendako zituen manuak galdegin. So egin zautan eta gambararen inharrosteko opets bat igorri. Ene ustegabea halakoa izan zen nun balditua gelditu bainintzan. Bigarren bat joan zen lehenbizikoa bezain ozena. Hortan itxura guzia galdu nuen eta irririk ez egiteko ahala; eta begiak emanez eskun eta ezker, guziak ikusi nituen, eskuak aho aitzinean, eta soingainak jauzika. Azkenean hirurgarren batek, bi lehenak baino ere azkarragoa, han ziren guziak nahastera eman zituen eta ni enekin zen guziarekin ihes egitera, irri karkaila hanbat handiago batzuekin nun bakoitza ezartzera entseatua zen hesiak hautsi baitzituzten. Larritasun espainiar guzia kordokatua izan zen, guzia nahasia; ikustaterik batere ez, bakoitzak irriz urratua ahal bezala ihes egin zuen, hortako printzesak bere seriosa galdu gabe, ezpaitzautan argitzerik bertze moldez eman. Jendea ondoko barnean gelditu zen bere gostura irri egiteko, eta gero ustegabetzearen errexkiago erakusteko.

Errege' ta erreginak etzuten luzatu entzunaldi horren bururapenaren jakinduru izaiten, eta bazkal-ondoan aipatu zautaten Ibilgunean. Lehenbizikoak izan ziren irri egiten, bertzer libertatearen uzteko, othoiztera utzi gabe handizki hartu baitzuten. Ukan nituen eta eman entzunaldi andanak eta andanak; eta nor bera errex lausengatzen baita, uste ukan nuen dolutua izaiteaz lausenga nindaitekeela. 23-an abiatzeko xedea nuen, baina Urre-Iletzeko baimen bulak Maulévrier-ri zenbat egun hetan ethorririk, eta haren sartzea egun hortako bereko jarririk, uste ukan nuen behar neela haren othoitzer amor eman eta egun berean nindoala ez erakusterat utzi, iragan zen guziaren ondotik. Ikusle bezala haren sartzean egon nintzan beraz, ene seme zaharrenarenean egina nuen bezala (…)

Azken egun horietako gehienak emanak nituen sei ilabete hurbiletakoa bezain egonaldi labur batek adixkide berezi bezala harr-arazi ahalak zauztanen ikusten, oroz gainetik Grimaldoren. Zenbat bozkario bizi eta lehia sendi banuen ere San-Simungo Anderearen eta adixkiden berriz ikusteaz, Espainia enuen utzi ahal ukan bihotz hersturarik gabe, enekin akomeatzen zirelako hanbat lekukotasun nihaurek ukanak nituen jende batzuez dolutu gabe, nazionearen gehienean ikusia nuen guziak sorr-arazia baitzautan estimua eta errespeturano, eta hanbat jaun eta andere bereziendako esker on hain zuzen bat. Ezkutzitzezko harreman bat luzaz atxiki dut batzuekin, baina

Grimaldorekin bizi izan deno, eta haren desgarazia eta erortearen ondotik, luzaz berantago baizik gertatu etzena, aitzinean baino artha eta oharkuntza gehiagorekin. Espainiako errege 'ta erreginaren alderako atxikimendu errespetuz eta esker onez beteak ereman-arazi ninduen neure buruari haier aldi oroz izkiriatzeko ohorearen emaitera, oroz gainetik ene bihotz-min ezin handiagoaren haien oinetan ixurtzera andere infantaren itzul-araztean (*). Hortan aholku galdegin naukon (Fleury) Fréjus-ko apezpikuari, orduan jadanik Duke Jauna baino nagusiago zena, izkiria nezakeela jakin-arazi baitzautan, deliberatu nintzalarik, eza eman balu, Laullez-ri erraitera eta Haien Maiestate Katolikoer jakin-araz zezeen othoiztera. Usu egin zautaten mota orotako oneziekin ihardesteko ohorea, eta Frantzian haien ministro guzier manatzekoa, eta haien baimenarekin ibiltzera heldu ziren jende gotor orori, haien izenean onezia berak ahoz berri zitzaztaten.

(*) 1725-ko jorrailaren 5-ean, orduan lehen minixtro zen Duke Jaunak, andere infanta gaztea, 1722-tik Parisen hazten zena, Espainiara itzul-arazi zuen, eta gero Luis XV-garrena printzesa polones Maria Leszczynska-rekin ezkon-arazi. (*Itzultzalearen oharra)*

2. Alcalatik Baionara, Iruñen gaindi

Madrildik abiatu nintzan, azkenean, ephailaren 24-an, bidea Iruñetik hartuz. Ene bazkalaldi lehenetarik bat Alcala-n izan zen. Hiri xipi bat da, biziki ongi eraikia, hamabi edo hamabortz ikastetxek baitagikote ohore guzia, guziak biziki ontsa eginak, eta Ximenes kadinalak oraino handizkiago jarriak, Espainian gehiago Cisneros kardinalaren izen-pean baizik ezaguna eztena, eta gizon handi horrek abantzu merezitua duen bezenbat errespetatua dena. Ikastetxe hortarik zenbaiten ikustera joan nintzan. Handienaren, eta hemen eliza pollit bat balegikeenaren kaperan ehortzia da. Harbizizko hilhobia ederra du, gizonaren heineko burdin-sare batez inguratua, koroan, aldare nagusiaren aitzinean. Artha eta antolamendu eskasez aski andeatua da, eta horrek ene sumindura hanbatetan phiztu zuen nun ezpainituen ikastetxe hortako nagusiak gupidetsi bere axolagabeaz eta eskergabeaz erasietan. Gau batez Guadalajaran etzan nintzan, han baitzen gertatu Orziniko printzesaren hondamena, eta ikusi bainuen Infantado-ko dukearen hilhobitegia, bertze nunbait aipatu dutana.

Bertze bazkalaldi bat izan zen Agredan, neskato komentu bat den herrixka aski gotor bat, Agredako Maria aipatua han bizi eta hil baita, geroztik jende "quietixta" delakoak saindu egin-arazi baitu, neke

guziarekin, *Unigenitus* konztituzionearen laguntzan. Komentu hortara joan nintzan, eta eliza ideki zautaten, ezer ezpaitu osoki xoil eta arruntik baizik. Athe handiaren ondoan, den artekoenetarik dena ere, erakutsi zautaten karrikara idekia den soto leihoxka handia bezalako bat, haren gorputza han zatzala erran baitzautaten. Gehiagokorik enuen nahi, urrats zenbait eginak nituen jadanik ene bazkarira joaiteko, serorek, hor nintzala jakinik, ikustera joan nindakidien othoiztera igorri zutelarik. Galde horri eza enaukon onesgarriki emaiten ahal, ikustatez baino gehiago ikusi-nahizkoa bazen ere. Korrale handi batera eremana izan nintzan, athe handi batera, ezkerrean aski urrun zena, ezpaininduen horrek komentuan ene sarr-arazteko xedea zutela dudatzera utzi. Hurbil-hurbila izan nintzan orduko, athea osoki ideki zen, bi bazterretan serorez hartua gertatu zena, alhazea hunkiz, barneko aldetik. Superiorak komplimendu bat egin zautan frantzes aski onean, eta ene gibelean ezarria zen jargia batean jar nindadin othoiztu. Guziak lastozko kadera xipi batzuetan jarri ziren. Ene bidaiaz erranaldi labur batzuen ondotik, goga daiteke etzela haien sainduaz baizik ari izan, ordukotz dohatsu egina, baina zuela guti. Ekharr-arazi zauztaten debozioneko gauza batzu, Jesus xipi ezkozko bat, liburu zenbait, arrosario zenbait, hautarik batzu eman baitzauztaten. Erran nahi ukan zautaten guzia miretsi nuen, baina solasaldia jendeki hek nahi baino gehiago laburtu nuen, eta ene bazkarira joan nintzan, ene ikusi-nahiaz guti askietsia.

Bidea Iruñetik hartua nuen. Gobernadorea ethorri zen berehala ostatatua nintzan lekura, eta bere etxera ereman-arazi nahi ukan ninduen eta enekin zirenekin auhaltzera eman. Komplimendu luze ainitzen ondotik, nintzan lekuan gelldituko nintzala ukan nuen, haren etxera auhaltzera jaoitekotan. Janariak etzuen aiduru atxik-arazi, handia izan zen, molde espainiarrean, ez ona; arak nobleak, jendetasunezkoak, errexak. Jateko miragarri batez besta egin zaukun. Gredale handi bat zen olioan saltsatu marluza halsarrez betea. Etzuen jeus balio, eta olioa gaixtoa. Jan nuen, ikustatez, ahal bezenbat. Jalgitzean galdegin naukon gazteluaren ikusteko baimena, ezpaita atzerritar bat hara sartzera uzten. Guzia osoki nahitara ikusi nuen, eta ederra aurkitu, ontsa arthatua, soldadoeria bezala, harmetan ongi ethorri egin baitzautan, kanoiaren hotsean, eta oro ordena biziki eder eta onean. Hortik joan ginen gobernadorearen ikustera eta eskertzera, guti berantago etxera jin baitzizatan joaiten gure ikusteko.

Bide gutitan, mando batzu hartu ginituen Bortuen iragaiteko. Bidea hortik Gasteiztik baino laburragoa da eta apur bat gutiago nekea. Baina biziki gaixtoa bilakatua zen, ezen Españolek, azkarki ordokitua zutelarik artilleriaren errexkiago eremaiteko errege frantzes bat ukan zutenaz geroztik, bide guziak arthoski hautsiak baitzituzten Dubois aphezak Orléans-ko duke Jaunaren bitartez egin-arazi zauen gerlan Angeleser ontsa egiteko eta bere xapelaren ukaiteko, han Berwick-ko marexalak manatu baitzuen. Orreagan etzan ginen, leku laztagarria, oro andeatua, atheka hortako bakartiena eta trixtena, eliza ezpaita jeus, ez eta komentu zaharretik gelditzen dena. Abadea ikustera jin zizatan, jantzi luzean, bizkarreko musker handi batekin, ainitz ustegabetu ninduena. Ikustaldia labur izan zen. Erakutsi zauzkuten Errolanen ezpata eta horrelako erlika elaberriko ainitz. Etzangia gozagaitz hortarik goiz-goizik abiatu ginen, eta ortzirale sainduz Baionara heldu, D'Adoncourt Jaunaren baitara, mendietarik jalgiz geroz utzia ezkinituen euri izigarri eta jarraiki batekin. Bazidurien (euria) hetan iragaitera etzela menturatzen. Espainian enuen abantzu batere erortzen ikusi. Han zerua ethengabe zohar miragarrikoa da, eta haizek abantzu batere eztute sendi-arazten.

D'Adoncourt-ek, zer erran nahi baginuen ere, ostatatu ginituen eta munduko janari handiena eta hoberena eman zaukun. Egun sainduetan katedraleko zeremonietan izan nintzan, probinziako gobernariaren lekuan eta harendako ohi den arthamen berarekin, apezpikua meza emaile. Ukan nuen aldi batzuez Espainiako erregina ohiari gortearen egiteko ohorea, haren hiriko etxean auhal nadin manatu baitzautan, Bazko egunean, Bruges-ko jaunak, ene lehenbiziko iragaitean aipatua dutanak, ohoreak han biziki ontsa egiten zituela; eta jakina baitzen arrainez amikatua nintzala, elemenia zerbitzatu zen eta miragarritik, haragiari hautetsi naukona. Apezpikua, aldi berean aipatua dutana ere, eta lekuko jende lehenbiziko batzu han izan ziren. Hortik erreginaren eskertzera eta abiatzeko agurtzera joan nintzan, egin baitzautan diamantik gabeko ezpata urre eder baten emaitza, hoin gauza guti emaitez desenkusa ainitzekin. Apezpikuak auhaltzera hain baitezpadako moldez eman nahi ukan zautan nun amor eman behar izan baitzen. Kompainia ona aurkitu nuen, janari ona eta arrain ainitz, ezpaitzen oraino lekurik ukan gabe egon.

3. Dubois kardinalaren mezu berri batzu

Eskutitz alde bat ethorri zizatan Baionara, bertze biek aitzinduak zutena harturik, ene ez huts egiteko, batek Gasteiztik, bertzeak Iruñetik (…) Baionan hatzeman nindutenez gozagarriki ustegabetua izan nintzan. Igorria nuenaren eta Bannière-ek ekharria zautanaren ihardespena zen. Kardinalak biziki ontsa ikusia zuen lerroko lehentasunaz eta horrek laidatzen zituenen konseilutik atheratzeaz nuen sendimendu biziki zuzena (*). Ohartua zatekeen bada ere haren alegiako zimarkuaz gogatzen nuenari. Ikusia zuen azkenean haren elhe bihurdikatuak, estakuru bitxi eta zapatuek, ez eta hari ez gustatzeko beldurrak enezaketela Espainaian geldi-araz (…) Dena den, haren eskutitza jakin-nahiarekin ideki nuen.

Espainian gehiago egoiteko aipurik enuen aurkitu, ez eta Chavigny-renik, ez eta bertze estakururik, eta hitz bat ere ez (Erreienziako) konseiluaz zintzoki ihardetsia naukola senditzera utz zezakeenik. Laudoriorik baizik enuen ukan Belsaïm-era izana nintzan lehiaz, eta hara joan-arazia ninduena betea nuene araz; ene ethortzeaz adixkidantzazko eta beharrezko ezin egon berdinik gabeak; othoitz bat, debekatzera zoana, ehon enadin geldi, ez eta Blaye-ko itzuli xipi-xipiaren egitean ere, munduko gauza lehiatuenak eta larrienak ene beha zaudelakotz, ni gabe ezin egin zaitezkeenak. Eskutitz hain bitxi horrekin bazen bertze bat Belle-Ile-rena, aztertzen zuena. Gauza berdinak errepikatzen zauztan, Bannière-ren ganik ukanak nituen mezuer egina neen ihardespenaz loriatua zela; Dubois-ren manu bereziz izkiriatzen zautala ahal zen lehia guziarekin ethor nadin hertsiki othoiztuz, eta enindaitekeela azki goiz han izan Erreientak eta kardinalak jakin-arazi behar zauztaten gauzen larritasunaren gatik, hetaz, zenbat lehiatuak baziren ere, ezer ezpaitzaitekeen egin ni gabe. Gaineratzen zuen gozagaitza izan zaitekeen edo eragozpenean ezarri behar ninduen jeus etzizatala eskainia izanen ene segurtatzeko kargua bazuela, jeus oroz gainetik edozein moldez ene duke 'ta paregoko lerroarekin zer ikus zuenik, hortan ene baitarik jeusen beha etzela egon behar segur zirelakotz. Jeus ez lehiatzaleagorik azkenean ez eta lausengariagorik. Bururatzen zuen ephe batez ere enindadin Blaye-en geldi ez eta handik iragan hertsiki othoiztuz.

Estiloz hoin aldatze handia eta ene abiatzeko orduan hainbertze mira, esondatze azkar batzu izanak gatik, eta zerbait gehiago ere, ikusi diren estakuru-pean han (Espainian) geldi nindadin oraino, azkarki gaizkorrak iduritu zitzaztan hoin guti segurra zen alderdi baten ganik,

ageri baitzen kardinak hitzez hitz, hala erraiteko, emana zuela Belle-Ile-ren eskutitza, bederen irakurria eta zuzendua, ekharria zautaten Bannière-rena egina zuen bezala: laster ikusiko da enuela huts egin. Mezutu nauen bakoitzari ihardespen labur batez ethortzeko uste ahal ukana nuen eguna; errota itzul eta itzul Baionarako bidaiaz akitua nintzala; han atseden hartzeko arrazoin horrek eta egun sainduetakoak Bazko astelehen arteo atxikiko nindutela; azkenik ezin naukola Berwick-ko dukeari larre xipietan (**) gaindi haren gana joaiteko eza emana, hara heldu baitzen Montauban-dik espesuki ene ikustera; eta bertzela komplimendu ainitz eta ainitz.

(*) Hemen dukeak hura Espainian zenean Parisen Erreienziako konseiluan Dubois-ek ekharr-araziak zituen aldatzeak, eta, kardinal minixtroak zionaz, gobernuaren kontra sortua zen alderdia aipatzen ditu.

(**) Orai euskaraz, aski gaizki, "Landeseta" deritzon departamendurik ez izanez 1722-an, horrela itzultzen dira orhoitzapenlariaren erdarazko "petites landes" hitzak. (*Itzultzalearen oharrak*)

4. Marmandatik Parisera

Berwick-ko dukeak, Guienan manatzen zuenak, egoiteko Montauban Bordele baino gozagarriago baitzizakon, ikustaldi hori othoitzez galdegina zautan alabainan; eta gure artean zen azdixkidantzak, eta Liria-do dukearen ganik ukanak nituen guziek eninduten ezaren emaitera uzten. (…) Egun oso bat iragan nuen Berwick-ko marexalarekin Marmandan, eta Duras-ko dukearekin, harekin ethorria baitzen, eta Guienan haren azpian manatzen baitzuen. Hor ikasi nuen ezkinela Duras-tik laur lekoatan baizik. Hara itzuli bat egin nahi ukan nuen San-Simungo Andereari hango berrien emaiteko, eta haren osaba marexalak bere bizi guzian arthoski egin-araziak zituen, behin ere ikusiak ukan gabe, gauza ederren ikusteko. Nihaurek banuen ere ikusteko nahia; baina zer egin ahal banuen ere, ehoiz etzuten onhartu. Bazazkiten zorigaitzez, herrialde guziak bezala, igorriak izanak zizaztan mezuak; etziren ene berant-araztean barne izaitera menturatu, zinez dolu izan baitzizatan. Goiz-goizik Garonan untzia hartu nuen, goizik ere Bordelera heldu, Boucher probinziako intendantaren etxera. Zinegotziek galdegin-arazi zautaten Ségur haien auzaphez-ordearen bitartez, ene agurtzera jiteko orena. Auhaltzera othoiztu nituen, eta Ségur-ri erran basoa eskuan komplimenduak hobeki eginen zirela. Auhaltzera jin ziren beraz, eta onestasun hortaz biziki askietsiak zirela iduritu zitzaztan. Biharamunean itsasaldiak biziki goizik Blaye-ra ereman ninduen

munduko aro ederrenean. Laburtzeko enintzan han gau bat baizik etzan eta Ruffec-tik ez iragan.

13-an Loches-era heldu nintzan arratsaldeko bortzak hirian. Han etzan nintzan nahi bainaukon xehetasunez liburu bat Beauvillier-ko Andereari izkiriatu, hortik sei lekoatan baitzen, bere lurretarik batean, mezulari batekin igorri naukona. Biharamunean 14-an aski goiz heldu nintzan Etampes-era, han etzan, eta 15-an, goizeko hamarretan, Chastres-era, San-Simungo Andereak hara jin behar baitzuen bazkaltzera eta etzatera, ene aitzinera, gure berriz ikusteko atseginaz gozatzeko, berriz elgarretaratzekoaz, berri guzien elgarri jakin-araztekoaz, bakarrik eta libertatean, ene itzultzeko lehenbiziko egun horietan Parisen egitea asma etzaitekeena. Humières-ko dukea eta Louville harekin ethorri ziren, eta hura oren bat ene ondotik Arpajon-go markesaren jauregi xipira, prestatua baitzaukon, eta han eguna eta biharamun jorrailaren 16-ko goiza ontsa labur iduritu baitzizauzkun.

Solasean ari ginelarik, goizeko hamarrak hirian, ethorri zen Belle-Ile. Adixkidetasun eta komplimenduen ondotik, bakarrik mintza ahal zakiditan othoiztu ninduen. Komplimendu berri batzuen eta Espainian egina nuenaz eta ene eskutitzez laudorioen, eta gortearen izanarako marrazki labur baten ondotik, lerroko lehentasunean eta delako alderdikatzean lerratuz, Noailles-ko dukea erakutsi zautan gizon lanjerosena bezala, eta Orléans-ko duke Jaunaren eta hunen gobernuaren etsaiena, eta jeus etzuen ahatzi ahal zuen bezenbat ene herraren sustatzeko, eta haren atherabiderik gabe galtzeko orduaren hartzeko nuen aldiaren aitzinera emaiteko, bere baitarik eskaintzen zizatana, eta hortako bainintzan hanbat ezin egonekin igurikatua (*).

(…)

Solasaldi hortarik landa Belle-Ile gurekin bazkaldu zen Parisera lehen bai lehen heldu nahi ginuelakotz, eta gure aitzinean abiatu zen.

(*) Dubois kardinalak Noailles-ko dukea gobernutik haiza-arazi nahi du eta eginen du, baina hortako San-Simunen laguntzarik ukan gabe, nahiz gure dukeak aski luzaz erakutsia duen zenbat arrazoin zuen Noailles-ko dukearen hastiatzeko.

Erreientarekin eta Dubois kardinalarekin, Erreienziako konseiluaz, Espainiaz eta jesuistez

Etxean enuen karrosaz aldatzea baizik egin, eta Erret-Palaziora joan nintzan, Dubois kardinalaren baitara zuzen. Aitzinera lasterrez jin

zizatan. Mirak izan ziren; eta ez sartu ez gelditu gabe, Orléans-ko duke Jaunaren baitara ereman ninduen, ongi-ethorria berdin ona egin baitzautan eta egiazkoagoa. Bere gabinet ttipian zen galeria ttipiaren buruan. Jarri ginen, ni hari bekoz-beko, bulegoa bien artean, eta kardinala bulego buruan. Gauza ainitzez kondu eman nauen, eta galde ainitzer ihardetsi. Gero Orléans-ko duke Jaunari mintzatu nindakon Asturiako printzesaren eginaraz Haien Maiestate Katolikoekin, harendako zituzten pairamenaz eta oneziez; eta serios horren ondotik joaitean haren agurtzeko entzunaldiarekin jostatu nuen, hortaz irri ainitz egin baitzuen. Gero (Erreienziako) konseilutik atheratzea aipatu zautan, lerroko lehentasunean xapinekin lerratuz; eta kardinala delako alderdikatzeari eman zen, gauza barnatu gabe alta, eta erran Haren Erret-Goitasunak etzuela kanzelariaren haizatzea baino gutiago egin ahal ukan. Guzia erraitera utzi nuen; gero erran nauen ikastea baizik enezakeela egin, orduan ez hemen izanik eta oraino nehor ez ikusirik, hori guzia ontsa gaizkor aurkitzen nuela ezpada. Eta berehala, osoki Orléans-ko duke Jaunaren gana itzuliz eta hari mintzatuz, gaineratu nuen, kanzelaria Fresnes-en hemen izan banintz egina ukanen nuen gauza berarendako baizik etzenaz geroz, ontsa uste nuela Haren Erret-Goitasunak berehala haren ikustera joan nindadin onhartuko zuela. Erranaldi horrek bi ondorio bezala ukan zituen, Erreientaren baitan, begiak beheititu baitzituen, eta kardinalarenean, nahasi baitzizazkon, haserrearekin gorrituz. Uste dut bada etzutela konseiluan sartzea sinets-araziko zautatelako esperanzarik ukana; baina konseilutik atheratzearen onhartze hoin argi et hoin guti galdeginaren ustegabeak eta hisiak, eta kanzelariarendako nuen lehiaren arrazoinkatzeko libertateak, Erreienta jende xoil bat bezala hatzeman zuten, eta minixtro bothere guzikoa gortelari bat bezala. Gozagarriki ase nintzan ikusi nuen izanaraz, eta ephe batzuez iraun zuen ixilaz.

Kardinalak hautsi zuen atzartzen den gizon bat bezala inharrosiz, eta erran zautan, ahal ukan zuen itxura eztienarekin, Espainiako erregek nahi ukana zuena egina zutela. Zer zen galdegin naukon. Ihardetsi zautan: "Erregeri kofesaritzat jesuista baten emaitea, eta A. Linières da. - Espainiako erregek! egin nuen, ehoiz eztauta aipatu. - Nola? erran zuen kardinalak; badidurit alta jesuistez mintzatu zaizula, eta hortaz izkiriatu daukuzula. - Nahasten duzu, jauna, egin nuen; Espainiako erregek aipatu dauta andere infantaren erakaskuntzako, eta ondoan haren kofesioko; hortaz izkiriatu dautzut eta Orléans-ko duke Jaunari, eta hori eginik

izana da; baina Espainiako erregek eztauta Erregerendako behin ere hitz bakar bat erran. Egia da bada A. Daubenton-ek aipatu zautala, eta erran Espainiako erregek bazuela Orléans-ko duke Jauna othoitz nezan galdegiteko xedea, haren izenean, Erregeren kofesategia jesuister itzulia izan zadin; A. Daubenton-i ihardetsi naukola eni doatanaz hortara lan egiteaz jende berezi bezala loriatua nintzatekeela, baina lan horren ene gain hartzera enintzala menturatuko, ezen, Espainiako erregek gure gorteak harenaren barneko gauzetan sartu nahi ukan zezan arrazoinekin gaizki aurkituko zuen bezala, gure gorteak ere gauza beretan libertate osoan izan nahi baitzuen, eta saminki gaizkituko baininduen horrelako mezu baten ene gain hartzeaz; othoizten nuela beraz Espainiako errege eni horren eskaintzetik itzul-araz zezan, ez onhartzeko bihotz-mina ukanen bainuen. A. Daubenton-ek arrazoin horiek labur-laburra hartu zituen, onak aurkitu baitzituen edo hala zirela alegia egin. Espainiako erregek ehoiz eztauta hortaz ahoa ideki ez eta hurbiltzen zakon deusez ere, ez geroztik A. Daubenton-ek." Kardinalak hortzen artean erraitea bururatzen etzuen nik dakita zer ahopiatu zuen, eta Orléans-ko duke Jauna, hortarano mintzatzera utzi baitzuen eta ni ihardestera, irriz hasi zen, eta eni erraiten: "Oi bada! beraz, galdatzen dautzugun guzia (kardinalarekin elgarren arteko *gu* horri ontsa ohartu nindakon), gezurta ezkaitzazun da; jende guziari errana baitaukogu Espainiako erregeren othoitz lehiatuen gatik ginuela Erregeri kofesari jesuista bat emana." Irriari eman nintzan ni ere, eta ihardetsi naukon haren zerbitzuko banagikeen guzia, larriaren egitea izanen zela, eta haien ez gezurtatzeko eta gezurrik ez erraiteko ixilera joitea. Gero kardinalari mintzatuz, ene mezu guziak bazituela erran naukon; gogoaren garbi ukaiteko, haien ikertzeko nekea har zezan, eta etzuela andere infantarendako baizik kofesari jesuistaren aipurik aurkituko, eta hitz bat ez Erregeren kofesariaz. Prelata sainduak ontsa baino hobeki bazakien; irriz hasi zen ere, baina hortzen muturretik; gauza bazakiela erran zautan, erraiten nauen bezala zela, baina segeretuan atxikitzea baitezpadakoa zela, eta neure burua enezan hortan hatzemaitera utz.

Solasaldi hori, abantzu bi oren iraun zuena, ezin hobekiago bururatu zen, baina, goizean Chastres-en Belle-Ile-rekin ukana nuenarekin batean, eninduen Dubois kardinalaren garazia onetan ontsa ezarri, etzelarik alta jeusen agertzen uztera menturatu. Bururatu zen ene paregoaren seme zaharrenari uzteko galdeari Erreintaren baimenarekin. Etzizatan zuzen, bere gehiengoaz duke 'ta pare izaitera beharra izanez,

lerro hori ukan etzezan, ondokoari (Espainiako) handigoaz lerro bera ukana naukolarik.

Erret-Palaziotik Teilerietara joan nintzan Erregeren agurtzera, haren auharian, horren ondarrean baimen bera eskatu bainaukon. Hortik etxera itzuli nintzan, eta berria seme zaharrenari erran, Ruffec-ko dukearen izena hartzen zuela. Aldi berean egin naukon Espainiako erregeren margazkia inguratzen zuten harrierien emaitza, Grimaldoko markesak haren izenean ekharriak zauztanak ene abiatzeko entzunaldiko arratsaldean. Lauretan-hogei mila libera estimatuak izan ziren Parisko lehenbiziko joiariez. Espainian edozein embaxadoreri eginik izana zizakon emaitza aberatsena zen. Haiekin semeari Urre-Iletze miragarri baten egitea laket izan zitzatan.

Egun andana batez behar izan zen nihauren eta bertzen ikustaldietara eman. Lehiatu nintzan alta Noailles-ko kardinalaren ikustera joaitera. Enuen nahi Espainiako erregek Erregerendako kofesari jesuista bat galdegina zuela uste ukan zezan. Salatu naukon, segeretu-pean, hortaz Erret-Palazioan Erreientaren, Dubois kardinalaren eta ene artean iragana zena. Gauza bera salatu nauen ere, segeretu beraren azpian, (Fleury) Fréjus-ko apezpikuari eta Villeroy-ko marexalari, bere indar guziez kofesari jesuista bati kontra egina baitzaukoten, jendearen gogoa (*Unigenitus*) konztituzionearen sorginkeriak hartua izanik ere. Segeretuz erran hori biziki sengarri izan zizeen, behar zela uste ukan bainuen, eta segeretua beti atxiki dautate. Bertzela, gauza hortan ehori neure buruaren ez zilatzera uztean leial izan nintzan, eta ixilaz galden ordaintzean. Dubois-ek jesuisten aldera betea zuen agintza zen, bere xapelaren ukaiteko haien ganik ukana zuen laguntzaz. Erreienziako konseiluko lehenbiziko eguna hautatu nuen handik atheraiak ziren guzien ikustera joaiteko. Erakustera emaite horri azkarki ohartu zizakon, hori baitzen ere ene xedea. Jakin nuen Villeroy-ko marexalak, han izaitea hautatua baitzuen, baina Erregeren gibelean, abururik eman gabe eta den gutienik barne sartu gabe, igorri zuela Teilerietako gortera ene karrosa han zenez ikustera. Etzen egon ahal izan konseiluan sartua enintzalakotz bere bozkarioa eni erakutsi gabe. Hotz-hotza ihardetsi naukon hori gogoan ukan bazuen guti ninduela ezagutzen. Sei egunen buruan Fresnes-ra (*) joan nintzan hiruren han iragaitera. Ikustaldi horrek hots handia egin zuen, eta kanzelariari atsegin sendigarria. Han egon zeno ikustera joan nindakon bederen urtean bi aldiz.

(*) Fresnes-en zen Dubois-ek bere kargutik ekhen-arazia zuen kanzelariaren jauregia. (*Itzultzalearen oharra*)

Gortea Paristik Versailles-era itzultzen da, eta Dubois-en botherea handitzen

Deliberatu zen azkenean Erregek Paris utziko zuela behin betikotz, eta gortea Versailles-en egonen zela. Errege hara joan zen ospe handitan ekhainaren 15-ean, eta andere infanta biharamunean. Errege zenaren eta Erregina zenaren bizitegiak hartu zituzten, eta Villeroy-ko marexala Erregeren gabineten gibeletan jarri zen. Dubois kardinalak ukan zuen berak bakarrik intendantgoa goien guzia, Colbert Jaunak ukana zuen bezala, eta haren ondotik Louvois-ko Jaunak. Urrats handiz jarraikitzen zizakon bere buruaren lehen minixtro aithorr-arazteko xedeari, eta hortako ahal zukeen bezenbat bertzetarik Orléans-ko duke Jaunaren berexteari. Parisek hunen gana heltzea errex egina zauen Versailles-en jartzen edo hara joaiten ahal etziren ainitz jender, batzu batere ez, bertzeak bekan eta ephe labur batzuendako. Alda horrek "errotakoak" makurtzen zituen eta balio gehiagokorik etzuten emazte batzu. Kardinalak ontsa ikusten zuen Orléans-ko duke Jauna Parisera haien gana joanen zela ahal ukanen zuen bezenbat, baina haren aitzinera noiz ekhar jakinen zuen gobernuko egitekoek usu makurtuko zutela ere; hertsatze horrek higunduko zuela, aspertuko, eta gauza orok baino gehiago, (gobernuko egitekoen) haren gainera uztera ekharriko, eta bere libertatearen erosteko, haren aithortzera lehen minixtrotzat eta han izanen etzenetan egiazko ordaintzat. Horrela egitekoek etzuten Erreienta makurtuko edo biziki bekan, eta hark, kardinalak, agerian nagusi bilakaturik, bere buruaz beldurr-arazten jakinen zuen bada, hala nola nun ezpaitzuen Parisera nagusiaren bidaietan jeusetaz beldurtzekorik ukanen, han utziko zuela, Operako bere egongia ttipian, bere auhari ahalgegarrietan murgiltzen, egitekoetarik urruntzen, eta hura, bere hegalez airatzeko eta nagusi bezala erreinatzeko hortaz baliatzen. Orléans-ko duke Jaunak hartu zuen beherean Monseigneur zenaren bizitegia, eta Orléans-ko dukesa Anderea gainean, hutsa gelditu zen harenaren ondoan egon zen.

Nahiz Espainiatik ene itzultzea eta konseilutik atheraiak zirenen aldera egina nuena azkarki gozagaitz izanak zizazkon, eta Noailles-ko

dukearen murrizteari ene ihardokitzeak emana zaukon barkatu etzautan hisi bat, etzen oraino eni horren erakusteko ordu. Enuen beraz Orléans-ko duke Jaunarekin nuen etxekotasunean trabarik ukan; kardinalak berak hortaz halako adei bat erakusten zautan. Baina xehekeria edo gortekoak etziren egitekoetan, guti argitua nintzan, eta, han hemenka, zatiz, ohidurak Orléans-ko duke Jaunari eman-arazten zauzkonak harekin nituen buruz-buruetan, eta nik hortara kitzikatu gabe. Etzen alta kardinalak guzien erraitea etzautalakotz eskaintzen. Nahi zuen itzuliz geroz Orléans-ko dukearen baitan ene aldera aurkitzen nuen zuhurtzia hunen gainera eror zadin. Baina, guzia ezpazautan aitzinean bezala erraiten etzagola hari nik ez agerian ikusteko printze horrek sobera erraiten zautanaren gainera, kardinala sobera ezagutzen nuen haren eskaintza eta komplimenduez enganatua izaiteko. Etzakien nundik lot Orléans-ko duke Jaunaren ganik ene urruntzeko: lehen minixtrotzat bere aithormeneko ene beldur zen; nahi ninduen aldi berean gobernuko egitekoetarik urrundu eta gupidetsi, hanbatetan nun ikustatez lehertzen baininduen aurkitzen nuen aldi oroz, eta hortan gainditzen zen halabeharrak Orléans-ko duke Jaunarekin eta harekin heren aurki-arazten ninduelarik, hanbat ene lausengatzeko nola printze horri enekin ontsa izaiteko jeus etzuela ahazten sinets-arazteko, hortik hasten zituen gauzer ihardokitzeko ni eragozpenean ezarriz, eta haren kontra Orléans-ko duke Jaunari erran nezakeenaren ahultzeko, elgarrekin aburu bereko aurki ezkindaitezkeen gauzetan.

Bat laster gertatu zen: Noailles-ko dukearen urruntzea, ezpaitzizatan aipatzera menturatu; baina Orléans-ko duke Jaunak errana zautan hartaz hertsatzen zuten gauza bat bezala. Galdegin naukon zer gatik urruntze hori, eta jeus etzatan ihardetsi ahal ukan argi etzenik eta itxura gabeko alderdikatze hortaz baizik. Ihardetsi naukon azken horri zoakonaz, itzuliz geroz, ezeri enindakola ohartu ahal ukana, zergatik hura urrun-araz bertzeak baino lehen; ordu arteo kanzelariaren urruntzea aski izana zizakola, aski agerikoa zela bada, eta, gauza andana baten gatik, hortara joan gabe egon ahalko zela bada; arrazoin berri eta ezagunik gabe bertze batzuen gainera berriz itzultzea, makila goititurik erakustea zela Villars, Estrées, Tallard, Huxelles-ko marexalen gainera, Villeroy-ko marexalaren gainera ere, jende gotorretan horiek baitziren konseilutik atheraiak ziren handienak (…)

Villeroy-ko marexala Dubois-rekin aharran eta gortetik urrundua

1. Villeroy-ko marexal Erregeren gobernariaren urruntzea neke da

Dubois kardinala etzen luzaz egon Villeroy-ko marexala haizatu behar zela Orléans-ko duke Jaunari etzaukola errex sinets-araziko ohartu gabe. Hastera entseatua zen aldi oroz behargabe guziak sendituak zauzkon indarrezko egintza bat zen, egun oroz nekeago eta lanjerosago bilakatzen ari zena, eta osoki bazterrera utzia zuena. Kardinala bere buruaren lehen minixtro aithorr-araztetik urruntzen zuen egun bakoitza urtea bazidurikon, eta bizkitartean etzen urrats handi horren lehiatzera menturatzen Villeroy-ko marexalak eginen zituen harramantzetarik gerizatua izan gabe, bertze hainbertzer seinalea eta laguntza eman gabe, horiek, bertzela, ezpaitziren gora mintzatzera menturatuko, aldiz multzoan eta marexalak Erreientari egin nahiko zauzkon oldarrekin, kardinala ezarriko baitzuten gaitzeko leku hortara goititua izan bezain laster aurdikia izaiteko lanjer handitan, eta hortik beretik azkarki inharrosia eta aitzinean zen lekuaz dolutzeko izanaran. Gogoeta horien nahasmenak eta gelditzen zuen eragozpenetik jalgitzeko nekeak bazadukaten oso-osoa, omoreak eta burukeriak bikuntzen zauzkoten, gero eta gehiago ezin hurbildua egiten zuten, eta egiteko larrienak eta lehiatuenak osoki utziak izaitera ekhartzen. Azkenean Villeroy-ko marexalaren aldera oraino indar bat eginen zuela deliberatu zuen; baina bera ez menturatuz, Bissy-ko kardinalaren bidez abiatzea asmatu zuen, konztituzionean horren eginaraz loriatua eta bere adixkide on jesuiter Erregeren kofesategi hoin berriki itzuliaz, eta, biziki gutiago hunkitzen etzuena, Noailles-ko kardinala desafiatuz eta haren bothereak ezetsiz.

Dubois-ek bere bihotz-minak erran zauzkon beraz, haren aldera Villeroy-ko marexalaren eginara idorra, hartuak zituen eginbehar guziak, haren ondoan entseatua zuen guzia behin ere desmerezitua etzuen bake baten ukaiteko, eta hain baitezpadakoa egitekoen eta zuzen zenaren abantailetan, eta gutiago hala etzena Errege eskuetan ezarria zizakon gizon baten, eta gobernuko egitekoen lan xehea eta artha gotorrena Erreientak uzten zaukonaren artean (…)

Beata handi-nahiak amikatuki hartu zuen bere lagunkideari zerbitzu hoin gutiziatuaren emaiteko aldi hoin zuzena eta hoin beharbezalakoa. Zen lekura Bissy hoin urrundik heldurik, bere fortuna

miragarria etzizakon gorago igaiteko mail batzu bezala baino gehiago iduritzen. Fortuna handi bat egin nahi zaukon bere ilobari, eta konseiluko athea kardinaler idekia bazakusanaz geroztik, bazuen han herenaren egiteko nahikaria handia (…) Bissy-k etzuen hoin zerbitzu gozagarriaren egiten luzatu, eta Villeroy-k, gibelean ez egoiteko, hitza Bissy-rekin hartu zuen Dubois kardinalaren baitara elgarrekin joanen zirela. Halabeharrak egin zuen astearte goiz batez joan zirela, eta gehiago orhoit enizan egiteko zerbaitek jin-arazi ninduela aldi berean, ohi enuen bezala, bizi nintzan Meudon-dik, Versailles-era Orléans-ko duke Jaunari mintzatzera.

2. Aharra bortitza

Bissy-k eta Villeroy-k aurkitu zituzten minixtro atzerritar guziak, Dubois kardinalaren entzunaldiko eguna baitzuten, bakoitza bere aldiaren aiduru kardinalaren gabinet aitzineko barnean. Aspalditik, ohidura hartua zen etzirela minixtro atzerritarrak bat bertzearen ondotik baizik sartuak izaiten, igurikatzeko salara ethorriak ziren arau, haien artean lehentasunezko zein gehiagoka ororen baztertzeko. Beraz Bissy eta Villeroy-k aurkitu zuten Dubois Errusiako minixtroarekin hetsia. Kardinalari jakin-arazi nahi izan zizakon Villeroy-ko marexala etxean zuelakoa bezain gauza berri bat, baina hunek etzuen onhartu nahi ukan, eta bitartean Bissy-rekin kanape batean jarri zen.

Entzunaldia bururaturik, Dubois gabinetetik jalgi zen embaxadorearen bidatzeko, eta berehala hoin ontsa betea zen kanape horri ohartu. Hori baizik etzuen orduan ikusi; lasterrez joan zizakon, mila komplimendu publiko eman marexalari, ainitz zinkurinekin aitzinatua izanik, etzagolarik haren baimenaren beha baizik haren baitara joaiteko, eta Bissy eta biak gabinetean sar zaizten othoiztu zituen. Bazoazilarik, embaxadorer desenkusak egin zezteen Villeroy-ko marexalak Erregeren ondoan zituen karguek eta jarraipenak etzutelakotz haren ondotik luzaz urrun izaitera uzten; eta, komplimendu horrekin, utzi zituen eta gabinetean sartu zen. Lehenik, elgarri komplimendu ainitz, eta Bissy-ko kardinalaren ganik gaiarendako egoki ziren solasak. Hortik Dubois kardinalaren segurantzak eta marexalaren ihardesteak; baina ihardetsi bortxaz, bere erranaldien musikan nahasi zen, laster zintzotasunez eta egia erraitez mintzatu, gero, apurka apurka, bere harnesean berotuz, egia idorrez eta laido usaina zutenez. Dubois-ek, ontsa ustegabetua, etzuen erranaldi horien indarra sendi zuela erakusterat eman; baina ordu batetik bertzera azkartuz baitzoan, Bissy-k,

arrazoinekin, ixil-arazi nahi ukan zuen, moztu, gauzak onera argitu, xedea zer zuen marexalari sinets-arazi. Baina uhainak hantuz marexalaren burua osoki nahasi zuen, eta horra laidoetan eta erasia izigarrienetan. Debaldetan zuen Bissy-k ixil-arazi ukan nahi, Dubois-ri erakarriko zaukonaz hitzemana eta errana zaukonetik zenbat zen urruntzen oharr-arazi, behazun gabeko ahalgegarritasunaz gizon bati bere etxean gaizki egitera joanez, etzelarik hara bururatua zen baketze baten betetzera baizik heldu. Bissy-k erran ahal zuen guziak etzuen marexalaren sustatzea baizik egin, eta ozartasunak eta gaitzesmenak asma-araz dezaketen eroen guziaren ahotik bota-araztea. Dubois, balditua eta erotua, lurperatua zagon hitz bakar bat erran gabe, eta Bissy, haserrez zuzenki sumindua, ari zen debaldetan (marexala) hautsi nahiz. Marexala hartua zuen bapateko suan, haier atheratzeko bidearen hesteko moldean emana zen, eta beti gero eta ederragoak erranez. Laidoez akiturik, mehatxuetara eta trufatzera jo zuen, Dubois-ri ziola orai bere burua agerian erakutsia zuenaz geroz, etzirela gehiago elgarri barkatzeko hitzetan; erran nahi zaukola bada oraino goiz edo berant ahalko zuen gaixtoenetik eginen zuela, baina nahi zaukola ere, garbitasun berarekin, aholku on bat eman. "Bothere osoa baduzu, gaineratu zuen; oro zure aitzinean gurtzen da, jeusek eztautzu ihardokitzen; handienak zer dira zure ondoan? Sinets nezazu, eztuzu gauza bakar bat baizik egin behar, zure bothere guziaz balia zaite, atsedena emozu zure buruari, eta arrasta-araz nezazu, menturatzen bazira. Nork debekatuko ahal dautzu? Harr-araz nezazu, diozut, eztuzu hori baizik egin behar." Eta hortan, luzatzen, desafiatzen, laido egiten, zeruetara igaitearen eta (marexalaren) arrastatzearen artean, ezberdintasunik batere etzela uste zuena zintzoki (…) Versailles berehala berri hortaz betea izan zen, laster argitua izan zena Villeroy-ko marexalaren espantuez, ixtorioez, desafioez eta trufa publikoez.

Orléans-ko duke Jaunarekin luzaz lan eta solas egina nuen. Bere arropategira joana zen, haren bulegoaren gibelean xutik nindagon, paper batzuen antolatzen, ikusi nuenean Dubois kardinala zirimola bat bezala sartzen, begiak burutik atheraiak, ni bakarrik ikusiz, oihukatu baitzuen galdegin baino gehiago Orléans-ko duke Jauna nun zen. Arropategira sartua zela erran naukon, eta noren haserre zen galdegin, erotua banakusan bezala. "Galdua niz, galdua niz" erran zuen, eta arropategira laster egin. Hain gora eta labur ihardetsi zuen nun Orléans-ko duke Jaunak, entzun baitzuen, haren gana abantzu laster egin baitzuen, eta

athean aurkituz, biak ene aldera jin baitziren, zer zen eskatzen zaukola. Ihardestea, bere ohiko motelaz artekatua, errabiak eta izialdurak handitzen zutena, hemen erran dutana baino xehetasun ainitz luzeagorekin izan zen, ondotik kardinalak erran baitzaukon Erreientari Haren Erret-Goitasunari zagokola Villeroy-ko marexala hoin hatzemaite ez entzunaren eta hoin guti merezituaren bidez norat ari zen senditzea, haren ondoan erabilia zuen guzia bakarrik Estatuko egitekoen onetan eta Orléans-ko duke Jaunaren zerbitzuko zabaldu, eta bururatu erranez, mota hortako laido baten ondotik, eta hain falsuki traidore batek bezala aitzinetik gogatuarenetik, Orléans-ko duke Jaunak beharko zuela sarri berean zer egin zezakeen eta zer nahi zuen ikusi, eta Villeroy-ko marexalaren eta haren artean hautatu, ezpaitzaitekeen gehiago edozein egitekotan sar, ez eta gertatua zenaren ondotik gortean ohorean egon Villeroy-ko marexala han segurrean egoiten baliz;

Eztezaket erran zenbat baldituak egon ginen Orléans-ko duke Jauna eta ni. Entzuten ginuena ezin ginezakeen entzun, amets egiten ginuela uste ginuen. Orléans-ko duke Jaunak egin zituen galde batzu, nik ere bertze batzuen egiteko libertatea hartu nuen gauzen argitzeko eta ikusteko. Aldatzerik eta itzulikatzerik ez kardinalaren ihardestetan, zenbat erotua bazen ere. Noiz nahi hautua aitzineratzen zuen, galde orotan Bissy-ko kardinalaren bila joaitea eskaintzen, guziaren lekuko bezala. Goga daiteke nolakoa izan zen bigarren agerraldi hori, ontsa egonen bainintzan halabehar hori gabe. Kardinalak beti hautua baitzuen ahoan, Orléans-ko duke Jaunak, eragozpen handitan, zer gogatzen nuen galdegin zautan, beti Villeroy-ko marexalaren haizatzearen kontra izana zuen gizon bati bezala, bazidurit. Ihardetsi nuen gauza hoin harrigarriaz hain burxoratua eta inharrosia gertatzen nintzala, nun behar bainuen lehenik neure baitaratu (…) Orléans-ko duke Jaunak berriz hertsatzen baininduen, erran naukon azkenean ordurano beti Villeroy-ko marexalaren igortzea egintza biziki lanjerosa bezala banakusala Haren Erret-Goitasunari aldi bat baino gehiagotan emanak nauzkon arrazoinen gatik; oraino berdin banakusala bederen Errege adinean aitzinatuagoa zenaz geroz eta adinaren hunkitzekotan; baina, zer lanjer bazen ere, gertatu berria zen agerraldi itsusiak sinets-arazten zautala Erregeren ondoan uztean lanjer ontsa handiagoa bazela; hemendik goiti etzaitekeela gorde egina zuena etzela Orléans-ko duke Jaunaren kontra ezpataren jalgitzea baino jeus gutiago, eta bere buruaren arrasta-arazteko eskaintza trufari hori merezi zuela sendi zuen gizon baten sendimendua

baizik; hortara menturatzerik izanen etzela uste zuena eta, menturatuz ere, ezin egina zela; arau hortan, bere burua hertsatzen etzuena, ez eta ezagutzen; lehenbiziko egunetik beretik Orléans-ko duke Jaunaren kontra azpiz ari izanik, geroztik ephe batez ere gelditu gabe eta hunek garazia guziez bildu ahal izana gabe, adeiezkoez ere, azkenean ethengabeko artha hautuzkoenen lerro batez, orai maska goititzen zuena, eta publikoki etsai aithortzeko xedea ukaiten: uste nuena hori zela, Haren Erret-Goitasunak odol hotz gehiagorekin hortaz gogatzeko astia eni utzi gabe jakin nahi zuenaz geroz; baina egiteko, zen lehiatua izanik ere, behar zela zuhurki gogatu eta abiatu ez orduan berean, ez ondotik ezeztatua izan ahal izaiteko moldez.

(…)

3. Villeroy hedatua zaukon sarean hartua

Agorrilaren 8-ko igandean, Orléans-ko duke Jauna joan zen arratsalde ondarrean Erregerekin lan egitera, aste orotako egun hautatu batzuez egitea ohi zuen bezala, eta, uda baitzen, ibilalditik itzultzean, beti goizik gertatzen zena. Lan hori hutsak ziren kargu, (elizako) benefizio, lege-gizonen kargu, intendantgoa, mota orotako sariztatze batzuen Erregeri erakustea zen, eta hitz gutiz hautuen argitzea, zenbait aldiz dirutzetako banatze batzuen ere; azkenik atzerrietako lehenbiziko berrien, harek jakiteko heinekoak bazirenean, publikoak bilakatu baino lehen. Lan hori bururaturik, Villeroy-ko marexala beti han izaiten baitzen, eta Fréjus-ko Jauna batzuetan egoitera menturatzen, Orléans-ko duke Jaunak Errege othoiztu zuen gabinet gibel xipi batera iragaitea onhar zezan, hitz bat buruz buru erran behar baitzaukon. Villeroy-ko marexalak eza eman zuen berehala. Orléans-ko duke Jauna, sarea hedatzen ari baitzaukon, hartara betean erortzen zela ikusiz askietsia izan zen. Ikustaterekin aitzineratu zaukon Errege berak gobernatuko zuenaren adin hain hurbilera sartzen ari zela nun ordu baitzen, arte hortan haren larderia guzia bazatxikanak, orai entzun zezazkeen gauzez kondu eman zezon, hari baizik ezpaitzatezkeen argituak izan, zenbat ere konfienxia bertze edonorek merezi bazuen, eta othoizten zuela hoin gauza baitezpadako eta larriari traba emaitetik geldi zadin, Erreientak menturaz hori goizago ez hasirik, bakar-bakarrik marexalari gozagarri izaitekotan, bere burua erasiatu behar baitzuen. Marexalak berotuz eta perruka inharrosiz, ihardetsi zuen zor zaukon errespetua bazakiela, eta hori bezenbat bederen Erregeri eta zuen karguari zor zeena, haren personaz kargatzen baitzuen eta ogendun egiten, eta goraki erran etzuela

jasanen Haren Erret-Goitasuna Erregeri berex mintza zakidion, erranen zaukon guzia jakin behar zuelakotz, are gutiago gabinet batean buruz buru, berak ikusi gabe, eginbidea ephe batez ere ikuspenetik haren ez galtzea zuelakotz, eta orotan, haren personaz berme izaitea. Hitz hortan, Orléans-ko duke Jaunak begietara geldirik behatu zaukon, eta erran nagusi baten doinuan huts egiten zuela eta bera nor zen ahazten; gogora eman behar zuela nori mintzo zen eta erraiten zuenaren indarrari, uste ukan nahi zuela bada etzuela entzuten; Erregeren han izaitearen errespetuak etzuela merexi zuen bezala ihardestera uzten eta solasaren urrunago eremaitera. Eta berehala Erregeri gur handi bat egin zaukon eta joan zen.

Marexalak, azkarki haserre, urrats zenbaitetan lagundu zuen, murmurikan eta jestuka Orléans-ko duke Jaunak ikusten eta entzuten zuela iduri etzuelarik, Errege utziz balditua eta Fréjus hura ahapetik bere bizarrean irriz. Amuak hain ontsa harturik, uste izan zen marexalak, zen ozarra izanik ere, baina bizkitartean gortelari aphal eta herabea, senditukо zuela mundu guziaz hastiatua zen eta handik atheratzen zen kuxku arrunta usaintzen zuen Dubois kardinalaren jaukitze, elheztatze 'ta laidatzearen, eta Erregeren aitzinean Orléans-ko duke Jaunarekin horrelako mokokaldi baten artean zen ezberdintasun guzia, eta erresumako Erreientaren zuzenbiden eta larderiaren ezabatzearen bere gobernari karguaren delako zuzenbide 'ta larderiez, eta Erregeren personaz berme zelako hitz horiez, agerian zen laidagarrien guziaz laguntzen zituela. Etzen huts egin. Bi oren ondotik baino gutiagotan, jakin zen marexalak, egin berria zuenaz espantuka, gaineratua zuela bere burua ontsa zorigaitzekoa edukiren zuela Orléans-ko duke Jaunak huts egin nahi ukana zaukola sinesten balu, etzuelarik bere eginbide baliosenaren betetzea baizik gogoan ukana, eta etxera joanen zizakola biharamun goizean berean, harekin gauzen argitzeko, printze hori hortaz askietsia izanen zelako ustean baitzagon.

3. Villeroy arrastatua eta Lyon-era eremana

Zer gerta ere, behar ziren neurri guziak harturik izanak ziren marexalari sarea hedatzen zizakon eguna hautatua izan zeneko. Etzen beraz azken moldean ezartzea baizik izan, jakin zeneko, arratsean berean, marexala sarean erortzera jinen zela. Orléans-ko duke Jaunaren gambaratik hara bazen gabinet handi eta eder bat, laur leiho handirekin baratze aldera, eta zolaren heinean, bi mailez ezpada, bi leiho sartzearen aitzinean, bi bazterretan, khebidearen aitzinean, eta leiho horiek guziak

athe idekitzen ziren, gainetik zolarano. Gabinet horrek izkina egiten zuen, gorteko jendek han igurikatzen baitzuten, eta hari zatxikola bertze gabinet bat, Orléans-ko duke Jaunak han lan egiten baitzuen eta hara sarr-arazten baitzituen mintzatu nahi zizazkon jende hautetsienak eta fagoratuenak. Hitza emana zen. Artagnan, musketari urdinen kapitaina, barne hortan zen, zer eginen zen bazakiena, bere kompainiako aitzindari ainitzekin, jin-araziak zituenak, eta musketari ohi batzu behar orduan baliatzeko, baitzakusaten antolemandu hortarik zerbait bazela, baina zer izanen zen gogoari eman gabe. Baziren ere zaldizko-arin batzu leihoen luzara barreatuak, eta jakingabe berean, eta Orléans-ko duke Jaunaren aitzindari lehen eta bertze ainitz, hanbat haren gambaran nola gabinet handi hortan.

Hori guzia ordenu onean, eguerdi hirian ethorri zen Villeroy-ko marexala bere ohiko harramantzarekin, baina bakarrik, kadera eta jendeak utzirik urrun, zaintzalen salatik kampo. Komedianta eginez sartzen da, gelditzen, behaka, urrats zenbait egiten ditu. Ikustate estakuru, inguruan metatzen zako, inguratzen da. Larderiazko doinu batekin Orléans-ko duke Jauna zer ari den galdegiten du. Ihardesten zako hetsia dela eta lanean ari. Marexalak doinua goititzen du, badio ikusi behar duela alta, sartuko dela, eta aitzinatzen den ordu hortan, La Fare, Orléans-ko duke Jaunaren zaintzaletako kapitaina aitzinera ethortzen zako, arrastatzen du eta eskatzen dauko ezpata. Marexala erotzen da eta jendea khexatzen hasten. Ordu hortan berean badator Le Blanc. Eremailekilako haren kadera, gorderik atxikia zena, marexalaren aitzinean gelditzen da. Oihu egiten du, zangoek gaizki badatxikate, kaderara egotzia da eta hau haren gainera hetsia, eta aldi berean begien hesteko artean baratzera dematen bazterreko leiho batetik eremana, La Fare eta Artagnan bakoitza kaderaren alde batean, zaldizko-arin eta musketariak ondotik, zer zen ezpaitzuten ondoriotik baizik ikusi. Urratsa lehiatzen da, iranjeriako mailaldea zuhaztien aldera jausten, burdin-athari handia idekirik aurkitzen eta han aitzinean sei zaldietako karrosa bat. Kadera hara eremaiten da: marexalak oihu egiten ahal du, karrosara egozten da. Artagnan haren ondoan igaiten da, musketarietako aitzindari bat aitzinean, eta Du Libois, Erregeren aitorenseme ohiko bat, aitzindariaren ondoan; hogei musketari, zaldiz aitzindari batzuekin, karrosaran inguruan, eta "jo hor, karrosazaina!"

(…)

4. Errege khexu, gordetzera joana zen Fleury berriz aurkitu arteo

Etzen, gero, Orléans-ko duke Jaunaren eragozpena ttipia izan Erregeri berri horren ekhartzeko, hedatua izan zen bezain laster. Erregeren gabinetean sartu zen, han ziren gortelari guziak handik athera-arazi baitzituen, eta ez utzi karguek sartzea emaiten zezteenak baizik, eta etzen abantzu batere gertatu. Lehenbiziko hitzean Errege gorritu zen, begiak busti zizazkon, bizkarrez jargia bati eman zen, hitzik erran gabe, etzuen ez jalgi ez jostatu nahi ukan. Doi-doia ahamen batzu jan bazituen auharian, nigar egin eta gau guzian lorik ez. Biharamun 14-ko goiza eta bazkaria etziren biziki hobeki iragan. 14-ko egun hortan berean, Meudon-en jende ainitzekin balkaltzetik atheratzen ari nintzalarik, zerbitzatzen ninduen gambarako mutilak erran zautan bazela hor Dubois kardinalaren mezulari bat, eskutitz batekin, kompainia horren guziaren aitzinean mahira ekhartzera menturatu etzizatana. Eskutitza ideki nuen. Kardinalak berehala zuzen Versailles-en intendant-goiengora joan nakidion othoi-othoizten ninduen, enekin ereman nezan postaz laster egiteko gizon segur bat mintzatua izanen zizatan orduko Trampako komentura igorr-arazteko, eta burua enezan hauts zer izan ahal zatekeen asmatzen, ezpainuen asmatzen ahalko, eta horren eni erraiteko azken ezin-egonean zela. Karrosa galdegin nuen berehala, zalditegietarik ethortzen ontsa emeki iduritu zizatana, hartan nindagon jauregi berritik biziki urrun baitira.

Trampara igortzeko kardinalari ereman behar zizakon eskutitz horrek burua nahasten zautan: ezin asma nezakeen zer gertatu ahal zen, kardinala hoin azkarki hartzen zuena Villeroy-ko marexalaren eremaitekoari hain hurbilak ziren ordu horietan. (*Unigenitus*) konztituzioneak, ala trampan aurkitu iheslari gotor eta ez ezagun zenbaitek, eta bertze mila gauzek khexu atxiki ninduten Versailles-rano. Intendant-goiengora heltzean, athearen gaineko leihoan ikusi nuen Dubois kardinala, ene aiduru, jestu handi batzu egin baitzauztan, eta mailaldearen beherean aitzinera jina aurkitu bainuen, igaitera nindoalarik. Lehenbiziko hitza Trampara postaz joan zaitekeen gizon bat ekharria nuenez ukan zuen. Gambarako mutil hura bera erakutsi naukon hango jende guziak ezagutzen baitzituen han enekin biziki usu izanik, eta berak betidanik ezagutzen baitzuen, betidanik etxera jina zizatalakotz, eta, ordu hartan Dubois aphez ttipi izanez, ene igurikatzean harekin solastatzen baitzen. Mailen igaitean, erran zauztan Erregeren nigarrak, ontsa

handituak baitziren Fréjus-ko Jauna ez han izanez, hau itsabasia baitzen, eta ezpaitzen Versailles-en etzana, eta zer bilakatua zen ezpaitzakiten, salbu etzela ez Villeroy-n ez bidean, berriak jakin berriak zituztelakotz; itsabaste horrek Errege etsipenean ezartzen zuela, eta hek munduko eragozpen bortitzenean; bapateko erretiratze hortaz zer goga etzakitela, ezpada menturaz etzatera Trampara joana zela, han zenez ikustera hara igorri behar baitzen, eta berehala ereman ninduen Orléans-ko duke Jaunaren baitara. Bakarrik aurkitu ginuen, azkarki penatua, bere gabinetean ibilki, berahala erran baitzautan etzakiela gehiago zer bilaka ez eta Erregerekin zer egin, Fréjus-ko Jaunaren ondotik oihuz ari zela, eta gero hoin ihes egite bitxiaz erasian.

Guti berantago ethorri ziren Rohan-go printzea eta kardinala, Villeroy-ko marexalaren hartzeak athe guziak idekiak baitzezteen; Pezé jarrikitzen zizeen. Ventadour-ko Anderearekin zuen jandakiak eta atxikimenduak, bi (Rohan) anaiekin azkarki etxekotua baitzuen, etzuten egiten etzela biziki gozoan Villeroy-ko marexalaz liberatua zela ikusteaz, baina Fréjus-ekin lotua izaiteaz, ihes egite hortaz sumindua baitzen. Deliberatze baino intzira gehiagorekin, Dubois-ek Trampara izkiriatzera hertsatu ninduen. Guzia nahasmenean zen Orléans-ko duke Jaunaren baitan; gabinet hortan oro mintzo ziren; harrabots hortan guzian haren bulego gainean ezin izkiria, harekin bakarrik nintzanean usu gertatzen zizatan bezala. Ene bizitegia hegal berrian zen, eta behar bada hetsia, ezpaitzauden egun hortan ene beha. Lasterrago egina ukan nuen Pezé-ren baitara igaitea, gambara hurbil baitzuen, Erreginaren bizitegi gainean, eta han izkiriatzen hasi nintzan. Eskutitza bururatua nuen, Pezé, hara eremana ninduena eta berehala berriz jautsia zena, berriz igan zenean eta oihuz erran: "Hatzemana da, hatzemana; zure eskutitza debaldekoa da, zaugi berriz Orléans-ko duke Jaunaren baitara." Gero baderra ordu berean Orléans-ko duke Jaunaren gizon batek, Fréjus Lamoignon-darren adixkide zela bazakienak, Courson aurkitua zuela gorte handian, auzietako konseilutik jalgitzen, Fréjus zer bilakatua zen bazakienez galdegina baitzaukon; Courson-ek ihardetsia etzakiela zer gatik ziren hoin penatuak; Fréjus joana zela bezperan Bâville-en etzatera, Lamoignon buruzagi lehena han baitzen; hortan Orléans-ko duke Jaunaren gizon horrek ekharria baitzaukon Courson, hunek berak erran zezon.

Pezé 'ta ni Orléans-ko duke Jaunaren baitara heldu ginen, Courson handik athera berria zelarik. Zohardia berriz itzulia zen; Fréjus

ontsa trufatua izan zen, eta Rohan-go kardinala eta printzea etziren neurrian gelditu. Bozkariozko zabaltze apur baten ondotik, Dubois kardinalak oharr-arazi zaukon Orléans-ko duke Jaunari Erregeri berri onaren eremaitera joan behar zuela, eta haren ikaslearen itzul-arazteko mezua Bâville-ra igorriko zuela erraitera. Orléans-ko duke Jauna Erregeren baitara igan zen eta berriz jautsiko zela erran zautan; bi anaiak bere aldetik Pezé-rekin joan ziren, eta Orléans-ko duke Jaunaren aiduru egon nintzan Dubois kardinalarekin. Fréjus-en ihes egite hortaz apur bat arrazoinkatu eta, erran zautan Villderoy-ren berriak bazituztela; marexala etzela haren personari jaukitzeaz oihukatzetik gelditua, Erreientaren ausartziaz, Dubois-ren ozarreriaz, ez eta Artagnan-i bide guzian zer nahi erraitetik bortizkeria hoin gaizkorrean sartzeaz; gero errege zenaren arimari deika, Villeroy-ren baitan zuen konfienxia goraipatuz, eta hartako mundu guziari hautetsia zuen karguaren handitasuna; hoin egintza ozarrak, eta Erreientaren botherea hanbatez gainditzen zuenak Parisen eta erresuma osoan emanen zuen jazarraldia; errege zenaren hautetsiak, begiratzeko eta moldatzeko uzten zuen balioseneko, haizatuak, Maine-ko dukea lehenik, hura gero; Erregeren zoriaz lastimak, erresuma osoarenaz; gero oldeak, gero ahapaldiak, gero bere zerbitzuez laudorioak, leialtasunaz, bermutasunaz, bere eginbideari atxikimendu ezin aldatuaz; gero Du Libois, hartzen ziren jende guzien zainlari betikoari sista-mistak, Cellamare-ren ondoan ezarria izana zelakotz, aitzinean Saboiako embaxadorearenean. Azkenean gizon bat hain ustegabetua izan zen, hain nahasia, hisiz eta errabiaz hain betea, nun erotua baitzen ephe batez ere bere baitaratu gabe. Villeroy-ko dukea, Tallard-ko marexala, Biron Villeroy-ra joaiteko baimena ukan zuten nunbait han bakarrak izan ziren, abantzu bertze nehork etzuen galdatu.

Orléans-ko duke Jauna Erregeren baitarik itzuli zen, erran baitzaukun eremana zaukon berriak biziki jabaldua zuela, hortan erabaki baiginuen Fréjus biharamun goizean itzul zadin moldez egin behar zela; Orléans-ko duke Jaunak mirazko ongi-ethorria egin zezon, guzia onera har zezan; balaka zezan, etzela haren gupidesteko baizik eta eragozpen ororen ekhentzeko izan Villeroy-ko marexalaren arrastatzeko segeretua ezpazaukon salatua; horren beharra argi zezon hanbat libertate gehiagorekin nun Fréjus-ek marexala hastiatzen baitzuen, haren gorakeriak, bekaizkeriak, burukaldiak, eta bere golkoan haren urruntzeaz eta Erregeren bere nahi osotara ukaiteaz loriatua izanen baitzen; othoitz zezan beharrordu horren arrazoinak Erregeri entzun-araz zitzon; Fréjus-

i jakin-araz (marexalaren ordaintzeko) Charost-en hautatzea; hitz-eman harekin osoki bat izanen zela eta hortako gutizia ahal zezazkeen egitateak; aholku eman zezon eta bida zezan galdegin; azkenean Fréjus-en itzultzeaz Erregek zuen bozkarioko ordua har gobernari berriaren hautuaren jakin-arazteko, eta aitzinera ekhartzeko. Hori guzia deliberatua izan zen eta biharamunean biziki ontsa egina.

San-Simunek kargu hori erresumarendako ezin lanjerosagoa aurkiturik ere, Erreientak Dubois lehen minixtro egiten du

1. Dukearen eta Erreientaren solasaldietan

Izanara hortan, harat-hunat horien guzien erdian, kardinalak igorri zautan Belle-Ile lehen minixtro baten aithortzeaz ene itzultzeko xedearekin, eta ez bakarrik ene aldetik traba ororen ekhentzera indar egiteko, baina hortan haren zerbitzatzeko gai egin nindezan jeusen ez ahazteko. Artekari hori ahal datekeen itzuli eta antze guziarekin ari izan zizatan. Aitzinera eman zautan nola, baginakusagun guziaz, etzoala lehenago ala berantagoaz baizik; esker onekin ez nik onhartzeak etzuela debekatuko kardinalak azkenean irabaz zezan, eta haren herra guziaren menean ezarriko ninduela, egun oroz banakusakolarik zuen bortitza, jarraikia, iraupena, botherea; aldiz haren gutizia gartsuenen helburua zen gauzan zerbitzatuz, eta goiz edo berant haren debekatzeko ahala ene botherean ez eta edonorenean etzen gauzan, arauko esker onaz segur izan behar nuela, Erreientaren eta erresumako nagusi horren egitekoetan eta larderian barne izanen bainintzan. Ihardetsi naukon Belle-Ile-ri ontsa goga zezakeela bada holako eskaintza baten egitera bere baitarik heldu zela enezakeela sinets, eta nekerik gabe aithortu zautan kardinalak zaukola egin zezatan manatua, eta etzaukola eni horren erraitea debekatua ere.

(…)

(Erreientak), harresiaren ondoan zagola bi alketx gertaldiz han ziren bere bulegoaren izkinan, zuten lekua oraino badakusat, besotik hartu ninduen bigarrenean jarriz, eta apur bat enegana itzuliz, galdegin zautan bizi-bizia hea enuez ikusia Dubois Saint-Laurent-en mutil, eta hala izaiteaz zoritzuegi; eta hortik, hartu zituen haren fortunaren mail eta izanara guziak, ginen egun hartarano, eta gero egin zuen: "Eta eztu aski; lehen minixtro izendatua izaiteko jaukitzen zata, eta segur niz, hala

izanen denean, etzakola oraino aski izanen; eta zer debru izan lizateke oraino?" Eta berehala bere buruari ihardetsiaz: "Jainko Aita, ahal balu. - Oi! segur-segurra, ihardetsi nuen, hortan fida daiteke bada; zuri dago, jauna, hain ontsa ezagutzen duzuna, haren oinpeko izaiteko gogoan zirenez ikustea, buruaren gainera igan zakidizun. - Oi! eztut bada utziko," egin zuen. Eta horra berriz bere gabinetean ibilki, gehiago jeus erran gabe, eta nik ere ez, "eztut bada utziko" horrek guzia hartzen ninduela, Dubois kardinalaz *ohakotik hasiz* ordurano egina baizik etzautan solasaldi hoin azkar baten eta hitzaldi bizi oraino bizikiago bururatu horren ondotik, enuelarik batere hortara erakarria ez eta hortako aldirik batere emana. Bigarren ibilaldi horrek aski luzaz iraun zuen eta beti ixilik, hura burua beheiti eragozpenean eta penatua zenean bezala, ni guzia erran ukanik bezala eta ixil hortarik zer jalgiko zen horrelako solasaldi baten ondotik. Azkenean bere bulegoan ohiko lekuan jarri zen, ni hari bekoz beko jarria, hura, ohian bezala, ukondoak bulego gainean, burua eskuen artean biziki aphal.

Oren laurden erdi bat baino gehiago horrela egon zen, higitu gabe, ahoa ideki gabe eta nik ere ez begiak haren gainetik enituela baztertzen. Hori buruaren goititzetik bertzela higitu gabe bururatu zen, enegana aitzinatuz eta erranez mintzo aphal, ahul, ahalgetu batekin, gutiago hala etzen so batekin: "Baina zergatik igurika eta ez sarri berean aithor?" Holakoa izan zen solasaldi horren emaitza. Egin nuen: "Ai! jauna, zer hitza! Zerk zaitu hoin azkarki hertsatzen? Eztuzua beti hortako asti ukanen? emozu bederen zure buruari erran berria dugun guziaz gogoetatzeko ephea, eta eni lehen minixtro bat zer den eta izendatzen duen printzea zer denaren zuri argitzekoa." Burua berriz eztiki bi eskuen artean hartu zuen hitz bat ere ihardetsi gabe (…) Ixil aphur baten ondoan, jeiki zen eta erran zautan: "Oi! ongi bada, zaugi hunara bihar hirur orenetan, erran zuen, hortaz oraino arrazoinkatzera, eta astia ukanen dugu. Hartu behar nituen paperrak hartu nituen eta athera nintzan. Ene gibeletik laster egin zuen eta berriz deitu ninduen erranez: "Bederen, bihar hiruretan, othoi, etzazula huts egin," eta athea hetsi zuen.

(…)

(Biharamuneko solasaldi luzearen ondotik) Orléans-ko duke Jaunaren burua, berriz bere eskuen artean, bulegoari biziki hurbil eroria zen. Goititu zuen azkenean eta ara ahitu eta hits batekin so egin zautan, gero ahalgetuak iduritu zizaztan begiak beheititu zituen, eta oraino ephe

zenbaitez itxura hortan egon zen. Azkenean zutitu zen eta itzuli batzu egin zituen, beti jeusik erran gabe. Baina ene ustegabea eta nahasmendua nolakoak izan ziren ixila hautsi zuen orduan! Gelditu zen, begiak goititu gabe erdizka ene aldera itzuli, et bapatez horra diola doinu ilun eta aphal batekin: "Behar da hori bururatu, aski da sarri berean aithortzea. - Jauna, egin nuen, ona zira eta zuhurra, eta gainera nagusia. Eztautazua jeus manatu nahi Meudon-go?" Ordu berean gurra egin naukon eta athera nintzan, oihu egiten zautalarik: "Baina laster ikusiko zituta?" Jeus enuen ihardetsi, eta athea hetsi nuen. Belle-Ile leial eta pairakorra bi oren luzeren buruan sartzean utzia nuen leku berean zen oraino, ene aiduru han egona zena bertzalde. Berehala lotu zizatan lehiarekin beharrira erranez: "Ha bada! zertan gira? - Hoberenean, ihardetsi naukon neure burua ahal ukan nuen bezenbat hertsatuz; gauza egina dadukat eta aithortua izaiteko hegi-hegian. - Mira da, egin zuen: ontsa gozoan den gizona eginen dut sarri." Enaukon (Errientarendako) mezurik batere eman, eta lehiaz utzi nuen Meudon-era ihes egiteko, eta han bakarrik nahi nituen guzien erraiteko.

2. Dubois-ek dukea bere kargu berriaz eskertu nahi du

Senditu nuen biharamunean berean Belle-Ile ethorria zizatan laur aldien arrazoina, ezpainituen jakin-nahiaren, egitekoetan sartzeko gutiziaren eta Dubois kardinalari gorte egitearen gain baizik emanak. Ez nik ez hark ezkinuen ehoiz zergatik zen asmatuko, guzia ozartasun neurrigabe bateko xedea baitzen. Agorrilaren 23-ko eguerdi ondoko biak hirian, erakarria izana den solasaldiaren biharamuna, Orléans-ko duke Jaunak Dubois kardinala lehen minixtro aithortu zuen, eta Erregeri horrela aitzineratu, lan egiteko orduan. Eguerdi ondoko laurak hirian, Conches Meudon-era ethorri zen, Dubois-ren izenean berri horren ekhartzera, espesuki baitzigorran, erran zautan, hortako gizamenen ekhatzera, kargua osoki zor zaukonari bezala. Ihardetsi nuen idor-idorra eta ustegabe handiarekin Jaun kardinala biziki eskertzen nuela, bere buruaren beharra baizik etzuela nehork berak baino hobeki etzakien gauza batean barne ezartzen ninduelakotz, eta Conches ene ganik bertze erranaldirik eta beretik biziki gehiago gabe itzuli zen (…) Ikusi nuen beraz mezu hortarik Dubois kardinalak nahi zuela ene aburuaz baliatu lehen minixtroko kargura goititua izana zelako, errotik ezin zaitekeelarik eta iduripenik ere batere gabe Orléans-ko duke Jaunaren ganik etzuela jakina, bederen larriki, hortaz zer iragana zen printze horren eta ene artean. Ozarreria hortaz zinez sumindua izan nintzan, haren esker on

delakoak gortea eta hiria bete baitzituen. Zorionez biak ezagutzen gintuzten: baina ez jende gehienek, bereziki gortera hurbiltzen etzirenetan. Enintzan egon adixkide batzuer, eta bertze jende hautetsi batzuer erran gabe hortan barne izaitetik ontsa urrun nindagola, eta Versailles-era joaitea, nahiz biziki goiz zen, biharamunera utzi nuen.

Bizitegiko lehenbiziko barnetara sartzen ari nintzalarik, zer gerta ere han zelatatua bainintzan iduriz, gambarako aitzindari bat jin zizatan Dubois kardinal Jaunak othoizten ninduela gorte xipitik iragan nindadin, eta han "hobiko" athean aurkituko nuela. Delako hobi hori barne bat zen, halako sartze bat egiazkora gabe moldatua, barne xipi aski ilun bat bazegiena, han lehenago Monseigneur neguan usu etzaten zena, egiazko gambararen gibelaldetan, haren ohabidetik sartzen baitzen, atheratzeko mailalde azkarki hertsi eta azkarki ilun batekin, Erregeren bigarren aitzin-gambarara zeramana alde batetik, eta Erreginaren egoitzako gibeletara bertzetik, eta bertze atheratze bat bazuena gorte xipira oinez oin, aitzin-gambara xipi-xipi batean gaindi. Aitzin-gambara hortan nuen aurkitu Dubois kardinala. Hor zerk ezarria zuen eztut jakin. Behar bada ethorria nintzala jakinik, bizitegian sartzean berean haren ganik hara igorria izan nintzanaz geroz, joana zatekeen eni buruz buru bere komplimendu eta ingurubil guzien egiteko, iduriz beldur zatekeelakotz horien onhartzeko ukan nezakeen eta beldurtzen zuen hotzak gezurta zitzan. Dena den, Le Blanc eta Belle-Ile bakarrekin aurkitu nuen. Ikusi nindueneko, ene gana laster egin zuen, lehen minixtro egina nuela eni sinets-arazteko jeus ez ahatzi, eta bere betiereko esker onarekin goraki aithortu zautan etzuela ene aholkuen bidez baizik ibili nahi, eni bere paper-untzi guziak ideki, ezer ez gorde, guzia enekin batean erabaki. Enintzan Rohan-go kardinala bezain sinespera, eta sendi nuen ziona baino hobeki bazakien gizon baten hizkuntza horrek zer balio zuen, eta bere bizkarrekoaren azpian gordetzea baizik bilatzen etzuena, eta bere goititzearen hastiagarri guziaren egoztea, ahal ukan balu, ene gainera, hortarako aholkua emanik, hortan jarraikirik eta ukan-arazirik. Ihardetsi nuen neure baitarik athera ahal ukan nituen komplimendu guziekin, behin ere haren goititzean den gutieneko izana nintzala onhartu gabe, ez eta gobernuko egitekoez hainbertze eskaintza ederren amuari lotzen nindakola. Bozkarioz lurrean etzagokeen. Gibeletarik sartu ginen, hura eta ni, Orléans-ko dukearen gabinetean, hunek, ene ikusten hartu zuen eragozpenaren artetik, mirak erran baitzauztan ere, baina lehen minixtroaren aithortzea aipatua izan gabe. Ene ikustaldia ahal bezenbat

laburtu nuen eta Meudon-era itzuli nintzan hats-hartzera. Aithortze hori, berehala eskutiz ageri hedatuenaz jarraikia eta errexixtratzeaz, ezin gaizkiago hartua izan zen gortean, hirian, eta Frantzia guzian.

Luis XV-garrenaren koronatzetik landa, Madame, Erreientaren amaren heriotzea

1. Clerembault-ko marexalsaren sinestea "pondu ttipietan"

Zenbait dembora bazen Madame, osagarria ezin gehiago azkarra eta jarraikia ukana zuena beti, ez ontsan zela, eta ere aski gaizki sendi hartarik atherako etzen eritasun batera eroriko zela sinetsia ukaiteko. Betidanik ezin gehiago ukana zuen ixuri alemanak, maitasun ezin azkarragoa emaiten zaukon (bere alaba) Lorrenako dukesa Anderearen eta haren haurrendako, Orléans-ko duke Jaunaren eta hunenen gainetik. Lorrenako dukesa Anderearen haurren ikusteko azken gutizian bizi zen, ehoiz ezpaitzituen ikusiak, eta atsegin ezin handiagoa zizakon Reims-en haien ikustea, Lorrenako dukesa Andereak, sakratzea ikusi nahi zuelakotz, hara ekharri behar baitzituen. Madame, bere burua gaizkiago senditu z, biziki hurbiltzen ari zen bidaia hortaz azkarki zalantzan egon zen, eta nahi zuen egun andana bat Errege baino lehenago Reims-era joan Lorrenako dukesa Anderearekin luzazago egoitekotan, hari eta haren haurrer egun berezi bateko hitza emanik. Ikusi da hemen, Monsieur-en heriotzean, beretako hartu zituela Clerembault-ko marexalsa, eta Beuvron-go kondesa zena, beti biziki maitatuak zituenak eta Monsieur-ek etxetik haizatuak, azkarki hastio zituelakotz.

Clerembault-ko marexalsak uste zuen geroaren jakitate handia bazuela "pondu ttipien" erabiltzetik; eta nola, Jainkoari esker, zer den ezpaitakit, eztut gauza hori argituko; Madame-ek ere hortan sineste handia bazuen. Marexalsaren baitara joan zen beraz Reims-ko bidaiaz, bermuki ihardetsi baitzaukon: "Zoaz, anderea, segurtasun osoan, ni ontsa niz." Ezen bazion pondu ttipi horietarik ikusia zuela Madame baino lehen hilen zela, hau, konfienxia hortan Reims-era joan baitzen. Jondoni-Petriko abadia ederrean ostatatua izan zen Lorrenako dukesa Anderearekin, Errege hara ikustera joan baitzizeen bi aldiz, eta Roucy-ko kondearen arreba bat baitzen han abadesa. Madame-ek ikusi zituen sakratzea eta biharamunean ordenako zeremoniak Lorrenako dukesa Anderearekin eta hunen haurrekin galeria batean, hartan lekua hartu

baitzuen ere Potugaleko erregeren anaiak. Baina sakratzetik itzultzean Clerembault-ko marexalsa galdu zuen, Parisen hazaroaren 27-an hil baitzen, lauretan hogei-ta-berderatzigarren urtean, ordurano osagarria, burua, izpiritua eta zentzu guzien erabiltzea berrogeietan bezala ukanik.

(…)

Bere aroko emaztetan izipiritu gehiena, iduritu gabe aphainduena zuena zen, eta lehengo gorteko gauza ohargarrietan gehienik bazakiena, neurtuena zena eta hisikienik ixila. Hortako ohidura hartua zuen gaztaroan urte oso bat hitz bakar bat erran gabe ethengabe egonik, eta horrela bularretako gaitz handi batetik sendatu zen. Ehoiz etzuen ura baizik edana, eta biziki guti. Ainitzetan ere ixila hetan aurkitzen zen kompainiendako eta han atxikitzen ziren solasendako zuen gaitzeste segeretuzkotik heldu zizakon; baina libertatean zenean, xoragarria zen, eta ezin utzia. Usu ikusi dut horrela gehienik hiruzpalaur jenderen artean haren adixkide handia zen Pontchartrain-go kanzelarisaren etxean. Bazituen itzuli bat, gatz bat, xorroxtasun bat, eta horrela jitezkotasun ezin berdindua. Beti gorterako joan-jinetan izan zen, jantzi handitan, abantzu azken eritasunerano. Biziki aberatsa eta zikoitza. Bidetan ala galerietan beti balusa beltzezko maska batekin zen. Behin ere ederra izan ez nahi izan gabe, larru beteginki ederra zuen oraino, eta aireak handisuak emaiten omen zauzkola zion. Bazerabilan bakarra zen, eta aurkitzen zenean eta agurtzen, ehoiz etzuen ekhendu gabe uzten gurraren egiteko. Jokoa azkarki maite zuen, baina harremaneko jokoa eta gotorregia etzen jokoa, gau eta egun ariko zen gogotik. Gai hortan sobera hedatu niz menturaz: bitxitasun ohargarriek lumak dariola egin-arazi dautate.

2. Madame-ren azken eritasuna, heriotzea eta dolua

Madame hanbat gehiago hunkia izan zen adixkide zahar eta min horren galtzeaz nun baitzakien pondu ttipiek beti aitzinetik errana zutena: haren ondotik biziko zela, baina biziki guti. Alabainan, biziki hurbildik jarraiki zizakon. Ur-hanturak, berant ezagutu zenak, egun biziki gutiz hanbat aitzinatze egin zuen nun heriotzeari jarri baitzen bermetasun eta debozione ainitzekin. Abantzu beti ondoan nahi ukan zuen Troyes-ko apezpiku ohia, Clerambault-ko marexalsaren anaia, eta erran zaukon: "Troyes-ko Jauna, horra bada marexalsak eta nik egin dugun joko-aldi bitxia." Errege ikustera jin zizakon, eta sakramendu guziak ukan zituen. Saint-Cloud-en hil zen negilaren 9-an, goizeko laur orenetan, hiruretan hogei-ta-hameka urtetan hurbil. Idekia izan zadin

etzuen nahi ukan, ez eta Saint-Cloud-en osperik. Horrela ilabete bereko 10-ean berean, Saint-Denis-era eremana izan zen doluko gauzarik batere gabeko karrosa batean, karrosaren aitzinean eta ondotik Erregeren bi zaltegietako nerabe batzu, Orléans-ko duke Jaunaren zaintzale 'ta suizak, eta bere oineko mutilak zuzi batzuekin. Charolais-ko Anderaurenak eta Humières-ko eta Tallard-ko dukesek laguntzen zuten bertze karrosa batean, han baitzen ere Châteauthiers-ko Andere Madame-ren aphainketako anderea, Tavannes-ko eta Flamarens-ko anderekin.

Madame-ek bazuen orotan gizonarenik emaztearenik baino gehiago. Azkarra zen, bihoztuna, azken heinerako alemana, zintzoa, zuzena, ona eta ongi-egilea, bere ara guzietan noblea eta handia, eta (lerroaz) zor zizakonarekin zer ikus bazuen orotan azken heinerano ttipia. Basa zen, beti izkiriatzen hetsia, etxean gorte zuen ephe laburretan ezpada; bertzela, bere anderekin bakarrik; idorra, latza, errex hastiatzera ekharria, eta beldurgarria batzuetan egiten zituen atheraldiez, eta nor nahiz; lausengurik batere; izpirituko itzulirik batere, nahiz etzuen izipiritu eskasik; malgutasunik batere, bekaiztia, errana den bezala, azken ttipikeriarano, zor zizakon guziaz; (zaintzale) suiza baten begitartea eta oiesa, horrekin adixkidantza samur eta ezin hautsi bateko gai. Orléans-ko duke Jaunak azkarki maite zuen eta errespetatzen. Azken eritasunean etzizakon sahetsetik higitu, eta beti eginbide handiak emanak zauzkon; baina etzen ehoiz haren gogora ibili. Azkarki dolumindua izan zen. Heriotze horren biharamunean oren batzu harekin bakarrik egon nintzan Versailles-en, eta ikusi nuen saminki nigar egiten.

Embaxadoreak eta gortea Erregeren aitzinera ethorri ziren soineko luze 'ta bizkarrekoekin, halaber odoleko printze 'ta printzesak, eta berdin Duke Jaunaren eta ohean zen Orléans-ko dukesa Anderearen egoitzara, bat eta bertzea izan ondoan Chartres-ko duke Jaunarekin, soineko luze 'ta bizkarrekoetan, Erregeren agurtzen, hau gero izan baitzen Duke Jaunaren eta Orléans-ko dukesa Anderearen ikusten. Erregek ukan zuen parlamentuaren hitzaldia eta kompainia guziena, guziak joan baitziren Duke Jaunaren eta Orléans-ko dukesa Anderearen agurtzera. Erregek (dolu) oihalak ezarri zituen, Madame Erregeren amaren aldeko aitabitxiren alharguna zelakotz. Galtze horrek etzuen harrabots handirik eman gortean ez eta munduan.

*

IV Azken gertakariak, azken gogoetak

1723

Orhoitzapen hauen bururapen agorra

1723-ko urte hunek, bururapena *Orhoitzapen* hauer eman dauetan muga baitu, eztitu aitzinekoen betea ez nasaitasuna ukanen. (Erregeren) sakratzeko egin ziren berrikeriek sumindua ninduten; banakusan baxtarten handitasun guzien berriz jartzea abian, bihotza erdiratua nuen ikusiz Erreienta bere minixtro ahalgegarriaren gatinetan, eta hura gabe eta haren bitartez baizik jeusetara ez menturatzen; Estatua abantail gosearen, zikoizkeriaren, zorigaitzeko (minixtro) horren erokeriaren aztaparretan hortako erremediorik batere izan gabe. Zenbat jakina banintzan ere Orléans-ko duke Jaunaren ahultasun harrigarriaz, ezin sinetsirano joan zizatan begien aitzinean lehen minixtro hori egin zuelarik hortaz nik errana naukon guziaren ondotik, berak errana zautanaren ondotik, azkenik nik bezaka ikusia eztuenarendako ezin sinetsizko moldean, egia zuzenenarekin kondatua baitut. Enindakon gehiago hainbertze antze handi eta baliagarri ehortziak zizazkon printze gaizo horri hurbiltzen higundurarekin baizik; enindagokeen hartaz azkarki senditu gabe Izraeldar gaixtoek desertuan manaz zioten hura: *janari gezegi hortaz arima okaztatua dut*. Enindakon gehiago mintzatzera joaiten. Ohartzen zen, bihotz-mindua zela sendi nuen; haren gana ene hurbiltzea bilatzen zuen, alta gobernuko egitekoez arinki eta hertsaturik baizik mintzatzera menturatu gabe, nahiz hortara gabe ezin egonez. Doi-doia naukon ihardestea emaiten; eta bururatzen nuen ahal nuen bezain goiz; entzunaldiak laburtzen nituen eta emekiago egiten; haren erasiak gogo hotzez hartzen nituen. Alabainan, zer ukanen nuen erraiteko edo eztabadatzeko gehiago nagusi etzen Erreient batekin, ez bere buruaren ere, erresumarena izaitetik ontsa urrun, hartan oro nahasmenean banakusalarik.

Dubois kardinalak, aurkitzen nindunean, abantzu gortea bazegitan. Eni nundik lot etzakien. Aro guzietako eta ethengabeko estekak hain azkarrak bilakatuak ziren Orléans-ko dukearen eta ene artean, nun lehen minixtroa, aldi bat baino gehiagotan hek zundaturik, ezpaitzaitekeen hauts zezazkeela gogatzera mentura. Ukan zuen atherabidea ene nardatzea izan zen bere nagusiari harr-araziz ene aldera

bi-bier biziki berria zizakun gibelera egoite bat, baina ohiduraz eni baino gehiago gostatzen zizakona, eta erraitera mentura banindaike konfienxia hortan hain usu aurkitua zuen abantailaz; eta ni hura gabe banindagon gogotik baino gehiago, ondorio onik batere uste enukeelako hisian, ez Estatuaren onarendako, ez Orléans-ko duke Jaunaren ohore 'ta abantaileko, osoki Parisko bere atseginer utzia baitzen, eta azken heinean bere minixtroari. Ene debaldetasun osoaz segur izaiteak baztertu ninduen gero eta gehiago, bertze eginara batek lanjerrean ezar nindezakeelako aieru den gutienik ehoiz ere ukan gabe, ez eta, zenbat ahula eta Dubois kardinalari utzia bazen ere Erreienta, (minixtroa) hel zaitekeela ene urrun-araztera, Noailles-ko dukea eta Canillac bezala, ez ere delibero hortara ene ekharr-arazteko higunduren eman-araztera. Ene ohiko bizian gelditu nintzan beraz, erran nahi da Orléans-ko duke Jauna nehoiz buruz buru baizik ez ikusiz, baina apurka apurka ikusiz gero eta bekanago, hotzik, laburzki, gobernuko egitekoez solasean batere abiatu gabe, hasten zituenean hura hetarik baztertuz ere, eta laster heien eror-arazteko moldean ihardetsiz. Ibilara horrekin eta sendimendu bizi horiekin, desuetan barne izan enintzala errex ikusten da, eta urte hortaz erraiteko ukanen dutanak Orhoitzapen on eta egiatien berezitasun eta erakaspenaren usain gutiago ukanen duela, nola egunkarietan barreatuak diren egintzen idorra eta agorra.

Dubois kardinalaren ezkontzatik Le Blanc Estatuko segeretariaren haizatzera

Dubois kardinala, aphezeriaren bilzarreak lehen buruzagitzat hautatuena zuena, eta hortaz azkarki lausengatua izan zena, La Jonchère (Estatuko diruzainaren) auziari jarraikitzen zizakon hartan barne ezarr-arazia zuen Le Blanc-en galtzeko. Prie-ko Andereak et Duke Jaunak etzuten bere burua hortan gupidetsi. Diruzain hori Bastillan ezarria izana zen eta hertsiki zaindua, han erran eta egin baitzuen nunbait han nahi ukan zen guzia. Horrela, Orléans-ko duke Jaunak Le Blanc-en ganik ukanak zituen zerbitzu ageri eta gordek etzuten Duke Jaunaren eta Dubois kardinalaren oldearen aitzinean atxiki ahal ukan. Le Blanc-ek ukan zuen Estatuko segeretariko karguaren uzteko manua eta ordu berean Paristik hamabortz edo hogei lekoatara joaitekoa, Doux-era,

Tresnel bere suhiaren lur bat, eta datxikola Breteuil, Limoges-ko intendanta gerlako Estatuko segeretari egina izan zen haren orde.

Gertakari horrek jende guzia lastimatu zuen. Le Blanc-ek etzuen ehoiz nor zen ahatzia. Ikustatekoa zen den xipienekin, behar zuen lekuan eta jaun horiek hala eztirenean errespetuduna, orori zerbitzu egina, garaziaduna eta ezetarano arrazoinkatzen zena, deliberatua, ohartia, argi ikusten zuena, langile biziki ahalduna, aitzindari guziak eta bere karguaren menean zituen guziak ontsa ezagutzen zituena. Erran daiteke gupidesterik gabeko oihu eta dolu publikoak izan zirela, nahiz bazuen zenbait dembora jokaldia egina senditzen zela. Ustegabea etzen hala ere gutiago handia eta orotakoa izan Breteuil haren lekuan ikusiz, eta hortako erresumako intendantgoa ahulenen eta azkenetarik hartua izaiteaz, oraino biziki guti aitzinatua zen adin batean, ehoiz troparik ikusi gabe eta aipatzen ere entzun gabe, ez gaztelurik ez gerlari doakon deusik, ehoiz lanekoa eta lanean jarraikia izan etzena, eta arropako jauntto xoriburu horietarik zena, bere atsegineko baizik ari etzena. Horrelako fortunaren arrazoin luzaz gordea bere intendantgoa ttipiko halabeharra izan zizakon preseski.

Bazituen urteak eta urteak Dubois ezkondua zela, beraz biziki ilunean. Emaztea ontsa ordaindu zuen benefizioak ukan zituenean ixilik egon zadin; baina handira abiatu zenean azkarki trabatua izan zen. Sortze aphalak etzaukon elizako karguetan igaitea baizik uzten, eta hortan emazteak huts egin-araz zezon beti ikaran zagon. Ezkontza Limoges-ko herrialdean egina zen eta herrixka bateko parropian. Cambrai-ko arxapezpikugora izendaturik, Breteuil-i segeretuaren erraitera deliberatu zen, ezkontzaren lekukotasunen trebeki eta harrabotsik gabe ekhentzeko deus etzezan ahatz othoiztuz.

Dubois jadanik zen egonaran, Breteuil-ek ikusi zituen beretako zeruak idekiak zerbitzu hoin minbera eta hoin larriaren emaitera heltzen baldin bazizakon. Izpiritua bazuen eta baliatzen jakin zuen. Lehiatuki Limoges-era itzuli zen, eta laster ondotik, bapateko egiteko batendako itzuli ttipi baten estakuru, joan, hirurzpalaur mutilez jarraikia bakarrik, bere bidaia gauazko oren batez heltzeko moldean arautuz, ezkontza egina izana zen herrixka hortara, erretoraren etxean jautsi ostaturik ez izanez, hari ostatatzea etxekoz etxeko galdegin gauak hatzemana zuen gizon batek bezala, gose 'ta egarriz hiltzen ari zena eta urrunago ezin joan. Erretor onak, Jaun intendantaren ostatatzeko gozoaz xoratua, etxean aurkitu ahal zuen guzia lehiatuki antolatu zuen, eta ukan zuen

harekin buruz buru auhaltzeko ohorea, neskatoak asetzen zituela bi mutilak, Breteuil horrela hetaz neskatoaz bezala arindu baitzen erretorarekin bakarrik egoiteko. Berteuil-ek edatea maite zuen eta hortan nola egin bazakien. Auharia ona aurkitzen zuenarena egin zuen eta arnoa oraino hobea. Erretorak, bere auhaltiarraz loriatua, etzuen haren berrindartzeaz - herrialde hortan dioten bezala - bertzerik gogatu; pitxerra mahian zen; aldizka hartarik elgarri bazematen erretor ona xoratzen zuen etxekotasun batekin. Breteuil, bere xedea baitzuen, nahitara heldu zen, eta gizagaizoa xutik ezin egoiterano, ez ikusterano, ez hitzik erraiterano mozkortu. Breteuil-ek, izanara hortan, zanka berri batzuekin azkena ithoa ukan zuenean, auhariaren lehenbiziko oren laurdenean atheraia zaukonaz baliatu zen. Galdegina zaukon hea errexixtroak ordenu onean zituenez, eta noiztik, eta ohoinen ganik segurtatzeko estakuru, nun zaduzkan eta giltzak nun atxikitzen, hanbatetan nun Breteuil ontsa segur izan zenean erretorak bere zentzuetarik bat ere balia etzezakeela, giltzak hartu zituen, harmairua ideki, behar zuen urteko ezkontzen errexixtroa hartu, bilatzen zuen orstoa ontsa garbiki ekhendu, eta hanbat gaixto orsto berean gertatu ziren bertze ezkontzendako, sakelan sartu, errexixtroa aurkitua zuen lekuan berriz ezarri, harmairua hetsi eta giltzak hartuak zituen lekuan ezarri. Ukaldi horren ondotik etzuen abiatzeko argi hastearen igurikatzea baizik gogoan ukan; erretor ona bere arnoaren irezten zurrungan utzi, eta neskatoari pixtola zenbait eman.

Hortik Brive-ra (*) joan zen, notariaren etxera, haren berri ontsa jakinik, ezkontzako kontratua egina zuenaren bulegoa eta paperrak hark baitzituen, han harekin hetsirik jarri, eta bortxaz eta larderiaz ezkontzako kontratuaren izkiribua eman-arazi. Gero emazteari mezutu zuen, Dubois aphezak jakina baitzuen haren eskuetarik ezkontzako kontratuaren kopiaren hartzen, ezkontza hortaz hitz bakar baten erraitera nehoiz menturatzen baldin bazen presondegi zilo barnatuenez mehatxatu, eta ixilik egonez mirak eta bertzeak hitzeman zauzkon. Gainera segur ezarri zuen erran edo egin zezakeen guzia auherretan izanen zela, ezer phoroga ahal etzezan behar zena egina baitzen, eta, higitzera menturatzen bazen, gaitzerraiteaz eta bairaz kondena-arazteko, eta ilea motz-arazirik komentu bateko presondegian usteltzen uzteko. Breteuil-ek eman zauzkon bi paper gotor horiek Dubois-i, hunek zenbait dembora berantago Estatuko segeretarigoko karguaz saristatu baitzuen.

Emaztea etzen "kha" erraitera menturatu. Senarra hil eta Parisera ethorri zen. Uzten zuen neurrigabetik gotor eman zizakon. Ilunbean bizi izan da, baina azkarki gozoan, eta Parisen hil hogei urte baino gehiago kardinalaren ondotik, haren ganik haurrik ukan gabe. Dubois kardinalaren anaia, hunen ganik Erregeren gabineteko segeretarigoako kargua ukan zuena, eta ezkutari lehenak ukana zuen zubi-bidetako kargua ere, eta gizon on eta zuzena zena, harekin biziki ontsa bizi izan zen beti. Bere herrixkan baserriko mediku aski gaixtoa zen, anaiak Parisera ekharr-arazi zuena Estatuko segeretari izan zenean. Gero ixtorio hori jakina izan da, eta nehork eztu ez ukatu ez ezeztatu.

(*) Dubois-tarrak Brive (orai "Brive-la-Gaillarde") hirixkakoak ziren ethorkiz (*Itzultzalearen oharra*).

Dubois kardinal eta lehen minixtroaren eritasuna eta heriotzea

1. Meudon-go erakustaldiaren ondorio gaixtoak

Ekhainaren 11-an Errege Meudon-en egoitera joan zen. Estakurua Versailles-ko jauregiaren garbitzea izan zen, arrazoina Dubois kardinalaren gozoa. Aphezeriaren bilzarreko buruzagi izaiteaz ezin gehiago lausengatua, nahi zuen batzuetan ohore hortaz gozatu. Nahi zuen ere batzuetan Indietako kompainiako bilkuretan gertatu; Meudon-ek Parisera hurbiltzen zuen Versailles-ko bidetik erditan baino gehiago, eta galtzadatik begiratzen. Zirtzilkeriek emanak zauzkoten atsekabe ohiko eta mingarri batzu, karrosaren mugimenduak azkartzen zituenak eta berak artha handiz gordetzen. Erregek egin zuen Meudon-en bere etxearen erakustaldi bat lehen minixtroaren urguluak hartan gozatu nahi ukan baitzuen; khario gosta zizakon. Zaldiz igan zen bere irabazte osoaz hobeki gozatzeko, bortizki min ukan zuen, eta gaitza hanbat azkartu nun ezpaitzen laguntza bilatu gabe egon ahal izan. Mediku eta barber aipatuenak ikusi zituen, segeretu handienean, orok ethorkizuna biziki gaizki ikusi baitzaukoten, eta ikustaldien berrhetze eta salatze zenbaitez gauza agertzen hasi zen. Etzuen Parisera joaitea neke handirekin gehien gehienik bizpahirur aldiz baizik eginez jarraiki ahal ukan, eta bakarrik bere gaitzaren gordetzeko ezpaitzaukon bakerik abantzu batere gehiago utzi.

(…)

A. Daubenton, Espainiako erregeren kofesaria hil zen Madrilgo jesuisten ikastegian, han ospe handiz ehortzia izan baitzen, eta biziki dolu guti utziz. Agorrilaren 7-an hil zen, hiruretan hogei-ta-sei urtetan.

(…)

Dubois kardinalak etzuen ukan haren heriotzearen jakiteko atsegina. Jarraiki zizakon hirur egun berantago Versailles-en. Berak gaitza ahal ukana zuen bezenbat gordea zuen, baina Erregeren erakustaldiko zaldi-lasterrak hanbatetarano samindua zaukon nun ezpaitzeen gehiago laguntza haien ganik ukan zezakeener gorde ahal ukan. Ezer etzuen ahatzi alta munduari egiteko: ahal bezenbat bazoan konseilura, embaxadorer jakin-arazten zeen Parisera joanen zela, eta etzen joaiten, eta etxean ezin ikusia bilakatzen zen, zer nahi erraiten zeen bere kaderan zenean zerbait erran nahi zaukotener jauregi zaharraren eta han bizi zen jauregi berriaren artean, edo bere kaderan sartzean edo handik jalgitzean. Agorrilaren 7-ko ebiakoitzean, hain gaizki gertatu zen nun barber eta medikuek erran baitzaukoten biziki lehiatua zen operazione bat egin beharko zuela, hori gabe ezpaitzuen biziki egun gutien bizia baizik ukaiten ahal, zornakizuna pixaxtrean leherturik zaldiz igan zen egunean, gangrena emanen baitzaukon, jadanik han ezpazen, usuaren ixurtzetik; eta erran zaukoten berehala Versailles-era ereman behar zela operazione horren egiteko. Berri izigarri horrek eman zaukon nahasmenak hanbatetarano aurdiki zuen nun ezpaitzen andetan eremana izan ahal biharamun igande 8 guzian; baina astelehen 9-an goizeko bortzetan egin zen.

Apur bat atseden hartzen utzirik, medikuek eta barberek eskaini zaukoten sakramenduen ukaitea eta gero berehala operatzea. Etzen hori bakean hartua izan: erakustaldiaren egunaz geroz abantzu batere etzen haserretzetik gelditua. Hala ere, ephe zenbait berantago, Versailles-ko errekolet baten bila igorri zuen eta harekin nunbait han oren laurden bat egon zen. Hoin oneko gizon handiak, et hoin ontsa prestatuak, etzuen gehiagoren beharrik. Hori bertzela lehen minixtroen azken sakramenduetako abantail berezia da. Gambarara sartzean elizakoak eskaini zauzkoten; hori laster errana zela egin zuen, baina kardinalendako behar zela hark etzakien zeremonia bat eta galdegitera Parisera Bissy-ko kardinalaren gana igorri behar zela. Elgarri behatu zuten eta luzera egin nahi zuela entzun; baina operatzea lehiatua baitzen, eskaini zaukoten gehiago igurikatu gabe. Eroturik handik harat igorri zituen eta etzuen gehiago aipa zezoten nahi ukan.

Fakultateak, baitzakusan den gutieneko gibelatzeak zuen lanjer hurbil-hurbila, hori mezutu zaukon Orléans-ko duke Jaunari Meudon-era, hura ordu berean Versailles-era ethorri baitzen eskupean aurkitu zuen lehenbiziko karrosan. Kardinala operatzera sustatu zuen, gero hori eginez segurtasunik bazenez fakultateari galdegin. Barberek eta medikuek ihardetsi zuten ezer etzezaketela hortaz segurta, baina kardinalak etzuela bi orenen bizirik sarri berean ezpazizakon egiten. Orléans-ko duke Jauna eriaren ohera itzuli zen eta hanbat eta hain ontsa othoiztu zuen nun onhartu baitzuen. Operatzea bortz orenak hirian egin zuen beraz, bortz minutaz, La Peyronie, Maréchal-en kargua jarraikia zuen Erregeren lehenbiziko barberak, han baitzen Chirac-ekin eta bertze mediku eta barber aipatuenetarik zenbaitekin. Kardinala ari izan zen bitxiki oihuka eta erasian; Orléans-ko duke Jauna gambaran sartu zen gero berehala, fakultateak ezpaitzaukon gorde zauria zen bezala eta handik jalgia zenarekin eriak etzuela luzaz iraunen. Alabainan, hogei-ta-laur oren zuzen ondotik hil zen, agorrilaren 10-eko asteartean, arratsaldeko bortz orenetan, barberen eta Chirac-en kontra hortz karrasketan, ezpaitzizeen zer nahi erraitetik gelditua.

Oliadura ekharri zizakon bizkitartean. Komuniatzetik etzen aipatu, ez eta edozein aphezik haren ondoan, eta bizia horrela bururatu zuen etsipen handienean eta utzi behar ukaiteko errabian.

2. Fortuna handienera nola heldua zen

Fortuna harekin ontsa jostatua zen ere. Khario eta luzara erosia zuen neke, artha, xede, khexu, lan eta gogoko oinaze mota orotakoen bidez, eta gainera hedatu zizakon azkenean handitasun, bothere, neurrigabeko aberastasunen uhaitzekin, horietaz gozatzera laur urtez baizik ez uzteko, aro hori ukan zuen Estatuko segeretarigoan ezartzen baitut, baina bi urtez bakarrik kardinalgoan eta lehen minixtrogoan ezartzen baldin bada, guziaren ekhentzeko gozameneko atsegingarrienean eta beteginenean, hiruretan hogei-ta-sei urtetan. Hil zen beraz bere nagusiaren nagusi oso, eta gutiago lehen minixtro nola erret-larderiaren indar osoak duen beregaintasun eta betetasun guzia eskuan, postetako intendant goien, kardinal, Cambray-ko arxapezpiku, zazpi abadiekin, horietaz ezin asea izan baitzen azkenerano, eta lehen urratsak abiatuak zituen Cîteaux-koaz, Prémontré-koaz eta bertze ordena-buruez jabetzeko, eta gero egiaztatua izan zen berrogei mila libera ezterling-ko lan-sari bat ukaiten zuela Angeleterratik.

Ukan dut sartzeak zenbatekoak zituen bilatzeko gutizia, eta uste ukan dut aurkitu dutanaren hemen ezartzeak balio zuela, benefizioenak ttipituz ere, hantze ororen baztertzeko.

Cambray..... 120.000 libera
Nogent sous Coucy 10.000
Saint-Just 10.000
Airvaux 12.000
Bourgueil 12.000
Bergues-Saint-Vinox 60.000
Saint-Bertin 60.000
Cercamp 20.000
324.000

Lehen minixtro 150.000
Postak 100.000
250.000

Angeleterrako lan-saria, libera ezterlinga 24 liberetan: 960.000

Horrela, benefiziotan 324.000
lehen minixtro 125.000
postak 100.000
Angeletarratik 960.000
1.534.000

Ezarri ditut ere berdin ttipituz lehen minixtrogo eta postetako lan-sarietarik hartzen zituenak; uste dut ere kardinal bezala bazituela aphezen (bilzarretik) hogei mila libera, baina eztut segurtasunekin jakin ahal ukan. Law-en ganik ukana eta baliatua zuena neurrigabea zen. Hori Erroman azkarki erabilia zuen kardinalgoko; baina diru garbi mirestekoa gelditua zizakon. Bazuen zilharrezko eta zilhar urreztatuzko baxera ederrenez ezin gehiago, eta miragarrikienik landuaz; muble ederrenez, mota orotako joia arraroenez, herri orotako karrosa-zaldi eder eta arraroenez, eta karroseria ospetsuenez. Mahia hautekoa zuen eta orotan handizkienik egina, eta ohoreak biziki ontsa egiten zituen, nahiz bera ezin gehiago jale zuhurra zen jitez eta osabidez.

Orléans-ko duke Jaunaren ikaslegoak eman-arazia zaukon Nogent-sur-Coucy-ko abadia; printze horren ezkontzak Saint-Just-ekoa;

Hanovre-ra eta Angeleterrarako lehenbiziko bidaiek Airvaux eta Bourgueil-ekoak; betze hirurak ukan zuen bothere osoak. Zer fortunako gizagaitza! eta nola eta zein lasterrez aurdikia! Hari daiteke bada eman salmoko erranaldi hau:

"Iragan da, eta gehiago etzen, ezer ezta gelditu; hatzak berak ezabatu zauzko."

"Ikusi dut fedegabea Liban-go alzibreak bezala ospatua eta goititua;

"Eta iragan da, eta izaiterik etzuen, eta haren lekua ezta ezaguna."

(Ps. XXXVI, 35-36)

Astezken arratsean, hil zen biharamunean, Versailles-tik Parisera eremana izan zen Saint-Honoré-ko bilzarrearen elizara, zenbait egun berantago han ehortzi baitzen. Akademiek, hetan barne baitzen, egin zaukoten bakoitzak zeremonia bat berak han izanez, apezeriako bilzarreak bere buruzagiari bezala bertze bat; eta lehen minixtro bezala, bat ukan zuen Andredona-Marian, meza-erraile Noailles-ko kardinala izan baitzen, eta gorte lehenak han. Batean etzen hil-pheredikurik izan, etziren hortara menturatu. Anaia, hura baino zaharragoa eta gizon zuzena, Estatuko segeretari zelarik ethorr-arazia zuena, ukana zuen gabineteko segeretari karguarekin gelditu zen, emana baitzaukon, eta Beringhen ezkutari lehena hil zenean, hark baitzituen eta gaitasun ainitzekin atxikiak, ukan-araziak zauzkon zubi-bidekin. Dubois horrek, biziki lañoa zena, ondoriotasunez ukan zuena neurri gabea zen. Seme bat baizik etzuen, Saint-Honoré-ko kalonje, behin ere kargurik ez benefiziorik nahi ukan etzuena eta biziki sainduki bizi zena. Ondoriotasun aberats hortartik abantzu jeus etzuen hartu nahi ukan. Zati bat erabili zuen osabari halako mauzoleo baten egiten, ederra baina neurrikoa, harresiari lotua, elizaren behereko aldean, kardinala han ehortzia baita harridazki biziki girixtino batekin, eta bertzea beharduner banakatu, madarizione ekhar zezon beldurrez.

Fortuna miragarriaz bada behazun ainitz, batzu ere jende ethorki gutikoenak, baina bat ezta Dubois kardinala zen bezenbat hartara deraman eta hura badatxikan mota orotako antze gakeko, azpikeria aphal eta iluna baztertzen bada, nehorenik. Izpiritua azkarki ohikoa zuen, jakitatea arruntenetarik, gaitasuna jeus ez, itxura hudo batena, baina hantua, elhea gozagaitza, jauzika, beti dudazkoa, falsukeria bekokian izkiriatua, bizi-moldeak sobera neurririk gabeak gordeak ahal izaiteko, oldar batzu ero-aldi batzuendako har zaitezkeenak, burua aldian egiteko bat baino gehiagoren edukitzeko ahalik gabe, eta bera bere

abantailekorik baizik jeus han ezartzeko eta hari jarraikitzeko: sakraturik jeus ez, atxikimendu mota batendako ere errespeturik ez; leialtasun, hitzeman, ohore, zuzentasun, egia ororendako gaitzeste aithortua; gauza horiez guziez jostatzea estimu handitan eta jarraikian erabilia; atseginkoi handi-nahi bezenbat; guzia mota orotan nahi, bere burua berarendako guzia zizakona, eta bera etzen guzia jeus ez, eta bertzela egitea eta gogatzea erokeria hutsa.

Horrekin, ezti, aphal, malgu, lausengari, mireslari, molde orotara aldatzen zena eta errextasun handienean, eta jende mota ainitzen itxura hartzen, eta usu molde kontrakoenena, gogoan hartuak zituen helburu guzietara heltzeko, eta bizkitartean jendearen beregana biltzeko ahal biziki guti. Haren arrazoinkatzea, oldeka, ufadaka, nahigabean ere bihurdikatua, zentzu eta zuzentasun gabekoa; gozagaiztasuna orotan bazarraikon. Hala ere bizitasunezko sista gozagarri batzu hori baizik izan etzaiten nahi zuenean, ixtorio jostagarri batzu, baina ahozkatzeaz andeatuak, ona ukanen zuena falsutasunak ohidurara itzulia zaukon moteltasun hura gabe, eta ihardesteko eta mintzatzeko beti zuen ezpaiak. Horrelako hutsekin, ezin asmatua da nola bere gana bildu ahal ukana duen gizon bakarra Orléans-ko duke Jauna izana den, hanbat izpiritu bazuena, izpirituan hanbat zuzentasun, eta gizonez jakin zaitekeen guzia hain zalu hartzen zuena. Bildu zuen haurrean, erakaslegoko karguan; mutiko gazte zenean bere ganatu, libertatearendako, alegiako itxura ederrarendako, zirtzileriara eremana izaiteko, erregela ororen gaitzesteko zuen ixuriaren bidez; bihotza, gogoa eta eginara sineskabe jakintsunen erakaspen ederrekin andeatuz, printze gaixo hori ezpaitzen horietarik behin ere urrundu ahal izan, ez eta ere beti itho nahi ukan zauzkon arrazoinaren, egiaren, konzienziaren sendimendu kontrakoetarik.

3. Dubois eta Erreienta

Dubois, haren baitan horrela sarturik, etzen eman abantail guziak haren fagoreari zatxikazkon bere nagusiarekin molde guziez ontsa egoiteko artharen hartzeari baizik, etzoazilarik oraino biziki urrun, baina ziren bezala, Saint-Eustache-ko, gero Saint-Laurent-ko erretoraren mutilarendako ontsa gotorrak baitziren. Etzuen beraz bere printzea nehoiz begietarik galdu haren antze handiak ezagutzen baitzituen eta hetaz baliatzen jakina zuen huts handi guziak ere, eta egun oroz emaiten zauzkonak, gotorrena ahultasun ezin handiagoa baitzen, eta Dubois-ren ezperanza hobekienik hartan oinarritua. Horrek zuen ere lagundu bazterrara utzia izaitea jasan behar ukan zuen aldietan, eta guzietarik

gaizkorrenean, Erreienziako hastapenean, ikusi baita nolako antzearekin jakina zuen hartara hurbiltzen. Nagusi zen talendu bakarra hori zuen, azpikeria ilunekoa, horrek manatzen duen guziarekin. Bere nagusia bildu zuen, hemen ikusi den bezala, Estatuari hanbat gaitz egin zaukoten Angeleterrako lilluramenduen bidez, eta ondorioek oraino hain gaizkorrak egiten baitauzkote. Bortxatu zuen eta berehala lotu, Errege hil izan balitz, elgarren laguntzea abantail zuten bi bothere-nahi zuzengaitzen abantail berezi horri, eta Orléans-ko duke Jaunak bere burua eremaitera utzi zuen Canillac-en elhasturiaren bidez, Noailles-ko dukearen alegiazko arrazoinkatze barnatuenez, Stairs-en aire handi eta ozarrerienez, larderia baitzuen, eta hori kononaren ukaiteko gutiziarik batere gabe: gehiegi errepika eztezaketan egia bitxia da, betan eta jarraikian ezagutu dutalakotz; eta bitxia diot, ezpaita gutiago egia korona erori balizako eta ukaiteko ala atxikitzeko eragozpenik batere gabe ere, hartaz zamatua, poxelatua, trabatua aurkituko baitzen, biziki eta biziki, askietsia izanen zen baino gehiago.

Hortik, haren eta Dubois-ren arteko esteka baitezpadako eta min hori, lehenbiziko aldian Dubois Holandara joaitera heldu zenean, nekerik gabe izan etzena, eta horrek gero Hanovre-ra eraman baitzuen, gero Londresera, eta bakarrik antolabide guziaren nagusi bilakatzera, zatiz hori nagusiaren ahultasunari ekhenduz, zatiz hortan hobe batez zerbitza etzaitekeela hari burua hantuz, nehor etzaitekeelakotz izan bera zen bezala antolabidearen segeretuzko oinarria bazegien egiazko korropiloaren nagusi, hau izanez, Errege hil izan baliz, bi zuzengabeko botheredunen elgarren arteko laguntza hori, gauza lanjerosegia Orléans-ko duke Jaunaren begietan hartaz bertze nehori salatzeko, antolabide guzia bakarrik manatu behar baitzuen, alta, Estatuaren bertze edozein abantail ezagungarrienaz eta agerienaz axolatu gabe. Dubois jarri zen hortik, Angeleser nahi ukan zuten guzia emanez, Londresen bere abantailetan lan egiteko libertate osoan, hortako ezpaitzen antolabidetako trebetasun handirik ukan behar.

(…)

Horra zerk dituen, gaitasunik batere ukan gabe, Dubois-ek Angelesekin egin dituen antolamendu guziak bururatu, hain zirelarik Frantziaren abantailaren eta Europa guziaren onaren kontrakoak, bereziki Espainiarendako hain kaltegarriak, eta zerk duen eskukaldi ber batez Dubois-en handitasun izigarria oinarritu eta lehiatu, hunek, Angeleterratik itzultzean, konseiluak itzulipurdikatu baitzituen Huxelles-

ko marexalaren eta atzerrietako konseiluaren itzulipurdikatzeko, eta bere esku bakarrean hartzeko, Estatuko segeretari izenarekin (…) Estatuko segeretaritik bertze guzira bidea labur izan zen eta errex; Espainiarekin has-arazi zuen gerla den arrazoin arinenik gabe, hango untzieriaren hondatzeko Angelesen nahitara, eta Frantziaren abantail agerienaren kontra, eta Orléans-ko duke Jaunaren berarenaren, izan zen (kardinal) xapelaren saria, gero laster lehen minixtrogora ereman zuena.

Eta zabaldu ondoan nola, gaitasunik batere gabe, Dubois hoin handi egina izan den Angeleterraren bidez, Frantzia haren menera emanez, baina ainitz gehiago Espainia, estonatzen da nola hain laster ondotik (Espainiako) ezkontza bikunaren egitera heldu den, oroz gainetik Espainian Orléans-ko duke Jaunaren kontra hartuak zituzten gogo gaixtoekin, Erreient izan zen baino leheneko eta gero ere, gai hori argitzeko errexa izanen da (…) Etziren beraz mirak izan ezkontza bikuna hoin errex eta hoin laster egina izan baldin bazen, hortan Dubois aphezaren antze guzia ezpaitzen asmatzea eta eskaintzeko ozartasunaren ukaitea baizik izan. Hori da biziki garbiki ikusi nuena Espainian, eta Espainiako erregeren gogoa etzela nehoiz Orléans-ko duke Jaunaren aldera sendaturik izana, eta haren minixtroarenera, ez eta erreginarena ere, den artha handienarekin hartu zituzten arak eta neurri zuzenenak izanik ere, ezpaitzautaten meatilla bezain arin zen lano hori loditu ahal ukan, eta gauza bera senditu nuen Grimaldoko markesaren baitan. Horra zein izan ziren Dubois-en delako gaitasun haren mirak.

Etzuen gehiagokorik erakutsi gobernatzeko moldean egiazko nagusi bilakatua izan zenean. Zuen artha guzia itzulirik bere nagusiak, hunen ahultasuna ontsa ezagutzen baitzuen, ihes etzezon egin, ahitu zizakon printze horren ordu guzien barrandatzen, zer bazegien, nor bazakusan, bakoitzari zenbat ordu emaiten zaukon, zuen omorearen, begitartearen, entzunaldi bakoiztik edo atseginaldi bakoiztik landa erraiten zuenaren; nor zen barne, zer solas atxikiak eta nortaz, eta gauza horien guzien akomeatzen; oroz gainetik (jendearen) izitzen eta ohiltzen printzearen gana zuzen joaiteko aski ozarra izaitearen debekatzeko, eta neurri ororen hausteko haren baimena eta aithorra ukan gabe hortako ausartzia zuenari. Barrandatzek zauzkoten hartzen egun guziak, bere urratsak oro hetan arautzen baitzituen, eta mundu guziaren, salbuespenik gabe, hain labur atxikitzeak, nun gauza orok ezpaitzuen haren eskutik baizik behar, egitekoek, garaziek, ezteuskeria ttipienetarano, eta haren erhien artetik joaitera entseatzen zen guziari

huts egin-arazteak, eta entseatzaler ez barkatzeak, orotan jaukitzen baitzizeen ezin jabalduzko moldez. Horri behatzeak eta manu emaiteko azal baitezpadako batek ordu guziak betetzen zauzkoten, hala nola nun ezin hurbildua bilakatua baitzen, entzunaldi publiko batzu eta atzerrietako minixtroer bertze batzu ezpada. Oraino hetarik gehienek ezin zezaketen hunki, eta mailalde zenbaitetan iragaiten igurikatzera bortxatuak ziren, eta bere harat-hunatak hetan gordetzen zituen bertze leku batzuetan, han aurkituko zituela beha etzagolarik. Aldi batez surat egotzi zuen guziak hetsiak ziren eskutitz meta bat izigarria, gero orduan bere gostura zela gozatasunez oihu egin. Hil zenean aurkitu ziren milaka, guziak zigilatuak.

Horrela guzia gibelerat utzia zen, mota orotan, nehor, minixtro atzerritarrak ere, Orléans-ko duke Jaunari deitoratzera menturatu gabe, eta printze hori, osoki bere atseginer emana, beti Versailles-tik Pariserako bidean, libertate hortan izaiteaz ontsa gozatua, eta bere paper-untzian beti aski ezteuskeria ukanez Erregerekilako lanaren betetzeko, ezpaitziren erabakiak ziren gastuetan ezartzeko baimenak baizik, edo karguetako galdeak edo hutsik ziren benefizioak. Horrela etzen abantzu egiteko bat ere deliberatua izaiten, eta guzia nahasmenean zagon. Molde hortara gobernatzeko ezta gaitasun beharrik.

(…)

4. Dubois-en "erokeria" zenbait

Dubois-en erokeria publikoek, oroz gainetik minixtro izan ondoan gehiago neurrian atxiki etzituenez geroz, liburu bat balegikete. Eztitut erakuskarri bezala batzu baizik erakarriko. Oldeak egin-arazten zaukon batzuetan gambara bateko itzuli osoa eta bikundua mahi eta kaderen gainetik lasterka lurra oinaz hunki gabe, eta Orléans-ko duke Jaunak errana dauta gertaldi batzuetan usu horren lekuko izan dela.

Gesvres-ko kardinala deitoratzera jin zizakon Orléans-ko duke Jaunari, Dubois kardinalak hitz itsusienekin haizatua zuelakotz. Bertze nunbait ikusi da berdin egina zuela Montauban-go printzesarekin, eta Orléans-ko duke Jaunak haren zinkuriner emana zeen ihardespena. Egia hobeki merezi etzuela da. Harrigarria Gevres-ko kardinala zen gizon bizimoldeko, seriostasuneko eta gaitasuneko bati berdin erran zaukola da, beti Dubois kardinala konseilu onekoa aurkitua zuelarik, eta eman berria zaukonari jarraikitzea ontsa eginen zuela uste zuelarik. Badiduri,

hori ikusirik, horrelako galdez arindua izaiteko zela; eta alabainan etzizakon geroztik ekharri.

(…)

Kardinal izan zen biharamuneko Bazko egunean, zortziak eta erditan atzartzen da eta xilintxak hausteranokoan joiten ditu, eta horra bere jender itsuski sakreka, mila zikinkeria eta mila laido dariola, eta aho betez oihuka eztutelakotz iratzarri, meza erran nahi zuela, ezpaitzakien ordua nun hatzeman zituen egiteko guziekin. Hobekienik egin zuena horrelako prestatzearen ondotik, ez erraitea izan zen, eta eztakit sakratuz geroz behin ere erran duenez.

Segeretari berezi bezala Venier izeneko bat hartua zuen Saint-Germain-des-Prés-ko abadiatik arnega-arazia zuena, han fraide mutil baitzen, eta hango lanak hogei urtez geroz ainitz izipiritu eta adimenduekin egiten. Laster hartuak zituen kardinalaren egin-moldeak, eta hari laket zizakon guziaren erraiteko heinean jarria zen. Kardinalarekin zen goiz batez, eskupean aurkitu etzen zerbait galdegin zuen. Horra juramenduka, sakreka, aho betez bere mutilen kontra oihuka, eta aski ezpazituen, hartuko zituela hogei, hogei-ta-hamar, berrogei-ta-hamar, ehun, eta harramantza izigarriaren egiten. Venier-ek gostura entzuten zuen, kardinalak hel egin zaukonean, hoin gaizki zerbitzatua izaitea etzenez gauza bat lazkarria, hortako bazegien gastuarekin, eta berriz ere haserretzen, ihardets zezon hertsatzen. "Enejauna, erran zaukon Venier-ek, harrazu mutil bakar bat gehiago, eta lan bakarreko emozu zure ordez sakre egitea eta haserretzea, eta guzia ontsa joanen da, asti ainitz gelldituko zauzu, eta biziki hobeki zerbitzatua izanen zira." Kardinala irriz hasi zen eta jabaldu.

Auhari orotakotzat eta bakarrik oilasko bat jaten zuen arrats guziez. Nik dakita zer huts-eginik bere jendek oilasko hori arrats batez ahatzi zaukoten. Etzateko ordura hurbiltzen ari zelarik, oilaskoa gogoratu zizakon, xilintxa jo zuen, jenden ondotik oihuz hasi, hek laster egin baitzuten eta gogoa hotzik entzun. Ontsa balditua izan zen khexatu gabe bere oilaskoa jana zuela erran zaukotenean, baina, laket baldin bazizakon, gerrenean baten ezartzera bazoazila. "Nola, erran zuen, oilaskoa jana dut!" Bere jenden erran ausart eta hotzak sinets-arazi zaukon, eta hartaz trufatu ziren. Eztut gehiagokorik erranen, berriz ere, egiazko liburu bat egin bailaiteke. Haren heriotzeak handiak eta xipiak, eta egiazki, Europa osoa, eta esklabo bat bezala zerabilan bere anaiarano, guziak arindu zituen; bada aski gizon izigarri hura nor zen erakusteko.

Aldi batez nahi ukan zuen bere ezkutaria haizatu bere karrosetarik bat hari utzia zaukolakotz Parisen norapait joaiteko.

5. Dubois hil eta Orléans-ko dukea lehen minixtro

Orotarik arinduena Orléans-ko duke Jauna izan zen. Bazen aski aspaldi segeretuan auhenka ari zela hoin nagusigo gogorraren phizupean, eta berak landuak zituen gatinetan. Etzen bakarrik bera ezeren jabe eta deliberatzeko ahalean, baina debaldetan zaukon gauza handi eta ttipiez nahi zuena kardinalari erakusten. Behar zizakon orotaz haserretan, erasietan sartzen zen kardinalaren nahitik joan, eta nor nahiri bezala bereak erraiten zauzkon, kontra joaitea gertatzen zizakolarik. Printze gaixoak sendi zuen bere burua hartara emana zuen uztea, eta uzte hortarik, kardinalaren botherea eta berearen itzaltzea. Haren beldur zen, ezin jasana bilakatua zizakon, haren haizatzeko gutizia gorrian zen; hori mila gauzetan ageri zen, baina etzen menturatzen, etzakien nola egin, eta bakartua eta ethengabe zelatatua zen bezala, nehor etzuen gogoaren hari osoki idekitzeko, eta kardinalak, hortaz ontsa jakinduru, bere egintza eroak bikuntzen zituen jukutriekin hartua zuenaren beldurraz atxikitzeko, ezpaitzuen gehiago uste bere burua zen heinean eduk zezakeela bertze bide batez.

Hila izan zeneko, Orléans-ko duke Jauna Meudon-era itzuli zen Erregeri berri horren ikasteko, hunek berehala othoiztu baitzuen gobernuko egitekoak bere gain har zitzan, eta lehen minixtro aithortu zuen, eta biharamunean zin eman zaukon, eta eskutitz ageria goizik parlamentura igorria izan zen eta egiaztatua. Aithortze hoin laster hori Orléans-ko duke Jaunak ezer etzuelarik hortaz prestatua, Fréjus-ko apezpikuak jende berezi norbaiten lehen minixtro ikusteaz zuen beldurraren ondorioa izan zen. Erregek maite zuen Orléans-ko duke Jauna, jadanik ikusia den bezala, haren ganik ukaiten zuen errespetuaren gatik, Erregerekin lan egiteko zuen aratik, hitzean hartua izaiteko lanjerrik gabe, beti nagusi uzten baitzuen aitzineratzen zauzkon jenden hautuan, eta bertzela ezpaitzuen ehoiz aspertzen, ezpaitzauzkon ere jostatzeak lan orduez hertsatzen. Zenbat artha, zenbat malgutasun erabiliak bazituen ere Dubois kardinalak Erregeren izpirituaren bereganatzeko eta berari jartzeko, etzuen ehoiz bildu ahal ukana, eta ohartzen zen, begiak ez onegiak ukanik ere, Erregeren ganik haren alderako higuntasun bati sendigarria baino gehiagokoa. Kardinala hortaz lastiman zen, eta zangoz bikunduz ari zen azkenean helduko zelako ustean. Baina, haren ara gustatzeari sobera emanek zituzten itxura guti

jitezkoez eta ezin berexia zuten gozagaiztasunaz bertzalde, bi etsai bazituen Erregeren ondoan, printze gazte horren baitan hartzetik urrun atxikitzeari ontsa behatzen zaukotenak: Villeroy-ko marexala, han izan zeno, baina biziki lanjeroskiago delako Fréjus (Fleury), ezpaitzezakeen Dubois hastia handi-nahian baizik, eta hunen itzulipurdikatzera ontsa deliberatua Orléans-ko duke Jauna huts egitera heldu baliz, ez izaitea gatik bera ez aitzindua, ez are gutiago jende norbaiten menpera emana, ezpaitzuen egun oroz Erregeren gogoan Dubois-ren gaitzestea ahazten, bera han gero eta gehiago jarriz.

Dubois kardinala baino ustelduago bat, ahal bada, jarraiki zizakon hamabi edo hamahirur egun berantago: Mesmes (parlamentuko) buruzagi lehena izan zen, jadanik odol-ukaldixka batzuez azkarki phizutua, bat ukan baitzuen hogei-ta-laur oren barne ereman zuena, hiruretan hogei-ta-bat urtetan, arte hortan den gutieneko bizi hatzik athera ahal izan gabe. Dubois baino ustelduagoa diot, egin zituen ilunkeria handiez et ohargarriez, ezen, lerro ohorezko eta aberats batean iaorik, ezpaitzuen ukan fortuna baten eraikitzeko beharrik Dubois-ek bezala, hau jendearen aphalenekoa baitzen, nahiz eztaitekeen izan hunendako desenkusa bat, baina bertzeak gutizia bat gutiago, zenaz gozatzea aski baitzizakon, ohorerekin (…) Abantzu bi ilabetez geroz gostura La Ferté-n nindagon kompainia onean, Dubois kardinala hil eta Belle-Ile-ek eta bertze batzuek, itzul nindadin lehiatzeko igorriak zauztaten eskutitzen gatik ere handik abiatu nahi ukana gabe. Sarigarri baten ukaiteko hutsaleriak eta goseak bertze bat igorr-arazia zautaten buruzagi lehena hil eta haren alaben ganik, itzul nindadin eta Orléans-ko duke Jaunari eska nezon othoi-othoiztuz.

Amor eman nauen oraino aldi hortan San-Simungo Anderearen bertuteari eta debozioneari, zerbitzu hori eman nezeen hain baitezpada nahi ukan baitzuen, eta abiatu nintzan. Parisera jin zen zenbait egun ene ondotik. Gortea Meudon-dik Versailles-era itzulia zen agorrilaren 13-an, bazuela hamar edo hamabi egun, eta Orléans-ko duke Jauna han aurkitu nuen.

Gabinetean sartzen ikusi nindueneko, enegana laster egin zuen, eta lehiatuki galdegin zautan hea utzi nahi nuenez. Ihardetsi naukon bere kardinala bizi izan zizakono, neure burua biziki debaldekoa uste ukana nuela haren ondoan; eta hortaz baliatua nintzala neure libertate 'ta atsedeneko; baina orai on ororen traba hori gehiago etzenaz geroz, beti haren zerbitzu umileneko izanen ninzala. Harekin aitzinean bezala

bizitzea hitzeman-arazi zautan, eta, kardinalaz jeusetan sartu gabe, orduko egitekoetan hasi zen, erresumako ala atzerriko, zertan zen argitu zautan, eta erran Angeleterrak eta Holandak hartzen ari zuten khexua Ostende-ko lagundia berriaz, Emperadoreak moldatzen ari zuena, atxiki nahi, eta bi erresuma horiek debekatu sal-erospeneko bere abantail handiari behatuz, azkenean Frantziak alde ala kontra hatzeman zezakeena, eta berak egiteko hortan ibiltzea nola bazakusan. Aurkitu nuen gozoan, alai, eta berriz lanari atseginekin lotzen ari. Atzerriaz, erresuma barneaz ontsa solastatuak izan ginenean, eta Erregez, huntaz biziki askietsia baitzen, aipatu naukon buruzagi lehenaren alabek eskatzen zaukoten sarigarria. Irriz hasi zen eta hetaz trufan, haien aitari hain usu emana zaukon neurrigabeko diruaren ondotik, edo berak ebasten jakina zuenaren, eta nitaz trufatzen hain gauza itxura gabekoan haien abokat eginik haien aitaren eta ene artean izana zen guziaren ondotik, biziki ontsa eta hitz gutiz egiten zautala haren hil pheredikua. Zintzoki aithortuko dut enintzala biziki thematu eni ere azkarki behar ez bezalakoa iduritzen zizatan gauza bateko, eta hartaz batere axola enintzaneko. Hortik hara beti bizi izan nintzan Orléans-ko duke Jaunarekin Dubois kardinala lehen minixtro izan zen aitzinean egina nuen bezala, eta hura enekin lehengo konfienxia osoan. Onhartu behar dut alta enuela hortaz baliatzea biziki bilatu. Orduan ukan zuen La Houssaye bere kanzelariaren galtze biziki arina, bere ezjakina erakutsia baitzuen uztera bortxatua izan zen dirutzetako begiztatzale orotakoko karguan. Hiruretan hogei-ta-bat urte zituen. Haren orde Orléans-ko duke Jaunak hartu zuen poliziako ordezkaria, D'Argenson zigiluzain zenaren bigarren semea. Ahazten nuen postak Morville, atzerrietako egitekoetan Estatuko segeretari zenari emanak izanak zizazkola erraitea, sarien ttipitze handi eta zuzen batekin.

Ikasi zen aldi berean Haien Maiestate Katolikoek ezarriak zituztela Asturiako printzea eta printzesa elgarrekin, eta ezkontza azkenean betea zutela.

Apezpiku izendatze: Belzunzek eztu aitzinatua izan nahi

Orléans-ko duke Jaunak benefizio handi batzu eman zituen. Laon-go apezpiku-dukea, eta (Erregeren) sakratzean ofizio hori egina zuen, etzen parlamentuan Frantziako pare onhartua izaitera heldu ahal

izana. Ama Florence komedianta zuen, eta (aita) Orléans-ko duke Jaunak etzuen aithortua. Hori izan zen ezin garhaitu zen eragozpena, bakoitzak nor den erran behar baitu, eta phorogatu. Traba hortan, lekuz aldatua izan zen, Laon-go apezpiku-dukearen lerro eta ohoreak atxikiz. Aldan etzuen galdu, Cambray-ko arxapezpikugoa ukan zuenaz geroz. Laon-go haren ondokoak jendea bitxiki ustegabetu zuen eta gaitzitu: La Fare-ren anaia izan zen, hunen egiterik jeusetan etzuena. Bere zirtzilkeriez eta ohoinkeriaz desohoratua zen ezteus bat zen, nehork ikusi nahi etzuena, eta Orléans-ko dukeak, berak errana baitauta, Erret-Palaziotik haizatu zuena Polignac-ko Andereari, haren bitartez, igortzen zauzkon berrogei-ta-hamar pistola ebatsirik. Izendatzen dut, haren bizia hain publikoa izana baita nun ezpaitut uste garitateari, zuhurtziari eta haren izenaren aipamenari huts egiten deetala.

Eliza-gizon on hori aldi batez Teilerietarik ostikoka haizatua izan zen, bidexka handiaren erditik Erret-Palazioko athean harano, musketariez eta han bildu ziren bertze gizon gazte batzuez, izigarriko oihuekin, athean bilduak ziren lakaioen multzoak berrhetuz. Azkenean, eta osoki publikoa izan zen gauza da, musketarien bi kapitainek debekatu zaueten gehiago sartzera utz zezaten. Izanara hoin urrikalgarritik atheratzeko, munduaren ondarkin horrek gombertituarena egin zuen, aphez sakratua izaiteko athe batzuetan jo hortara heldu ahal izan gabe, orduan Rochebonne Noyon-ko apezpiku-kondeak erran zautanaz, eza eman zaukotenetarik bat izan baitzen, Noyon-en zuen benefizio batean erretreta bat omen eginik ere. Azkenean prelat ibilara berdinaz errexago zen bat aurkitu zuen. Izendatzea hastio nuke eta Elizako eredu guzien kontra nolako eskandalarekin sakratu zuen erraitea. Berehala gero, Bissy-ko kardinalaren gana jo zuen eta Languet Soissons-ko apezpikuaren gana, huni guzia on baitzizakon (*Unigenitus*) konztituzionearen alderdikari itsua izan ber, Soissons-ko bikari handi izaiteko gai egin baitzuen, han mota hortan haien gerizapen guziaren merezitzeko on agertzen zela. Laguntza horrekin eta jesuistenekin, Viviers-ko apezpikugoa trafikatu zuen Ratabon-ekin, hara Ypres-kotik joana zena, eta apezpikugoak aspertzen zuena, nahiz etzen han egoiten. Zituen bi abadia eman zauzkon, ordaintze on batekin, eta Viviers-ko apezpiku sakratua izan zen, mundu osoaren eskandalan.

Marzellako apezpikua, Belzunz, izurritean hain aipamen handia ukana zuena, Parisera ethorria zen Lauzun-go duke, amaren anaiaren eritasunean, beti hunek hartaz eta haren anaiez artha hartua baitzuen.

Laon-go apezpikugoara izendatua izan zen esku-zarta handiekin. Lauzun-go Jaunaren ikustera nindoala egun batez, "Petits-Augustins" delakoen komentura baztertua baitzen, haren gambarako athera heldu nintzan kalostrako alde batetik, eta aldi berean jadanik Laon-go Jauna zeritzon prelat hori bertze alde batetik. Gibelatu nintzan aitzinean iragaitera uzteko. Irriño bat egin zuen eni behatuz, eta eskuaz bultzatzen ninduela: "Zoaz, jauna, erran zautan, eztu balio;" eta nik nahi gabe aitzinean sarr-arazi ninduen. Hitz hortan senditu nuen Laon etzuela onhartuko eta Marzellan egonen zela; baina osaba bizi zueno etzela ezaren emaitera menturatzen, hunek iretsiko baitzuen eta bizitzeko aste guti baizik ezpaitzuen. Alabainan, hila izan zeneko, Laon-i eza eman zuen bere alkiarendako gehiago ezaguna etzen, baina ohore handi bat eman zaukon atxikimendu bat erakutsiz. La Fare, Viviers-ko apezpikua, ezpaitzen hoin beratza izaitekoa, Laon-en ezarria izan zen, haren ezan, eta geroztik ikusi da zeren egiten zakien. Hastiatua hil da eta banko-hauste eginik, bertze moldez hondatua zuen diozesa guzia nahiz ala bortxaz ohoinkaturik.

Erruan hutsa zen Besons hilez geroz, Marexalaren anaia Bordeletik hara aldatua izana zena, hemen hartaz mintzatzeko aldi bat baino gehiago ukana baitut. Gizon biziki zuhur bat zen, eztia, neurrikoa, eta itxura eta aurpegi abre eta arrunt batzuekin, xorrotxa, mundua eta hango egitekoak bazazkiena; azkarki ikasia, behar bezalakoa, eta aphezeriako gizon lehena; bere lurreko egitekoetan ahalduna, diozesen gobernuko behar zen izpiritu hura bera zuena; maitatua, errespetatua eta ukan zituen hirur (diozesetan) saminki dolutua izan zena. Tressan, Nantes-ko apezpiku eta Orléans-ko duke Jaunaren elemosinari lehenak Erruan ukan zuen; eta Monaco-ko aphezak, jadanik zahartuak, ukan zuen Besançon, Mornay-ko aphezak etzuelarik hartaz gozatzeko ez sakratua izaiteko demborarik ukana.

Bussy-Rabutin-go aphezak ukan zuen Luçon, eta bertze apezpikugo andana bat eta ainitz abadia emanak izan ziren. Bergues-Saint-Vinox eta Saint-Berin-goak, Saint-Omer-en, fraide batzuer itzuliak izan ziren; Dubois-ek etzituen kardinal bezala baizik ukanak. Orléans-ko duke jaunak ukan zuen, banakatze hortaz, bere alaba Chelles-ko (abadesa) Anderearen eskutitz bat, izitu zuena, eta bi aldiz irakurri eta berrirakurri zuena alta. Jenden hautuaz eta hortan egiten zen zuzengabeaz miragarria zen, eta laster gaztigatuko zuen Jainkoaren hiraz mehatxatzen zuen. Hortaz mintzatzeko aski hunkia izan zen, eta hunkia

zela erakustera uzteko ere, baina eztakit baliatuko zizakonez. Astirik etzuen ukan.

Goiz batez Orléans-ko dukearen itxurak San-Simun izitzen du

Meudon-go jauregi berri osoa itzulia izana zizatan, gortea Versailles-era itzulia izan zenez geroztik, Meudon-era jin zen baino lehen nuen bezala. Humières-ko duke 'ta dukesa gurekin ziren han, eta kompainia on bat. Humières-ko dukeak nahi ukan zuen Versailles-era ereman nezan goiz batez Orléans-ko duke Jaunaren eskertzera. Janztera zoala aurkitu ginuen, eta oraino bere "hobian" (*) zelarik hartaz bere arropategia egina baitzuen. Han zen kadera zilatuan bere mutilen eta bere aitzindari lehenetarik bizpahiruren artean. Harritua izan nintzan. Gizon bat ikusi nuen, burua beheiti, gorri-beltz batean, itxura zozotua, hurbiltzen ikusi eninduena ere. Bere jendek erran zaukoten. Burua emeki ene aldera itzuli zuen abantzu goititu gabe, eta mihia lodirik zerk nakarren galdegin. Erran naukon. Horrara sartua nintzan janzten zen lekura jin zadin lehia-arazteko, Humières-ko dukearen ez egon-arazteko igurikan; baina hain balditua izan nintzan nun labur gelditu bainintzan. Simiane, haren gambarako lehen aitorensemea hartu nuen, leiho batean, erakutsi bainaukon Orléans-ko duke Jauna banakusan izanaraz ene ustegabea eta beldurra. Simiane-ek ihardetsi zautan aspalditik horrela zela goizetan, etzela egun hartan ezer ohikoa etzenik haren baitan, eta enintzala ustegabetua ordu horietan ehoiz enuelakotz ikusten baizik; etzela hainbertze ageriko, janztean bere burua inharrosia ukanen zuenean. Etzizakon alta oraino ainitz agertu gabe izan janztera ethorri zenean. Humières-ko dukearen eskerra itxura balditu eta phizu batean hartu zuen, eta hark beti orori garaziadun eta ikustatekoak, hain zuzen eta arautuz mintzatzen bazakienak, doi-doia ihardetsi baldin bazaukon; ephe bat berantago, athera ginen Humières-ko Jauna eta ni. Gesvres-ko dukearen etxean bazkaldu ginen, hunek ereman baitzuen Erregeri eskerraren emaitera.

(*) Ikusi da gorago "hobia" Versailles-ko arte-barne ttipi baten izena zela (*Itzultzalearen oharra*).

Orléans-ko duke Jaunaren izanara horrek ainitz gogoeta egin-arazi zautan. Bazen biziki aspaldi Estatuko segeretariek errana zautatela,

goizeko lehen orduetan, nahi ukanen zuten guzia eman-araziko zaukotela, eta berari kaltegarriena izanen zizakon guzia izenpe-araziko. Hori auharien ondorioa zuen. Urte bat bazen berak aldi bat baino gehiagotan errana zautala, batzuetan uzten ninduen aldi zenbaitez, harekin bakarrik nintzalarik, Chirac-ek purgaño batzu jarraikian emaiten zauzkola nehor ohartu gabe, hain betea zelakotz nun arrats guziez goserik gabe mahiratzen baitzen eta jateko gurarik batere gabe, nahiz jeus etzuen hartzen goizetan, eta bakarrik xokolet presa bat arratsaldeko oren bat eta bien artean, jende guziaren aitzinean, haren ikusteko ordu publikoa baitzen. Enintzan hortaz harekin muturik egona; baina erasia oro osoki debaldekoa zen. Banakien gainera Chirac-ek garbiki errana zaukola bere auharier ohiko jarraikitzeak odol-ukaldi laster batera eremanen zuela edo bulharretako ur-hantura batera, hatsa artetan neke izaiten zizakolakotz, orduan azken gaitz hortaz oihu egin baitzuen, baratza zelakotz, ithogarria, oro hertsatzen zuena eta herioa erakusten; biziki nahiago zuela odol-ukaldi bat ustegakoa baitzen eta bapatean hiltzen baitzuen gogoetatzeko astirik utzi gabe.

Bertze gizon bat, laster mehatxatzen zuen herio mota batez oihukatzeko orde, eta hoin laztagarria hautetsiz bere buruaren ezagutzeko astia uzten duen bertze bati, bizitzera gogoetatuko zen eta hortako behar zenaren egitera bizi zuhur, sano eta beharbezalako baten bidez, hunek, zuen jitean, bizi bat eman-araziko baitzaukon biziki luzea, eta biziki gozoa, iduriz iraupeneko zuen izanaran; baina horrelakoa izan zen zorigaitzeko printze horren itsumen bikuna. Elhaidetasun handitan bizi nintzan (Fleury) Fréjus-ko apezpikuarekin, eta, Orléans-ko duke Jaunak huts egiten bazuen, Erregek nagusi izan ahal edo nahi zuen artean, bertze nagusi bat behar zen, eta bertze edozein baino nahiago nuen prelat hori. Joan nindakon beraz, goizean zer ikusia nuen Orléans-ko duke Jaunaren izanaraz erran naukon, haren galtzea etzaitekeela luzaz bazter eta bapatean ethorriko zela, iragarriko zuen ezer gabe; prelatari aholku banemakola beraz bere antolamenduak eta neurriak har zitzan Erregerekin, ephe bat ere galdu gabe, haren lekuaren ukaiteko, eta hori hanbat zizakola errexago nun ezpaitzuen Erregek ekhartzen zaukon atxikimenduaz dudatzen; nehorendako etzuela harendako zuenari hurbiltzen zizakonik, eta bazituela egun oroz buruz-buruko luzeak, lehen minixtroko karguan bapatez ondokotasunaren ukaiteko bide eta ahal guziak eskaintzen zauzkotenak hutsa gertatuko zen ordu berean. Gizon bat aurkitu nuen iduriz aburu eta nahikaria hortaz biziki esker-onekoa,

baina lañoa, neurrikoa, lekua bera baino lerro eta izari goragokoa aurkitzen zuena.

Gaskoiniako bigarren bat: Lauzun, San-Simunen koinata

1. Ethorkia eta familia

Lauzun-go dukea hil zen hazaroaren 19-an lauretan hogei-ta hamar urte 'ta sei ilabetetan. Hark eta nik esposatuak ginituen bi ahizpen batasun minak, eta gorteko ohidura jarraikiak, han baiginuen ere etxola bat gu laurendako Marly-ko bidaia guzietako emana, jarraikian harekin bizi-arazi naute, eta Errege hilez geroz elgar ikusten ginuen abantzu egun oroz Parisen, eta beti elgarrekin jaten haren etxean edo enean. Jende bat mota orotan hain ohigabekoa eta hain berezia izana da, nun arrazoin ainitzekin baitu erran La Bruyère-ek bere *"Caractères"* edo *Jiteak* delakoetan, etzela haizu hura bizi izan zen bezala amets egitea. Hurbildik ikusia duenarendako, zaharraroan ere, hitz horrek oraino zuzenago badiduri. Hori da hemen hartan hedatzera baneramana. Caumont-ko etxetik zen, La Force-ko duken adarra beti hartako zaharrena bezala hartua izana baita, nahiz Lauzun-goak usu hortaz gataskatu nahi ukan duen.

Lauzun-go Jaunaren ama La Force-ko duke, La Force-ko bigarren marexal dukearen seme 'ta Turenne-ko marexalsaren anaia zenaren sema zen, baina bertze ohe batetik; marexalsa andere La Roche-Faton baten lehen ohetik zen. La Force-ko duke hori La Force-ko dukea hartaz amoratu zen Belzunztar andere baten semea zen, bigarren ezkontzaz hartua zuena, eta haren anaia nerabe ukana zuena.

Lauzun-go kondea, (duke) haien suhia, Lauzun-go dukearen aita, hunen aita eta aitabitxi ordenako zaldun izan baitziren 1585-ean eta 1619-an, eta Erregeren etxeko ehun aitorensemen kompainia "belamoko"-duna ukana baitzuten, Agaramundeko lehenbiziko marexal dukearen lehen gusia zen, eta Agaramundeko konde zaharrarena (huntaz eta hunen emazteaz, Errege zena baino urte guti lehenago hilez, hemen usu mintzatu baita), ama horien izaba baitzuen aitaren aldetik. Lauzun-go kondea, dukearen aita, Erregeren etxeko ehun aitorensemen kompainia belamokoduneko kapitain izan zen ere, 1680-an hil zen, eta bortz seme eta laur alaba ukanak zituen. Seme gehiena biziki gazterik hil zen, bigarrena ilunbean bizi izan bere herrialdean 1677-rano, ezkondu

gabe; herena Puyguilhem izan zen, geroztik Lauzun-go dukea, xehetasun hauen guzien arrazoina; laurgarrenak, galeretako kapitain ez ezagun iraun zen, ezkondu gabe, 1692-rano; azkena Lauzun-go zalduna jandarmerian guti zerbitzatu zuena, Hungariara iragan zen Conti-ko printze Jaunekin, han zenbait demboraz Emperadorearen zerbitzuan egon aitzindari jeneral bezala, laster nardatu, urrun egoite aski luze baten ondotik Parisera itzuli: halako filosofo bitxi bat, bakartia, iluna, bizitzeko nekea, izpirituarekin eta jakitatearekin, usu bere anaiarekin gaizki, bizitzekoa emaiten baitzaukon, usu Lauzun-go dukesaren eskatzez. Parisen hil zen ezkondu gabe, 1707-an, hiruretan hogei urtetan.

2. Gortean lehen urratsak, artilleriako nagusi handi izan nahi eta izaiter

Lauzun-go dukea gizon ttipi bat zen, hile horaila, soin-araz ontsa egina, begitartez gora, izpirituz betea, errespetua emaiten zuena, baina aurpegian gozagarririk gabe, haren aroko jender entzun deetenaz; handinahiz betea, burukadaz, orotaz bekaizti, beti muga iragan nahiz, ehoiz ezerez askietsia, letrarik gabe, izpirituan aphaindurarik ez gozagarritasunik batere gabe, jitez gogo-iluna, bakartia, ohila; azkarki noblea bere ara guzietan, jitez gaixtoa eta maltzurra, bekaizkeriaz handinahiz ere baino gehiago, bizkitartean adixkide zelarik adixkide ona, biziki bekan zen gauza, jendakiako ona, gogotik etsai berdin axolagabendako ere, huts hatzemaiten eta irrigarritasun emaiten bortitza, ezin gehiago bihoztuna eta ere lanjeroski ausarta. Gortelari aldi berean ozarra, trufaria eta mutilkeriarano aphala, eta bere xedetara heltzeko antze, azpikeria, aphalkeria bilatzez betea, horrekin minixtroendako lanjerosa, gortean guzien beldurgarria, eta nehorez gupida etziren atheraldi biziki bortitz eta gazituez betea.

Gortera ontasunik batere gabe ethorri zen, Gaskoiniako bigarren gazte-gaztea, bere probinziatik lurreratzera Puyguilhem-go markes izenpean. Agaramundeko marexalak, haren aitaren lehen gusiak, etxera hartu zuen. Orduan lehen aipamenean zen gortean, Erregina amaren eta Mazarin kardinalaren konfienxian, eta bazuen zaintzalen erreximendua eta haren iraupena Gixungo konde bere semearendako, eta hau, bere aldetik, bihoztunen eta anderen lorea zen, eta Erregeren eta Soissons-ko kondesa kardinalaren ilobaren garazia onetan aitzinatuenetarik, Errege ezpaitzen andere horren etxetik higitzen, eta gortearen erregina baitzen. Gixungo kondeak han sarr-arazi zuen Puyguilhem-go markesa, biziki ephe laburrez Erregeren hautetsia bilakatu baitzen, hunek emaiten

zaukola egin zuenean bere dragonen erreximendua, laster egiten zuela kampoko marexal, eta harendako egiten dragonen koronel jeneralaren kargua.

Mazarin dukeak, jadanik gortetik bazterturik, 1669-an nahi ukan zuen artilleriako nagusi lehenaren kargua utzi; Puyguilhem lehenetarik izan zen hortaz zerbaiten jakiten, Erregeri galdegin zaukon eta hunek hitzeman, baina zenbait egunen segeretu-pean. Aithortuko zuela errana zaukon egunean, Puyguilhem, gambarako aitorenseme lehenen sartzeak baitzituen, sartze handiak izendatzen direnak ere, dirutzetako konseilutik Erregeren jalgitzearen igurikatzera joan zen, konseilua ari zeno nehor han sartzen etzen barne batera, gorte guzia zagonaren eta konseilukoaren artean. Han Nyert aurkitu zuen, gambarako lehen mutil aldikoa, hunek galdegin baitzaukon zer halabeharrez heldu zen horrara; Puyguilhem-ek, bereaz segurrik, uste ukan zuen gambarako mutil hori bere aldera jarriko zuela bere fagoretan aithortua izanen zena segeretuan erranez; Nyert-ek bozkariatzen zela erran zaukon, gero bere sakel-orena athera zuen, eta ikusi ukanen zuela oraino, zion, Erregek manatua zaukon zerbait labur eta lehiatuen egitera joaiteko astia: igan zuen lauhazka haren buruan Louvois egun guzian lanean ari zen bulegoa gainaldean zuen mailalde ttipi bat, ezen Saint-Germain-en bizitegiak biziki ttipiak eta bekanak ziren, eta minixtroak eta abantzu gorte guzia bakoitza bere etxean bizi ziren, hirian. Nyert sartzen da Louvois-ren bulegoan, eta abisatzen du dirutzetako konseilutik landa, Louvois ezpaitzen hartan, Puyguilhem artilleriako nagusi handi aithortua izanen zela, eta berak ikasi berria zaukona erraiten dauko, eta nun utzia zuen.

Louvois-ek hastio zuen Puyguilhem, Colbert bere etsaiaren adixkidea, eta haren fagore 'ta handikerien beldur zen, zuen gerlako departamenduarekin hanbat harreman bazuen kargu batean, berak haren egitekoak eta larderia ahal zuen bezenbat hartzen ari zituelarik, sendi baitzuen Puyguilhem etzela horren jasaiteko gogoan eta fagorean. Nyert besarkatzen du, eskertzen, ahal bezain laster igortzen, sartzeko estakuru paper zenbait hartzen, jausten da, Puyguilhem eta Nyert delako barnean aurkitzen ditu. Nyert-ek ustegabetuarena egiten du Louvois jiten ikusiz, et badio konseilua eztela bururatua. "Hala ere, ihardesten du Louvois-ek, sartu nahi dut; badut zerbait lehiatu Erregeri erraiteko:" eta berehala sartzen da; Erregek hura ikusiz ustegabetua galdegiten dauko zerk dakarren, xutitzen da eta harengana joaiten. Louvois-ek leiho alde batera bazterr-arazten du, eta erraiten dauko Puyguilhem artilleriako nagusi

lehen aithortuko duela ikasia duela, konseilutik landa haren aiduru dagola ondoko barnean, Haren Maiestatea bere garazien eta hautuen nagusi osoa dela, baina uste ukana duela bere zerbitzuko lana duela hari erakustea Puyguilhem-en eta bere artean den ezin elgar entzuna, haren burukadak, haren handikeriak; artillerian guzia nahiko duela egin eta aldatu; kargu horrek baduela hain baitezpadako lotura gerlako departamenduarekin, nun ezin baita zerbitzua egina izan betiereko langai eta burukerietan, eta nagusi handiaren eta Estatuko segeretariaren ez elgar entzute agerian, horren behargabe xipiena izanen baita egun oroz haien arteko gataskez eta bakoitzaren nahikeriez Haren Maiestatearen aspertzea, ordu oroz haien juje izan beharko baitu.

Erregek bere burua ezin gehiago sistatua senditu zuen ikusiz bere segeretua oroz gainetik gorde nahi zaukonaz jakina; Louvois-ri ihardesten dauko itxura serios batekin gauza eztela oraino egina, igortzen du eta badoa berriz konseiluan jartzera. Konseilua bururatu eta ephe bat berantago, Errege atheratzen da mezara joaiteko, badakusa Puyguilhem eta badoa hari ezer erran gabe. Puyguilhem azkarki ustegabetua da eta egunaren gaineratekoan igurikatzen du, eta ikusiz aithormen hitzemana etzela heldu, Erregeri aipatzen dauko etzate ttipian. Erregek ihardesten oraino ezin dela, eta ikusiko duela: ihadespenaren ezpaiak eta doinu idorrak Puyguilhem khexatzen dute; bazituen anderen artekoa eta galankeriako erdara; badoa Montespan-go Anderearen gana, bere khexua erraiten dauko, eta geldi-araz dezan othoi-othoizten du. Mirak hitzemaiten dauzko eta zenbait egunez horrela jostatzen du.

3. Zelatan Erregeren ohe azpirano, eta Bastillan preso

Itzul-inguru horiez guziez akitua eta gaitza nundik heldu zizakon ezin asmatuz, delibero bat hartzen du, ezin sinetsia orduko gorte osoak ezpalu baieztatua ukan. Montespan-go Anderearen gelari hautetsi batekin etzaten zen, ezen oro on zizakon jakina eta gerizatua izaiteko, eta behin ere entzun den ozartasun irriskutsuenaren egitera heldu zen. Bere maitasun guzien artean Errege etzen behin ere Erreginarekin etzatetik gelditu, usu berant, baina huts egin gabe, hanbatetarano nun gozoagoan izaiteko, bazkal-ondotan bi mihisen artean emaiten baitzen bere ohaidekin. Puyguilhem-ek bere burua gorde-arazi zuen gelari horren bitartez Errege Montespan-go Anderearekin etzatera zoan ohearen azpian, eta hauen solasalditik, ikasi zuen Louvois-ek haren karguko ezarria zuen traba, Erregeren haserrea segeretua airatua izanik, hisi hortaz hari artilleriaren ez emaiteko hartua zuen deliberoa,

Puyguilhem-en eta Louvois-ren arteko aharren baztertzeko eta hetan erabakitzerik ez ukaiteko. Erregeren eta ohaidearen artean atxiki ziren solas guziak entzun zituen han, eta hunek bere zerbitzu onak, hanbat hitzemanak zauzkonak, ahal ukan zituen gaixtoenak egiten zauzkola. Eztul batek, higitze ttipienak, halabehar arinenak atrebitu hori sala zezakeen, eta orduan zer bilakatuko zen? Ixtorioak aldi berean ithotzen eta lastatzen duen gauzak dira horiek.

Zuhur baino zoritsuago izan zen, etzen hatzemana izan. Errege 'ta ohaidea ohetik jalgi ziren azkenean; Errege berriz jantzi zen eta etxera joan; Montespan-go Anderea bere ikuztegian jarri zen Errege, Erreginak eta gorte guziak hara joan behar zuen dantza ikusgarri baten errepikatzeko. Gelariak athera zuen Puyguilhem ohe horren azpitik, ezpaitzuen iduriz gutiago ukan etxera jantzien antolatzera joaiteko beharra. Hortik Montespan-go Anderearen gambarako athean tinki egoitera ethorri zen.

Dantzaren errepikatzera joaiteko athera zenean, eskua eskaini zaukon, eta itxura eztitasunez eta errespetuz bete batekin galdegin, hea bere burua lausenga zezakeenez Erregeren ondoan hartaz orhoitzea nahi ukana zuenaz. Etzuela huts egina segurtatu zuen, eta nahi ukan zuen bezala antolatu zauzkon eman berriak zauzkon zerbitzu guziak. Han edo hemen moztu zuen, alegia eta sinetsiz, bere galdez hobeki hatzemaiteko, eta gero beharrira hurbilduz, erran zaukon gezurtari bat zela, frikun bat, zakur p… bat, eta hitzez hitz errepikatu Erregeren eta haren solasaldi guzia. Montespan-go Anderea hanbat nahasia gertatu zen nun ezpaitzuen hitz baten ihardesteko indarra ukan, eta zoan lekura heltzea gaixto izan zizakon, zangoetako eta soin guziko ikararen atxikitzeko eta gordetzeko neke handi batekin, hala nola nun dantzaren errepikatzeko lekura heltzean, aldixartu baitzen. Gorte guzia jadanik han zen. Errege osoki izitua harengana ethorri zen, berriz bere baitaratzeko lanak izan ziren. Arratsean erran zaukon Erregeri gertatua zizakon guzia, eta etzuen dudatzen debruak zaukola Puyguilhem-i ohean hartaz errana zuten guzia hoin laster eta hoin zuzen jakin-arazia. Errege ezin gehiago gaitzitua izan zen Montespan-go Andereak xahutuak zituen laido guziez, eta nola Puyguilhem hoin zuzen eta hoin bapatean jakinduru izan ahala zen atsekabe handitan.

Puyguilhem, bere aldetik, artilleria huts eginez erotua zen, hala nola nun Errege 'ta hura herstura bitxi batean aurkitzen baitziren. Etzuen horrek zenbait egun baizik iraun ahal. Puyguilhem-ek, bere

sartze handiekin, Erregerekin buruz-buruko solasaldi bat goaitatu zuen, eta ukan. Artilleria aipatu zaukon eta ausartasunekin emana zaukon hitzaren atxikitzea galdatu. Erregek ihardetsi zaukon etzuela atxikitzerik, segeretu-pean baizik emana etzaukonaz geroz, eta hortan huts egina zuenaz geroz. Hortan Puyguilhem urrats zenbaitez urruntzen da, Erregeri bizkarrez itzultzen, ezpata jalgitzen du, burdina oinaz hausten dauko, eta eroturik oihukatzen bere bizian eztuela hitza hoin itsuski jana daukon printze bat zerbitzatuko. Erregek, haserrez sumindua, egin zuen ordu hartan bere biziko egintza ederrena. Berehala itzultzen da, leihoa idekitzen du, makila kampora botatzen, ethorkiko gizon bat joa ukanik gaitzitua lizatekeela erraiten, eta jalgitzen da.

Biharamun goizean, Puyguilhem, geroztik agertzera menturatua etzena, bere gambaran arrastatua izan zen eta Bastillara eremana. Guitry-ren adixkide zen, harendako arropategiko nagusi handi kargua egina zuen Erregeren hautetsia. Puyguilhem-en fagoretan Erregeri mintzatzera menturatu zen, eta harendako hartua zuen gostu ezin handiago haren berpiztera entseatu. Erregeren hunkitzera heldu zen hoin kargu handiko eza emanez, Puyguilhem-i burua nahas-arazirik, hitzemana ukanik hartaz segur zela uste ukana zuelakotz, hanbatetarano nun Erregek ez hori zuzendu nahi ukan baitzuen. Artilleria eman zaukon Lude-ko kondeari, ordenako zalduna 1661-ean, ohiduraz eta galanteriako eta ihiziko zuten gostu berdinaz azkarki maite zuena. Saint-Germain-go kapitain eta gobernari zen, eta gambarako lehen aitorenseme. Egiaztatu gabeko edo eskutitzezko duke egin zuen. Lude-ko dukesa, Andere Delfina Saboiakoaren ohorezko anderea, zuen bigarren emaztetako eta haurrik gabe alhargundua. Gambarako lehen aitorensemegoa saldu zuen, artilleriaren ordaintzeko, Gesvres-ko dukeari, hau gorputzeko zaintzalen kapitaina, eta Erregek eman-arazi zaukon azken kargu hau ordaintzez Puyguilhem-i. Puyguilhem-ek, Erregeren haren gana itzultze ezin sinetsi eta laster hori ikusiz, berriz aski ausartzia ukan zuen handiagoko zerbaitetara helduko zela uste ukaiteko, eta eza eman zuen. Errege etzen gaitzitu. Guitry Bastillara joan zen bere adixkidearen pheredikatzera, eta Erregeren eskaintzaren onhartzeko onezia ukanen zuela neke handirekin ukan. Onhartua ukan zueneko, Bastillatik athera zen, Erregeren agurtzera joan, bere kargu berriaz zin egitera, eta dragonak saldu zituen.

4. Lauzun, "Anderauren handiaren" maitatua, Monaco-ko Anderea eta Errege

Ukana zuen, 1665-ean jadanik, Berry-ko gobernamendua, Clerembault-ko marexala hil zenean. Eztitut hemen "Anderaurenarekin" (*) ukan zituen gertakariak aipatzen, (Anderaurenak) berak hain zintzoki kondatzen baititu bere *Orhoitzapen*-etan, eta egin zuen erokeria ezin handiagoa harekin ezkontzea gibelatuz, Erregek onhartua zuelarik, nahi baitzituen jantzi ederrak eta ezkontza Erregeren mezan egina izan zadin, horrek astia utzi baitzaukon Monsieur-i, Printze Jaunak bultzaturik, joaiteko, biak elgarrekin, Erregeri erasia egitera, emana zuen baimenaren ukatzera ekharr-arazten zutela; horrek ezkontza hautsi baitzuen. Anderaurena su 'ta garretan jarri zen; baina Puyguilhem-ek, aita hilez geroz Lauzun-go konde izena harturik, sakrifizio handi hori garazia onez egin zaukon Erregeri, eta ohi zuen baino zuhurkiago. Erregeren etxeko ehun aitoresemen kompainia belamokoduna ukana zuen, aitak zuena, eta ordezkari jeneral egin berria izana zen.

Monako-ko Anderea maite zuen, Gixungo kondearen arreba, Madame-ren adixkide mina eta hunen azpi-joko guzietan sartua, hanbatetarano nun, nahiz behazun gabeko gauza zen eta geroztik ere ukan eztuena, Erregeren ganik ukan baitzuen, harekin ezin gehiago untsa izanez, Angeleterrako alaba bezala (**), Erreginak bezalako intendant-goien bat, eta hau Monaco-ko Anderea izan zadin. Lauzun azkarki bekaiztia zen eta andereaz ez askietsia. Saint-Cloud-era joana zen uda arratsalde batez, Madame eta hunen gortea aurkitu zituen lurrean jarriak, hoxturan egoiteko, eta Monaco-ko Anderea erdi-etzana, esku bat lurrera emana. Lauzun anderekin galankerian hasten da, eta hain ongi itzulikatzen nun aztalaz Monaco-ko Anderearen ahurra lehertzen baitu, itzul-inguru bat egiten eta joaiten. Monaco-ko Andereak ukan zuen oihurik ez egiteko indarra eta ixilik egoitekoa. Guti berantago untsa gaizkiago egin zuen. Erregek harekin aldi batzu bazituela beharrira jin zizakon, eta Bontems-ek bizkarreko batez estalirik eremaiten zuen ordua, mailalde gorde batetik, haren mailartean baitzen Erregeren gabineten gibeleko athe bat eta bertzaldean, mailarte berean, komoditate bat. Lauzun-ek ordua aitzintzen du eta komoditatean gordetzen da, barnetik krako batez hesten du, ikusten gako-zilotik Errege athearen idekitzen eta giltzaren kampo-aldean ezartzen eta berriz hesten. Lauzun-ek apur bat igurikatzen du, atheari beharria emaiten, giltzarekin bi itzuliz hesten, giltza hartzen eta komoditatera botatzen, eta bera han berriz hesten da. Ephe zenbait berantago heldu dira Bontems eta anderea, ontsa ustegabetuak giltza gabineteko athean ez aurkituz. Bontems-ek

eztiki athean joiten du zenbait aldiz debaldetan, azkenean hain azkar nun Errege baitator. Bontems-ek badio anderea hor dela eta idek dezan, giltza eztelakotz han. Erregek ezarria duela ihardesten du; Bontems-ek lurrean bilatzen du Erregek gako-mihia ideki nahi duen bitartean, eta itzuli biez hetsia aurkitzen du. Horra hirurak ontsa ustegabetuak eta trabatuak; solasaldia athe alde batetik bertzera egiten da behargabe hori nola gertatua ahal den; Errege gako-mihia bortxatu nahiz akitzen da, eta itzuli bien gatik ere ideki nahiz. Azkenean gauona athean gaindi erran behar izan zen, eta Lauzun, entzuten baitzituen, hitz bakar bat ere galdu gabe, eta bere komoditatean hek gako-zilotik ikusten zituela, krakoarekin ontsa hetsia bere beharretan lizateen norbait bezala, bihotz guziaz irriz ari zen, eta atseginekin hetaz trufan.

(…)

(*) Anderaurena, edo "Anderauren handia", Orléans-ko Gaston Luis XIII-garrenaren anaiaren alaba, Luis XIV-garrenaren lehen gusia, Lauzun-ek ezkontzer zuena, edo, ziotenaz, gordeka ezkondu.

(**) "Madame" hau, Monsieur Luis XIV-garrenaren anaiaren lehenbiziko emaztea eta Angeleterrako Erregeren alaba, Bossuet-en hil-pherediku aipatua ukan zuena ("Madame hiltzera doa, Madame hila da …") (*Itzultzalearen oharrak*)

5. Berriz ere preso: Lauzun eta Fouquet Pignerol-go gazteluan

Louvois minixtroa Montespan-go Anderearekin batu zen, hunek ezpaitzaukon Lauzun-i egina zuen aurkitzea behin ere barkatua eta erranak zauzkon laido bortitzak, eta biek hain ontsa egin zuten nun Erregeren baitan iratzarri baitzituzten ezpata hautsiaren orhoitzapena, hoin guti ondotik eta oraino Bastillan zenean aldi bat baino gehiagotan gorputzeko zaintzalen kapitaingoari eza emana ukaiteko ozarreria. Bere burua gehiago ezagutzen etzuen gizon bat bezala ikus-arazi zaukoten, Anderaurena bildua zuena hunen esposatzetik hain hurbil ikusia izaiterano, eta hunen ganik ontasun neurrigabekoak segurtatuak ukaiterano; eta azkenik bere ausartziaz gizon biziki lanjeros bat bezala, tropak bere alde ezarriko zituela buruan hartua zuena bere handieginaz, aitzindarier egin zerbitzuez, eta haiekin Flandres-etako (Erregeren) bidaian bizi izana zen araz, eta bere burua minki haier maita-araziaz. Gaizki-egin handi bat egin zaukoten Soissons-ko kondesarekin harremanetan gelditurik, hau gortetik haizatua zelarik eta gaizki-eginez aieruan. Ikasi ahal eztutan zerbaitez Lauzun ogendun egin zutela izan behar da, huni eman-araztera heldu ziren gaizki erabiltze abrea ikusiz.

Zimardika horiek iraun zuten 1671-ko urte osoa, Lauzun Erregeren aurpegian ez eta Montespan-go Anderearenean jeusi ohartu ahal izan gabe, ikustate 'ta etxekotasun ohikoa egiten baitzaukoten. Harrierietan biziki ezaguna zen eta haiekin joia egin-arazten, eta Montespan-go Andereak usu hortan erabiltzen zuen. 1671-ko hazaro erdiko arrats batez, Parisetik itzultzean, goizean hara igorria baitzuen harrieria batzuendako, Lauzun kondeak oina lurreratua baizik etzuelarik eta gambaran sartzen ari, Rochefort-eko marexala, zaintzalen kapitain aldikoa, hara sartu zen abantzu Lauzun-en aldi berean eta arrastatu zuen. Lauzun-ek, azken ustegabean, zergatik jakin nahi ukan zuen, Errege 'ta Montespan-go Anderea ikusi, edo bederen haier izkiriatu: oro ezeztatua izan zizakon. Bastillara eremana izan zen, guti gero Pignerol-era, eta han ganga-pean hetsia. Gorputzeko zaintzalen kapitaingoa Luxembourg-ko Jaunari emana izan zen, eta Berry-ko gobernua La Rochefoucauld-ko dukeari, hau, Guitry hil zenean, Rhin-aren iragaitean, arropategiko nagusi handi izan baitzen.

Goga daiteke Lauzun zen bezalako gizon bat nola izan zen, begien hesteko artean hain goratik Pignerol-go gazteluko preso-zilo batera amildua, nehor ikusi gabe eta zergatik asmatu gabe. Aski luzaz ihardoki zuen, baina azkenean hain azkarki eritu zen nun kofesatzeaz gogatu behar izain baitzen. Erraiten entzun daukot aphez alegiazko zenbaiten beldur izan zela; hortako, hisirekin kaputxin bat nahi ukan zuela, eta ethorria izan zeneko, bizarrera jauzi zizakola, eta ahal ukan zuen bezenbat alde guzietara thiratu falsua etzenez ikusteko. Laurzpabortz urte preso-zilo hortan egon zen. Presonerrek hatzemaiten dituzte beharrak ikasten dituen joko batzu. Baziren hura baino gorago eta haren ondoan, oraino gorago ere: harekin mintzatzeko bidea hatzeman zuten. Solastatze horrek erakarri zituen zilo ontsa gorde baten egitera elgar hobeki entzuteko, gero handitzera eta elgar ikustera.

Fouquet intendant-goiena haien auzoan hetsia zen 1664-ko negilaz geroztik, orduan Bastillatik hara eremana izanik, Errege han zen eta 1661-eko buruilean han arrasta-arazia zuen Nantes-etik Bastillara ereman-arazia baitzuen. Jakin zuen, haren ikusteko bidea hatzemana zuten auzoen ganik, Lauzun azpian zutela. Fouquet-ek, berririk batere ezpaitzuen ukaiten, haren ganik ukaitea uste ukan zituen, eta haren ikusteko gutizia handia. Mutiko gazte utzia zuen, gortean agertzen abiatua Agaramundeko marexalaren bitartez, Soissons-ko kondesaren etxean ontsa hartua, Errege handik etzelarik higitzen eta jadanik begi

onez ikusten baitzuen. Harekin harremanetan jarriak ziren presonerrek hanbat egin zuten nun sinets-arazi baitzaukoten bere burua zilotik goiti eremaitera utz zezan Fouquet-en ikusteko haiekin, Lauzun ere haren ikusteaz ontsa gozatua baitzen. Horra beraz elgarrekin, eta Lauzun bere fortunaren eta zorigaitzen erraiten Fouquet-i. Intendant-goien dohakabeak beharriak eta begi handi batzu ontsa idekitzen zituen Gaskoiniako bigarren horri entzuten zaukolarik erraiten, Agaramundeko marexalaren etxean hartua eta ostatatua izaiteaz zoritsuegia, dragonen jeneral izana zela, zaintzalen kapitain, eta armadako jeneralaren izen ageria eta kargua ukanak zituela. Fouquet-ek etzakien gehiago nun zen, ero bat zela uste ukan zuen, eta bere lillurak erraiten zauzkola, artilleria nola huts egina zuen argitu zaukonean eta gauza hortan zer gertatua zen; baina erotasuna mukurrura heldua zizakola etzuen gehiago dudan eman, kondatu zaukonean Anderaurenarekilako ezkontza Erregek onhartua, nola hautsia, eta (andereak) utziak zauzkon ontasun guziak. Horrek haien arteko harremana azkarki hoztu zuen, Fouquet-en aldetik, huste baitzaukon buru muna osoki nahasia, eta aireko ixtorio-mixterio batzu zirela baitzaduzkan baten presondegitik bertzearenera munduan iragan zen guziaz Lauzun-ek erraiten zaukona.

Intendant-goien zorigaitzekoaren presondegia apur bat eztitua izan zen Lauzun-ena baino lehenago. Haren emazteak, eta Pignerol-go aitzindari batzuek ukan zuten haren ikusteko eta hari munduko berrien emaiteko baimena. Erran zezteen lehenbiziko gauzetarik bat Puyguilhem gaizo hartaz urrikitzea izan zen, gazterik eta bere adineko gortean aski ontsa jarria utzia zuena, eta buru muna nahasia zizakona, eta erotasuna presondegi hortan berean gordetzen; baina nola etzen harritu orok erran zaukotenean eta segurtatu haren ganik jakinak zituen gauza hek berak oro egia zirela! Balditua zen, eta guziek buru muna nahasia zutela sinestera zoan: sinets-arazteko astia behar ukan zuten. Bere aldian Lauzun zilotik atheraia izan zen, eta gambara bat ukan zuen, eta gero laster Fouquet-i emana zaukoten libertate bera, elgar ikus zezaten nahi zuten bezenbat. Ehoiz eztut jakin hor zer zizakon Lauzun-i ez gustatu; baina Pignerol-dik Fouquet-en etsai jalgi zen, eta ahal ukan duen gaizkiena egin dauko Fouquet-i, eta hura hil ondoan, haren familiari.

(…)

Anderaurena presondegi luze eta idor hortaz ezin konsolatua zen, eta ahal zituen urrats guziak egiten zituen Lauzun-go kondearen liberatzeko. Erregek erabaki zuen azkenean hortaz baliatuko zela (bere

seme baxtart) Maine-ko dukearendako eta (Lauzun-en libertatea Anderaurenari) ontsa kario eros-araziko zaukola. Eskaintza hori egin-arazi zaukon, ezpaitzoan, haren ondotik, Maine-ko dukeari eta hunen ondokoer Eu-ko kondate, Aumale-ko dukate eta Dombes-ko printzipatearen segurtatzera baino gutiagora. Emaitza gaitzekoa zen, hanbat prezioaz nola hirur pheza horien lerroaz eta eremuaz. Gainera, lehenbiziko biak Lauzun-i segurtatuak zauzkon, Saint-Fargeau-ko dukatearekin eta Auverñan Thiers-ko lur ederrarrekin, ezkontza hautsia izan zenean, eta Lauzun ekharri behar zen Eu eta Aumale-ren uztera, Anderaurenak berriz ukan zitzan Maine-ko dukeari emaiteko. Anderaurena ezin delibera zaitekeen uztarri horren azpitik iragaitera eta hoin ongi-egin gotorrez Lauzun-en buluztera (…) Gogoan hartu zuen azkenean Errege, haren ganik ez itzultzekotan urrundurik, Lauzun-en libertatea onhartzen etzuena bere baxtarten goititzeko eta aberastekotan baizik, etzizakola gaizki egitetik geldituko baimena emana ukanen etzueno, jeusen gutitzeko esperanzarik gabe; amor eman zuen beraz azkenean deitoratze eta nigar saminenetan. Baina gauzak balioa ukan zezan, Lauzun-ek libertatean izan behar zuela aurkitu zen Anderaurenaren emaitzaren uzteko, hanbatetarano nun Bourbon-go uren beharretan zelako estakurua hartu baitzen, eta Montespan-go Anderea ere, gauza hortaz elgarrekin mintza ahal zaiten.

Lauzun hara ekharria izan zen eta Bourbon-en Maupertuis-en manupeko musketari alde batek zaindua. Han aldi bat baino gehiagotan ikusi zuen Montespan-go Anderea hunen etxean. Baina hain sumindua izan zen libertatearen ordaintzeko eskaini zaukon murrizte handiaz, nun, aharra luze batzuen ondotik, ezpaitzuen gehiago aipatzen entzun nahi ukan, eta ekharria izana zen bezala berriz Pignerol-era eremana izan zen.

6. Akomeatzea: Lauzun Angeleterran eta berriz gorteko ohoretan

Bermutasun hori etzen Erregek bere baxtart hautetsiarendako nahi zuen kondua. Nogent-ko Anderea Pignerol-era igorri zuen; gero Barin, Lauzun-en adixkidea, eta hunen egiteko guziez artha hartzen zuena, mehatxu eta agiantza batzuekin, horiek, neke handiz, baimena eman-arazi baitzaukoten Lauzun-i, eta hunen eta Montespan-go Anderearen bigarren bidaia bat Bourbon-era egin-arazi, uren estakuru berean. Azken bidaia hau 1680-ko larrazkenean egin zen. Lehen aldian bezala eremana izan zen, eta eztauko behin ere Maupertuis-eri ukan zuen larderia xehe eta zuzena barkatu. Lauzun-ek guzia onhartu zuen,

Montespan-go Anderea irabazle handi itzuli zen. Maupertuis eta hunen musketariek Lauzun-go kondea Bourbon-en utzi zuten, handik ukan baitzuen Angers-en egoiteko baimena, eta berehala gero urruntze hori hedatua izan zen, Anjou eta Touraine guzietan ibiltzeko libertatea ukan baitzuen. Egitekoaren bururatzea 1681-ko otsailerano luzatua izan zen, libertate osoaren itxura gehiago emaiteko. Horrela Lauzun-ek etzituen Anderaurenaren ganik ukan Saint-Fargeau eta Thiers baizik, egitera lehiatuz harekin ezkontzea berari baizik egona etzizakolarik, eta haren ontasun neurrigabekoen ondoko izaitea.

(…)

Lauzun, egitate eztiago bat hitzemana izana zizakolarik, laur urte egon zen bi probinzia horietan ibiltzen, ezpaitzen han Anderaurena hura gabe egiten zen baino biziki gutiago aspertzen. Andereak oihu egin zuen, Montespan-go Anderearen eta hunen semen kontra gaitzitu zen, urrikirik gabe murrizturik oraino enganatzen zutela Lauzun urrun atxikiz, eta hainbertze harrabots egin zuen azkenean nun ukan baitzuen haren itzultzea Parisera, eta libertate osoa, Errege izanen zen leku orotara bi lekoa baino gehiago ez hurbiltzekotan. Parisera ethorri zen beraz eta han bere ongi-egilea jarraikian ikusi zuen. Urruntze mota alta hain eztitu hortaz ere aspertua, joko gotorrera eman zen eta ezin zoritzuago izan; beti jokolari eder eta segurra, eta orotan ahal bezenbat garbia, biziki gotor irabazi zuen. Monsieur-ek, batzuetan egonaldi ttipi batzu egiten baitzituen Parisen, eta han joko biziki gotorra jokatzen, eman zaukon Erret-Palazioara harekin jokatzera jiteko baimena, gero Saint-Cloud-era, han egonaldi luzeago batzu egiten baitzituen udan. Lauzun-ek urte andana bat iragan zuen horrela, ainitz diru irabaziz eta nobleki prestatuz; gehiago zen gortetik hurbil eta mundu handienaren erdian, are gehiago zizakon hara hurbiltzeko debekua ezin jasana. Azkenean, gehiago ezin egonez, Erregeri galdegin-arazi zaukon Angeleterrara joaiteko baimena, han ainitz eta biziki gotor jokatzen baitzen. Ukan zuen eta hara diru ainitz ereman, horrek Londres-en besoak zabalik harr-arazi baitzuen, eta ezpaitzuen Parisen baino zori gutiago ukan.

Jakes II-garrena zen errege, hautesmenekin hartu baitzuen. Iraultza jadanik alhan zen. Lauzun Angeleterrara joan eta zortzi edo hamar ilabeteren buruan jauzi zen. Harendako bereziki egina iduritu zuen handik jin zizakon ondorio onetik, ezpaita nehor hori ezagutzen eztuenik. Jakes II-garrena zer bilakatuko zen ez jakinean, bere hautetsi

eta ministroez saldua, Orange-ko printzea bihotzen, armaden eta untzierien nagusi, eta Londres-era sartzetik hurbil, monarka zorigaitzekoak ezarri zuen Lauzun-en gomendiotan zuen kharioena, erregina eta Gales-ko printzea eta hunek zorionekin Calais-era iragan-arazi. Printzesa horrek eskutitz bat igorri zuen berehala Versailles-era (…) Komplimenduen ondotik, entzutera utzi zuen bere eskutitzean, Erregeren geriza-pean bere burua, semearekin, segurrean ikusiz zuen bozkarioaren erdian, bazuela ere Gales-ko printzearekin salbatua izaitea zor zaukonaren eremaitera haren oinetara ez ausartzeko bihotz-mina. Erregeren ihardespena, han ezarri zuen esku-zabaltasun eta galant guziaren ondotik, eginbide hortan harekin barne zela izan zen, eta horren erakusteko lehia zuela, Lauzun-go kondea berriz ikusiz eta bere garazia onak berriz itzuliz. Alabainan, erregina Erregeren aitzinera ethorri zenean Saint-Germain-go ibarrean, hara Errege erret-familiarekin eta gorte guziarekin aitzinera jin baitzizakon, Lauzun-i osoki ontsa egin zaukon, hor berean Versailles-ko sartze handiak itzuli eta Versailles-ko jauregian bizitegi bat hitzeman berehala gero eman zaukona; eta egun hortarik hara bat ukan zuen Marly-n bidaia guzietan eta Fontainebleau-n, hala nola nun Errege hil arteo gortea ezpaitzuen gehiago utzi. Goga daiteke gortelari hoin handi-nahiaren loria nolakoa izan zen, itzultze hoin distirantak eta hoin bereziak lezetarik atheratzen zuela eta bapatez airera ezartzen. Bizitegi bat ukan zuen ere gorte ihesle horrendako hautatua zen Saint-Germain-go jauregian, Jakes II-garrena berehala gero hara heldu baitzen.

Lauzun-ek egin zuen han gortelari trebe batek gorte bataren eta bertzearen erabiltzeko badakien guzia, eta Angeleterrakoaren bitartez Erregeri mintzatzeko eta hunen ganik egiteko batzuen ukaitekoa. Azkenean, hortaz laguntzen hain ontsa jakin zuen nun Erregek eman baitzaukon Parisen, Andredona-Marian, Angeleterrako erregeren eskutik Galza-kordako ordenaren ukaiteko baimena, hunek Irlandara egin zuen bigarren iragaitean (Lauzun) bere armada laguntzalearen jeneraletako eman baitzaukon, eta aldi berean Angeleterrako erregeren armadarena izan zadin onhartu, gerlaldi berean Irlanda galdu baitzuen Boyne-ko guduan, eta Frantziara itzuli baitzen Lauzun-go kondearekin, ukaiten zituela azkenean hunendako dukegoako eskutitzak, parlamentuan egiaztatuak izan zirenak 1692-ko ostaroan. Zer fortunaren itzultze mirakuluzkoa! Baina zer fortuna Anderaurenarekin ezkontza publikoak emanen zaukonaren ondoan, hunen ontasun hain handien emaitzarekin,

eta Montpensier-ko duke 'ta pareak orai duen lerroaren eta izenaren ondoan! Zer oinarri izigarria, eta ezkontza hortarik haurrekin, nora etzen Lauzun airatuko, et nork baderrake norano helduko zen?

7. Lauzun-en gorteko zoriona, ezkontza, gogoa, egintzak eta hitzak

Erran ditut bertze nunbait haren omoreak, maltzurkeria ohargarriak eta bitxitasun arraroak. Gainerateko bizi luzean Erregerekilako etxekotasunaz gozatu zen, gorteko hautesmenez, estimu handi batez, ezin gehiagoko nasaitasunaz, jaun handi-handi baten ibilaraz eta biziaz eta gorteko etxe handi-eginenetarik baten atxikitzeko gozoaz, eta mahi hobeneraren, goiz eta arrats, ohorezkienik erabiliaz, eta Parisen berdin Errege hil eta. Hori guzia etzizakon aski. Erregeren gana etzen etxekoki azaletik baizik hurbiltzen; monarka horren gogoa eta bihotza sendi zituen bere aldera mesfidan, eta bere antze eta artha guziez behin ere hurbilduak ukan ahal gabe. Horrek zaukon ene goneta ezkondarazi Erregerekin berriz harreman seriosetan jartzeko xedetan, Lorge-ko marexal Jaunak (*) Alemanian armada manatzen zuenean, eta horrek zen ere harekin horrabots handiz nahasi, bere xedeak alde hortara huts egiten ikusi zituelarik. Horrek zaukon oraino Lorge-ko dukearen ezkontza Chamillart-en alabarekin egin-arazi, berriz lotu nahiz minixtro horrek (Erregeren ondoan) zuen estimuaren bidez. Hortako zuen egin Aix-la-Chapelle-ko bidaia, uren estakuru, han ezagutza egiteko eta hartzeko Erregerekin bakeaz solasaldi batzuetara ereman zezaketenekin, debalde izan zizakona ere. Horrek zuen azkenean ereman Chamillart-en seme abantzu haurraz alegia eta bekaizti izaiteaz egin zituen erokerietara aitaren izitzeko, eta bakearen antolatzeko embaxadaz bere buruaren hara urrun-araztera ekhartzeko. Guziak huts egiten baitzaukon xede horietan orotan, ethengabe deituratzen zen, eta bere burua desgarazia handi batean zuela uste zuen eta erraiten. Gorte egiteko ezer etzuen bazterrera uzten barnez aphaltasunekin eta itxuraz gaitasunekin; eta bazegien urte oroz bere desgariziaren halako urtaburu bat ohigabeko zerbaiten bidez, barnez gogo-ilunekoa eta bakartasunekoa zena, eta ondorioa usu zenbait bitxikeria zuena. Bera hortaz mintzo zen, eta bazion etzela arrazoinean aro hartako urtaburu horren aldia zenean, baina hura baino azkarrago zela. Uste zuen gortelariaren xorroxtasun horrekin Erregeri laket izanen zizakola, bere buruaz trufa-arazten zuela ohartu gabe.

Jitez orotan ohi ez bezalakoa zen, eta hortaz espantu egitea laket zizakon ere, bere etxeko eta mutileria barnekoenetarano. Alegia elkorrarena eta itsuarena egiten zuen hobeki ikusteko eta entzuteko nehor mesfidatu gabe, eta zozoez trufan jostatzen zen, gorenenez ere, buru ez buztanik etzuten solasak haier atxikiz. Arak oro neurtuak zituen, begiratuak, ezti baino eztiagoak, errespetudunak ere; eta doinu aphal eta eztizko horrekin emaiten zituen atheraldi batzu zorrotzak eta bere zuzenaz, indarraz edo irrigarritasunaz lehertzen zutenak, eta hori bizpahirur hitzez, batzuetan itxura laño eta ohartu gabeko batekin, gogoa hortan ukan ezpalu bezala. Mundu guzia salbuespen bat gabe haren beldur zen ere, eta ezagutza ainitz eta ainitzekin, adixkiderik etzuen edo guti, nahiz ukaitea merezi zuen ahal bezenbat zerbitzu egiteko zuen garsutasunaz, eta molsaren idekitzeko errexaz. Etxean hautu zerbaitekoak ziren atzerritarren ukaitea maite zuen, eta gorteko ohoreak ezin hobeki egiten zituen; baina handi-nahiaren har hori alhan zuen eta bizia pozoindatzen zaukon. Jendakia biziki ona zen eta laguntzeari biziki emana.

(…)

Usu gogoetatu niz munduaz zoratua izaiteari bere burua eramaitera utziz den zorigaitz ezin handiagoaz, eta ez aberastasunek, ez etxeko jende gozagarrienek, ez ukan den lerroak, ez adinak, ez gorputzeko ezinak hartarik bazter eztezaketen handi-nahi baten izanara izigarriaz, eta duenaz gostuan gozatu gabe, eta horren bozkarioa senditu gabe, urrikietan eta samintasun debaldeko eta jarraikietan ahitzen denaz, eta gogoari eman eztezakeenaz, haurrik gabe eta bururapenera hanbat hurbiltzen duen adinean, urriki duenaren ukaitea, balia ahal baleza ere, biziari atxik lezaketen lotura enganagarri batzuen ukaitea lizateela, ihes egitera hain hurbildua duelarik, elizazkokeelarik horren uzteko urriki saminenen handitzeko baizik on izan. Baina bizi izana den bezala hiltzen da, eta bekan da bertzela gertatzen. Zer balio handikoa ezta beraz jeusen ez ahaztea bizitzera entseatzeko munduaren eta fortunaren aldera hiltzen ikastekotan, batak eta bertzeak eta biziak utz gindezaten baino lehen, horiek gabe bizitzen jakiteko, eta ontsa hiltzera indar egiteko eta esperanza horren ukaiteko! Zaintzalen kapitaingoko erokeria horrek hain bortizki menean zadukan Lauzun, nun usu soineko urdin galoin zilharrezkoekilako bat janzten baitzuen, hori, ikustaldi egunetan gorputzeko zaintzalen kapitainen jantzia bezalakoa izan gabe, edo barrandarien aldatzetan, ahal zuen bezenbat hurbiltzen baitzizakon, eta

biziki gehiago erret-kapitaingoetako ihiziko kapitainenari, eta irriegingarri bilakatuko zuen ezpalu, bitxikeria ete irrigarritasun bortxaz, jendea hortara jarria ukan, haren beldur baitzen, eta ezpalu bere burua irrigarritasun guziak baino gorago ezarria.

Bere politika eta aphaltasun guziarekin, nor nahiren gainera erortzen zen, beti hitz zorrotzen batez joiten, beti ezti-eztiki. Minixtroak, armadako jeneralak, jende zoridunak eta hain familiak ziren gaizkienik erabiliak. Ebatsia bezala zuen ororen erraiteko eta egiteko zuzenbide bat nehor gaitzitua izaitera menturatu gabe. Agaramundar bakarrak ziren baztertuak. Beti orhoit zen bizi hastapenean haien etxean aurkituak zituen ostatuaz eta gerizaz. Maite zituen, hetaz axolatzen zen; haien aitzinean errespetutan zen. Agaramundeko konde zaharra hortaz behar baino gehiago baliatzen zen eta gortea mendekatzen zuen noiz nahi igortzen zauzkon pikoez, Lauzun-go dukeak hari bat ere nehoiz itzuli gabe, ez eta gaitzitu gabe, baina eztiki huts egiten zuen gogotik. Beti ainitz egin zuen bere arreben haurrendako. Hemen bere aldian ikusi da izurritean zenbat ohargarri izana zen (Belzunz) Marzellako apezpikua, bai ontasunez bai bere buruaz. (Izurritea) osoki iragan izan zenean, Lauzun-go Jaunak abadia bat eskatu zaukon harendako Orléans-ko duke Jaunari. Benefizioak guti berantago eman zituen eta Marzellako Jauna ahatzi. Lauzun-go Jaunak nahi ukan zuen hori ez jakin, eta Orléans-ko duke Jaunari galdegin zaukon hartaz orhoitzeko onezia ukana zuenez. Erreienta eragozpenean gertatu zen. Lauzun-ek, eragozpenaren ezabatzeko bezala, erran zaukon doinu ezti eta errespetuzko batekin: "Jauna, bertze aldi batez hobeki eginen du," eta atheraldi horrekin Erreienta mutu utzi zuen, eta irriño batekin joan zen. Hitzak laster handia egin zuen, eta Orléans-ko duke Jaunak, ahatzi zuena Laon-go apezpikugoaz ordaindu zuen, eta Marzellako Jaunak esposatua zuen elizaz ez aldatu nahiz, abadia gotor bat eman zaukon, nahiz Lauzun-go Jauna ordukotz hila zen.

(…)

Harreman jarrikienean bizi ginen elgarrekin, egiazko zerbitzuak emanak zauztan ere, baliodunak eta adixkidantzazkoak, berainik, eta banituen harendako mota orotako arthak eta adeiak, eta hark enetako. Hala ere enaukon haren mihiari ihes egin ahal ukan galdu behar ninduen hitz batekin, eta eztakit nola eta zergatik etzuen lerratzea baizik egin. Errege beheiti ari zen; geroaz gogatzen hasten ari ziren. Irriegileak etziren Orléans-ko duke Jaunaren alde: haren handitasuna ikusten zen

alta hurbiltzen ari. Begi guziak gainean zituen eta gaizki argitzen zuten, ondorioz ene gainean, aspalditik publikoki atxikia egona zizakon gorteko gizon bakarra bainintzan, eta haren konfienxia osoan ikusten zen bakarra. Lauzun-go dukea auhaltzera jin zizakun etxera, eta mahian aurkitu ginituen. Etzizakon iduriz hango kompainia gustatu, Torcy-ren etxera joan zen, orduan harekin ezpainuen harremanik batere, mahian zena ere Orléans-ko duke Jaunaren etsai ziren jende ainitzekin, Tallard bertze batzuen artean eta Tessé. "Jauna, erran zaukon Torcy-ri hain berea zuen itxura ezti eta herabe harekin, urriki harrazu nitaz, San-Simun-go Jaunaren etxean auhaltzera jaon nahi berri nuen; mahian kompainian aurkitu dut; han jartzetik begiratu niz; eztut alderdi haren ondarkina izan nahi ukan, baten bila hunara ethorria niz." Horra guziak irriz. Hitz horrek Versailles guzian laster egin zuen berehala; Maintenon-go Andereak eta Maine-ko dukeak jakin zuten, eta, bizkitartean, etzizatan den gutieneko jeusik erakutsi; gaitzituz enuen gauza azkartuko baizik; hartu nuen gatu baten aztapar odoldua bezala, eta enaukon utzi Lauzun-i banakiela jakitera.

8. Osagarria, galankeria, omore iluna, heriotzea

Hirurzpalaur urte heriotzea baino lehen, eritasun bat ukan zuen azken mugara ereman zuena. Guziak azkarki jarraiki ginazkon, etzuen gutarik bakar bat ikusi nahi ukan, San-Simungo Anderea ezpada aldi bakar batez. Languet San Sulpizioko erretora hara usu heldu zen, eta batzuetan haren ondorano zilatzen zuen, hura hitzaldi ederrenetan ari (…) Zuen adinean eta eritasuna hoin handia izana gatik, aitzinean zenera laster itzuli zen edozein motako jeus ageri ukan gabe.

Beratasunaren azal enganagarriekin bazuen osagarri bat burdinazkoa. Errotik bazkaltzen eta auhaltzen zen egun oroz, janari biziki handia eta biziki hautukoa hartzen, goiz et' arrats beti kompainia onean, orotarik jaten, gizen eta mehe, hautatzerik batere gabe, ez eta neurtzerik, bere gostua ezpazuen; goizetan xokoleta, eta beti mahian sasoin-ara fruitu zenbait, labe-errekiak bertze batzuetan, zerbeza, sagarnoa, limonada, horrelako bertze edari batzu horman, eta hara jo hunara jo, hetarik hartzen zuen bazkal-ondo guziez, eta bertzeak berdin egitera sustatzen: arratsetan mahitik fruituan atheratzen zen eta etzatera joaiten. Bertze ainitzen artean aldi batez orhoit niz ene etxean jan zuela, eritasun horren ondotik, hanbat arrain, baratzekari eta mota orotako gauzetarik geldi-arazi ukan gabe, nun arratsean haren etxera igorri

baiginuen etzuenez ondorio azkarrik senditu jakiteko eztiki: mahian aurkitu zen gogo onez jaten ari zela.

Galankeriak luzaz iraun zaukon. Anderaurena bekaiztia zen, horrek aldi bat baino gehiagotan nahasi zituen. Fonteneilles-ko Andereari erraiten entzun daukot, emazte biziki maitagarria, izpiritu ainitzekoa, biziki egiatia eta bertute berezikoa, urte ainitzez geroztik Eu-n zelarik Anderaurenarekin, Lauzun-go Jauna hara ethorri zela zenbait egunendako, eta neskatoen ondotik ibili gabe ezin egon; Anderaurenak jakin zuen, haserretu zen, aztaparkatu zuen, bere aitzinetik haizatu. Fiesque-ko kondesak egin zuen akomeatzea: Anderaurena galeriaren buruan agertu zen, hura bertze buruan, eta luzetasun guzia egin zuen belhauriko Anderaurenaren oinetarano. Agerraldi horiek, guti edo aski azkarrak, gero usu berriz hasi ziren. Joitea izaiteaz akitu zen, eta Anderaurena bere aldian zinez jo zuen ere, eta hori batzuetan gertatu zen, hanbatetarano nun azkenean, bata bertzeaz nardatua, behin betikotz samurtu baitziren, eta geroztik ezpaitzuten ehoiz elgar ikusi; bazituen alta etxean (Anderaurenaren) margo-iduri batzu, eta etzuen errespetu ainitzekin baizik aipatzen. Segeretuan ezkonduak zirela etzen dudan emaiten. Hil zenean, (Lauzun-ek) jantzieria abantzu beltz bat hartu zuen, zilharrezko galoin batzuekin, zurira aldatu zituenak, urdin apur batekin urrea eta zilharra jantzierietan debekatuak izan zirenean.

Zuen omore jitez trixte 'ta nekeak, presondegiaz eta bakartasunaren ohiduraz handituak, bakartia eta ameslari bilakatua zuen, hala nola nun kompania hoberena etxean ukanez, Lauzun-go Anderearekin uzten baitzuen, eta baztertzen baitzen arratsalde osoak bakar-bakarrik eremanez, eta beti jarraikian oren batzuendako, libururik gabe, gehienean, ezen etzituen burukeriazko gauza batzu baizik irakurtzen, jarraikitzerik gabe, eta biziki guti; hala nola nun ikusia zuena baizik jeus ezpaitzakien, eta azkenerano dena gorteaz eta munduko berriez hartua. Mila aldiz dolutu zata ikusia eta egina zuenaren izkiriatzeko zuen ahal gabe oso-osoa. Gertakari bitxienekilako thesoro bat izanen zen, baina etzuen jarraipenik ez artha emaiterik batere (…)

Azken eritasuna aitzinekorik gabe agertu zizakon, bapatez bezala, gaitz guzietan lazkarrienarekin, ahoko min-bizia. Bururano jasan zuen ezin sinetsizko bermetasun eta pairamenarekin, zinkurinarik gabe, omore gaxtorik gabe, den ttipieneko ordugaberik batere gabe, hura hortaz bere buruari ezin jasan zena. Bere burua gaitzean apur bat aitzinatua ikusi zuenean, xede hortara Augustin-Xipietako komentuan aitzinetik

alokatua zuen bizitegi ttipi batera baztertu zen, hara etxetik sartzen baitzen, bakean hiltzeko, Biron-go Andereari eta bertze edozein emazteri ezin hatzemana, bereari salbu, ukan baitzuen hara ordu oroz sartzeko baimena, bere emaztetarik bat lagun.

Azken erretreta hortan, Lauzun-go dukeak etzeen sartzea utzi bere iloba eta koinater baizik, eta oraino ahal ukan zuen bezain guti eta laburzki. Etzuen gogoan ukan bere izanara izigarriaz baliatzea baizik, asti guziaren emaitea bere kofesariaren eta etxeko fraide zenbaiten debozionezko solaser, irakurgai oner, eta heriotzera hobekienik presta zezakeen guziari. Baginakusanean, zikinik jeus, ilunik jeus, oinazekotik jeus; ikustatea, gogo berdina, bizitasun gutiko solasaldi bat, munduan gertatzen ari zenaz axolagabea, guti mintzatuz eta nekez; alta, zerbaiten aipatzean, morala guti edo batere, oraino gutiago bere izanaraz, eta berdintasun hoin bihoztun eta baketsu horrek hein berean iraun zuen laur ilabetez, bururano; baina, azken hamar edo hamabi egunetan, etzuen ikusi nahi ukan ez koinata ez ilobarik, eta emaztea, laster igortzen zuen. Sakramendu guziak debozione ainitzekin hartu zituen, eta burua azken ordurano oso atxiki zuen.

(…)

Zeremonia oro, arrazoinekin, debekatu zuen; Augustin-Xipietan ehortzia izan zen; jeus etzuen Erregerenik lehenagoko kompainia belamokodun hura baizik, bi egun berantago ekhendua izan zena. Heriotzea baino ilabete bat lehenago Dillon-en bila igorria zuen, hemen errege Jakes-en egitekoez kargatua, eta aitzindari jeneral biziki hautukoa, Galza-kordako ordenako lepokoa emaiten zaukola, eta harri nabarrezko Georges (errege irudi) bat diamant osoki eder eta lodiz inguratua, printze horri itzultzeko.

(*) Lauzun eta San-Simun Lorge-ko marexalaren bi alabekin ezkonduak ziren (*Itzultzalearen oharra*)

9. Hoin ixtorio luzea hemen, zergatik?

Ohartzen niz azkenean ontsa nasaia izana nizala, haren biziaren berezitasun ohigabekoak eta ahaidego hurbilak harekin eman dautaten harreman jarraikiak ezagun-araz nezan merezi zutela iduritu zatan gizon batez, hanbat gehiago nun ezpaita orotako egitekoetan aski agerian izana agertuko diren ixtorioetan hartaz jeusen igurikatzeko.

Bertze sendimendu batek luzatu du ene ixtorioa. Hara heltzeak izitzen nauen muga baten hunkitzera noa, ene nahikariak ezpaitaitezke egiarekin bat izan; gartsuak ditut, beraz saminak, egia hori izigarria baita

eta oihalez estaltzera ausartzeko ezpaitauta den gutieneko arterik uzten; hortara jiteko lazturak geldi-arazi nau azkenean, ahal ukan dutanari lot-arazi, hormatu. Orléans-ko duke Jaunaren heriotzeaz eta heriotze motaz ari nizala ontsa entzuten da, eta zer ixtorio laztagarria, oroz gainetik horrelako atxikimendu eta hoin luzearen ondotik, haren bizi guzia iraun duenaz geroz ene baitan, eta ene guzian iraunen baitu hartaz lazturaz eta doluz betetzen nauela. Muneterano ikaratzen da, Jainkoak bere hiran entzun zuelako aieruaren izigarriaz.

Orléans-ko duke Erreient ohiaren heriotzea

1. Bapateko gertakari bat

Ikusi da, duela guti, urrundik iragartzen ari zen heriotze baratz baten beldur zela, garazia prezios bat bilakatzen dena ontsa baliatzearen jakitea gaineratua zaukonean, eta hautesten zuena heriotze bapatekoena zela; ondikotz! ukan zuen, eta Monsieur zenarena izan zena baino oraino lasterragoa, haren mekanikak luzazago ihardoki baitzuen. Joan nintzan, negileko 21-ean, mahitik landa Meudon-dik Versailles-era, Orléans-ko duke Jaunaren baitara; hirur oren laurden egon nintzan haren gabinetean harekin bakarrik, han bakarrik aurkitua bainuen. Han ibili ginen beti (gobernuko) egitekoez solasean, Erregeri egun hartan berean hetaz kondu eman behar baitzaukon. Ohian zuen izanarari enaukon ezberdintasunik batere aurkitu, zenbait demboraz geroz loditua eta phizutua ba, baina izpiritua garbi eta arrazoinamendua beti ukana zuen bezala. Berehala Meudon-era itzuli nintzan; ethortzean ephe zenbaitez solastatu nintzan San-Simungo Anderearekin. Urtaroak egiten zuen jendi guti ginuela, bere gabinetean utzi nuen et neurera joan nintzan.

Oren baten buruan gehien-gehienik, oihu batzu eta bapateko harramantza bat entzuten ditut; atheratzen niz, eta San-Simungo Anderea aurkitzen dut dena izitua ekhartzen zautala Ruffec-ko markesaren zaldizain bat, hunek Versailles-tik mezutzen baitzautan Orléans-ko duke Jauna odol-ukaldi batek joa zuela. Azkarki hunkia izan nintzan, baina batere ustegabetua; horren beha nindagon, ikusi den bezala, aspalditik. Phindarretan nago ene karrosaren ondotik, igurika-arazi baininduen jauregi berria zaltegietarik urrun delakotz, barnera jauzi egiten dut eta banoa ahal bezenbat. Parkeko athean, Ruffec-ko markesaren bertze mezu bat gelditzen nauena, eta harenaz egina dela

ikasten dauta. Hor egon nintzan oren bat baino gehiago, bihotz-minean eta gogoetetan murgildua. Azkenean hartu nuen Versailles-ra joaiteko deliberoa, han neure bizitegian hetsirik egoitera joan bainintzan zuzen-zuzena. Nangis, ezkutari lehen izan nahi zuena, gero aipatuko dutan gertakaria, izana zen ene ondotik Orléans-ko duke Jaunaren baitan, eta laster igorria, Falari Anderea haren ondotik, ibilkari arin biziki pollita, bertze arin bat esposatua zuena, Béthune-ko dukesaren anaia. Printze zorigaitzeko horren ohaidetarik bat zen. Bere zakua egina zuen Erregeren egoitzara lan egitera joaiteko, eta anderearekin oren bat hurbil solastatu zen Erregeren gana joan ordu aitzin. Anderea hurbil-hurbila zagola haren ondoan, bakoitza jargia batean, bere burua bazterrez haren gainera erortzera utzi zuen, eta nehoiz geroztik etzuen bere baitaratzeko den phindar xipienik ukan, ez eta iduripen arinena ere.

Falarisa, asma daitekeen heinean izitua, heiagoraz hasi zen bere indar guziz, oihuak berrhetuz. Etzuela nehork ihardesten ikusiz, printze gaixo hura ahal zuen bezala bi jargien beso hurbilduen gainera eman zuen, gabinet handira laster egin, gambarara, aitzin-gambaretara edonor aurkitu gabe, azkenean gortera eta behereko galeriara. Erregerekin lan egiteko ordura zen, Orléans-ko duke Jaunaren jendeak etxera nehor jiten etzizakola segurrean zaudelarik, eta hetaz zer egin etzuela, Erregeren baitara bakarrik igaiten zelakotz bere "hobiko" mailalde xipitik, erran nahi da bere arropategitik, Erregeren azken aitzin-gambarara baitzeman, han zakua zeramanak igurikatzen zuela, eta ohian hara mailalde handitik eta zaintzalen salan gaindi joana. Azkenean Falarisak jendea ekharri zuen, baina laguntzarik ez, bila igorri baitzuen eskupean aurkitu zuenetik. Halabeharrak, edo hobeki Probidenziak gertakari deitoragarri hori ezarria zuen bakoitza ohian bere egitekoetara edo ikustaldiz joana zen ordu batean, hala nola nun oren-erdi on bat iragan baitzen mediku edo barber bat ethorri aitzin, eta apur bat gutiago Orléans-ko duke Jaunaren mutilen ukaiteko.

Ofizioko jendek ikusia ukan zuteneko, galdua zela uste ukan zuten. Lehiaz zolan etzan zuten, han odola ekhendu; egin ahal zaukoten guzian etzuen biziaren hatz den ttipienik eman. Lehenbizikoak abisatuak izan ziren orduko, mota orotako jendeak hara laster egin zuen; gabinet handia eta xipia beteak ziren. Bi oren gabe guzia egina izan zen, eta apurka apurka bakartasuna jendaldea izana zen bezain handia izan zen. Laguntzak ethorriak izan zireneko, Falarisak ihes egin zuen eta Parisera joan lehen bai lehen.

2. Duke Jauna lehen minixtro: San-Simun eta bien solasaldia

Odol-ukaldia jakin zuten lehenbizikoetarik La Vrillière izan zen. Berehala laster egi zuen Erregeri eta (Fleury) Fréjus-ko apezpikuari horren ikasteko, gero Duke Jaunari, ordu gaitz guziez baliatzen badakien gortelari batek bezala; eta printze hori lehen minixtro izan zaitekeela gogoan, abisatzen hotara sustatua baitzuen, etxera itzultzen lehiatzen da eta zer gerta ere hortako eskutiz ageria moldatzen du Orléans-ko duke Jaunarenari jarraikiz. Hunen heriotzea gertau zen ordu berean jakinik, Duke Jaunari erraitera igorri zuen, bera joan zen Erregeren egoitzara, lanjer hurbilaren segurrak hara metatuak baitzituen gorteko jende gotorrenak.

Fréjus-ek, odol-ukaldiaren lehenbiziko berrian, Duke Jaunaren izendatzea egina zuen Erregerekin, hau, iduriz, aitzinetik hortara prestaturik Orléans-ko duke Jaunaren izanara ikusiz, oroz gainetik hortaz errana naukonaren ondotik, hala nola nun Duke Jauna Erregeren baitara heltzen ari zenean, heriotzearen apur bat ondotik, gabineteko athean bildua zen hautetsien gutia sarr-arazi baitzen, eta hor ohartu zen Errege biziki trixte zela, begiak gorri eta bustiak. Sartuak izan zirenean eta doi-doia athea hetsia, Fréjus-ek erran zaukon gora-gora Erregeri Orléans-ko duke Jaunaz egiten zuen galtze handian, hunen laudorioa ezpaitzen bi hitzekoa baizik izan, Haren Maiestateak etzezakeela Duke Jaunaren othoiztea baino hobeki egin egiteko guzien phizua bere gain har zezan, eta lehen minixtroaren kargua onhar Orléans-ko duke Jaunak egina zuen bezala. Erregek, hitzik erran gabe, Fréjus-i so egin zaukon, eta hori buru kheinu batez onhartu, eta berehala Duke Jaunak eskertu zuen. La Vrillière-ek, bere politika lasterraz loriatua, sakelan zuen lehen minixtroaren zina Orléans-ko duke Jaunarenaren moldean egina, eta eskaini zaukon gora-gora Fréjus-i ordu berean egin-arazia izan zadin. Fréjus-ek erran zaukon Erregeri gauza zuzen bat bezala, eta ordu berean Duke Jaunak zin egin zuen. Guti gero Duke Jauna jalgi zen; gabinetean zen guzia jarraiki zizakon; auzoko barnetako jendaldeak jarraitzaleak handitu zituen, eta ephe baten buruan etzen gehiago duke Jaunaz baizik mintzatu.

(…)

Ene aldetik, gau gaixto bat iraganik, Erregeren jeikitzera joan nintzan, ez neure buruaren erakusteko, baina Duke Jaunari hitz baten segurkiago eta errexkiago erraiteko, harekin harreman jarraikian

bainintzan Teilerietako justiziako oheaz geroztik, nahiz biziki gaitzitua baxtarten berriz jartzeari baia bere buruari ekhentzera utzia zuenetik. Jeikitzean beti erdiko leiho-artean emaiten zen, Errege haren aitzinean janzten baitzen; eta, biziki handia baitzen, errex ohartzen zizakon jeikitzearen inguruan zen jende hesi gotorraren gainetik. Hau egun hartan miragarriki handia zen. Mintzatzera jin zakiditan kheinu bat egin naukon Duke Jaunari, eta ordu berean jendea moztu zuen eta enegana jin zen: gabinetari hurbilena zen bertze leiho-artera ereman nuen, eta hor erran naukon hilgarriki dolumindua nintzala enaukola gordeko; aldi berean banuela esperanza nekerik gabe ontsa sinesten zuela lehen minixtro baten hautatzea emana izan ahal balizata, egina zenaz bertze bat enuela egina ukanen, hortan mila adixkidantza egiten zauztala. Gero erran naukon Orléans-ko duke Jaunak Erregerekin lan egitera ereman behar zuen zaku hartan bazela, odol-ukaldi gaitxo horren zorigaitzean, orai haren ondoko zenaz geroz harekin aipatu behar nuen gauza bat; enintzala munduaren jasaiteko heinean, othoi-othoizten nuela haren etxera lan egitera joan nadin jakin-araz zezatan ephe bat libro ukanen zuen bezain laster, eta sarr-araz nindezan galeriara zeman athe xipitik, bizitegia beteko zaukon jende haren guziaren huts egiteko. Hitzeman zautan, eta egun bereko, den garazia handienarekin, eta desenkusak gaineratu bere izanara berriko lehen egun hartako trabaz, ezpazautan bat segurra emaiten, eta nik nahiko nuena. Gabinet hori eta athe hori ezagutzen nituen, bizitegi hori Berry-ko dukesa Anderearena izana baitzen ezkondu zenean, hegal berriaren gaineko galerian, eta enea hurbil-hurbila baitzen, oinez-oin, mailaldearen aitzin-aitzinean.

(…)

Mahitik atheratzen ari nintzanean, Duke Jaunaren gambarako mutil bat jin zizatan ene beha zagola erraitera, eta ereman ninduen athe ttipitik haren gabinetera. Athean hartu ninduen, hetsi zuen, jargia bat eman zautan eta bertze bat hartu. Goizean aipatua naukon egitekoaz argitu nuen, eta hura eztabadatu ondoan, egunekora jin ginen. Erran zautan Erregeren jeikitzetik landa, Chartres-ko duke Jaunaren (*) egoitzara izana zela, eta, doluminetako komplimenduen ondotik, menean ukan zezakeen guzia eskainia zaukola haren adixkidantzaren merezitzeko, eta Orléans-ko duke Jaunaren orhoitaz egiazki hunkia zela erakusteko: hortan, Chartres-ko Jauna mutu egona zela, gauza orotan hari laket izaiteko nahikariak eta hitzemaiteak berrhetuak zauzkola; azkenean silaba bakun eta idor bat jin zizakola, eta despeditzeko aire

batekin, Duke Jaunari joaiteko deliberoa harr-arazia zaukona. Erran naukon ene aldetik goiz hortan berean printze horrekin berarekin gertatua zizatana, hartaz bat bertzeari deitoratzen ginela. Duke Jaunak ainitz adixkidantza eta ikustate egin zautan, eta galdegin, joaitera uzten ninduelarik, enintzanez aski usu haren ikustera jinen. Ihardetsi naukon egitekoez eta jendez lehertua izanen zen bezala, haren eta harekin lan egin beharko zutenen nardatzera jiteko arranguran izanen nintzala; aski izanen zizatala haren ikustera jitea zerbait erran behar ukanen naukonean, eta enintzalakotz aitzin-gambaretan egoiten jarria, othoizten nuela bere jender mana zezeen haren etxean agertuko nintzanean jakin-araz zezoten, eta berak gabinetean sarr-araz nindezan ahal ukanen zuen lehenbiziko artean, entseatuko bainintzan ez luze ez aspergarri izaitera. Adixkidantza metan, komplimendu, gomit, eta bertze; horrek guziak hirur oren laurden iraun zuen; eta Meudon-era ihes egin nuen.

(…)

(*) Chartres-ko duke izena orduan Orléans-ko duke Erreient zenaren seme legezko bakarrarena da. (*Itzultzalearen oharra*)

3. Orléans-ko dukea hil eta, atzerria eta erresuma

Monseigneur berrogei-ta bederatzi urte 'ta erditan hila zen, eta Orléans-ko duke Jauna bi ilabete gutiago bizi izan zen. Bizi iraupen hoin berdina gomparatzen dut, bi printze horiek bat bertzearen aldera ikusi diren izanararen gatik, Monseigneur-en heriotzerano. Horrelakoak dira mundu hau eta hunen ezteusa.

Orléans-ko duke Jaunaren heriotzeak harrabots handia egin zuen herrian eta atzerrian; baina atzerriek berdinik gabe justizia gehiago eman zaukoten eta Frantzesak baino biziki gehiago dolutu ziren. Nahiz atzerritarrek bazakiten haren ahulezia, eta Angelesak hortaz bitxiki eta bortizki baliatuak ziren, etziren hala ere jakin gabe, phorogatua zutenaz, haren izpirituaren hedamena eta zuzena, haren jeinuaren eta ikusmenen handia, zorroztasun berezia, haren politikaren zuhurtzia eta trebetasuna, jalbide 'ta atherabiden emankortasuna, eginararen trebea gertaldi eta gertakarien aldatze guzietan, gauzen ikertzeko eta ororen antolatzeko argitasuna, minixtroen eta erresumek igortzen zauzkotenen gainean nagusitasuna, egitekoen argitzeko, itzultzeko zuen hauteko ezagutza, ordu berean eta orori nahi zuenean ihardesteko errextasun jakitateduna. Gobernatzeko hoin gaitasun handi eta arraroek hartaz beldurr-arazten zituzten eta gupida-arazten, eta hortan ezartzen zuen garaziak, eta

ezetarano gozagarri izaiten bazakienak, maitagarri egin-arazten zeeten oraino. Gainera estimatzen zuten haren kuraia handi eta jitezkoa. Dubois zorigaitzekoak printze hori ezteustua bezala zuen lillurazko hutsune laburrak, etzuen haien begietan goititua baizik, printzearen eginara, berea zuenean, haren izena baizik etzakarren eta minixtroarena zenarekin erkidatzeaz. Ikusia zuten, minixtro hori hil eta, printzea berriz gobernuko lardaiaren hartzen aitzinean haren baitan miretsiak zituzten antze berekin; eta delako ahulezia hura, zuen huts handia, atzerrian barnean baino gutiago senditzera uzten zen.

Erregek, zuen errespetu ezin aldatuaz hunkia, hari gustatzeko zuen arthaz, mintzatzeko moldeaz, eta harekin lan egitekoaz, nigar egin zuen eta haren galtzeaz zinez hunkia izan zen, hala nola nun ezpaitu geroztik behin ere aipatu, eta hori usu gertatu da, estimu, maitasun eta dolurekin baizik, hanbat da egia bere baitarik agertzen, gezurren antze guzia eta gaitzerraite itsusiena izanik ere, horien aipatzeko aldia ukanen baitut *Orhoitzapen* hauer eman gogo dauetan osagailuan, Jainkoak astia utzi nahi badauta. Duke Jaunak, galtze horrek hain gora bazeramana, hortan ibilara zuhur eta beharbezalako bat ukan zuen. Dukesa Anderea biziki neurri onean egon zen; baxtartek, aldan ezpaitzuten irabazten, etzuten bozkariatu ahal izan. Fréjus-ek geldirik egoitera behatu zuen. Uztarri horren azpian izerditan ikusten zen, bere bozkarioa, esperanza ixilak noiz nahi agertzen zizazkolarik, eta egonara berak nahi gabe dirdiratzen.

Gortea zatitua izan zen, han gogo zuzena jaidura eta gutiziek usteldua baitute. Izan ziren jende begi onekoak, atzerritarrek bezala ikusten zutenak, eta jarraikian haren izpirituko gozagarriaren lekuko izanik, hari hurbiltzeko errextasunaren, jenden entzuteko behin ere uhertzen etzen pairamen eta eztitasunaren, hain jitezko moldez bere buruaren hartaz aphaintzen bazakien oneziaren, nahiz etzen batzuetan itxurazkoa baizik, behin ere laidoztatu gabe jendearen baztertzeko eta igortzeko zituen atheraldi atsegingarrienen, haren galtzearen phizu guzia senditu baitzuten. Bertze batzu, gehiago, gaitzituak izan ziren ere, baina doluz ondokoaren eta hunen ingurumenaren ere jitearen ezagutzeaz baino ontsa gutiago. Baina gortearen gotorrenak etzuen dolurik batere ukan: batzu alderdi etsaietakoak, bertze batzu haren biziko eskandalaz eta atxiki gabe hitzemaiteaz egina zuen jokoaz suminduak, ainitz gaitzituak, abantzu oro ontsa arrazoin gabez, mundua hetaz betea den eskergaitz elemenia bat, bere fortuna eta xedendako ondokoaren ganik

ezperanza gehiago ukaitekotan zirela uste zutenak, azkenik berrikerien maitale zozo andana bat.

Elizan, beatak eta debotak berak loriatu ziren haren biziko eskandalaz arinduak izaiteaz, eta haren behazunak sineskabe 'ta atsegaler (*) emaiten zeen indarraz; eta jansenistak eta konztituzionariak, handinahiz ala zozokeriaz, guziak konsolatuak izaiten batu ziren. Lehenbizikoek, hastapen itxaropenez bete batzuez bilduak izanik, geroztik haren ganik Errege zenaren ganik baino gaizkiago jasana zuten; bertzeak, oro haizu utzia etzizeelakotz errabiaz beteak, guziak suntsitu nahi batzituzten, eta behin betikotz eta bermuki Eliza galiarraren aztura eta libertateak aurdiki, apezpikuen larderia mugarik gabe jarri, eta hauer eman apezpiku botherearen izanara zahar, ororendako eta erregeren ere beldurgarrira itzultzea, lorian ziren jeinu goien batez liberatuak izaiteaz, haier jendearen uztea aski baitzizakon, baina bermukiegi gelditzen baitzituen gogoan zuten xede handian, haien itzul-inguru guziek hartara baitzeramaten, eta guziaren esperanzan baitzauden ikusten ohartua etzizeen ondoko baten ganik, errex burxoratuko zutela, eta harekin librokiago ausartuko zirela.

(Parisko) parlamentuk, eta hark bezala bertze parlamentu guziek, eta lege-gizoneria guziak, hau, beti bilzarrean izanez, hain errex izpiritu berdinaz sustatua baita, Orléans-ko duke Jaunari etzauzkoten barkatu ahal ukanak parlamentuak berak, egintza ozarrenen bidez, haier hel egitera aldi bat baino gehiagotan bortxatua zuen larderia ukaldiak, (printzearen) asti-arte luzek eta pairamen luzegiak ekharria baitzuten bere larderiaz buluzten uztera, (parlamentuak) berak hortaz jabetu nahiz. Nahiz trebetasunaz, gero ausartasunaz, parlamentua heldua zen larderia ukaldi horien gehienen ondorioetarik gerizatzera, etzen gehiago bere urratsari jarraikitzeko heinean, eta Erreientak ezarriak zauzkon mugetarik gelditzen zenaz, helburu haina maitatu horrek ihes egina zaukon. Ukan zuen bozkario ilun eta gordea etzuen hertsatu liberatua izanez, hainbertze gauza hari ekhenduak ukan ondoan, guzia ereman ahala etzaukon gobernu batez, eta juztiziako gorte xoil baten gatik bere izanara ez aldatu ahal ukanik Angeleterrako parlamentuarenera, baina gambara goiena uztarri pean atxikiz (**).

(*) Hemen bi hitz horiekin itzultzen da San-Simunen eta haren aroko erdaraz *libertin* hitzaren erran nahi bikuna: bata bizimoldean eta ohiko moralari buruz (*libertin de mœurs*), bertzea zuzenago erlisioneari buruz eta sineskabetasunean (*libertin d'esprit*).

(**) Badiduri Frantziako parlamentuko "gambara goiena" aipatuz, Angeleterrako "Lorden gambara" bezala, gure dukeak duke 'ta paren bilkura duela gogoan. (*Itzultzalearen oharrak*)

Soldadoeria, hauturik gabe ithoa grado orotara manatzez, eta San-Luisen ordenako gurutze esku betez botatuen barreatze nasaiaz eta usuegi bulegoen eta emazten bidez erosienaz, gradoetan aitzinatzeak bezala, azken miseriara hertsatzen zuen zuhurreria ezin handiagoaz sumindua zen, eta egiazko esklabotasun batean bazatxikan nagusitasunaren larderia hertsiaz. Soldataren goititzeak etzuen soldadoa ez zaldizkoa den gutienik hunkia, biziko gauza arruntenen eta baitezpadakoenen khario ezin handiagoaz, hala nola nun Estatuko zati hori, hain gotorra, hain hedatua, hain ainitza, ehoiz baino gehiago bulegoen eta bertze jende edo gaitzeskarri edo guti estimagarrienen menean nardatua eta hertsatua, ezpaitzen gozatua senditua ahal izan uztarria arindu ahalko zaukon, eta zerbitzuko ordenuari malgutasun gehiago eta mereximenduari eta zerbitzuer adei gehiago emanen zaukoten aldatzearan esperanzan.

Azkenik, Parisko eta probinzietako gehiena, dirutzetako egintza bortitzez eta diruaren biltzeko betiereko godalet jokoaz etsitua, fortuna guziak airera emaiten baitzituen eta familia guzietan nahasmena ezartzen, gainera egintza horiek gauza guziak, bat ere baztertu gabe, hanbat aberaskeriakoak nola biziko lehen beharrekoak, igan-araziak zituzten kharioaz sumindua, bazuen aspaldi auhenetan zagola, auherretan bezain segurki, beharraren eta nahikariaren azkarregiaz, asmatzen zuen liberatze eta arintze baten ondotik. Nehor ezta, azkenean, zerbaitez segurrean izaitea maite eztuenik, trebetasunezko eta inkaminazko jokoez lastimatzen eztenik, eta gelditu gabe, duen zuhurtzia guzia ukanik ere, huts egin eztaitezkeen amarru eta enganamenduetara erortzeaz; aitzinekoetarik ukana duenaren edo fortunaren urtzen eskuen artean ikusteaz, bere zuzenean eta legetan gerizapenik aurkitu gabe, eta nola bizi eta bere familia nola lagun gehiago ez jakiteaz.

Egonara hoin bortitzak eta hoin orotakoak, dirutzer bat bertzearen ondotik emanak zezteen itxura hain elgarren kontrakoetarik baitezpada sortuak, Luis XIV-garrenaren heriotzean aurkituak ziren nahasmenaren eta hondamenaren antolatzeko gogo hutsezkoan, ezin zezakeen jendea dolu-araz horren egilea bezala ikusten zuenaz, hala nola axolagabeko norbaitek oinaren gainera eror-arazia dauen zur mutur bati nigarrez jazartzen diren haur horiek, zur hori, haserrean, bere indar

guziaz botatzen dutela, sendi duten minaren egilea bezala, egile egiazko eta bakarra den ibiltzaleari den gutienik ohartu ere gabe. Hori da gertatuko zela aitzinetik ikusia nuena dirutzetako antolamenduarekin, edo hobeki erran gero eta gehiagoko nahasmenarekin, eta Orléans-ko duke Jaunaren gain emaitetik ekhendu nahi nuena eskainiak nauzkon Estatu Jeneralen bidez, eta onhartuak zituenak, Noailles-ko dukeak egitea hautsi zuelarik Errege hil zenean, bere abantaileko, *Orhoitzapen* hautan bere lekuan ikusi den bezala. Jarraiki diren urtek hainbertze begietarik ezkatak eror-arazi dituzte, eta Orléans-ko duke Jaunaz dolu-arazi dute, eta eman daukote azkenean beti zor izana zizakon justizia.

Egilea *Orhoitzapen*-en aztertzen

Huna nun heldua nizan azkenean *Orhoitzapen* hauk eremanen nituela xedatua nuen azken mugara. Onik eztaiteke izan osoki egiazkorik baizik, ez eta egiazkorik izkiriatzen dituen gauzak ikusiak eta eskuztatuak dituen hark berak idatzirik baizik, edo jende sinesteko gaienak direnen, berek ikusiak eta eskuztatuak dituztenen ganik dituenak; eta gainera, idazten duenak egia maite ukan behar du harendako gauza ororen uzterano. Azken gai huntaz, neure buruari lekukotasunaren emaiteko ausartzia badut, eta ezagutu nautenetarik batek hori uka elezakeela sinestekoa. Egiaren amodio horrek berak dauko gehienik ene fortunari kalte egin; hori usu senditu dut, baina egia orori hautetsi dut, eta eniz edozein mozorrotzera makurtu ahal izan; baderraket oraino minki maite ukan dutala nihauren kontra ere. Errex ohartu zee hetara erori nizan enganaioer, eta batzuetan gotorrer, adixkidantzari edo bertze edozein arrazoini, neure abantail edozeini, estakururik gabe, hautetsi daukotan Estatuaren amodioak lilluraturik, hala nola ere izkiriatzeaz axolatu enizan bertze gertaldi batzuetan, ezpaitzautaten nihauri baizik behatzen, gobernuko egitekoen edo munduaren urratsen argitzearekin eta jakin-nahiarekin loturarik batere ukan gabe. Ikus daiteke Noailles-ko dukeari dirutzen eman-araztean berme egon nintzala, uste ukan bainuen, ontsa ordu gaizki, hortako gaiena zela, eta eman ahal zitzezteen jaunen artean aberatsena eta jorituena, ene aldera egin berria zuen gaixtakeria handienaren lehenbiziko egunetan beretan. Ikusten da oraino Maine-ko dukearen salbatzeko egin nuen guzian nihauren bi abantail bizienen eta kharioenen kontra, uste bainuen etsai bier, hari eta parlamentuari, aldi

berean jaukitzea lanjeros zela, eta lehiatuena orduan parlamentua zela, gibelera utz etzaitekeena. Bi egintza horiek aski zazta, gertatu diren arau *Orhoitzapen* hautan barreaturik aurkitzen diren bertzetan gelditu gabe, gobernuko egitekoekin edo gorteko gauza eta jendekin zer ikus ukan dutelarik.

Hunkitzeko gelditzen da alderdigabetasuna, hoin baitezpadakoa eta hoin nekea uste den gai hori, ezina dena, eniz erraiteko beldur, ikusi eta eskuztatu duena idazten duenarendako. Jende zuzen eta zintzoez loriatzen da; gortetan ihaurri diren frikunez haserretzen; eta oraino gehiago haien ganik gaitza ukana denez. Gogo berdintasuna amets eder eta noblea da. Eztut beraz alderdigabetasunaz espantu egiten, debaldetan banegike. Sobera aurkituko da, *Orhoitzapen* hautan, laudorioak eta gaizkiak berainik dariotela haien ganik hunkia nizanen aldera, eta bata nola bertzea hotzagoa dela ezpaian uzten nautenenera; baina beti bizi-bizia alta bertutearen aldera, eta jende zuzengaitzenera, dituzten bizioen ala bertuten araura. Bizkitartean, lekukotasun hau emanen daukot oraino neure buruari, eta badut ustea *Orhoitzapen* hauen oihalak eztautala gutiago emanen, ezin gehiago begiran egon nizala ene amodioen eta gorromioen kontra, eta gehiago oraino azken hauen, batzuez eta bertzez haztagailua eskuan baizik ez mintzatzeko, ez bakarrik jeusen ez bortxatzeko, baina ez handitzeko, neure buruaren ahazteko, neure buruaz etsai batez bezala mesfidatzeko, justizia zuzen baten emaiteko, eta ororen gainean egia hutsenaren ager-arazteko. Molde hortan dezaket segurki erran osoki alderdigabea izana nizala, hala izaiteko bertze molderik eztela uste baitut.

Erraiten dutanaren zuzentasunari eta egiari doakonaz, *Orhoitzapen* hautarik beretarik ikusten da abantzu guzia eskuetarik iragana zautanetik hartua dela, eta gaineratekoa, erakartzen ditutan gauzetan ari izanak zirenen ganik jakina dutala. Izendatzen ditut; eta haien izena haiekin ukan dutan lotura mina bezala aieru orotarik salbu da. Gutiago segurrik jakin dutana, hala emaiten dut; eta jakin eztutanaren aithortzeko, eniz ahalge. Horrela *Orhoitzapen* hauk ithurritik datoz, eta jaioak dira. Duten egia, zintzotasuna, dudan ezin emana da; eta uste dut baderraketala gai gehiago, barnatuago, xehatuagorik ukan dutenik eztela hunarano izan, ez eta multzo erakasgarriagorik eta ohargarriagorik.

Hortarik ezer ezpaitut ikusiko, eniz axolatzen. Baina *Orhoitzapen* hauk egun batez argiratzen baldin badira, eztut dudatzen gaitzeko jazartzea sustatuko dutela. Bakoitza bere etxekoer atxikia da, abantailer,

nahikarier, ametser, eta horietan deusek eztezake den kontra-erran ttipiena jasan. Ezta egiaren adixkide izaiten, fagoratzen duen arau baizik, eta gauza horietan guzietan guti du fagoratzen. Hetaz ona erraiten denek esker onik batere eztute, egiak hala nahi zuen. Biziki ainitzago, berdin aipatzen eztirenak hanbat gehiago haserretzen dira nun gaitza egintzek phorogatzen baitute; eta izkiriatu dutan aroan, azkenera bereziki, guzia erortzera baitzoan, nahasmenera, hondamenera, geroztik ezpaitu handitzea baizik egin, eta *Orhoitzapen* hauek ezpaitute aipatzen ordenu, erregela, egia, eginbide segurrik baizik, eta horien etsai den guzia agerian erakusten, gero eta gehiago nagusi baitira gobernu jakingabe, baina osoenaren azpian, inharrosaldiak orotakoa izan behar du egiaren miraila hunen kontra. Eztira ere Estatuak pozoindatzen dituzten izurrite horiendako eginak, bere erokeriaz, abantail-nahiaz, eta galtzea lehiatzen daueten bide guziez suntsi-arazten dituztela, baina horren baztertzeko argituak izan nahi dutenendako, zorigaitzez arthoski urrunduak direlarik alta argiaren baino gehiago jeusen beldur eztiren kargudunez eta botheredunez; eta justiziaz, egiaz, arrazoinaz, erregelaz, politika zuhurraz bertze, bakarrik on publikoari buruz itzulirik, edozein abantail nahi ukan eztezaketenendako.

Ohar bat egiteko gelditzen zata jende ainitzekin ukan ditutan solasaldiez, bereziki Burgoñako duke Enejaunarekin, Orléans-ko duke Jaunarekin, Beauvillier-ko Jaunarekin, minixtroekin, aldi bat Maine-ko dukearekin, hirurzpalaur aldiz Errege zenarekin, azkenik Duke Jaunarekin eta ainitz jende gotorrekin, eta eman dutan aburuaz, hartu, eman edo eztabadatu ditutan abisuez. Halakoak direnak badira, eta ainitz, nun baitakusat ezagutu enuen irakurtzale bat eremana izanen dela ixtoriogile batzuek, bere liburuen aphaintzeko, embaxadore, zenadore, jazarkide batzuer usu beretik emanak dezteeten alegiazko hitzaldi horien lerroan ezartzera. Baina aithor dezaket, ene luma orai arteo bidatua duen egia berarekin, eztela hitzaldi horietan bat, erran ditutanetan eta erakartzen, *Orhoitzapen* hautan ezarria eztena egia zuzenenarekin, eta nihaurek atxikiak ditutanak berdin; eta zerbait baliz hartaz neure burua erasia nezakeenik, neureak azkartuak baino gehiago ahulduak ditutala hemen erakarri ditutanean lizate, orhoitzeak xehetasun batzu ahatz baitezazke, eta gauzez eta gertakariez hunkia izanez, errana dena gero erakartzen den baino bizi eta indar gehiagorekin mintzatzen baita. Gaineratuko dut, hemen gainean erakutsia dutan konfienxia berarekin, nehork, ni ezagutu nuen eta enekin bizi izan den guzian, elezakeela

aierurik batere ukan solasaldi horiez badagitan ixtorioaren zuzentasunaz, diren azkarrak izanik ere, eta bat elizatekeela hor jaio ezagun enindezakeenik.

Beti laket ukan eztutan gauza bat, Orhoitzapenetan, bertze batzuen artean, hau da: burura heltzen denean irakurtzaleak begieterik galtzen dituela gehienik aipatu diren jende gotorrenak, eta ere haien biziko berezitasuna uhertua gelditzen dela. Nahi lizateke berehala jakin zer bilakatuak diren, bila bertze norapait joan gabe, auherkeriak jakin nahi lizatekeenaren kaltetan geldi-arazten duen neke batekin. Hori da hemen baztertu nahi dutana, Jainkoak astia bademata. Ezta orotan barne nintzanean bezalako xorroxtasunarekin izanen. Nahiz Fleury kardinalak jeus eztautan gorde atzerriko egitekoetan jakin nahi nuenetik, abantzu beti berak aipatzen baitzauztan lehenik, eta ere gorteko gauza zenbaitetarik, hori guziari hain guti nindakon ene aldetik jarraikitzen eta hanbateko axolagabean, eta are gehiago minixtroekin edo bertze jende jakinduru batzuekin, hoin hutsune handiez moztua izanez, nun ontsa beldur bainiz ene *Orhoitzapen* hauen eranskin edo jarraipen hori biziki ahitua izan eztadin, gaizki argitua eta hunarano izkiriatua dutanetik biziki ezberdina; baina ikusiko da bederen zer bilakatu diren *Orhoitzapen* hautan agertu diren jendeak, hori baita dutan xede guzia, Fleury kardinalaren heriotzerano. (*)

(*) Fleury 1743-an hil zen. Dukeak aiphatzen duen *Orhoitzapen*-en eranskin edo jarraipen hori ezta argitu edo aurkitu. Ohar gaiten alta 1718 urtean San-Simunek emana zuela bi lehen minixtro horien "erreinuaren" laburpen bat. Ikus: **Alberoni Espainian, Frantzian Dubois eta hunen ondokoak … 3. Gobernua Dubois-ren ondotik: Duke Jauna eta Fleury kardinala (1723-1743)** orr. 56-58**.** (*Itzultzalearen oharra*)

Erranen duta hitz bat azkenean estiloaz, haren axolagabeaz, hitz beren errepikatze hurbilegiez, batzuetan erran nahi bereko hitz sobera gehietuez, oroz gainetik erranaldien luzetik usu sortzen den ilunaz, errepikatze zenbaitez behar bada? Huts horiek senditu ditut; eztitut baztertu ahal ukan, beti gaiak eremaiten ninduela, eta haren emaiteko moldeari guti behakor, argitzeko ezpada. Enintzan behin ere akademietako gai bat izan, lasterrez izkiriatzea eztut behin ere utzi ahal ukan. Ene estiloaren hobetzea eta gozagarriago egitea zuzenduz, lan guziaren berregitea lizate, eta lan horrek ene indarrak gaindi lezazke, eskergabea izaiteko irriskuan lizateke. Izkiriatua denaren ontsa zuzentzeko ontsa izkiriatzen jakin behar da; eztutala horrelako usterik

ukan ahal errex ikusiko da hemen. Gogoan eztitut egia eta zuzentasuna baizik ukan. Bata ete bertzea hertsiki ene *Orhoitzapen*-etan aurkitzen direla erraiteko ausartzia hartzen dut, haien lege 'ta arima direla, eta haien fagoretan, estiloak urrikalmendu ezti bat merezi duela.

*

AURKIBIDEA

Solas-aitzin. Avant-propos ---------- orr. 2
I "Besta has dadila" ---------- orr. 3
1716 ---------- orr.3
1717---------- orr. 22
II Neke 'ta lanjerren aldi ---------- orr. 68
1718 ---------- orr.68
1719 ---------- orr. 148
1720 ---------- orr. 163
III Dukea Espainian embaxadore ---------- orr. 185
1721 ---------- orr. 185
1722 ---------- orr. 240
IV Azken gertakariak, azken gogoetak ---------- orr. 276
1723 ---------- orr. 276

*